EUSKAL HERRIKO EKONOMIA

ERALDAKETA SOZIOEKONOMIKOAK EUROPAKO BATASUNEKO INTEGRAZIO-PROZESUAN

Koordinatzaileak:
Yolanda Jubeto
Solange Mariluz
Mikel Zurbano

Egileak:
Alejandro Arizkun, NUP-eko irakaslea (arizkun@unavarra.es)
Xabier Barrutia, EHU-ko irakaslea (eupbaetx@bs.ehu.es)
Anton Borja, EHU-ko irakaslea (eupboala@bs.ehu.es)
Goio Etxebarria, EHU-ko irakaslea (eupetkeg@lg.ehu.es)
Helena Franko, EHU-ko irakaslea (eupfribh@se.ehu.es)
Begoña Garcia, EHU-ko ikertzailea (eudgasab@bs.ehu.es)
Mikel Gomez Uranga, EHU-ko irakaslea (eupgourm@bs.ehu.es)
Galder Guenaga, EHU-ko irakaslea (eipgugag@lg.ehu.es)
Yolanda Jubeto, EHU-ko irakaslea (eupjuruy@bs.ehu.es)
Solange Mariluz, Ekonomia irakaslea eta HEMEN elkartea (xole@club-internet.fr)
Garikoitz Otazua, EHU-ko irakaslea (eupotgag@lg.ehu.es)
Mikel Zurbano, EHU-ko irakaslea (eupzuirm@bs.ehu.es)

Udako **Euskal Unibertsitatea**
Bilbo, 2002

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

«Liburu hau Hezkuntza, Unibertsitate eta
Ikerketa Sailaren laguntzaz argitaratu da»

© Udako Euskal Unibertsitatea

ISBN: 84-8438-025-4
Lege-gordailua: BI-992-02

Inprimategia: RGM, Bilbo
Azalaren diseinua: Iñigo Ordozgoiti
Hizkuntza-zuzenketen arduraduna: Jose Ramon Etxebarria Bilbao

Banatzaileak: UEU. Erribera 14, 1. D BILBO telf. 946790546 Faxa. 944793039
Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.org
www.ueu.org

Zabaltzen: Igerabide, 88 DONOSTIA

Aurkibidea

*HITZAU*RREA. 11

1. KAPITALISMOA ETA INDUSTRIALIZATZE-PROZESUAK, 1850ETIK 1940RA BITARTEAN, Alejandro Arizkun 15

   1.1. Euskal Herriaren eta haren lurraldearen ekonomiaren espezializatzea, antzinako erregimenaren bukaeran. 16
   1.2. XIX. mendeko erakunde-aldaketa liberalak. Sistema fiskala eta aduanak 21
   1.3. Ondasunen produkzioa, 1850-1940: kostaldearen industrializazioa 25
   1.4. Merkatuen zabaltzea eta barneko espezializazioa, 1850-1940 bitartean 33

2. EUSKAL HERRIKO BILAKAERA EKONOMIKOA: AUTARKIATIK EUROPAKO BATASUNERA, Alejandro Arizkun 39

   2.1. Sarrera 39
   2.2. Euskal ekonomiarentzako traba autarkikoa: 1941-1959 39
   2.3. Barne-espezializazioaren aldaketak eta desarrollismoaren garaia: 1960-1973. 46
   2.4. Krisialdi ekonomikoa eta eskualdekako agerpen disparekoa: 1974-1986 53

3. IPAR EUSKAL HERRIKO EGOERA SOZIOEKONOMIKOA AZKEN 20 URTE HAUETAN, Solange Mariluz 59

   3.1. Egoera soziodemografikoa. 59
      3.1.1. Datu demografiko orokor zenbait 59
         3.1.1.1. Populazioa hazten ari da, eta lurralde-desorekak areagotuz doaz 59
         3.1.1.2. Berezko saldoa negatiboa da. 60
         3.1.1.3. Migrazio-saldo positiboak galtzeak estaltzen eta gainditzen ditu. 62

3.1.2. Hiritartzen ari den populazioaren hiru dinamika desberdineko eskualdeak 63
3.1.2.1. Kostaldearen hazkunde erregularra 64
3.1.2.2. Lapurdi barnealdearen hazkunde azkarra 66
3.1.2.3. Barnealdearen hustea 67
3.2. Biztanleria aktiboa 70
3.2.1. Emaitza orokorrak 70
3.2.1.1. Biztanleria aktiboaren emendioa biztanleria osoarena baino azkarragoa gertatu da 70
3.2.1.2. Jarduera-tasa gora doa, nahiz aski apala den 71
3.2.1.3. Populazio aktiboaren banaketa populazio osoak izan duen bilakaera bezalakoa izan da 71
3.2.1.4. Sexuen arteko desoreka murrizten ari da 72
3.2.1.5. Biztanle aktibo gazteen (15-30 urtekoak) kopurua murriztuz joan da, eta biztanle aktibo adintsuena (45-60 urtekoak) emendatuz 72
3.2.2. Langabezia 73
3.2.2.1. Langabezia (biztanleria aktibo ez okupatua) azkarki emendatu da 73
3.2.2.2. Langabezia-tasa azkarra hiri-inguruneetan 73
3.2.2.3. Emazteak gizonak baino gehiago hunkituak dira . . 74
3.2.2.4. Langabezia-tasa altuak gazteen artean 75
3.2.2.5. Epe luzeko langabezia langabetuen erdia baino gehiagorentzat 75

4. INGURUMENA ETA LURRALDEAREN ANTOLAKETA, Galder Guenaga 109

4.1. Ingurumena 109
4.1.1. Ekonomia/Ingurumena bikotea 109
4.1.2. Garapen jasangarria 113
4.1.3. Ingurumenaren auzia Euskal Herrian 115
4.1.4. Azken hausnarketak 119
4.2. Lurraldearen antolaketa 120
4.2.1. Lurraldearen antolaketa Euskal Autonomia Erkidegoan . . . 122
4.2.2. Lurraldearen antolaketa Nafarroa Garaian 128
4.2.3. Lurraldearen antolaketa Ipar Euskal Herrian 130
4.2.4. Euskal Herriko herrialdeen arteko lankidetza, lurraldearen antolaketari dagokionez 132
4.2.5. Azken hausnarketak 133

5. AZPIEGITURA-SAREAK ETA GARAPENA, Goio Etxebarria, Helena Franko eta Begoña Garcia 137

5.1. Garraio-azpiegiturak. 137
5.1.1. Garraioko azpiegitura-sareak eta erregio-garapen ekonomikoa 137
5.1.2. Euskal Herriko garraioko azpiegitura-sarearen bilakaerari gainbegiratu historikoa 139
5.1.3. Euskal Herriko garraio-azpiegitura nagusien aurkezpena. . . 141
5.1.3.1. Errepide-sarea 141
5.1.3.2. Trenbide-sarea 142
5.1.3.3. Portuak 144
5.1.3.4. Aireportuak 145
5.1.4. Etorkizuneko arazoak eta erronkak 146
5.2. Azpiegitura teknologikoak 147
5.2.1. Berrikuntza-sistemaren osagaiak 149
5.2.1.1. Zientzi ingurua 149
5.2.1.2. Teknologia-ingurua 151
5.2.1.3. Ekoizpen-ingurua 153
5.2.1.4. Finantza-ingurua 155
5.2.2. Eskualdeko gobernuaren politikak 156
5.2.3. Berrikuntza-sistema. 157

6. SEKTOREEN ARTEKO BANAKETAREN BILAKAERA, Mikel Zurbano 161

6.1. Egiturazko aldaketa Euskal Herrian 162

7. LEHEN SEKTOREA, Yolanda Jubeto 167

7.1. Lehen sektorearen BEG-aren eta enpleguaren bilakaera 168
7.2. Lehen sektorearen banaketa geografiko eta sektoriala. 170
7.2.1. Nekazaritza eta Abeltzaintza 171
7.2.1.1. Europako Nekazaritzako Politika Bateratuaren eragina 172
7.2.1.2. Nekazaritzaren aukera nagusiak 174
7.2.2. Basogintza 175
7.2.3. Arrantza-sektorea 176
7.2.3.1. Arrantza-sektorearen joera nagusiak eta egungo egoera 177
7.2.3.2. Eusko Jaurlaritzaren arrantzari buruzko neurri nagusiak 181
7.2.3.3. Europako Batzordeak egindako Liburu Berdea . . . 182

8. INDUSTRIA, Xabier Barrutia 185

8.1. Aurrekariak. 185
8.2. Euskal industriaren aroak eta datu batzuk 187
8.3. Industria-politika 192
8.3.1. Berregituraketa-politika. 193
8.3.2. Sustapen-Politikak 195
8.4. Energia 201
8.5. Industria eta finantza-sistemaren arteko harremana. 206
8.6. Ondorioak. 208

9. ZERBITZUEN SEKTOREA, Mikel Zurbano 211

9.1. Zerbitzuak jarduera ekonomikoan 211
9.2. Herrialde industrializatuetako zerbitzu-jardueren hazkundea 213
9.3. Krisialdiko zerbitzuen bilakaera Hego Euskal Herrian 215
9.3.1. Zerbitzuen bilakaera orokorra. 215
9.3.2. Zerbitzu-adarren jokaera 219
9.3.3. Zerbitzuetako ezaugarriak. 222
9.4. Zerbitzuen eta industriaren arteko lotura: enpresentzako zerbitzuak 225

10. EKONOMIA SOZIALA, Anton Borja. 231

10.1. Sarrera 231
10.2. Lan elkartuko kooperatibak 232
10.2.1. Ezaugarri orokorrak 232
10.2.2. Mondragon Corporación Cooperativa (MCC) 236
10.2.2.1. Talde kooperatiboaren bilakaera. 236
10.2.2.2. Organo Erabakitzaileak eta parte-hartzea. 239
10.2.2.3. *Mondragon Corporación Cooperativa*ren gaurko egitura. 240
10.2.2.4. Gaurko egoera ekonomikoa eta etorkizunerako estrategiak. 242
10.3. Lan-Sozietateak 243
10.3.1. Ezaugarri orokorrak 243
10.3.2. Lan-Sozietate Anonimoak (LSA edo SAL) 244
10.4. Etorkizunerako erronkak 245

11. LAN-MERKATUA ETA GIZARTE-BABESA, Garikoitz Otazua 251

11.1. Lana eta enplegua 251
11.2. Lan-eskaintzaren eraketa 252
11.2.1. Faktore demografikoak 253
11.2.2. Jarduera eta generoa 254
11.2.3. Migrazioak 256
11.3. Lan-merkatuko zenbait datu: enplegua eta langabezia 258
11.4. Lan-eskaria 262
11.5. Lan-harremanen sistema 264
11.5.1. Sindikatuak eta erakunde patronalak 264
11.5.2. Hitzarmen kolektiboen egitura 267
11.6. Enplegu-politiken ardatz nagusiak 270
11.6.1. Politika aktibo eta pasiboak 271
11.6.2. Enplegu-banaketa 275
11.7. Gizarte-babesa 276
11.7.1. Gizarte-babesaren markoa 279
11.7.2. Gizarte-gastua eta finantzaketa 280
11.7.3. Txirotasuna eta gizarte-bazterketa 281

12. SEKTORE PUBLIKOA, Yolanda Jubeto 285

12.1. Eskuduntzen banaketa administrazioen artean 287
12.2. Ogasun Publikoak. Kontzertua eta Hitzarmen Ekonomikoa 288
12.3. Administrazioen arteko finantza-fluxuak 292
12.4. Administrazio arteko gatazkak Ekonomia-Ituna eta Hitzarmena direla eta 294
12.5. Sarreren barne-banaketa 296
12.6. Aurrekontu publikoen ezaugarri orokorrak 298
12.6.1. Sarrera publikoen osagaiak eta bilakaera 298
12.6.2. Gastu publikoaren bilakaera 299

13. KANPO-SEKTOREA, Mikel Zurbano 303

13.1. Nazioarteko testuinguru ekonomikoa 303
13.2. Merkataritzaren liberalizazioa 305
13.3. Kanpo-merkataritzaren bilakaera orokorra Hego Euskal Herrian . . . 307
13.4. Kanpo-merkataritzaren industria-egitura 313
13.5. Kanpo-merkataritzaren nondik-norakoa 319
13.6. Euskal ekonomiaren kanpo-loturaz 323

AMAIERA. EUSKAL HERRIA EUROPAKO BATASUNEAN ETA MUNDUAN. ERRONKA NAGUSIAK, Goio Etxebarria eta Mikel Gomez Uranga 327

1. Sarrera 327
2. Zerga-sistema eta aurrekontu-politikei buruzko hausnarketak 328
3. Europako Batasunaren barruan autonomia erregional handiagoa lortzeko bidean 331
4. Maila askotako gobernantza (MAG): Eskumen-konplexutasuna 333
5. Izaera sistemikoa bertatik (era endogenoan) indartuz: berrikuntza-sistema 334
6. Azpiegiturak: garapena eta adostasuna erregioetan 336
7. Enpresa-erakundeen aldaketak: balio-aldaketa 337
8. Euskal formazio-sistema eta ehun produktiboa 338
9. Gizarte-Segurantzari buruz 339
10. Ipar Euskal Herria 339
11. Euskal nekazaritza Europako Batasunari eta globalizazioari aurre egiten 340

ERANSKINA: MAPAK, Galder Guenaga 345

Hitzaurrea

Eskuartean duzun liburu honekin, aspalditik dagoen hutsunea betetzen hasi nahi dugu. Izan ere, Euskal Herriko ekonomiaz azterketa eta lan ugari idatzi diren arren, arlokako analisiak edota lurralde zein eskualdeei buruzko azterlan mugatuak gauzatu izan dira gehienetan. Horietako asko esku-hartze publiko zein pribatuaren jardueraren oinarri gisa zertu dira. Beste batzuk erakunderen baten agindupeko diagnostiko koiuntural gisa plazaratu dira. Guztiak dira Euskal Herriko ekonomia ezagutzeko lanabes preziatuak eta, alta bada, gure lan honetan horien ekarria bistakoa da.

Alabaina, nabarmena zen Euskal Herriko ekonomia bere osotasun eta orokortasunean aztertzen zuen lanen gabezia. Euskal Herriko hezkuntza-sisteman bertako ekonomia lantzen duen irakasgaien urritasunak ez du orain arte lagundu beste esparruetan ohikoak diren urratsak ematen testuliburugintza-jardueran. Horren isla da, gaur egun gure herriko unibertsitate-sarean Euskal Herriko Ekonomia irakasgaia Ekonomia titulazio bakar batean egotea —EHUko Ekonomia lizentziaturan—, eta hautazko irakasgai gisa, gainera. Euskal ekonomiak diziplina moduan duen ezagutza ofiziala hutsaren hurrengoa da, eta errealitate horrek eremu honetan dauden gabeziak ulertarazten ditu. Egoeraren premiak eraman gaitu batik bat unibertsitate--jardueran gabiltzan egileok elkartu eta unibertsitate- eta hezkuntza-sisteman dihardutenentzat ez ezik gizarte- zein ekonomia-eragileentzat erabilgarri izan nahi duen testua prestatzera.

Liburu hau etorkizunean jorratu nahi dugun lan-ildo baten hasiera da, Euskal Herriko ekonomiaz zeresanik duenarentzat irekita dagoena. Egin nahi dugun bide horretan, ekarpen berriek liburuak dituen gaien inguruko hutsuneak eta ikuskera- eta metodologia-aniztasunak aberastuko dituzten itxaropena dugu.

Oraingo hau erdiesteko, oztopo franko gainditu behar izan ditugu. Horietariko aipagarrienak, datu-iturriekin eta metodologiarekin zerikusirik dutenak dira. Euskal Herriko eremu instituzionala zatikatuta egoteak lurralde desberdinen arteko homogeneotasun estatistikoaren arazoa mahaigaineratzen du. Ipar Euskal Herria da iturrietara jotzeko eta datu-oinarri zabala aurkitzeko zailtasun gehien erakusten duena. Areago, INSEE edo bertako erakundeetako aldagaien eremua, kategoria eta horien ustiakuntza oso bestelakoak dira Hego Euskal Herriko erakundeek edo INE

erakundeak erabiltzen dituztenekin konparatuz. Hori dela eta, hemen Ipar Euskal Herriko ekonomiari kapitulu propioa eskaini diogu, nahiz beste kapitulu batzuetan ere egin dugun hango egoera islatzeko ahalegina. Nolanahi den, Hego Euskal Herriko bi eremu administratiboetan ere —hots, Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan— aipagarriak dira datuak eskuratzeko zailtasunak. Batetik, aldagai ekonomikoen segida luzeak lortzeko zailtasunak aipatu behar dira. Iturri fidagarrienetako datuak 1980ko hamarkadaren hasiera aldean hasi ziren argitara ematen eta, beraz, hainbat aldagairen inguruko azterketa estrukturalak egiteko aukerak oso murritzak dira. Bestetik, bi erkidegoetarako argitaratzen diren datuen arteko homogeneotasunik eza nabarmena da. Hartara, batzuetan homogeneotasuna bermatzen duten aparteko datu-iturrietara jo dugu, eta bestetan, bi erkidegoetarako aldagai-termino bereiziak eskaini behar izan ditugu ezinbestean. Gure helburuetako bat koiunturaz haragoko azterketa taxutzea izan denez, informazio kualitatiboaren erabilera eta trataeraren bidez aldagaien heterogeneitate espazialak dakarren distortsioa gainditzen ahalegindu gara.

Hamalau gai ardatz moduan hartuz jorratu dugu Euskal Herriko ekonomiaren inguruko hurbilketa orokor hau. Horiekin ez da euskal ekonomiari buruzko katalogoa amaitzen, eta badira barneratu ez diren beste hainbat gai, arrazoi desberdinak tarteko. Lehenengo bi kapituluetan, Hego Euskal Herriko ekonomia ulertzeko ibilbide historikoaren ikuspegia eskaintzen du Alex Arizkunek. Lehenean, industrializazioaren hastapenetik frankismoaren arteko epe luzeko giltzarriak azaltzen dizkigu, besteak beste XIX. mendeko eraldakuntza instituzional garrantzitsuak —hala nola zerga-sisteman eta aduanetan pairatutakoak— eta kostaldeko industrializazioaren sorkuntza eta lehen bilakaera. Bigarren kapituluan autarkia frankista hartzen du abiapuntutzat, eta Europako Batasunean barneratu bitarteko epealdian emandako urrats aipagarrienak ematen ditu argitara. Aldi hori kronologikoki ordenatuz, autarkia-garaiko mugak aztertzen ditu, eta horiek akuilatutako 1959ko *liberalizazio-plana*ren muina erakusten digu. Azkenik, 1970eko hamarkadan lehertu zen krisiak izandako eraginak aurkezten ditu, krisi horrek sektore- eta lurralde-arloetan eduki zituen eragin disparekoak ahaztu gabe.

Hirugarren atalean, Ipar Euskal Herriko ekonomia aztertu du Solange Mariluzek. Azterketa horren ardatza bertako ekonomiaren egitura da. Jakina denez, lehenengo eta hirugarren sektoreak gailentzen dira Ipar Euskal Herrian. Laborantzan izandako eraldaketa etengabea eta erronka berriak dira aztergai. Hirugarren sektorean, batez ere merkataritza- eta turismo-jardueren dinamismoak laburtzen du ataleko gunea, garraio-sistemaren bizkortasuna ere azalera ekarriz. Xumea bada ere, industriagintzaren ekarria ahaztezina da Ipar Euskal Herriarentzat, etorkizunean ahalmen handiko jarduera-multzoa ordezkatzen baitu. Bilakaera demografikoari erreparatu ostean, lurraldearen agerpen hirukoitzaren analisiarekin burutzen da Ipar Euskal Herriari buruzko azalpena.

Ondorengo kapituluetan gehienbat Hego Euskal Herria hartzen dugu aztergunetzat, han-hemenka Ipar Euskal Herriaz eginiko aipamenak irakur daitezkeen arren. Laugarren eta bosgarren kapituluetan Euskal Herriko ekonomiaren oinarri gisa har daitezkeen gaiak aztertzen dira. Laugarrenean, Galder Guenaga arduratzen da ingurumenaren auzi konplexuaz hausnarketa egiten eta Hego Euskal Herriko lurraldearen antolaketaren ikuskera eskaintzen. Hurrengo kapituluan, hiru egile dira Hego Euskal Herriko azpiegitura-sarearen egoeraren berri ematen digutenak: Goio Etxebarria, Helena Franko eta Begoña Garcia. Bi azpiegitura-moten inguruan dihardute, batik bat, garraioez eta azpiegitura teknologikoez. Halaber, sarrera gisa, egile horiek garraioko azpiegituraren eta erregio-garapen ekonomikoaren artean diren loturak aurkezten dituzte.

Seigarren kapitulutik bederatzigarrenera bitartean, Hego Euskal Herriko egitura ekonomikoaren analisia egiten da, ohiko sektoreen arteko sailkapenak bideratutako banaketari jarraituz. Seigarren kapituluan sektorearteko banaketaren bilakaerak nolako bidea urratu duen azaltzen du Mikel Zurbanok, euskal ekonomian ere zerbitzuen aldeko egiturazko aldaketa zertu dela ohartaraziz. Hurrengo gaian, Yolanda Jubeto arduratzen da Hego Euskal Herriko lehen sektorearen egoera eta problematika orokorra azaltzen. Hemen ere sailkapen funtzionalaren metodoari jarraituz, nekazaritza eta abeltzaintza dira aztergai lehenik; ondoren, basogintza eta arrantzaren egoerak azaltzen dizkigu.

Zortzigarren kapituluan Xabier Barrutiak Hego Euskal Herriko industria-egitura aztertzen du, eraikuntzaren eta energiaren ibilerak ere barnean hartuz. Industria izan delarik euskal ekonomiaren bizkarrezurra, krisiak izandako eragina erakusten du Barrutiak, hala nola industria-espezializazioa, bere eduki teknologikoa eta kanpoan merkaturatzeko azken joerak. Jarraian, bederatzigarren kapituluan, Mikel Zurbanok zerbitzuen jarduera-multzoak Hego Euskal Herrian izandako bilakaera eta jokabidea analizatzen ditu. Euskal Herriko tertziarizazioaren soslai propioa nola gorpuzten den behatzeko, jarduera desberdinen joerak aztertu eta industriarekin lotura zehatzak dituen zerbitzu-sortaren errealitatea azaltzen du.

Hamargarren kapituluan, Euskal Herrian izaera berezia duen ekonomia soziala hartzen du aztergaitzat Anton Borjak. Azterketan bi atal bereizten dira: lan-elkartuko kooperatibak eta lan-sozietateak. Lehenengoan garapen propioa esleitzen dio Borjak MCC taldearen ibilbideari, Euskal Herrian ez ezik atzerrian ere eredu bihurtu baita ekonomia sozialaren esparruan zein toki-garapeneko estrategien arloan ere. Hamaikagarrena lanari eta gizarte-antolaketari eskainitako kapitulua da. Bertan, Garikoitz Otazuak azterketa zabala gauzatzen du lan-merkatuaz. Gai horrekin lotuta, analisi zehatzak egiten ditu Otazuak lan-harremanen sistemaren, enplegu-politiken eta gizarte-babesaren inguruan.

Yolanda Jubetok sektore publikoaren azterketa zabala gauzatzen du hamabigarren kapituluan. Euskal administrazioen eskuduntzen mapa azaltzen da lehe-

nik, ondoren Ogasun Publikoaren azterketa gauzatzeko kontzertu eta komenio ekonomikoaren analisia ahaztu gabe. Jubetok aztertzen duen beste arlo korapilatsu bat aurrekontu publikoarena da, sarreren eta gastuen arteko banaketa funtzionala kontuan hartuz. Azken gai-esparrua kanpo-sektorearena da. Nazioarteko testuinguru ekonomikoan euskal ekonomiak duen kokapena aztertzen du Mikel Zurbanok azken kapitulu horretan. Horretarako, eta beste daturik ezean, kanpo-merkataritza da azterketa-gunea, horrek eskaintzen baititu euskal ekonomiaren kanpo-loturen zenbatekoa eta nolakoa.

Amaiera gisa, Goio Etxebarriak eta Mikel Gomez Urangak Euskal Herriko ekonomiak Europako Batasuneko integrazioan eta globalizazioaren testuinguruan topatzen dituen aukera eta erronken inguruko hausnarketa eskaintzen digute. Nazioarteko testuinguru berriak lurraldearen adiera berria eta Estatuaren eskumenen aldaketa bultzatzen dutela gogoan izanik, Euskal Herriko ekonomiak etorkizuneko bidea egokiro urratzeko hainbat galdera, irizpide eta proposamen planteatzen dituzte Etxebarriak eta Gomez Urangak.

Mikel Zurbano, Solange Mariluz eta Yolanda Jubeto

1. Kapitalismoa eta industrializatze-prozesuak, 1850etik 1940ra bitartean

Alejandro Arizkun

XIX. mendearen erdialdeko urteetatik hasi eta Bigarren Mundu Gerrara bitarteko urteek egin zuten garai luzean, ekonomian ez ezik gizartean eta politikan ere eragina izan zuten aldaketa sakonak gertatu ziren Euskal Herrian. Aldaketa horien gako nagusia funtzionamendu kapitalistaren moduak orokortzea izan zen; horren erakusgarri garrantzitsuena, merkatuak funtzionamendu ekonomikoaren tresna erregulatzaile gisa hartu zuen eginkizun nagusia da.

Horrek ez du esan nahi fase hori baino lehenago merkatuak gidatutako portaera ekonomikorik existitzen ez zenik. Argi dago XVII. eta XVIII. mendeetako merkatari handiek logika horrekin funtzionatzen zutela; baina portaera horiek gutxi batzuenak ziren. Horrez gain, Antzinako Erregimenean Koroaren erakundeek ez zituzten haiek errazten, gehiago babestu nahi baitzituzten juridikoki pribilegiatuta zeudenen soberakin ekonomikoa eta ohore eta duintasun pertsonalaren balioak; alegia, lanean saiatzea eta etekinak lortzea baino gehiago. Egia da ezen, Euskal Herriko eremu zabaletan bost mende lehenago kaparetasun kolektiboa orokortu izanak eta auzo-egiturak indartu izanak balio horiek lausoago egin zituztela, Gaztelan edo Frantzian gertatzen zenarekin alderatuz; egia da, bestalde, indar txikiagoarekin bada ere, XIX. mendera arte haiek izan zirela balio nagusiak.

Horrek ez du esan nahi, ezta ere, funtzionamendu-modu batzuen ordez besteak ezartzea laster eta era absolutuan gertatu zenik: izan ere, prozesu luze eta ez-osoa izan zen, eta prozesu horrek aukera eman zuen denbora luzean merkatuarekin lotura gutxi zuten jarduera ekonomiko batzuekin bizitzen jarraitzeko; egia da, bestalde, modu kapitalista berriak zabaldu egin zirela eta zabalkunde horretan erakunde liberal berrien laguntza izan zutela. Erakunde horiek xedapen berriak eman zituzten merkatua errazteko eta haren funtzionamendu-arauak zehazteko, jabetzaren eskubideak definitzeari dagokionez bereziki. Araubide-aldaketa hori jabetzaren gaineko ideia liberaletan oinarritu zen (jabetza libre, absolutu eta indibiduala), baina haren aplikazio praktikorako zenbait baldintza jarri zituzten tokian tokiko botereek, zeinek printzipio horiek beren berehalako interesen arabera mailakatu eta egokitu zituzten. Hartara ulertuko dugu, esate baterako, herri-jabe-

tzek irautea, egoera txarrean zeuden lur landatuen hedatzea interes gutxikoa izaten zelako batez ere.

Banakako funtzionamendua eta etekinen bilatzea gero eta gehiago sartu ziren, modu erabakigarrian, portaera ekonomiko gehienetan, eta pixkanaka bazter utzarazi zituzten nobleziaren eta kleroaren abantaila juridikoetan oinarritutako jarduera eta, Antzinako Erregimeneko auzo-komunitateen modu kolektibo bereizgarriak; modu kolektibo horiek, XVIII. mendean asko aldatu arren, nagusi ziren, artean ere, herrialdearen zati handienean.

Aldaketa horien eragin ikusgarriena ondasun eta zerbitzuen produkzioan suertaturiko hazkundean nabarmendu zen, hain zuzen ere garapen ekonomiko gisa hartu zena; haren erakusgarririk handiena industrializazioa izan zen. Industrializazioa lurralde jakin batzuetan —lehenbizi Bilbo inguruan eta gero Gipuzkoako alderdi jakin batzuetan— oso lokalizaturik bazegoen ere, Hego Euskal Herriko lurralde osoa hartu zuen; hartara, oso industrializaturik ez zeuden alderdiak elikagaietan eta prozesu horretarako behar zen lan-eskua ematen espezializatu zen lurraldea.

Bestalde, Ipar Euskal Herria Frantziako lurralde industrializatuetatik urrun geratu zen, eta XIX. mendearen erdialdetik aurrera Frantziaren eta Espainiaren arteko mugaren bitartez bereizita, eta Estatuko babes-politiken orokortzearen ondorioz, desegituratze sozialeko prozesu luzea eta gaur arte iraun duen beheraldi ekonomikoa jasan behar izan zituen.

Ondasun eta zerbitzu gehiago eskura izateak aukera eman zuen biztanleen kopuruak gora egiteko eta euskaldunen bizitza materialaren kalitatea hobetzeko; baina, aldi berean, ezin ahantz daitezkeen alderdi negatibo zenbait ere ekarri zituen: lurraldeen arteko eta gizarte barruko ezberdintasunak areagotzea eta gizartearen eta naturaren arteko erlazio desorekatu eta suntsikorra.

Ondoko orrialdeetan aztertuko dugu, era orokorrean bada ere, bilakaera ekonomikoaren eta sozialaren prozesu kontraesanezko prozesu hori.

1.1. EUSKAL HERRIAREN ETA HAREN LURRALDEAREN EKONOMIAREN ESPEZIALIZATZEA, ANTZINAKO ERREGIMENAREN BUKAERA ALDEAN

Gizarteak nekazaritza-produkzioan espezializaturik egon dira beren izateak iraun duen denbora gehienean. Oinarrizko beharrizanei erantzuteak eta behar ziren elikagaien bilatzeak mendeetan egindako ahalegin gehienak eraman zituzten, harik eta nekazaritzaren arloko produktibitatean gertaturiko hazkundeak bidea eman zuen arte. Horrela, gero eta denbora gehiago liberatu zen bestelako produkzio-jardueretan aritzeko. Horrek, gizartearen arlo guztiak ukitu zituen prozesu konplexu baten ondorioz, planetako alde batzuen industrializazioa ekarri zuen.

XVIII. mendearen bukaeran eta XIX. mendearen hasieran, euskal gizarteek ere espezializazio handia erakusten zuten nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueretan; leku batzuetan, ordea, nekazaritzarako baldintza txarrak zirela medio, bestelako jarduera osagarri batzuk hasi ziren, arrantza, merkataritza eta burdingintza kasu, haiek bidea ematen baitzieten baliabideak ugaltzeko eta populazioaren hazkundeari oinarri emateko: hazkunde horri, bestela, ezin izanen zitzaion eutsi.

Orografiak, eguraldiak eta zoruaren osaketak markatzen dituzte nekazaritzarako baldintzak. Euskal Herriaren zati handi bat mendiz beterik dago (1.1. mapa). Bizkaia eta Gipuzkoa Kantauriko mendikatearen ekialdeko azken muturrak dira, eta haietan, beraz, mendiak lurralde osoa hartzen du, itsasora heldu arte, trantsizioko lurralderik apenas eduki gabe. Mendikate horrek, halaber, Arabako iparraldea hartzen du. Nafarroako iparraldea eta Ipar Euskal Herriko hiru lurraldeetako hegoaldea Pirinioetako mendebaldeko muturrean kokaturik daude. Baldintza orografiko kaxkar horiekin batera, zoruaren osaeran ageri den buztin gehiegiak lurrak zuzentzeko aldikako laboreak egitera behartzen ditu nekazariak, uren drainatzea errazteko, kareztadura erabiliz horretarako.

Baserriaren auto-hornikuntzarako joerak berekin ekarri zuen —XX. mendean ongi sarturik egon arte— zerealak eta garia bera ere nahiko modu orokorrean lantzea, nahiz eta etekin oso eskasak lortu, zertarako-eta elikagai horiek erosteko beharrean ez egoteko.

Nafarroako erdialdean eta Arabako ordokian zerealak lantzeko baldintza egokiak daude, eta hegoaldeko eremuetan, ureztaketarako baldintza onengatik eta eguzkiari esker, egoki landu daitezke barazkiak, ardo-mahatsak eta olibondoak.

Ingurumen-baldintza horiekin, mendialdeko herriek nekazaritzaren sektoreko produkzio-jarduerari pixkanaka utzi eta abeltzaintzara jotzen hasi ziren, hain zuzen ere jarduera hori, estentsiboagoa eta produkzio gutxiagokoa izanik, ingurumenari hobeki egokitzen zaiolako.

1800. urtearen inguruan, Euskal Herriko nekazaritzari buruzko mapak garia erakusten digu lurralde osoan, Nafarroako eta Arabako hegoaldeko erdian garagarrarekin eta oloarekin batera, ardoaz eta olioaz gainera. Mendialdean, berriz, artoarekin eta abereekin batera aurkituko dugu garia: ukuiluetako behi-aziendak nagusi dira Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroako mendebaldeko mendialdean; ardi-aziendak, berriz, nagusi dira Nafarroako ekialdeko mendialdean. Bestalde, Ipar Euskal Herriko lurralde txikian, abereekin batera, ardogintza eta zerealen produkzioa dira aipatzekoak Donapaleu inguruko lautadetan.

Nekazaritzaren arloko muga horiek oso azkar motelaraziko zituzten Euskal Herriko zati handienaren populazioaren hazkundea, bestelako produkzioetara jo izan ez balitz, tokian tokiko espezializazio-prozesu bati eta jarduera jakin batzuen merkaturatzeari esker. Espezializatze horrek, sistema osoaren produktibitatea

handitzeko aukera eman bazuen ere, tentsio handiagoa ekarri zuen, eskura zeuden natur baliabideen eta gizarteak baliabide haien jabetza hartzeko prozesuaren artean.

Itsasaldeko lekuetan, intereseko baliabide osagarri bat aurkitu zuten alturako arrantzan. Bakailaoa gazituta kontserbatzeko tekniken garapenak ate bat zabaldu zuen arrain hori penintsulan barna merkaturatuz diru-iturri garrantzitsu bat lortzeko.

Baso eta ur-emari gutxiko baina jaiste azkarreko ur-laster ugari izateak ere abantaila nabarmenak ematen zituzten zenbait produktu industrial ekoizteko.

1.1. mapa. Euskal Herria



Iturria: Euskal Herriko Atlasa: http://www.geocities.com/Heartland/Hills/6265/indexhtml

XVI. mendean zehar, espainiar Koroaren ontzigintzak Espainiako Levante aldeko egurra agortu zuen, hura baitzen ontzigintza horren leku tradizionala. Ondoko mendeetan, euskal basoetan topatu zuten ontzi-lan horietarako behar zen egurra, eta bertan ezarri zen ontzigintza.

Hori bai, manufakturen arloan, burdinaren jarduerak jarduera osagarri moduan nabarmendu ziren. Bilbo ondoan burdina oso egokiko meatokiak egotea, leku aberatsak eta osaera oso oneko mineralarekin, une hartan baliagarri ziren teknikekin metal hori lortzeko baldintzekin batera, horiek guztiek aukera eman zuten, egurrarekin eta ur-lasterrekin batera, burdinolak hedatzen joateko.

Burdinola horiek energia hidraulikoa erabiltzen zuten burdina goria kolpatuko zuten mailuak mugiarazteko eta egur-ikatzaren erreketan airea sarrarazteko sutegi--hauspoei eragiteko; izan ere, egur-ikatza erre behar baitzen minerala eta metala leuntzeko. Burdinola bakoitzean jende gutxi aritzen zen, baina jarduera horrek jarduera osagarri ugari ekartzen zituen berekin; esate baterako, arbolak botatzea, ikatza prestatzea eta minerala, burdina eta ikatza garraiatzea. Zeregin horietan Biz-

kaiko eta Gipuzkoako jende ugari aritzen zen, lanaldi osoan nahiz nekazaritza-jarduerako lanen osagarri.

Meategien kokapenak —Bilboko ibaitik hurbil baitzeuden— aukera ematen zuen minerala ontziratu eta kostu txikiekin garraiatzeko; horrek berekin ekarriko zuen beste burdinola batzuk sortzea, ez bakarrik Bizkaian, baizik eta Gipuzkoan eta Nafarroako ipar-mendebaldean ere bai. Azken horietan, hala batean nola bestean, burdin meategiak zeuzkaten arren, minerala Bizkaiko mineralarekin nahastu behar izaten zuten, burdina egokia lortzeko.

Burdina hori Europako herrialde askotara eta Amerikako kolonietara esportatzen zen, eta bera izan zen euskal ekonomia nazioarteko truke-sarean sartu zuena; sare horrek bidea emanen zigun elikagai eta oinarrizko ondasun nahiko erosteko. Hala eta guztiz ere, XVIII. mendean, eredu horrek agortzeko sintoma batzuk erakusten zituen. Basoetako mozketek aise gainditzen zuten birlandaketaren erritmoa, eta, horren ondorioz, basoak bukatzen hasi ziren, eta egurra lortzeko leku egokiak geroago eta urrunago zeuden, eta ustiatzen gaitzagoak ziren. Hori dela eta, ikatz begetala —egur-ikatza, alegia— garestitu egin zen, eta gainera Suediako eta Britainia Handiko burdinek lehia egiten zuten; azkenik, euskal burdina bazterturik geratu zen merkatu haietan.

Nafarroako ipar-mendebaldeko mendialdean burdin lanetan —Bizkaiak eta Gipuzkoak bezalaxe— jarduera osagarri bat aurkitu zuten arren, horren garrantzia txikia zen herrialdea osorik hartuta. Jarduera horretan aritzen zirenak gutxiago ziren, Somorrostroko meategietatik urrunegi zeudelako, eta gainera burdinolak herrialdeko alderdi txiki batean zeuden kokaturik. Hala eta guztiz ere, Nafarroa bere produkzioaren beste esportazio-lerro batzuengatik zen azpimarratzekoa. 1786an, Nafarroako esportazioen %80 artileak eta ardoak egiten zuten. Mendialdeko ardi-aziendek artile-zatarra sortzen zuten, bere gordinean Ipar Euskal Herriko ehunlantegietara esportatzen zena; Nafarroako hegoaldeko ardoa, ordea, Gaztelara eta, batez ere, Gipuzkoara esportatzen zen. Bere aldetik, Arabako ardoa Bizkaira esportatzen zen.

Antzinako erregimenean Euskal Herrian azpimarratzekoa zen beste jarduera bat merkataritza zen. Kokapen geografikoak zenbait abantaila eskaintzen zituen bide horretarako. Kantauriko mendikatearen ekialdeko muturrean egoteak berekin zekarren barnealdeko lautadarako mendi-sarbideak baxuagoak izatea, mendebalderago zeuden beste batzuk baino; hori zela eta, pasatzen errazagoak ziren, egokiagoak.

Gaztelako salgaiak Europarako nahiz Amerikako kolonietarako ontziratzeaz gain, Bilboko Portua izan zen Burgos eta Medinan kontzentraturiko artile gehiena kontinenteko beste herrialde batzuetara eramatea bideratu zuena; eta gauza bera gertatu zen Gaztelako irinarekin edo Errioxako ardoarekin, Amerikara bidean maiz askotan Bilbon ontziratu baitziren. Gasteizkoa zen Burgostik Bilbora joateko bide-

rik errazena, eta merkatu-gaien trafiko horretaz onura handiak eskuratu zituen Arabako hiriburuak. Egia da Burgostik Santander dagoela hurbilago Bilbo baino, eta lehia historiko bat izan dela horrengatik; baina egia da, halaber, XIX. mendean Gaztelako ubidea eraiki zen arte, Bilbok baldintza hobeak eskaintzen zituela.

Donostia, bere aldetik, merkataritza-hiri modura nabarmendu zen, lehentasuna emanez Amerikarekiko merkataritzari; halaber, koloniekiko merkatu jakin batzuk monopolizatzen zituzten konpainia pribilegiatuetako baten egoitza izan zen: Caracasko Errege-Konpainia Gipuzkoarra.

Baionakoa Amerikatik eta Europako iparraldeko herrialdeetatik zetozen merkatu-gaien sarbideko portua zen; neurri askoz ere txikiago batean, tokiko nekazaritza- eta abeltzaintza-arloetako soberakin txikiak esportatzeko ere baliatzen zen.

Aldi berean, Europako eta kolonietako merkatu-gaiak Gaztelara bideratzeko zubia zen Nafarroa. 1786an, Nafarroako kanpoko merkataritzari buruzko datu ofizialek datu itxuraz harrigarri bat erakusten zuten: esportazioek zazpi mila errealeko kopurua gainditzen zuten ozta-ozta; inportazioek, ordea, hamalau mila erreal baino gehiago egiten zuten. Desoreka horren erantzuna kontrabandoa zen, esportazio gehienak Gaztelari eginiko salmenta klandestinoak baitziren; beraz, ez ziren datu horietan agertzen. Inportazioen %75 gai kolonialek (kakaoa, azukrea, kanela, piperbeltza) eta ehunek egiten zuten; haietako gehienak Gaztelako goi-lautada aldera igarotzen ziren.

Nafarroa —eta era paraleloan Araba ere— guztiz egokia zen, bere kokapen geografikoarengatik eta kanpoko merkataritzaren erregulazioarengatik, egoera pribilegiatua zuten Frantziaren eta Gaztelaren arteko merkataritza trafikoan zubi-lanak egiteko. Bestalde, euskal kaietara iristen ziren merkatu-gai amerikarrek bide egokia aurkitzen zuten Gaztelara iristeko. Nafarroako biztanleentzat libre zen merkatu-gaiak sartzea; merkatu-gaiak ateratzeko, ordea, %5 ordaindu behar izaten zuten zerga modura, nahiz eta produktu nagusietan —ardoan eta artilean— desgrabazio handiak egon. Gaztelan merkatu-gaiak sartzeko, berriz, %15 ordaindu behar zen. Aldi berean, nafarrek Araba, Gipuzkoa eta Bizkaitik eta Frantziatik zergarik ordaindu gabe atera zitzaketen merkatu-gaiak. Hori guztia dela eta, kolonialak eta ehunak zergarik ordaindu gabe irits zitezkeen Ebroko aduanetaraino: hortik aurrera, zaintzen nahiko zaila zen muga-lerroa legez kanpo zeharkatzea besterik ez zen falta negozio ederra egiteko.

Laburbilduz, nekazaritzaren sektorearen garrantzia handia zen XIX. mendearen hasieran Euskal Herri osoan, baina beste sektore osagarri batzuk —bereziki Gipuzkoan eta batez ere Bizkaian kontzentratuta zeudenak— asko garatu ziren. Gaur egungo Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldeetan, XVIII. mendean, barne-produktu gordinak sektoreen arabera erakusten zuen banaketari buruzko zenbait estimazio errealitate horien adierazgarri egokiak izan daitezke, gutxi gorabeherakoak izanda ere (ikus 1.1. irudia).

1.1. irudia. XVIII. mendeko Barne-Produktu Gordinaren banaketa



Iturria: Gonzalez Portilla (1989)

Bizkaiak zuen dibertsifikazio handiena produkzioan; bertan, siderurgiako produktuak lehen sektore osoko produkzioa gainditzen zuen. Urrunago Gipuzkoa zegoen, non nekazaritzaren sektoreak produkzioaren ia erdia hartzen baitzuen, nahiz eta siderurgiaren sektorea ere garrantzitsua zen. Araban, ordea, nekazaritzak egiten zuen produkzioaren bostetik lau.

Ipar Euskal Herrian abeltzaintza-jarduerak nagusitasun handia hartu zuen; nekazaritzak indar gutxiago zuen; azkenik, zerbitzuek ere garrantzi handia zuten. Nafarroan Arabakoaren antzeko egoera zegoen, nahiz eta mendialdean abeltzaintza-jarduera nagusi izan eta burdin lanen presentzia txiki bat egon.

1.2. XIX. MENDEKO ERAKUNDE-ALDAKETA LIBERALAK. SISTEMA FISKALA ETA ADUANAK

Iraultza liberal izenaz ezagutzen denak Euskal Herrian ekarri zituen erakunde--aldaketak Frantzian eta Espainian gertatu zirenen antzekoak izan ziren, lerro nagusietan behintzat. Hala ere, bi zehaztapen egin behar dira horri buruz: lehena, Hego Euskal Herrian, erakunde administratibo eta politiko berriek forma berezia hartu zuten, tradizio foralaren eta karlistaden emaitzaren konbinazioaren ondorioz; bigarrena, gai askoren azterketa egiteko, interes txikiagoa dute legeetan egin ziren aldaketa handiek eta garrantzi handiagoa du erreforma horiek lurralde-eremuetan nola eta noraino aplikatu ziren ezagutzeak. Hori dela eta, prozesuak Euskal Herrian izan zituen berezitasunak ezagutu behar dira, bai erakunde berriei dagokienez, bai erreforma handien aplikazioari dagokionez ere: jabetzaren aldaketa, produktuen merkatuei buruzko erregulazioa eta faktore eta sistema fiskalak.

Estatu liberal berriaren bereizgarriak ziren lurraldeetako erakunde politikoek —diputazio probintzialek eta gobernadore zibilek— leku erosoa bilatu zuten Euskal Herrian, egokitzapen berezi batzuekin, eta oso eragin berezia izan zuten Nafarroako aurreko funtzionamenduan.

1512tik aurrera Nafarroa Gaztelako erresuman sartu zuten, baina bere baitan erakunde propio batzuei eutsi zien: erregeak izendaturiko erregeordea, erregearen ahalmenak eskuordeturik zituena; Nafarroako Errege-Kontseilua —erregeak izendatua hau ere eta eginkizun judizialak zituena—, batzuetan gobernu- eta legegintza-eginkizunetan aritzen bazen ere; gorte estamentalak, hiru besoek osatutakoak (Elizaren besoa, Iruñeko apezpikua eta monasterio nagusietako abadeak biltzen zituena; beso militarra, erregeak pribilegio hori emandako zaldunak biltzen zituena; eta unibertsitateetako besoa, erregeak izendapen hori emandako hiribildu eta hirietako kideek osatzen zutena). Gorteek kexuak eta ohartarazpenak aurkezten zizkioten erregeordeari, eta, batez ere, "dohaintza" izenaz ezagutzen zena onesten zuten. Hala ere, Gorteak gero eta gutxiago biltzen ziren, denbora pasatu ahala. Gorteen bilkuren arteko tarteetan Diputazioa zegoen, Gorteek berek hautatua; Diputazioa Gorteen eskuordea zen, erresumako legeak, foruak, usadioak eta ohiturak zaintzeko eta bereziki dohaintzak banatu eta kobratzeko.

Erreforma liberalak —haren atal zentrala, Nafarroan, Foruak Aldatzeko Legea izan zen, 1841ekoa— erakunde horiek desagerrarazi eta Nafarroa Espainiako monarkiako beste probintzia baten moduan hartu zuen. Hala eta guztiz ere, erakunde berri bat jarri zen abian, Nafarroako antolamendu politiko eta administratiboari izaera berezia eman ziona: Foru-Diputazioa. Erakunde horrek antzinako erregimeneko erakundeetako baten izena gorde bazuen ere, berria zen, hura hautatzeko sistemarengatik eta zeuzkan eskumenengatik ere. Diputazioa zazpi diputatuk osatuta zegoen, merindade bakoitzak bana hautatuta eta Iruñeak eta Lizarrak beste bana hautatuta; errolda bidezko sufragioaz hautatzen ziren diputatuak. Diputazioaren eskumenak gainerako probintzietako diputazioenez bestelakoak ziren: herrien eta probintziaren jabegoen produktuak administratzen zituen, soldadutzara joateko sistema betetzeko baliabideez baliatzen zen, eta Diputazioak berak bakarrik antolatutako zerga-sistemaren gestioaz arduratzen zen.

"Bakea eta foruak" programak —moderatu espainiarren eta Nafarroako oligarkia liberalaren artean abian jarri zenak— bidea eman zien oligarkei zergak kontrolatzeko eta une hartako gizarte espainiarraren eraldaketa liberalak eskuratu ahal izateko. Akordio horren ondoriozko sistema fiskala giltzarria izan zen; hori dela eta, arreta berezia eskainiko diogu atal honetan.

Antzinako erregimeneko sistema fiskala denboran zehar egituratzen joan zen, eta XIX. mendearen hasieran, hazten zihoan defizitak itota, porrot eginda zegoen. Nafarroako zerga-bilketak bi hartzaile nagusi zituen: Errege-Ogasunak —justizia egiteagatik kobratzen zuenak— ondaretik onurak jasotzen zituen eta aduanetan zergak biltzen zituen; Foru-Ogasunak, ordea, kontsumoaren, tabakoaren eta txokolatearen estankoen eta artilearen ustiakuntzaren gaineko zergak jasotzen zituen. Bere aldetik, Foru-Ogasunak defentsako gastuei eta bideak eraikitzeko gastuei egiten zien aurre. Konbentzioaren Gerrak —1793 eta 1795 bitartean— eta Gerra Napoleonikoak —1808 eta 1814 bitartean— larriagotu egin zuten bideak eraikitzeko

ezarritako zergak aski ez izateagatik 1780tik hazten joandako defizita. Egoera horri konponbidea emateko, zorpetzea hautatu zen; baina hautu horrek arazoa larriagotu baizik ez zuen egin, korrituen eta kapitalaren ordainketa gehitu behar izan baitzitzaien ohiko gastuei.

Sistemaren nahikotasuna bermatzeko asmoz, 1841eko legearen ondoko erreformek aldaketa sakonak sartu zituzten, Estatuko sistema fiskalaren aldean ezberdintasun handiekin. Nafarroako sistema fiskala Món y Santillán-en Ogasunaren erreformatik kanpo geratu zen.

Modu eskematikoan bada ere, hona hemen sistema berria zer zen: urteko kupo finkoa koroari ordaintzeko ezartzen zen kontribuzio zuzena, hitzarmen ekonomikoan zehazten zena; kulturarako eta kleroarentzako zerga; eta tabakoaren, bolboraren eta sufrearen gaineko zergak. Gainera, Diputazioak bestelako zeharkako zergak ezar zitzakeen. Foru-Kontribuzioak —izen hori eman zitzaion kupoa ordaintzeko zergari— Nafarroan bildutakoaren erdia baino gehiago egiten zuen, eta kapitazio-sistemaren bitartez banatzen zen, ez inolaz ere aberastasunaren sistema proportzionalari egokituta.

Sistema fiskal horren onurarik handiena jaso zuena burgesia izan zen, bi aldetatik zerga gutxiago ordaintzea lortu zuelako: zerga-sistema bereziaren ondorioz zama fiskal gutxiago zuen, eta, gainera, zama horren banaketa erregresiboa zen, zeharkako zergetan edo kaptazioan oinarritzen baitzen.

Nafarroan gertatutakoaz bestera, Hego Euskal Herriko gainerako lurraldeetan, jatorri eta ibilbide bereziak izan zituen antzinako erakundeak Espainiako Estatuko legedi zentralista berriari egokitzeko prozesuak. Antzinako Erregimenean, foru-diputazioak eta foru-batzarrak zeuden, baina ez bestelako erakunderik, Nafarroan bezala. Lehen Karlistada bukatu zenean, ez zen Nafarroakoaren antzeko akordiorik sinatu liberalen eta gobernu zentralaren artean, eta garai isabelinoan erakunde haiek eta Estatu liberalaren berezko figurak —gobernadorea eta diputazio probintziala— batera bizi izan ziren. Hirugarren karlistadaren ondoren, Foruak Deuseztatzeko Legea onetsi zen (1876-VII-21), homogeneizatzeko helburuarekin, eta desagerrarazi egin ziren erakunde haiek; bi urte beranduago, ordea, 1878-II-28ko Errege-Dekretuan araututako hitzarmen ekonomikoa sinatu zen. Abiapuntua eta ibilbidea ezberdinak izanda ere, emaitza oso antzekoa izan zen Hego Euskal Herriko lau probintzietan: zergak biltzeko eskumenek eta Estatuarekin negoziaturiko kupo bat ordaindu behar izateak bere horretan iraun zuten.

Ondorio garrantzitsuak eduki zituen erreforma fiskalaren beste alderdi bat, aduanen lekualdatzea izan zen. Gorago azaldu dugun bezala, antzinako erregimenean aduanak zeuden Gaztelako eta Aragoiko mugetan merkatu-gaiak esportatzeko, baina Frantziatik edo Araba, Gipuzkoa eta Bizkaitik inportatzeko, ez zen zergarik ordaindu behar izaten. Egoera horrek kontrabandoa areagotu zuen, Frantziako eta Ameriketako merkatu-gaiak Gaztelan sartuz, haiek Nafarroak eta

Arabak zamarik ordaindu gabe inportatu ondoren. Kontrabando hori egotearen eta aduana-sistema garestiaren ondorioz —diru-sarrerek ez baitzuten muga zaintzeko kostuak ordaintzeko adina ere—, koroak ahaleginak egin zituen, lortu gabe, aduana horiek lekuz aldatzeko, XVIII. mendeko une ezberdinetan. Gorteek uko egin zioten sistematikoki haiek aldarazteari, hain zuzen ere saio guztietan. Hala ere, lehenbiziko saioetan aurkako jarrera sistematikoa izan bazen ere, aduanak lekuz aldatzearen aldeko sektore batzuk nabarmentzen hasi ziren. Kontrabandoaren aurkako zaintza areagotzeak eta aduanetako zergak handitzeak lekualdatzearen aldeko defentsa egitera bultzatu zituzten zerealen arloko interesdunak, noblezia lurjabea eta Ebroko erriberako herriak, hain zuzen ere beren merkatua Gaztela aldera zabaltzeko; *status-quo*aren defentsa, berriz, Nafarroako mendialdeko herriek —artilea Frantziara esportatzen zutenak—, herrialdeko kontsumitzaileek —Frantziako produktu ugari erabiltzen zituztenak— eta, noski, kontrabandoaren onurak hartzen zituzten merkatariek egiten zuten. Lehenbiziko karlistadaren ondoren, aduanen aldaketa finkatu zen: Pirinioetan eta itsasoan jarri ziren, Ebro aldeko aduanak desagertuta. Aduanen lekualdatze horrek eragin berezia izan zuen Ipar Euskal Herrian, Hegoaldearekiko merkataritza-trafikoa garestitu baitzen: hartara, antzinako merkataritza-korronte garrantzitsu batzuk gutxitzen-gutxitzen joan ziren, leku sinboliko bat baizik ez izateraino, hain zuzen ere XIX. mendearen bukaera aldeko politika estatal protekzionisten ondorioz.

Alde ekonomikotik, hona hemen erreforma liberalaren azken helburuak: produkzio-faktoreen eskuratzean eta erabileran merkatuko mekanismoak sartzea, eta merkatugaien elkartrukerako oztopoak deuseztatzea. Jakina den bezala, Espainiako monarkiaren lurraldeetan, prozesu horrek gorabehera handiak izan zituen XIX. mendearen lehenbiziko erdialdean, hain zuzen ere 1837tik aurrera lege-erreformak finkatu ahal izateko. Nafarroa ez zen prozesu horretatik kanpo geratu zeren, bereziki 1841eko Foruen Aldaketari buruzko Legetik aurrera, horrek Nafarroa Estatuaren legedi orokorraren mende uzten baitzuen; hala ere, diputazio jaioberriaren gainean izan zuen kontrolak aukera eman zion Nafarroako oligarkiari, prozesua bere interesen arabera egokitzeko.

Ipar Euskal Herrian egituren eraldaketa-prozesua oso bestelakoa izan zen, zeren Frantziako Iraultzaren eta Estatu liberal frantsesaren agerpenak eta finkatzeak abiarazitako eraldaketa liberalekin lotuta egon baitzen. Frantzian erakundeen aldaketaren muturreko izaerak Antzinako Erregimenak berezko zituen erakundeak akabatu zituen, bi mende lehenagotik arrastaka ekarritako homogeneizatze-prozesu bat jasan ondoren. Bestalde, jaiotzen ari zen Estatu frantsesaren zentralismo gogorrak ahuldade bikoitza eragin zion Ipar Euskal Herriari, etapa berriaren bereizgarri zen hazkunde ekonomikoan fruiturik lortu ahal izateko: izan ere, lurralde hori urrun zegoen erabaki politikoak hartzen ziren gunetik (Paris) eta artikulazio ekonomikoaren guneetatik (Frantziako iparraldea); gainera, Hego Euskal Herritik isolaturik zegoen, eta ez zuen erakunde propiorik erabaki autonomoak hartu ahal izateko.

1.3. ONDASUNEN PRODUKZIOA, 1850-1940: KOSTALDEAREN INDUSTRIALIZAZIOA.

Hona hemen XIX. mendeko Europako gizarteen ezaugarri nahiko orokor bat, Euskal Herriak ere bizi izan zuena: ordura arte tamainarengatik eta jarraitutasunarengatik ezagutu ez ziren produkzio- eta populazio-hazkunde orokorrak ekarriko zituzten industrializazio-prozesuak. Egia da hazkunde industriala abiatzeko uneak eta erritmoak ezberdinak izan zirela toki bakoitzean, baina egia da, halaber, hazkunde industrialik izan ez zuten aldeetan ere industria zuten aldeek eragina izan zutela; eta batzuetan integrazioa ere gertatu zen. Aurreko mendeetan, leku berriak hartuz eta lurraldeak inbadituz burututako nekazaritzaren-hazkundearen aldean, industriaren hazkundeak ez zuen ia lurrik behar, eta horrenbestez, ez zen lurraldeetan barrena hedatu; aitzitik, leku jakin batzuetan kontzentratzeko joera izan zuen. Leku horiek, betiere, produkzio-faktore batzuk eta merkatuak behar zituzten inguruan zeuden, eta horregatik eraldaketa izugarriak bizi izan zituzten industriaren eraginez. Produkzioaren hazkunde orokor hartarako lehen hurbilketa bat bideratzen zuen aldagaia populazioa zen, aldi berean produkzio-faktore bat zena, eta haren bilakaerak, neurri batean, produktua bera eta produkzioaren hartzailea azaltzeko balio zuen.

Euskal Herriko populazioa asko hazi zen orain aztergai dugun mende horretan. Biztanleen kopurua ia bikoiztu egin zen, eta hurbileko herrialdeekin alderaketa eginez erraz egiazta daiteke ikuspegi espantsibo hori (ikus 1.2. irudia). Euskal Herriko populazioa Mendebaldeko Europa bezainbeste hazi zen[1], eta Frantziakoa eta Espainiakoa baino gehiago ere hazi zen; egia da, bestalde, hazkunde geldoko lehenbiziko aldi bat gertatu zela 1851 eta 1881. urteen bitartean, eta gero hazkunde azkarreko beste aldi bat izan zela 1881 eta 1931. urteen bitartean. Gainera, populazio-hazkunde horiek azeleratuz joan ziren denbora pasatu ahala.

1.2. irudia. Euskal Herriko biztanleriaren bilakaera, 1851-1931.



Iturria: Estimazio propioak, Espainiako Erroldak eta Laborde-ren lana (1994) oinarri harturik. 1881. urteko populazioa hartu da kasu guztietan erreferentzia modura.

1. Gaur egungo ondoko herrialdeak hartzen ditu: Irlanda, Britainia Handia, Holanda, Belgika, Luxemburgo, Frantzia, Portugal, Espainia, Italia, Grezia, Suitza, Alemania, Danimarka, Suedia, Noruega, Finlandia eta Islandia.

Baina, espero zitekeen bezala, lurralde guztiek ez zuten bilakaera bera izan. Hain zuzen ere, 1.3. irudiak erakusten duen bezala, Bizkaiak garrantzi demografiko handia hartu zuen; Gipuzkoak ere bai, nahiz eta neurri txikiagoan; Nafarroak, Arabak eta Ipar Euskal Herriak, ordea, garrantzia galdu zuten, herri osoaren aldera. Lurralde horiek oso balantze demografiko pobrea erakusten dute garai horretan. Arabak XIX. mendearen bigarren erdian populazioa galdu zuen, zenbaki absolutuetan, eta hazkunde motel bati ekin zion XX. mendean. Nafarroan, garai berean, lehenik halako geraldi bat eta gero hazkunde mugatu bat gertatu ziren. Ipar Euskal Herrian, berriz, XIX. mendeko geraldiaren ondoren, hazkunde txiki bat gertatu zen XX. mendean; hori, hala ere, II. Mundu Gerraren garaian eten zen. Aztergai dugun garai osoan zehar, Araba %10 hazi zen, Nafarroa %17 eta Ipar Euskal Herria %23; Gipuzkoako biztanle-kopurua bikoiztu eta Bizkaikoa hirukoiztu egin ziren, ordea. Ipar Euskal Herriko kasuaren bereizgarriena, betiere, barruko biztanle-hustea eta kostaldeko kontzentrazioa izan ziren.

1.3. irudia. Euskal populazioaren bilakaera (ehunekotan).



Iturria: Estimazio propioak, Laborde-ren lana oinarri harturik (1994)

1.4. irudia. Ipar Euskal Herriko populazioaren banaketaren bilakaera.



Iturriak: Euskal Herria: Carreras (1985); Espainia: Carreras (1989) eta Frantzia: Mitchell (1998)

Migrazio-mugimenduek garrantzi handia izan zuten ezberdintasun horiek azaltzeko: Gipuzkoak eta Bizkaiak emigrazioa erakarri zuten bitartean, Nafarroak, Arabak eta Ipar Euskal Herriak populazioa galdu zuten. Azken horietako biztanleak Euskal Herriko eremu industrializatuetara eta Ameriketara joan ziren.

Euskal Herrian siderurgia izan zen aldaketa industrialaren sektore protagonista. Mende asko lehenagotik, burdinaren lantzeak leku garrantzitsua izana zuen herri honetan. Ikatz begetala egiteko beharrezkoa den egurra erruz edukitzeak, burdin meategiak egoteak, behar den energia mekanikoa emateko ur-laster ugari egoteak eta produkziorako bestelako alternatibak bilatzera bultzatzen zuen nekazaritzaren pobreziak, horiek guztiek burdinolak ezartzea sustatu zuten. Instalazio txikiak ziren, langile gutxi batzuekin eta lurraldean oso banatuak, betiere mugimendurako behar ziren ur-lasterrak zeuden lekuetan. Ikatza zenbateraino zen eskuragarria, horren araberako produkzioa eta tamaina zuten burdinolek. Produkzioaren zati handi bat esportatu egiten zen, baina basoen suntsitzeak ikatza garestiago jartzea ekarri zuen; horrek prezioak igoarazi eta kanpoko merkatuak mugatu zituen, jardueran krisi nabarmena eraginez XVIII. mendearen bukaera aldean.

Krisi horretatik ateratzeko, berrikuntza tekniko bat egin behar izan zen, labe garaien eta harri-ikatzaren laguntzarekin. Horrek denbora dezente behar izan zuen, neurri handi batean ezegonkortasun instituzionalaren eta sozialaren ondorioz; ezegonkortasun horien adibiderik nabarmenena bi karlistadak izan ziren.

Siderurgiaren industriak abantailak zituen ikatz-meategien ondoan kokatuz gero, produkzioan burdina baino askoz ere ikatz gehiago erabili behar baitzen; hartara, beraz, garraio-kostuak gutxitzen ziren. Hala eta guztiz ere, Asturiasek horretan zituen abantailak gorabehera, inguruabar batzuk zirela medio, Bizkaia Asturias gainditzera iritsi zen mendearen azken bi hamarkadetan.

Bizkaiko burdin produkzioa berritzeko ahaleginak zenbait urte lehenagokoak ziren. 1844an, lehenbiziko labe garaia jarri zen Bilbotik hurbil; horren ondoren, beste batzuk ezarri ziren ibai bazterretan. Hala eta guztiz ere, XIX. mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadan batera gertatu ziren abantaila batzuk zirela kausa, Bizkaiko siderurgiak hazkunde handia bizi izan zuen mendearen bukaeran. Hona hemen abantaliak: burdin meategietako eta beste jarduera batzuetako ustiakuntza intentsiboaren ondoriozko kapital-metaketa, burdinaren arloko tradizioak sorrarazitako merkataritza-ohitura, prestakuntzak eta bideek bere horretan irautea, Europako burdin eskarien handitzea eta ikatzaren garestitzeak ekarritako arazoaren konponketa, etab.

Bizkaiko burdin mineralak fosforo gutxi edukitzeak eta aztarnategiak itsasotik hurbil egoteak Europako enpresa siderurgikoak erakarri zituen, bereziki britainiarrak, mineral hori beharrezkoa baitzitzaien altzairua ekoizteko prozedura aurreratuenerako, *Bessemer* prozedurarako hain zuzen. Burdinaren fabrikazioak kapitalak erakarri eta siderurgia Bilboko ibaiaren inguruan kontzentratu zen.

Kokez funtzionatzen zuten labe garaiek inbertsio handiak behar zituzten, eta horrek tamaina handiko enpresak jartzea ekarri zuen.

1878tik aurrera, Bizkaiko produkzio siderurgikoaren igoera izugarria izan zen, ia hamar aldiz handitu baitzen hamar urtetan; urte hartan Espainiako Estatuko burdina kolatuaren %26 egitetik 1888an %82 egitera igaro zen. Produkzioaren zati handiena esportatu egiten zen.

Laurogeita hamarreko hamarkadan, Europako eskariak behera jo zuen, krisi ekonomikoaren ondorioz batetik, eta altzairua produzitzeko *Thomas-Martin* prozedura agertu zelako, bestetik; izan ere, prozedura horrek ez zuen fosfororik gabeko burdin minerala behar, eta harrezkero Europako meategi asko errentagarri bihurtu zituen. Euskal Herriko burdinaren Europako merkatua, ordea, asko mugatu zen, eta euskaldunek barneko merkatuari begiratu zioten. Horren ondorioz, enpresa-jarduera are gehiago kontzentratu zen.

Bere aldetik, Gipuzkoak Bizkaikoaz oso bestelako bilakaera industrialeko eredua izan zuen. Mendearen erdialdetik aurrera, kontsumoko ondasunen industriak sortu ziren bertan; bereziki azpimarratzekoa da paperaren produkzioa, ehunena, metalezko transformatuena (armak) eta elikagaien produkzioa (txokolatea, garagardoa...). Enpresa txikiak ziren, baina oso dinamikoak; lurralde osoan hedatuta zeuden, ibai bazterretan, ikatza inportatzeko ur-korronteak edo itsasaldea aprobetxatuz. Halaber, tokian tokiko halako espezializazio bat sortu zen; Tolosa inguruan paperak hartu zuen garrantzi handiena; ehunak Bergaran; armek Eibarren eta inguruko herrietan, eta elikagaiek Donostiako aldean.

Baina hazkunderik handiena mendearen azken laurdenean gertatu zen, aurreko hazkundea finkatuz eta produkzioa bestelako jarduera batzuetara bideratuz; esate baterako, lantegietako mekanizazio-prozesurako behar zen burdina, Arrasateko sarrailagintza bezalako metalezko transformatuen dibertsifikazioa, turbinen produkzioa, Pasai Antxoko lurrin-makinak eta prentsa hidraulikoak edo Oñatiko burdin manufaktura txikien fabrikazioa.

Hazkunde hori finantzatzeko kapitalak merkataritzaren metaketatik zetozen neurri handi batean, Gipuzkoako jarduera tradizionala baitzen. Kapital horiek erraz bideratu ahal izan ziren, enpresen tamainak ez baitzuen inbertsio unitario handirik eskatzen; horrez gain, kanpotik —bereziki Frantziatik— etorritako enpresarien laguntza ere izan zen, mekanismo hori izaki, bestalde, zuzenean etortzen ez ziren aurrerapen teknikoak eta antolamenduzkoak ekartzeko bide egokia.

Oinarri industrial horren gainera, Bizkaiko kapitalak etorri ziren mendearen azken urteetan, eta are gehiago zabaldu zuten ordura arte abian zen industria.

Laurogeita hamarreko hamarkadan burdinaren esportazioan gertaturiko krisiak —beste arrazoi batzuen artean, une hartako aldaketa teknikoek garrantzi berezia

izan zuten horretan— aldaketa sakonak ekarriko zituen euskal industriaren norabidean.

1890etik aurrera burdinaren produkzio-prozedura berri batzuk hedatzeak —esate baterako, *Siemens-Martin* prozedura, fosforoa zuten mineralak erabiltzea bideratzen zuena— Bizkaiko mineralaren abantaila handiena deuseztatu zuen. Gainera, oztopo protekzionisten orokortzeak Europako merkatu tradizionalak kendu zizkion euskal burdinari. Bereziki larria izan zen 1887an Italiak ezarritako arantzela, herrialde hark hartzen baitzuen esportaturiko euskal burdinaren %70.

Horren emaitza izan zen euskal siderurgia Espainiako merkatura orientatzea. Merkatu hori, alabaina, txikia zen, ekonomia nahikoa atzeraturik zegoelako; baina arantzel protekzionista batzuk zeuden, sektore burges nagusien eta jabeen artean Errestaurazioaren garaian sinaturiko akordio handiaren ondorioz; horrek "Espainiako kapitalismoaren bide nazionalista" izenaz ezagutzen dena zabaldu zuen. Siderurgiaren industriak merkatua banatzeko enpresa-akordioetan oinarrituriko politika oligopolistiko bati ekin zion, produkzioa dibertsifikatuz eskariei erantzuteko, eta halako kontzentrazio horizontal bat eginez. Kostuak gutxituz merkatuak zabaltzeko, berrikuntza teknikoaren bideari eta espezializazioari uko egin eta dibertsifikazioaren alde egin zen; bide horrek kostu gero eta handiagoak ekarriko zituen, baina bazegoen horretarako aukera, monopolizazioaren eta kanpoko babesaren ondorioz ezarritako prezio altuak zirela eta.

Hala ere, hori ez zen oztopo izan industria hazteko, nahiz eta Espainiako merkatuaren mugetatik atera ezinik utzi zuen.

Industriaren hazkunde garrantzitsu horrek energiaren kontsumo gero eta handiagoa eskatzen zuen, eta hondakin gero eta gehiago sortzen zituen. Energia, nagusiki, ikatz mineralaren bidetik lortu zen, ikatz begetalak —era tradizionalean lortua— ez baitzuen biderik ematen gertatu zenaren tamainako hazkundea bideratzeko. Egoera horretan, edozein preziotan lorturiko etekinaren logikak eta garai hartako sentsibilitate sozialaren faltak —baliabideak xahutu ere egiten ziren— eskuragarri zeuden baliabideak izugarri suntsitzeko moduko hazkunde-eredu bat ekarri zuten. Bestalde, horri gehitu behar zaizkio hondakin solido eta likidoak eta gas-hondakinak mugarik gabe isurtzeak naturan eragiten zituen ondorio negatiboak; ondorio horiek deigarriago suertatu ziren Bilboko ibaian, izugarri kontzentratu baitziren han; baina industria zegoen leku guztietan gertatu ziren.

Produkzio industrialaren indizeak denboran zehar izan zuen bilakaerak —siderurgiaren garrantzi handia barne— zabalkunde industriala nahiz krisia gertatu zireneko uneak azaltzen dizkigu, eta aukera ematen digu hemengo datuak hurbileko beste esperientzia batzuekin alderatzeko.

Bilakaera horretan, sei etapa azpimarratu behar ditugu:

1. XIX. mendearen erdialdeko urteetan euskal industriak izan zuen ibilera zalantzatia.
2. Laurogeiko hamarkadako industrializazioaren une gorena; zalantza bat geratzen zaigu: ea 1875-80 urteetako hazkundea ez ote zen izan gehiago indizea eraikitzeko prozeduraren ondorioa.
3. XX. mendearen hasieratik 1916ra bitarteko moteltzea, azterturiko birbideratzearen ondorioz.
4. 1916tik 1923ra bitarteko atzera-egitea, gerra-egoerarekin eta gerraren ondorengo krisiarekin lotu behar dena.
5. Hogeiko hamarkadako zabalkunde nabarmena, hazkunde ekonomiko orokorrari eta Primo de Rivera-ren diktadura garaiko herri-lanen politikari lotu behar zaiena.
6. Hurrengo hamarkadako moteltzea, hogeita hamarreko hamarkadako krisiarekin lotu behar dena.

Alderaketa eginez, ondokoak dira azpimarratzekoak: lehenbiziko industrializazio-uholdearen erritmo handia eta Frantziako industriaren profilaren antzekotasun handiagoa izatea Espainiako industriarena baino, Lehen Mundu Gerratik aurrera (ikus 1.5. irudia).

1.5. irudia. Euskal Herria, Frantzia eta Espainiako Industria-Produkzioaren indizeen bilakaera, 1842-1935. Oinarria 1935 = 100



Iturria: Grupo de Estudios de Historia Rural (1991).

Beren aldetik, Araba eta Nafarroa industriaren hazkunde haietatik urrun egon ziren, eta hazkunde industrialeko prozesu haren nekazaritza-arloko periferiaren eginkizuna bete zuten. Elikagaiak eta emigrazioaren bidezko lan-eskua eman zituzten. Hala ere, hango industria urte haietan hazi eta eraldatu zen, bereziki XX. mendearen hasieratik aurrera.

Hain zuzen, XIX. mendearen azken laurdenean, irinaren sektorearen berrikuntza teknikoa hasia zen, sistema austrohungariarrarekin[2] —Nafarroan, 1927an, era horretako 52 industria zeuden—; ardogintzaren "industrializazioa" garatu zen, ardandegi profesionalak sortuz; Beran eta Araian burdinaren produkzioa berriztatu zen. Industria berriak ere sortu ziren: Tuterako (1899), Marcillako (1899), Cortesko (1920), Iruñeko (1927) eta Gasteizko azukre-fabrikak; *Portland* zementu-fabrika (1903), Olaztin; Iruñeko superfosfatoen fabrikazioa *Navarra de Abonos Químicos* konpainian (1908) edo Lodosako *Sociedad Navarra de Industrias* izenekoan (1916); Nafarroako erriberako kontserben sektorearen indartzea; Gasteizko enpresa mekanikoak, *La Metalúrgica* kasu (1903), edo *Heraclio Fournier* naipe-fabrikaren handitzea (1888). Halaber, Ipar Euskal Herrian, industria tradizionalaren moteltzea eta nekazaritza-arloko espezializazioa —barnealdean— eta zerbitzuetakoa —kostaldean— ez ziren bateraezinak izan jarduera berri batzuen hasierarekin: oinetakoen fabrikazioa Maulen (1850) eta Hazparnen (1895) —krisian sartuko zen hogeita hamarreko hamarkadan—, eta XIX. mendearen bukaera aldeko erauzketa jarduera batzuk. Garrantzi handiagoa izan zuten Adur aldeko burdinolek: Landetako lurraldean egonik ere, eragin handia izan zuten Baionako aldean. 1881ean ezarri ziren, eta lingoteak, altzairua eta ijetziak ekoizten zituzten; ikatza Ingalaterratik inportatzen zuten eta burdin minerala, berriz, Bizkaitik. Haien garrantziaz ohartarazteko, esan behar da 1900ean Bizkaiko labe garaiek baino bi aldi eta erdiz gutxiago produzitzen zutela.

Bestalde, nekazaritzak eraldaketa handiak izan zituen, hazkunde industrialarekin batera; elikagaiez hornitu zuen herrialdeko biztanle-kopuru gero eta handiagoa. Alorren hedapen arin bat gertatu zen, Nafarroan batez ere, eta lurreko lanetan aldaketa batzuk gertatu ziren: zerealek gora eta mahastiek behera egin zuten, eta erremolatxa bezalako labore berriak sartu ziren (1.6. irudia).

1.6. irudia. Hego Euskal Herriko nekazaritza-produkzioa, 1890-1935. Oinarria: 1890 = 100



Iturria: Kalkulu propioak, Grupo de Estudios de Historia Rural izenekoaren lanetan oinarriturik (1991).

2. Errotarri tradizionalen ordez, sistema horrek metalezko zilindro-bikoteak erabiltzen zituen; sistema horrek produkzioa areagotzeko eta kalitate hobeko irina ekoizteko aukera ematen zuen.

Bizkaian hazi zen gehien landutako lurraren kopurua, bikoiztu egin baitzen, populazioaren hazkundearen parean egoteko ahaleginetan; Hego Euskal Herri osoarekin alderatuta, ordea, garrantzi txikia izan zuen hazkunde horrek, %4 izatetik %8 izatera iragan baitzen. Arabak lehengo proportzioei eutsi zien, zerbait hazita ere, eta Gipuzkoa herenera jaitsi zen, abeltzaintza arloko espezializazioaren ondorioz. Nafarroak, ordea, %32 egin zuen gora, eta horrek Gipuzkoako atzera egitea berdintzeko eta Hego Euskal Herrian landutako lurren kopuruak pixka batean gora egiteko balio izan zuen. Izan ere, Nafarroak, garai hartan, euskal lur landuen %60 edo %70 inguru biltzen zituen.

XIX. mendearen bukaera aldeko filoxeraren krisiak gogor zigortu zuen mahatsondoen laborea Araban eta Nafarroan, ekoizle handienak baitziren; eta produkzioak porrot egin zuen. Krisialdiaren unerik txarrenean, Arabako mahastiak 1898an baino hamabi aldiz gutxiago izan ziren eta Nafarroakoak zazpi aldiz gutxiago. Geroko onera egiteak Araban herena eta Nafarroan erdia baizik ez zuen errekuperatu.

Lekadunetarako azalerak lehengoari eutsi zion, eta zerealak izan ziren hazkundearen protagonista nagusiak. Haiek lantzeko azalera %40 baino gehiago hazi zen. Arabako eta Bizkaiko igoerek Gipuzkoako erorialdia berdintzeko balio izan zuten: Nafarroako 80.000 hektareako hazkundeak Hego Euskal Herri osoko hazkundea irudikatu zuen.

Ardo-produkzioaren bilakaeraren zati handiena azaltzeko, landutako lur azaleren tamainan izaniko aldaketetara jo behar da.

Nekazaritza-arloko hazkundea, gainera, lurrak ematen zituen etekinek zertxobait gora egitearen ondorioz gertatu zen, hain zuzen ere mekanizazioari esker, landaketa-sistemetan eginiko aldaketei esker, ongarrien erabilerari esker eta labore berriak sartu izanari esker (1.7. irudia).

1.7. irudia. Hego Euskal Herriko nekazaritzaren errentagarritasuna.



Iturria: Grupo de Estudios de Historia Rural (1991)

Hego Euskal Herriko nekazaritza-arloko produktorerik handiena Nafarroa izan zen: lur-azaleren kopuruarengatik eta labakien gora egitearen ondorioz, elikagaien produktore handi gisa finkatu zen. 1890 eta 1935. urteen bitartean, Nafarroak Hego Euskal Herriko nekazaritzaren sektoreko produkzioaren ehuneko handi bat produzitu zuen: gariaren %74; artoaren %31; lekadunen %49; erremolatxaren %70; ardi-azienden %69; behi-azienden %25; txerri-azienden %44, eta zaldi-azienden %54. Landatutako lur-azalerak, gainera, 1900 eta 1935. urteen bitartean 75.000 hektareatan egin zuen gora Nafarroan, Hego Euskal Herri osoan 20.000 hektareatan hazi zen bitartean.

Hori dela eta, Nafarroa Euskal Herriko nekazaritza-produktorerik handiena bihurtu zen, eta, ikusiko dugun bezala, elikagai asko herrialdeko eremu industrialetara esportatu zituen, abian zen industrializazioak gora egitearen ondorioz populazioak ere gora egin baitzuen leku horietan. Industrializazio-prozesu bateko nekazaritza-periferiaren izate hori Arabak eta Gipuzkoa eta Bizkaiko zenbait eskualdek ere bete zuten, bereziki lekadunen eta behikien produkzioan espezializaturik.

Ipar Euskal Herriari buruz horrenbesteko informazio kuantitatiborik ez dagoenez, ezin dugu antzeko azterketa bat egin, baina Bigarren Mundu Gerrara arte izan zuen bilakaeraren gaineko ezaugarri kualitatibo batzuk aipa daitezke. Alderdirik aipagarriena eraldaketen egonkortasuna eta geldotasuna izan ziren, halako moduan non XX. mendearen hirurogeita hamarreko hamarkadan XVIII. mendeari buruz aipatzen genuen espezializazio-irudi horrek bere horretan irauten baitzuen, neurri handi batean. Egia da, bestalde, mekanizazio-prozesuak eta ongarrien erabilerak ere gora egin zutela, baita erritmo txikian. Lur-zati txikietan produktu tradizionalak lantzeak eta lurralde komunak aprobetxatuz aurrera eramandako abeltzaintza-produkzio estentsiboek nagusi izaten jarraitzen zuten mendearen lehenbiziko herenean. Pultsu demografikoaren faltak —emigrazioaren ondorioz— eta zonaldearen isolamendu ekonomikoak ez zituzten aldaketak erraztu, Hego Euskal Herrian gertatu zenaz bestera.

1.4. MERKATUEN ZABALTZEA ETA BARNEKO ESPEZIALIZAZIOA, 1850-1940 BITARTEAN

Hazkunde industrialarekin eta nekazaritzaren arloko hazkundearekin batera, Euskal Herriaren barneko merkataritza-harremanak ere areagotu ziren, Euskal Herriak kanpoan zituen merkataritza-harremanak bezalaxe. Itsasontziz gauzaturiko merkataritza-harremanek gora egin zuten nabarmen, eta burdinaren, lingotearen eta beste burdinen esportazioaren eta ikatzaren inportazioaren protagonista bihurtu ziren itsas garraioak. 1892an, Bilbon matrikulaturiko flotaren bolumenak Espainiakoaren %43 egiten zuen, eta aise gainditzen zuen Bartzelonako portuarena. Aipatu dugun bezala, siderurgiaren arloko lehen industrializazioko merkataritzaren oinarria kanpoko merkatua izan zen. Hala eta guztiz ere, XIX. mendearen bigarren er-

diaren berritasunik handiena trenbidearen eraikuntza izan zen, barneko merkatuen artikulazioa erraztu baitzuen.

Hego Euskal Herrian eragina zuen trenbide-linea handia Madril-Paris linea izan zen. Haren azken tarteak Miranda de Ebro, Gasteiz, Donostia eta Irun lotu zituen; Nafarroan, Olaztin eta Altsasun eragin zuen linea horrek. Gainera, Tutera-Miranda-Bilbo linea ere eraiki zen. Bestalde, Altsasu-Iruñea-Castejón linea ere eraiki zen; azken hori aurreko beste lineekin batzen zen, ibilbidearen hasieran eta bukaeran, eta Nafarroako hegoaldea konektatzen zuen. Linea handi horiek 1864rako bukatu ziren. Trenbidearen hedapena mendearen bukaerara arte jarraitu zuen, Nerbioi ibaiaren ezkerraldeko meategietako trenbideekin, eta bide estuko trenbideekin, hain zuzen ere Bilbo-Santander, La Robla eta Donostia-Hendaia lineekin. Gainera, Urolako trenbidea egin zen, Zumaia eta Zumarraga artean.

Aurrerago, XX. mendean, Nafarroak bat egin zuen zabalpen horrekin, bide estuko aurrekoen linea osagarri batzuk egin baitziren bertan:

1. Irati (Iruñea-Agoitz-Zangoza)
2. Plazaola (Iruñea-Andoain)
3. Bidasoako trenbideak (Elizondo-Irun)
4. Tutera-Tarazona
5. Cortes-Borja
6. *Anglo-Vasco-Navarro* izenekoa (Lizarra-Gasteiz-Bergara-Oñati)

Esan dezakegu Euskal Herriko trenbidearen eraikuntza Madril eta Paris lotzeko asmo logikoaz eginiko linea handi baten ondorioz gertatu zela, eta gero proiektu partzial osagarri batzuek ordura arte bete gabeko beharrizan batzuk betetzeko eginkizuna izan zutela.

Horren guztiaren logikak —Euskal Herriaren barneko garraioa artikulatzea izan ez arren— eragin integratzaileak izan zituen, eta barneko merkataritza-harremanak areagotu zituen, kostu erlatibo handia izan bazuen ere.

Merkatu-gaien trenbidezko trafikoak nabarmen egin zuen gora, hiru halako, 1879 eta 1930. urteen bitartean. Espezializazio erlatiboko prozesu bat gertatu zen, orduan: Araba eta Nafarroa nekazaritza-produktuez hornitzeko eremu gisa finkatu ziren bitartean, Gipuzkoa eta, batez ere, Bizkaia, elikagaien hartzaile eta produktu industrialen saltzaile gisa finkatu ziren.

1.2. mapa. Hego Euskal Herriko trenbideak



Azter dezagun orain, xehetasun gehiagorekin, herrialde bakoitzaren espezializazioa.

Aipatu dugun bezala, Bilboko portua —eta neurri txikiagoan Donostiako eta Pasaiako portuak ere— itsaso bidezko merkatu-gai ugariren sarbidea eta aterabidea izan zen, bai nazioarteko merkataritzan, bai penintsulako beste portu batzuekiko kabotajeko merkataritzan ere.

Bilboko espezializazio industrial tradizionalak —oinarrizko siderurgiak— portuan aurkitu zuen merkaturatzerako bide nagusia, bai mineral eta metalen salmentari begira, bai ikatza erosteari begira ere. Baina trenbidea intereseko osagarria izan zen Leongo ikatza sartzeko eta oinarrizko burdinak penintsulako beste gune batzuetara bidaltzeko ere. Gainera, asko hazten ari zen populazio bati eusteko behar ziren elikagaien parte handi bat trenbidez sartzen zen: Gaztelako iparraldetik, Arabatik eta Nafarroatik sartzen ziren gari eta irinak, Arabako Errioxako ardoak eta Nafarroako Erriberako kontserba begetalak.

Bestalde, Gipuzkoak bere ehunak, makineria, papera eta abar esportatzen zituen penintsulako beste leku batzuetara, eta elikagaiak —zerealak eta ardoak— inportatzen zituen Araba eta Nafarroatik; azken herrialde horrek garrantzi erlatibo handiagoa izan zuen, Bizkaiarekin trenbide-lotura hobeak zeuzkalako.

Bitartean, Arabak eta Nafarroak elikagaiak esportatzen zituzten, eta haien merkatu onenak Gipuzkoa eta Bizkaia ziren; lehenbiziko biek produktu manufakturatuak erosten zituzten herrialde horietan, nahiz eta erosteko ahalmen eskasa eduki eta kostaldeko herrialdeetako produkzio industrialaren zati txiki bat baizik erosi ez. Izan ere, Gipuzkoako eta Bizkaiko XIX. mendeko eta XX. mendeko esportazio-merkatuak penintsulako beste leku batzuetan zeuden.

Nafarroako kasuan, espezializazio hori gehiago zehazteko bidea eskaintzen duen azterlan bat badugu. Hona hemen, laburbildurik, lan horri buruzko xehetasun batzuk:

XIX. mendean trenbideko trafikoa txikia zen, azpimarratzekoa izanik ondasun manufakturatuen inportazioa eta Frantziara —Irun bitartez— egiten zen ardo--esportazioa, filoxeraren krisialdiak sorturiko abaguneaz baliaturik.

XX. mendeko hogeiko hamarkadan, trafikoa sei halako egin zen, eta haren osaketak Nafarroako ekonomian gertaturiko aldaketak eta probintziez kanpoko merkatu bateko haren integrazioa erakusten ditu. Esportazioaren zatirik handiena Olaztin eginiko zementuak egiten zuen; azpimarratzekoa da, halaber, elikagaien salmenta —garia, irina, ardoa, azukrea eta erremolatxa—. Inportazioen artean, ikatz minerala da azpimarratzekoa, azukre-fabriketan eta zementu-fabrikan asko kontsumitzen baitzen; halaber, Lodosan superfosfatoak egiteko lehengaiak aipatu behar dira.

Merkataritza-harremanen gora-egite horrek integrazio ekonomiko askoz ere handiagoa ekarri zien Arabari eta Nafarroari Bizkaiko eta Gipuzkoako industrializazioaren inguruko esparru ekonomikoan; esparru horretakoak ziren, halaber, Errioxako eta Gaztelako iparraldea, kostaldeko eremu industrializatuetan baitzuten horiek ere beren produktuetarako merkaturik handiena.

Lau herrialdeen arteko integrazio ekonomiko handiagoa gorabehera, haien bilakaera ekonomikoa Estatu Espainiarreko logika ekonomiko orokorrean integraturik zegoen. XX. mendearen hasieratik aurrera, Espainiako gobernuek politika gero eta biziagoa egin zuten ekonomiaren abian esku hartzeko, hain zuzen ere Espainiako merkatua eta inbertsio-arloak kapital espainiarraren esku uzteko eta Estatuan okerren zeuden produkzio-sektoreak —besteak beste, siderurgiarena— sustatzeko. Euskal enpresa siderurgikoek, aldi berean, beren interes ekonomikoak Espainiako leku ezberdinetaraino zabaldu zituzten, batez ere meategien, elektrizitatearen eta bankuen arloetan. Hartara, Euskal Herriko sektore industrial handienen logika ekonomikoa Espainiako merkatuari eta Estatu Espainiarreko erabaki ekonomikoei lotuta jarri zen geroago eta gehiago; baina beren biztanleentzako elikagai-hornidurak behar zituzten, eta Arabatik eta batez ere Nafarroatik eskuratu zituzten horiek.

Bitartean, Ipar Euskal Herrian, espezializazio-prozesuak jarduera tradizionalen atzerakada handia eta desegituraketa-ondorio handiak izanen zituen sektore aktibo baten —turismoaren— hazkunde nabarmena ekarriko zituen.

Jada XIX. mendearen erdialdetik aurrera, Biarritzen, aristokraziari eta elite ekonomikoei zuzendutako turismo-zerbitzuen multzo garrantzitsu bat osatzen hasi zen, dinamismo handiarekin. Biarritzeko populazioaren hazkunde handia sektore horren indarraren erakusgarri egokia da. Jada XX. mendean, turismoa kostaldeko

beste herri batzuetara hedatu zen, eta Frantziako leku askotako jendea —eta neurri txikiagoan Europako beste herrialde batzuetako jendea ere— erakarri zuen. Dinamika ekonomiko horrek populazioaren bilakaerari buruzko datu orokorrek ezkutatzen duten errealitate bat erakusten du: desegituraketa sozial bat, zeren pertsonen kopuruaren egonkortasunaren atzetik —hazkunde txikiekin bada ere— Ipar Euskal Herriko barnealdeko biztanle asko Ameriketara joatea baitzegoen, kostaldeko populazioaren hazkundea beste lurralde batzuetatik etorritako pertsonekin gertatu zelako.

Aldi berean, Ipar Euskal Herriko funtzionamendu ekonomikoa Frantziako Estatuak emandako xedapenez araututa zegoen, eta haren botereko eta eragin ekonomikoko zentroekiko urruntasunak ez zuen inolaz ere errazten herrialde horren jardueraren sustapen dinamikoa.

BIBLIOGRAFIA

Arizkun Cela, A. (1991): *El tráfico ferroviario de Navarra, 1879-1930,* UPNA, Dep. Economía, [documento de trabajo 9104].

Carreras, A. (1985): "La producción industrial catalana y vasca, 1844-1935. Elementos para una comparación", in Zenbaiten artean, *Industrialización y naciona-lismo. Análisis comparativos,* U. Autònoma de Barcelona, Bartzelona.

Carreras, A. (koord.) (1989): *Estadísticas históricas de España. Siglos XIX y XX,* Fundación Banco Exterior, Madril.

Castells, L. (1987): *La modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración, 1876-1915,* Siglo XXI, Madril.

Gonzalez Portilla, M. (1978): *La formación de la sociedad capitalista en el país vasco (1876-1913),* L. Haranburu, Donostia.

Grupo de Estudios de Historia Rural (1991): *Estadísticas históricas de la producción agraria española, 1859-1935,* Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación, Madril.

Laborde, P. (1994): *Pays Basque. Économie et société en mutation,* Elkar, Baiona.

Mitchell, B. R. (1992): *International Historical Statistics, 1758-1993,* Macmillan, Londres.

Rivera Blanco, A. (1985): *Situación y comportamiento de la clase obrera en Vitoria (1900-1915),* UPV, Bilbo.

Zenbaiten artean (1988): *La industrialización en el Norte de España,* Crítica, Bartzelona.

Zenbaiten artean (1994): *Cien años de historia. Navarra, siglo XIX,* Iruñea.

Zenbaiten artean (1995): *Ferrocarriles y Desarrollo. Red y mercados en el País vasco, 1856-1914,* UPV, Bilbo.

Zenbaiten artean (2001): *Historia Económica regional de España. Siglos XIX y XX,* Crítica, Bartzelona.

2. Euskal Herriko bilakaera ekonomikoa: autarkiatik Europako Batasunera

Alejandro Arizkun

2.1. SARRERA

Aurreko etaparen ardatza modu kapitalistak funtzionamendu ekonomiko eta sozialean ezartzea izan bazen, etapa honetan eraldaketa ekonomikoaren elementu nagusia Hego Euskal Herriko lurraldeko industria-jardueren orokortze ezberdina eta Ipar Euskal Herriko zerbitzuen espezializazioa izan da.

Etapa honen abiapuntua Espainiako Gerra Zibilak eta II. Mundu Gerrak ezarritako haustura da. Gainera, Hego Euskal Herrian, ñabardura faxistak zituen diktadura militarraren politikaren norabide ekonomikoen berezitasunek Europako ibilbidetik bereizitako dinamika bat markatu zuten, eta, horren ondorioz, zailtasun ekonomiko nabarmenak izanen ziren etapa honetan.

Erregimen politiko berriaren joera esku-hartzaile eta zentralizatzailearen ondorioz, euskal ekonomiaren bilakaera Estatu zentralaren politika ekonomikoaren joeren eta joera horien aldaketen mende geratu zen. Hala eta guztiz ere, Madrilgo xedapenen euskal eremuko egokitzapenek berezitasun batzuk izan zituzten; bere garaian aztertuko ditugu horiek.

2.2. EUSKAL EKONOMIARENTZAKO TRABA AUTARKIKOA: 1941-1959

Espainiako Gerra Zibilak eta Bigarren Mundu Gerrak haustura bat ekarri zioten Euskal Herriko ekonomiaren dinamikari. Lehenbizikoa, bereziki, aldaketa ugariko garai baten hasiera bat izan zen, agente ekonomikoak bizi zireneko erakundeen esparruari dagokionez. Diktadura-erregimenaren politika ekonomikoak ondorio nabarmenak izan zituen Hego Euskal Herriko egoeran.

Zentra dezagun geure azterketa egoera berriak industrian izan zituen eraginetan, bera izan baitzen garai hartako aldaketa ekonomikoen protagonista nagusia.

Azterketa batzuetan gehiegizko irakurketak egin dira gerra-gertaeren ondoriozko suntsipenei buruz; ikusiko dugun bezala, suntsipen horiek eragin txikia izan zuten, abian jarri zen politika ekonomiko berriaren emaitzekin alderatuz gero, behinik behin.

Nafarroan eta, neurri txikiago batean, Araban ezin da berariaz hitz egin gerra--enfrentamenduez. Matxinada militarrak eta haren ondoko errepresioak arrakasta izan zuten —fusilatze masiboek 3.000 hildako baino gehiago eragin zituzten Nafarroan—, eta berekin ekarri zuten herrialdeko ahalegin ekonomikoak altxatutako bandoaren zerbitzuan jartzea. Egia da pertsona askoren desagertzeak —heriotzagatik nahiz erbesteagatik— aukera kendu ziotela Nafarroari behar zen lan-eskua izateko, hain zuzen ere hildakoak gazteak eta haietako asko prestakuntzadunak zirelako: nekazaritza-arloko liderrak, intelektualak eta agintariak. Horrek, zalantzarik gabe, eragina izan zuen lan-indarraren egoeran.

Gipuzkoa eta Bizkaia, berriz, gerraren jokaleku izan ziren, labur bada ere, urtebetez, 1937ko udarako konkistaturik baitzeuden. Eusko Jaurlaritzak hautatu zuen politikak —hain zuzen ere, erretiradan instalazio industrialak ez suntsitzea— oinarri produktiboari eusteko modua eman zuen. Bestalde, matxinaturiko bandoaren bonbardaketek Gernika eta Durango suntsitu zituzten, baina ez zuten ia batere eraginik izan Nerbioiko eremu industrialean. Suntsipen handienak garraioaren azpiegituretan eta elementu mugigarrietan izan ziren —trenbideak, zubiak, errepideak, portuak, kamioiak, lokomotorrak, bagoiak...—, baina haiek laster berreraiki edo ordeztu ziren. Abeltzaintzak eta nekazaritza-azpiegiturek ere egoera hori jasan behar izan zuten, baina, produkzio-faktoreak izaki, ez zen zailegia izan haiek ordeztea. Herrialde horietan, giza galerak handiagoak izan ziren; erbesteak eta gerra ondoko errepresioak eragin kualitatibo garrantzitsua izan zuten behar zen lan--indarra prestatzeari begira. Instalazio industrialak laster jarri ziren okupatzaileen zerbitzura, bereziki gerrarako produkzioan aritzen ziren sektoreetan; eta garrantzi handikoak izan ziren herrialdean: siderurgia, industria metalikoa, makineria, zementuak, ehunak... Laster gainditu ziren 1935eko produkzio-kopuruak.

Zalantzarik gabe, gerrak produkzio industrial orokorra atzerarazi zuen; laster errekuperatuko zen, ordea, politika ekonomiko berriak normaltasunera itzultzeko oztopoak jarri izan ez balitu.

Diktaduraren politika ekonomikoaren erdigunea erakunde eta orientabide berrien ezarpena izan zen, hain zuzen ere, Alemania nazian eta Italia faxistan mundu-gerra prestatzeko dinamikan proban jarritakoak.

Hona hemen politika ekonomiko berriaren ezaugarri nagusien laburpena:

- Lan-merkatuaren kontrola, Estatuko sindikatuetan nahitaez afiliatzearen bitartez eta lan-arloko aldarrikapenen jazarpena eginez. Horrek lansarien eta langileen bizi-baldintzen beherakada sistematikoa ekarri zuen. 2.1. irudiak ongi agertzen du erorialdi hori.
- Zerga-ezarpen txikia; horri gehitu behar zaio, gastu militarrei gastu publikoen artean eman zitzaien lehentasuna, laguntza sozialetan behar adina gastu egiteko aukera bazter utzita.

2.1. irudia. Langileen soldaten bilakaera Gipuzkoan
Oinarria 100 = 1935



Iturria: Catalan (1995)

– Esportatzeko zailtasunek eta kanpoko finantzaketara jotzeari eman zitzaion ezezkoak larriagotu egiten zituzten ordainketen balantzaren arazoak. Arazo horien aurrean, agintariek inportazioak kontrolatzera jo zuten, lehengaiak, ekipo industrialak edo energia-iturriak inportatzen zituztenei kupo estuak ezarriz, Estatuko administrazioaren politika industrialak ezarritako irizpideen arabera. Horri autarkiaren aldeko aukera ideologikoa gehitu behar zaio, hain zuzen ere, barneko produkzioaren aldeko aukera. Energiarik ezak berekin ekarri zuen inbertsio handiak egin behar izatea petrolioaren ordezkoak bilatzeko, ikatza distilatuz; hori, teknikoki bidezkoa bazen ere, oso garestia zen, eta, gainera, ez zen oso produktu egokia suertatzen.

– Ondasunen eskasiaren aurrean, salneurriak eta merkatu-gaien zirkulazioa kontrolatzeko politika baten alde egin zen.

– Estatuak zuzenean hartzen zuen parte produkzioan, Industria Institutu Nazionalaren bitartez enpresa estatalak sortuz, lehentasunezko interesekotzat jotako sektoreetan. Politika horrek eragin txikia izan zuen Euskal Herrian, Industria Institutu Nazionalak ezarri zuen enpresa bakarra *Potasas de Navarra* izan baitzen.

– Interes militar eta autarkikoa zuten industrien sustapena, dirulaguntzen bitartez eta lehengaiez eta energia iturriez hornituz; horrekin batera, inbertsio industrialen kontrola, nahitaezko baimenen bitartez. Lehentasuna ematen zitzaien, betiere, interes militarreko industriei eta inbertsio-ondasunak nahiz ondasun energetikoak ekoiztea bideratzen zituztenei, kontsumoko ondasunen industria alde batera utzirik.

Politika horrek eragin erabakigarria izan zuen euskal industria berreskuratzeko aukeretan. Lan-kostuei eusteak eta zergen ezarpen txikiak onura handiak ekarri zizkion enpresa-etekinen egoerari, baina inbertsioen kontrolak zaildu egiten zuen etekin horiek produkzio-ahalmena handitzeko erabiltzeko aukera. Bestalde, lehengaien, makineriaren eta baliabide energetikoen eskasiak eragotzi egiten zuten produkzioaren handitzea, lehentasunezko industrien kasuan ere; industria horiek, askotan, beren ahalmenaz azpitik aritzen ziren lanean. Kontrabandoak eta merkatu

beltzak aukera eman zuten, batzuetan, muga horiek gainditzeko, kostu handiekin izanda ere; hori, hala ere, ez zen aski izan industriak, askotan, produkzio-ahalmen gehiegizkoaz lan egitea saihesteko.

Euskal Herriko industria nagusia, oinarrizko siderurgia, onik atera zen egoera horretatik, baimenak eta produktuen interes estrategikoengatiko dirulaguntzak zirela eta. Hala eta guztiz ere, produkziorako txatarra ugari behar izateak —garai hartan nagusi ziren prozedura teknikoak zirela kausa— "botila-lepoaren" egoera sortzen zuten; izan ere, gerra zibila baino lehen, erabilitako txatarraren zati handi bat inportaziotik zetorren (2.2. irudia). Bestalde, koke ingeles tradizionalaren ordez Asturiaskoa eta Leongoa —kalitate txikiagokoak— erabiltzeak arazo teknikoak sortzen zituen, errauts ugari sortzen zuelako eta fosforo asko zeukalako. Gainera, laster sortuko ziren energia elektrikoa sortzeko hornidura-arazoak. Garaiko agintarien hitzaldietan ohiko bihurtu zen "etengabeko lehortea" aipatzea produkzio hidroelektrikoaren erorialdiak azaltzeko, hartara ezkutatuz ezen salneurrien politika okerrak zerikusi handia zeukala arazo horretan. Tarifa elektriko baxuak zirela kausa —pobrezia orokorra zen une batean energia eskuratu ahal izatea erraztu nahi baitzen—, konpainia elektrikoek inbertsioak eta produkzioa murriztu zituzten. Okupazio militarraren ondoren industria siderurgikoa laster abian jarri bazen ere, —hain zuzen ere, bando matxinatuaren arma-beharrak asetzeko—, eta laster 1935eko produkzio-mailak gainditu baziren ere, Bizkaiko industria-delegatuaren 1942ko txosten batek argi adierazten du ezen Bizkaiko labe garaiek une hartan ekoitz zezaketen burdin lingotearen %71, *Bessemer* altzairuaren lingoteen %66 eta *Siemens* lingotearen %47 ari zirela egiten.

2.2. irudia. Estatu Espainiarreko txatarra-inportazioak
1935-1945



Garrantzi handiko beste sektore bat sektore mekanikoa izan zen, non besteak beste ondoko enpresak azpimarratu behar diren: Zumaiako trenbideetarako material enpresak, Sestaoko Diesel motorrak, Eibar eta Elgoibarko josteko makinak, Arrasateko sarrailagintza... Horiek guztiek eskarien bultzada handia jasan zuten berrogeiko hamarkadan. Industriaren berreraikuntzak, makinak inportatzeko zailtasunek eta Estatuak produkziorako ematen zuen laguntzak berekin ekarri zuten sektore

hauetako inbertsioak nabarmen handitzea. Hala eta guztiz ere, produkzio horietan ere arazoak etorri ziren, horniduren eskasiarengatik. Altzairu eta ijetzien eskasiak, arazo siderurgikoen estekatzeak eta jada aipaturiko energiaren eskasiak eragotzi egin zuten eskariaren tiraldia aprobetxatzea, eta Estatuko metalezko produkzioak —haren zati handi bat Euskal Herrikoa— urtero %3,5 egin zuen behera, 1940 eta 1945. urteen bitartean.

Industria horiek —lehentasunezko sektoreetan egonik eta, beraz, *input*en horniduretan dirulaguntzak jasotzeko aukera edukita ere— zailtasunak aurkitu bazituzten, argi dago sektore estrategikoetan ez zeuden industriek zailtasun handiagoak izan zituztela.

Politika industriala interes militar edo autarkikoko sektoreetara orientatzean, gainerako sektoreak Estatuko laguntzatik kanpo utzi zituzten, kontsumoko ondasunen industria bereziki. Inbertsioko baliabideen eta inportazioko ondasunen mugen ondorioz, Estatuak murriztu egin zuen sektore batzuen hedapena: kontsumoa baino produkzio-ahalmen handiagoa zuten sektoreak —errota-gaiak, xaboia, oinetakoak, papera...—; lehengai eskasak erabiltzen zituzten sektoreak —gozogintza, kontsumoko metalezko artikuluak, lurrin-produktuak...—; eta elikagaiak prestatzeko sektoreak —pastak, gailetak, kontserbak...—, haien osagaiak zuzen erabil baitzitezkeen. Produkzio-kuotak ezarri ziren, prezioak kontrolatu ziren, inbertsiorako baimenak ahal zen guztietan murriztu ziren, eta inportaziorako baimen gutxi batzuk baizik ez ziren ematen.

Irinaren industriak —Nafarroan garrantzi handikoa— edo gailetenak eta txokolatearenak —Gipuzkoan, batez ere— arazo handiak izan zituzten.

Gipuzkoan gora ari zen beste industria batek —Eibar, Elgoibar eta Bergarako armen industriak— produkzio-kontrolak jasan behar izan zituen. Mundu-gerrak sor zitzakeen esportazio-eskariek eragin txikia izan zuten Gipuzkoako armen industrian. Agintariek arma motzen fabrikazioa debekatu zuten —armada hornitzeko behar zirenez kanpo—, eta estu kontrolatu zituzten gainerako produkzioak. Horrela, 1946an, produkzio normalaren %25 produzitzen zen. Bestalde, Gipuzkoako ehunen industriak, arazo horiez gainera, arazoak izan zituen bere lehengai nagusiaz —kotoiaz— hornitzeko, kotoia inportatu beharrekoa baitzen.

Ondoriozta daitekeen bezala, euskal industriaren arazo nagusiak Franco-ren diktadurak ezarritako politika ekonomikoaren ondorioak ziren. Hautatu ziren bideek —inolaz ere ez ziren posible ziren bakarrak— osagai bikoitza zuten: erregimenaren autarkiaren aldeko pentsamendu ideologikoa eta kanpoko politikari buruzko jarrera.

Energiaren eskasia larria eta garapen teknologikoaren maila mugatua zituen ekonomia batean, autohornikuntzaren konponbiderik gabeko obsesioa, garaiko politika industrialaren orientabide guztien burua izan zen. Gainera, praktikan,

Ardatzaren potentzien aldeko jarreraren ondorioz —herrialde neutrala edo ez-beligerantea izateari buruzko deklarazio guztiak gorabehera—, Espainiako diktadurak ezin izan zuen petrolioaren, kotoiaren edo bestelako lehengaien hornidura onartu, ez eta Estatu Batuen edo Erresuma Batuaren laguntza ere, nahiz eta horiek interesaturik egon Espainia gerran sar ez zedin. Alemaniaren ahuldade argi eta garbia ikusi ondoren, Franco-ren erregimenak aliatuen bandora hurbildu nahi izan zuenean, berandu zen, eta nazioarteko isolamenduak —gerra bukatu ondoren ere bost urtez baino gehiago luzatu zena— oztopo nabarmenak ezarri zituen kanpoko balantzaren defizita arintzeko, eta baita Amerikako Estatu Batuek Europako gerra ondorengo berreraikuntzarako —berrogeiko hamarkadaren bigarren erdian— eman zituzten laguntzetan parte hartzeko ere.

Berrogeita hamarreko hamarkadan, politika ekonomiko haren orientabide nagusiei eutsi zitzaien, ukitu estetiko batzuk gorabehera; baina nazioarteko egoera aldatu egin zen, eta horrek aukera eman zuen, aldi baterako izan bazen ere, aipatu ditugun oztopo ekonomiko nagusiak saihesteko.

Bando aliatuaren hausturak eta Ameriketako Estatu Batuen eta Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunaren arteko "gerra hotza" deitu izan zenaren agerrerak muturreraino aldarazi zuten munduaren egoera geoestrategikoa. Esparru berri horretan, mendebaldeko herrialdeek lehen planoan jarri zuten SESBrekiko enfrentamendua, alde batera utzita erregimen demokratikoen defentsari buruzko balioak, hain zuzen ere gerran zehar haien orientabide ideologikoak izan zirenak. Horrek harremanetarako bide berri bat zabaldu zion diktadura frankistari.

1951n Ameriketako Estatu Batuen laguntza ekonomikoak erabaki ziren, eta gobernu-aldaketa batek malgutasun handiagoa erakutsi zuen kanpoko harremanak errazteko, politika ekonomikoaren orientabide autarkikoa aldatu gabe ere. Kanpoko laguntza finantzarioaren ekarpenak eta esportazioen hazkundeak kanpoko defizitaren estutze larrienak deuseztatu zituzten, eta aukera eman zuten petrolioaren eta ekipo-ondasunen inportazioen hazkunde iraunkor bat hasteko, hazkunde industriala erraztuz; egoera horrek gerra zibilaren aurreko maila industriala berreskuratzeko eta berrogeiko hamarkadan kolapsaturiko hazkunde-dinamikari berriz eusteko bidea erraztu zuen. Europako ekonomiek berrogeita hamarreko hamarkadan berreraikuntzaren urteak iragan ondoren izan zuten hazkunde handia, Espainiako esportazioak areagotzeko faktore garrantzitsua izan zen.

Egoeraren hobetze horrek, dena den, urte gutxi batzuetan baizik ez zuen iraun. Estatuaren defizit-egoerak —non zeregin garrantzitsua izan baitzuen Industria Institutu Nazionalak eginiko inbertsio industrialak— hura finantzatzeko moneta emititzea ekarri zuen ondorio, eta horrek, berekin, inflazio ikaragarri azkarra. Bitartean, jarduera ekonomikoaren gaineko kontrolek eta esku-hartzeek beren horretan zirauten, eta haien ondorioz *input*en kostuak eta 1956an langileen erantzun gero eta handiagoari —debekatuta egon arren— konponbidea bilatzeko eginiko lansarien igoerak, enpresen kostuak handitu eta salneurriak igoarazi zituzten: horrek guztiak

Espainiako produktuen kanpoko lehiakortasuna mugatu zuen. Egoera horri gehitu behar zaio gainbalioturik zegoen pezetaren truke-tasari artifizialki eutsi nahi izan zitzaiola. Aipatu berri ditugun arrazoien bidez, erraz uler daiteke elementu horiek —guztiek batera eragitean— kanpoko balantzaren beste hondamendi bat ekarri zutela.

Arazo berri horietarako irtenbidea politika ekonomikoaren berrorientatze garrantzitsu baten bidez bilatu zen; hori 1959ko Egonkortze-Planarekin hasi zen. Ondoko atalean aztertuko dugu hori.

Euskal industriak hazkunde handiak bizi izan zituen berrogeita hamarreko hamarkadan, nahiz eta sektorialki oso ezberdinak izan ziren hazkundeak, hain zuzen ere sektore horrek politika industrialaren baitan aztergai dugun garaian zeukan lekuaren araberakoak. Gainera, Araban eta Nafarroan industria berri baten oinarriak ezartzen hasi ziren; industria hori metalaren sektorean zentraturik zegoen nagusiki, eta zabalpen nabarmena izanen zuen hurrengo hamarkadan.

Bestalde, Ipar Euskal Herriko ekonomiak esparru instituzional ezberdin batean funtzionatzen zuen, oso bestelako politika ekonomiko batekin: haren arazoen oinarria iraganeko dinamikaren luzatzea zen.

Berrogeiko hamarkadako lehen urteetan arazo handiak egon ziren gerra-egoeraren ondorioz, nahiz eta Ipar Euskal Herriak, gerraren jokalekuetatik urrun, ez zuen ez suntsipenik ez esateko moduko distortsio materialik jasan behar izan. Arazo ekonomiko handienak lan-eskuaren eskasiaren ondorioa ziren, produkzio-jarduerarako ezinbestekoak diren gizonezkoetako asko eta gazteetako ugari mobilizaturik baitzeuden.

Berrogeiko hamarkadan zehar, Ipar Euskal Herriko populazioak behera egin zuen, aurrerago —2.4. irudian— ikusiko dugun bezala. Hona hemen beheraldi horren arrazoiak: jaiotze-tasaren beherakada, Lehen Mundu Gerrako belaunaldi hutsak ugaltzeko adinera iristea, hamarkadaren hasierako urteetako gerra-egoera bera, eta emigrazioa. Hurrengo hamarkadetan, populazioa hazi egin zen, oro har, baina barnealdea erorialdi demografiko geldiezin batean sartzen hasi zen.

Mundu-gerra eta geroko ekonomia frantsesaren oneratzeak eta berrogeita hamarreko eta hirurogeiko hamarkaden hazkunde azkarraren hasierak errazago egin zuten Ipar Euskal Herrian industria ezartzea. Betiere, tamaina mugatua izan zuen, eskualdeak berez dauzkan oztopo ekonomikoengatik eta botere politikoaren eta Frantziako hedapen ekonomikoaren guneetatik urrun zegoelako. Gainera, Espainiako ekonomiaren nazioarteko isolamenduak eragotzi egin zion Hego Euskal Herriko industriak sor zezakeen tiraldiaz baliatzea. Ipar Euskal Herriko ekonomian ez zen bat-bateko aldaketarik izan, Hego Euskal Herrian 1959an bezala. Hori dela eta, industria-gune eskas horiek eta haien hurrengo urteetako porrota ondoko ataletan aztertuko ditugu.

2.3. BARNE-ESPEZIALIZAZIOAREN ALDAKETAK ETA DESARROLLISMOAREN GARAIA: 1960-1973

1959an inauguratu ziren politika ekonomikoaren aldaketek aurreko bi hamarkadetako orientabideekiko aldaketen hasiera ekarri zuten, baina ez zuten inolaz ere esan nahi bide berritik hasi zenik. Esan daiteke, biratze horrek malgutasun handiagoa ekarri zuela agente ekonomikoen jardueran eta Estatuaren esku-hartzeak jarduera ekonomikoan eginkizun nagusia izaten jarraitu zuela, oraingoan mekanismo zeharrekoagoak erabiliz. Hona hemen biratze horren neurri zentralei buruzko laburpena:

- Sektore askotan desagertu egin zen inportazioen kontrol estua, baina haren ordez arantzel oso protekzionistak ezarri ziren; hain zuzen ere, 1962an onetsi zen neurri hori.
- Maila errealistago batean jarri zen truke-tasa: dolarraren kotizazioa 25 pezetakoa izatetik 60 pezetakoa izatera iragan zen, eta horrek esportazioa erraztu zuen.
- Lan-merkatuaren gaineko kontrola, sindikatu bertikalen eta beharginen erantzunaren ondorengo jazarpen polizialaren bitartez gauzatzen jarraitu zuten, baina langileen antolamendu klandestinoek indar handia hartu zuten; bereziki enpresa handietan hobekuntza batzuk lortu zituzten lansarietan, greba eta mobilizazioei esker.
- Jarduera ekonomikoen gaineko presio fiskal txikia, nahiz eta jardueraren handitzeak Estatuaren diru-sarrerek ere nabarmen gora egitea ekarri zuen.
- Industria-jardueraren arloko esku-hartzea lehentasunezko jarduerei emaniko kredituen bitartez gauzatu zen, eta baita Estatuko politikarekin "baterako ekintzan" aritzen ziren enpresei emaniko salbuespen fiskalen bitartez ere.
- Atzerriko kapitala sartzeko aukera zabaldu zen, nahiz eta muga handiak ezarri ziren kapital horrek Espainiako enpresak ez kontrolatzeko.
- Industria Institutu Nazionalak erregimenaren politika industrialean eragin garrantzitsua izaten jarraitu zuen, nahiz eta haren eginkizuna zentratuagoa egon produkzio estrategikoetan eta galerak zituzten enpresak bereganatzean, eta ez hainbeste hazkunde industrialaren punta-puntako erakundea izatean. Hala ere, esan dugun bezala, Euskal Herriko industrian oso leku eskasa izan zuen erakunde horrek.

Abian jarri zen politika industrialaren tresna berri bat, honako hau izan zen, alegia, 1962tik aurrera "plangintza indikatibo" bat egitea, garapen-planen bitartez, bi helbururekin: hazkunde industriala eta hazkunde horren lurralde-oreka. Helburu hori erdiesteko, garapen-polo batzuk definitu ziren, hain zuzen ere industria-maila txikiko lekuetan, non lurra eskaintzen zitzaien inbertitu nahi zuten enpresei, industriarako behar ziren oinarrizko azpiegiturekin batera —ura, energia, komunikabi-

deak...—. Gainera, dirulaguntzak eta aldi baterako salbuespen fiskalak ere ematen zitzaizkien polo horietan instalatzen ziren enpresei. Euskal industriaren sektoreak ez zuen plan horren onurarik jaso, ez baitzen garapen-polorik batere definitu lurralde horretan; hala ere, Nafarroako Diputazioak —bere ogasuna administratzeko nolabaiteko eskumenak baitzituen— Industria Sustatzeko Plan bat onetsi zuen 1964an, Estatuko planen berdina Nafarroako lurraldean; plan horrek, ikusiko dugun bezala, ez zuen oreka berreskuratzeko ondoriorik erdietsi, eta ez zen abiaburu garrantzitsua izan, ezta ere, herrialde horretako industriaren hazkunderako, nahiz eta industria-jarduera erraztu zuen.

Erregimen frankistaren politika ekonomikoaren orientabidea muturretik aldarazi ez zuten neurrien multzo horrek, hala ere, eragile ekonomikoen jarduera bideratu zuen, industriaren hazkundearen ahalmenei probetxua ateratzeko bidean; hain zuzen, neurri horiek inguruko herrietan urte horietan gertaturiko tiraldi ekonomikoak eragin zituzten, eta aski izan ziren garapena oztopatzen zuten traba batzuk deuseztatzeko.

Konpondutako estutze aipagarriena, agian, kanpoko sektoreari zegokiona izan zen. Atzerriko kapitalen sartzeak, emigranteek igorritako diru-kopuruek eta turismoak sorturiko diru-sarrerek aukera eman zuten kanpoko merkataritza-balantzaren defizitak kitatzeko eta, horrenbestez, industria-jarduerarako behar ziren petrolioaren, ekipo-ondasunen eta lehengaien inportazioa areagotzeko.

Berrogeita hamarreko hamarkadako Europako eta mendebaldeko zabalkunde ekonomikoak —hirurogeiko hamarkadan ere jarraitu zuenak— inbertsiorako eremu berrien bila zebilen kapital-metaketa handi bat sortu zuen. Kapital horrek, gainera, geroago eta lan-esku gehiago behar zuen, eta lan-esku horren zati handi bat kanpotik zetorren: hura izan zen espainiarren Europarako emigrazioaren unerik gorena, eta zerbitzu berriek —besteak beste, turismoak— eskatzen zituzten populazio-sektore zabalen errentak handitu zituen.

Aurreko estuasuna deuseztatu zuten dibisen sarbiderako iturri horiek hirurogeiko hamarkadako Europako hazkunde ekonomikoan zuten oinarria. Garai hartako Espainiako ekonomiaren berritasunik handiena hauxe izan zen: aurreko urteetan hazkunde horrek berekin zekarren tiraldia aprobetxatzea eragozten zuten oztopo batzuen deuseztatzea.

Euskal industrialariek abagune ekonomikoaren aukerak aprobetxatu zituzten, eta euskal industria, oro har, sekula bere historian ezagutu gabeko erritmoaz hazi zen. Gainera, aurreko hamarkadan Araban eta Nafarroan hasitako nagusitasun industrialean sakondu zen. Ipar Euskal Herrian, aldiz, industria batzuen ezarpena ez zen aski izan sare industrial iraunkorra mamitzeko.

Populazioaren bilakaerak aukera ematen du industria-hazkunde haren eragin batzuk era konparatuan antzemateko (2.3. irudia).

2.3. irudia. Populazioaren bilakaera alderatuta
1930-1970



Iturriak: Mitchell (1998), Espainiako populazioaren erroldak eta Laborde (1994)

Hirurogeiko hamarkadan, Euskal Herriko populazioaren hazkundeak aise gainditu zuen inguruko herriena. Hazkunde horrek berrogeita hamarreko hamarkadan hasitako tiraldiari jarraipena emateko balio izan zuen. Hazkunde handiena jasan zuten herrialdeak herrialde industrializatuenak izan ziren: Bizkaia eta Gipuzkoa, hurrenez hurren. Industria-kontuetan, hirurogeiko hamarkadan, Arabak gainerako herrialdeak gainditu zituen, eta Nafarroak ere nabarmen egin zuen gora 1960 eta 1970 bitartean. Ipar Euskal Herrian, berriz, hazteari utzi gabe ere, halako moteltze bat antzeman zen urte horietan; geroago aztertuko duguna (2.4. irudia). Populazioaren hazkunde horrek —neurri handi batean Estatu Espainiarreko eremu behartsuago batzuetatik (Gaztela Zaharra eta Galizia) etorritako migrazio-korronte batean oinarrituta gertatu zenak— Hego Euskal Herriko hazkunde industrial azkar eta orokorrerako behar zen lan-eskua ekarri zuen.

2.4. irudia. Euskal populazioaren hazkuntza
Herrialdeka (%)



Iturriak: Autorearen kalkuluak, Espainiako populazioaren erroldetan oinarrituta, eta Laborde (1994)

Hirurogeiko hamarkadaren hasieran, Bizkaiak Hego Euskal Herriko industria-ondasunen ehuneko berrogeita hamar baino gehiago (>%50) produzitzen zuen eta Gipuzkoak ehuneko hogeita hamar baino gehiago. Nafarroak ehuneko ia hamar

egiten zuen eta Arabak ehuneko zortzi baino gutxixeago. (2.5. irudia). Hirurogeiko hamarkadako hazkundeak lau herrialdeetan izan zuen eragina, baina bereziki Araban eta Nafarroan; azken horiek industria hartu zuten beren jarduera ekonomiko nagusi gisa eta Euskal Herriko industrian zuten garrantzia areagotu zuten. 1974an, bai Arabak bai Nafarroak bakoitzak Hego Euskal Herriko produktu industrialaren ehuneko hamabi inguru hartzen zuten. Industrializazio gutxieneko herrialdeak garapen industrialaren bidean sartu ziren orduan, industriaren tamainan herrialde garatuenekiko aldea murriztuta. Haiekiko aldearen murriztea txikia izan bazen ere, buelta eman zitzaion aurreko faseetako joerari, alegia, industriaren arloko aldeak sakontzeko joerari.

2.5. irudia. Hego Euskal Herriko produktu industrialaren hazkundea
Herrialdeka (%)



Iturria: Llopis (1994).

Industriaren hazkunde horren oinarriak, dena den, ezberdinak izan ziren aldez aurretik industrializatuta zeuden herrialdeetan, Bizkaian eta Gipuzkoan, eta industrializazio berriko herrialdeetan, Araban eta Nafarroan. 2.6. irudian diferentzia horietako batzuk ikus daitezke.

2.6. irudia. Manufakturen hazkundea, 1964-1974 (%)



Iturria: Llopis (1994).

Lanaren itxurazko produktibitatearen hazkundea (BEG/Landunak) oso antzekoa izan zen lau herrialdeetan, ehuneko bederatzi eta hamaika bitartekoa. Hori dela eta, Araba eta Nafarroako hazkundea azaltzeko enpleguaren igoera nabarmena hartu behar da aintzat. Arabako kasua azpimarragarria da, bai enplegua eta bai

produktibitatea hazi zirelako; Nafarroan, ordea, produktibitatea gainerako herrialdeetan baino gutxiago hazi zen. Hala eta guztiz ere, produktibitatea oso bestelakoa zen produkzio-sektore ezberdinetan, eta hazkundearen arloko ezberdintasunen zati handi bat herrialde bakoitzaren espezializazioarekin lotu behar da.

Oro har, Hego Euskal Herriak lortu zuen espezializazio industriala metalaren arloko espezializaziora bideraturik zegoen, argi eta garbi, 2.7. irudian ikus daitekeen bezala. Oinarrizko metal-produkzioa eta haren eraldaketa batuz gero, industria-jardueraren ehuneko berrogeita hamar baino gehiago egin zuten. Haren aldean, nolabaiteko distantzian bada ere, industria kimikoa da azpimarratzekoa, %10eko indizea gainditu baitzuen.

2.7. irudia. Hego Euskal Herriko egitura industriala
(BEG) 1969



Iturria: Merkataritza-Ganbarak

Espezializazio-esparru horretan bi eredu oso markatu bizi ziren elkarrekin: lehena, Bizkaiko eta Arabako metalaren eta kimikaren arloko gain-espezializazioa; bigarrena, metal-arloko espezializazioa, beste sektore batzuekin orekatuagoa —papera, elikagaiak, kimikoa...— (2.8. irudia).

Nafarroan garrantzi handiagoa izan zuten teknologikoki gutxiago garaturiko sektoreek —larrua, kontserbak edo papera, kasu—, eta horrek azal lezake produktibitatearen hazkunde txikiagoaren zati handi bat.

Bizkaiko eta Gipuzkoako jarduera industrialaren poloak tira egin zuen Arabak eta Nafarroak industriaren arloan hazteko: batzuetan, saturazio industrialak industriak ezartzeko eremu berriak bilatzea eskatzen zuenean —Tafallako *Victorio Luzuriaga*, Leitzako *Papelera*...—; beste batzuetan, tarteko produktuak edo amaierako kontsumokoak eskatuz, edo merkatuei, teknologiei edo aukerei buruzko informazioa emanez, hurbiltasunagatik eta harreman estuengatik...

2.8. irudia. Hego Euskal Herriko egitura industriala herrialdeka
(BEG) 1969



Iturria: Merkataritza-Ganbarak

Baina, gainera, hazkundeak zabaldutako aukerak —Araban eta Nafarroan metatzen joan zirenak— politika ekonomikoak ezarritako oztopoek mugaturik zeuden; berrogeita hamarreko hamarkadan agertzen hasi ziren arren, hirurogeiko hamarkadan izanen zuten une gorena, zeren erregimen frankistaren politika ekonomikoak zenbait zirrikitu zabaldu eta oztopo batzuk deuseztatu baitzituen.

Urte horietako Europako ekonomien hazkundeak eta Espainiakoak bultzada handia izan ziren Hego Euskal Herriko hazkunde industrialerako; bultzada hori nabarmen aprobetxatzen jakin zen.

Hirurogeiko hamarkadaren bukaera aldeko nazioarteko abagunearen aldaketak zuzenketa garrantzitsua egin zuen hedapen-dinamika horretan, eta jarduerari galga jartzea eta antolamendua berregokitzea ekarri zituen.

Bitartean, Ipar Euskal Herrian hazkunde industrial txiki bat gertatu zen, Frantziako ekonomiaren berrogeita hamarreko eta hirurogeiko hamarkaden haz-

kundearen ondorioz. Nekazaritzako eta industriako edo ehungintzako establezimendu txikiei begiratu gabe, herritik kanpo ere proiekzioa izanen zuten hiru gune zeuden: Donibane Lohitzune inguruko kontserben industria, Mauleko espartinen produkzioa eta Baionako gunea; dena den, bertako industria gehienak Landetan zeuden. Azken gune horrek industria aeronautiko, kimiko edo elektrikoak biltzen zituen, bertako ekonomian eragin gutxi zutenak, behar ziren hornidurak eta merkatuak oso urrun zeudelako.

Hala eta guztiz ere, Donibaneko eta Mauleko gune industrialek desagertzera eramanen zituzten arazoak izan zituzten, geroago eta gehiago. Kontserben industriaren arazoak lehengai nagusiaz —arrainaz— hornitzeko arazoekin lotu behar dira. Bizkaiko golkoko arrain-bankuen agortzea eta estatu guztiek 200 miliako demarkazioa ezartzea arrazoi nahikoa izan ziren Donibanen sardina eta atun geroago eta gutxiago sartzeko, nahiz eta bertako flotak ahalegin handiak egin geroago eta urrunagoko arrantza-lekuetara joateko. Inguruabar horiek zirela eta, atzerabide mantsoan hasi zen kontserben industria, gaur egun arte.

Espartinen industria modaren aldaketen eta eskarien orientabide berriei egokitzeko malgutasunik ezaren biktima izan zen. 1954an saldutako 25 milioi pareetatik, 1970ean 10 milioi baizik ez ziren saldu; 1978tik aurrera ia desagertzerainoko krisialdi batean sartu zen, hirurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran une on batzuk izan baziren ere, egokitzapen-ahaleginei esker. Gune industrial dinamiko bakarra Baionakoa izan zen.

Industriaren pultsu eskasa ez bezala, turismoaren espezializazioa sakontzen joan zen, eta horrek berekin ekarri zuen kostaldeko populazioa handitzea eta barnealdekoa ia hustea.

Hogeita hamarreko hamarkadako krisialdiak eta mundu-gerra ez ziren onak izan Ipar Euskal Herriko turismorako; hala ere, gerra ondoren, jarduera horren oneratze bat gertatu zen; turismoa asko hazi zen hurrengo lau hamarkadetan, nahiz eta orientabidez aldatu zen. Lehenbiziko bultzada lehengo turismo aristokratikoa berreskuratzeko ahalegina izan zen, 1954an bere unerik gorenena eraman zuena. Urte hartatik aurrera, klase ertainen turismoak gainditu zuen hura, Europako populazioaren sektore askoren errentek gora egiten hastearekin batera, urte horietako espantsio ekonomikoaren ondorioz.

Ipar Euskal Herriko populazioak Lapurdiko kostaldean kontzentratzera jo zuen, barnealdeak etengabe behera egiten zuen bitartean. 1954 eta 1975. urteen bitartean, Baionako eta inguruko kantonamenduetako populazioak %25 baino gehiago egin zuen gora; kostaldeko gainerakoak %10 egin zuen gora, eta zerbait gora ere egin zuten Donibane Lohitzune eta Hendaiatik hurbil dauden kantonamenduek ere, turismoaren tiraldiaz aprobetxatuz. Barnealdeak, aldiz, populazioak behera egitea jasan behar izan zuen; horren salbuespena Maule eta inguruak izan ziren.

2.4. KRISIALDI EKONOMIKOA ETA ESKUALDEKAKO AGERPEN DISPAREKOA: 1974-1986

Aurreko etapako munduko ekonomiaren hazkunde-prozesu beraren oinarriak higatzen hasi ondoren, prozesua agortzen hasi zen. Higadura horren emaitza nagusia etekin-tasaren jaitsiera izan zen. Etekinen bolumen bera lortu ahal izateko, kapital finkoan behar ziren inbertsioen gehikuntzak zein kapital-ondasunen prezioen igoerak, inbertsioetan lorturiko etekin-tarteak murriztu zituzten. Batzuetan, etekin-tarteen jaitsialdi horiek prezioen gorakadekin konpentsatu zituzten enpresaburuek, eta horrek inflazio-prozesuak ekarri zituen. Alabaina, sindikatuek lorturiko indarraren eta langileen mobilizazioen ondorioz, askotan, lansarien igoerak lortzen ziren, eta inflazioa orekatzeko, tresna hori ixten zuten. Bestalde, Amerikako Estatu Batuetako kanpoko defiziten moneta-finantzaketak Europara eta munduaren gainerako lekuetara txanponaren tentsio inflazionistak esportatzen zituen, aurreko arazoak larriagotuz eta 1944an Bretton Woods-en ezarritako nazioarteko moneta-sistema zalantzan jarriz. Horren guztiaren ondorioz, Amerikako Estatu Batuetako Erreserba Federalak dolarrak urrearekiko zuen erlazioa etenarazi zuen 1972an.

1973ko petrolioaren prezioen igoerak kostuen egitura desorekatu zuen energia hori erabiltzen zuten industria-enpresa askotan, eta petrolioa inportatzen zuten herrialdeen defizita sortu edo larriagotu zuen. Horrek zailago egin zituen herri horien inportazioak. Elementu-multzo horrek aurreko hazkundearen dinamika hautsi zuen, eta bidea zabaldu zien atzeraldi ekonomikoari eta politika ekonomikoaren muturreko aldaketari, zeren, une horretatik aurrera, atzeraldi ekonomikoari eta inflazio-tasa altuei aurre egin beharko baitzitzaien.

Etekin-tasen jaitsiera eta aipaturiko zailtasunak zirela kausa, enpresa askok uko egin behar izan zieten beren inbertsio-proiektuei, aurretik zeukaten segurantzarik gabeko panoramaren aurrean, eta horrela, inbertsio-ondasunen eskariaren jaitsiera nabarmena gertatu zen. Ondasun horiek produzitzen zituzten industriak izan ziren krisiak jotako lehenak; ondoren, garraio-enpresak etorri ziren, merkataritzaren geratzeak ukituak. Politika ekonomikoek soldata errealak jaitsaraztea lortu zuten, eta eskarien jaitsierak kontsumoko ondasunen produkzioan ere eragin zuen. Eragin kateatu horren bitartez, atzeraldi ekonomikoak munduko ekonomia osoan eragin zuen azkenik.

Aipatutako inguruabarrek larritasun handiz eragin zuten Espainiako ekonomian, petrolioaren inportazioen menpe zegoelako eta diktaduraren aurkako herriaren jarrerak ahuldutako erregimen politiko bat zeukalako. Gainera, sindikatuen aldarrikapenek, borroka politikoekin batera, soldata errealen handitzea lortu zuten, haiek gora ari zen inflazioa konpentsatzeko tresnak izaki.

Ahultasun politikoaren ondorioz, Espainiako gobernuak gerorako utzi zuen petrolioaren prezioen gorakada barnealdeko prezioetara aldaraztea, prezioen goraka-

darik ez eragiteko, hori ez baitzen batere popularra; horrela, Estatuak erosteko eta saltzeko prezioen aldea finantzatzen zuen. Politika horrek atzeraldi ekonomikoa atzerarazi zuen, baina desoreka ekonomikoak areagotu zituen, bai barnealdekoak —inflazioa, Estatuaren defizita...—, bai kanpokoak —ordainketen balantzaren defizita—.

1975ean Franco hil eta 1978ko Konstituzioa onartzera bideraturiko erreforma politikoak gertatu ondoren, politika ekonomikorako beste etapa bat zabaldu zen, gizarteak erregimen politiko jaioberria legitimatu izanaz aprobetxatuta. Horrek enpresen etekin-tasak oneratzeko bidea erraztu zuen. Hiru neurri-mota nagusi jarri ziren abian helburu hori lortzeko: soldata errealak jaistea, enpresentzako dirulaguntzak bideratzea eta langileen kaleratzeak erraztea.

Moncloa-ko 1977ko akordioek —Estatuan presentzia handiena zuten indar politiko eta sindikalek adostutakoek— politika ekonomikoaren orientabide berri hori inauguratu zuten. Akordio horren mamia soldaten igoerari eustea izan zen, era horretan %27koa izatera iritsi zen inflazioari eusteko, horretarako soldata errealen jaitsieraz baliatuz. Gainera, zenbait lege-neurri hartu ziren lan-merkatua malgutzeko —lan-kontratu partzialei, aldi baterako lan-kontratuei eta abarri bidea emanez— eta langileak kaleratzeko kostuak merkatzeko.

Lanaren kostuak murrizteko politika hori egonkorturik, krisialdiak gehien ukituriko sektoreetan jarduera deuseztatu edo murrizteko erraztasunak ematea izan zen hurrengo pausoa. UCD alderdiaren azken gobernuek hasi zuten politika hori; baina birmoldaketa industrialeko politika horrek PSOEren lehen gobernuekin izan zuen bultzadarik handiena, 1982tik aurrera hain zuzen ere. Ondoko neurriak izan ziren krisialdiak gehien ukituriko sektoreei zuzendutako politika horren erdigunea: langileen kaleratzeak erraztea, plantillak gutxitzeko; dirulaguntzak ematea, kaleratzeetarako ezarritako kalte-ordainak ordaintzeko; fondo publikoen lepora ordaindutako erretiro aurreratuak...

Aldi horretan guztian, jarduerari eusteko zailtasunak zituzten enpresa handiei dirulaguntzak emateko politika bat jarri zuen abian Estatuak. Bitartean, autonomia-erkidegoen agerpenak aukera eman zuen erregioetan politika industrial bat agertzeko, betiere Estatuko politikaren menpe. Eusko Jaurlaritzak eta, neurri txikiagoan eta beranduago bada ere, Nafarroako Gobernuak enpresa txiki eta ertainentzako dirulaguntzekin osatu zuten politika hura, haietara gutxi iristen baitzen Estatuko gobernuaren laguntzen politika.

Politika horrek enpresa industrialen lan-kostuak murriztu eta, berez, etekin-tasaren oneratzea errazten zuen; hala ere, Estatuko politika ekonomikoaren beste neurri batzuek oztopoak jartzen zituzten horretarako.

Inflazioaren aurkako borroka moneta-politika zurrun batez egin zen, soldata errealen murrizketaz ere baliatzeaz gain. Moneta-eskaintzaren hazkundeari eustearen ondorioz, interes-tasa handiak ezarri ziren, eta, horrenbestez, enpresen

finantza-gastuak handiak ziren. Askotan, enpresa industrialen aurrezkiak lan--kostuetan baizik ez ziren oinarritzen, eta ez zuten enpresa-etekinen igoera handirik ekartzen: bankuetara joaten ziren aurrezki horiek, interes-tasa altuko krediduak ordaintzera. Horren ondorioz, bankuen etekinek izugarri egin zuten gora, ordura arte ezagutzen ez zen mailaraino. Laurogeita hamarreko hamarkadan aurreratu arte, ez zen interes-tasen jaitsieraren aldeko politikarik.

Euskal Herrian laster agertu zen krisia, eta, hirurogeita hamarreko hamarkadaren lehen urteetako ibilbide zalantzatiaren ondoren, etekin-tasa etengabeko jaitsieran hasi zen 1974tik aurrera; aldiaren bukaeran baizik ez zen hasi oneratzea, 1985ean, eta hurrengo urteetan ere luzatu zen aldeko egoera hori (2.9. irudia).

2.9. irudia. Etekin-tasaren bilakaera EAEn, 1960-1984 bitartean
Oinarria 1960 = 100



Iturria: Etxebarria, 1993.

Jardueraren jaitsiera bereziki gogorra izan zen gure lurraldean. Inbertsio tradizionaleko oinarrizko industriaren sektoreetan, industria mekanikoan, garraio--elementuetako industrian eta itsas jardueran espezializaturik egonik —guztiak munduko eskariek bereziki behera egindako sektoreak—, euskal ekonomiak krisialdi bereziki gogorra jasan behar izan zuen. Nolanahi ere, herrialde bakoitzaren espezializazio erlatiboaren ondorioz, krisialdiak eragin ezberdinak erakutsi zituen. Horrela, 2.10. irudian ikus daiteke, esate baterako, enpleguaren jaitsierak eragin gutxiago izan zuela Nafarroan EAEn baino, aipatutako sektoreetan horrenbeste kontzentratu gabeko espezializazioa baitzegoen herrialde horretan.

2.10. irudia. Enpleguaren aldakuntza manufakturetan, 1972-1985 bitartean



Iturria: Etxebarria, 1993.

Krisialdiak Euskal Herriko populazioaren jaitsiera ekarri zuen laurogeiko hamarkadan, produkzio-arazoek gehien zartaturiko bi herrialdeen biztanle-kopuruek behera egin zutelako, Bizkaiko eta Gipuzkoakoek hai zuzen. Populazioaren hazkunde begetatiboaren jaitsierak —hirurogeita hamarreko hamarkadan jada ikusten hasia zen— eta hirurogeiko hamarkadan inmigraturiko askok beren jaiolekuetara itzultzeak ederki azaltzen dituzte jaitsiera horiek. Bestalde, Arabak eta Nafarroak biztanleen kopuruak gora nola egiten zuen ikusi zuten —langabeziak eragin gutxiago izan baitzuen lurralde horietan—, betiere beste bi herrialdeetako erorialdiak berdintzera iritsi gabe (2.11. irudia)

2.11. irudia. Populazioaren bilakera, 1981-1991



Iturriak: Autorearen kalkuluak, Espainiako populazioaren erroldak eta Laborde (1994)

Laurogeiko hamarkadan, 1986an atxikipen-hitzarmena sinatzearekin, estatu espainiarra Europako Batasunean sartzeko negoziazioak bukatu ziren. Sinadura hori XX. mende osoaren ezaugarri izandako nazioarteko isolamendu erlatiboko dinamikaren hausturaren ikurra izan zen. Data horretan, Hego Euskal Herriko ekonomiaren etapa berri bati ekin zitzaion: Europako erakunde-esparruko funtzionamendua, nazioarteko harreman ekonomikoen hazkundea eta krisialdiko unerik larrienen gainditzea izan ziren ezaugarri nagusiak. Hurrengo urteetako ezaugarri nagusiak, ordea, langabezia-arazoen eta faktoreen azpierabileraren arazoen konponbide argiaren jardueran aritzea baino gehiago, jardueren lausotasuna eta gorabeherak izan ziren, inongo dinamika argirik azaldu gabe.

Bestalde, Ipar Euskal Herrian areagotu egin ziren munduko krisi ekonomikoaren garaiko joerak, jarduera ekonomikoaren ahuleziak sortutako arazoak larriagotuz: Baiona inguruan kontzentratu zen industria; turismoa Lapurdiko kostaldean zabaldu zen; jarduera ekonomikoak behera jo zuen; eta barnealdeko herrietako biztanle-kopuruak jaisten jarraitu zuen.

BIBLIOGRAFIA

Merkataritza-Ganbarak (1974): *Aspectos de la estructura económica de Alava, Guipuzcoa, Navarra, Vizcaya,* Donostia.

Carreras, A. (koord.) (1989): *Estadísticas históricas de España. Siglos XIX y XX,* Fundación Banco Exterior, Madril.

Catalán, J. (1995): *La economía española y la segunda guerra mundial,* Ariel, Bartzelona.

Etxebarria, G. (1993): *La desestructuración del espacio económico vasco. La crisis actual de la industria vasca y su inserción en el modelo europeo,* UPV/EHU, Bilbo.

Gonzalez, M. (1988): *La Guerra Civil en el País Vasco*, EHU Leioa, Siglo XXI de España, Madril.

Laborde, P. (1994): *Pays Basque. Économie et société en mutation,* Elkar, Baiona.

Llopis Agelán, E. (1997): *Indices provinciales y regionales de producción manufacturera, 1964-1977*, Fundación Empresa Pública, Madril.

Llopis, E. eta Fernández, R. (1998): "Las industrias manufactureras regionales en la época del *desarrollismo*. Un nuevo análisis de localización y convergencia", in *Revista de Historia Industrial* **13**, Bartzelona.

Mitchell, B. R. (1992): *International Historical Statistics, 1758-1993,* Macmillan, Londres.

Urdangarín, C. eta Aldabaldetrecu, F. (1982): *Historia técnica y económica de la máquina herramienta,* Gipuzkoako Aurrezki Kutxa, Donostia.

Zenbaiten artean (2001): *Historia Económica regional de España. Siglos XIX y XX,* Crítica, Bartzelona.

3. Ipar Euskal Herriko egoera sozioekonomikoa azken 20 urte hauetan

Solange Mariluz

3.1. EGOERA SOZIODEMOGRAFIKOA

3.1.1. Datu demografiko orokor zenbait

Populazioa hazten ari da Ipar Euskal Herrian (IEH). Hazkunde hau exogenoa da; erran nahi baita, migrazio-saldo positiboari esker gertatzen dela, eta ez bertako sortzeei esker, berezko saldoa negatiboa baita.

3.1.1.1. Populazioa hazten ari da, eta lurralde-desorekak areagotuz doaz

Gaur egun Ipar Euskal Herriak 262.311 biztanle ditu, Euskal Herriaren %9,1.

Azken 25 urte hauetan populazioa %15 hazi da, EHko biztanleriarena %5,35 emendatu den bitartean.

Dentsitateari so eginez, IEHan, 88 biztanle ditugu kilometro karratuko, 77 zirelarik 1975ean.

Euskal Herriko biztanleriaren bilakaera 1975etik 1999ra bitartean

	1975	1982	1990	1999	%75/99
Araba	230.670	261.780	274.330	285.250	23,66
Bizkaia	1.133.780	1.196.573	1.168.377	1.134.955	0,1
Gipuzkoa	666.737	698.238	684.094	675.695	1,04
Nafarroa Garaia	480.751	513.309	523.482	530.394	10,33
Nafarroa Beherea	**27.407**	**26.148**	**25.356**	**24.565**	**-10,37**
Lapurdi	**184.161**	**194.937**	**209.918**	**224.275**	**21,78**
Zuberoa	**16.247**	**15.404**	**14.367**	**13.471**	**-17,09**
Ipar Euskal Herria	**227.815**	**236.489**	**249.641**	**262.311**	**15,14**
EUSKAL HERRIA	**2.741.753**	**2.906.389**	**2.899.924**	**2.888.605**	**53,3**

Iturriak: INSEE (RGP 99), BBV fundazioa.

Geroago ikusiko dugun bezala, IEHko biztanleria kostako herrietan kokatua da eta bi hamarkada hauetan Lapurdiko herriek emendio azkarra izan badute ere, barnealdekoek etengabe galdu dute biztanleria.

Euskal Herriko biztanleariaren bilakera lurraldeka



Euskal Herriko biztanleriaren banaketa



Iturriak: INSEE (RP 99), BBV fundazioa

3.1.1.2. Berezko saldoa negatiboa da

1975. urtera arte sortzeak gehiago izan dira hiltzeak baino, baina egoera hori itzulikatu egin da eta geroztik heriotzak nagusitu dira, tartea handituz +1455, 1975 eta 1982. urteen artean; +3249, 1982 eta 1990. urteen artean, eta +4303, 1990 eta 1999. urteen artean.

Ipar Euskal Herriko sortzeak, heriotzak eta saldo naturala

	1990		1999		1982 Berezko saldoa	1990 Berezko saldoa	1999 Berezko saldoa
	Sortzeak	Heriotzak	Sortzeak	Heriotzak			
Lapurdi	17.993	19.659	20.264	22.536	–588	–1.666	–2.272
kostaldea	*14.325*	*15.329*	*15.906*	*17.490*	*–225*	*–1.004*	*–1.584*
barnealdea	*3.668*	*4.330*	*4.358*	*5.046*	*–363*	*–662*	*–688*
Nafarroa Beherea	2.018	2.979	2.118	3.274	–479	–961	–1.156
Zuberoa	1.095	1.717	1.016	1.891	–388	–622	–875
Ipar Euskal Herria	**21.106**	**24.355**	**23.398**	**27.701**	**–1.455**	**–3.249**	**–4.303**

Egoera hori zehazteko, bi adierazle nagusi hartu behar dira kontuan: sortasuna (jaiotzak alegia) eta hilkortasuna (heriotzak).

Sortasun-tasa apalduz joan da. 1975 eta 1982. urteen artean, 1000 pertsona hartuz, 11,5 sortze izan ziren urteko eta 1990 eta 1999. urteen artean 10,2 sortze.

Zuberoa eta Nafarroa Beherean sortasun-tasak arras apalak dira: 8 eta 9,4 sortze 1999an.

Hilkortasun-tasari doakionez, aldaketa handirik ez da izan. 1975 eta 1982. urteen artean 12,4 heriotza izan ziren urteko, eta 1990 eta 1999. urteen artean 12. Hobekuntza arin horrek ez du errealitatea adierazten: urte guziz, migrazio-saldoa kontuan hartu gabe, 1000 jendeetatik, 2 desagertzen dira.

Sortasun- eta hilkortasun-tasak Ipar Euskal Herrian

	Sortasun-tasa (1000)			Hilkortasun-tasa (1000)		
	1975/1982	1982/1990	1990/1999	1975/1982	1982/1990	1990/1999
Lapurdi	11,7	11	10,4	12,1	12,2	11,5
kostaldea	*11,6*	*11,1*	*10,4*	*11,9*	*12*	*11,4*
barnealdea	*11,9*	*10,8*	*10,3*	*13,1*	*12,8*	*11,9*
Nafarroa Beherea	11,4	10	9,4	13,9	14,4	14,5
Zuberoa	10,3	9,1	8	13,8	14,3	15,1
Ipar Euskal Herria	**11,5**	**10,8**	**10,2**	**12,4**	**12,6**	**12**

Azalpenen aldetik populazioaren zahartzea arrazoi nagusienetariko bat da.

1975ean, 60 urte baino gehiagokoek populazioaren %24 biltzen zuten eta gaur egun % 27,4. Denbora berean 19 urte baino gutxiagokoen proportzioa apalduz joan da, %28,8tik %21,3ra pasatuz.

2010. urterako aitzin-ikuspenek joera horren sakontzea iragartzen dute, batez ere *baby-boom* garaiko belaunaldi oso bat 60 urtetik arras hurbil dela jakinez eta ugalkortasunaren apaltzea ikusiz.

Ipar Euskal Herriko biztanleriaren zahartzea 1975etik aurrera



Iturria: INSEE, RP 99

Barnealdean, sexuen desoreka eta bereziki ugaltzeko adinean diren emazteen eskasia ere aipa daitezke. Honela, 1999an, Nafarroa Beherean, 20-39 urte artekoen artean emazteek %47,1 ordezkatzen dute eta Zuberoan, %46,3. Ondorioz ezkongabetasuna handia izaten da gizonen artean.

20-39 urte arteko gizon eta emazteen banaketa 1999an



Iturria: INSEE, RP 99

3.1.1.3. Migrazio-saldo positiboak galtzeak estaltzen eta gainditzen ditu

IEHan populazioa, migrazio-saldo (sartzen eta ateratzen direnen artekoa) positiboari esker ari da emendatzen. 1990 eta 1999. urteen artean, berezko saldoak 4.303 pertsonen eskastea erakusten badu ere, migrazio-saldoak 16.973ko soberatzea ekarri du. 80ko hamarkadan, berezko saldoa –3.249koa eta migrazio-saldoa 16.647koa ziren.

Migrazio-saldoak 1982, 1990 eta 1999an

	1982	1990	1999
Lapurdiko kostaldea	*7.259*	*11.704*	*10.874*
Lapurdiko barnealdea	*4.077*	*4.943*	*5.755*
Lapurdi	**11.336**	**16.647**	**16.629**
Nafarroa Beherea	**-780**	**169**	**365**
Zuberoa	**-455**	**-415**	**-21**
Ipar Euskal Herria	**10.101**	**16.401**	**16.973**

Etorkinak nagusiki Frantziako Estatutik datoz eta bereziki Paris eskualdetik, Gironde-tik eta Landetatik.

Nahiz kanpotik etortzen den jendea nagusiki erretretaduna dela iritzi komuna den, Ipar Euskal Herriak jende gaztea erakartzen du nagusiki. Populazio hori nagusiki haurrez osatutako familia izaten da. Hala ere, erretretadunen proportzioa handia da.

Kanporat joaten direnen artean, gazteriaren proportzioa biziki gora da. Parte handi batez Parisera emigratzen dute.

Migrazio-saldoa negatiboa da 20-30 urte bitartekoen kasuan eta positiboa bertze adin klaseetakoen kasuan (bereziki 60-70 urte bitartekoentzat); horrek ere eragina du biztanleriaren zahartzean.

3.1.2. Hiritartzen ari den populazioaren hiru dinamika desberdineko eskualdeak

90eko hamarkadan Garapen Kontseiluko lanak agerrarazi duen bezala, Ipar Euskal Herria hiru dinamika desberdineko eskualdez osatua da.

Lehenik, Baionatik Hendaiaraino biztanle gehien kontatzen eta azkarki betetzen ari den *Lapurdiko kostaldea* dugu. Ondotik, hazkunde demografiko handiena ezagutzen ari den *Lapurdiko barnealdea;* eta, azkenik, jendetza galtzen ari den *Nafarroa Beherea* eta *Zuberoa* (*barnealdea* deituko duguna).

Ipar Euskal Herriko biztanleriaren bilakaera 1975etik 1999rat





3.1.2.1. Kostaldearen hazkunde erregularra

Kostaldeak populazioaren %66,5 biltzen du (174.520 biztanle), parte handiena (112.403 biztanle) Baiona-Angelu-Biarritz (BAB) eskualde txikian kokatuta egonik.

25 urte hauetan populazioa haziz joan da, eta Lapurdi barnealdeko populazioa bezain azkar emendatu ez bada ere, gorakada azpimarratzekoa da (+%18,3koa), batez ere lurraldearen hertsitasuna ikusiz. Honela, 1999an, 265,5 km^2-ko zabalerako eskualde horretan, 657 biztanle bizi dira km^2-ko, Ipar Euskal Herrian, oro har, 88 bizi direlarik. Biarritz eta Baionako kantonamenduek dentsitate azkarrena dute: 2578 eta 1849 bizt/km^2, hurrunez hurren.

Populazioa galdu duen kantonamendu bakarra Baionakoa da. 70 eta 80ko hamarkadetan Baionako biztanleriak zentrotik ihes egin du, espazio eta argitasunaren bila.

Lapurdi kostaldearen populazioaren bilakaera 1975etik aurrera

	1975	1982	1990	1999	*%90/99*	%75/99
Angelu	25.245	29.821	33.041	35.263	*6,72*	39,68
Baiona	49.029	47.550	46.865	47.085	*0,47*	–3,97
Biarritz	27.595	26.598	28.742	30.055	*4,57*	8,91
Hendaia	20.942	22.265	24.219	26.753	*10,46*	27,75
Donibane Lohizune	17.443	19.014	20.912	22.298	*6,63*	27,93
Hiriburu	7.242	9.282	11.451	13.066	*14,1*	80,42
Lapurdi Kostaldea	**147.496**	**154.530**	**165.230**	**174.520**	***5,62***	**18,32**
100 indizea	*100*	*104,77*	*112,02*	*118,32*		
Lapurdi	**184.161**	**194.937**	**209.918**	**224.275**	***6,84***	**21,78**
100 indizea	*100*	*105,85*	*113,99*	*121,78*		

Kostaldean, dentsitatearen azkartzearekin batera, lurraren eskastea gertatu da eta gaur egun lur-presio handia dago, lurraren metro karratuak 91 eurotik goitiko prezioa baitu eskualde osoan.

Biztanleriaren presentzia segitua Donostiraino doa eta 600.000 biztanle bilduak dira aitzin-diseinatzen ari den Baiona-Donostia Euro Hirian.

Kostaldean, etxebizitza gehienak nagusiak baldin badira ere, bigarren etxebizitzen garrantzia azpimarra daiteke. Etxebizitzen %21,3 ordezkatzen dute, Lapurdi barnealdean proportzio hau %9,7koa delarik eta Nafarroa Beherean eta Zuberoan %11,3 eta 13,2koa. Egoera hori kostaldeak duen bokazio turistikoari lotzen zaio.

Bertzalde, etxebizitza nagusien artean, etxebizitza kolektiboak dira gehienak (%58) eta etxebizitza indibidualek parkearen %38,1 biltzen dute.

Etxebizitza-kategorien banaketa eskualdeka, 1990 eta 1999an

	Etxebizitzak	Etxebizitza nagusiak (%)		Bigarren etxebizitzak (%)		Etxebizitza hutsak (%)	
	1999	1990	**1999**	1990	**1999**	1990	**1999**
Lapurdi kostaldea	***107.024***	*73,5*	***73,3***	*20,7*	***21,3***	*5,8*	***5,4***
Lapurdi Barnealdea	***21.729***	*82,2*	***83***	*10,8*	***9,7***	*6,9*	***7,3***
Lapurdi	**128.753**	74,9	**75**	19,2	**19,3**	6	**5,7**
Nafarroa Beherea	**11.022**	76	**79,5**	12,6	**11,3**	11,4	**9,2**
Zuberoa	**6.666**	79,8	**79**	12,6	**13,2**	7,6	**7,8**
Ipar Euskal Herria	**146.441**	75,2	**75,5**	18,3	**18,4**	6,5	**6,1**

Etxebizitza nagusi moten banaketa eskualdeka 1999an



3.1.2.2. Lapurdi barnealdearen hazkunde azkarra

Lapurdi barnealdeak —“ ararteko eskualdea” deitzen zaiona— populazioaren hazkunde azkarra izan du 25 urte hauetan (+%35,7). Uztaritzeko kantonamendua gehien hazi dena da (+%75,9). Dentsitatea azkarra ez bada ere, igo egin da, eta metro karratu bakoitzak 16/17 biztanle irabazi ditu (63 bizt/km^2). Gaur egun Lapurdi barnealdeak 49.755 biztanle ditu (36.665, 1975ean).

Herri aberats gehienetan bezala, Ipar Euskal Herrian etxe indibidualak eraikitzeko joera azkartzen doa. Kostaldeko lurrak arras garestiak bilakatu direnez, jendea gero eta urrunago doa lur erosgarria aurkitzeko. Bertzalde, barnealderanzko penetrazioek —errepide zabalduek bereziki— denborazko distantziak murriztu dituzte, eta kostaldeko hirietatik abiatzen den urbanizazioaren hedatze azkarra errazten lagundu dute. Ondorioz, biztanleria ardatz-errepide horien inguruan kokatuz doa.

Eskualde honetako populazioa bertzeetan baino gazteagoa da. Honela, 20 urte baino gutiagokoek biztanleriaren %23,9 osatzen dute, proportzio hori %21,3koa delarik, batez bertze. 60 urte baino gehiagokoen partea batez bertzekoa baino apalagoa da (%23,4koa eta %27,3koa, hurrenez hurren).

Hemen ere lur-presioaren azkartzea aipa daiteke, gazteen alokatzeko arazo larriak pausatuz. Horrela etxebizitza kolektiboen partea arras txikia da, %11,2koa, IEHko batez bertzekoa %44,9koa delarik. Hemen etxebizitza indibidualak dira nagusi: %85,2 (IEHen %52,1a).

Lapurdi barnealdearen populazioaren bilakaera 1975etik aurrera

	1975	1982	1990	1999	*%90/99*	%75/99
Bastida	4.052	4.425	5.301	5.776	*8,96*	42,55
Bidaxune	4.087	4.176	4.222	4.355	*3,15*	6,56
Ezpeleta	10.091	10.629	11.403	12.510	*9,71*	23,97
Hazparne	7.523	7.695	7.800	7.922	*1,56*	5,3
Ustaritze	10.912	13.482	15.962	19.192	*20,24*	75,88
Lapurdi Barnealdea	**36.665**	**40.407**	**44.688**	**49.755**	***11,34***	**35,7**
100 indizea	*100*	*110,21*	*121,88*	*135,7*		
Lapurdi	**184.161**	**194.937**	**209.918**	**224.275**	***6,84***	**21,78**
100 indizea	*100*	*105,85*	*113,99*	*121,78*		

3.1.2.3. Barnealdearen hustea

IEHko barnealdea bi probintzia historikoez osatua da: Nafarroa Beherea eta Zuberoa. Nafarroa Behereak 24.565 biztanle ditu eta Zuberoak 13.471 biztanle, bien artean, beraz, IEHko jendetzaren %14,5 osatzen dute, eta lur-hedaduraren %64,4.

25 urte hauetan biztanleriaren kopurua etengabe murriztuz joan da, Nafarroa Behereak bere populazioaren %10,4 galdu duelarik eta Zuberoak %17,1.

Dentsitateari doakionez, bi probintziek ezaugarri bertsua dute: Nafarroa Behereak 20,2 biztanle ditu kilometro karratu bakoitzeko eta Zuberoak 19. Zuberoak 2 biztanle galdu ditu kilometro karratuko azken hamarkada honetan eta Nafarroa Behereak 1. Desoreka handia da 657,2 biztanle km^2-ko biltzen dituen Lapurdiko kostaldearekin.

Barnealdeko biztanleriaren bilakaera 1975etik aurrera

	1975	1982	1990	1999	*%90/99*	%75/99
Iholdi	4.639	4.392	4.317	4.065	*–5,84*	–12,37
Baigorri	6.379	5.968	5.646	5.512	*–2,37*	–13,59
Donibane Garazi	6.983	6.719	6.540	6.290	*–3,82*	–9,92
Donapaleu	9.406	9.069	8.853	8.698	*–1,75*	–7,53
Nafarroa Beherea	**27.407**	**26.148**	**25.356**	**24.565**	***–3,12***	**–10,37**
100 indizea	*100*	*95,41*	*92,52*	*89,63*		
Maule	11.931	11.567	10.750	10.136	*–5,71*	–15,04
Atarratze	4.316	3.837	3.617	3.335	*–7,08*	–22,73
Zuberoa	**16.247**	**15.404**	**14.367**	**13.471**	***–6,24***	**–17,09**
100 indizea	*100*	*94,81*	*88,43*	*82,91*		
Ipar Euskal Herria	**227.815**	**236.489**	**249.641**	**262.311**	***5,08***	**15,14**
100 indizea	*100*	*103,81*	*109,58*	*115,14*		

Barnealdeko populazioaren galera ulertzeko, ezinbertzekoa da berezko saldoa eta migrazio-saldoa ikertzea.

Berezko saldoa negatiboa da bi probintzietan, eta geroz eta heriotza gehiago izan da bietan.

Berezko saldoaren bilakaera 1982tik aurrera

	1982	1990	1999
Nafarroa Beherea	–479	–961	–1156
Zuberoa	–388	–622	–875
Barnealdea	**–867**	**–1583**	**–2031**

Berezko saldoaren bilakaera 1982tik aurrera



Barnealdean, 1990 eta 1999. urteen bitartean 1000 pertsonatatik 15 hil dira urteko, eta 8/9 sortu.

Bertzalde, migrazio-saldoak ere bertzelako joera du barnealdean:

– Nafarroa Beherean, jende gehiago heldu bada ere, artekoa aski apala da (+365 pertsona) eta horrek ez ditu berezko saldoaren eskasteak (–1156) konpentsatzen;

– Zuberoan migrazio-saldoa txikiagoa bada ere, negatiboa izaten segitzen du.

Migrazio-saldoaren bilakaera 1982tik aurrera



Herritiko ihesaren erritmoa murrizten ari da, baina galdu den biztanleria hein handi batez gaztea izan da. Honela 1975etik 1999ra bitartean, Nafarroa Behereak biztanleriaren %10,4 galdu zuen bitartean, 0-19 urtekoen galtzea %37,6koa izan zen; eta Zuberoan gazteriaren kopurua ia erdira (–%44,9) pasatu da, bere populazioa %17,1ko neurrian apalduz joan delarik.

Barnealdeko biztanleria gaztearen eta osoaren bilakaera-tasak 1975etik 1999ra

	0-19 urte	Orotara
Nafarroa Beherea	–%37,6	–%10,4
Zuberoa	–%44,9	–%17,1
Ipar Euskal Herria	–%14,73	+%15,14

Lehenago aipaturiko elementuek barnealdeko biztanleriaren zahartzea dakarte. 1999ko populazioaren egiturak 60 urte baino gehiagokoen proportzio azkarra erakusten digu (%30 Nafarroa Beherean eta %33 Zuberoan), bertze lurraldeetan baino azkarragoa (%26,8 Lapurdin).

Biztanleriaren banaketa adin-klaseka eta lurraldeka (%)

	0-19	20-39	40-59	>60 urte	Orotara
Lapurdi	21,5	25,6	26,1	**26,8**	100
Nafarroa Beherea	20,3	24,8	24,9	**30**	100
Zuberoa	18,5	22,5	25,7	**33,3**	100
Ipar Euskal Herria	21,3	25,4	26	**27,3**	100

Bi hamarkada hauetan fenomeno berri bat gertatzen ari da barnealdean: “zentro-herrien”[1] erakarpena. Fenomeno hau ez da Euskal Herriko berezitasun bat: mendebaldeko herri aberatsetako baserri-eskualde frankotan gertatzen ari baita.

Migrazio-saldoak 1990 eta 1999 urteen artean

Kantonamendua	Migrazio-saldoa	Kantonamenduko hiri nagusia eta ingurunea (zentro-herriak)	Migrazio saldoa
Baigorri	+ 101	**Baigorri, Ortzaize, Arrosa, Irulegi**	+ 134
Donibane Garazi	+ 278	**Donibane Garazi, Izpura**	+ 320
Donapaleu	+ 156	**Donapaleu, Behaskane, Arberatze**	+ 172
Maule	– 46	**Maule**	+ 123
Atarratze	+ 25	**Atarratze, Hiruri, Aloze**	+ 72

Taularen irakurketa: 1990etik 1999ra:
- Mauleko kantonamenduak 46 pertsona galdu ditu eta Mauleko herriak 123 pertsona erakarri ditu;
- Atarratzeko kantonamenduak 25 pertsona irabazi ditu eta Atarratze, Hiruri eta Aloze herriek, 72 pertsona.

Emaitza hauek agerian ematen dute kantonamendu bakoitzeko herri koskorrenek jokatzen duten “hurrupatze”-zeregina. Alde batetik, kantonamendu kanpoko biztanleria, nagusiki herri horietara plantatzera baitator, eta bertzaldetik, eskualdeko herri txikietako biztanleria herri koskor horietara bizitzera baitoa.

Ondorioz kantonamenduko herri txikiek biztanleria galtzen duten bitartean, “zentro-herriek” jendetza irabazten dute.

1. *Centre-bourg* frantsesez.

Herri horiek hiriko bizimodua duen biztanleria erakartzen dute:

– Azpiegituren hobetzeak jendeari bertan bizitzeko ahalmena ematen dio, nahiz lana hirian egin.

– Zerbitzuen (eskola, saltegiak, posta...) eskasteak herri txikietan eta horien kokapena herri koskorretan, horrek erakartze-fenomenoa sortzen du, batez ere praktika sozial eta kultural berriak (janari, aisialdi, osasun-arloko kontsumoaren dibertsifikazioa) kontuan hartzen baditugu.

Azkenik, barnealdean bigarren etxebizitzen eta etxe hutsen proportzioa orokorrean aski apala baldin bada ere, mendi eta mugaldeko herrietan izaten duen garrantzia azpimarra daiteke.

Adibide gisa, Zuberoan bigarren etxebizitzek etxeen %13,2 ordezkatzen dute: Larraineko herrian ia erdia (%44,9) eta Santa Grazin %26,4.

Etxebizitza-kategorien banaketa mendi eta mugaldeko herrietan

	Bigarrenak	Hutsak	Bigarrenak +Hutsak	Nagusiak
Bidarrai	13,4	18,1	**31,5**	**68,5**
Banka	20,6	3,7	**24,3**	**75,7**
Aldude	7,7	14,8	**22,5**	**77,5**
Urepele	2,3	28,6	**30,9**	**69,1**
Arnegi	22,9	6,9	**29,8**	**70,2**
St- Michel	15,4	11,1	**26,5**	**73,5**
Lekunberri	23,4	14,9	**38,3**	**61,7**
Nafarroa Beherea	**11,3**	**9,2**	**20,5**	**79,5**
Larraine	44,9	5,3	**50,2**	**49,8**
Santa Grazi	26,4	10,4	**36,8**	**63,2**
Zuberoa	**13,2**	**7,8**	**21**	**79**

3.2. BIZTANLERIA AKTIBOA

3.2.1. Emaitza orokorrak

1982tik 1999rat IEHko biztanleria aktiboa (enplegudunak eta ofizialki lana bilatzen dutenen zama) %17 igo da.

3.2.1.1. Biztanleria aktiboaren emendioa biztanleria osoarena baino azkarragoa gertatu da.

Populazio aktiboa populazio osoa baino hein handiagoan emendatu da (+ %17 eta +%11, hurrunez hurren). Gaur egun 114.346 biztanle aktibo dira.

Bilakaeren desberdintasun hori handia bada ere, ez du eragin handirik populazio aktiboak populazio osoaren baitan izaten duen garrantzian. Honela 1982an 100 biztanletik 41 ziren aktiboak, eta 1999an 44.

Joera horrek bi azalpen nagusi ditu: alde batetik, mendebaldeko herri gehienetan bezala gertatzen ari den biztanleriaren zahartzea, eta bertzaldetik, jende aktiboen migrazio-saldo positiboa.

3.2.1.2. Jarduera-tasa gora doa, nahiz aski apala den.

1982an, 15 urte baino gehiagokoen jarduera-tasa[2] %50,3koa zen eta 1999an %51,6koa.

Tasa hau aski apala da bertze lurraldeekin parekatuz. Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera-tasa %53,3koa da.

3.2.1.3. Populazio aktiboaren banaketa populazio osoak izan duen bilakaera bezalakoa izan da.

Lapurdik biztanle aktibo gehienak biltzen ditu (%85,6) eta 82tik aurrera kopurua %22,4 igo da. Kostaldeak Lapurdiko biztanle aktiboen hiru laurdenak bildu arren, Lapurdi Barnealdeak aktiboen kopuruaren emendio azkarragoa izan du (+%34,6). Lapurdin, 97.920 biztanle aktibo ziren 1999an.

Barnealdeak aldiz, hogei urtetan, 1.324 biztanle aktibo galdu ditu, eta kopurua 16.425erat pasatu da. Hala ere 1990etik galera emekitu da. Honela, Nafarroa Behereak biztanle aktiboak irabazi ditu Garazi, Baigorri eta Iholdiko kantonamenduetan.

	1982	**1990**	**1999**	***82/90***	***90/99***
BeheNafarroa + Zuberoa	17.749	16.588	16.425	*–1161*	*–163*

	Biztanleria osoa				**Biztanleria aktiboa**		
	1975	**1982**	**1990**	**1999**	**1982**	**1990**	**1999**
kostaldea	*147.496*	*154.530*	*165.230*	*174.520*	*63.273*	*69.776*	*75.423*
barnealdea	*36.665*	*40.407*	*44.688*	*49.755*	*16.709*	*18.964*	*22.498*
Lapurdi	184.161	194.937	209.918	224.275	79.982	88.740	97.921
Nafarroa Beherea	27.407	26.148	25.356	24.565	10.830	10.433	10.650
Zuberoa	16.247	15.404	14.367	13.471	6.916	6.155	5.775
Ipar Euskal Herria	**227.815**	**236.489**	**249.641**	**262.311**	**97.728**	**105.328**	**114.346**

	Biztanleria osoa			**Biztanleria aktiboa**		
	1982	**1982-1990**	**1982-1999**	**1982/1982**	**1990/1982**	**1999/1982**
kostaldea	*100,0*	*106,9*	*112,9*	*100,0*	*110,3*	*119,2*
barnealdea	*100,0*	*110,6*	*123,1*	*100,0*	*113,5*	*134,6*
Lapurdi	100,0	107,7	115,0	100,0	110,9	122,4
Nafarroa Beherea	100,0	97,0	93,9	100,0	96,3	98,3
Zuberoa	100,0	93,3	87,5	100,0	89,0	83,5
Ipar Euskal Herria	**100,0**	**105,6**	**110,9**	**100,0**	**107,8**	**117,0**

2. [populazio aktiboa (>14 urte)/populazio osoa (>14 urte)] × 100

3.2.1.4. Sexuen arteko desoreka murrizten ari da

1982an desoreka nabarmena zen emazte eta gizonen artean, honela biztanleria aktiboaren %58,4 gizonezkoak ziren eta, emazteek %41,6 ordezkatzen zuten. Artekoa murriztuz joan da eta gaur egun gizonek %52,6 biltzen dute eta emazteek %47,4.

Bilakaera hori azaltzeko, mendebaldeko herrietako gizarteak izan dituen aldaketak aipatu behar dira: mentalitateen aldaketa, emazteen emantzipazioa eta ekonomiaren tertziarizazioa, bertzeak bertze.

Biztanleria aktiboaren banaketa sexuaren arabera, 1982tik aurrera



3.2.1.5. Biztanle aktibo gazteen (15-30 urtekoak) kopurua murriztuz joan da, eta biztanle aktibo adintsuena (45-60 urtekoak) emendatuz.

	1990	**1999**	**Bilakaera--tasa 90/99**	***Proportzioa bizt. akt. begira (1990)***	***Proportzioa bizt. akt. begira (1999)***
15/30 urtekoak	28.193	23.850	– %15,40	*%26,54*	*%20,80*
45/60 urtekoak	28.022	38.169	+ %36,21	*%26,38*	*%33,29*

Iturria: INSEE, RP 1999

15-30 urteko biztanle aktiboen kopurua %15ez murriztu da azken 10 urte hauetan, eta 45-60 urtekoena %36 emendatu da. 1990ean, adin-klase bakoitzak biztanle aktiboen %26a biltzen zuen, baina gaur egun adin-klase zaharrena nagusitzen da (%33).

Kantonamendu batzuetan bilakaera horiek biziki sakonak dira. Alabaina, Atarratze-Sorholuzeko kantonamenduan biztanle aktibo gazteen kopurua %36 murriztu da eta zaharrena %10 handitu.

Egoera hau aski iluna da etorkizunari begira, eta lan-eskuaren defizitaren gaia pausatuko da Ipar Euskal Herrian etorkizun hurbil batean.

3.2.2. Langabezia

3.2.2.1. Langabezia (biztanleria aktibo ez okupatua) azkarki emendatu da

1982tik 1999ra bitartean populazio aktiboa %17 igo bada ere, biztanle ez okupatuen (langabetuen) kopurua hein arras azkarrago batean emendatu da (+%47,3).

Landunen eta langabetuen bilakaera 1982tik



Langabetuek populazio aktiboaren %10,3 ordezkatzen zuten 1982an eta %13 1999an (14.855 langabetu). Geroztik tasa hori etengabe txikituz joan da, 2000. urtean %10eko marra azpira pasatuz.

3.2.2.2. Langabezia-tasa azkarra hiri-inguruneetan

Langabezia-tasen esberdintasun handiak dira eskualdeen artean, Lapurdiko kostaldea gehien hunkituriko lurraldea delarik (%15,2).

Langabezia-tasen bilakaera 1982tik aurrera



Kostaldeak langabetuen %77,1 biltzen ditu, Lapurdi barnealdeak %14,5 eta Barnealde sakonak %8,4. Populazio osoaren pisu erlatiboa begiratzean, ohartzen gara langabetuen kontzentrazioa kostaldean goragokoa dela (langabetuen %77,1) populazio osoarena baino (biztanleria osoaren %66,5).

Biztanleria osoaren eta langabetuen banaketa lurraldeka (%)

	1982		*1999*	
	Biztanleria osoa	**Langabetuak**	***Biztanleria osoa***	**Langabetuak**
Lapurdi	*%82,4*	%87,7	%85,5	%91,6
kostaldea	*%65,3*	*%75,7*	*%66,5*	*%77,1*
barnealdea	*%17,1*	*%12,0*	*%19,0*	*%14,4*
Nafarroa Beherea	*%11,0*	%7,4	%9,4	%4,5
Zuberoa	*%6,5*	%5,0	%5,1	%3,9
Ipa Euskal Herria	*%100,0*	%100,0	%100,0	%100,0

Iturria: INSEE, RP 1999

Egoera hau azaltzerakoan, ez da pentsatu behar barnealdea egoera on batean denik enpleguaren aldetik; alderantziz, kostaldeak, lan-merkatua dinamika azkar batean denez, aktiboen jario handia erakartzen du, eta ondorioz sortzen den enpleguen kopurua ez da nahikoa izaten aktibo guztiak enplegatzeko.

Alderantzizkoa gertatzen da barnealdean: lansarituen enplegu-merkatua murrizten ari denez, gazteak kanpora joaten dira edota, ahal dutelarik, barnealdean gelditzen dira etxaldeen segida hartuz. Batzuk, barnealdean Frantziako bertze lurraldeetan gertatzen dena baino gazteen plantatze handiagoaz enplegu-dinamika eskasari lotzen zaie. Diotenez, guraso laborarien segida hartzen dute, bertze alternatibarik ez baitute tokian berean gelditu nahi badute.

Zuberoan, Maule-Lextarre kantonamenduko langabezia-tasa azkarragoa (%10) kantonamenduak duen ezaugarri industrialari lotzen zaio. Zapatagintzaren krisi larriak azkarki jo du Maule aldea, langabeziaren kopurua hanpatuz.

3.2.2.3. Emazteak gizonak baino gehiago hunkituak dira.

Herri garatu guztietan bezala, emazteak gizonak baino gehiago dira hunkituak langabeziaz. 1999an, 10 langabetuetarik ia 6 emazteak da. Emazteen langabezia--tasa %16koa da, gizonena %10ekoa delarik. 1990an, tasa horiek %16 eta %8koak ziren; beraz, gizonen egoera txartu egin da, emazteen langabezi-tasak altua izaten segitu duelarik.

Zuberoan, emazteek langabetuen %65 ordezkatzen dute. Tasa altu hau 80ko hamarkadan Zuberoak jasandako zapatagintza-industriaren krisiaren ondorioz kanporatu behar izan ziren langileak —emazte jostunak, bertzeak bertze— kontuan izanik azal daiteke.

Langabetuen banaketa sexuaren arabera 1999an



3.2.2.4. Langabezia-tasa altuak gazteen artean

Langabezia-tasa 1999an, adin-klaseka

	Batez bestekoa	**15-24 urtekoak**	**25-49 urtekoak**	**50 urtekoak baino zaharragoak**
kostaldea	15,2	*31,3*	*14,6*	*11,3*
barnealdea	9,5	*21,1*	*8,7*	*7,4*
Lapurdi	*13,9*	28,7	13,3	10,4
Nafarroa Beherea	*6,3*	16,9	5,6	3,8
Zuberoa	*10,0*	17,9	9,0	9,9
Ipa Euskal Herria	***13,0***	**26,8**	**12,4**	**9,8**

Iturria: INSEE, RP 1999.

Kostaldean zein barnealdean, gazteek dute langabezia-tasa gorena jasaiten. Honela langabezia-tasaren batez bertzekoa %13koa delarik, 15-24 urtekoena %27koa izan da 1999an.

3.2.2.5. Epe luzeko langabezia langabetuen erdia baino gehiagorentzat

Urte bat baino gehiagoko langabezia jasaiten dutenen proportzioak altua izaten segitzen du 1990etik aurrera: langabetuen erdia baino gehiago ordezkatzen du. Zuberoaren kasua azpimarratzekoa da: 1990an epe luzeko langabeziak okupatu gabekoen %40 hunkitzen bazituen, tasa hori %60ra heldu da 1999an.





Iturria: INSEE, RP 99

3.2.3. Biztanleria okupatua (landunak)

Azken 20 urte hauetan landunen kopurua %13,5 (+11.848 landun) goratu da, azken hau 99.491 biztanle aktibo okupatuetara ekarriz. Enplegu-sortze garbi hori aski apala da langabeziak denbora berean izan duen gorakada ikusiz (+%47,3).

	Biztanleria aktibo okupatua			**Langabetuak**		
	1982	**1990**	**1999**	**1982**	**1990**	**1999**
kostaldea	*55.642*	*60.369*	*63.963*	*7.631*	*9.407*	*11.460*
barnealdea	*15.498*	*17.221*	*20.352*	*1.211*	*1.743*	*2.146*
Lapurdi	71.140	77.590	84.315	8.842	11.150	13.606
Nafarroa Beherea	100.88	9.666	9.979	742	767	671
Zuberoa	6.415	5.562	5.197	501	593	578
Ipar Euskal Herria	**87.643**	**92.818**	**99.491**	**10.085**	**12.510**	**14.855**

3.2.3.1. Beren herrian lan egiten dutenen kopurua murriztu egin da

Gero eta jende gehiago herritik kanpora doa lan egitera.

1982an, 10 biztanle aktibo okupatuetarik 6 beren herrian ari ziren lanean, gaur egun 4 dira horrela dihardutenak. Kasu erranguratsuena Lapurdi barnealdea da, 10etarik soilik 3k baitute beren herrian lan egiten; 2k Uztaritzeko kantonamenduan. Pentsa daiteke gainerako gehienak kostaldera doazela egunero lan egitera.

Bertzalde, 1982an, barnealdean 10 langileetarik 7 beren herrian lanean ari baziren, gaur egun soilik laupabortz ari dira horrela. Bilakaera hau lot daiteke laborantzaren galerarekin eta eskualdeko hiri-zentroetan gertatzen ari den 3. sektoreko aktibitateen garapenarekin.

Bizi herrian lan egiten dutenen garrantzia landun guziei begira, eta horren bilakaera.

	1982	**1990**	**1999**	***Bilakaera, 82-99***
Angelu	%40,0	%39,9	%37,5	*–%15,6*
Biarritz	%63,1	%57,2	%48,9	*–%13,9*
Baiona	%71,5	%65,9	%59,4	*–%22,2*
Ipar Baiona	%27,6	%25,5	%18,6	*–%20,7*
Hendaia	%58,2	%51,1	%41,4	*–%10,0*
Donibane Lohizune	%60,1	%52,2	%44,8	*–%10,6*
Hiriburu	%21,6	%20,6	%13,6	*–%5,4*
kostaldea	*%55,5*	*%50,0*	*%42,8*	*–%11,4*
Bidaxune	%71,5	%58,2	%44,9	*–%23,8*
Ezpeleta	%64,6	%51,3	%39,5	*–%25,9*
Hazparne	%71,6	%57,8	%42,9	*–%36,4*
Bastida	%51,2	%41,2	%28,0	*–%27,2*
Ustaritze	%38,7	%31,2	%21,0	*–%15,1*
barnealdea	*%56,5*	*%44,3*	*%31,8*	*–%26,0*
Lapurdi	**%55,7**	**%48,7**	**%40,1**	***–%14,6***
Iholdi	%74,3	%64,5	%50,4	*–%36,6*
Baigorri	%75,0	%64,4	%47,3	*–%35,2*
Donibane Garazi	%68,7	%58,6	%45,7	*–%33,4*
Donapaleu	%66,9	%58,9	%40,2	*–%40,7*
Nafarroa Beherea	**%70,5**	**%61,0**	**%45,0**	***–%36,9***
Maule-Lextarre	%66,7	%56,3	%44,7	*–%44,9*
Atarratze-Sorholuze	%70,3	%59,8	%49,0	*–%45,9*
Zuberoa	**%67,6**	**%57,2**	**%45,7**	***–%45,2***
Ipar Euskal Herria	**%58,3**	**%50,5**	**%40,9**	***–%20,3***

Iturria: INSEE, RP 1999.

Kostaldean, Baionako kantonamenduaren kasua aipa daiteke, hor bizi diren 10 landunetarik 6k kantonamenduan bertan lan egiten baitute. Biarritzeko eta Angeluko kantonamenduetan proportzio hauek apalagoak dira (%49 eta %37,5, hurrenez hurren). Horrek, Baionak duen enplegu-dinamika erakarkorra erakusten du. Azken urte hauetan jendez azkar bete den Hiriburuko kantonamendua lo-tokia bertzerik ez dela erran dezakegu, landunen %86,4 egunero herritik kanpo lan egitera baitoaz.

Hendaia eta Ipar Baionako berezitasunak

Hendaian eta Ipar Baionan aipatzekoa da eskualde edo departamendutik kanpo lan egiten dutenen kasua.

Hendaian, eskualdetik kanpo ari direnen proportzioa %11koa da (%3,4koa kostalde osoan). Pentsa daiteke horietarik ainitz Gipuzkoara joaten direla egunero lan egitera, gipuzkoar ainitz baitira Hendaia eta Urrunaldean etxeak eraiki dituztenak.

Gisa berean, Ipar Baionako kantonamenduan, departamendutik kanpo ari direnen partea handia da (%20,7) kostaldeko egoerarekin parekatzen badugu (%5,7). Pentsa daiteke Bokaleko jendea, hurbil den eta lan-dinamika gorakorra duen hego Landetako eskualdera lan egitera joaten dela, egunero.

Kostaldeko landunen lantokia

1999	Landunak	Bizi herrian	Hiri unitatean	Departamenduan	Departamendutik kanpo, eskualde berean	Eskualdetik kanpo
Angelu	13.862	%37,5	%52,6	%2,3	%5,7	%1,9
Biarritz	9.957	%48,9	%40,9	%3,5	%4,2	%2,6
Baiona	14.060	**%59,4**	%29,2	%1,9	%8,0	%1,5
Ipar Baiona	2.544	%18,6	%70,0	–%10,7	**%20,7**	%1,5
Hendaia	10.029	%41,4	%23,1	%23,1	%1,7	**%10,7**
Donibane Lohizune	7.968	%44,8	%32,2	%17,3	%2,4	%3,3
Hiriburu	5.543	%13,6	**%75,5**	%2,0	%7,5	%1,4
kostaldea	**63.963**	**%42,8**	**%41,1**	**%7,0**	**%5,7**	**%3,4**

Iturria: INSEE, RP 1999.

3.2.3.2. Biztanle aktibo lansarituen nagusitasuna azkartu da

1982tik, Iparraldeak 15.182 aktibo lansaritu irabazi ditu (+%23,2) eta 3.334 aktibo independente galdu (–%15,0). Lansarituek aktiboen %81 ordezkatzen dute (1982an, %74,6) eta independenteek beraz, aktiboen %19 (1982an, % 25,4).

Lansaridunen eta independenteen banaketa 1982tik aurrera



Egoera hau herri aberats anitzena bezalakoa da: ekoizpen-sistemaren aldaketak lansaristatze masiboa ekarri du mende honen hastapenetik.

Barnealdean, laborantza eta ofizialgintzak pisu azkarragoa duenez, haien kontura ari direnen proportzioa azkarragoa da: Nafarroa Beherean %37,3 eta Zuberoan %30,6. Hala ere, lansaristatze-prozesua erritmo biziagoan jasan dute. Honela, 1982an, Nafarroa Beherean aktiboen erdiak baino gehiago (%54,3) bere kontura ari ziren, eta %40 Zuberoan. Kostaldean, aldiz, lansariztatuen nagusitasun azkarra (aktiboen %85) eskualdeak duen 3. sektoreko aktibitateen kontzentrazioari esker (administrazioak, osasun-zentroak, merkataritza...) uler daiteke.

Lansaridunen eta independenteen banaketa 1999an



3.2.3.3. Prekaritateak lansaridunen %16 hunkitzen ditu

Azken hamar urte hauetan horien kopurua %60 igo da, lansaridunen %10etik %16ra helduz.

Prekaritateak gero eta lansaridun gehiago hunkitzen ditu.

Enplegu ez-egonkorren garrantzia lansariduneri begira, 1990etik aurrera

	Lansaridunak		Prekarioak		Enplegu prekarioen garrantzia (%)	
	1990	**1999**	**1990**	**1999**	**1990**	**1999**
kostaldea	*50.925*	*54.582*	*5.452*	*8.664*	*%10,7*	*%15,9*
barnealdea	*12.742*	*16.132*	*1.200*	*2.363*	*%9,4*	*%14,6*
Lapurdi	63.667	70.714	6.652	11.027	%10,4	%15,6
Nafarroa Beherea	5.216	6.257	404	1.128	%7,7	%18,0
Zuberoa	3.597	3.606	368	646	%10,2	%17,9
Ipar Euskal Herria	**72.480**	**80.577**	**7.424**	**12.801**	**%10,2**	**%15,9**

Iturria: INSEE, RP 1999.

Enplegu prekarioen artean, iraunpen mugatuzko kontratuak[3] nagusitzen dira (%58,6). Enplegu lagunduen partea (%16,8) ere azpimarra daiteke. Estatu frantsesak enplegu horiek epe luzeko langabetuen kontratazioa bultzatzeko ("*Contrat Emploi Solidarité*") sortu ditu, baita berrikitan gehien hunkituak diren gazteen enplegua[4] sustatzeko.

Enplegu prekarioen osaketa

1999	**Enplegu prekarioak**	**Iraunpen mugatuzko kontratuak**	**Aprendizak**	*Interim* **agentzien bidezkoak**	**Enplegu lagunduak (CES, gazte--enpleguak)**	**Ikastaldietako enpleguak**
kostaldea	***8.664***	*%58,9*	*%8,1*	*%12,4*	*%16,4*	*%4,3*
barnealdea	***2.363***	*%57,0*	*%12,7*	*%11,3*	*%15,7*	*%3,2*
Lapurdi	**11.027**	%58,5	%9,1	%12,1	%16,2	%4,0
Nafarroa Beherea	**1.128**	%60,6	%9,0	%5,3	%19,0	%6,1
Zuberoa	**646**	%57,1	%12,4	%3,7	%22,9	%3,9
Ipar Euskal Herria	**12.801**	**%58,6**	**%9,2**	**%11,1**	**%16,8**	**%4,2**

Iturria: INSEE, RP 1999.

3. Hauek dira enpresak zuzenean denbora labur baterako egiten dituen lan-kontratuak.
4. Bost urteko lan-kontratua segurtatzen duen "Gazte-enplegua".

3.2.3.4. Banaketa orekatuagoa gizon eta emazteen artean



Landunen artean, gizon eta emazteen arteko oreka handiagoa nabari da. Horrela, 1982an 10 landunetarik 6 gizonak baziren, gaur egun parekotasunetik hurbilago gara.

3.3. JARDUERA EKONOMIKOA

AITZINABISUA

Iparraldean, berezko instituzio administratiborik ezak edozein ikerketa zailtzen du. Honela, analisi ekonomikoak egiteko, emaitzak arras urriak dira eta gutxitan gaurkotuak. Eskuragarri ditugun bakarrak biztanleria aktiboari eta enpresei buruzkoak dira; baina ez dago ia elementurik BPG edota fluxu finantziarioei buruz. Arrazoi horiengatik aurkezpen honek jarduera ekonomikoaren errealitatearen parte bat baizik ez du erakusten.

3.3.1. Jarduera ekonomikoaren aurkezpen orokorra

3.3.1.1. Enpresa txikiko ekonomia

Ipar Euskal Herriko paisaia ekonomikoaren ezaugarri nagusi bat honako hau da: merkataritza-sektoreko eraikuntzen neurri murritza.

Enpresa txiki (50 lansaridun baino gutxiagokoak) ugari dira IEHan eta 1991an, lansaridunen %67 enplegatzen zuten. Alderantzizkoa gertatzen da gutxi ordezkatuak diren enpresa ertain eta handien (50 eta 500 lansaridunen artekoak) kasuan. Ertainek IEHko lansaridunen %27 enplegatzen dituzte (%34,5 Frantzian) eta handiek IEHko lansaridunen %4 (%13 Frantzian).

Enpresen neurri txikia azaltzeko, bi arrazoi nagusi ematen dira: enpresa txikiez osaturiko hirugarren sektorearen nagusitasuna eta langileen kopuru murritza baliatzen duen azpitratatze-sektorearen garrantzia[5].

Lansaridunen banaketa eraikuntzen handitasunaren arabera, 1991n, %etan



Iturria: Unedic, 1991

3.3.1.2. Zerbitzuen nagusitasuna

Ipar Euskal Herriko landunen banaketaren bilakaera, sektoreka, 1990 eta 1999an



Iturria: INSEE, RP 99

Herri kapitalista zahar gehienetan gertatzen ari den fenomeno berbera dugu Ipar Euskal Herrian ere, alegia, 1. eta 2. sektoreko enpleguaren murrizketa eta 3. sektorekoaren emendio azkarra. Bertzalde, ondoko grafikoak erakusten duen bezala, zerbitzuen kontzentrazio handia dago Ipar Euskal Herrian, eta industriari doakion enpleguaren partea arras apala da, bereziki Hego Euskal Herriko lurraldeekin konparatuz.

5. *Le Pays Basque en perspective*, Club de prospective Pays Basque 2010.

Landunen banaketa sektoreka eta lurraldeka, 1999an



Iturria: INSEE, RP 99. BBV fundazioa

Ipar Euskal Herriko biztanleria aktiboaren banaketa KSParen arabera, 1982tik aurrera



Iturria: INSEE, RP 1999.

Sailkapen honek sektoreen bereizketa zuzena aurkezten ez badu ere, informazio interesgarri batzuk agerrarazten ditu. Hirugarren sektoreko kategorien nagusitasun gorakor argia (enplegatuak, ararteko lanbideak, koadroak eta goi-mailako lanbide intelektualak, ofizialeak, merkatariak, enpresa-buruak) erakusten du, baita laborari esplotatzaileen kopuruaren murrizketa handia ere.

Lapurdiko kostaldean, aise nagusitzen dira hirugarren sektoreko jarduerak. Nafarroa Beherean, laborantzaren garrantzi berezia aipa daiteke, eta Zuberoan, laborantzaz gain, industriaren presentzia agerrarazten duen langileen kategoriaren proportzio handia.

Ipar Euskal Herriko biztanleria aktiboaren banaketa KSParen arabera, 1982tik aurrera



Iturria: INSEE, RP 1990.

3.3.2. Jarduera nagusien ezaugarriak

3.3.2.1. Laborantzaren erresistentzia

IEHko etxaldeen kopuruaren bilakaera 1955etik 2000ra bitartean



Iturria: RGA,2000

Mendebaldeko herrietan XX. mendea laborarien eta etxaldeen kopuruen murrizketaren mendea izan da. Ipar Euskal Herrian ere, fenomeno hori argi ikusi da. Horrela, 1955tik 2000ra bitartean etxaldeen erdia desagertu da. Azken hamarkada honetan kopurua %15,8ko neurrian apaldu da. Gaur egun 5.939 etxalde dira Ipar Euskal Herrian.

Beherakada hori azkarra izan bada ere, hurbileko eskualdea den Biarnok oraindik emaitza larriagoak izan ditu (–%26,5); gauza bera Akitania Eskualdeko emaitzen aldetik (–%27,6).

	1955	1970	1979	1988	2000	1970-00	1988-00
IEHko etxalde-kopurua	11.353	8.877	8.468	7.111	5.989	–%32,5	–%15,8
					Akitania	*–%53,7*	*–%27,6*

Beraz, euskal laborantzak hobeki ihardokitzen du, nagusiki segiden hartzeak hobeki segurtatuak direlako. 1988an 55 urte baino gehiagoko laborarien %41ek zioten segitzaile bat bazutela, proportzio hori %27koa zelarik Frantziako Estatuan.

Segida-hartze horiek azal daitezke tradizionalki euskaldunek familiaren ondareari dioten atxikimenduarekin: haurridetarik batek etxaldearen segida hartu behar du, familiako baserria eta bere lurrak baturik atxikitzeko. Hala ere, zabaltzen ari diren hiriko bizimoduek, ohitura horien aldaketa dakarte, hainbaten etxaldeen etorkizuna zalantzan ezarriz. Alabaina, lurren zatiketek etxaldeen eremuen murrizketa eragin lezakete, ez gehiago bizikorrak bihurtuz.

Segida horien hartzea azal daiteke, halaber, eskualde horietako bertze jarduera ekonomikoen eskasiagatik. Laborantza, beraz, ezinbertzeko hautua bilakatzen da "herrian" gelditu nahi dutenentzat.

Etxaldeen kopuruaren banaketa eskualdeka, 1979tik aurrera



Iturria: RGA,2000

Etxaldeen kopuru handiena Lapurdi barnealdean eta Nafarroa Beherean dago. Lapurdi Barnealdearen kasuan, laborantza arazo nagusi bat ezagutzen ari da: kostaldetik hedatzen ari den hiria. Lur-presioa gero eta handiagoa da, eta tentazioa da lehen laborantzarako baliatzen ziren lurrak eraikikor bihurtzea, ondoren garestiago saltzeko.

Lapurdi barnealdean pluriaktibitate handiagoa dago Zuberoa eta Nafarroa Beherean baino.

Laborari nagusien banaketa, adin-tarteka, 2000an

	<40	40-54	>55
Ipar Euskal Herria	%29	%43	%28
Biarno	%27	%43	%31
Akitania	%23	%43	%34

Iturria: RGA, 2000

Ipar Euskal Herrian gazteen proportzioa (40 urte baino gutxiagokoak) Akitania eskualdean baino apalagoa da. Biarnon, aldiz, proportzio berdintsuak dira.

Ondoko grafikoek erakusten duten bezala, gazteen proportzioa handitu egin da 1979az geroztik, baina erretretaren adinaren apaltzeak eta aitzin-erretretarako harturiko neurriek azaltzen dute fenomeno hori, hein handi batez.

Nafarroa Behereak gazteen proportzio handiena biltzen du (%27). Lapurdiko kostaldean, aldiz, etorkizuna aski iluna da: laborarien %55ek 55 urte baino gehiago ditu, eta gazteen proportzioa %10era mugatzen da.

Laborari nagusien banaketa, adin tarteka eta lurraldeka





Iturria: RGA,2000

Laborarien heziketa-maila gora doa: 1970 eta 1988. urteen bitartean, gutxienez bigarren mailako formazioa duten laborarien kopurua sei aldiz biderkatu da.

Laborarien inplikazio azkarra sindikatuetan (FDSEA eta ELB) ere aipa daiteke. Azken hauteskundeetan berezko Lanborantza-Ganbara baten aldeko kanpaina aktiboa egin duen ELB sindikatuak Ipar Euskal Herriko gehiengoa lortu du, departamenduan minorian izanik ere. FDSEA sindikatuak nagusi izaten segitzen du Paueko erakundeetan.

Lur-eremu baliatua etxaldeka, 1970etik 2000ra bitartean



Iturria: RGA,2000

Oro har, Ipar Euskal Herriko etxaldeak txikiak dira: 23 hektarea batez bertze; auzoko Biarnon 25 hektarea dira. 1988an Frantziako Estatuko etxaldeen batez bertzekoa 28 hektareakoa zen. Hau azal daiteke Ipar Euskal Herriak duen kokapen geografikoagatik. Alabaina, Lapurdiko eta Nafarroa Behereko iparraldean zelaiak badaude ere, laborantza mendialdean kokatzen da nagusiki.

	Lur-eremu baliatua					Lur-eremu baliatua etxaldeka			
	1955	**1970**	**1979**	**1988**	**2000**	**1970**	**1979**	**1988**	**2000**
IPAR EH	**167.397**	**115.458**	**122.561**	**117.793**	**136.979**	**13**	**14**	**17**	**23**
Biarno	…	223.305	222.424	220.966	219.446	14	16	19	25
Akitania	…	…	1.590.194	1.542.006	1.473.396	…	16	20	26
					Frantzia	19	…	28	…

Txikiak izanik ere, etxaldeetako lur-eremua handituz joan da, bikoiztuz 1970etik hona. Bi azalpen eman ditzazkegu: alde batetik, Mendebaldeko herri gehienetan bezala, etxaldeen kontzentrazio-fenomenoa, eta bertzaldetik, lur berrien egokitzea laborantzarako, azken azalpen hau argiena delarik. Honela, 1955eko heina lortzen ez bada ere, laborantzarako baliatzen den lur-eremua %19ko heinean zabaldu da. Denbora berean, Biarnon eremua doi bat murriztu da.

Hurbilagotik so eginez, lur-eremu iraulgarria handitu egin da, eta belarretako baliatua dena mantendu da, azkarki murriztu delarik Biarnon.

Lurraren baliapena 1997tik



	iraulgarria/ lur-eremu baliatua			belarra/lur-eremu baliatua		
	1979	**1988**	**2000**	**1979**	**1988**	**2000**
Ipar EH	**%24**	**%28**	**%35**	**%75**	**%71**	**%64**
Biarno	%60	%62	%74	%38	%36	%24
Akitania	%54	%58	%64	%35	%31	%24

Lurra, belarretarako baliatua da nagusiki.

Taula honek argiki erakusten du Ipar Euskal Herriak duen berezitasuna, Akitaniako eskualdearekin zein hurbileko Biarnorekin begira. Alabaina, azken biek beren lurra nagusiki laborantzarako baliatzen badute (%64 eta %74), Ipar Euskal Herrian, parte handiena belarretako baliatua delarik, erran nahi baita hazkuntzarako (%64).

Hona hemen 1988an egin sailkapenak erakusten dituen laborantza-motak eskualdeka:

Kostaldea	Mendi zola	Mendialdea
1. abelgorri esnedunak	1. ardi esnedunak	1. ardi esnedunak
2. loregintza	2. abelgorri esnedunak	2. haragi-abelgorria
3. baratzegintza	3. haragi-abelgorria	3. abelgorri esnedunak

Ardien kopurua gora doa. 1970 eta 1988. urteen bitartean %70ko neurrian emendatu da[6], arazoak pausatuz etxaldeen eremu txikiegiak behartzen dituen lur komunen baliapena kudeatzeko.

Bidaxune eta Donapaleu aldeko jarduera nagusia, lehia gorakorra jasaten duen hazi-artoaren inguruan da.

Oro har, Ipar Euskal Herriko laborantzak diru-laguntzen behar gero eta handiagoa du. Mendi-indemnizazioa errenta osagarri arras garrantzitsua bilakatu da

6. 2000ko emaitzak falta zaizkigu joerak segitu duen jakiteko.

etxalde frankoren biziraupenerako. 2000. urtean departamenduan egindako inkestak diru-laguntzen partekatze desorekatua erakusten du Biarnoko eta Ipar Euskal Herriko eskualdeen artean. Alabaina, departamenduko plantatzeen erdia eta etxalde-buruen %39 ordezkaturik ere, Ipar Euskal Herriak diru-laguntzen %29 baizik ez du eskuratzen.

Etorkizunari begira eta konklusio gisa, hona hemen 1993an *Euskal Herria 2010* prozesuaren kariaz egindako txostenaren pasartea:

Datorren urteetan ardi esnedunen nagusitasuna azkartuz joanen da ondoko arrazoiengatik:

– mendi-eskualde batean kokatuak baikara,

– etxaldeek handitasun txikia baitute,

– artoaren prezioa behera baitoa,

– hazkuntzako primek konpentsazio handiagoa ematen baitute,

– esne-kuotarik ez baita ardi esnearen kasuan,

– laborantza-politika komunak nagusiki abelgorriak eta zituak kolpatzen baititu,

– bazka-produkzioak garrantzitsuak baitira (baliaturiko eremuaren %75).

Ardi-esnea arriskuan baldin bada, Ipar Euskal Herriko laborantza da lanjeran. Alta, gerta daiteke gaur egungo laborantza-politika komunak gero eta laborari gehiago honako laborantza-motara bultzatzea, bai Ipar Euskal Herrian eta bai eskualdean ere. Beti bezala, lehia mehatxu garrantzitsuenetariko bat da. Ekoizpenaren baloraziorako erabiltzen den gazten lortzeko transformazioak kalitatearen axola eta jatorria erakusten dituen promozio-politika eduki behar du.

Axola hori ezinbertzekoa da, halaber, gizenaren edota akuakulturaren arloetan. Arloaren produkzioaren emendioak segitu behar luke (*Irulegi Jatorri Kontrolatu Izendapena*, AOC), merkatua ez baita agortua, ezta urrundik ere. Bertzalde, *Baionako Xingarrak* lortu duen *Jatorri Babestuaren Izendapenak* (IOP) zerri arloaren garapena ekar lezake.

3.3.2.2. Arrantzaren galera

Ipar Euskal Herrian

Hiru portu daude Ipar Euskal Herrian: Donibane Lohizune-Ziburukoa 178 arrantzalerekin (78 kostatik hurbil ari dira eta 90 itsaso zabalean), Hendaiakoa 30 marinelekin eta Baionakoa hurbileko arrantzan ari diren 30 arrantzalerekin. Bertzalde, Dakar (15 arrantzale), Landetako Capbreton (60 arrantzale) eta batez

ere Baionako eskualdeari "frantses-espainolak" deitzen zaien 50 itsasontzi (330 arrantzale). Guztira ari diren 675 arrantzaleetarik %50 baino gehiago Ipar Euskal Herritik kanpo bizi dira.

Puntu baikorrak

1999an, arrantzale-mota berriak eta arrantza-tekniken aniztasunak Donibane--Ziburuko portua biziarazi dute. Azpiegiturak onak dira: enkantea, kaia, tresneria... Lekuko formakuntza kalitatezkoa da eta gazteek bizi-kalitatearen hein minimoa segurtatuko lukeen arrantza "iraunkorrean" abiatzeko gogoa dute.

Lehorreraturiko arrain-mota nagusiak 2000an



Iturria: CCI Bayonne Pays Basque

Bertzalde, beherakada izugarri baten ondotik (–%40, 1993tik 1996ra bitartean) arrainaren batez bertzeko salmenta-prezioa gora doa (+%92 1996az geroztik), nahiz oraindik apala den.

Batez bertzeko prezioaren (kiloka) bilakaera



Iturria: Direction interregionale des affaires maritimes Poitou-Charentes-Aquitaine-INFOMER / CCI de Bayonne Pays Basque 2001

Puntu ezkorrak

60ko hamarkadako 1.200 arrantzaleetarik 300 baizik ez dira gelditzen gaur egun.

Itsasontzi-parkea zahartzen ari da. Azken 6 urte hauetan 2 itsasontzi berri bakarrik eraiki dira. Arrantzaleak berak ere zahartzen ari dira.

Hendaiako enkantea desagertu egin da. Hori azken urte hauetan izandako emaitza beherakorrengatik azal daiteke, kantitateetan zein balioetan ere.

Enkantean lehorreraturiko arraina (tonak) 1995etik aurrera

	1993	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000	*1993-2000*
Donibane Lohizune	5.909	5.204	6.205	4.437	5.070	4.553			
Hendaia	4.235	4.572	4.589	5.939	3.425	2.257			
Ipar Euskal Herria	**10.144**	**9.776**	**10.794**	**10.376**	**8.495**	**6.810**	**5.349,6**	**7.222**	***–%29***



1993tik arrantzaturiko kantitatea %29ko neurrian gutxitu da. Donibane Lohizuneko portuak arrain-kantitate handiena jasotzen du: Hendaiakoak baino bi aldiz gehiago.

Enkantean lehorreraturiko arrainaren balioa (mila liberatan) 1995etik

	1993	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000	*1993-2000*
Donibane Lohizune	70.874	51.222	59.937	39.336	53.000	55.500			
Hendaia	48.802	47.592	44.790	31.397	27.400	14.500			
Ipar Euskal Herria	**119.676**	**98.814**	**104.727**	**70.733**	**80.400**	**70.000**	**65.042,1**	**94.311**	***–%21***



Iturria: Direction interregionale des affaires maritimes Poitou-Charentes-Aquitaine-INFOMER / CCI de Bayonne Pays Basque 2001

Arrantzaren diru-iturri ziurrak diren kontserbategiak ere osoki desagertu dira. Donibaneko enkantearen salmenten balioak izugarrizko beherakada jasan du (erdia baino gehiago 10 urtez).

Lehengaia desagertze-arrisku larrian da, deus axola duen arrantzarengatik (arrain txikiegiak biltzen baitira berdin-berdin), sare-kopuru handiegiagatik eta kutsadurarengatik, bertzeak bertze.

Koherentzia eskasa nabari da erabakiak hartzen dituzten egituren artean (Kontseilu Orokorra, Industria- eta Merkataritza-Ganbara, Estatu Frantsesa, Europa). Arazo bera sumatzen da arrantzaleen artean.

Kontzentrazioa handia da: 8 itsasontzik (50 arrantzalek) boterearen %60 dute.

Bestalde, ekoizleek Donibaneko enkantearen kontrola galdu dute. 1992an Frantzia eta Espainiaren artean bokartari buruz eginiko hitzarmenak kalte handiak ekarri ditu Ipar Euskal Herrian (%30 inguruko galtzeak). Gazteek ez dute aparteko laguntzarik instalatzeko mementoan. Lankidetza txikitzen ari da.

Frantziako estatuko portu frankorentzat bezala, balantza idorra da: arrantza hilzorian da. Arrantzale anitz ez dira gehiago arrantzaz bizitzera heltzen. Ipar Euskal Herriko egoera orokorki bertze portuena baino txarragoa da.

Hego Euskal Herrian

Emaitzak: 3500 arrantzale, horietarik 2000 arrantza artesauan direnak (antxoa, atuna…) eta 1000 itsas zabalean (arrastea eta sare zuzenak), munduko itsasoak zeharkatzen dituzten eta Euskadira negozio-zifraren erdia ekartzen duten 50 atunketari izoztaile eta arrastaketari.

EAEk aldeko baikor eta azkarrak ditu: Espaniar Estatuko "freskoaren" merkatua, Gasteizko gobernuaren nahi azkarra (arrantzaren kudeaketan), kofradien indarra, sektore pribatuaren inbertsioak, kontserbategien mantenua (enpleguaren %50 Bermeon).

Baina Europako Batasunean kokatua den geroztik, Hondarrabia eta Getariako kasuak ez ezik, arrantzaleen kopurua nabarmenki apaldu da: 1986an, 745 ontzi baziren, 1999an, 400 baizik ez. Hala ere, ontzidia dexente berritua (35-40 metroko ontziekin) eta ekipatua da. Dena den, baldintza gogorrek gazteen gogorik eza ekartzen dute segida hartzeko.

Egoera orokorra

Euskal Herriko arrantza-eremuak arras txikiak dira eta lehengaia pobretu egin da.

Ipar eta Hego Euskal Herriaren artean elkarren arteko harremanak biziak izateko ordez, ofizio desberdinen gatazkak nagusitzen dira.

Bertzalde, Euskal Herria ez da Europako Batasunak laguntzen dituen eskualdeetan sartua izan. Gasteizko gobernuak Hego Euskal Herriko arrantza hein handian laguntzen badu ere, Ipar Euskal Herriak ez du holako berezko instituziorik laguntza finantzarioak jasotzeko.

Munduan zehar sektore agroalimentarioa, munduko merkatuaren (OMC), teknologiaren aitzinamenduaren eta errentabilitatearen menpe dago. Hala ere, herri aberatsetan ingurumenari eta lehengaiari buruzko errespetua handitzen ari da, eta proteina natural gisa baieztatua den arrainaren balio nutritiboak perspektiba berri baikor batzuk ekar litzake.

3.3.2.3. Azpi-industrializazioa eta eraikuntza-sektorearen garrantzia

Atal honen burutzeko, emaitza arras eskasak lortu izanik, aterabide zuhurrena izan da, 1993an *Euskal Herria 2010* prozedurak izenpean egindako txostenaren edukia aurkeztea. Analisi horrek, nahiz 1975etik 1990erako garaian oinarritu, gako baliagarriak ematen ditu azken hamarkada honetan izandako joerak ulertzeko, frankotan 80ko hamarkadan abiatutakoak baitira.

a. Industria

Industria-sektoreko enplegu-banaketa 1975etik aurrera

	1975	**1982**	**1990**	**1999**	Adarren garrantzia	*Bilakaera 75-99*
Hazkurria eta laborantza-industriak	2.720	2.344	2.672	2.919	%20,7	*%7,3*
Energiaren ekoizpena eta banaketa	785	720	932	801	%5,7	*%2,0*
Bitarteko ondasunen industriak	2.960	3.776	3.224	3.840	%27,2	*%29,7*
Ekipamendu-ondasunen industriak	3.485	3.748	4.788	3.580	%25,4	*%2,7*
Kontsumo-ondasunen industriak	5.645	4.488	3.524	2.955	%21,0	*–%47,7*
Industria orotara	**15.595**	**15.076**	**15.140**	**14.095**	**%100,0**	***–%9,6***
Sektorea orotara	*80.415*	*77.940*	*91.336*	*98.652*	%14,3	*%22,7*

1999an industriak IEHko enpleguen %14,3 biltzen ditu. Emaitza hau apala da Hego Euskal Herriarekin konparatuz (%30). 1975etik enplegu orokorra %22,7ko heinean igo bada, industriako enplegua %9,6koan murriztu da. Apaltze handiena azken hamarkada honetan gertatu da, 1.500 enpleguetarik 1000 galdu baitira.

Industria-sektoreko egituraren bilakaera 1975etik aurrera



Iturria: RP, 1999



Iturria: RP, 1999

Sektoreko egituraketari so egitean, aparteko espezializaziorik ez dela ohar gaitezke. 1975etik aurrera kontsumorako ondasunen garrantzia murriztu egin da, eta bitarteko ondasunena doi bat azkartu.

Hona hemen *Euskal Herria 2010* txostenaren karietarat emandako azalpenak

Zapatagintzaren galera eta sektore elektriko eta elektronikoaren gorakada.

1975 eta 1990. urteen bitartean industria-sektoreak 450 enplegu galdu ditu. Galtze hori handia, ez bada ere berezitasun franko ditu:

– Kontsumorako ondasunen industriak 2.000 enplegu baino gehiago galdu ditu zapatagintzaren jardueraren galeragatik. 1975ean lehen adar industriala zen: garai hartako 100 enpleguetarik 30 soilik gelditzen ziren 15 urte geroago.
– Ekipamendurako ondasunen industriak 1.300 enplegu sortu ditu 15 urtetan. Emaitza on hauek zor dizkiegu etxerako ekipamenduzko ondasunen fabrikatzeari, baina bereziki eraikuntza elektriko eta elektronikoari (informatikarako eta bulegoko materiala, material elektrikoa eta elektronikoa: igogailuak, pilak, telefonoak, osagaiak, industriarako neurgailuak edo automaziorako gailuak, ikus-entzunezko materiala). 1975ean ia existitzen ez ziren bi adar hauek Ipar Euskal Herriko adar ekonomikoen hazkunde azkarrena ezagutu dute: 1.500 enplegu zituzten 1990ean. Ekipamendurako ondasunen industria IEHko adar handiena bilakatu da. Goratze horrek itsas ontzigintza, aeronautika eta armamenduko enplegu galtzeak (–%11, 15 urtetan) konpentsatu ditu.
– Bitarteko ondasunen industria (metalak, meak, eraikuntzarako materiala, kimika, burdingintza, papera, kartoia, kautxua) aski egonkorra da, laborantza zein hazkurria-industria bezainbat. Haragi- eta esne-industrien garapenak bertze laborantza- edo hazkurri-industrietan izan diren galtzeak konpentsatzen ditu".

Enplegu-banaketa industrian, lurraldeka, 1999an



Iturria: RP, 1999

Industria-sektoreko enplegua nagusiki Lapurdiko kostaldean dago, enpresa gehienak hor kokatzen baitira. Hala ere, Zuberoako egoera azpimarra daiteke. Hain zuzen, Zuberoak biztanleriaren %5 biltzen badu ere, industriako enpleguen %8 du. Maule aldean industria txiki bat garatu da zapatagintzaren inguruan, eta jarduera hori krisian bada ere, kautxuarekin zerikusia duten hainbat jarduera sortu dira.

Bertzalde, Nafarroa Beherean laborantzarekin loturiko jardueraren garrantzia aipa daiteke, eta lurralde honetan laborantzak duen toki garrantzitsuari esker ulertzen da.

Industria-adarren banaketa, lurraldeka



Iturria: RP, 1999

Ipar Euskal Herriko industria kanpoaren menpe dago

Ipar Euskal Herriko lehenengo 19 enpresetarik 13k beren egoitza soziala Euskal Herritik kanpo dute, eta nazioarteko dimentsioa duten talde handien eskuetan daude. Industria elektriko eta elektronikoa bultzatu duten industriek ongi erakusten dute egoera hori: *Sony* (2000. urtean RUWEL nazioarteko taldeak erosia eta berregituratze-erabaki baten ondotik ixtekotan dena), SAT, *Telerad*. 1990an "kanpoko" sozietate horiek bertako industriako langileen %32 biltzen zuten, eta azpitratamendurako enpresa andanen jarduera bultzatzen zuten (240 enpresa eta 3.400 enplegu). 2001. urtea eta 2002. urtearen hastapena guztiz ilunak izan dira Ipar Euskal Herriko industriarentzat. Honela, Mauleko Etchandy espartin egilearen eta RUWEL enpresaren izteak aipa daitezke, bai eta ADA zein SAFAM epresen zailtasunak ere. Enpresa horietako enpleguak jokoan izateaz gain azpikontratatzaile andanen biziraupena kolokan ezarri da.

Industria handienak, enpleguaren arabera sailkatuak (2001)

Sailka-pena	Enpresak	Herria	Jarduera nagusia	Langile--kopurua
1	***Dassault aviation SA***	Biarritz-Angelu	Aeronautika	1.174
2	***Bonnet Névé-Bonnet réfrigération***	Hendaia	Hozkailu-material profesionala	550
3	***NA PALI SA Quick Silver***	Donibane Lohizune	Kirol eta aisialdietarako jantziak	450
4	***Ruwell***	Baiona	Zirkuitu inprimatuetarako euskarriak, osagaiak	404
5	***Signature SA***	Urruna	Bide- eta hiri-seinalaketa	366
6	***Sagem SAT- S.A. de télécommunications***	Mugerre	Telekomunikabideetarako materiala	300
7	***Acierie de l'Atlantique ADA***	Bokale	Burdinola elektrikoa	260
8	***Sokoa***	Hendaia	Bulegoetako altzairu-ekoizpena	218
9	***Société lyonnaise des Eaux*** **(Pays Basque)**	Biarritz	Ur-horniketa	208
10	***SAFAM fonderies et ateliers de Mousserolles***	Baiona	Urketa	207
11	***B. Braun***	Donibane Lohitzune	Gai sintetikoz ekoitziriko medikuntza-objektuak	200
12	***Plastitube SA***	Baiona	Gai plastikozkoen transformazioa	180
13	***Lur Berri***	Aiziritze	Hazkurri-koperatiba taldea	142
14	***Telerad SA***	Angelu	Aeronautika eta telekomunika-bide-materiala	107
15	***Pyrénées from Société des caves***	Larzabale		103
16	***Fromagerie des Chaumes***	Bildoze	Gaztak	100
17	***Salines Cerebos et de Bayonne***	Mugerre	Kontsumorako gatza- Zuren babesa	65

Iturria: Baiona, Euskal Herriko MIG

b. Eraikuntza

Eraikuntzaren sektorea aski azkarra da, baina harreman arras hertsia du koiunturarekin.

Eraikuntzaren sektoreko enpleguaren bilakaera 1975tik aurrera

	1975	1982	1990	1999	Garrantzia, enplegu mailan 1999	*Bilakaera 1975-99*
Eraikuntza, laborantza eta ingeniaritza zibila	**8.225**	**7.508**	**7.612**	**6.608**	**%6,7**	***–%19,7***
Sektorea guztira	80.415	77.940	91.336	98.652	%100,0	*%22,7*

Eraikuntza, laborantza eta ingeniaritza zibilaren sektorearen bilakaera 1975etik aurrera



Iturria: RP, 1999

Enplegua behera badoa ere (–%20), eraikuntza-sektoreak toki garrantzitsua du Ipar EHan. 1999an, 6.608 enplegu ditu, hots, enpleguen %6,6 (laborantza, arrantza eta oihangintza bezainbat). Hala ere, proportzio hori behera doa, 1975ean enpleguen %10 baino gehiago biltzen baitzuen.

3.3.2.4. Hirugarren sektoreko nagusitasuna

Atal honen burutzeko, emaitza arras eskasak lortu izanik, aterabide zuhurrena izan da, 1993an *Euskal Herria 2010* izendapenaz egindako txostenaren edukia aurkeztea. Analisi honek, nahiz 1975etik 1990erako garaian oinarritu, gako baliagarriak ematen ditu azken hamarkada honetan izandako joerak ulertzeko, frankotan 80ko hamarkadan abiatutakoak baitira.

Ipar Euskal Herrian, bertze eskualdeetan bezala, hirugarren sektoreak toki gorakorra du ekonomian. Alabaina, 25 urte hauetan enplegu orokorra %22,7ko heinean emendatu da eta denbora berean 3. sektorearena %63,3koan. Parte erlatiboak sektore honek duen garrantzia ongi erakusten du; hain zuzen, enpleguaren %72,6 biltzen du Ipar EHn, %59 EAEn eta %53 Nafarroa Garaian.

Hirugarren sektoreko enplegu-egituraren bilakaera 1975etik aurrera



Iturria: RP, 1999

Sektore horretako enpleguaren gorakada, bereziki gizabanakoei hornitzen zaien merkataritza-zerbitzuetan eta, hein apalago batean, xehekako merkataritzako adarretan ikusten da. Ipar Euskal Herriaren berezitasun turistikoak eta adineko biztanleriaren (partikularrei horniturikо merkataritza-zerbitzuen kontsumoa) presentziak zeregin nabarmena izan dute gorakada horretan.

Hirugarren sektoreko adarren banaketa 1999an



Heziketa, osasuna eta ekintza sozialak deritzon adarrak enplegu handiena biltzen du. Lehenago erran dugun bezala, adineko biztanleriak zeregin garrantzitsua du horretan, baina bertze bi berezitasun ere aipa daitezke:

– Bata, Kanboaldeko mikro-klimak eragin dituen hainbat osasun-eraikuntzaren plantatzea. Mende honen hastapenean gune hori biriketako minen (tuberkulosia) sendatzeko berezitua bazen ere, gaur egun eraikuntza horiek bertze jardueretan birkonbertitu dira (zahar-etxe, sanatorium...).

– Biga, Hendaiatik Angeluraino, kosta osoan thalasoterapiaren inguruan azken urte hauetan irekitako zentroen biderkatzea.

Hirugarren sektoreko egituraren bilakaera 1975etik 1990era

	1975	1982	1990	Adarren garrantzia 1990ean	*Bilakaera 1975-90*
Merkataritza	10.110	10.500	12.520	%20,6	*%23,8*
Garraioak eta telekomunikabideak	4.475	4.220	5.460	%9,0	*%22,0*
Merkataritza-zerbitzu merkatalak	14.525	16.268	24.232	%39,9	*%66,8*
Alokairu eta "kreditu-bail" higiezinak	180	244	280	%0,5	*%55,6*
Asegurantzak	185	208	372	%0,6	*%101,1*
Finantza-erakundeak	1.150	1.220	1.420	%2,3	*%23,5*
Merkataritzakoak ez diren zerbitzuak	13.275	12.388	16.496	%27,1	*%24,3*
Hirugarren sektorea	**43.900**	**45.048**	**60.780**	**%100,0**	***%38,5***
Enplegu orokorra	80.415	77.940	91.336	%66,5	*%13,6*

Iturria: RP, 1990

Oharra: 1999ko emaitzak nekez parekatzen ahal dira aurreko urtekoekin, bertze nomenklatura baliatu baita hauen aukezteko.

Hirugarren sektoreko egitura (1999)

	1999	Adarren garrantzia 1999an		
Merkataritza	15.117	%21,1		
Garraioa	3.865	%5,4		
Finantza-jarduerak	2.301	%3,2		
Higiezinen jarduerak	1.682	%2,3		
Enpresentzako zerbitzuak	8.557	%11,9		
Partikularrentzako zerbitzuak	11.037	%15,4		
Heziketa, osasuna, ekintza soziala	20.080	%28,0		
Administrazioa	9.028	%12,6	*bilakaera 1975-99*	*bilakaera 1990-99*
Hirugarren sektorea	**71.667**	**%100,0**	***%63,3***	***%17,9***
Enplegu orokorra	98.652	%72,6	*%22,7*	*%8,0*

Iturria: RP, 1999

Erran bezala, horra hor 1975-1990 garaietarako *Euskal Herria 2010* txostenean sektore honetaz egin den analisia.

Enpresarentzako zerbitzuen hazkundeak etorkizun baikorra erakusten du

15 urtez hirugarren sektoreak ia 17.000 enplegu sortu ditu. Hirugarren sektoreko adar guziek enpleguak sortu dituzte.

Enpresentzako merkataritza-zerbitzuek hazkunde handiena lortu dute: +%117koa 15 urtetan. Guztira, 5.000 landun dihardute honelako lanetan:

– Errekuperaketa, aholkuraritza-asistentzia-ikerketa.

– Finantza- eta asegurantza-laguntza.

– Higiezin, alokatze eta kreditu-bail higikorrak.

– Irakaskuntza- eta ikerketa-arloetan.

Guy Di Méo-k eta Franck Guérit-ek, Paueko bi ikertzailek, Pirinio Atlantikoetan eta bereziki Baionan %76ko heinean goratu den enpresentzako zerbitzu-enpresen gorakada harrigarria erakusten dute. Sektoreko osagai estrategikoenak diren ikerkuntza-, aholkuraritza- eta antolaketa-jardueren kasua oraindik adierazgarriagoa da (+%27 Baionan eta %9 Pauen) (*La ville moyenne dans sa région-Pau, Les pays de l'Adour, l'Aquitaine*, 1993, 60. or.).

Hazkunde hori intentsiboa izan bada ere, enpresentzako zerbitzu komertzialen garrantzia apalagoa da IEHan (%5,6) Frantziako estatuan baino (%7).

Kategoria sozio-profesionalen bilakaerak, lan-esku kalifikatuagoa eskatzen duen enpresentzako zerbitzu komertzialen garapena baieztatzen du. Alabaina, 1982 eta 1990. urteen bitartean, koadro eta goi-mailako lanbide intelektualen kopurua %46ko heinean emendatu da. Kategoria honen baitan, unibertsitateko irakasleek eta lanbide zientifikoek hazkunde azkarrena izan dute (+%77), enpresetako koadro teknikoak hurbil izanik (+%69). Proportzioz, koadro gutxiago daude Frantziako Estatuan baino, baina bi bilakaera horiek IEHan gertatzen ari den jazarpen teknologikoaren seinale dira, ilustrazio hoberena industria informatikoaren eta ingeniaritzaren garapena delarik. Honela, goi-mailako formakuntzarako eta teknologiaren transferentziarako formakuntza-zentroen sortzea (IDLS-ESTIA bilakatu dena geroztik) aipa daiteke.

Hirugarren sektorean enplegu gehien sortu duten gaineratiko adarrak ondokoak dira:

– Asegurantza.

– Pertsonentzako zerbitzuak (konponketa —autogintza kenduz—, osasuna, ekintza soziala, animazio-zerbitzuak, kultur eta kirol zerbitzuak, eta bertzelako zerbitzuak, hala nola tindategia, ileapaindegia, estetika, argazkilaritza, garbiketa...).

– Alokairua eta "kreditu-bail" higiezina.

– Xehekako merkataritza (hazkurria).

Xehekako merkataritza (hazkurria kanpo) enpleguari dagokionez egonkorra izan den bakarra da.

Sasoiko turismoa

Turismoa Ipar Euskal Herriko ekonomiaren tertziarizazioaren faktore garrantzitsua da.

15 urtez, jatetxe-edantegi-hoteletako enpleguak %40ko heinean emendatu dira, eta 1990an enpleguaren %5 biltzen zuten (4.400 enplegu). Kanboko osasun--turismoko 800 enpleguak, thalasoterapiako 550 enpleguak eta turismoak eragiten dituen enpleguen gain-kopuruak gehitzen baldin baditugu, turismoak biztanle aktiboen %10 inguru biltzen ditu (9.000 langile). Kostaldeko thalasoterapiako bost zentroek, arrantzaren negozio-zifra bera eragiten dute.

Oro har, turismoak jardueraren %15 ordezkatzen du.

Harrerarako ahalmen garrantzitsuak. Ipar Euskal Herriak Akitaniako biztanleriaren %9 ordezkatzen du, baina hotelgintzaren ahalmenen %20, kanpalekuen %13, eta etxebezitza sekundarioen %15. Gisa berean, Pirinio Atlantikoko biztanleriaren %43 ordezkatzen du, baina hotelgintzaren %68, kanpalekuen %82 eta etxebizitza sekundarioen %68. Azken urte hauetako hamabi hotel-kateren plantatzeak agerian ezarri du lehiari aurre egiteko gaizki posizionatua den familia erako ohiko hotelgintzaren biziraupenaren arazoa. Gain-kapazitatearen arazoa pausatzen da, Frantziako estatu osoan inon ez bezala, 30 kilometroetan kontzentratuak diren 5 thalasoterapia zentroengatik. Bigarren etxebizitzen kopurua %30 emendatu da azken 8 urtetan. Biarritz eta Hendaiako kantonamenduek etxebizitzen %30 ordezkatzen dute, eta ia %40, Donibane Lohizuneko kantonamenduak. Bigarren etxebizitzek Ipar Euskal Herriko ohe turistikoen ia erdia biltzen dute, eskualdean egin daitekeen turismoa politikatik at ezarriz. Eraikiko diren aterbetze turistikoen kontrolaren garrantzia agerian ezarria da, eragin gorakorra baitute dagoen lur-presio izugarriarengan.

Sasoia zabaltzeko indarrak. Aterbeen hazkundearen kontrolik ezak gaur egun dauden egiturak zailtasunetan ezartzen ahal ditu, hotelgintzan bezala. Ekainetik irailera —uztail eta agorril hilabeteetan bereziki— kontzentratzen den eta saturazio-arazoak pausatzen dituen sasoiko turismoa izaten da. Horrek agerian ezartzen du, azpiegituren handitzea baino, urtean zehar hedatuko litzatekeen eta enplegua egonkortuko lukeen turismoaren hedapenaren beharra. Alde horretara egindako indarrak azpimarratzekoak dira: Hego EHko jendeak Zuberoa gaineko aterbeak baliatzen ditu neguan, azpiegiturez hornitua den Biarritzeko hiriak negozio eta festibalen turismoa lortzen du, eta duela 15 urte birbultzaturiko Kanboko termalek urtean 11 hilabeteko jarduera segurtatzen dute.

3.3.2.5. Eskulangintzaren garrantzia eta dinamismoa

Eskulangintzaren[7] enpresak definitzeko, bi ezaugarri nagusi hartzen dira kontuan: jarduera eta handitasunezko ezaugarriak.

7. Ofizialgintza, artesautza.

– Jarduera-ezaugarriari dagokionez, enpresa hauek ekoizpenean, transformazioan, konpontzean edota zerbitzu-prestazioen jardueran ari dira. Guztira, 250 lanbide baino gehiago dira partikularren edo enpresen zerbitzuko.

– Handitasun ezaugarriari dagokionez, enpresa sortzeko mementuan ez dira 10 langile baino gehiago enplegatu behar. Ondotik atari hau pasatzen bada ere, enpresa, eskulangintzako sektorean geldi daiteke "segipen-eskubide" bereziari esker.

Eskulangintzako enpresa, Lanbide-Ganbarak kudeatzen duen lanbideen katalogoan markatua da.

1999an, Ipar Euskal Herriko eskulangintzak 7.600 lansaridun biltzen dituen 5.083 enpresa ditu.

Eskulangintza ongi plantatua da IEHan: 1.000 biztanleko 19 ofiziale dira (14, Frantziako estatuan).

Eskulangintzako enpresen jarduera multzoka (1999-25-11)

Jarduera-sektorea	Enpresa--kopurua	%	Frantziako Estatuko banaketa
Elikadura (haragia gabe)	248	4,9	4,0
Haragia eta arraina	227	4,5	3,7
ELIKADURA	**475**	**9,3**	**7,7**
Metalen obratzea	306	6,0	4,6
Oihala eta jantziak	71	1,4	2,4
Larruak	19	0,4	0,1
Altzairuak eta altzairugintza	232	4,6	4,9
Beira kimikoa, zeramika, eraikuntza-materialak	61	1,2	1,6
Inprimaketa, papera, arte grafikoak	71	1,4	1,6
Bertzelako artikuluen fabrikatzea	197	3,9	3,4
EKOIZPENA	**957**	**18,8**	**18,6**
Hargintza	406	8,0	18,4
Teilatugintza, iturgintza, berogintza	277	5,4	4,0
Zurgintza, zerragintza	397	7,8	5,5
Instalazio elektrikoak	227	4,5	5,5
Apainketa	558	11,0	6,4
Terrazagintza eta bertzelako obrak	217	4,3	5,9
ERAIKUNTZA	**2.082**	**41,0**	**45,6**
Garraioak	142	2,8	7,5
Konponketak	556	10,9	10,0
Zuritzegintza, tindaketa	555	10,9	6,3
Bertzelakoak	316	6,2	4,2
ZERBITZUAK	**1.569**	**30,9**	**27,9**
GUZTIRA	**5.083**	**100,0**	**100,0**

Eskulangintzako enpresen kopuruaren bilakaera 1981etik aurrera



Lanbide Sailkatzailean bilduriko enpresen inskripzio eta kentzeen kopuruaren bilakaera 1996tik 2000ra



Iturria: Pirinio Atlantikoen Lanbide Ganbara

Enpresen kopuruak bilakaera aski egonkorra izan du. Egoera hau desberdintzen da beherakada nabarmena izan duen auzoa den Biarnorekin. Bertzalde, 1996tik hona eskulangintzako enpresen sortzea gora joan da, eta gelditzeen kopurua behera 1998tik hona.

Banaketa, jarduera-sektoreka (1999an)



Ikus daitekeenez, eraikuntzaren sektoreak eskulangintzako enpresen %41 biltzen ditu. Ondotik zerbitzuak ditugu (%30). Banaketa hau Frantziako estatuan dagoena bezalakoa da.

Jarduera-sektoreen bilakaera



Jarduera-sektoreen bilakaera (%)	1986/1992	1992/1999
ELIKADURA	–15,0	–2,1
EKOIZPENA	0,3	–8,4
ERAIKUNTZA	–2,0	–3,5
ZERBITZUAK	6,0	16,8
GUZTIRA	**0,6**	**1,1**

1986tik elikaduraren eta ekoizpenaren sektoreko enpresen kopurua murriztu egin da. Denbora berean zerbitzuak hornitzen dituzten enpresen kopurua handitu egin da nabarmenki (+%16,8).

Hona hemen 1986 eta 1992. urteen bitarteari buruz 1994an egindako ikerlanean agertutako joerak:

– Elikaduraren sektorean, haragigintzako lanbiden kopurua nabarmenki murriztu da.

– Eraikuntzaren sektorean, egoera kontrajarria bada ere, obra handia murrizten ari da (hargintza, zurgintza), bigarren mailakoa (iturgintza, apainketa) mantentzen delarik. Parkeen eta baratzeen antolaketei loturiko lanbideak azkarki emendatu dira (+45 enpresa).

– Ekoizpenaren sektoreari dagokionez, metalen obratze eta inprimaketa eta serigrafiako lanbidei loturiko jarduerak emendatu dira, eta oihal, jantzi, larru eta zurari loturikoak apaldu.

– Zerbitzuen sektorearen garrantzi gorakorra, bereziki pertsonarekiko loturiko zerbitzuen (ileapainketa, estetika) eta garbiketa-zerbitzuen dinamikari zor diogu. Konponketa-arloko jardueren beherakada azpimarratzekoa da (etxetresna elektrikoak, Hi-Fi, bitxiak).

Eskulangintzako enpresen estatutu juridikoa



Enpresa indibidualak nagusi dira (%69). Hala ere, azken hamarkada honetan horien partea 18 puntuz murriztu da. Sozietatean artean, enpresen %82 S.A.R.L. motakoak dira (2.588 S.A.R.L.).

Enpresen banaketa forma juridikoaren arabera



Forma juridikoek garrantzi desberdina dute sektorearen arabera. Hain zuzen, sozietateen partea aski altua da elikadura eta ekoizpen aktibitateetan (%40 baino gehiago); eraikuntza eta zerbitzuetan, aldiz, enpresa indibidualak aise nagusitzen dira (%70 baino gehiago).

Lansaridunak

Eskulangintzako enpresen %47k langileak enplegatzen ditu. 2.398 enpresa horietan 3 langile ari dira, batez bertze.

Enpresaburuak



Departamenduko ofiziale gehienak (%52) 36 eta 50 urte bitartekoak dira. Horien artean, %30 51-60 urte bitartean daude, erran nahi baita negozioaren transmisio-garaian.

Enpresaburuen sexua



1999an enpresa-sortzaileen %78,5 gizonezkoak dira.



Eraikuntza arloan emakumezkoek enpresa %6 sortu dituzte bakarrik. Zerbitzuen sektorean, aldiz, ia sortzaileen erdiak emakumezkoak dira.

Enpresen kopuruaren banaketa lurraldeka



Enpresen banaketa biztanleriarena bezalakoa da. Lapurdik eta Nafarroa Behereak kopuru berak atxiki dituzte azken hamarkada honetan; aldiz, Zuberoak %15eko murrizketa jasan du, gaur egun 311 enpresa bilduz (denbora berean, biztanleria %6,2ko heinean apaldu da).

Joera nagusiak:

– Zenbait lanbide desagertzen ari dira bizimoduaren aldaketagatik.

– Industria eta merkataritzako egitura handien sortzeak auzoko edo hurbileko ofiziale eta merkatariak desagerrarazten ditu.

– Enpresa franko segidarik gabe suertatzen dira; ondorioz, horien jarduera eteten ari da.

- Sektore guzietan langile kalifikatuen eskasia dago.

BIBLIOGRAFIA

Agreste: Recensement agricole (2000): *La fiche comparative*, Aquitaine.
Charreton Filgi (1997): *La pêche en Pays Basque*, Hemen elkartea.
Club de prospective Pays Basque 2010 (1993): *Diagnostic*.
Club de prospective Pays Basque 2010 (1994): *Le pays Basque en perspective*.
Euskal Herriko Garapen Kontseilua (2001): *Diagnostic territorial*, *analyse des données issues du RGP de* (1999): document provisoire.
Euskal Herriko Industria eta Merkataritza-Ganbara (2000): *Le Pays Basque en chiffres,* Baiona.
Euskal Herriko Industria eta Merkataritza-Ganbara (2001): *Conjoncture économique Pays Basque*, 12. zbk, Baiona.
Eustat, INSEE, Eusko Jaurlaritza, Akitania Eskualdea (2000): *Euroeskualdea zenbakitan* (2000).
INSEE: *Recensement de la population (1999): base de données Communes*, Profils.
Mailharrancin E., Soulé B. (1996), *L'activité économique du Pays Basque nord*, Hemen elkartea.
Ofizialeak sindikatua (1999): *L'artisanat en Pays Basque*.
Soulé Bernadette (1994): *Structure de l'emploi et des professions au Pays Basque*, Begira, observatoire économique du Pays Basque.
Soulé Bernadette (1994): *Mouvements naturels et structure démographique au Pays Basque*, Begira, observatoire économique du Pays Basque.

Milesker berezi bat:
– Mikel Epaltzari, arrantzari buruz hainbat informazio luzatzeagatik.
– ELB sindikatuko M. Berhocohirigoini, 2000. urteko laborantza-erroldaren emaitzak luzatzeagatik.
– Garapen Kontseiluko kideei, biztanleriaren azken erroldaren emaitza landuak luzatzeagatik.

4. Ingurumena eta lurraldearen antolaketa

Galder Guenaga

Atal honetan, duela gutxira arte zientzialarien eta, oro har, gizartearen arretarik erakartzerik izan ez duten bi gai landuko ditugu. Biek ala biek ekonomiarekin zerikusi hertsia dute, eta aspaldian garrantzi eta gaurkotasun handiko bihurtu dira. Ingurumenak eta lurraldearen antolaketak lotura zuzena eta sakona dute elkarrekin, eta, horrexegatik hain justu, atal berberean bildu ditugu. Nolanahi ere, azalpenak errazteko, bi azpiatal bereizitan jorratzea erabaki dugu.

4.1. INGURUMENA

Azken urteotan hitzetik hortzera barra-barra darabilgun kontua da ingurumenarena. Izan ere, gaur egun ageri-agerikoa da ingurumenarekiko begirunea gizartearen baitan: biztanleon kontzientzia eta sentikortasun ekologista, itxuraz eta teorian behinik behin, punta-puntakoa da.

Agintari publikoek ere ez dute ezkutatzen ingurumenarekiko kezka, eta beren agenda politikoan, itxuraz eta teorian behintzat, aparteko tartea eskaintzen diote auzi honi.

Praktika, agintariena nahiz gizartearena bere osotasunean, askoz kamutsagoa da, ordea.

4.1.1. Ekonomia/Ingurumena bikotea

Historian barna, oraintsu arte (1970 arte, gutxi gorabehera, hots, krisi ekologikoak eztanda egin zuen arte), ekonomia eta ingurumena elkarrekin zerikusirik ez balute bezala aztertu dira, bata zein bestea beren kasa dabiltzalakoan, elkarrekin talkarik apenas egin gabe. 1970az geroztik, ordea, nabari-nabariak izan dira ekonomiaren eta ingurumenaren arteko harreman gatazkatsuak eta tirabira larriak, eta, larritasun horrek akuilatuta, kontzientzia ekologista ere zabal hedatu da gizartearen baitan.

Historiari gainbegiratu arin bat eginez gero, aipatzekoa da XVIII. mendearen bukaera arte (hau da, ekonomia aparteko zientzia modura finkatu zen arte eta, aldi bertsuan, Industria-iraultza piztu arte) ekonomiaren bilakaera naturaren pean ulertzen zela; gizakia bera eta, jakina, ekonomia ere naturaren menpeko ziren, aberastasuna eta balioa naturak sortzen eta ematen baitzituen: gizakiaren jarduera ekonomikoa naturak eskaintzen zuena bere eskuz laguntzera edo, kasurik gehienetan, hurrupatzera baizik ez zen mugatzen (nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta meagintza). Beraz, gizakiak deus gutxi ekoizten zuen bere kabuz, eta, ondorioz, ekonomiaren ibilbidea naturaren, lurraren eta materiaren magalean kokatuta zegoen: ekonomiak oinarri materiala zuen, alegia. Ez da harritzekoa, zentzu honetan, XVIII. mendeko bigarren erdian doktrina fisiokrata nagusi izatea, zeinak aberastasun-iturri bakartzat naturarekin zuzenki lotutako jarduerak jotzen baitzituen, artisautza eta merkataritza antzuak zirela aitortuz.

Dena dela, Industria-iraultzaren testuinguruan, eta ezari-ezarian, ekonomia oinarri material horretatik aldentzen joan zen. Giza lana aberastasunaren sortzaile dela ikusi zen, gizakiak ekoitzi egiten duela, manufakturen bidez merkatugaiak eraldatuz eta haiei balioa erantsiz. Horrela, bada, aberastasunaren eta balioaren adierak aldatu egin ziren, eta giza lana bihurtu zen aberastasun- eta balio-iturri nagusi. Hots, giza lanak ordezkatu egin zuen —gero eta nabarmenago— natura, gizakiaren lana naturaren laguntzaile izatetik, natura gizakiaren lanaren laguntzaile (morroi) izatera pasatuz. Horrenbestez, bere ordura arteko oinarri fisiko-naturaletik deslotu zen ekonomia.

Geroztik 1970 arte edo, ekonomiak bere kabuz egin zuen bere ibilbidea, naturaz eta ingurumenaz arduratu gabe; produkzio- eta kontsumo-maila hazkorrak bermatzea izan zen bere egiteko nagusia, eta, horretarako, gizakiarengan eta giza lanean jarri zuen arreta osoa; jarrera arras antropozentrikoa erakutsiz, ingurumenari eta ekologiari ez zien kasik jaramonik ere egin. Izan ere, nahiz *ekonomia* eta *ekologia* hitzek erro berbera izan, eta bien etimologia oso hurbilekoa den, ekonomia gizarteko ondasunen produkzioaren, banaketaren eta erabileraren inguruko gizarte-erlazioak aztertzen dituen zientzia da, Elhuyar Hiztegi Entziklopedikoaren definizioaren arabera. Ekologiak, aldiz, organismoek eratzen dituzten populazioak eta komunitateak eta horiek ekosistemako beste elementuekin dituzten harremanak aztertzen ditu. Hortaz, dirudienez, ekonomiaren alorra gizakiarena, gizartearena eta giza lanarena da, eta, beraz, gizarte-zientziei dagokie. Ekologiaren esparrua, berriz, natur zientziei dagokie, esparru zabalagoa da eta gizarte-bizitzarekin zerikusi apala duela ematen du. Horra hor ekonomiaren eta ekologiaren arteko zanga kontzeptuala, errealitatean ere ageri-agerian islatu izan dena.

Esan bezala, XIX. mende osoan barna eta XX. mendeko 70eko hamarkadara arte, ekonomiak ingurumenari ia erreparatu gabe (sarritan ingurumenaren aurka) jo zuen aurrera; sistema kapitalistaren giltzarrietako bat, izan ere, horixe baita: hots, kapitalaren metaketari eta hazkunde ekonomikoari erabateko lehentasuna ematea

(horrek, berez, munduan garapena eta ongizatea dakartzalakoan); testuinguru horretan, ingurumena bitarteko soila zen; baliabide natural ahikorren bukaera progresiboa, baliabide berriztagarrien ustiapen arrazionala eta hondakinek eta kutsadurak eragindako kalteak ez ziren aintzat hartzen, harik eta 70eko hamarkadaren bueltan, ekonomia/ingurumena bikotearen desoreka jasangaitz bihurturik, krisi ekologikoaren eztanda eragin arte.

Horrela, azken 30 urteotan, krisi ekologikoaren testuinguruan jada, pixkanaka-pixkanaka, ekonomiaren eta ingurumenaren arteko tirabira latzak sumatzen eta kontzientzia hartzen joan da gizartea. Kontuan hartzekoa da II. Mundu Gerraren ondoren, 25 urtez edo, ikaragarrizko hazkunde ekonomikoa jazo zela, bereziki Lehenengo eta Bigarren Munduetan, baina baita, nahiz motelago, Hirugarrenean ere (garai "loretsu" horri kapitalismoaren urrezko aroa deitu ohi zaio, deitu ere). Hazkunde ekonomiko itzel horrek, ordura artekoak bezalatsu, baliabide natural ahikorren ustiapen intentsiboa eta berriztagarrien gaineko harrapakeria izan zituen oinarri, hondakin- eta kutsadura-maila gero eta handiagoak eraginez. Eta hazkunde eskerga horren ondorio lazgarrien aurrean, zenbait herrialdetan (Ipar Amerikan eta Europan, batez ere) gizarte industrialaren aurkako eta naturarekiko harreman errespetuzkoaren aldeko aldarrikapen eta jarrerak pizten hasi ziren, *beatnik* eta *hippy* izeneko mugimenduen ildotik, neurri handi batean. Gainera, armagintza nuklearraren zein indar nuklear zibilaren arriskuen mamua ere hedatuz joan zen, eta horrek, mugimendu bakezale eta antimilitaristen ildoari jarraiki, kontzientzia ekologista areago ernarazi zuen.

Mugimendu ekologista hasiberri horiek, oro har, zibilizazio industrialak eta kontsumo-ekonomiak bultzatutako baliabide naturalen neurriz kanpoko ustiapenaren aurka agertu dira, eta naturarekin orekatutako garapena aldarrikatu dute. Ia hasieratik, bi ideia nagusi izan dituzte gidari. Alde batetik, mugimendu ekologistari sendotasuna ematen dion ikuspegi zientifikoa landu eta zaintzea beharrezkotzat jo dute eta, bestetik, mugimendu sozialari eraginkortasun politikoa emateari ere ezinbesteko iritzi diote. Horrela, hauteskunde politikoen bitartez eta erakunde publikoetatik ekologismoaren helburuak bultzatzeko, 1972an, Zeelanda Berrian, ekologisten lehen alderdi politikoa sortu zen. Gerora, aski ezaguna denez, edonora ugaldu dira. Europan, adibidez, Frantziako eta Alemaniako alderdi ekologistak (*berdeak* izenez ezagunagoak) izan dira indar handiena lortu dutenak, gobernuko kide izateraino.

Edozelan ere, gizartearen eta agintari politikoen kontzientziazio ekologista ez da batere prozesu azkarra eta lasaia izan, triskantza ekologikoen haritik, kolpez kolpe, bide gorabeheratsua jorratu duen katea baizik. Kate honek zenbait katebegi esanguratsu ditu, ekologismoaren historia hurbilean hito edo zedarri modura har ditzakegunak.

Zedarri horietan lehendabizikoa Erromako Klubak, Dennis Meadows-en eskutik, 1972an kaleratutako "Hazkundearen mugak" izeneko ikerketa dugu.

Erromako Kluba Aurelio Peccei-k eta Alexander King-ek sortu zuten 1968an, dirua irabazteko asmorik gabeko gobernuz kanpoko erakunde gisa, hainbat ikertzailez eta zientzialariz osatua, gizateriaren ekonomia- eta ingurumen-arazo nagusiak aztertzeko. "Hazkundearen mugak" delako txostenak hautsak harrotu zituen biziki, garai hartako populazioaren hazkunde-, produkzio-, kontsumo-, kutsadura- eta lehengaien ustiapen-joerak aldatu ezean, epe ez oso luzean planetaren mugak gainditu egingo zirela iragarri baitzuen, egoera mantenezin eta jasanezin batean murgilduz. Horrela, era aski apokaliptikoan, hazkunde ekonomikoari mugak ezarri zizkioten, hots, ekonomiak neurriz kanpo etengabean hazterik ez zuela azpimarratu zuten, planeta bera ere finitua eta mugatua izaki. Beraz, ordura arteko hazkunde-joerak aldatu beharraren premia bistaratu zuten, ikuspuntu ekonomiko zein ekologikotik orekatuagoa litzatekeen eredu baten komenigarritasuna aditzera emanez.

Urte horretan bertan, 1972an, eta ez kasualitatez, Stockholm-en egindako Nazio Batuen Ingurumen eta Garapenari buruzko Konferentzian, ingurumenaren zainketak eta hobekuntzak mundu osoaren garapen ekonomikoan eta ongizatean eragin egiten dutela aitortu zuten aurreneko aldiz. Europako Batasunak berak ere ez zuen ingurumenaren zainketaren alorrean inolako ekimenik abian jarri 1972 urtera arte.

1973koa ere data arras esanguratsua da, orduan piztu baitzen petrolioaren krisia, bi hamarkada luze iraun zuen kapitalismoaren urrezko aroa hilobiratuz; horrez gain, 1973ko eta 1979ko petrolioaren garestitze bortitzek energia-lehengairik funtsezkoenaren agorgarritasunaren berri eman zuten, kontzientziazio ekologistaren kateari beste katebegi bat gehituz.

Hurrengo zedarri azpimarragarria 1987an koka genezake, Nazio Batuen Ingurumen eta Garapenerako Munduko Batzordeak aurkeztutako "*Gure etorkizun komuna*" izeneko txostenean, hain zuzen ere. Batzordeko presidentearen izenez ezagunagoa den *Brundtland* txosten horretan, gaur egun erabat gizarteratua den "garapen jasangarria"ren kontzeptua estreinakoz plazaratu zen, zeharo ezaguna zaigun definizio honekin batera: *etorkizuneko belaunaldiek beren beharrizanak asetzeko izan beharko luketen aukera arriskuan jarri gabe, gaur egungo belaunaldien beharrizanak asetzeko nahikoa den garapena*. Kontzeptu honek zeresan handia eman du azken urteotan, oso anbiguoa eta nahaspilatsua delako, eta praktikan gauzatzeko nahiko zaila delako, baina baita potentzial handikoa ere, dudarik barik txit erakargarria. Hori dela eta, garapen jasangarriaz luze eta zabal jardungo dugu hurrengo puntuan (4.1.2.).

Ekologismoaren ibilbide honetan aipatuko dugun azken zedarria 1992an Rio de Janeiron burututako Nazio Batuen Ingurumen eta Garapenari buruzko Konferentziari dagokio. Rioko Gailur horretan bi agiri nagusi izenpetu zituzten 170 herrialdek. 1) Bata, *Rioko Aitorpena* izenarekin ezaguna, ingurumen eta garapen kontuetan 1948ko Giza Eskubideei buruzko Aitorpenaren baliokidea izateko sortu

zen. Bertan 27 printzipio orokor zerrendatu ziren, herrialdeen jarreraren kode gisa (zer egin beharko luketen gomendatuz): garapen jasangarriaren alde apustu nabarmena egin zen; gizakiari, ingurumenarekin harmonian, bizitza osasungarria izateko eskubidea aitortu zitzaion; gaur egungo zein etorkizuneko belaunaldien beharrizanak kontuan hartu ziren; pobrezia ezabatzea ezinbestekotzat jo zen; produkzio- eta kontsumo-maila eta tankera jasanezinak bertan behera utzi eta politika demografiko egokiak bideratzearen beharra azpimarratu zen; eta abar. 2) Beste agiri nagusia, *21 Agenda* deritzona, aurrekoa ez bezala, luzea eta zehatza da oso, lanerako egitarau baten gisakoa. Bertan hainbat ekintza global proposatu ziren garapen jasangarria eta ingurumenaren babesa bermatzeko, baita herrialdeen arteko ezberdintasunak desagerrarazteko ere. Agiri aberats, ausart eta are iraultzailea ere bada, baina ez ditu herrialde sinatzaileak berau betetzera derrigortzen, eta finantziazio-arazoak ere izan ditu (esaterako, herrialde aurreratuek beren Barne-Produktu Gordinaren %0,7 garapenaren alde emateko konpromisoa hartu bazuten ere, inork gutxik bete du). Laburbilduz, herrialdeek ez dute borondate edota interes politiko-ekonomiko nahikorik izan agiri horietan adostutakoa gauzatzeko. Bestela esanda, ingurumenarekin eta munduaren garapen jasangarriarekin lotutako konpromisoei, interes politiko eta ekonomiko konkretuak gailendu zaizkie, behin eta berriro, nonahi.

4.1.2. Garapen jasangarria

Kontzeptu gazte hau gizarteko arlo orotara azkar zabaldu zaigu azken urteotan. Jasangarritasunaren leloa denon ahotan dabil. Goian aipatutakoa definizio bat baino ez da, zeren egiazki 200 definiziotik gora egin baitizkiote. Eta hori bere arrakastaren seinale da, baina baita bere anbiguotasunaren zantzu ere. Kontzeptu honi (eta proposatzen duen filosofia edo jarrerari) irakurketa askotarikoak egin dakizkioke, eta horrek bihurtzen du hain korapilatsu eta gatazkatsu. Gainera, erabiliaren erabiliaz, edukia higatu eta argalduko ez ote diogun beldur denik ere bada.

Garapen jasangarria ondo ulertzeko, funtsezkoa da, Brundtland txostenak ez bezala, *hazkunde ekonomikoa* eta *garapen ekonomikoa* kontzeptuak argiro bereiztea. Sarritan kritikatu izan dute Brundtland txostenaren kutsu desarrollista (eta antropozentrista), ingurumenari barik hazkunde ekonomikoari ematen baitio lehentasuna, nazioarteko arazo ekologiko larrienak pobrezia eta gainpopulazioa direla aitortuz, eta aberatsen eta txiroen arteko ezberdintasun eta desorekak bigarren mailan kokatuz (eta bestelako izakiei jaramonik egin gabe). *Hazkundea* eta *garapena* kontzeptuei dagokienez, esan dezagun hazkundeak tamainaz handitzea, fisikoki haztea eta kuantitatiboki gehitzea esan nahi duela; garapenak, berriz, norbere potentzialtasuna lantzea eta hedatzea adierazten du, hots, kualitatiboki hobetzea. Garapen jasangarriak kualitatiboki hobetze hori aldarrikatzen du, hazkunde ekonomiko orekatu eta harmonikoa, alegia. Erran nahi baita, ingurumenaren auziak globalki eragin eta baldintzatu behar duela hazkunde ekonomikoa (ikuspuntu prebentibo batetik).

Hazkunde ekonomikoa aldare gainean gurtu izan dugu. Hazkunde ekonomikoa giza garapenarekin, ongizatearekin eta bizi-kalitatearekin parekatu izan dugu: gero eta gehiago produzitzea izan dugu xede bakar, ongizatearen ikur bakar (ohiko kontabilitate ekonomikoak Barne-Produktu Gordina hartzen du herrialde baten aberastasunaren islatzat, eta BPG horren barruan basoen suntsitzea zein haranen urperatzea produkzio modura eta, ondorioz, aberastasun eta ongizate modura hartzen ditu aintzat; era berean, ingurumenari eragindako edozein kalteren konponketa ere, kutsadura murriztea edo ibai bat garbitzea kasu, produkziotzat jotzen du. Bistan da BPGa ez dela, ezta antzik ere, ongizatearen adierazle zuzena). Edozelan ere, BPGa goratzeari ekin diogu itsu-itsuan, horrek eragin dituen hainbat kalte ahaztuta: a) hondakin- eta kutsadura-jarioak: dela atmosferara (besteak beste, euri azidoa eta lurraren berotze globala eraginez), dela uretara (itsaso zein ibaietako ekosistemak hondatuz), dela lurrera (lurraren bizigarritasuna eta emankortasuna beheratuz); b) basoen murriztea, basamortuen zabaltzea eta planetaren higadura; eta c) bioaniztasunaren galera etengabea. Biztanleria eta, batez ere, ekonomia etenik gabe hazteak horixe ekarri dio guztiaren egoitza den sistema fisiko itxiari (hau da, gure biosferari). Eta testuinguru horretan kokatzen da garapen jasangarriaren erronka. Izan ere, gaur egun hazkunde ekonomikoa ez dugu gure ongizatearen igoeraren sinonimotzat hartzen; gure ongizatean beste aldagai batzuek ere biziki eragiten baitute: besteak beste hezkuntzak, osasunak, aisiak eta, jakina, ingurumen garbi eta ederrak.

Bestalde, garapen jasangarriaren definizioan beharrizanak ere aipatzen dira. Baina noren beharrizanak? Herrialde aurreratuetako biztanleonak edo herrialde txiroetan biziraupenaren mugan bizi direnenak? (Kontuan izan, kasurako, herrialde aurreratuetan, munduko biztanleriaren %25 izanik, baliabide naturalen %80 xahutzen dugula eta hondakinen %75 ekoizten dugula; gutako bakoitzak herrialde txiroetako biztanle batek baino hamabost aldiz paper gehiago, hamar aldiz altzairu gehiago eta laurogei aldiz energia gehiago darabiltzala; eta New Yorken 2001eko irailean eraso zituzten *World Trade Center* eraikinek Afrikako Niger estatuak baino energia gehiago zerabiltela urtean). Gainera, zer arraio dakigu ondorengo belaunaldien beharrizanei buruz? Guri al dagokigu geroko belaunaldien beharrizanak erabakitzea? Bistan denez, garapen jasangarriaren leloak uste baino hari solte gehiago ditu.

Horrez gain, garapen jasangarriaren eztenak oraintsu arteko produkzio- eta kontsumo-maila eta tankerak ere ziztatu ditu. Ingurumenak bizirik iraungo badu, produkzio-molde garbi eta energia-aurrezleak erabiltzea, eta kontsumo arduratsu eta arrazionala egitea aholkatzen du. Aholkuak aholku, baina, ildo honetan ez dugu aurrerapauso handirik egin.

Bukatu aurretik, ez dago aipatzeke uzterik Europako Batasunak garapen jasangarriaren aldeko apustu irmoa egin duela, hitzez bederen (praktikan, jakina denez, Europako Batasunak merkatu batua eta moneta bakarra lortzera zuzendu ditu

ahalegin guztiak, maiz ingurumen-kontuak alboratuz). Hala ere, garapen jasangarriaren ildoan, zenbait ekarpen egin ditu, honako hauek besteak beste:

1. Ingurumenaz arduratzea gizarteko alor guztiei dagokie, eta guztiak erantzule dira (administrazioa, gobernuz kanpoko erakundeak, finantza-erakundeak, enpresak eta, jakina, biztanle oro).

2. Ekintza prebentibo eta zuhurren premia: ingurumenean kaltea egin aurretik, berau aurreikusi eta ekiditeko, neurriak hartu beharra. Neurri horien artean aipagarriak dira Ingurumen-Eraginari buruzko Deklarazioak, hots, lurraldean eta ingurumenean eragina izan lezaketen plan eta proiektuak aldez aurretik aztertu, gauzatuz gero sortuko lituzketen ondorioak identifikatu eta neurtu, alternatibak proposatu eta, azkenean, plan eta proiektuoi onespena eman edo, hala iritziz gero, aldaketak egin nahiz guztiz debekatu egiten duten deklarazioak.

3. Kutsatzaileak berak ordaindu behar izatea prebentzio-gastuak nahiz kutsadura ezabatzeko gastuak. Bestela esanda, produkzio- zein kontsumo--agente bakoitzak berak sor ditzakeen kalte ekologiko guztiak kontuan hartu behar ditu, kalte horiek dirutan zenbatetsi, prezioan sartu eta gero ordainarazi edo ordaindu. Baina nola neurtzen edo zenbatesten dira dirutan ibai bat kutsatzea, bioaniztasuna murriztea edota zarata sortzea?

4. Ingurumenaren babeserako neurriak hartzea tokian tokiko gizarteari eta agintariei dagokie nagusiki, arazo zehatzen berri bertakoek baitakite ondoen (nolanahi ere, bistan da arazo ekologiko askok udalerri baten edo probintzia baten edo herrialde baten mugak gainditzen dituztela, eta horien aurrean goi-mailako ekimen bateratuak beharrezko direla). Ildo horretan, azpimarkagarria da, 1994az geroztik (Danimarkako Aalborg hirian burututako konferentziaz geroztik) Europako Batasuneko hainbat hirik beren esparruan garapen jasangarriaren alde ekiteko hartu duten konpromisoa: *21 Agenda Lokala*. Kontuan hartzekoa da Europako Batasuneko populazioaren %80 hiriguneetan bizi dela. Konpromiso hori Euskal Herriko hainbat hirik bere gain hartu dute. Horien artean hauexek daude: Iruñea, Bilbo, Donostia, Gasteiz, Tutera, Zangoza, Lizarra, Getxo, Santurtzi, Basauri, Arrasate, Andoain, Azpeitia, etab.

4.1.3. Ingurumenaren auzia Euskal Herrian

Euskal Herrian ere ingurumenarekiko kezka eta diskurtso ekologista indarrean dira azken urteotan. Halaber, garapen jasangarriaren leloa hitzetik hortzera darabilgu guztiok, bereziki agintari politikoek. Arrazoirik ez da falta horretarako: eremuz txikia da Euskal Herria; dentsitate demografikoa handia du, oro har; hirigune industrialak eta landa-eremuak han-hemenka nahasten dira; lurra urria da eta gune

askotan kutsatuta dago; hainbat hiritan nabariak dira zarata, trafikoa eta zikinkeria; etab.

Arazo horien aurrean, hainbat ekimen jarri dituzte abian agintari publikoek, nahiz eta gehienetan arazoa sortu osteko irtenbideak baino ez diren izan (eta ez, garapen jasangarriaren espirituari darion bezala, arazoa aurreikusi eta saihesteko neurriak). Nolanahi ere, aipagarria da —ildo horretan, besteak beste— Euskal Autonomia Erkidegoan 1998an onartutako Ingurumenaren Babeserako 3/1998 Legea, zeinak bere egiten duen garapen jasangarriaren kontzeptua, aparteko arreta eskainiz biztanle ororen parte-hartzeari, prebentzio eta zuhurtziari eta Ingurumen--Eraginari buruzko Deklarazioei. Gainera, gizartean bertan eta batik bat enpresetan ingurumenaren aldagaia zaintzeko, IHOBE deritzon erakunde publikoak zenbait programa abiarazi ditu: ekoizpen garbia, ingurumen kudeaketa, ISO14001...

Haatik, legeak lege eta leloak lelo, garapen jasangarriaren filosofiak eta oro har ingurumenarekiko begiruneak nekez gainditzen dute Euskal Herrian hitz polit baina hutsen esparrua. Hau da, praktikan ia ez dira islatzen. Gizarteak berak, oro har, ez du konpromiso sendorik erakusten. Enpresek interes ekonomikoak lehenesten dituzte, eta, salbuespenak salbuespen, irudi txukuna proiektatzeko, bezeroak erakartzeko eta irabaziak goratzeko erabiltzen dute nagusiki makillaje "berdea" (ez hainbeste ingurumenari zinezko begirune eta errespetua diotelako). Eta administrazio publikoari dagokionez, Euskal Herrian ere interes ekonomikoak (hazkunde ekonomikoa, herri-lan eta azpiegitura erraldoiak...) ipintzen dituzte guzti-guztien gainetik. Horrela, Ingurumen-Eraginari buruzko Deklarazioak, adibidez, tramite huts eta antzu bilakatzen dituzte, edozein plan eta proiektu justifikatzeko tresna, alegia. Izan ere, AEBetan ez bezala (non ingurumen-administrazioa independentea den, hots, gobernuz kanpokoa, haren presio eta aurrebaldintzei ihes egiteko), Euskal Herriko ingurumen-administrazioak ahulak eta eskuduntza-maila baxukoak dira, eta, ondorioz, beren erabakiak interes politikoen eta ekonomikoen menpe makurtzen dira (Ingurumen-Eraginari buruzko Deklarazioak, hortaz, tramite hutsalak baizik ez dira). Horrez gain, ez dute biztanleriaren parte-hartzea erraztu, indartu eta bideratzen, zaildu eta isilarazten baizik.

Makina bat adibide jar litezke goian salatutakoa berresteko. Gutxi batzuk baino ez ditugu arinki aipatuko, esanguratsuenak agian ez, baina gaurkotasun handikoak direnak:

1. Nafarroa Garaian, Urbasa-Andiako parke naturalean gertatua hagitz adierazgarria da. 2001eko lehen hiru hilabeteetan, 35 kilometrotan barna, 1.700 zulo egin eta 3.500 kg dinamita inguru leherrarazi zituzten, lur barruan petroliorik edo gasik ote zegoen ziurtatzeko. Okerrena da Nafarroa Garaiko Gobernuaren baimenarekin egin zirela leherketok, nahiz eta 25.000 hektareako parke natural hori legeak babestua den eta lege horrek espreski debekatzen dituen dinamitaren erabilera, merkantzia kutsagarri eta arriskutsuen garraioa eta meatzeen ustiaketa industrialak, besteak beste.

2. Nafarroa Garaiko Bardeetako auziak ere eman du zeresanik. Bere 40.000 hektareak parke natural gisa (1989) eta UNESCOk ematen duen biosferaren erreserba tituluaz (2001) izendatuta daude. Eremu hagitz lehorra izanik ere, nekazaritza eta abeltzaintza estentsiborako oparo erabiltzen dituzte, baita ehizarako, eguzki- eta haize-energia sortzeko eta turismorako ere. Halaber, eta gune babestua den aldetik kontraesana badirudi ere (kasu bakarra munduan), bere baitan 2.200 hektareako tiro-eremu militarra dago, 1951z geroztik egon ere. Eta 2001eko ekainean bertako agintariek, biztanle gehienen iritziaren aurka, Espainiako Defentsa Ministerioarekin ituna sinatu zuten 2008 arte tiro-poligonoak berean iraun dezan, urtean 600 milioiren truke. Hitzak sobera daude. Auzi honetan, arrazoi ekologistak ez ezik, arrazoi antimilitaristak eta politikoak ere bat datoz Bardeetako eremuaren defentsan, tiro-eremuaren aurka.

3. Gaurko egunean, ibilgailuak dira kutsadura-iturri nagusia Euskal Herrian; eta ez soilik zaratari dagokionez, kutsadura atmosferikoaren erantzule gorena ere trafikoa baita, industriaren gainetik (industriaren krisia, batetik, eta enpresei ezarritako ingurumen-legedia, bestetik, dira trafikoa fenomeno kutsatzaile nagusia bihurtu dutenak, ibilgailuen kopuru eta erabileraren hazkuntza izugarriarekin batera). Hala ere, ezer gutxi egiten da trafikoaren gehiegikeriak leuntzeko, *"autorik gabeko eguna"* eta tankera horretako ekimen sinbolikoekin nahikoa delakoan.

4. Nekazaritza biologikoa ere maiz izan dugu hizpide egunotan. Horren funtsa elikagai osasungarrien ekoizpenean, lurraren emankortasuna mantentzean, uraren kalitatea ez hondatzean, bioaniztasunaren babesean eta energia-kontsumoaren murrizketan dago. Aipatzekoa da nekazaritza biologikoak nabarmen egin duela gora azken urteotan Euskal Herrian. Zenbait datu adierazgarri aipatzearren, esan dezagun Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan, 2000-2001 artean, urtebetean soilik, %30 igo direla nekazaritza-mota honetarako erabiltzen diren lursailen hedadura eta ekoizleen kopurua. Gaur egun, EAEn 92 ekoizlek dihardute zeregin honetan, orotara 517 hektareako lursailak jorratuz. Nafarroa Garaian 530 dira ekoizleak eta lursailak, guztira, 11.591 hektareakoak. Ipar Euskal Herrian ere jarduera honi ekin dioten laborariek gorakada handia izan dute: 1993an bizpahiru besterik ez ziren eta, gaur egun, 30etik gora dira. Gorakada erraldoi horren atzean, jakina, ekoizpen transgenikoek, behi eroen krisialdiak eta antzekoek kontsumitzaileengan ernarazi duten egonezina dago; eta begi-bistakoa da produktu biologikoen merkatuak gero eta kontsumitzaile gehiago erakartzen dituela, elikagaien kalitaterako eta osasunerako eskaintzen dituen bermeak direla eta. Kalitatearen eta osasun-bermearen aldeko apustua ezinbestekoa du Euskal Herriko lehen sektoreak, merkatu globalizatuaren garaian biziki zaila baitu prezioetan eta ekoizpen-kopuruetan ustiategi handiekin lehian jardutea.

Nolanahi ere, produktu biologikoen merkatua oso txikia da oraindik, besteak beste kalitateak eta berme ekologikoak kostu bat dakartelako; kostu hori prezioan islatzen da: diruari hertsiki so eginda, ekoizpen biologiko horiek besteak baino garestiagoak izan ohi dira. Eta hori horrela izanik, prest ote gaude kontsumitzaileok prezio gehigarri hori ordaintzeko? Oro har, gehiago zaintzen dugu poltsikoa geure osasuna eta, noski, ingurumenaren osasuna baino.

5. Energiaren auzia ere aipagarria da oso. Indarrean ditugun energiaren produkzio- eta kontsumo-ereduek *"zenbat eta gehiago, hobeto"* delako leloa hartzen dute giltzarri, produkzio eta kontsumo gorakorrak ongizate eta bizi-kalitate hazkorrarekin parekatuz eta bestelako ezein aldagai kontuan hartu gabe (kilowattik eraginkorrena aurrezten dena, hots, kontsumitzen ez dena dela ahaztuz). Euskal Herrian hiru lurralde bereizi dira administrazioaren ikuspuntutik, eta hirurek energia-politika ezberdina dute. Ipar Euskal Herriak ez du kasik berezko energia-ekoizpenik, Akitaniako energia nuklearraren hornikuntzaren menpe dago eta. Bestalde, Nafarroa Garaia eta batik bat EAE, energiaren merkatuaren liberalizazioa indarrean delarik, proiektu erraldoietan murgildu dira, independentzia energetikoa lortze aldera, ustez bederen. Gainera, teorian behintzat, energia-iturri berriztagarriak lehenetsi badituzte ere (Nafarroa Garaia eredugarri da nazioartean, energia elektriko osoaren %40 iturri eolikotik lortzen du eta), bestelako egitasmoak burutzeko asmoa ere agertu dute, sos publikoak bertako zein atzerriko enpresatzarren interesekin elkartuz (independentzia energetikoa xede zuten egitasmoak bertan behera zapuztuz eta gainprodukzioari ekinez). Horren guztiaren adierazgarri dira, adibidez, Nafarroa Garaian eta bereziki Bizkaian bideratu nahi dituzten zazpi proiektu termo-elektrikoak, gas naturalaren ildotik (bi Kastejonen, beste bi Zierbenan eta bana Abanton, Santurtzin eta Zornotzan). Horrela, bada, azpiegitura handiei eta negozio azkarrei lehentasuna eman zaie, produkzio/kontsumo arrazionalaren eta ingurumenaren zainketaren kaltetan.

6. Bilbo inguruko udaletxeek hala eskatuta, Eusko Jaurlaritzak Zonalde Kutsatuaren Aldarrikapena (1977) kentzeko eskatu berri dio gobernu zentralari, Bilbo aldera ekartzeko asmoz egindako hainbat proiektu energetiko kutsakor (Petronor, Zabalgarbiren errauskailua, aireportuaren hedakuntza, superportuko bi proiektu energetikoak…) Europako Batasunaren murriztapenik gabe ezarri ahal izateko. Negozioa, beti negozio.

Testuinguru horretan, zein izan da mugimendu ekologistaren jokamoldea Euskal Herrian? Mugimendu ekologistak ibilbide gorabeheratsua izan du eta talde eta erakunde ekologista anitz sortu dira: gutxi batzuek Euskal Herri osoan dihardute (Eguzki, Eki, Ekologistak Martxan, Lurra kolektiboa; CADE Ipar Euskal Herrian) eta gehien-gehienak arazo jakin bati jarkitzeko eratutako taldeak dira, tokian

tokiko afera ekologista konkretuetan murgilduz ("*think globally, act locally*" lemaren haritik). Agian ezagunenak aipatzearren: Euskal Kostalde Ez-nuklearraren aldeko Batzordea eta Zentral Nuklearren aurkako Komiteak (Lemoizko zentral nuklearraren aurka), Leitzarango autobidearen arazoaren inguruan sortutako Lurraldea taldea, eta Itoitzeko aferaren magaletik erne diren Solidarioak eta Koordinakundea.

Euskal Herrian azken bi hamarkadetan egin diren protestaldi ekologista indartsuenak Lemoizko zentral nuklearraren aurkakoa, Leitzarango Autobidearena eta Itoitzekoa izan dira, ezbairik gabe. 1987-1998 urteen artean, Nafarroan gauzatu dira mobilizazio gehien (329 ekintza), gero Bizkaia dator (282) eta ondoren Gipuzkoa (195), Araba (56) eta Ipar Euskal Herria (30). Kasurik gehienetan, azpiegiturak eta obra publikoak izan dira euskal ekologisten protestaldien muin. Argi denez, beraz, enpresak baino gehiago, administrazioa izan dute etsai, eta kultura desarrollista salaketen jo-puntu.

Formari dagokionez, manifestazioak izan dira nagusi, baina bestelako ekintza deigarri salatzaileak ere ez dira falta izan: ildo horretan ahaztezinak dira Itoitzeko solidarioen ekimenak. Nolabaiteko bortizkeria eta sabotajeak ere erabili izan dira: bereziki aipagarriak dira, besteak beste, Lemoizko eta Leitzarango aferak eta, azken urteotan, Itoitzeko auzia (urtegiaren eraikuntza-lanetako kableak moztea, urez gainezkatzeko asmotan diren basoetako zuhaitzetan iltzeak eta beira-puskak sartzea…).

Euskal ekologismoaren aparteko bereizgarri gisa, bere kutsu abertzalea azpimarra genezake (*garapen jasangarri komunitarioa* edo *etnoekologismoa* deritzona). Gizartearen sentimendu nazional eta abertzaleak isla nabarmena du lurraren defentsan, hots, "gure" giza komunitate eta lurralde "natural" eta "txiki"aren defentsan. Horren guztiaren adierazle dira aspaldiko Lemoiz eta Leitzarango kasuak, nahiz gaur egungo Itoitz eta Abiadura Handiko Trenaren auziak.

Laburtzeko, hortaz, aipagarria da Euskal Herriko mugimendu ekologistak munduko gizateriaren etorkizuna baino gehiago, tokian tokiko arazo zehatzak hartu dituela nagusiki aintzat, kultura antidesarrollistak bultzatuta eta, neurri handi batean, pentsamolde eta jokamolde abertzaleak gidatuta. Gainera, oraintsu arte behinik behin, ez du apenas izan administrazioarekin harreman aberasgarririk, batez ere administrazioak berak elkarrizketa eta eztabaida publikorako tarte handirik eskaini ez duelako.

4.1.4. Azken hausnarketak

Gaiaren aurkezpenean aurreratu dugunez, agintarien eta, oro har, gizartearen ingurumenarekiko begirunea, itxuraz eta teorian behinik behin, punta-puntakoa da, gaur egun, Euskal Herrian.

Euskal Herrian bakarrik ez; ingurumenarekiko jarrera hori guztiz orokortua da mundu zabalean, bereziki ekonomikoki aurreratuak diren herrialdeetan. Izan ere, hizkera mikroekonomikoa erabiliz, ingurumena "ondasun normala" dela esan ohi da, hots, errenta-maila handitu ahala, gizabanakook ingurumenari ematen diogun balorazioa ere handiagoa izaten dela; horrexegatik, herrialde aberatsenetan, hamarkadaz hamarkada errenta-maila orokorra goraka joan den heinean, ingurumenarekiko sentikortasuna eta begirunea hazi egin dira halaber. Hori dela eta, ingurumenaren zainketari buruzko politika eta neurriak landuagoak eta zorrotzagoak dira, oro har, herrialde aberatsetan. Erran nahi baita, hazkunde ekonomikoak sarritan ingurumenari kalteak eragiten dizkion arren, berau errespetuz tratatzeko sentikortasun soziala ere areagotzen duela, eta gainera sortutako kalteei aurre egiteko teknologia eta finantza-baliabideak ahalbidetzen dituela.

Esandako hori ukaezina da. Baina gaiaren hasieran adierazitakoa ere halaxe da: ingurumenarekiko begirune punta-puntako hori, praktikan, oso kamutsa da. Zergatik ordea?

Arazoaren gakoetako bat honako hau da: ingurumena zaintzeko abiarazten diren politikak eta neurriek dakartzaten onurak, oro har, ikustezinak eta ukiezinak izaten dira (eta, ondorioz, dirutan zenbatzen oso zailak); gainera, epe luzean baino ez dira gertatzen (gozatzen), eta pertsona askori eragiten diete (biztanleriari bere osotasunean, baina baita etorkizuneko belaunaldiei ere); aitzitik, politika eta neurri horien kostua monetarioa izan ohi da, dirutan ordaindu beharrekoa, alegia; gainera, epe laburrean —momentuan bertan— pairatzen da kostu hori eta, gutxi izanik ere, botere ekonomiko handia duten zenbait agenteri eragiten die (enpresei eta kasuan kasuko sektoreetako ekoizleei, hain zuzen ere).

Horrekin guztiarekin hurrengoa baino ez da esan nahi: alegia, ingurumen--politikaren ondorioak oso nabarmenak eta kostu handikoak direla "kaltetuentzako" eta, bestalde, arras ikusgaitzak eta zenbatesten zailak direla "onuradunentzako".

Azken buruan, ekonomia/ingurumena bikotearen harreman gatazkatsuan, bien artean bat lehenetsi behar denean, ekonomiari ematen zaio nagusitasuna eta ingurumenari morrontza. Hori horrela da. Diskurtso ekologista aski gizarteratua da; praktika ekologista, ordea, ez.

4.2. LURRALDEAREN ANTOLAKETA

Hasieran aipatu bezala, ingurumenak ez ezik lurraldearen antolaketak ere gizartearen kezka eta interesa erakarri ditu azken urteotan. Hainbat urte luzez hirigintzarekin nahastu bada ere (areago, hirigintzaren menpeko gisa hartua izan den arren), gaur egun estatus eta praktika propio eta nabarmenez hornituta dakusagu lurraldearen antolaketa. Hala ere, kontzeptu aski korapilatsua izaten jarraitzen du.

Adierarik zabalenean, lurraldearen antolaketa honela defini dezakegu: zenbait lehentasun eta irizpideren arabera, herrialde bati dagokion lurraldeari erabilpen zehatz batzuk ezartzea, hainbat helburu jakin lortzekotan. Nolabait, espazioaren plangintza fisikoa dela esan liteke, betiere helburu batzuk erdietsi nahian egina.

Historiari erreparatuz gero, biziki zaila da lurraldearen antolaketaren sorrerari data zehatz bat ipintzea. Hala ere, aurreko definizioari so eginda, oro har, lurraldearen antolaketa giza zibilizazioa bera bezain zaharra dela esan genezake, gizakiak bere ingurunean modu antolatu batean eragiteko gai izan den uneaz geroztik hala egin izan duelako, egin ere. Esandako hori bereziki begi-bistakoa da hirigintzaren kasuan, gizakiak bere bizilekua aukeratu eta moldatzerakoan sekula ez baitu arbitrarioki jokatu izan, hots, betidanik bilatu eta egokitu izan baititu gune eta egitura jakin batzuk, dela babesa eta segurtasuna bermatzeko, dela komunikazioa eta garraioa errazteko, edo direnak direlako irizpideengatik.

Historian barna zibilizazioa nagusiki hirietan kokatu eta garatu izan denez gero, ez da harritzekoa hirigintzak ibilbide luze eta oparoa egina izatea lurraldearen antolaketaren aldean. Izan ere, oraintsu arte hirigintzak bere magalean gordeta izan du lurraldearen antolaketa. Ordea, XIX. mendeko bigarren erdiaz geroztik, eta bereziki XX. mendean, lurraldearen antolaketak, hirigintzaren altzoa utzita, izate propioa hartu zuen; kontuan izan garai hartan Industria-iraultzaren hainbat ondorio latz nabarmentzen hasi zirela, giza jarduerek lurraldean eragindako kalte anitz bistaratuz, besteak beste hiri batzuen gehiegizko hazkundea edota zaharkitze eta porrota, landa-eremuetako gabeziak, hirien eta landa-eremuen arteko desorekak, garraio-arazoak, kutsadura... Horrek guztiak gailurra jo zuen XX. mendeko 60-70eko hamarkadetan, II. Mundu-Gerraz gerora, 25 urtez edo, nazioartean gertatutako hazkunde ekonomiko izugarriaren ostean. Aurreko atalean aztertu dugunez, aipaturiko hazkundeak kalte itzelak sorrarazi zizkien lurraldeari berari oro har, zein ingurumenari zehazki; honela, eta orduz geroztik, kontzientzia ekologistarekin batera, lurraldea modu orekatuan eta bere osotasunean (hirigintza hutsaz haraindi) ordenatuko lukeen plangintza baten premia gero eta nabariago sumatzen hasi ziren bai gizartea eta bai agintari politikoak.

Horrela, bada, lurraldearen antolaketak hirigintzaren esparrua gainditu du, azken hau bere baitan hartuz (udalen eremuaz harago, eskualde edota herrialdearen plangintza espazial orokorraz ere arduratuta) eta agenda politikoetan tarte handi baten jabe eginez.

Lurraldearen Antolaketaren Europako Gutunak (1983) dioenez, lurraldearen antolaketa gizartearen politika ekonomiko, sozial, kultural eta ekologikoen adierazpen espaziala da. Diziplina zientifikoa da, baina baita teknika administratiboa eta politikoa ere, jakina. Ikuspegi global, sistemiko eta diziplinartekoa du, eta bere helburu nagusiak eskualdeen garapen orekatua lortzea, bizi-kalitatea hobetzea, baliabide naturalen kudeaketa arrazionala egitea eta ingurumena zaintzea dira.

Ezaugarri horiek dituelarik, argi dago, batetik, lurraldearen antolaketaren zereginetara diziplina asko biltzen direla (besteak beste, ekonomia, soziologia, ekologia, zuzenbidea...) eta, bestetik, bere izaera politikoa dela medio, lurralde--erakunde ezberdinek (bakoitzak bere eskuduntza propioak dituelarik) nahiz herritar xumeok, noski, parte hartzen dugula bertan. Ondorioz, diziplinen arteko batasuna lortzeko eta maila ezberdineko erakundeen eta, oro har, gizartearen interesak uztartzeko, lurraldearen antolaketak nahitaezkoa du izaera demokratiko, global eta funtzionala izatea.

Horrek guztiak konplexu bezain aberats, zail bezain garrantzizko bihurtzen du lurraldearen antolaketa. Konplexutasun eta zailtasun horiek, gainera, arras areagotzen dira Euskal Herriaren kasuan, jakina denez, Euskal Herriko herrialdeek ez baitute denak batera biltzen dituen agintaritza subirano komunik. Hori horrela izanda, ezinezkoa da Euskal Herrian lurraldearen antolaketa global eta sistemiko bat burutzea. Are gehiago, Euskal Herriari dagokionez, lurraldearen antolaketa aztertzea bera ere zeharo zaila da. Horrexegatik, morrontza-egoera horren lekuko salati gisa, ondorengo puntuetan Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa Garaia eta Ipar Euskal Herria, hurrenez hurren, bereizita izango ditugu aztergai. Bukatzeko, azken puntuan, lurraldearen antolaketan Euskal Herriko herrialdeek elkarrekin izan duten lankidetza aztertuko dugu gain-gainetik.

4.2.1. Lurraldearen antolaketa Euskal Autonomia Erkidegoan

1978ko Espainiako Konstituzioaren arabera, autonomia-erkidegoek beren gain har ditzakete lurraldearen antolaketari, hirigintzari eta etxebizitzari dagozkien eskuduntzak. Horrez gain, estatuari soil-soilik dagozkion eskuduntzen artean ez du lurraldearen antolaketari buruzkoa aipatzen. Hortaz, 1979ko Autonomia Estatutuko 10.31. artikulua dela bide, Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE) eskuduntza esklusiboa du lurraldearen eta itsasertzen antolaketari, hirigintzari eta etxebizitzari buruzko gaietan.

EAEari dagokion eskuduntza esklusibo horrek, ordea, hainbat morrontza eta mugapen ditu, estatu espainolak EAEko lurraldearen itxuran eta moldaketan nabarmen eragin baitezake, besteak beste bere zenbait eskuduntza sektorialen bidez, hala nola, interes orokorra duten herri-lanen bidez; esaterako, errepideak (A-8 eta A-68 autopistak kasu), portuak (Bilbokoa eta Pasaiakoa, adibidez), trenbideak, kostaldea, mendiak, energia-auziak, defentsa-kontuak, etab. Lurraldearen antolaketaren alorrean EAEk duen askatasuna ez da, beraz, inolaz ere erabatekoa.

Edonola dela ere, gaur egun EAEk badauka, eduki, lurraldearen antolaketa arautzen duen lege-marko propiorik, EAEko Lurraldearen Antolaketari buruzko 4/1990 Legeak ezarria. Lege horren aurretik, irizpide bateraturik gabeko ekimen sektorialak eta hirigintza-ereduen aniztasuna izan dira nagusi EAEko lurraldearen moldaketan. 1990eko legeak anabasa hori argitzea du xede, lurraldeari eragiten dioten ekimen ezberdin guztiak koherentziaz uztartuz. Horrela, EAEko lurraldea-

ren antolaketa gidatzen duten lerro nagusiak finkatu ditu, ordura arte EAEn industriak bizi izandako hazkunde bortitzak eta geroko krisiak eragindako kalteak (hirietan, ingurumenean, bizi-kalitatean...) leuntzeko asmoz, baita lurraldearen antolaketaren alorrean eskuduntzak argiro banatzeko eta koordinatzeko ere (Eusko Jaurlaritzaren, herrialde historiko bakoitzeko Foru Aldundien eta udalerrien artean). Halatan, 1990eko legeak bi helburu-multzo zehaztu ditu: a) batetik, epe luzekoak, hots, eskualdeen garapen sozioekonomiko orekatua eta bizi-kalitatearen hobekuntza lortzea, biztanleen arteko ezberdintasunak ezabatuz; b) bestetik, epe laburreko helburuak, hau da, lurzoru-mota ezberdinak izendatu eta bakoitzerako erabilpen jakin batzuk proposatzea, premiazko azpiegiturak zehaztea, baliabide naturalak era arduratsuan kudeatzea eta ingurumena babestea.

Horretarako, hiru tresna sortu ditu hierarkia-eran ordenatuta: Lurraldearen Antolaketarako Artezpideak (LAA), Lurraldearen Antolaketarako Zatiko Planak (LAZP) eta Lurraldearen Antolaketarako Arloko Planak (LAAP). Azter ditzagun banan-banan.

A) Lurraldearen Antolaketarako Artezpideak (LAA)

Lurraldearen Antolaketarako Artezpideak maila gorenekoak dira goian aipatutako hiru tresnetan, beraiek eratzen eta arautzen baitute EAE osoan lurraldearen antolaketarako gainerako tresnek errespetatu behar duten erreferentziazko marko orokorra; hirigintza-plan oro eta erakunde publikoek (erkidegoak, probintziek nahiz udalek) egiten dituzten lurralde-ekimen guztiak ere beren menpean daude. Urteetako lanaren ondoren, 1997an LAAen behin betiko onespena egin zen, dekretu bidez. LAAen funtzio behinenak honako hauek dira:

– Agente publiko zein pribatu ezberdinen jarduera ekonomiko eta sozial guztiak lurraldean erraz eta egokiro koka daitezen, irizpide eta arauak modu global eta bateratuan ematea.

– EAEn diharduten erakunde publiko ezberdinen politika sektorialak (hirigintza barne) gauzatzeko, lurraldearen antolaketa eta erabilpenak zehaztea.

– Estatuarekin edota beste autonomia-erkidego batzuekin elkarlanean egin beharreko lurralde-ekimenak aurreikustea, horretarako beharrezko gerta litezkeen lankidetza-hitzarmenen oinarriak finkatuz.

Labur-labur, LAAek ezartzen dituzten hiru gako edo giltzarri nagusiak aipatuko ditugu jarraian.

Hasteko, EAEn hirien eta landa-eremuen sistema hierarkizatu bat ezartzen dute, berrikuntza ekonomiko, sozial eta kulturalak modu orekatuan erakarri eta barreiatzeko. Sistema horren tontorrean hiru euskal hiriburuak kokatzen dituzte (Gasteiz, Donostia eta Bilbo) eta EAEko lurraldea 15 eskualde edo eremu funtzio-

naletan banatzen dute, bakoitzak bere eskualde-burua(k) d(it)uela. EAEko lurralde osoa eskualdetan banatzearekin lurraldearen maila ertaina indartzea bilatzen da, hots, erkidegoaren eta udalen barrutien arteko erdibideko lurralde-eremuak gorpuztea, EAE osorako plangintzen eta udal bakoitzaren hirigintza-planen arteko zubi modura edo. Eskualdeka egituratze horren azken xedea eskualde bakoitza, bere kabuz, funtzionalki eta endogenoki ahalik eta buruaskiena edo autonomoena izatea da; horrez gain, eskualde ororen arteko harreman funtzional orekatua bideratzea ere badute xedetzat LAAek. Eskualde bakoitzeko lurralde-eredua zehazki mamitzeaz Lurraldearen Antolaketarako Zatiko Planak (LAZP) arduratzen dira, eskualde bakoitzeko bana, eta horiek hurrengo puntuan landuko ditugu.

LAAen beste giltzarri bat, bigarrena, komunikabideei eta garraiobideei dagokiena da. Hain zuzen, EAEko lurralde osoan komunikazioa eta garraioa errazteko sistema hierarkizatu bat zehazten dute, aniztasun handikoa eta elkarri lotua. Jakina, EAEren baitako harremanak ez ezik, EAE eta atzerriaren arteko komunikazio- eta garraio-fluxuak bideratzea ere bilatzen dute, LAAen helburu gorenetakoa horixe berori da eta: EAE Europan kokatzea, Arku Atlantikoaren eta Ebroko Ardatzaren belaun gisara. Horretarako lau ekinbide nagusi nabarmentzen dira:

a. EAEk Iberiar Penintsulako gainerako lurraldeekin eta Europarekin dituen loturak sendotzea, gaitasun handiko azpiegituren bitartez eta garraio-modu ezberdinak bultzatuz: ildo horretan kokatzen ditugu Madril-Irun ardatza, Kantauriar Itsasertzekoa, Ebroko Haranekoa eta Donostia-Baiona-Bordelekoa, baita Abiadura Handiko Trenaren egitasmoa ere.

b. EAEko hiru hiriburuak lotzea, eta bai Iruñearekiko loturak indartzea ere.

c. Eskualde edo eremu funtzionalen arteko harremanak eta loturak hobetzea eta, halaber, eskualde bakoitzaren barruko loturak sendotzea.

d. Bilboko portua eta aireportua handitzea.

e. Gasteizko eta Donostiako aireportuak errotzea, bataren zein bestearen espezializazioa eta osagarritasuna areagotuz.

Azkenik, LAAen hirugarren giltzarriak ingurumenean pausatzen du arreta. LAAek garapen ekonomikoaren eta ingurumenarekiko errespetuaren arteko oreka dute helburu (garapen jasangarriaren haritik), lurraldeko gune guztietan bertako balio ekologiko, produktibo eta zientifiko-kulturalen zainketa bermatuz. Hori lortzeko, gune natural babestuen sare bat zehazten dute lurraldearen luze-zabalean, harrobien ustiaketa itsua mugatzen dute, urbaniza ezin litezkeen lurzoruak sailkatu eta bertako balizko erabilpenak arautzen dituzte, etab. Gainera, auzi ekologikoa ez dakusate aparteko prozesu paralelo eta sektorial bat balitz bezala; ingurumena eta auzi ekologikoa lurraldearen antolaketaren baitan txertatzen dituzte, sinbiosi estuan. Lurraldearen antolaketaren izaera integratzaile horrek (ingurumenaren

aldagaia bere barruan sustraituta duelarik) hainbat ekimenen ondorio latzak aurreikustea ahalbidetzen du, eta kalte larriak aldez aurretik saihesteko aukera ematen du. Ildo hori sakonago jorratzen du 1998ko Ingurumenari buruzko legeak: horrela, besteak beste, lurraldean eragina izan dezaketen plan eta proiektu guztiek (LAA, LAZP, LAAP, hirigintza-planak...) Ingurumen-Eraginari buruzko Deklarazio bat gainditu behar dutela ezartzen da, plangintzaren aurreneko urratsetan ingurumenaren aldagaia eta sor litezkeen alternatibak aintzat hartuak izan daitezen.

B) Lurraldearen Antolaketarako Zatiko Planak (LAZP)

Lurraldearen Antolaketarako Zatiko Planek aurrez LAAek zehaztutako 15 eskualde edo eremu funtzionaletako lurralde-eredua konkretuago lantzen eta garatzen dute. Berez ez dute izaera independenterik, LAAen menpekoak baitira, baina era berean LAAP eta hirigintza-planak beren menpean hartzen dituzte. Eskualde bakoitzari LAZP bat dagokio; hala ere, oraindik ez da bat bera ere behin betiko onartu, eta gehienak idazketa-fasean daude.

LAAek argiro ohartarazten dute udaletako eta erkidegoko plangintzak ez direla nahiko lurraldearen erdibideko mailak (eskualdeak) arautu eta egituratzeko. Horrexegatik, eskualde jakin batzuk finkatzen dituzte, tamainaz eta funtzioz egokiak diruditenak (probintzien arteko mugak gainditu, sarri askotan) lurralde--ekimen zehatz eta integralak abian jartzeko. Egituratze horren bidez lurraldearen garapen orekatua eta elkartasunezkoa erdietsi nahi dute.

Orotara 15 dira EAE osatzen duten eskualdeak (eranskinean eskualde bakoitza Euskal Herriko mapa batean irudikatu eta zenbait datu espazial, demografiko eta ekonomiko azaldu ditugu):

1. Bilbo metropolitarra, bertako hiriburua Bilbo izanik.
2. Enkartazioak, eskualde-burutzat Balmaseda eta Zalla izendatuz.
3. Aiarako eskualdea, hiri nagusi Laudio izanik eta, maila baxuagoan, Amurrio.
4. Arratia, non Igorre den eskualde-buru.
5. Durangaldea, eta hiri nagusia Durango.
6. Mungiako eskualdea, Mungia bera izanik hiriburu.
7. Busturialdea-Artibai, non Gernika den nagusi eta, bigarren mailan, Bermeo eta Markina.
8. Deba Beherea, Eibar buru dela.
9. Deba Garaia, Arrasate nagusi eta Bergara bigarren mailan dituela.
10. Goierri, eskualde-buruak Beasain-Ordizia-Lazkao izanik, eta, gero, Zumarraga-Urretxu.

11. Urola Kostaldea, Zarautz eta Azpeitia-Azkoitia buruan direla.

12. Tolosaldea, Tolosaren nagusitasunaren pean.

13. Donostia-Beterri, buruan Donostia eta jarraian Irun-Hondarribia.

14. Araba Erdialdea, Gasteiz hiriburu.

15. Arabar Errioxa, non Biasterik duen eskualde-buru izaera.

LAZP bakoitzak berari dagokion eskualdean zehaztasunez finkatu beharko ditu LAAen marko orokorrean aipatzen diren jarraibideak, honako hauek besteak beste: a) azpiegitura handien kokapen espazial konkretua; b) ekipamendu garrantzitsuenen kokapena; d) hirigintza-planek bete beharko duten markoaren ezarpena; e) birmoldatu, birregokitu edo eraberritu beharreko guneen zehaztapena; f) babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko lurzoruaren izendapena eta zenbaketa; eta g) sustapen publikoko lurzoru industrialen neurketa.

Nabari-nabaria denez, eskualde bakoitzaren ezaugarriak aztertzeak luzeegi joko liguke, lan honen xede apalak erabat gainditutz. Hori dela eta, EAE hiru hiriburu nagusirekin eta eskualdeka egituratuz lortzeko asmotan diren zenbait helburu baino ez ditugu aipatuko.

Helburu horien artean nabarmenena Bilbori ematen zaion bultzada da, Kantauriar Itsasertz osoko hiriburua izan dadin; horretarako, eta bertan hain indartsua izan den ohiko industria-moldearen krisiaren ondotik, Bilbok zerbitzu--sektoreranzko jauzi kualitatibo itzela egin du, bere egitura produktiboaz gain bere itxura fisikoa ere errotik eraldatuz (horren guztiaren lekuko dira azken urteotako hamaika ekimen: metroa, Guggenheim Museoa, Euskalduna Jauregia, Abandoibarrako egitasmoa...). Donostiak eta Gasteizek, orobat, beren hiriburu izaera egituratzailea sendotu dute dagokien herrialde historikoaren baitan: Donostiari gagozkiola, jarduera tertziarioak (batik bat turistikoak) sustatzea eta inguruko herriekin (Errenteria, Pasaia, Lezo) morfologikoki zein funtzionalki integratzea da xedeetarik behinena; Gasteizen kasuan, industriaren sustapenak eta produkzioaren espezializazioak berebiziko garrantzia hartzen dute, batez ere Gasteizek inguruan duen lursail zabal aproposa kontuan izanda.

Hiriburuez aparte, ordea, eskualde edo eremu funtzionalak dira EAEko lurraldea egituratzen duten gakoak. Zentzu horretan, Gipuzkoari lurralde-oreka eredugarria antzematen zaio, berez-berezkoa duena, tamaina ertaineko hiri ugari eta elkarrekin ondo lotuak baititu. Araban eta Bizkaian, aldiz, egitura txit desorekatua nabari da, Gasteizen eta Bilbon kontzentratuta baitaude biztanleria, jarduera ekonomikoak, ekipamendu nagusiak, etab. Gainera, LAAek eta dagozkien LAZPek egitura desorekatu hori indartu dutela eta aurrerantzean ere indartuko dutela dirudi.

Azken puntu esanguratsu bat landa-eremuei dagokiena da. EAEko lurraldearen antolaketan aparteko garrantzia dute landa-eremuek eta, bereziki, baserriek. EAE txikia da hedaduraz, eta demografia-dentsitate altua du; gainera, industria- eta urbanizazio-maila handikoa da. Horrek guztiak are beharrezkoagoak, guztiz estrategikoak, bihurtzen ditu landa-eremuak, eta ez soilik Barne-Produktu Gordinari egiten dioten ekarpenari esker, baizik eta, batez ere, hiriekiko oreka lortzeko eta ingurumena zaintzeko orduan duten zeregin ezinbestekoa dela medio. Landa-eremuen eta baserrien biziraupena, beraz, funtsezko giltzarria da; zoritxarrez, baina, nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerak gainbehera datoz urterik urte, eta ildo horretan, eredu produktibista albo batera lagata, kalitatezko elikagaien ekoizpenaren alde eta bestelako jarduera alternatiboen (baserri-turismoa, kasu) alde egindako ekimenak guztiz adierazgarriak eta garrantzitsuak dira (nolanahi ere, aurrerantzean bultzatu eta hobetu beharrekoak). Horri guztiari beste aldagai bat gehitu behar zaio: hiritik ihesi, arnasa bila, burutzen ari den desurbanizazio-prozesu hazkorra, dagoeneko ondorio gaizto batzuk ekarri dituena. Hori hala izanik, landa-eremuek babesean eta bizirik iraungo badute, nahitaezkotzat jotzen da jarduera sozioekonomiko berri eta garbiak, batetik, eta desurbanizazio-prozesu arrazional eta orekatua, bestetik, uztartu eta bideratzea.

C) Lurraldearen Antolaketarako Arloko Planak (LAAP)

Lurraldearen Antolaketarako Arloko Planek osatzen dute lurraldearen antolaketaren azken katebegia. LAAen eta LAZPen menpekoak dira, baina hirigintza-planetako tresnei gaina hartzen diete. Zabal-zabal, honela defini genitzake LAAPak: Eusko Jaurlaritzako Sail ezberdinek eta lurralde historikoetako Organo Foralek egiten dituzten plan sektorialak, betiere lurraldearen egituran eragiten dutenak, noski. Erran nahi baita, erkidegoko nahiz probintzietako administrazioko sail askok, bakoitzak dagokion arlo edo sektore konkretuan jardunez (dela errepideak, trenbideak, ibaiak, energia, nekazaritza...), lurraldearen egituran eragin nabarmena izan lezaketela, eta, ondorioz, beren jardun sektorialaren plangintzan lurraldearen antolaketaren aldagaia ere kontuan hartu behar dutela (LAAen eta LAZPen ildoak errespetatuz eta betez).

Asko eta askotarikoak dira orain arte onartu diren LAAPak. Denak aztertu ezin eta, Jarduera Ekonomikoetarako Lurzoruari buruzkoa baino ez dugu aipatuko, hagitz laburki izango bada ere. Plan honen helburu nagusia jarduera ekonomiko ezberdinek (batez ere, industria-jarduerek) lurraldearen luze-zabalean duten kokapena eta elkarrekintza aztertzea, eta egokiro eta orekaz planifikatzea da, horretarako premia berezia eta lehentasuna duten hiriguneak sailkatuz, etorkizunean jarduera ekonomiko berrien kokaleku izan litezkeen guneak erreserbatuz, han-hemenka hainbat lurzoru zaharberrituz, birmoldatuz eta gune kutsatuak garbituz (Bilbo metropolitarrean eta Deba Beherean, adibidez), parke teknologikoak eta industrialdeak sustatuz, etab.

4.2.2. Lurraldearen antolaketa Nafarroa Garaian

EAE bezalaxe, Espainiako Konstituzioak hala baimenduta eta 1982tik aurrera, Nafarroa Garaia bere lurraldearen antolaketaren gaineko eskuduntza esklusiboaren jabe da. Jakina, kasu honetan ere, eskuduntza horren esklusibotasuna murriztua da, estatu espainolak bere esku baititu —hainbat sektoretan eta tresna ugariren bitartez— lurraldearen egituran eragiteko eskubidea eta gaitasuna.

Gaur egun, Nafarroako Lurraldearen Antolaketari eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Lege Forala da gai horiek arautzen dituen marko nagusia, ordura arte indarrean izandako arau eta lege solte ugariak bateratuz eta harmonizatuz. Lege Foral horrek, oso mardula izaki, hirigintzaren auzia luze eta zabal aztertu eta arautzen du; lurraldearen antolaketari, berriz, nahiko azaletik baino ez dio heltzen, plangintza fisiko hutsari soilik erreparatuz (plangintza ekonomikotik deslotuta). Horrela, lurralde-plangintzarako tresnak sortzen ditu; baina ez du besterik egiten: lurralde-politikaren kudeaketa eta kontrola ez ditu aipatzen, ezta administrazio--maila ezberdinen arteko koordinazioa eta lankidetza ere.

Esan bezala, lurraldea antolatzeko tresnak zehaztera mugatzen da, lau tresna hain zuzen ere, eta hierarkikoki ezartzen ditu. Hona hemen zein diren:

A) Lurraldearen Antolaketarako Artezpideak (LAA)

Nafarroa Garaian ere, EAEn legez, Lurraldearen Antolaketarako Artezpideak dira lurralde-tresna nagusia, gainerako tresnentzako erreferentzia; eta Nafarroa Garaiko lurralde osorako ez ezik, eskualde ezberdinetarako ere LAA bereziak egin litezkeela dio 1994ko Lege Foralak. Ordea, funtsezko tresna izanik ere, hainbat arazo eta konplexutasun medio (eta zirriborroak zirriborro), egundaino ez da LAArik onartu Nafarroa Garaian.

LAAen funtzio garrantzitsuenen artean honako hauek azpimarra ditzakegu: jarduera ekonomiko eta sozialak kokatzeko irizpideak ematea; alor edo sektore ezberdinetako planei eta hirigintza-planei arau-markoa eskaintzea; estatu espainola, bere politika sektorialen jardueran, aurreikuspenez eta irizpidez hornitzea; eta beste autonomia-erkidego batzuekin lurralde-ekimen bateratuak burutzeko bidea zehaztea.

B) Eskualdeko Hirigintza Arauak (EHA)

Arau edo plan hauek Nafarroa Garaiko lurraldea eskualdeka banatzea dute helburu, udalerrien barrutia gainditzu, eremu geografiko jakin horietan lurraldearen, biztanleriaren, jardueren, zerbitzuen eta azpiegituren artean harreman egoki bat lortzeko. Horrela, arazoen diagnostikoa egiten dute, biztanleriaren bilakaera iragartzen, industrialdeak kokatzen, babestu beharreko eremu urbanizaezinak zehazten eta zainketa berezia merezi duten eraikinak finkatzen. Ildo horretan, dagoeneko onartuak eta indarrean dira Iruñerriko eskualdeko EHAak.

C) Hiriaz haraindiko Eragina duten Plan eta Proiektu Sektorialak (HEPPS)

Plan eta proiektu hauek eremu espazial jakin batzuk ordenatzeaz arduratzen dira, ekimen industrialak, ekipamenduak, etxebizitzak edo azpiegiturak gauzatu ahal izateko, betiere ekimen horiek udalerri baten barrutia gainditzen dutenean edota Nafarroa Garaiko gobernuak aparteko garrantzia ematen dienean. Herri-lan erraldoiak izan ohi dira nagusiki, nahiz eta ekimen pribatuak ere badiren. Proiektu sektorialei dagokienez, Nafarroa Garaiko gobernuak sobera —kasik neurrigabeki— erabili izan du tresna hau, udalerrietako (eta ondorioz, hirigintza-planari dagozkion) ekimen xume asko eta asko burutzeko (museo bat edo kirol-gaien denda bat ezartzeko, adibidez).

D) Baliabide Naturalak Ordenatzeko Planak (BNOP)

Plan hauek, lurraldearen antolaketari badagozkio ere, ingurumenari buruzko legediaren menpekoak dira (zehazki, Nafarroa Garaiko Gune Naturalen 9/1996 Lege Foralaren menpekoak). Horrela, EHAen, HEPPSen eta hirigintza-planen gainetik daude hierarkian. BNOPen funtzioa beraiek zehaztutako gune jakin batzuk (beren ezaugarri natural eta ekologikoak direla eta) ordenatu eta babestea da, gune horiek sustatuz eta erabilpenak baldintzatuz, betiere guneok babestu eta zaintze aldera. Ildo horretan, Nafarroa Garaiko gobernuak 41 gune proposatu ditu Europako Batasuna osatu nahian dabilen Gune Naturalen Sarerako (250.000 hektarea inguru, ia bere hedadura osoaren %24, tartean Bardeak, Orreaga-Irati, Bertiz, Belate, Aralar, Urbasa-Andia eta Lokiz).

Eranskineko mapan eta koadroan Nafarroa Garaia zazpi eskualde zabaletan banatuta islatu dugu. Labur-labur, eskualde bakoitzaren ezaugarri nagusiak aipatuko ditugu.

Nafarroa Garaiko lurralde-egituraren bereizgarririk nabariena Iruñerriaren nagusitasun erabatekoa da, bertan kontzentratzen baitira biztanleria (Nafarroa Garai osoko erdia inguru) zein jarduera ekonomiko indartsuenak, bereziki zerbitzuak eta industria (ibilgailuak, garraioa eta produktu metalikoak, batez ere).

Nafarroa Hezea deritzoguna ipar-mendebaldean dago, EAErekin mugan (eskualde honek elkarreragin bizia du Gipuzkoarekin, hala maila sozioekonomikoan nola kulturalean, bereziki hizkuntzari, euskarari, dagokionez). Altsasu (7.011 biztanlerekin), Bera (3.511), Leitza (3.003) eta Lesaka (2.737) dira bertako hirigune nagusiak. Gipuzkoatik barneratutako hainbat ekimenen eraginez, industriak (metalurgia eta produktu metalikoak) nahiko garrantzi handia du, baita abeltzaintzak ere (Baztan aldean nagusiki).

Pirinioei dagokien eskualdea ipar-ekialdean dago. Biztanleriaren urritze- eta zahartze-prozesu sakona jasan du. Eremua menditsua, klima aski gogorra eta komunikabideak kaskarrak izanik, apenas dagoen industriarik (kimika, egurra,

kortxoa eta altzariei lotutakoa, batik bat). Nekazaritza (zerealak), abeltzaintza (behiak eta ardiak) eta basogintza dira jarduera ekonomiko nagusiak.

Lizarraldeak Lizarra (12.607 biztanlerekin) du eskualde-buru. Aipagarria da eskualde honek ere biztanle-kopuruaren beherakada bizia izan duela XX. mende osoan barna. Jarduera ekonomikoei dagokienez, Lizarran bertan industria eta zerbitzuak gailentzen dira, inguruko herrixketan industriak eta, batez ere, nekazaritzak dutelarik garrantzirik handiena.

Nafarroa erdi-ekialdeko eskualde-buruak Tafalla (10.214 biztanle) eta Zangoza (4.634) dira. Eskualde honetan ere biztanleria gainbehera doa kopuruz. Jardueraka, industria (garraioa) eta nekazaritza dira aipagarrienak, zerbitzuen gainetik.

Erribera Garaia-Aragoan San Adrian (5.392 biztanle), Azkoien (4.694) eta Lodosa (4.589) dira hirigune garrantzitsuenak. Eskualde honetan nekazaritza, batetik, eta elikagai eta edarien industria, bestetik, dira ekonomiaren ardatz.

Amaitze aldera, aipa dezagun Erribera Beherean Tutera (27.602 biztanle) dugula eskualde-buru goren, bigarren mailan Korella (6.686) eta Zentroniko (5.589) egonik. Nekazaritza-jarduerekin batera (laborantza mediterranearra: zerealak, olibondoak, mahastiak, zainzuriak eta ureztapeneko produktuak: piperrak, tomateak, patatak...), industria da jaun eta jabe (produktu metalikoak eta makineria, oihalgintza eta, jakina, elikagai eta edariekin lotutako industria-jarduerak).

Azkenik, komunikabideei gagozkiela, Nafarroa Garaiari egitura erradiala nabari zaio, Iruñea erdigune hartuta. Bi ardatz nagusiak Altsasu-Iruñea-Tutera eta Logroño-Tutera dira (industriaren kokapena ere bi ardatz hauen inguruan gauzatzen da). Aipagarri dira, halaber, Leitzarango eta Sakanako autobideak (Iruñea Donostiarekin eta Gasteizekin lotzen dutenak), baita Belateko tunela ere (zeinak Ipar Euskal Herriarekiko loturak errazten dituen).

4.2.3. Lurraldearen antolaketa Ipar Euskal Herrian

Ipar Euskal Herriak ez du, gaurko egunean, sistema instituzional propio eta bateraturik estatu frantsesaren egitura administratiboaren baitan, non lau maila bereiz baitaitezke argiro: udalerria, departamendua, erregio edo eskualdea eta, azkenik, maila estatala. Ipar Euskal Herria osatzen duten hiru herrialdeetako (Zuberoa, Nafarroa Beherea eta Lapurdi) udalerriak, beste zenbait udalerrirekin batera, Pirinio Atlantikoak izeneko Departamenduan (hiriburua Paue izanik) barneratuta daude; era berean, Departamendu hori, beste zenbaitekin batera, Akitaniako erregio edo eskualdearen (hiriburua Bordele) zati da. Horrako hori da estatu frantseseko egitura administratiboa, eta Ipar Euskal Herriko hiru herrialdeek departamendu

propio bat osa dezaten orain arte egindako aldarrikapen guztiek agintari frantsesen ezezkoa jaso dute, behin eta berriro.

Estatu frantsesean, 1995eko Lurraldearen Antolaketa eta Garapenerako 95-115 Legea (LAGL) baino lehen, plangintza ekonomiko orokorraren barruko azpiatal malgu gisa hartzen zuten lurraldearen antolaketa; azken batean, lurraldean eragiten zuten jarduera sektorialen (garraiobideak, telekomunikazioak, hirigintza, etxebizitza...) batuketa hutsa baizik ez balitz bezala. LAGLren ondorioz, ordea, lurraldearen antolaketa urrundu egin da plangintza ekonomiko orokorraren zakutik eta modu zuzenagoan ekin dio espazioaren plangintza fisikoari. Gainera, XX. mendeko 80 eta 90eko hamarkadetan, estatuaren mailakoak izandako eskuduntza batzuk (lurraldearen antolaketari dagozkion asko barne) eskualde eta hiri-barrutien eskuetara deszentralizatu ziren, estatu frantsesak hagitz zentralista izaten segitzen badu ere.

Oro har, lurraldearen antolaketak bi ezaugarri (eta kezka-iturri) nagusi ditu estatu frantsesean: batetik, hiri handien garrantzia gero eta nabarmenagoa da, jarduera ororentzako polo erakargarri bihurtuz; bestetik, lurraldeko gune asko eta asko, garapen-ardatzetatik urrun daudenak, gero eta baztertuago daude eta biztanlez urrituagoak dira. Horregatik, gaur egungo ahalegin handienak fenomeno horiei aurre egitera bideratzen dira: garraio-sarearen bidez lurraldea bere osotasunean integratu eta egituratzeko; lurraldea eskala handiko zenbait hiriguneren bueltan antolatzeko, Parisen gehiegizko kontzentrazioa hautsiz; eta landa-eremuak egituratzeko, elkartasuna eta kontzientzia ekologista aldarrikatuz. Ezaugarri eta erronka hauek guztiak Ipar Euskal Herrian ere goitik behera hezurmamitzen dira.

LAGLk lurraldearen antolaketarako zenbait tresna definitzen eta arautzen ditu, ordura arteko egoera asko argituz:

A) Lurraldearen Antolaketa eta Garapenerako Eskema Nazionala (LAGEN)

Honek lurraldearen antolaketaren, ingurumenaren eta garapen jasangarriaren alorretan jorratu beharreko ildo nagusiak finkatzen ditu; azpiegitura eta ekipamendu handien kokapenerako irizpideak jartzea ere berari dagokio; politika sektorial askotarikoak koordinatu eta bere esanetara egokitzeaz arduratzen da; bizigune edo "*Pays*" direlakoetan eta hiri-sareetan antolatzen du lurraldea; eta administrazioen kokapena, inbertsio publikoak eta etxebizitzak gauzatzeko irizpideak ematen ditu.

"*Pays*" hitzak interes ekonomiko eta sozialen komunitate bat eman nahi du aditzera, eta batasun geografiko, kultural, ekonomiko eta sozialaren isla da. Ipar Euskal Herriko hiru herrialdeek, ikuspuntu juridiko-administratibotik, "*Pays*" bat osatu zuten 1997an. Baina horren izaera sinbolikoa da nagusiki (udalen mailaren eta departamenduaren mailaren artean kokatuta, zenbait zerbitzu publiko estatal eta lokal eskaintzeko eremu egokitzat jotzen dute).

B) Lurraldearen Antolaketa eta Garapenerako Eskualdeko Eskemak (LAGEE)

Hauek, dagokien eskualdean, ingurumenari, garapen jasangarriari, garraio--azpiegitura handiei, ekipamendu handiei eta interes berezia duten zerbitzuei buruzko jarraibide nagusiak ezartzen dituzte.

C) Lurraldearen Antolaketarako Artezpideak (LAA)

LAAek aurreko bi tresnek esandakoa zehazten dute lurralde ezberdinen baitan, denen artean garapen, oreka eta antolaketa egokia lortu nahian.

1995eko LAGLren aurretik, eta ondorioz Ipar Euskal Herria "*Pays*" gisa osatu baino lehen, zenbait ekimen burutu ziren bertan egitura propio bateratu batzuk eratu nahian. Horrela, 1992an, "*Pays Basque 2010*" izeneko ikerketa prospektiboa burutu zuten, Ipar Euskal Herriaren garapenaren, gabezien eta potentzialtasunen inguruan hausnar eginez. Egitura propioen beharraz jabetuta, 1994an eta 1995ean, Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseilua eta Hautetsien Kontseilua sortu ziren, hurrenez hurren. Garapen Kontseiluaren helburua Ipar Euskal Herrian garapen global, koherente eta orekatua lortzea zen, baita lurraldearen antolaketaz eta mugaz gaineko lankidetzaz arduratzea ere. Erakunde honen gaur arteko lorpenik adierazgarriena Ipar Euskal Herriko Antolaketa eta Garapenerako Eskema egitea izan da, zeina lurraldearen egituran eragiten duten aktore guztientzako erreferentzia den, nahiz eta oinarri legalik izan ez. Eskema horrek azpiegiturak, ingurumena, ekonomia, habitata eta gisako kontuak lantzen ditu; baina lurraldearen antolaketaren alorra gainditzen duten zenbait auzitan ere badu zeresanik; esaterako, heziketan, ingurune kulturalean eta hizkuntzan.

Bestalde, Hautetsien Kontseiluak Ipar Euskal Herriko hautetsi guztiak ditu kide, eta beste instituzio batzuetan (dela Departamenduko Kontseilu Orokorra, edo Eskualdeko Kontseilua, Estatukoa nahiz Europako Batasunekoa) ere hartzen du parte, betiere Ipar Euskal Herriaren identitate komunaren eta garapen orekatuaren alde.

Eranskineko mapan eta koadroan Ipar Euskal Herria hamabost eskualde txikitan banatuta agertzen zaigu. Begiratu azkar batean ikus daiteke, maila sozioekonomikoan bederen, bi gune nagusitan bereiz litekeela Ipar Euskal Herria: bata Lapurdiko kostaldeak osatuko luke, dentsitate demografiko handiarekin eta zerbitzu-jardueren nagusitasun guztizkoarekin; bestea barnealdeari dagokio (batez ere Zuberoari), non oro har dentsitate demografikoa oso baxua den eta nekazaritza-jarduerak arras esanguratsuak (salbuespenak salbuespen). Nolanahi ere, Ipar Euskal Herriari buruzko azterketa sakona berari espreski eskainitako atalean egin dugu.

4.2.4. Euskal Herriko herrialdeen arteko lankidetza, lurraldearen antolaketari dagokionez

Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroa Garaiko eta Ipar Euskal Herriko erakunde publikoek bi arazo nagusi izaten dituzte elkarrekin harreman juridikoak

formalizatzeko orduan. Arazoetako bat bi estatuen arteko mugak dakar, hots, Hego eta Ipar Euskal Herrien arteko lankidetza-hitzarmen guztiak, estatuen arteko muga gainditzen dutenez gero, Nazioarteko Zuzenbide Publikoak arautzen ditu. Bigarren arazoa, bestalde, parte hartzen duten subjektuetan datza: Hego Euskal Herriko lurraldeen kasuan, subjektuak argi eta garbi definituta daude, lurraldea EAEko eta Nafarroa Garaiko erkidegoei eta udalerriei baitagokie; aitzitik, jakina denez, Zuberoak, Nafarroa Behereak eta Lapurdik ez dute beren lurraldea oso-osorik eta esklusiboki hartzen duen egitura politikorik.

Bi arazo horiek erro-errotik baldintzatzen dute Eukal Herriko lurraldearen antolaketa, bereizgarri izan beharko lituzkeen globaltasuna, ikuspuntu sistemikoa eta parte-hartze demokratikoa eskulotuta eta herren agertzen baitzaizkigu.

Haatik, mugaz gaindiko lankidetza-ekimenik gertatu da, gertatu, Euskal Herrian. Horietan aipagarriena Baionako Hitzarmena deritzona da, estatu espainolak eta frantsesak 1997an izenpetua. Baionako Hitzarmenaren bidez ordura arteko eta geroztikako lankidetza-itunak legeztatzen dira, hala nola: 1) Akitaniaren, EAEren eta Nafarroa Garaiaren arteko lankidetza-protokoloa; 2) Midi-Pyrinées-ko eskualdearen eta EAEren arteko lankidetza-protokoloa; 3) Baiona-Angelu-Biarritz distrituaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko mugaz gaindiko lankidetza-ituna, Baiona-Donostia Eurohiriaren eragilea; eta 4) Irun, Hondarribia eta Hendaiako udaletxeen arteko ituna, Bidasoa-Txingudi Eurodistritua sortzeko. Gaur egun, ordea, lankidetza-ekimen horietako batzuk zeharo ahulduta daude, zenbait alderdi politikoren elkar ezin ikusia dela eta.

Lankidetza-ekimen horietan entzutetsuena Baiona-Donostia Eurohiriarena da, ezbairik gabe. Bere helburua, Europako Batasunak hala sustatuta, Baionaren eta Donostiaren arteko itsasertzean mugaz gaindiko metropoli bat eraikitzea da, Arku Atlantikoaren baitan (Bordele eta Bilboren artean) maila europarra izango lukeen metropoli bat sortzea, alegia. Ekimenaren funtsa, kultura- eta gizarte-izaerako auziak bazter utzita, azpiegiturei eta garraioari lotutako jarduera logistikoen metaketan oinarritzen da. Hori dela eta, hainbat eta hainbat kritika jaso ditu desoreka sozial eta espazialak aregotuko lituzkeela uste dutenengandik.

4.2.5. Azken hausnarketak

Lurraldearen antolaketak, diziplina eta politika gaztea izaki, ibilbide laburra egin du Euskal Herrian. Hala ere, hainbat pauso egin ditu, egin, eta kezka handia dago pauso horien orain arteko norabideaz.

Behin eta berriro esana dugu aurrez ere: lurraldearen antolaketak globala, sistemikoa eta diziplinartekoa behar du izan, eta hori guztia bideratzeko ezinbestekoa du izaera demokratikoa. Tamalez, ordea, agintari politikoen esku hutsetan izan da orain artean; gizarteko hainbat erakundek eta, oro har, biztanleok ez dugu parte-hartze handirik izan, gure utzikeria eta axolagabekeria medio edo gure parte-

-hartzea oztopatua eta antzutua izan delako. Eztabaida eta hitzarmen publikoen falta larria somatzen da puntu honetan.

Horrez gain, lurraldearen antolaketak, globalizazioaren haize bortitzei eutsi ezinik antza, lehentasun osoa eman die komunikazio- eta garraio-azpiegitura erraldoi eta deigarriei (gure herrialdea Europarekin lotu nahian eta, ondorioz, batez ere hirigune handien mesederako), beste zenbait auzi bigarren mailara zokoratuz: ingurumenarena, edo landa-eremuena, edo lurraldearen egituraketa orekatuarena, kasu.

Bukatzeko, nabaria da Euskal Herriko egitura politiko zatikatu eta menperatuak eta tokian tokiko interesen aniztasunak erabat zail bilakatzen dutela ikuspuntu integratzaile batetik Euskal Herri osoko lurraldea antolatzea.

Geroak du hitza. Baina ez da ahaztu behar ezen, modu aktibo nahiz pasiboan, lurraldea egituratuz edo desegituratuz, antolatuz edo desantolatuz doala egunetik egunera.

BIBLIOGRAFIA

Ainz, M. J. (2000): "Paisaje rural, ordenación del territorio y caserío", Euskonews & Media, 85. zkia, www.euskonews.org.

Allende, J. (2000): *Medio ambiente, ordenación del territorio y sostenibilidad*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.

Allende, J. (2000): "Criterios de sostenibilidad en las actuales políticas de ordenación del territorio", Euskonews & Media, 85. zkia, www.euskonews.org.

Ansuategi, A (1995): "Bioaniztasunaren galera eta jabego-eskubideak", *Uztaro* **15**, 3-15.

Barcena, I., Ibarra, P. eta Zubiaga, M. (arg.) (2000): *Desarrollo sostenible: un concepto polémico*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.

Barcena, I. (2000): "Euskal ekologismoaren dilemak", Euskonews & Media, 83. zkia, www.euskonews.org.

Bermejo, R. (2000): "Hacia un transporte sostenible", Euskonews & Media, 83. zkia, www.euskonews.org.

Beltrán, J. L. (2000): "La ordenación del territorio en Navarra", Euskonews & Media, 85. zkia, www.euskonews.org.

Erquicia, J. M. eta Zangitu, A. (2000): *La Ordenación Territorial y la Legislación Sectorial en la CAPV: apuntes genéricos*, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea, Bilbo.

Eusko Jaurlaritza (1997): *LAA: Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak*, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.

Eusko Jaurlaritza (1994): *Plan Territorial Sectorial de Suelo para Actividades Económicas de la CAPV*, Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz.

Furió, E. (1996): *Economía, turismo y medio ambiente*, Tirant lo Blanch eta Universitat de València, Valentzia.

IHOBE (1998): *15 urte Euskal Herriko ingurugiroan 1983-1998*, IHOBE, S.A. Ingurugiro Kudeaketarako Sozietate Publikoa.

Lasagabaster I. eta Lazcano, I. (1999): *Régimen Jurídico de la Ordenación del Territorio en Euskalherria*, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundea, Oñati.

Nafarroako Gobernua (1994): "Ley Foral 10/1994, de 4 de julio, de Ordenación del territorio y Urbanismo", Colección textos Legales, 14.

Naredo, J. M. eta Valero, A. (zuz.) (1999): *Desarrollo económico y deterioro ecológico*, Fundación Argentaria, Madril.

Zaldua, I. (1998): "Ekonomia *versus* ekologia: historialaritzarentzako zenbait irakaspen", *Uztaro* **25**, 13-45.

5. Azpiegitura-sareak eta garapena

Goio Etxebarria
Helena Franco
Begoña García

Kapitulu honetan Euskal Herriko azpiegiturak ditugu aztergai. Egia esan, hori zen gure lehenengo helburua, baina lan hau egiten genuen heinean, zenbait oztopo eta muga aurkituz joan ginen. Lehenengo oztopoa lurraldetasunari dagokio; alegia, hainbat arrazoi dela medio, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa ezin izan ditugu geure lan honetan sartu. Informazio eta datu urriak izatea garrantzitsua bada ere, askoz larriagoa da eskualde horiek inolako instituzionalizazio ofizialik ez izatea. Izan ere, nabarmen-nabarmena da eskualde horien eskumenik eta ahalmenik eza azpiegiturak diseinatzeko, garatzeko eta kudeatzeko. Hori dela eta, kapitulu honetatik at geratu dira aipatutako eskualde horiek, nahiz eta garraio-azpiegituretan zenbait datu ematen saiatu garen.

Beste aldetik, azpiegituren esparrua mugatu behar izan dugu azterketa honetan. Ezaguna denez, azpiegitura terminoaren atzean mota askotako baliabide eta sareak sartzen dira; hala nola, garraiokoak, telekomunikabideen arlokoak, teknologiaren arlokoak, kulturakoak, energiaren arlokoak, hezkuntza- eta osasun-sistemakoak, eta abar. Horregatik, gure lana mugatu behar izan dugu. Agian, produkzio-arloarekin lotuagoak direnak hartu ditugu edo, hobeto esanda, arlo horretakoak izan direnak, alegia garraio- eta teknologia-azpiegiturak, kontuan izanik liburu honetan beste azpiegiturak modu batean edo bestean aipatuko direla.

5.1. GARRAIO-AZPIEGITURAK

5.1.1. Garraioko azpiegitura-sareak eta erregioaren garapen ekonomikoa

Informazioa, ondasunak eta pertsonak garraiatzen dituzten sistemak funtsezkoak dira erregio baten garapen ekonomikoa behar bezala ulertzeko. Atal honetan garraioko azpiegitura-sareaz jardungo dugu —alegia, sare fisikoak (kapital fisikoko inbertsioak termino ekonomikoetan) aztertuko ditugu—, zeintzuek, erregio jakin bati barne-kohesioa emateaz gain, beste erregio eta espazioekiko oinarrizko kanpo-loturak osatzen dituzten.

Aurreko lan batean jasotzen genuenez (Gómez, Franco eta Etxebarria, 1998: 243), kalitate ez-nahiko edo baxuko azpiegitura-sare batek erregioaren barne-garapenerako baldintza aproposak sortzea galarazten du. Erlazio zuzena dago, egon ere, hazkunde endogenoaren eta erregioa nazioarteko esparruarekin konektatzen dituzten sareen artean. Barne-garapenerako gaitasuna dagoen kasuan soilik izango da posible kanpo-azpiegiturak gehitu eta hobetzea; hain zuzen ere, barne-sare eraginkor eta dentsoak edukitzeak, kanpo-komunikazioko azpiegitura-proiektuentzako inbertsioa erakarriko duelako. Eskualde batean garapenik egon ezean, inbertsioek kokagune hobeetara joko dute.

Hala ere, azpiegiturek ez dute garapena sortzen; lagundu besterik ez dute egiten. Badira zenbait faktore, hala nola kokapena, aglomerazio-maila edota produkzio-faktoreen egitura, erregio baten garapenean eragin zuzena dutenak (Biehl, 1988: 305). Azpiegitura-sareak, berez, garapen erregionaleko oso tresna ahulak dira eta erregio baten garapenerako baldintza beharrezko baina ez-nahikotzat har daitezke.

Gaur egun arte, azpiegiturak nazio-estatuen eremura zedarritu dira Europan. Horren zergatiak honako hauek izan dira: izaera teknikoko arrazoiak eta izaera juridikoko eta estandarizazioaren inguruko arrazoiak eta merkatuak "nazio"--eremukoak izatea, hain zuzen ere, legeek eta arauek nazio-estatuko eremuan soilik balio zutelako. Dena den, erreferentziazko marko "nazional" hori aldaketa-prozesu esanguratsua jasaten ari da gaur egun, zeren Merkatu Batuaren ezarreraren eta legegintza-marko europarraren garapenaren ondorioz, sare europarren multzo bat sortu baita.

Kapitalaren internazionalizazioak sare "nazional"en kontzeptua gainditu beharra dakar: datuen transmisioa, energiaren garraioa, autobideak eta trenbide-sareak europarrak dira, eta, hortaz, beren garapena eragotz dezakeen edozein trabarik gabe egon behar dira. Garapen horrek, sektore publikoak sareen erregulazioa eta antolaketari ekitearekin abiatuko litzatekeena, erregulazioen, arau teknikoen, eta abarren homogeneizazioa eta harmonizazioa eskatzen du lehenik eta behin. Azpiegitura-sare desberdinen harmonizazioa Europako Batasunaren erronka nagusienetako bat da.

Sare transeuroparrak, espazio orekatu batean *continuum* baten gisan baino areago, nolabaiteko garrantzia duten guneen arteko konexio modura sortu eta garatzen dira. Area metropolitarrak elkarrekin lotzen dituzten sareak sustatzen dira. Modu horretan, zenbait erregio zeharkatu baino ez dituzte egiten beste erregio batzuetakoak diren zentroak konektatzen dituzten sareek.

Garraio-azpiegitura berriak erdiguneko erregioen barnean eta beren artean eraikitzen dira, garraio-eskaria bertan baita handiagoa. Horrela, ahalmena eskaria baino azkarrago gehitzen duten neurrian, sare transeuroparrek Europako erdiguneko erregioei egingo diete mesede nabarmenki.

Beste alde batetik, barne-integrazio eta kohesioaren ikuspegitik, garapen orekatuago eta homogeneoagoa ez da azpiegitura-sare handiak edukitzearen ondorioa. Herrialde batean azpiegitura-sare zabalen difusioa eta sendotzea gerta dadin, beharrezkoa da erregio barneko sareen garapena. Azpiegitura-sare handien internazionalizazioak ez du, alabaina, erregio-garapen integratuagoa bermatzen, jada posizio finkoena duten zentroak sustatzen baizik (Gomez, Franco eta Etxebarria, 1998: 245). Testuinguru horretan, sare europarren difusioaren ondorioz, erregio barneko zentroen arteko erlazioak potentziatuko direla imajinatzea zail samarra egiten zaigu, hala nola Bilbo-Gasteiz-Iruñea artekoak. Kohesio-maila handiagoa lortzeko, beharrezkoa da Euskal Herriko eremu desberdinen garapen orekatuagoa, horretarako, atzerriko zentro eta erregioekiko konexio ona ahalbidetu ez ezik, barneko harremanak eta konexioak ere maila guztietan indartuko lituzketen azpiegitura-sareak sustatuz.

5.1.2. Euskal Herriko garraioko azpiegitura-sarearen bilakaerari gainbegiratu historikoa

Euskal Herrian, bere eskualde eta lurraldeen arteko lotura beharren arabera eta beste herri eta lurralde batzuekiko merkataritza- eta ekonomia-erlazioen arabera eratuz joan da garraioko azpiegitura-sarea historian zehar. Modu horretan, errepideen egitura bat sortu da, non errepideak —gurdizko antzinako bideen oinordeko— eta berebat trenbide-sareak, portuak eta aireportuak, euskal lurraldea antolatuz, zeharkatuz eta hierarkizatuz joan diren.

Horien guztien bitartez, herriak eta hiriak elkarrekin lotu dira pixkanaka-pixkanaka; horrela, produkzio-guneak beren hornidura-lekuekin eta merkatuekin erlazionatzen dira eta pertsonak ere ibiltzen dira joan-etorrian; eta, horiekin batera, informazioa eta kultura, zentzu zabalean.

Garraiobide desberdinen bilakaera estuki lotuta dago garraio-sare osoaren bilakaerakin. Zentzu horretan, adibidez, errepide-sarea aztertzeko orduan, ezin ahantz dezakegu Euskal Herrian historikoki, eta gaur egun ere, zer nolako garrantzia izan duten portuek; ezta XIX. mendean trenbidea sartzeak izan zuena eta horrek herrialdearen industrializazioari eman zion bultzada ere. Zer esanik ez, gaur egun aireportuek duten funtsezko garrantzia, beste herriekiko eta hiriekiko konexio handi gisa, zeren munduko toki urrunetara gerturatzen baikaituzte.

Hala da, bai. Komunikabide nagusien garapenak eta kontrolak zerikusia izan dute mende luzeetan zehar merkataritza-jarduerarekin eta meatzaritzako, manufakturagintzako, nekazaritzako edota abeltzaintzako produkzioaren esportazio eta inportazioen kontrolarekin. Horrela, esate baterako, Bilboko portura lehorrez iristeko bidea funtsezkoa izan da hiriaren garapenerako eta goraldi ekonomikorako. Denboraren poderioz, Bilbok beste portuekiko (Bermeo, Lekeitio, Castro...) posizio hegemonikoa lortu du, ohiko irteera bilakatuz, bai bertoko produktuetarako

—bereziki burdin mearako—, baita Gaztelako mesetako parte handi bateko esportaziorako (artilea) —eta inportaziorako— edota Ebroko goi-bailarakoentzat. XIX. mendean, Britainiako zein Asturiasko ikatzaren sarrerarako eta Bizkaiko hastapeneko siderurgiako produktuen irteerarako leku bihurtu zen. Hitz batez, portura lehorrez iristeko bidea —bai errepidez baita, beranduago, trenbidez ere— estrategikoa izan da Bilborentzat. Beste erregioek eta eskualdeek ere, portuarekiko sarbide zuzena eta azkarra zuten neurrian atera ahal izan zioten onurarik.

Hortaz, merkataritza-harremanak izan dira une historiko jakin batean garraioko azpiegituren garapena, errepideen eta trenbideen hedapena edota portuen zabaltzea bultzatu dutenak. Gure garaira arte iraun eta luzatu den bultzada horrek indar berria hartu zuen herrialdearen industrializazioaren eskutik XIX. mendearen bukaera aldera, Britainia Handiarekin eta gainerako Europarekin euskal portuen bidezko elkartrukeek hartu zuten garrantziarengatik eta, merkatu espainiarraren barnean nagusiki, Bilbo eta bere ingurunea industria- eta finantza-zentro gisa sendotzeagatik. Garapen ekonomikoa herrialde osoan zehar zabalduz joan zen neurrian, azpiegitura-sareak aldaketa esanguratsuak izan zituen: sendoagoa eta dentsoagoa bilakatu zen, portuen eta aireportuen garrantzia handitu zen, errepidea gailendu zitzaion trenbideari eta bide-sarea euskal geografiako azken txokoraino ere iritsi zen.

Bestalde, euskal azpiegitura-sarearen konfigurazioa modu esanguratsuan baldintzatu duen faktore bat bi estatuen arteko muga izan da; garraio-azpiegiturei dagokienez, herrialdea bi errealitatetan banatu izan duena, eta oraindik ere banatzen duena. XIX. mendeaz geroztik, merkatu "nazionalen" garapenarekin indartuta atera zen muga, eta neurri handian Euskal Herri kontinentalaren eta penintsularraren arteko komunikazioetarako oztopoa izan zen, bakoitza bere merkaturantz orientatuago egotean. Hori aldatu egin da estatu espainiarra Europako Batasunean sartu ostean, eta batez ere Europako Barne Merkatuaren sorreraren ondorioz, horrek Europako merkatu bakarra den errealitate berri hori kontuan hartuko duen azpiegitura-sarea eskatzen baitu.

Edonola ere gaur egun Euskal Herriko azpiegitura-sarea hainbat administrazioren eskumena da. Horrek administrazio guztien arteko koordinazioa eskatzen du sarea diseinatzeko, garatzeko eta kudeatzeko orduan. Hala ere, gaur egungo esparru instituzionalak, euskal lurraldea hiru administraziotan zatitzen duena (EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herria, azken hori esparru instituzional propiorik gabe), elkarlanik eza eta kooperazio-falta kezkagarria ekarri du, sarritan interes politiko hutsengatik. Gainera, EAEri dagokionez, alor horretako eskumenak Foru Aldundiei dagozkie; ondorioz, errepide-sare koherente baten garapena ziurtatzeko, erakunde desberdinen arteko kooperazio iraunkorraren beharra areagotu da, lehentasunak eta proiektu desberdinen erritmoak bateragarri izan daitezen.

5.1.3. Euskal Herriko garraio-azpiegitura nagusien aurkezpena

5.1.3.1. Errepide-sarea

Errepide-sareak konexio funtzio bikoitza (kanpokoa eta barnekoa) betetzen duela kontuan izanda, eta zehaztasun gehiegira jotzeko asmorik gabe, sarearen karakterizazioa egin dezakegu, proiektu esanguratsuenetako batzuk jasoz. Lau kategoria bereiz ditzakegu, ez beti bateraezinak:

– Nazioarteko bideak, Europako lurralde kontinentalarekin lotzen dutenak eta iparra-hegoa ardatz egituratzaile gisa dihardutenak:
  - N-1 errepidea (Madril-Irun), euskal lurraldearen zati handia zeharkatzen duena.
  - Ahalmen handiko konexio-proiektua bi autobideen artean, alegia: A-8 (Bilbo-Behobia) (Bilboko Area Meropolitarra Donostia eta Baionaren bidez kontinentearekin lotzen duena) eta A-68 (Euskal Herriko hego eta mendebaldeko mugan zehar Mediterraneoko korridorerantz doana eta Mirandan Madrildik datorren autobidearekin bat egiten duena); konexio horren bidez, ibilbide luzeko beste komunikabide oso bat lortuko litzateke iparra-hegoa ardatzean.
  - Eibar-Gasteiz autobide-proiektua: iparra-hegoa ardatzean, hirugarren nazioarteko bide alternatiboa izango litzatekeena.
  - Iruñea eta Baiona arteko autobide-proiektu berria: Nafarroari nazioarteko irteera zuzena ahalbidetzeko, Irundik pasatzeko beharrik gabe.

    Esan beharra dago ezen lehen bi bideek (eta, abian egongo denean, hirugarrenak ere) bat egiten dutela Donostia-Irun tartean eta horren bidez A-63 autobidearekin, errepide-sareko butxadura-gune nagusietako bat sorraraziz.

    N-1 errepidean, Etxegarateko igarobideko zabaltze-lanek eta Debako bailarako korridoreak (Eibar-Gasteiz) atzerapenak izaten dituzte behin eta berriro, hainbat arrazoi direla medio: Erakundeen artean (Aldundiak, Udalak, etab.) akordiorik eza, finantziazio-arazoak, ustiapen-erregimenari buruzko eztabaida (Eibar-Gasteiz autobidearen kasuan), ingurugiro-inpaktua, bi bideen artetik lehentasuna zeinek daukan zehazteko eztabaida, etab.

– Euskal Herria estatuko gune nagusiekin eta inguruko erregioekin lotzen dituztenak. Garrantzitsuenak honako hauek dira:
  - Kantauriko autobia, mendebaldetik Santanderrekin eta Kantauriko Erlaitzarekin lotzen duena.
  - Ebroko korridorea (A-68), Zaragozaren bitartez Mediterraneoko ardatzarekin (Bartzelona) lotzen duena.

- Madrilekiko lotura N-1 (A-1) errepidearen bitartez.
- Lapurdiko kostaldea (BAB) Bordele eta Parisekin lotzen duena (A-63) eta Pauekikoa (A-64).

– Erregioaren barneko errepideak, zeintzuen funtzio nagusia herrialdearen barne-kohesioa den:

- A-68 autobidearen Bilbotik Altuberako tartea eta Gasteizerako autobiarekiko lotura, bi hiriburuak lotzeko balio duena.
- A-8 autobideak barne-konexiorako funtzioa ere betetzen du bere ibilbidean zehar, bizilagun askoren eta jarduera ekonomiko nabarmeneko gune eta eskualdeen artean.
- Nafarroa-Gipuzkoa autobia (Leitzarangoa): Iruñea Donostia eta mugarekin lotzen duena.
- Sakanako autobia (N-1) eta Altsasu-Irurtzun-Iruñea autobidea: Gasteiz eta Iruñea batzen dituena.
- Irurtzun-Tutera autobidea (A-15): Nafarroako hiriburua hegoaldeko eskualdeekin eta Ebroko korridorearekin lotzen duena.
- Belateko ardatza: Nafarroako sarean indar handiena duen ardatza da. Iruñea Nafarroako iparmendebaldeko eskualdeekin eta Euskal Herri kontinentalarekin lotzen du.
- Eibar-Gasteiz autobide-proiektua: Deba Behereko eskualdean barrena irisgarritasuna hobetuko lukeena, baita bailararen eta Gasteizen arteko lotura ere.
- Durango-Bergara-Beasain korridore-proiektua: mendebalde-ekialde norabidean egingo balitz, gaur egun gabezia handiak dituen komunikazio-ardatzean artikulatu luke lurraldea.
- Iruñea-Baiona Pirinioetan zeharreko autobide-proiektua (Nafarroaren eta Estatu frantsesaren artean nazioarteko lotura-izaera ere baduena).

– Eskualdeko eta maila lokaleko errepideak: sareari dentsitatea edo trinkotasuna ematen diote; hurbileko udalerri eta eskualdeen arteko elkarrekiko lotura ahalbidetzen dute, lurralde osoa irisgarri izaten lagunduz.

5.1.3.2. Trenbide-sarea

Euskal Herriko trenbide-sarea aztertzean, kontuan izan behar dugu berton diharduten konpainiak lau direla (RENFE, FEVE, Eusko Tren eta SNCF), denak jabego publikokoak, eskumenen banaketaren arloan dagoen konplexutasunaren ispilu. Burdinbideari begiratuta ere, egoeraren izaera nahaspilatsua nabarmentzen

da; izan ere, hiru zabalera desberdin aurkitzen baititugu (burdinbide zabal europarra 1,435 mm-koa, burdinbide zabal espainiarra 1,674 mm-koa eta burdinbide estua, metro bateko zabalerakoa).

Espainiako eta Frantziako estatuetako tren-konpainia nagusiak (RENFE eta SNCF) ibilbide luzeko trafikoaz arduratzen dira, eta horiek ustiatutako lineen bidez —geure lurraldeaz harago iristen direnak— estatu horietako hiri nagusi eta Europarekiko lotura bermatzen da.

Sare nagusi horretako linearik inportanteena Madril-Irun-Paris trenbidean Euskal Herriari dagokion tartea izango litzateke, hots: Miranda-Gasteiz-Irun-Baiona. Nagusiki bidaiari zein merkantzien nazioarteko garraioaren zerbitzurako dago diseinatuta, nahiz eta tarte batzuetan eskaintzen dituen aldirietako zerbitzuak ere garrantzitsuak diren. Are gehiago, badirudi linea horretan bertan bigarren funtzio hori ari dela nagusitzen; izan ere, garai batean nazioarteko trafikoan trenbideak izan zuen garrantzia nabarmen ahuldu da, beste garraiobide batzuek tokia hartzen joan diren heinean: salgaien garraioari dagokionez errepidea; eta bidaiarien kasuan, hegazkina. Gainera Kataluniako ardatza da gaur egun estatu espainolaren eta frantsesaren arteko garraioaren igarobide nagusia.

Beste linea aipagarri batzuk Bilbo-Miranda-Tutera eta Gasteiz-Altsasu-Iruña-Castejón ibilbideak dira, Ebroko haranarekin eta Mediterraneorako burdinbidearekin eta Madrila doanarekin ere lotzen direnak. Hego Euskal Herria estatuaren gainerakoarekin lotzea izango lukete helburu, baina praktikan horien garrantzia ez da oso handia, hain zuzen ere, beste arrazoi batzuen artean, trenbide konbentzionalak beste garraiobideekiko izan dezakeen lehiakortasuna handitzeko inbertsio-politikarik ezaren eta kudeaketa arduratsu baten faltaren ondorioz.

Baiona-Tolosa (Toulouse) lineak ere badu tarte bat Euskal Herrian, zati txikia baina garrantzitsua, bera baita Europako erdialdearekiko eta Italiarekiko komunikabide nagusienetako bat.

RENFEk, bestalde, badu bestelako zerbitzurik Euskal Herrian, zehazki Nerbioi ibaiaren ezkerraldeko zerbitzuez (laster metroaren bigarren linearen lehia jasango dutenak) bera arduratzen baita.

Burdinbide estuen sareari dagokionez, soilik Bizkaian eta Gipuzkoan aurki dezakegu, eta horien funtzio nagusia Bilboko eta Donostiako aldirietako garraio-zerbitzua bermatzea da. Bi enpresa publikoren esku dago sare hori:

– Batetik, *Eusko Tren*, Eusko Jaurlaritzaren agintepekoa, ibilbide osoa Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan egiten duten trenbideak kudeatzeko; besteak beste: Bilbo-Donostia, San Ignacio-Lezama, Bilbo-Gernika-Bermeo.

– Bestetik, FEVE, Espainiako gobernuaren menpekoa, Bilbo-Santander eta Bilbo-La Robla lineez arduratzen dena (lehenengoa Galiziaraino doan trenbidearen tarte bat da, eta bigarrena Palentzia-Leon norabidean dago).

Ezin ahantz dezakegu, aldirietako zerbitzuez ari garelarik, Bilboko Metroa, Ibaizabal/Nerbioi Itsasadarraren eskuineko eskualdean jada diharduena eta aurki ezkerraldean ere arituko dena. Horren zerbitzuak funtsezkoak dira Bilboko eremu metropolitarraren funtzionamendurako.

Trenbidearen gaur egungo egoerak hemen eskain diezaiokeguna baino denbora eta luzera handiagoa eskatuko luke. Nolanahi den, labur esanda, badirudi nagusitzen ari diren joerak trenbide konbentzionala aldirietako zerbitzuetarako uztea eta ibilbide luzekoan AHTren aldeko aukeraren aldekoak direla.

Testuinguru horretan kokatuko litzateke gaur egun trenbide-azpiegituraren arloan proiektu izarra den "euskal Y" deritzona; euskal hiriburu nagusien konexio azkarraz gain, estatu espainiarrarekiko eta frantsesarekiko eta, oro har, Europako abiadura handiko sarearekiko lotura ere ahalbidetuko duena.

5.1.3.3. Portuak

Bilbo, Pasaia eta Baiona dira Euskal Herriko merkataritza-portu nagusiak.

Lehenengo bien kasuan, instalazioak petrolio-produktuak, merkantzia orokorrak, ibilgailuak eta altzairugintzako produktuak sartu eta ateratzeko erabiltzen dira gehienbat. XXI. mendeak dakartzan erronkei aurre hartu nahian, eraldaketa sakonak burutzen ari dira bi portuotan, bai azpiegiturari dagokionez baita kudeaketari dagokionez ere. Instalazioak gehituz eta trafikoak dibertsifikatuz, merkataritza-eragiketen balio erantsia gehitzea da helburu nagusia.

Bilboko Portuak 28,6 milioi tonako merkantzia-trafikoa izan du 2000. urtean, estatu espainiarreko *ranking*ean hirugarren postuan kokatzen duena (Algeciraskoaren eta Bartzelonakoaren atzetik). Pasaiakoak, bere aldetik, 4,6 milioi tona mugitu zituen urte horretan bertan (urtebete lehenago, Estatu espainoleko 27 portu-agintaritzen artean, 18. postuan zegoen).

Baionako portua, bere aldetik, Euskal Herriko *ranking*ean Pasaiakoaren ondo-ondoan kokatuko litzateke (1998an 4,3 milioi tonako trafikoa izan zuen), eta estatu frantsesekoan bederatzigarren postuan. Bertatik garraiatutako produktuak nagusiki artoa, metalak, sufrea eta petroliotik eratorritakoak dira.

Merkataritza-portu horiez gain, badaude portu txikiagoak ere, nagusiki arrantza-portuak direnak, nahiz eta aldi berean kirolontzientzako azpiegitura ere eskaintzen duten, kasu gehienetan. Bizkaiko eta Gipuzkoako portuei dagokienez, esan beharra dago merkataritza-portu nagusi biak Estatuko Administrazioaren eskumenekoak direla; baina, aldiz, gainerakoak Eusko Jaurlaritzaren agintepekoak.

Portu txikiago horien artean honakoak aipatuko genituzke: Bermeo (merkantzia-trafikoan ere aritzen dena), Lekeitio, Ondarroa, Mutriku, Zumaia, Hondarribia, Hendaia, Donibane Lohizune eta Donostia.

Dena den, esan bezala, arrantzaren gainbehera eta aisiaren industriaren gorakadaren ondorioz ugaltzen ari dira kirol-portuak. Honela, Donibane Lohizune, Hendaia, Getxo eta Getariko portuei Zumaian eta Hondarribian egiten ari direnak gehituko zaizkie aurki.

5.1.3.4. Aireportuak

Euskal Herriak bost aireportu ditu, herrialde bakoitzeko bat, Zuberoa kenduta: Bilbokoa (Sondika-Loiu), Gasteizkoa (Foronda), Donostiakoa (Hondarribia), Iruñekoa (Noain) eta Biarritzekoa.

Bilbo-Sondikakoa da denen artean garrantzitsuena. Nazioarteko maila du; egunero hegaldi erregularrak ditu Europako hiriburu nagusietara eta estatu barruko aireportuetara ere. 1998an bi milioi erabiltzailetik gora izan zituen. Bere instalazioak handitzeko eta hobetzeko egitasmo handian sartuta dago gaur egun, 2005erako aurreikusitako joan-etorrien beharrizanak (hiru milioi pertsona) asetzeko baldintzetan egon ahal izateko.

Forondakoa merkantzien garraioaren alorrean nabarmentzen da (40.000 tonatik gora 1998an, Sondikak 3.627 besterik ez) eta, bidaiariei dagokionez, oso garrantzi txikikoa da (125.000 inguru). Bilboko aireportuaren trafikoak eguraldia eta orografiak baldintzatua egotean, beste aireportu bat Gasteizen egitea erabaki zen. Kokapena hobea izaki, Bilbokoak baino merkatu potentzial handiagoa izateko aukera eskaintzen zuen, eta, orobat, hegaldi baldintza hobeak eta seguruagoak ere. Alabaina, Forondako aireportuaren lehiak akuilatuta, zenbait erakundek —aireportuak berak eta Bizkaiko Merkataritza eta Industria Ganbarak bereziki— Sondikako aireportuaren alde sutsuki egin zuten, hobekuntzak eskatuz: pistak zabaltzea eta ikuspen gutxiko egunetan hegaldatzeko eta lurreratzeko tresneriaz hornitzea. Bilboko aireportuak lehenengo postuari eutsi zion eta, lehia horren aurrean, badirudi Gasteizkoak merkantzien trafikoan espezializatzera jo duela, bidaiarien garraioa alde batera utzita.

Biarritzeko aireportuak egunero ditu hegaldiak Londresera, eta Paris eta estatu frantseseko beste zenbait hiritara. 2000an 780.000 bidaiari inguruk erabili zuten aireportua.

Hondarribiako eta Noaineko aireportuek estatu barruko hegaldiak eskaintzen dituzte, bidaiarientzat batez ere, eta nahiko kopuru mugatuetan (Hondarribiak: 228.000 bidaiari inguru 1998an, Noainek 340.000 inguru 2000n).

5.1.4. Etorkizuneko arazoak eta erronkak

Euskal Herrian zehar azpiegitura- eta garraio-politikoaren arloan zein hiri- eta erregio-politikaren eremuan nagusitzen ari diren joerek zenbait arazo sorrarazi dituzte; honako hauek, besteak beste:

– Karakterizatu dugun azpiegitura-sare hori aldaketa-prozesu azkar batean dago murgilduta, proiektu berriak eta sarearen hobekuntzak burutuko dituena, eta garraiobide guztiei zuzenduta egongo dena. Bilbo eta Pasaiako Portuen zabaltze-lanak, Bilboko aireportuko lanak, Abiadura Handiko Trena eta Eibar-Gasteiz ahalmen handiko errepidea izango lirateke egitasmo horien arteko garrantzitsuenak.

– Jarduera ekonomiko, enplegu, administrazio publiko, kultura-jarduera, garraio eta abarren gehiegizko kontzentrazio espazialak aglomerazio-desekonomiak ekarri ditu, metropoli eta hiriguneetara batez ere; eragin berezia Bilbo Handian eta Donostialdean izan da. Horren ondorioz, ingurumen-kutsadura eta narriadura, kongestioa (populazioarena, trafikoarena, …), bizi-kalitatearen galera, enpresetako kostu ekonomikoen gorakada, eta abar agertu dira.

– Zenbait tokitan —bai kongestio-arazoak dituztenak, bai periferian kokatuak— ondasun eta zerbitzuen zein hiritarren mugikortasuna galdu edota hondatu da. Izan ere, irisgarritasuna mugatuta eta oztopatuta dago zenbait lekutan, bai bertaratzeko, bai bertatik beste espazioetara mugitzeko ere. Hori dela eta, gainkostu ekonomikoak eta sozialak izateaz gain, jarduera eta enplegu berriak erakartzeko aukerak galtzen dira.

– Azpiegitura-sare handien eraikuntzak finantzabide ugari behar ditu epe laburrean. Gainera, eraikuntzaren ondorioz sortutako kostu finantzarioak eta azpiegiturak mantentzeko behar diren gastuak hazten dira nabarmenki. Gastu horiek guztiek gizarte baten geroa baldintzatzen dute, beste premia sozialak asetzeko behar diren eta beste sektoreetan beharrezkoak izan daitezkeen baliabide ekonomikoak zurgatzen baitituzte.

– Administrazio jakin batek egin dezakeen azpiegitura- eta garraio-politika eskumenen esparru instituzionalak baldintzatzen du. Izan ere, askotan hainbat administrazio-maila nahasten dira; hori dela eta, erabakitzeko prozesua, finantziazioa eta kudeaketa korapilatzen dira.

– Azpiegitura-proiektu baten burutze-prozesuak agerian uzten du defizit demokratikoa, fase desberdinetan (plangintza, diseinua, erabakitzea, ebaluazioa, kudeaketa, kontrola, eta abar). Agente ekonomiko eta sozial guztien parte-hartze zuzenak eta aktiboak prozesua aberastuko luke, eta askotan proiektu horietan sortzen den gatazka desagertuko litzateke. Beraz, proiek-

tu horiek ez ezik, azpiegitura-politika orokorrak ere zilegitasuna lortuko lukete gizartean.

5.2. AZPIEGITURA TEKNOLOGIKOAK

II. Mundu Gerratik aurrera, Ikerkuntzak eta Garapenak garrantzi handia hartu zuten, enpresa handi batzuetan batez ere. Berrikuntza eredu nagusiak "berrikuntzaren eredu lineala" zuen izena. Bertan, oinarrizko ikerkuntza (unibertsitate zein ikerkuntza-zentroetan garaturik) berrikuntzen iturburua zen, eta ondoren merkatuaren eskakizunetara egokitzen zen ikerkuntza aplikatuaren bidez (ikerkuntza-zentroek zein enpresek eginda). Azkenik, berrikuntzaren enpresa liderrek beren garapen teknologiko jakinak zabaltzen zituzten (5.1. irudia).

5.1. irudia. Berrikuntzaren eredu lineala



Oinarrizko ikerkuntza lan teorikoan edo esperimentalean datza, erabilera aurreikusi gabe. Enpresek ia ez dute parte hartzen ikerkuntza-mota honetan, eragile nagusiak unibertsitateak eta ikerkuntza-erakundeak izanik.

Ikerkuntza aplikatua ere originala da eta ezaguera berriak lortzeari ekiten dio. Hala ere, ikerkuntza-mota honek helburu praktikoa du. Aurreko fasearen aurrerapenaren ondorioz, produktu edo produkzio-prozesu berria sortzen da.

Garapen esperimentala ikerkuntza edota esperientzia praktikoaren bidez lortu diren ezagueretan oinarritutako lan sistematikoetan datza. Materialen produkzioa, produktu edo gailu berriak, prozesu, sistema edo zerbitzu berriak ezartzea edo dagoenaren hobekuntza du helburu. Fase honetan, enpresen jarduera arruntean, oinarrizko ikerkuntzaren eta ikerkuntza aplikatuaren faseetako ezaguerak erabiltzen dira.

Azken hamarkadetan, berrikuntzaren eredu lineala albo batera utzirik, berrikuntzaren eredu berria izan da eztabaidagai, "berrikuntza-sistema", zeinen esparrua nazioa, erregioa edo sektorea izan baitaiteke. Literaturan garaturiko berrikuntza-sistemaren kontzeptua ez da bakarra; dena den, adituen ustez, onartuena Lundvall-ena (1992) da. Autore horren arabera, berrikuntza-sisteman barruko osagaiek eta harremanek elkarreragiten dute, ekonomikoki erabilgarria den ezaguera berriaren produkzioa, hedapena eta garapena erdiesteko asmoz.

Berrikuntzaren garapen teoriko berrien arabera (kasu desberdinak etorkizunean aztertzeko oinarri kontzeptuala eskaintzen dutena), berrikuntza-prozesua ez da gertatzen enpresa isolatu baten barruan, baizik eta marko sistemiko batean beste berrikuntza-erakundeekin batera kooperatzen eta elkarreragiten (zentro teknologikoak, unibertsitateak eta abar).

Zehatz-mehatz, berrikuntza-jarduerak dituzten erakunde guztiak berrikuntza--sistemaren (nazio zein erregio mailakoa) osagaiak dira. Gomez eta Borja-k (1996) ingurune desberdinei dagozkien osagai sistemikoen sailkapen hau egin dute:

- Ingurune zientifikoa: barnean unibertsitateak, I+G institutuak, unibertsitate--enpresa fundazioak eta ikerkuntzaren emaitzak transferitzeko bulegoak daude (OTRI).
- Ingurune teknologikoa: besteak beste, laborategiak, zentro teknologikoak, formazio- eta aholkatze-zentroak, eta aholkularitza teknologikoaren enpresak.
- Produkzio-ingurunea: enpresak, parke teknologikoak eta Berrikuntza--Enpresen Zentro Europarrak (CEEI).
- Finantza-ingurunea: arrisku-kapitalaren elkarteek, erregio-garapenerako elkarteek, bankuek eta aurrezki-kutxek beste inguruneetako kideei finantzabideak eskaintzen dizkiete, beren jarduerak gara ditzaten.

Berrikuntza laguntzeko politikak aurrera joan daitezen, sektore publikoak hurrengo ekimenak bultzatzen ditu: planak, enpresa eta unibertsitateentzako laguntzak ikerkuntza-proiektuak gara ditzaten, inguruneen arteko lankidetza sustatzea, I+G jarduerak eragiteko azpiegiturak sortzea, eta abar. Hau guztia, ikerkuntzaren eta garapenaren kalitatea indartu eta hobetzeko asmoz.

Erregio batean berrikuntza-jarduerak garatzen dituzten eragileak aztertu baino lehen, interesgarria da erregioak I+Gri ematen dion ehunekoa (Barne-Produktu Gordinarekiko) ezagutzea; horrela, Estatuko beste erregioekin erkatuz gero, zein posizio erlatibo duen jakin dezakegu. Datu gutxi izan arren, INEk 1998an EAEko I+G gastua, BPGren ehunekoaz, %1,34koa zela adierazi du (batez ere, erregioan zentro teknologiko ugari kokatuta baitaude); tasa hori Estatuko altuenetakoa da. Nafarroako Foru Erkidegoan, berriz, %0,97koa zen bakarrik, Estatuko batezbestekoaren pare.

5.2. irudia. I+G gastuak EAEn eta NFEn (1998)



Iturria: INE.

I+G gastuen banaketa burutzen duen sektorearen arabera, zer edo zer desberdina da eskualde bietan. Hori 5.2. irudian ikus daiteke, eginkarien sendotasuna edo ahultasuna ikerketari dagokionez ageri baita. EAEn 1998. urtean I+G gastuen %80 enpresek burututakoa izan zen (zentro teknologikoak barne); ostera, NFEn tasa hori %55era bakarrik ailegatu zen. Hala ere, Unibertsitateak I+Gn daukan pisua Nafarroan EAEn baino garrantzitsuagoa da, batez ere Nafarroako Unibertsitateak azken hamarkadetan izan duen ikerketa-tradizio luzeari esker.

5.2.1. Berrikuntza-sistemaren osagaiak

5.2.1.1. Zientzia-ingurua

Euskal Herrian bost unibertsitate daude. Euskal Autonomia Erkidegoan ondokoak daude: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU), Deustuko Unibertsitatea (UD) eta Mondragon Unibertsitatea. Gainera, Donostian Nafarroako Unibertsitatearen barruan dagoen Ingeniaritzako Goi-Eskola dago. Nafarroako Foru Erkidegoan hauexek dauzkagu: Nafarroako Unibertsitatea (UN), 1952. urtean sortua, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA), 1987. urtean sortua.

1962. urtean Deustuko Unibertsitateak bere 75. urteurrena ospatu zuenean, oraindik bere ikasketak ez zeuden ofizialki onartuta. Urte bat beranduago, 1963ko abuztuaren 10ean, Estatuak Deustuko Unibertsitatea onartu zuen, Zuzenbide eta Filosofia eta Letrak fakultateekin. Gaur egun campus bi ditu: Bilbokoan zazpi fakultate daude (Zuzenbidea, Filosofia eta Letrak, Hezkuntzaren Filosofia eta Zientziak, Ekonomia eta Enpresa Zientziak, Teologia, Ingeniaritza-ESIDE), eta Donostiakoan bi (Humanitateak eta Ekonomia eta Enpresa Zientziak-ESTE). DEIKER Institutuak, unibertsitatearen ikerketa-politikarako bitartekoa, 1983-84 ikasturtean hasi zen, Deustuko Unibertsitatearen jakintza-arloetan ikerketa zientifikoa bultzatzeko asmo nagusiarekin. DEIKERen esparruan sartzen diren ikerketa-arloak, besteak beste, ondokoak dira: Soziologia, Zuzenbidea, Historia, Ekonomia, Ingeniaritza Informatikoa, Psikologia, Filologia, eta Euskal Kulturaren Ikasketa.

1968. urtean, Garapen-Planen testuinguruan Bilboko Unibertsitatea sortu zen, baina 1980. urtera arte ez zen Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV-EHU) bilakatu, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate-sistema publikoa osatuz. Unibertsitate hori hiru campusetan dago banatuta (Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia) eta 12 fakultate eta 18 unibertsitate-eskola ditu. Berrikuntzari dagokionez, bere fakultate aipagarrienen artean Farmazia, Zientziak, Medikuntza eta Odontologia, Zientzia kimikoak eta Informatika dauzkagu.

1996. urtean Mondragon Unibertsitatea (MU) sortu zen, Mondragon Taldeak unibertsitate-mailako heziketan egindako apustua. Unibertsitate txiki horrek ikasketa-egitarauak industriaren eta enpresen beharrei begira egokitu ditu. Bertan Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza lizentziatura irakasten dira, eta baita Inge-

niaritza Industriala eta Ingeniaritza Informatikoko ikasketak ere. Unibertsitateaz gain, formakuntzaren inguruko ekimen gehiago daude, hala nola: Mondragon Hizkuntza Zentroa (CIM) eta Politeknika Ikastegia Txorierri, enplegu-formakuntza eta formakuntza jarraitura zuzendua.

EUSTATek eskainitako datuen arabera, 1998. urtean EAEn Unibertsitate sektoreak burututako I+G gastua ondoko jakintza-arloetara zuzendu zen: Giza eta Gizarte-Zientziak (%38,9), Zientzia Zehatzak eta Natur Zientziak (%29), Ingeniaritza eta Teknologia (%17,1) eta Osasun-Zientziak (%15,1) (ikus 5.3. irudia).

5.3. irudia. Unibertsitateak burututako I+G gastua, 1998



Iturria: EUSTAT.

I+G jardueren barruan, interesgarria da azpimarratzea %20 bakarrik burutu direla fondo espezifikoen barruan (kanpo-finantzapeneko proiektuak, kontratu eta konbenioak, ikerketa-bekak eta ikerketa-azpiegituretan egindako inbertsioak). Bestalde, %80 fondo orokorren bitartez burutu dira; horietan daude irakasleak ikerketari eskainitako denbora eta horrek dakarren kostu orokorra: irakasleei dagokien gastua, pertsonal ez-dozenteei dagokien gastua, etab. (Eusko Jaurlaritza, 2001).

Nafarroako Unibertsitateak hamabi sail ditu ondoko arloetara zuzenduta: sektore farmazeutikoa eta kimikoa, elikagaien teknologia, fisiologia eta elikapena, ekonomia eta eraikuntza. Berauek industriari teknologia eta zerbitzu interesgarriak eskaini ahal dizkiote. Bestalde, UPNAren barruan bederatzi sail daude, azpimarragarriak izanik ingeniaritza, nekazaritza-produkzioa, automatika eta konputazioa, inguru naturalaren zientziak, energetikoak eta materialen esparrukoak, fisika eta kimika. Beraz, unibertsitate bien espezializazioak ez dira errepikatzen.

Interfaz organizazioak bitartekaritza lana egiten du unibertsitatea eta inguru enpresarialaren eta teknologikoaren artean. Horien artean daude OTRI-UPNA (*Oficinas de Transferencia de Resultados de la Innovación*) eta UNko ICT (*Instituto Científico Tecnológico*). ICTren funtzioen baitan azpimarragarriak dira lehenik eta behin, enpresaren eta unibertsitatearen zientzia-taldeen arteko lana koor-

dinatzea, eskatutako ikerketa-proiektuaren, estudioaren edo aholkuaren prestakuntza eta kontratazioa, eta horren jarraipena egitea eta informazioa ematea. Bigarrenik, ikerketa-proiektuaren administrazio-arloak kudeatzea, horiek burutzeko behar den pertsonala kontratatuz, materialak, ekipoak eta zerbitzuak erosiz eta adostutako epeak zaintzeaz arduratuz. Hirugarrenik, proiektuaren garapenak behar duen dirua kudeatzea, kontuen gaineko informazioa aldiro emanez, bai zientzia-talde parte-hartzaileei zein enpresa kontratatzaileei. Era berean, UPNAk badauka OTRI izenekoa (*Oficina de Transferencia de Resultados de Investigación*). Horren helbururik garrantzitsuena unibertsitateko eta enpresetako ikertzaileen arteko harremanak bultzatzea da, horrela unibertsitateko eskaintza zientifiko-teknikoaren transferentzia produkzio-sektoreetara errazteko eta azken horien eskariak asetzeko.

5.2.1.2. Teknologia-ingurua

Euskal Herrian zentro teknologikoek oso zeregin desberdina izan dute herrialde bakoitzeko berrikuntza-sisteman. EAEri dagokionez, zentro teknologikoak Eusko Jaurlaritzaren politika teknologikoaren funtsezko ardatzen artean egon dira urte luzez (Eusko Jaurlaritza, 2000). 1986. urtean zentro teknologikoak EITEn bildu ziren, eta jaiotza horrek zentroen jarduerak koordinatzea izan zuen helburu. Zentro horiek, gehienak pribatuak (CEIT, GAIKER, IKERLAN, INASMET, LABEIN, LEIA, ROBOTIKER, TEKNIKER), azpiegitura teknologikoa osatzen dute (ikus 5.1. taula). Ikerketa aplikatuaren, garapen teknologikoaren eta enpresei emandako laguntzaren bitartez erregioaren garapen industriala erdietsi nahi da.

Bestalde, Nafarroako Foru Erkidegoan dauden zentro teknologikoen (publikoak nagusiki) artean, zentro multisektorialak eta zentro sektorialak bereiz daitezke. Zentro multisektorialak hauexek dira: CETENASA (*Centros Tecnológicos de Navarra*) eta AIN (*Asociación de la Industria Navarra*). Zentro sektorialak, ostera, ondokoak dira: EVENA (*Estación de Viticultura y Enología de Navarra*), CTNCV (*Centro Técnico Nacional de Conservas Vegetales*), ITGA (*Instituto Técnico y de Gestión Agrícola*), ITGG (*Instituto Técnico y de Gestión Ganadero*), Laboratorio Agrario del Gobierno de Navarra, ILL (*Instituto Lactológico de Lekunberri*), eta LENSA eraikuntza-zentroa (ikus 5.2. taula).

5.1. taula. EAEko zentro teknologikoak

ZENTRO TEKNOLOGIKOAK	SORRERA	IZAERA	HELBURUAK ETA JARDUERAK
INASMET	1962	Pribatua, irabazi asmorik gabekoa	Jarduera: Materialen teknologiak, prozesu industrialak eta Ingurumena, ikerketa-proiektuak, laguntza teknikoa eta hedatze-jarduerak
IKERLAN	1974	Pribatua, irabazi asmorik gabekoa	Ikerketa aplikatua eta teknologia garapenaren bitartez enpresen teknologia- eta antolakuntza-berrikuntzetan laguntzea. Arloak: Mekatronika eta Energia
TEKNIKER	1981	Pribatua	Helburua: Enpresa zahar edo berriei teknologia transferituz, sortutakoa edo asimilatua, ehun industrialaren lehiakortasuna hobetzen laguntzea
CEIT	1982		Kontratupean egindako ikerketa aplikatua eta teknologiaren garapena. Sailak: Materialak, Mekanika eta Elektrizitatea, Elektronika eta Automatika
GAIKER			Material plastikoak eta konpositeak, ingurumena, birziklapena eta bioteknologia industriala
LABEIN		Pribatua	Helburua: Ikerketa-proiektuak, laguntza teknikoa eta formazioaren bitartez enpresei euskarri teknologikoa eskaintzea
LEIA		Irabazi asmorik gabeko fundazioa	Inguruaren hobekuntza eta enpresen eraldaketa teknologikoa
ROBOTIKER		Pribatua, irabazi asmorik gabekoa	Helburua: Enpresen lehiagarritasuna hobetzeko teknologiak eta metodologiak garatzea. Jarduerak: teknologia-aholkularitza, I+G eta berrikuntza-proiektuak, formazio aurreratua, laguntza jarraitua eta teknologia-oinarriko enpresen sorrera

Enpresek EAEn 1998. urtean burututako I+G gastuaren barruan, zentro teknologikoek %20,5 adierazi zuten, edo, gauza bera, I+G sistema osoaren %14,7. Bestalde, azpimarratzekoa da zentro teknologikoek I+Gri laguntzeko programetan edukitako parte-hartze altua (Eusko Jaurlaritza, 2001).

5.2. taula. Nafarroako Foru Erkidegoko zentro teknologikoak

ZENTRO TEKNOLOGIKOAK	SORRERA	IZAERA	HELBURUAK ETA JARDUERAK
Laboratorio Agrario	50eko hamarkada	Publikoa	Helburua: Eskualdeko Gobernuaren Nekazaritza Sailak dituen ikerketa-beharretan laguntzea
AIN	1963	Pribatua, irabazi asmorik gabekoa	Zerbitzuak: Aholkularitza (ekonomia eta finantzak, zergak, juridikoa, etab.). Ikerketako eta teknologiaren garapenerako proiektuak, eta zuzendariak eta teknikariak trebatzeko jarduerak
ITGG	1980	Publikoa	Helburua: Abeltzainen profesionalizazioa eta formazio jarraitua, horrela ustiaketen errentagarritasuna hobetzeko
ITGA	1980	Publikoa	Helburua: Nekazaritza-ustiaketen errentagarritasuna hobetzea eta nekazarien profesionaltasuna bultzatzea
CTNCV	1981		Funtzioak: industriarako laguntza teknikoa, formazioa, analisi-zerbitzuak eta I+G.
EVENA	1981	Publikoa	Funtzioak: laguntza teknikoa, analitikoa, aholkularitza eta saiaketak. Mahastizaintzaren eta enologiaren arloko jarduera ofizialak egitea eta mahastizainen, enologoen eta upategi-jabeen profesionalizazioa bultzatzea
ILL	1984	Publikoa	Helburua: Produzitutako esnea analizatzea kalitatearen arabera ordaintzeko, eta esne-produktuak hobetzea
CETENASA	1989	Publikoa	Ikerketa aplikatua eta garapen teknologikoa

5.2.1.3. Ekoizpen-ingurua

Enpresak, gorago ikusi dugun legez, EAEko zein Nafarroako berrikuntza-sistemetan Ikerketa eta Garapeneko gastuen eginkari nagusiak dira. Berau askoz ere nabarmenagoa da EAEn, zentro teknologikoek eskualdean duten garrantziagatik. Eskualde bietan burututako I+G gastu osoak desberdinak dira, komunitate bien tamaina desberdina izanik. Era berean, bakoitzean desberdina da gastuen banaketa sektoreen artean, ondoko irudietan ikus daitekeenez.

5.4. irudia: I+G Gastuak Industria-sektorearen arabera EAEn 1998. urtean (%)



Iturria: INE.

Enpresek eskualde bietan egindako I+G gastuak zehatzago analizatuz, EAEn I+Gn ahalegin handiena egiten duten sektoreak metalurgia eta produktu metalikoak eta garraio-materiala egiten dituztenak dira. Era berean, nahiz eta askoz maila apalagoan izan, makineria eta ekipo mekanikoaren pisua ere seinalagarria da. Bestalde, NFEn, enpresek I+Gn egindako gastu osoak EAEkoak baino askoz txikiagoak dira, batez ere eskualde biek daukaten tamaina desberdintasunagatik. Nafarroan, EAEren aldean, desberdina da I+G gastuen banaketa sektoreen artean. Adarrik garrantzitsuena papera, edizioa eta arte grafikoak deritzon arloa da, eta bigarrena, distantzia laburrera, makineria eta ekipo mekanikoak deritzona. Hirugarren postuan garraio materialaren industria dago.

5.5. irudia: I+G Gastuak Industria-sektorearen arabera NFEn 1998. urtean (%)



Iturria: INE.

"Parke teknologiko" izenekoen sorrera nolabaiteko arrakasta eduki zuten esperientzia batzuetan oinarritzen da, hain zuzen, Estatu Batuetan (Californiako Silicon Valley, etab.), Britainia Handian (Cambridge), Frantzian, etab. Izendun unibertsitateen proiektuak garatzea da oinarrizko helburua; izan ere, horiek zailtasunak dituzte merkaturatzeko orduan edo patenteak eta aurkikuntzak industrialki garatzeko orduan. Parke zientifiko eta teknologikoak ia laborategi bilakatzen dira eta bertan eginkari desberdinen arteko loturak sendotzen dira.

EAEko parke teknologikoek arreta berezia eskaintzen diote teknologia-oinarriko enpresen sorrerari (inkubazio-jarduerak, unibertsitateetako eta beste zentro teknologikoetako *spin-offs*ak, etab.). Hiru herrialdeetan daude horrelakoak. Zamudioko Parke Teknologikoa (Bizkaia) 1985. urtean sortu zen, estatuko esperientzien artean lehenengoa eta arrakastatsuena izanik, bai enpleguaren aldetik zein enpresen teknologia-maila eta harremanengatik (Eusko Jaurlaritza, 2001). Gaur egun, ia ehun enpresa ditu eta 4.300 enplegu. Donostiako Parke Teknologikoa (Gipuzkoa) Miramonen dago, 54 enpresa ditu eta 1.950 enplegu. Azkenik, Miñanoko Parke Teknologikoan (Araba) 34 enpresa eta 1.446 enplegu daude (Eusko Jaurlaritza, 2001).

Nafarroaren kasuan, oraindik ez dago teknologia edo berrikuntzako parkerik. Dena dela, "Nafarroako Plan Teknologikoa 2000-2003" delakoaren barruan horrelako bat sortzeko asmoa jaso dute.

5.2.1.4. Finantza-ingurua

«Berrikuntza-prozesuaren berezitasunengatik (arrisku handia, emaitzak eskuratzeko zailtasunak, proiektuen konplexutasuna), ohiko finantza-merkatuak eta finantza-erakunde arruntak (bankuak eta aurrezki-kutxak) sarri ez dira egokienak gertatzen bere finantzapenerako. Berrikuntzan espezializatutako finantza-erakundeak beharrezkoak dira, arrisku-kapitala kasu, inbertitzaile pribatuak edo burtsa-merkatu egokiak» (Eusko Jaurlaritza, 2001).

EAEn ondokoak dira arrisku-kapitaleko fondo nagusiak: *Ezten Fondoa* eta *Sociedad de Capital Riesgo de Euskadi* (Socade) (biak guztiz publikoak) eta *MCC Desarrollo* eta *Talde* (sektore pribatukoak) (Eusko Jaurlaritza, 2001).

SPRI (*Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial*) sozietate publikoa 1981. urtean sortu zen. Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari atxikirik dago. Bere eginkizuna eskualdeko industria-garapena eta enplegua bultzatzea da. Gaur egun, lau ardatz hauen inguruan biltzen da sozietate horren jarduera:

- Inguru lehiakorraren lorpena.
- Enpresaren egiturazko aldaketa berrikuntzaren aldetik.

- Enpresa-proiektu berriak laguntzea eta bultzatzea, enplegu-sortzaileak direnak bereziki.
- Kalitate osoa eta bere ziurtasuna.

NFEn Nafarroako Gobernuak 1984. urtean SODENA (*Sociedad de Desarrollo de Navarra*) sortu zuen, industria-proiektu berriak bultzatzeko eta sortzeko. Garapenerako eskualde-agentziak proiektu berrietan hartzen du parte, arrisku-kapital modura. Era berean, enpresa berriak sortu edo daudenak erosi nahi dituzten inbertitzaileen eskariak jasotzen ditu. "Nafarroako Plan Teknologikoa 2000-2003" onartzearen ondorioz, eskualdeko gobernuak 2000. urtean *Agencia Navarra de Innovación* izenekoa sortu zuen, planeko proiektuak kudeatu eta kontrolatzeko. Gainera, proiektu txiki berritzaileetarako arrisku-kapitaleko beste sozietate bat ere badago: "*Start Up Capital Navarra, S.A.*".

5.2.2. Eskualdeko gobernuaren politikak

EAEn ohiko industria-sektoreen krisi sakonaren eta I+G jardueren gabeziaren ondorioz, 1980ko hamarkadaren hasieran aldaketa teknikoa bultzatzeko lehenengo neurri politikoak hartu ziren eskualdean. Hamarkada horretan oinarrizko helburua azpiegiturak osatzea izan zen, zentro teknologikoak kasu. 1990eko hamarkadan, eskaintza teknologikoaren sendotzea zela eta, neurriak eskariaren aldekoak izan ziren, eta gero eta gehiago barneratu zituzten beste eginkari batzuk, enpresak eta unibertsitateak esate baterako.

1989. urtean "Euskal Herriaren Teknologia-Estrategiako Plana" sortu zen eta helburuak ondokoak izan ziren: ikerketa aplikatuko programa aurreratuak ezartzea, teknologiak zabaltzea, euskal industriaren kalitatea eta balio erantsia hobetzea, enpresen lehiagarritasuna hobetzea eta I+G azpiegiturak sendotzea. 1993. urtean "1993-1996 Industria-Teknologiaren Plana" onartu zen, eta helburu nagusiak hauexek izan ziren: eginkari teknologikoek elkarlanean burututako I+G proiektuen bitartez programa teknologikoak definitzea; teknologia-enpresa delako sistema hobetzea, barruko zein kanpoko inbertsio teknologikoa areagotzeko. 1997. urtean "1997-2000 Zientzia- eta Teknologia-Plana" onartu zen, eta elkarlanari emandako laguntza hazkorra azpimarratu zen bertan, Unibertsitatea eta beste eginkari batzuen arteko elkarlana —Zentro Teknologikoak kasu— edo Informazio-Teknologien sustapena.

2001eko martxoan "Zientzia, teknologia eta berrikuntzarako plana 2001-2004" aurkeztu zen, eta horren helburu estrategikoak honako hauek izan ziren:

- Zientzia, teknologia eta berrikuntza eskaintzen dituzten eginkariak sendotzea.
- Jakintza berriaren sorrerari lehentasuna eskaintzea.
- Zientzia-teknologia-enpresa-gizartea delako sistema integratzea.
- Enpresaren eta gizartearen eskarian sakontzeko politika lantzea.

- ETEetan berrikuntza teknologikoa bultzatzea.
- Informazio-Gizartean sortutako aukera berriak aprobetxatzea.
- Jakintzaren ustiaketa komertzialari laguntzea: produktu berriak, enpresa berriak.

Gainera, plan horrekin sistema eredugarri bat osatu nahi da, lehiagarritasun--baldintza legez dimentsio globala eta inguruarekin lotura aintzat hartuz. Hiru oinarri nagusiak *lehiatzea*, *kooperatzea* eta *konpartitzea* dira.

NFEren kasuan, berandu industrializatzeagatik eta bere industria-egituraren ondorioz, krisi-garaian ez zuen hain berregituraketa sakonik behar izan, EAEren kasuan gertatu bezala (batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan). Zentzu horretan, urte askotan politika ez da berrikuntzarekin hain konprometituta egon, EAEn gertatu den bezala. Horren lekuko plan zientifiko-teknologikoen urritasuna dugu. 1982. urtean ikerketaren eta teknologiaren garapenerako laguntzen arautegia onartu zen, «bere iraupen aroan I+G jarduerak bultzatzeko bitarteko egokia izan dela frogatuz». Berriki, asmo hori berrikusita, «I+G jardueretarako laguntza-erregimena ezarri da, Europako gidetara guztiz egokituta eta enpresen eta ikerketa-zentroen potentzialitateak mobilizatzeko gai izateko Nafarroako Plan Teknologikoaren helburuen norabidean» (360/2000 Foru Dekretua).

1991. urtean Nafarroako Gobernuak PRINA (*Plan Regional de Investigación de Navarra*) onartu zuen 1992-1995 tarterako, «zientzia eta teknologia sistema ekintza bateratuan biltzeko helburuarekin, horrela, Foru Erkidegoko I+G modu ordenatuan garatzeko». Hala ere, plana ez zen abian jarri; izan ere, Nafarroako Legebiltzarrak bertan behera utzi zuen, orduko hauteskundeetan gertatutako indar politikoen nagusitasuna aldatzean.

1999ko martxoaren 15ean Nafarroako Gobernuak Nafarroako Teknologia--Plana (2000-2003) onartu zuen; horrek lau urterako 19.937 milioi pezetako aurrekontua dauka. Planak Nafarroako teknologia-eskaintza eta eskaria aztertu nahi ditu Erkidegoko beharrak jakiteko. Bere helburuak enpresen lehiagarritasuna hobetzea eta enplegua sustatzea dira, jarduera teknologikoa sendotzearen bitartez. Ekintza--planak zazpi proiektu ditu, denak enpresek proposatutakoak: *Centro Tecnológico Nacional de Energías Renovables*; Berrikuntza Parkea edo Parke Teknologikoa; *Centro de Investigación Médica Aplicada*; *Instituto de Agrobiotecnología*; *Centro Experimental Navarro del Automóvil*; formazio profesionaleko zentroentzako teknologia berriak; informazio eta komunikazioko teknologietarako inbertsioak.

5.2.3. Berrikuntza-sistema

Gorago komentatu dugun bezala, berrikuntza-sistema legez ikertzeko, ez dugu osagai desberdinetan eta horien jardueretan eskualdean erreparatu behar; izatez, berrikuntzaren arloko harremanak dira garrantzitsuenak.

"*REGIS Project: Designing for the future*" delako ikerketa-proiektua 1996-1998 tartean burutu zen, Europako Batzordeak finantzatuta. Bertan egileok parte hartu genuen. Bere emaitzen arabera, berrikuntzaren arloan EAEko enpresek ez dute elkarlanik burutzen beste enpresa edo eragile batzuekin, horretarako kanpo-zerbitzuen prezio altuak seinalatuz, hala nola eskaintza egokiaren gabezia eta, kasu askotan, eskaintza teknologikoaren gaineko informazio-gabezia.

Unibertsitatearen eta enpresen arteko harremana, zehatzago, oraindik ahulagoa da, unibertsitatean burututako lanek daukaten konfidentzialtasunik ezagatik, lan erritmo desberdinengatik, eta unibertsitatean eman beharreko pauso burokratikoengatik. Hala ere, arlo batzuetan unibertsitatearen eta produkzio munduaren arteko nolabaiteko elkarlana dakusagu: ingeniaritza-, kimika- eta medikuntza-arloetan esate baterako.

Zentro teknologikoen kasuan, eskaintza teknologikoa ez da hain zuzen enpresek behar dutena, zentroek ez baitituzte enpresen benetako beharrak ezagutzen. Bestalde, proiektu europarretan aritzen direnez, zentro teknologikoen zerbitzu teknologikoak ez datoz bat EAEko produkzio-sistemarekin. Dena den, nahiz eta kasu gehienetan gertatu ez, arlo batzuetan zentro teknologikoak enpresei laguntza handia eskaintzen ari dira berrikuntzari dagokionez.

Nafarroako Foru Erkidegoari dagokionez, hasteko, ikerketa eta garapenaren arloan enpresen eta zentro teknologikoen arteko elkarlana oso eskasa da. Nafarroako Gobernuak eskatutako Plan Teknologikoaren Emaitzen Txosteneko datuetan ageri denez, enpresek analisi-zerbitzuen, kalitatearen eta formakuntzaren bila jotzen dute zentroetara; baina I+G-ren arloan inbertituriko ehunekoa oso txikia da. 1997. urtean enpresekin harreman handiena eduki zuten zentroak CETENASA eta AIN izan ziren, beren izaera multisektoriala dela eta. Enpresek ehuneko txiki horren gainean eskainitako azalpena hauxe da: zentroen eskaintzaren ezjakintasuna, eskaintzaren gabezia eta teknologia-maila apala (AIN, AIZ, CETENASA, 1998).

I+G arloan, unibertsitatearen eta enpresen arteko elkarlanak zertxobait sendoagoa dirudi. Hala ere, desberdintasun nabarmena dago Nafarroako unibertsitateen artean. UPNAko unibertsitate-sailek 1997. urtean 58 enpresatarako egin zuten lan, azpimarragarriak izanik Ingeniaritza Elektrikoa eta Elektronikoa, Nekazaritza-Produkzioa eta Kimika Aplikatua izeneko sailak; elkarlanean 30 enpresatarako baino gehiago lan egin zuten. UNen kasuan, 129 enpresatarako egin zuten lan, Eraikuntza saila azpimarragarria izanik: 1997. urtean sail horrek 90 enpresarentzat egin zuen lan, eta Kimika Organikoa eta Farmazeutikoa izeneko sailak 12 enpresarentzat (AIN, AIZ, CETENASA, 1998).

Hirugarrenik, unibertsitateko sailen eta zentro teknologikoen artean harremanak daudela dakusagu, nahiz eta beren jardueren bitartez oso mugatuta egon. Horrela, zentro sektorialek, espezializazio gogorra dela eta, oso harreman gutxi dituzte unibertsitateko sailekin, jarduerak ez baitatoz bat. Era honetan, CETENASAk

bakarrik dauka UPNAko sail batzuekin harremana, bien teknologia-esparruen antzekotasunagatik.

BIBLIOGRAFIA

Ain, Aiz, Cetenasa (1998): *Informe Final de Resultados*. Plan Tecnológico de Navarra. Gobierno de Navarra.

Biehl, D. (1988): "Las infraestructuras y el desarrollo regional", *Papeles de Economía Española*, 35 zkia., 293-310 orr.

Bizkaiko Foru ALdundia (1999): *Bizkaiko errepideen plana*, Herri Lan eta Garraio Saila.

Chamber of commerce and industry of Bayonne – Basque Country: http://www.bayonne.cci.fr/english/frames_eng/transporter_eng.htm

EEKK (Europako Elkarteen Batzordea) (1993): *Crecimiento, competitividad, empleo. Retos y pistas para entrar en el siglo XXI (Libro blanco)*, Brusela.

EITE: http://www.eite.es

EJ eta FFAA (Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak) (1996): *Euskadi XXI: Plan Interinstitucional de Infraestructuras y Revitalización de Áreas Desfavorecidas*, Gasteiz.

Estevan, A. eta Sanz, A. (1996): *Hacia la reconversión ecológica del transporte en España*, Los libros de la catarata, CC.OO., Bakeaz.

Etxebarria, G. eta Franco, H. (2000) "Euskal Herriko errepide sarea", *Euskonews & Media* (Aldizkaria on-line), 2000/5-26/6-2.

Euskadi 2000HIRU (2000): http://www.euskadi.net/infraestru/indice_c.htm

Euskal Herriko Unibertsitatea: http://www.ehu.es

Eusko Jaurlaritza (2000): *Ikerketa eta garapena (I+D) Euskadin*. Eusko Jaurlaritza.

Eusko Jaurlaritza (2001): *Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación 2001-2004*. Gobierno Vasco.

Gobierno de Navarra (2000): *Plan Tecnológico de Navarra 2000-2003*. Gobierno de Navarra.

Gobierno de Navarra: http://www.cfnavarra.es

Gómez Uranga, M. eta Etxebarria, G. (1993): "Networks and spatial dynamics: The case of the Basque Country", *European Planning Studies*, vol. 1 number 3, 299-319. orr.

Gómez Uranga, M., Franco, H. eta Etxebarria, G. (1998): "Las redes de infraestructura y el desarrollo regional", in: Arizkun, A., Galarza, E. eta Gómez Uranga, M. (Koord.), *Soberanía Económica y Globalización en Euskal Herria*, Fundación Manu Robles-Arangiz Institutua, Bilbo.

Gómez Uranga, M. eta Etxebarria, G. (1994): "Institutional Agreements and Long--term Infrastructure Finance Schemes", EAEPE 1994 Conference, Challenges to Institutional and Evolutionary Economic Theory: Growth, Uncertainty and Change, Copenhagen, Denmark, 27-29 October.

Gomez, M eta Borja, A. (1996): "Análisis de las estructuras de interfaz en el sistema de innovación de la Comunidad Autónoma Vasca" in *Ekonomiaz*, nº 35, 1996, 213-243. orr.

INE: http://www.ine.es

Llorens, J. eta Larraya, J. (1990): "Las infraestructuras de comunicación en el País Vasco", *Papeles de Economía Española, Economía de las Comunidades Autónomas, País Vasco*, 105-136. orr.

Lundvall, B.A. (1992): *National Systems of Innovation: Towards a Theory of Innovation and Interactive learning,* Ed. Pintor, London and New York.

MOPT (Ministerio de Obras Públicas y Transportes) (1993): *Plan Director de Infraestructuras 1993-2007*, Madril.

Universidad de Deusto: http://www.deusto.es

Universidad de Navarra: http://www.unav.es

Universidad Pública de Navarra: http://www.unavarra.es

6. Sektoreen arteko banaketaren bilakaera

Mikel Zurbano

Atal honetan euskal ekonomiaren emaitza produktiboaren azterketa gauzatzen da. Horretarako analisi ekonomikoaren ohiko jarduerak hartuko dira oinarritzat: lehen sektorea, nekazaritza eta arrantza biltzen dituena; bigarren sektorea, zeinak industria gune gisa duen, baina energia eta eraikuntza ere oratzen dituen; eta hirugarren sektorea, beste biek hartzen ez dituzten jarduerez osatzen dena. Joan den mendearen lehen erdian Fisher eta Clark egileek hezurmamitutako jarduera produktiboak sailkatzeko irizpide horrek, jaso dituen kritikak ahazteke, indarrean dirau oraindik. Izan ere, herrialdeetako informazio ekonomikoak sistematizatzeko eta plazaratzeko, oinarrizkoa da sailkapen hori. Hartara, euskal ekonomiaren jarduera produktiboaz egiten den azterketa sailkapen horretan oinarritzen da.

Industria-iraultzaren ostean jarduera produktibo batzuek indarra galdu duten bitartean, beste batzuk, aldiz, suspertu eta hedatu egin dira, etenik gabeko prozesu bat abiaraziz. Egiturazko aldaketa edo aldaketa estruktural gisa ezagutzen den joera ekonomiko ezaguna da hori. Horren bitartez, herrialdeetako ekonomia-egituretan izandako aldaketen norakoa eta nolakoa azaltzen da. Laburbilduz, azken mendean, lekuan lekuko erritmoekin, mendebaldeko herrialde gehienek —Euskal Herria barne— lehen sektorearen pisuaren galera etengabea bizi izan dute. Horrekin bat, hasierako industria indartzearen ondoren, bere geldiunea eta, hainbatetan, desindustrializazioa ere ezagutu izan da azken hamarkadetan. Azkenik, hirugarren sektoreko zerbitzu-jarduerek aparteko goraldia izan dute berriki. Tertziarizazio-dinamika hori egiturazko aldaketa-prozesu historikoaren azken joera da, eta gaur egungo ekonomian eztabaida eta hausnarketarako giltzarri bihurtu da.

Atal honetan Euskal Herriko ekonomiaren sektore nagusien egoera eta bilakaera aztertuko ditugu. Honekin bat, testu honen helburua euskal ekonomiaren sarrera egitea den arren, errealitate konplexuak sintetizatzeak ekartzen dituen oztopo analitikoez eta informazio-galeraz ohartarazi behar dugu. Hasteko, sektoreen arteko doikuntzaren bilakaerari erreparatuko diogu, euskal ekonomiaren egiturazko aldaketen gako nagusiak ulertzeko. Ondoko gaietan, sektore ekonomiko bakoitzaren gaur egungo dinamikaren aspektu nagusiak eta eragile behinenak islatuko dira.

6.1. EGITURAZKO ALDAKETA EUSKAL HERRIAN

Arestian aipatu dugun bezala, gai honen muina Hego Euskal Herriko sektore produktiboen egituraren azterketa da. Aurreratu dugunez, jarduera produktibo nagusien gaur egungo banaketa prozesu ekonomiko konplexuen emaitza da. Euskal Herriko sektoreen ibilbidea, ezaugarri bereziak dituen arren, ez da sobera aldentzen inguruneko beste herrialde industrializatuek erakusten duten dinamikatik. Sektore nagusi bakoitzak herrialdeko enpleguan zein produktuan duen ekarpena irizpidetzat harturik, euskal ekonomia mendebaldeko beste eremuekin alderatuz ikus daiteke hori. Horrela egin da 6.1. eta 6.2. irudietan. Lehenengoak, 6.1. irudiak, Hego Euskal Herriko eta Europako Batasuneko (hamabost estatu) produktuaren —balio erantsi gordin gisa definiturik— egitura sektoriala erakusten du. Bigarrenak, 6.2. irudiak, bi esparru horietan enpleguaren sektoreen banaketa islatzen du. Bietan, nabarmen geratzen da euskal ekonomian ere hirugarren sektorea dela produktugintzan ekarpen nagusia egiten duena eta enplegu gehien sortzen dituena; alde handiz, gainera. Izan ere, Hego Euskal Herrian zerbitzuek %60ko ekarpena egin zieten 1998an bertako produktuari eta enpleguari.

6.1. irudia. Balio Erantsi Gordinaren egitura sektoriala Hego Euskal Herrian eta Europako Batasunean. 1998



Iturria: Eurostat eta INE

Bestetik, Europako Batasunean bezala, Hego Euskal Herrian ere lehen sektorearen pisua oso txikia dela esan daiteke, hala ekoizpenari nola enpleguari eginiko ekarpenaren ikusmiratik. Egoera hori nekazaritzaren eta arrantzaren gaur egungo kinka larriaren erakuslea da. Hain zuzen, Europako Batasunaren sorgunetik politika bateratu garrantzitsuena izan dena, hots nekazaritza-politika bateratua, ez da gai izan Europan nekazaritzaren ustiakuntzen gainbehera era egokian saihesteko. Horiek horrela, merkatu bakarrak nekazaritza- eta arrantza-jardueretako doikuntza bizkorra ekarri du, eta hainbat ustiakuntza txiki eta ertainen galera areagotu du. Joera hori Euskal Herrian ere agerikoa izan da, eta sektorearen krisi larria agerikoa da hemen.

6.2. irudia. Enpleguaren egitura sektoriala Hego Euskal Herrian eta Europako Batasunean. 1998



Iturria: Eurostat eta INE

Industriari dagokionez, industriak euskal ekonomian duen presentzia erlatiboa Europako Batasunarena baino handiagoa da, produktuei zein enplegu-aldagaiei begira (ikus 6.1. eta 6.2. irudiak). Euskal Herrian, eta batez ere Bizkaian, laurogeiko hamarkadan izandako industria-eraispena biziki gogorra izan arren, gaur egun bertako ehun produktiboaren eta enpleguaren ehunekobeste handia (%32 eta %28, hurrenez hurren) industria-adarrek osatzen dute. Europako Batasuneko industriaren parte-hartzea atzean uzten du euskal industriarenak (zortzi bat puntu gutxiago produktuari zein enpleguari erreparatuz), eta horrek agerian uzten du euskal industriaren indarra eta potentzialtasuna fordismoaren osteko garai hauetara ere iristeko gauza izan dela, industrializazio zaharreko beste lurralde batzuetan ez bezala.

Hala ere, jarduera produktiboen egituraketa hori nahiko berria da Euskal Herrian. Duela hogei urte, euskal ekonomiaren jarduera produktiboaren argazkia bestelakoa zen. Orduan, 1970eko hamarkadaren erdialdean alegia, euskal ekonomiaren produktuaren erdia baino gehiago industria-jarduerek ekoizten zuten. Aurreko hamarkadetako industria-bultzadak industriaren nagusitasuna ekarri zuen Euskal Herriko ekonomiara, batik bat industria astunaren hedapenean oinarriturik. Mendebaldeko ekonomietako garapen-eredu fordistak porrot egitean, eredu horretan oinarrituriko euskal industriak ere izugarrizko larrialdia jasan zuen.

Euskal Herriko industriaren gainbehera, industria-jarduerek euskal ekonomian ekoitzitako parte-hartzea gutxitzean islatzen da. 6.3. irudiak erakusten duen legez, euskal ekonomiaren produktuaren erdia baino gehiago (%54) industriala zen 1975ean. Era berean, erditik gorakoa zen euskal industriak 1985ean ere produktuari egindako ekarpena, arrunt bitxia zena garaiko mendebaldeko ekonomietako esparruan. Ondoren, industriaren pisu erlatiboa are gehiago beheratu zen, eta, horrela, 1990eko lehen zatian industria ez zen sektore nagusia izan. Hamarkada horretako bigarren erdian, aldiz, industriaren susperraldi berria suma daiteke. Beraz, desindustrializazioa fenomeno berantiarra da euskal ekonomian, eta, garrantzitsua izan arren, ez da oso sakona izan; gainera, azken joerak egiaztatzekotan, bereak egin duela dirudi.

6.3. irudia. Balio Erantsi Gordinaren (faktoreen kostuetan) egitura sektoriala Hego Euskal Herrian (pezeta konstanteak)



Iturria: BBVA

Ostera, zerbitzu-jarduerek Euskal Herriko produktuan egindako ekarpen erlatiboa hazi egin da azken hiru hamarkadetan, herrialde garatuetako tertziarizazio-dinamikari jarraituz, trinkotasunez apalago eta denboran atzerago bada ere. Honela, 6.3. irudiak erakusten du 1997 arte ezin izan zela zerbitzu-ekonomiaz mintzatu Euskal Herrikoa aipatzean. Gainera, industriaren inguruan aipatutakoaren beste aurpegia azalduz, produktuaren araberako tertziarizazio-maila Hego Euskal Herrian urrun kokatzen da mendebaldeko herrialde gehienen mailaren aldean. Dena den, irudi horretan egindako neurkerak zerikusi zuzena du emaitzen zenbatekoarekin. Izan ere, bertan urte desberdinetako balio erantsi gordina pezeta konstantetan dago neurtuta. Hots, prezio igoerengatik urtez urteko gainbalioespena sahiesten du indizeak. Jakina denez, zerbitzuen prezio-igoerak beste salkarienak baino handiagoak izan ohi dira. Hartara, prezio arruntetan eginiko neurkerak baino gutxiago balioztatzen du zerbitzuen produktua prezio konstantetan gauzatzen dena, eta zerbitzuetako ekarpena gutxiesten du. Horrek adierazten du 6.1. eta 6.2. irudietan azaltzen den sektore desberdinetako produktuaren parte-hartzearen desberdintasuna.

Azkenik, nekazaritzaren eta arrantzaren joera beherakorrak lehen sektorearen alboratze progresiboa ekarri du. Hego Euskal Herrian bederen, Nafarroako eta Arabako eskualde batzuen salbuespenarekin, nekazaritzaren eta arrantzaren murrizketak sektore horren krisi estrukturalarekin bat datoz, eta, ondorioz, gaur egun sektorearen bideragarritasuna zalantzan dago.

Bestalde, ekonomiaren eta sektoreen bilakaerak izaera propioa hartzen du herrialde bakoitzean. Nekazaritzagabetzeak, industriaren gainbeherak edo susperraldiak eta tertziarizazioak Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan eragin desberdina du, zenbatekoari zein garaiari erreparatuz gero. Prozesu horien emaitza, herrialdeetako osaketa sektorial desberdinean islaturik geratzen da. 6.4. irudiak errealitate sektorial horren argazkia erakusten du, sektore bakoitzak herrialdeko enpleguari eginiko ekarpenaren arabera neurtuta.

6.4. irudia. Enpleguaren egitura sektoriala herrialdeka



Iturria: INE

Nabarmena da, lehenik, Bizkaian zerbitzu-jarduerek duten indarra (bertako enpleguaren %63 inguru). Emaitzan zerikusia dute, batetik, hiri-aglomerazioan oinarrituriko ekonomiak eragindako bultzadak eta, bestetik, herrialde honetan izandako industria-eraispenaren ondorio eratorriak. Bizkaiko eszenatoki sektorialari amaiera emateko, aipatzekoa da lehen sektoreak duen presentzia urria eta industria-enpleguak adierazten duen %36 hori. Ehunekobeste horrek Hego Euskal Herriko beste hiru lurraldeen atzetik kokatzen du Bizkaia, industria-enpleguaren garrantziari dagokionez.

Araban eta Gipuzkoan ere zerbitzuetako enpleguaren portzentajeak beste bi sektoreetakoak baino handiagoak dira, %55 eta %56, hurrenez hurren, Bizkaiaren portzentajea gainditzera iristen ez diren arren. Bi herrialde horietan industria-enpleguaren indarrak apartekoa izaten jarraitzen du, mendebaldeko ekonomien batez bestekoa kontuan izanik (mendebaldeko enplegu osoaren %25-35 industriari dagokio). Beraz, bi herrialde horietan zerbitzuen hedapena industriaren oinarriaren finkatzearekin bat ematen ari dela esan daiteke. Nafarroan ere zerbitzuak dira nagusi, nahiz eta bertan hirugarren sektorearen presentzia erlatiboa beste lurraldeetan baino apalagoa den. Egitura sektoriala osatuz, industria-sektoreak pisu esanguratsua erakusten du Nafarroan ere, industrializazio garaikidearen dinamikaren ondorioz. Hala ere, Hego Euskal Herriko beste herrialdeekin alderatuz, Nafarroan nekazaritza-sektorea da bere garrantzia erlatiboagatik gailentzen den jarduera-multzoa.

7. Lehen sektorea

Yolanda Jubeto

Euskal Herriko ekonomian, lehen sektorearen garrantzia nabarmena izan zen industrializazio-garaia heldu arte. Kostaldean arrantza, mendialdeetan abeltzaintza eta basogintza, eta lurralde lauetan nekazaritza, horiexek izan ziren mendez mende jarduera ekonomiko nagusiak. Halaber, aurreko ataletan aipatu den bezala, zenbait eskualdetan burdinolak eta beste jarduera industrial eta komertzial batzuk bazeuden ere, aurrekoen osagarriak ziren eta ez zeregin nagusiak.

XIX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera industria gero eta garrantzi handiagoa hartzen joan zen heinean, Bizkaian bereziki, nekazaritza-jarduerak lekua galtzen hasi ziren. Joera hori beste lurraldeetara hedatuz joan zen, hasiera batean Gipuzkoara, eta XX. mendearen erdialdean, Araba eta Nafarroako landa-eremuak industrializatzen hasi ziren, baserria, han ere, bigarren lekuan geratuz. Gaur egun, ia Euskal Herri osoan, salbuespenak salbuespen (Zuberoan, Nafarroa Beherean, Erriberan eta Arabako Errioxan, adibidez), industria eta zerbitzuak jarduera ekonomiko nagusiak dira, inguruko herrialdeetan bezala.

Lehen sektoreari dagokionez, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren arteko lehia nabarmena izan da historian zehar, lurra mugatua baita. Era berean, basogintzaren eta baserriaren arteko lotura nahiko estua izan da, jarduera biak osagarriak izan baitira mendeetan zehar. Industrializazio-garaian, aldiz, lehen sektorearen eta industriaren arteko lehia zabaldu zen, eta borroka horretan industria bera eta behar izan dituen azpiegiturak garaile atera izan dira beti, nekazaritzaren eta, gehienetan, ingurugiroaren kalterako. Horren ondorioz, gaur egun, Euskal Herriko zenbait eremutan nekazaritza-jarduerak oso murritzak dira, edo dagoeneko desagertu dira.

Arrantzaren kasuan, euskal arrantzaleak ospetsuak izan dira mundu osoan, aspalditik adituak izan baitira jarduera horretan. Horrela, baleak harrapatzen, adibidez, oso trebeak izan ziren XVI. mendean, eta horrek Ipar Amerikako kostaldera eraman zituen, balearen bila ez ezik bakailaoaren bila ere. XVIII. mendetik aurrera Ingalaterraren boterea hedatuz joan zenean, arrantza-eremu horietatik alde egin behar izan zuten, eta hori zela kausa, zenbait portutan, bereziki Gipuzkoan, jarduera hori gainbehera joan zen. Bizkaian, ostera, indartsu jarraitu zuen, eta Lapurdin, kontserbatarako arrain-motatan espezializatu zirenez, kontserba-industria garatu zuten. Horrela, tradizionalki itsasoa gizonezkoen zeregina izan bada ere

(nahiz eta lehorreko lana bereziki emakumeek egin —sareak josi, arraina lonjetara eraman, garbitu, saldu, etab.—), eraldaketaren bidez emakumezkoek lanpostu ordainduak lortu zituzten sektorean.

XIX. mendean itsas baliabideen gehiegizko ustiaketa hedatu zen nazioartean, eta euskal flotak ere horren ondorioak jasan behar izan zituen. Bilakaera hori areagotu egin da XX. mendean, eta arrantzarako teknikak eta itsasontzi berriek eragin handia izan dute horretan. Oro har, itsasoa industria modura kontsideratu izan da, itsasoko baliabideek beren biziraupenerako legeak jarraitu behar dituztela kontuan hartu gabe; horrela, areagotu egin da espezieak agortzeko arriskua, zenbait kasutan gertatu den bezala. Herrialde eta nazioarteko legeak, hala ere, ez dira gai izan, orain arte, arazoa konpontzeko; eta aurrerago ikusiko dugunez, arazoak gero eta latzagoak dira sektore honetan.

Beraz, gaur egun, lehen sektorearen pisua gero eta murritzagoa da Euskal Herrian, bai langile-kopuruaren aldetik eta bai sortzen duen ekoizpenaren balioaren aldetik ere. Hori dela eta, praktikan ematen zaion garrantzia gero eta txikiagoa da, kontuan hartu gabe bere pisua ezin dela neurtu oinarritzat aldagai kuantitatiboak bakarrik hartuz, hau da, balio erantsi gordinaren bilakaera aztertuz soilik. Ezin da ahaztu natur baliabideen erabilerak izaten duen garrantzia, oreka ekologikoa, soziala eta kulturala mantentzeko, elikaduraren kalitateak gizartearen osasunean duen eragina, auto-hornikuntza menpekotasun ekonomikoaren aurrean duen balioa, eta bestelako arrazoiak tartean daudelarik.

Hori dela eta, hurrengo orrialdeetan sektorearen bilakaera aztertzeko egingo dugun deskribapenean, batez ere aldagai kuantitatiboak kontuan hartu ditugun arren, gogoan izan behar dugu badaudela beste aldagai kualitatibo batzuk ere, neurtzeko zailtasunak erakusten dituztenak, baina hala ere garrantzitsuak direnak.

7.1. LEHEN SEKTOREAREN BEG-AREN ETA ENPLEGUAREN BILAKAERA

Ohikoa da sektore baten garrantzia neurtzeko Balio Erantsi Gordinaren (BEG) bilakaera aztertzea. Izan ere, ekoizpen-mota horrek —kasu honetan, lehen sektoreak— sortzen duen aberastasun materiala balio monetarioetan neurtzen duen aldagaia da BEG delakoa. Eta aldagai horren arabera, hurrengo irudian ikus daitekeenez (7.1. irudia), Hego Euskal Herrian lehen sektorearen pisua —euro konstantetan neurtuta (inflazioaren eragina baztertzeko)— ez da azken hamarkadetan 601 milioi eurotik gora igo; eta gorabeherak izan baditu ere, 90eko hamarkadan jaitsierarako joera nabaria izan du.

7.1. irudia. Lehen sektorearen Balio Erantsi Gordinaren bilakaera, 1955-97 (Faktoreetako prezioetan) (1986ko urteko milioi pezetatan)



Iturria: Fundación BBV, 1999

Hain zuzen, 60ko hamarkadan igo ondoren, ekoizpenaren balioak geldialdi gorabeheratsuak ezagutu eta beheranzko joera nabaria nozitu zuen hurrengo urteetan, bereziki 1990eko hamarkada aurrera joan ahala. 1995eko ekoizpen-maila 1975ean izandakoa baino txikiagoa izan zen; beraz, lehen sektorearen pisua gero eta txikiagoa da euskal ekoizpenaren egituran. Halaber, azken lau hamarkadetan BEGaren igoera 1955ekoa baino 1,28 aldiz handiagoa izan da soilik; beste sektoreetan, aldiz, igoera 4,4 aldiz handiagoa izan da epe horretan.

Hurrengo grafikoan (7.2. irudia) argi ikusten da ezen sektore guztiak batera ekoitziriko Balio Erantsi Gordinarekin alderatuz gero, lehen sektorearen BEGaren garrantzia nabarmen jaitsi dela azken hamarkadetan lau herrialdeetan, nahiz eta Nafarroan oraindik ere %5 ingurukoa den.

7.2. irudia. Lehen sektorearen pisua BEG osoarekiko (1955-1997)



Iturria: Fundación BBV (1999).

Horrela, Hego Euskal Herrian 1998an BEG osoaren %2,71 ordezkatzen zuen lehen sektoreak. Eta horren barruan, adar nagusiak kontuan hartuz, arrantzak eta akuikulturak Balio Erantsi Gordinaren %14,5 sortzen zuten bitartean, nekazaritzak, abeltzaintzak eta basogintzak BEGaren %85,5 osatzen zuten.

Herrialdeen arteko desberdintasunak nabariak dira. Nafarroak ekoizpen handiena izan du beti, Gipuzkoa bigarrena izan da, nahiz eta zenbait urtetan Bizkaia

bigarren lekuan kokatu; azkenik, Arabak pisu txikiena du, nahiz eta hazkundeko joera izan, txikia bada ere.

Lehen sektorean jarduten duten pertsonen kopurua behera joan da etengabe azken hamarkadetan, eta gaur egun joera horrek indarrean dirau, 7.3. irudiak erakusten duenez. 1998an Hego Euskal Herri osoan 38.000 pertsonak soilik lan egiten zuten lehen sektorean, eta 2000. urtean mendebaldeko hiru herrialdeetan, langileen kopuruak %27ko jaitsiera nozitu du, aurreko urtearekin alderatuz.

1998an, Hego Euskal Herriko langile guztien %3,7k lan egiten zuten lehen sektorean: EAEn langile guztien %3,1 eta Nafarroan %5,5.

7.3. irudia. Lehen Sektoreko Enpleguaren bilakaera (Pertsonen kopurua)



Iturria: BBV

7.2. LEHEN SEKTOREAREN BANAKETA GEOGRAFIKO ETA SEKTORIALA

Hego Euskal Herriko lehen sektoreari dagokionez, bi eremu geografiko bereiz daitezke. Alde batetik, Bizkaia, Gipuzkoa gehi Nafarroako eta Arabako iparraldeak, non abeltzaintza eta basogintza diren jarduera nagusiak, arrantzarekin batera kostaldean. Beste aldetik, Arabako eta Nafarroako hegoaldean nekazaritza da jarduera nagusia (zituak, patatak, azukre-erremolatxa, ardoa, fruituak eta barazkiak...). Banaketa horrek harreman zuzena dauka klima eta ezaugarri orografikoekin. Kostaldean eta Pirinio aldean mendiak eta aldapak nagusi dira, eta horregatik, Europako Batasunak egiten duen sailkapenaren arabera, EAEko %85 mendiko nekazaritzako eremutzat hartzen da, eta baita Nafarroa Garaiko iparraldea ere.

Nekazaritzako azpisektoreen ikuspegitik, azken hamarkadetan ekoizpenaren espezializazioak aldaketak ezagutu ditu, hurrengo taulak erakusten duen bezala (7.1. taula). 90eko hamarkadaren erdialdera arte, abeltzaintza izan da azpisektore nagusia, baina handik aurrera, garrantzia galtzen joan da, eta basogintzaren garapenarekin batera nekazaritzaren ekoizpenak bere pisu erlatiboa mantendu du, 1998an ekoizpen guztiaren %43 izanik.

7.1. taula. HEHko Nekazaritza Azpisektoreen Araberako Ekoizpena (%)

	1985*	1998*
Nekazaritza	43,7	43,9
Abeltzaintza	47,5	31,1
Basogintza	6,4	22,8

*Hondarrak beste jarduera batzuen emaitzak dira.

Iturria: BB, 1985 eta Euskadiko Kutxa, 1998.

7.2.1. Nekazaritza eta Abeltzaintza

Sektore hauetan ustiategi gehienak oso txikiak dira; gainera, familia-ustiategiak dira, ez industrialak. Beraz, jabetza oso banatuta dago, eta 1989ko Nekazaritza-erroldak jasotzen zuenez, Nafarroako ustiategi guztien %60ren eta EAEkoen %53,3ren azalera 5 hektareakoa edo txikiagoa zen. 1999ko erroldaren arabera, aldiz, ustiategiak handiagoak dira, EAEko ustiategien batez besteko azalera 15,3 hektareakoa izanik.

Nafarroako kasuan, Nekazaritzako Produktu Guztiaren bilakaerak 90eko hamarkadan erakusten digunez, landare-produkzioaren balioa abeltzaintzarena baino gehiago hazi da, eta gero eta distantzia handiagoa dago bien artean. 1996ko datuen arabera, landare-produkzioa ekoizpen osoaren %54 zen, eta horren barruan zerealak ziren ekoizpen nagusia (bereziki garagarra eta garia), produktu guztien %21,49ko ekarpenarekin. Landare-produkzioan bigarren lekuan barazki freskoak zeuden, baina beheranzko joerarekin azken urteotan, fruta freskoaren kasuan bezala. Aldiz, ardoak gero eta pisu handiagoa zuen ekoizpen horretan.

Abere-aziendei dagokionez, produktu gehien txerriek ematen dute, eta ondoren hegaztiek eta behiek. Gero eta txerri gehiago daude (1994an 337.674 buru zeuden eta 1997an 464.758 buru) eta behi-azienda ere igo zen 90eko hamarkadan (1994an 96.828 behi-buru zeuden eta 1997an 110.992 buru). Beste aldetik, ardien kopuruak, nahiz eta handia izan (1997an 809.356 buru), beheranzko joera izan du (1994an 887.003 ziren); eta horien produktuen pisua ere txikia zen.

Hego Euskal Herriko gainerako hiru herrialdeei dagokienez, ustiategi handienak Araban daude eta txikienak Gipuzkoan. Ekoizpenei dagokienez, EAEn ere nekazaritzak abeltzaintzak baino ekoizpen handiagoa ematen du. Lehendabizi, azpimarratzekoa da ardoaren ekoizpenak daukan pisua, Nekazaritzako Produktu Guztiaren laurden batek mahastien eraldaketak sortzen baitu. Horrek barazki eta fruituen pisu txikia erakusten du, bai maila absolutuetan bai erlatiboetan. Dena den, beste produkzioetan patatak eta erremolatxak duten pisua handia da.

Abereen okelari dagokionez, EAEn behiak dira nagusi, eta txerriak eta ardiak atzetik daude, behi-esnearen produkzioa oso garrantzitsua izanik. Abeltzaintzako erroldaren arabera, 10.705 ustiategik behi-aziendak dituzte, 180.000 buru guztira. Halaber, ardi-azienda asko hazi da, batez ere Bizkaia eta Gipuzkoan; txerri-azien-

dak, aldiz, beheraka egin du. Horrez gain, hegaztien beherakada eta untxi-aziendak izandako gorakada izan dira mugimendu nabarmenenak.

7.2. taula. Nafarroa eta EAEko Nekazaritzako Produktua Guztira 1996/98an (milioi eurotan)

	Nafarroa Garaia 1996*		EAE 1998*	
	Milioi €	**%**	**Milioi €**	**%**
Zituak	119,99	21,49	32,35	8,04
Barazki freskoak	72,81	13,04	51,12	12,7
Ardoa eta muztioa	64,77	11,6	99,18	24,6
Fruta freskoak	9,17	1,6	11,45	2,8
Beste landare-produktu batzuk	35,21	6,3	42,99	10.68
Landare-Produkzioa	**301,94**	**54,08**	**237,08**	**58,9**
Txerri-aziendaren haragia	80,18	14,36	7,84	1,94
Behi-aziendaren haragia	34,74	6,22	37,41	9,29
Ardi/ahuntz-aziendaren haragia	17,81	3,19	7,74	1,92
Hegaztiak	38,62	6,9	—	—
Beste abere batzuk	7,48	1,3	—	—
Esnea	51,90	9,29	72,15	17,9
Arrautzak	23,58	4,2	18,59	4,62
Abereen beste produktu batzuk	2,04	0,36	21,49	5,34
Abere-produkzioa	**256,35**	**45,91**	**165,22**	**41,06**
Guztira	**558,29**	**100**	**402,30**	**100**

Iturriak: Nafarroako Gobernua (1998), Eusko Jaurlaritza (1999) eta EEGAB (2000)

Nekazaritzako Azalera Erabilgarriari (NAE) dagokionez, 259.394 hektarea dira guztira, hau da, erroldatutako azaleraren (606.464 hektarea) erdia baino zerbait gutxiago; hots, %43 nekazaritzarako erabiltzen da. NAE gehiena Araban dago, 132.279 ha; Bizkaian 67.239 ha daude, eta Gipuzkoan, berriz, 59.874 ha.

Jabetzari dagokionez, EAEn dagoen nekazaritza-azaleraren %82 bere jabeek erabiltzen dute, nahiz eta desberdintasun nabariak egon herrialdez herrialde. Gipuzkoan ia lur guztia jabetza-erregimenean ustiatzen da, baina Araban alokatzea da nagusi.

Langileei dagokionez, soldatapeko langileen kopurua nabarmen igo da, azken bi errolda alderatzen baditugu. 1989an 2.340 soldatapeko langile izatetik 1999an 5.501 izatera pasatu dira; igoera nagusia Araban gertatu da.

7.2.1.1. Europako Nekazaritzako Politika Bateratuaren eragina

Sektore honen bilakaeran berebiziko garrantzia izan du 1986an Espainia Europako Elkartean sartu izanak. Europako Elkartean, nekazaritza-sektorea Nekazaritzako Politika Bateratuaren bidez (NPB, normalean PAC edo CAP izenarekin ezaguna dena) araututa dago. Europako Ekonomia Elkartea (EEE) sortu zenetik,

1958an, politika hori lehen politika komuna izan zen, eta, halaber, hamarkadetan zehar Elkarteko aurrekontuaren onuradun nagusia izan da. Zenbait urtetan aurrekontu osoaren ia hiru laurdenak berari zuzenduta egon dira, eta gaur egun aurrekontuaren erdia, gutxi gorabehera, politika horretara zuzenduta dago.

Politika hori sortu zenean, Europa gerraosteko ondorio latzak pairatzen ari zen, eta ondorioz, nekazaritza-produktuen defizit izugarria zuen. Hori zela eta, produktu batzuen ekoizpena babestu zuten, eta nekazariei dirulaguntzak ematen hasi ziren. Testuinguru horretan, eta landareekiko ikuspegi produktibista nagusi izanik, babesturiko produktuen soberakinak sortu ziren bi hamarkadatan, eta politika horrek bai Elkarteko aurrekontuetan bai nazioarteko merkataritzan desorekak eragin zituen. Horrela, 1984an, eztabaida luze batzuen ondoren, EEko estatu kideek zenbait produktutan ekoizpen-kuotak ezartzea erabaki zuten. Arauturiko lehendabiziko produktua esnea izan zen, esnekien soberakinak oso handiak zirelako.

Europako Batasunak Fondo baten bidez bideratzen ditu NPBak nekazaritza-sektoreari zuzendutako Elkarteko finantza-baliabideak. Fondo horrek FEOGA izena du —Europako Nekazaritza Bermatzeko eta Bideratzeko Fondoa euskaraz, ENBBF. Hain zuzen, Bermatzeko Atalak nekazaritza-aurrekontuaren parterik handiena kudeatzen du, %90 gutxi gorabehera. Nekazaritza-jardueraren ikuspegi sektoriala du tresna horrek, eta Europan ekoitziriko zenbait produkturi laguntza-mota desberdinak ematen dizkie NPBak. Hori dela eta, dirulaguntzen banaketa geografikoa nahiko kontzentraturik dago. Esaterako, 90eko hasieran nekazarien %20k Elkarteko laguntzen %80 jasotzen zuten, eta gaur egun, nekazarien %4k jasotzen dute laguntza horien %40.

NPBak sorturiko desorekak beste erreforma baten bidez gainditzen saiatu ziren 1992an. Erreforma horrek nekazarien errenta zuzenak babesteko laguntzak, nekazaritza-jarduera uztearen aldeko laguntzak eta, bereziki, 55 urtetik aurrera aurre-jubilatzeko planak, besteak beste, zabaldu zituen nekazarientzat. Hala ere, arazoak ez ziren konpondu, eta nahiz eta 1994an eta 1999an NPBak berriz erreformak jaso, Elkarteko laguntzen egitura eta funtzionamendua ez dira guztiz aldatu, eta horrela gaur egun desorekak sorrarazten jarraitzen du lurraldeetan eta sektorean.

Beraz, Espainiako Erresuma Europako Elkartean sartu zenean, erakunde hau Nekazaritzako Politika Bateratuak sorturiko desoreken erreforma-prozesuaren erdian zegoen. Egoera horri Espainiako administrazioak Elkartean sartzeko negoziazioetan erakutsitako jarrera ahula gehitzen badiogu, sektorea nahiko kaltetuta atera zela ondoriozta daiteke. Adibidez, esne-kuotaren kasuan, argi geratu zen EEEren asmoa Espainiako estatua soberakinen kontsumitzaile bilakatzea zela, eta ez ekoizle. Espainiako estatuari esleitutako ekoizpen-kuota, garai horretan ekoizten zuen esne-kantitatea baino milioi bat tona gutxiagokoa izan zen, eta autokontsumorako behar zuena baino bi milioi tona gutxiagokoa. Horrela, Estatuko sektorearentzat negoziazioetan onarturiko baldintzak kaltegarriak izan ziren, bereziki Hego Euskal

Herria bezalako eremuetan, non ustiategiak txikiak ziren eta ekoizkortasuna edo produktibitatea ere baxua zen.

Laguntzak zirela eta, Hego Euskal Herrian desberdintasun nabariak egon dira Nafarroa Garaian eta gainerako lurraldeen artean. Nafarroan nabarmen handitu zen laguntzen kopurua, bereziki 1992ko erreformaren ostean. Hala, 1982an ustiapen--subentzioak Nafarroako Laborantzako Ekoizpen Osoaren (PFA-LEO) %1 baziren, 1994an %17ra igo ziren. Horren ondorioz, nekazaritza-errentaren %25,7 diru-laguntzetatik dator gaur egun, eta, horrela, Europako nekazaritza-politikarekiko menpekotasuna gero eta handiagoa da sektore honetan.

Espainiako estatuaren EEekiko atxikimenduak Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen eskuduntzen galera ekarri zuen. Autonomia-estatutuak indarrean jarri zirenetik lehen sektorearekiko eskumenak autonomia-erkidegoen esku geratu ziren; baina atxiki ondoren, berriz Espainiako Administrazio zentralak hartu zituen bere gain gai horien negoziazioak, esklusibitatez gainera. Beraz, bai atxikimendu-itunean bai ondorengo negoziazio guztietan, negoziatzaile eta bitartekari bakarra Estatua izan da, aurreko eskuduntzen banaketa kontuan hartu gabe. Horrek sarritan kexak ekarri ditu Euskal Administrazioen partetik, beren proposamenak bideratuak izan ez direlako.

7.2.1.2. Nekazaritzaren aukera nagusiak

Azken hamarkadetan, beraz, sektorearen pisuaren jaitsiera gertatu da, eta horrekin batera, nekazarien zahartze-prozesu bat gertatzen ari da. Horrez gain, lur egokienak industriak eta eraikuntzak eskuratzen dituztela salatzen du sektore horretako sindikatua den EHNEk, eta laborarientzat geratzen direnak «eskasak eta aldapan daudenak izan ohi direla» dio. Lur-faltak nekazaritza intentsiboa bultzatzen du, eta hori erabat kaltegarria da sektorearen etorkizunerako, besteak beste.

Sektorearen arazoak askotarikoak badira ere, beste aldetik baditu aukera batzuk. Adibidez, nekazarien prestakuntza-maila gero eta altuagoa da, zenbait ekoizpenetan kooperatibak hedatzen ari dira, eta elkarteak gero eta ugariagoak dira. Sindikalgintzaren arloan, gehienak Euskal Herriko Nekazarien Elkartean daude afiliaturik, hau da, EHNE-UAGA konfederazioan. Bigarren mailan UAGN (*Unión de Agricultores y Ganaderos Navarros*) eta ENBA daude, azken hau nahiko berria dena.

Gaur egun, kalitateak, ingurugiroak eta jatorrizko izendapenak gero eta garrantzi handiagoa dute, eta horiek aukera berriak irekitzen dituzte merkatu gero eta zorrotzagoan. Kalitate-labelen edota euskal edo nafar-jatorrizko izendapenen barruan hogeiren bat produktu daude sailkatuta. Halaber, gero eta kontzientzia handiagoa dago, etorkizunari begira, kalitatea eta lankidetza bultzatze aldera.

Nafarroako kasuan, nekazaritza-jarduerak sustatzeko zerbitzu onak daude, Kudeaketarako Institutu Teknikoen bidez —gaztelaniaz ITG edo *Instituto Técnico*

de Gestión—. Institutu horiek Nafarroako Gobernuaren eskutik sortu ziren 1980an, eta hasiera batean produktu zehatzak laguntzeko sortu baziren ere, aurrerago sektore osoaz arduratzera pasatu dira, eta gaur egun, bi ataletan daude banaturik: Nekazaritzarako ITGak eta Abeltzaintzarako ITGak. Biak nahiko lagungarriak dira sektorean.

7.2.2. Basogintza

Basogintza oso jarduera ziklikoa da. Zuhaitzak landatzen direnetik hamarkada batzuetan itxaron behar da, zuhaitzak hazi eta mozteko prest egon arte; gainera, hazkuntza-prozesua oso desberdina da espezieen arabera. Astiro hazten direnak —pagoak eta haritzak, adibidez— errentagarriak izateko, 150 urte behar dira, baina arinago hazten direnak (koniferoak, bereziki pinuak, eukaliptoak, etab.) heldutasunera iritsi eta mozteko, 30-40 urte behar dira. Epe laburreneko arbolak izanik, *radiata* eta *intsignis* pinuak dira garrantzitsuenak zur-sektorean.

Hego Euskal Herriko herrialdeen arteko desberdintasunak nabariak dira baso- eta zuhaitz-mota nagusien pisuari dagokionez. Bizkaian eta Gipuzkoan, basoen gehiegizko ustiaketa industrialak ia baso guztiak suntsitu zituen XIX. mendearen amaieran. Horren ondorioz, 1920an lurraldearen %20 bakarrik zen baso. Gaur egun, aldiz, egoera guztiz desberdina da, zabalera hori hiru aldiz biderkatu baita. Horrela, Gipuzkoako lurralde osoaren %60 basoa da, eta Bizkaian %56; kasu bietan basoen erdia baino gehiago pinu-espezieekin landatuta dago, eta, oro har, koniferek basoen %85 estaltzen dute. Lurralde hauek jabego pribatuaren esku daude batik bat (%88 baso-jabe pribatuen esku), minifundioa nagusi izanik: baso-jabe bakoitzak bospasei hektarea ditu.

Araban eta Nafarroan txikiagoa da basoen azalera, %47 eta %33, hurrenez hurren, baina berezko baso gehiago dago horietan, hau da, harizti, pagadi, amezti, artadi eta haltzadiak, besteak beste. Beraz, hostozabalak dira nagusi. Basorik gehienak erakunde publikoenak dira (gutxi gorabehera %77 publikoak dira, eta Nafarroan 500 erakunde publikoren eta 34.000 baso-jaberen artean daude banatuta basoak). Egoera oso antzekoa da Ipar Euskal Herrian.

Datuak aztertzen baditugu, Nafarroan 350.550 hektarea baso daude: 224.900 (%67) hostozabalek betetzen dute, pagoak nagusi direlarik, eta 107.335 (%33) koniferek. Beraz, Nafarroan espezie autoktonoen nagusitasuna nabarmena da. Arabako kasuan, basoen %75ek hostozabalak dituzte, hau da, bertako zuhaitzak.

EAEn 359.548 hektarea baso daude, hau da, lurralde osoaren %54 da basoa: 155.038 (%43) hostozabalez beteta, eta gainerako 204.509 ha (%57) koniferoak dira; azken hauek, esan dugunez, bereziki Bizkaian eta Gipuzkoan daude kokaturik. Oro har, 182 milioi zuhaitz daude eta ezin da ahaztu 2.185 enpresa ari direla basoetatik egurra ateratzen, 6.467 langile dituztenak. 1999an, adibidez, 1.081,8 milioi euro fakturatu zituzten enpresa horiek; hau da, sektore ekonomiko garrantzitsua osatzen dute.

Basogintzaren ekoizpenak igoera nabaria ezagutu du azken urteotan, arrazoi desberdinak direla medio. Alde batetik, 90eko hamarkadan egurrak ezagutu izan zuen salneurrien igoera nabarmena izan zen, eta horren ondorioz gero eta zuhaitz gehiago moztu dituzte; beste aldetik, ekoizpenaren txandak direla eta, mozteko prest zegoen zuraren kantitatea handia izan da. Zikloak direla eta, 2001etik aurrera mozketen jaitsiera handia espero da, eta, beraz, hurrengo urteetan sektore honen garrantzia mugatuz joango da, 1998an nekazaritza-ekoizpen guztiko %23 izan bazen ere.

EAEn Administrazio publikoak babestutako natur ingurune izendatu du baso--azaleraren %22, eta urtetik urtera eremu babestu gehiago ari dira izendatzen. Aldi berean, 1994an Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Baso-Plana onartu zuen; plan horretan etorkizunari begirako ildo batzuk markatu ziren, baina aurrekonturik gabe; asmoa plangintza bera egitea izan zen, beraz. Bestalde, 1999an, nekazaritza-arloari laguntzeko onartutako dekretu batean 48,08 milioi euroko dirulaguntzak aurrikusi zituen basoetarako. EAEko eskumen-banaketan Eusko Jaurlaritza basoen erantzule nagusia bada ere, Foru Aldundiak dira basoekiko gai zehatzen arduradunak; hau da, egur-mozketak, entresakak, pistak eta abar baimentzea edota dirulaguntzak ematea aldundien ardura da.

Nafarroako Gobernuak 1998an onartu zuen Baso-Plana, eta bertan jasota dagoenez, datozen hamar urteotan 188,2 milioi euro inbertituko ditu sektorean, dirulaguntzen bidez, bereziki. Birlandaketek eta baso-lanek %80ko laguntza jasotzen dute, eta pista batek %20koa, horiek jarduera nagusiak izanik.

7.2.3. Arrantza-sektorea

Arrantza-sektorea bi sektore nagusitan bana dezakegu: baxurakoa eta alturakoa. Baxurako arrantza kostaldetik oso gertu (milia gutxitara) egiten da, eta, bereziki, azaleko arraina harrapatzen da, hau da, antxoa, berdela, atuna, etab. Urtaroei dagokienez, bi garai desberdinetan banatzen da: udaberrikoan antxoa eta udakoan atuna dira gehien harrapatzen diren espezieak. Alturakoa edo itsas zabalekoa, aldiz, Bizkaiko Golkotik urrunago egiten da, eta han legatza, bakailaoa eta beste espezie batzuk arrantzatzen dira, gehienetan itsasontzian bertan izozten direnak. Altura eta baxurako arrantza oso desberdinak dira, eta azpisektore bakoitzeko laneta bizi-baldintzen artean ere alde handiak dituzte.

Hurrengo taulak erakusten duen moduan (7.3. taula), baxurako azpisektoreak alturakoak baino pisu handiagoa du, itsasontzien kopuru eta lanpostuen ikuspegitik. Hala ere, TRBren arabera, alturako arrantzak itsasontzi indartsuagoak dituela erakusten du.

Horrez gain, azken hamarkadaren beheranzko joera nabarmena da sektore osoan; izan ere, datuak ikusirik, azken hamarkadan itsasontzien kopuruaren jaitsiera zein lanpostuen galera nabariak izan dira, ia-ia erdira eroriz.

7.3. taula. Euskal arrantza sektorearen itsasontzien kopurua, enplegua eta TRBa

	Itsasontzien kopurua		Lanpostuak		TRBa	
Urtea	**87**	**97**	**87**	**97**	**87**	**97**
Baxura	535	366	4.204	2.723	64.083	18.959
Altura	215	108	3.889	1.874	90.748	53.008
Guztira	750	474	8.090	4.597	154.831	71.967

Iturria: Euskadiko Kutxa, "Economía Vasca", 1987 eta 1998ko txostenak

Gaur egun, euskal arrantza-sektorearen ekarpena nahiko txikia da, bai BPGean bai langileen kopuruan, kasu bietan %1 inguruan baitago. Dena den, arrantza ez da garrantzi txikiko sektorea: beraren proportzioa beste herrialdetakoak bezain handia da, eta euskal flota beste Europako floten antzekoa da (adibidez, 1993an Irlandako flota baino garrantzitsuagoa zen). Gainera, bere garrantzia oso metatuta dago kostaldeko zenbait udalerritan; horien bizimodua guztiz erlazionaturik egon da sektore honekin, nahiz eta azken urteetan sektorearen beherakadaren ondorioz horren garrantzia ere beheranzko joera erakusten ari den, itsasontzien eta landunen kopurua behera doan heinean. Dena den, sektoreko enplegu zuzen bakoitzak beste lauzpabost zeharkako lanpostu sortzen ditu.

Baxuran, bi kostera nagusien artean, harrapaketen %66,5 eta sarreren %89,1 bildu zen 1992an. Espezie nagusiekiko menpekotasuna arriskutsua da eta ahulezia erakusten du, itsasontziak gutxi erabiltzen direlako. 1986tik 1991ra, itsasontziak 365 egun posibletatik 193 egun bakarrik atera ziren itsasora, batez beste.

Alturari dagokionez, hondoko arrainak harrapatzen dituzte, hau da, legatza, zapoa, itsas oilarra, eta abar. Arrain-mota hauek harrapatzeko, Frantzia, Gran Sol eta Eskoziako arrantza-lekuetara joaten dira ontziak. Jarduera nagusia altura freskoan da: 1999an, 63 ontzi eta 787 arrantzale. Bigarren lekuan, atun-ontzi izoztaileak daude: 29 ontzi dira eta 656 arrantzalek dihardute bertan; ondoren, 8 bakailaontziak, 203 langilerekin; eta azkenik, 5 arrastontzi izoztaileak daude, 85 langilerekin. Alturako itsasontzi gehienak, Bermeon eta Ondarroan (Bizkaian) eta Pasaian (Gipuzkoan) kokaturik daude (Eustat, 2002).

Langileen lan-baldintzak ere desberdinak dira bi azpisektore horietan. Alturan lan-hitzarmena sinatzen dute, eta erabateko erregulazioa dago; hau da, soldatak, atsedenaldiak, langabezia-sariak eta abar araututa daude. Baxuran, aldiz, lan--baldintzak gogorragoak dira, eta arrantzaleen soldatak harrapaketen araberakoak dira; hau da, "*a la parte*" esaten zaiona oraindik indarrean dago. Beraz, zenbat arrain harrapatu, horren balioaren portzentaje bat ematen diete; hots, ziurgabetasuna da nagusi.

7.2.3.1. Arrantza-sektorearen joera nagusiak eta gaur egungo egoera

Euskal arrantzak XX. mendean nazioartean sektoreak pairatutako gorabeherak bizi izan ditu, eta mendean zehar epe luzeko joera beherakorra izan du, bereziki

Estatu industrializatuek gehiegi ustiatzen dituztelako itsasoko baliabideak. Salbuespena mundu-gerrek iraun zuten bitartean gertatu zen, itsasoaren arrain-kopurua hobetu baitzen. Bigarren Mundu Gerran, adibidez, orokorra izan zen arrantza-ahalmenaren igoera.

Hego Euskal Herriko kasuan, 60ko hamarkadaren hasieran indarrean jarri zuten Arrantza Flota Berrizteko Legea. Horren ondorioz, itsasontzi handiagoak, indartsuagoak eta modernoagoak eraikitzeko maileguak ematen zizkieten oso baldintza onetan. Sektoreak oso harrera ona eman zien neurri haiei eta maileguak oso preziatuak izan ziren. Horrela, euskal flota —eta Espainiakoa, oro har—handiegia bihurtu zen, eta nahiko zorpeturik geratu zen.

Testuinguru horretan, nazioartean 70eko hamarkadan, arrantza-baliabideak gero eta murritzagoak izan ziren, berriro ere. Estatuek arrantza-ahalmen desberdina zuten garai horretan. Baina itsasoa sarbide askekoa zela eta, Hego Amerikako zenbait Estatu —eta gero beste batzuk— beren kostaldeko uren gaineko babesa eta kontrola aldarrikatzen hasi ziren. Horren ondorioz, 1975tik aurrera 200 miliako Zonalde Ekonomiko Esklusiboak ezarri zituzten, horren barruan ustiapena mugatuz. Zentzu horretan, 1982an, EEEko Estatu kideen arteko urte askotako eztabaida eta desadostasun sakonak gaindituz, Arrantzako Politika Bateratua (APB-PPC) jarri zuten indarrean. Politika horren helburu nagusi eta orokorren artean arrain-kopurua eta espezieak gehiegizko ustiaketatik babestea zegoen, eta horrekin batera, arrantzaleen bizimodu duina ziurtatzea eta kontsumitzaileentzat zein industria eraldatzailearentzat arrainaren salneurri arrazoizkoa lortzea.

Helburu horiekin, urtero Europako Batasuneko flotarentzat garrantzitsuak diren zenbait espezieen Harrapaketa-Mugak (TAC) ezartzen dira. TAC bakoitza Estatu kideen artean banatzen da, kuoten bidez. Horrez gain, politika horrek neurri osagarri batzuk jarri ditu indarrean (lizentziak, zenbait leku "sentiberetan" sare-maila txikietako sareen debekua, etab.).

Beraz, 1986tik aurrera, horixe izan da euskal arrantza-flotak aplikatu behar izan duen araudia. Sektore honetan ere, nekazaritzan bezala, mugapen-neurri handiak onartu ziren hasieratik. Hain zuzen, Espainiako estatuak arlo honetako atxikipen-negoziazioetan onartu egin zuen ezen gainerako estatuek ez zituztela aldatuko 1983tik aurrera esleitutako kuoten koefizienteak; horrela, Espainiako estatua "erregimen berezi" batean sartu zen, Espainiako kostaldeko floten kalterako, eta bereziki euskal flotaren kalterako, bere pisu erlatiboa zela eta. Politika honen erreformak, 1992an, ez zuen ezarritako sistema aldatu, eta printzipioz 2002ko abenduaren 31a arte egon behar du indarrean. Horrela, 1985ean Bizkaian eta Gipuzkoan 748 ontzi izatetik 2000. urtean 364 izatera pasatu dira, hau da, erdira. Aldi berean, 8.300 arrantzale izatetik 4.100 izatera pasatu dira.

Dena den, EBk onartu egin du, erreforma horren bidez ezarritako neurriak berez ez direla nahikoa izan egoera aldatzeko, eta irtenbide eraginkorragoa izango

litzatekeela dagoen arrantza-ahalmenaren soberakina gutxitzea; beraz, badirudi hori izango dela datorren erreformarako abiapuntua.

Arrantza-sektorearen barruan oso egoera desberdinak daude, azpisektore eta espezie bakoitzaren egoera desberdina delako, bai kuotak bai arrantza-lekuak direla eta. Baxuran beherakada egon da azken urteotan, aurrerago ikusiko dugunez, antxoa eta hegaluzearen egoerak nahiko desberdinak izanda ere. Alturari dagokionez, freskoko alturak arazo larriak ditu, azken murrizketek eragin zuzena izan baitute legatzaren harrapaketan. Bakailaozaleei dagokienez, batez ere Norvegian eta Ternuan lan egiten dute, baina flota hau ere behera doa. Tunidoen izoztaileak, berriz, oso ondo doaz gaur egun, eta horrelako itsasontzi izoztaile batzuk Afrikan dihardute olagarroak eta potak hartzen. Beraz, sektorearen azterketa konplexua da, espezie garrantzitsuen artean desberdintasun hain nabariak izanik; dena den, hurrengo paragrafoetan espezie nagusien gaur egungo egoerak laburbildu ditugu, sektorearen egoera apur bat hobeto ezagutzeko.

Antxoa: 2000. urtearen hasieran, Europako Batasunak antxoen kuoten murrizketa handia (%52koa) ezartzea erabaki zuen, espeziea sustatzeko; ondorioz, kuota 33.000 tonatik 16.000 tonara jaitsi da. Horrek euskal flotaren udaberriko harrapaketetan eragin du nabarmen, gehien baloratzen den espezie delako. Bien bitartean, arrantzale frantsesek baimena dute arrastre pelagikoa erabiltzeko, eta horrek bi floten arteko gatazka areagotu du. Gainera, Portugalek Bizkaiko Golkoan esleitutako kupoa flota frantsesari trukatu dio; hau da, flota frantsesak antxoaren hiru mila tona gehiago arrantzatuko ditu, nahiz eta kuotak orokorrean gutxitu, eta Frantziako eremuko zonalde batean beda ezarrita egon (Baionaren eta Bordelen artean). Honek guztiak euskal flotaren eta flota frantsesaren arteko itunak apurtu ditu. Itun horien bidez, euskal arrantzaleek Europako Batasunak esleitutako kuotaren zati bat flota frantsesari uzten zioten eta horren truke frantziar arrasteontziak portuan geratzen ziren, itsasora irten gabe, antxoaren kostera amaitu arte. Gaur egun, mugaketa horrekin, arrantzaleek ezin dizkiete utzi frantsesei aurretik hitzartutako 9.000 tona horiek konpentsazio gisa.

Hegaluzea edo atun zuriaren kasuan, 2000. urtean ez zen murrizketa berezirik ezarri, ez Europako Batasuneko uretan ezta nazioarteko uretan ere; dena den, arazo larriena arrantza-arteetan egon da. Euskal arrantzaleek amua bizirik edo kurrikan erabiltzen duten bitartean, Frantziako arrantzaleek bolantak erabiltzen dituzte, eta azken hauek "jito-sareak" (noraezeko sareak) dira; ondorioz, sarritan kilometro batzuetako luzera dutenez, edozein espezie gera daiteke harrapatuta beren mailetan. Zentzu honetan, arrantza-teknikari buruzko Europako legeria nahiko malgua eta ahula izan ohi da. Hori dela eta, 2001. urterako ICCAT delakoak, hau da, Atlantiar Atunaren Kontserbaziorako Nazioarteko Batzordeak ontzat hartu du arrain hori harrapatzeko gehienezko kuotak (TAC) ezartzea, neurriz gaineko arrantza ekiditeko. Neurri hori bat dator euskal arrantza-sektorearen aspaldiko aldarrikapenarekin. Euskal flotari egokitu zaion kuota arrantzaleek ohiko harrapaketa-

-kopuruari eusteko modukoa izan da, murrizketarik egin gabe. Halaber, ontzi-kopuruaren muga mantentzeko erabakia ondo onartua izan da.

Legatzaren harrapaketak sekulako garrantzia dute Bizkaiko eta Gipuzkoako altura-sektoreentzat. Izan ere, espezie hori da Ondarroako eta Pasaiako ontzien jarduera nagusia (sarrera guztien %90). Gaur egur, Ondarroako hirurogei bat ontzi eta Pasaiako beste hamabost batek osatzen dute alturako sektore hori. Nolanahi den, 2000. urtean legatzaren egoera oso kezkagarria zela eta, 2001eko harrapaketa erdira murriztu nahi izan zuen Europako Batasunak. Arrazoi nagusia hauxe da: jaiotako legatz-kopurua oso urria da gaur egun, Itsasoaren esplotaziorako Nazioarteko Kontseiluak eginiko azkeneko ikerketen arabera, eta beraz, harrapaketa-kopuruak ere beherakada nabarmena izan du. AZTI euskal institutuak ere 1999an plazaratutako lan batek zioenez, iparraldeko legatz-stockaren egoera maila biologiko seguruetatik kanpo zegoen. Beraz, legatzaren etorkizuna arriskuan dago, neurri zorrotzak hartzen ez badira. Horrela, Europako Batzordeak Bizkaiko Golkoan 2001. urterako %54ko murrizketa ezarri zuen harrapaketa-kuotan, eta, aldiz, Europako iparraldean murrizketa %41ekoa izan zen, beste neurri estrukturalagoak baztertuz.

Europako Batasunaren proposamenaren aurrean, Eusko Jaurlaritzak legatza berreskuratzeko plana proposatu zuen. Egitasmo horretan baliabideak zaintzeko neurri teknikoak sartu ditu, hala nola debekaldiak arrautzak jartzen dituzten legatz nagusiak eta gaztetxoak zaintzeko. Halaber, Ondarroako armadoreek uste dute ontzi gehiegi ari direla legatzetan; beraz, bide egokiena ontzi-kopurua murriztea dela diote, alegia, flota egokitu behar zaiola baliabideari, eta ez alderantziz.

Bakailaoaren egoera ere kezkagarria da. 70eko hamarkadaren hasieran Ipar Itsasoaren eremuan 350.000 tonatik gora harrapatu ziren, eta 1999an 128.000 tonako kuota ere ez zen gainditu.

Testuinguru honetan, gaur egun, euskal sektorearen ezaugarriak krisia eta berregituraketa dira. Bestalde, Europako Batasuneko arrantza-ahalmenaren beherakada egonkorra izan bada ere, Estatu batzuek arauak bete dituzten bitartean, beste batzuek jaramonik ere ez dute egin. Arazoak, beraz, anitz eta orokorrak dira: itsasoko kutsadura, deskarteen arazo larria —zenbait garaitan (errunaldia...) berriz itsasora botatzen dituzten arrainen kantitateak (merkatuan balio nahikorik ez daukaten espezietakoak direlako) lehorreratzen dituztenak baino handiagoak direnean agertzen da—, zenbait Estatuk ez ditu serioski arrantza-teknikak kontrolatzen, ezta atsedenaldi-garaiak ere; etab. Horrez gain, arazo nahiko larria da, halaber, jarduera hauetan lan egiten duten pertsonen sarrera egonkorrak kontuan ez hartzea; eta, oro har, langileek itsasoan jaso behar dituzten bizi-baldintza eskasak direla eta, gero eta arazo gehiago daude bertako gazteak itsasoratzeko, besteak beste.

7.2.3.2. Eusko Jaurlaritzaren arrantzari buruzko neurri nagusiak

Arrantza-sektorean ere eskumenen gatazka dago. Hain justu, 1979ko Autonomia-Estatutuaren arabera, arrantza-jarduera EAEko eskumen esklusiboa bihurtu zen, baina EEan sartzerakoan, gobernu zentralak bakarrik negoziatu zuen, eta geroztik ez du onartu Euskal administrazioaren presentzia negoziazioetan, euskal arrantzaleen interesen aldeko jarrera azaltzeko. Horrez gain, administrazio zentralak EBko arrantzari buruzko bileren aurretik inoiz ez du kostaldeko Erkidegoekin negoziatu.

Nahiz eta Arrantzako Politika Bateratuak espezie batzuen jardunbideak zehaztu, EAEko Gobernuak sektore honekiko zenbait politika garatu ditu, eta 1994an Arrantzako Plangintza Estrategikoa diseinatu zuen, 2003. urtera arte indarrean egongo dena. Halaber, Arrantza-Foroa funtzionatzen hasi da, sektorearekin erlazionaturiko eragile guztien bilgune modura.

Plangintza Estrategiko horren helburuen artean, flotaren berriztapena, modernizazioa eta egiturazko doikuntza sustatzea dira nagusiak. Halaber, akuikulturaren eta ikerkuntzaren eginkizuna azpimarratzen ditu, azken hau AZTI Elkarte Publikoaren ardurapean dagoena.

Euskal Autonomia Erkidegoak Espainiako Estatuarekin eta EBrekin batera euskal itsasontziak desegiteko programak finantzatu ditu, honelako programetan parte hartu duen autonomia-erkidego bakarra izanik. Zentzu horretan, 1997an arrantza-sektorearen berregituraketaren garaia bukatutzat eman zen, eta gaur egun, honen berriztapenari eta modernizazioari ekin diote laguntza publikoak direla medio, 1999tik aurrera Europako Batasuneko araudiak aldatu direlako eta geroztik dirulaguntza gehiago eman dezaketelako flota berriztatzeko. 2000. urtean, berriztapen-plana indarrean egon den bitartean, 37 itsasontzi berri eraiki ziren, aurreko bost urteetan egindakoak beste.

Eusko Jaurlaritzak 2000-2006 urteetarako egindako Arrantza-Plana Bruselan aurkeztu behar zuen Madrilgo Gobernuak, baina administrazio horrek ez zuen inolako tramiterik egin Bruselan aurkezteko. Dena den, azkenean, 2000 eta 2006. urteen artean, arrantza-egiturak berritzeko Europako Batasunak 102 milioi euro emango dizkio Eusko Jaurlaritzari. Kopuru horren erdia ontzi berriak eraikitzeko erabiliko da, eta beste erdia komertzializazioan eta eraldaketa-industrian inbertituko da.

Beraz, arrantzaleek eta beren ordezkariek salatu duten bezala, Europako Batasunak ezartzen dituen neurriak nahiko inkoherenteak dira, zeren, alde batetik, dirulaguntzak ematen baititu ontzi berriak egiteko, eta, beste aldetik, kuotak erabat murrizten baititu, hau da, flota ez baitu egokitzen. Halaber, tekniken eztabaida larregi luzatu eta atzeratu dute, estatu boteretsu batzuen presioak direla kausa.

7.2.3.3. Europako Batzordeak egindako Liburu Berdea

Kontuan hartuz, alde batetik, 2002. urte bukaerarako Arrantzako Politika Bateratuan indarrean dauden araudiak erreformatu behar dituztela, eta bestetik, itsas baliabideak gero eta mugatuagoak direla, Europako Batzordeak sektorea sakon aztertu duen *Liburu Berdea* izeneko txostena argitaratu berri du 2001ean. Txosten horrek sektorearen egoera txarra dela ondorioztatzen du, «Ikuspuntu biologikotik, gaur egungo ustiapenaz jarraituz gero, arrain-populazio ugari mehatxatuta egongo direla» esanez. Egoera larrian dauden arrain-mota nagusien artean, hauexek aipatzen dituzte besteak beste: legatza, bakailaoa, hegalaburra, zapoa eta mihi-arraina. Itsas guneei begira, mendebaldeko itsas guneetan, Bizkaiko golkoa barne, arrantzak eragindako gutxitzeak «maila historikoetara ailegatu dira», eta gainerako guneetan ere egoera nahiko larria da.

Espezie hauek guztiek jasandako beherakadaren arrazoi nagusiak honako hauek direla uste dute:

– Harrapaketa-kuotak: Oraingo politika kuotetara mugatu da eta ez du eman espero zen emaitza. «Kasu batzuetan Kontseiluak sistematikoki zientzialarien gomendioetatik gora egin du».

– Sareen neurria: 2001ean ezarri dira sareen tamainak, baina neurri horiek «ez dira nahikoak arrain gazteak modu eraginkorrean babesteko».

– Zientzialarien informazioa: egoera aztertzeko zientzialari eta ekonomialari gehiago behar dira, kuota egokiak jartzeko; besteak beste, arrantzaren eta espezien hilkortasun-tasaren arteko erlazioak ikertu behar dituzte.

– Kutsadura: kutsadurak eragina du itsasoko baliabideetan, eta turismoaren eragina ere kontuan hartu behar da.

Flotari dagokionez, Batzordearen iritziz, gaur egun Europako Batasuneko flota «handiegia da» eta azken bost urteotan Europako Kontseiluak ezarririko murrizketa-planek eraginkortasunik eduki ez dutela uste du. Hala, flota %3 gutxitu da, baina aurrerapen teknologikoei eta dirulaguntzei esker ustiakuntza handitu egin da. Ondorioz, Europako Batzordeak flota nabarmen murriztea proposatu du. Horrez gain, urtero ematen diren 1.100 milioi euroko dirulaguntzak «gehiegizkoak dira», eta «helburuak sektore buruaski eta errentagarria lortzea izan behar du». Hala, murrizketek eragingo dituzten lanpostu-galerak akuikulturara eta eraldaketa-enpresetara egokitzea eskatzen du.

Beste aldetik, Batzordeak uste du espezien iraupen-politika indartu eta hobetu egin behar dela, horretarako hiru edo bost urteko harrapaketa-kuotak ezarriz eta «arte selektiboak eta ingurumenari kalte gutxiago egiten dioten arrantza-metodoak ezarriz».

Gainera, zientzialariek eta arrantzaleek arrantza-politikan gehiago parte hartzeko, eskualdeetako kontsulta-batzordeak eratu nahi ditu eta hainbat kudeaketa-funtziotan deszentralizazioa bultzatzeko asmoa du, larrialdi-egoerei hobeto erantzuteko.

Txosten hori sektoreko eragileen artean eztabaidatu behar da, eta arrantzaleen ordezkariek, zientzialariek eta talde ekologistek ere parte hartu beharko lukete hurrengo arrantza-politikaren ezaugarrien eztabaidan. Europako Batzordeak 2001eko azaroa bitartean jasoko ditu eskariak, ondoren Europako Kontseiluari eta Parlamentuari aurkezteko; eta azkenik, Europako Batasunak hartuko du erabakia.

Horrela, nazioartean dagoen itsas baliabideen gehiegizko ustiaketak hor segitzen du, sektorearen etorkizun iluna areagotuz, nahiz eta hurrengo hilabeteetako eztabaidak eta neurriak erabakigarriak izan daitezkeen aurrera begira. Hala ere, ez dugu ahaztu behar Euskal Herrian sektoreak dituen tradizioa eta esperientzia, eta etorkizun hurbilean flotaren berriztapenak izan ditzakeen ondorioak.

Amaitzeko, esan behar dugu, Euskal Herriko lehen sektorearen ekoizpenaren bilakaera honen ondorio nagusietariko bat honako hau dela, alegia, biztanleriaren janariaren beharrak asetzeko nekazaritza-gaiak inportatu behar izatea. Ekonomia osoan, lehen sektorea da barne-eskariaren estaldura-tasa txikiena duena; hain zuzen, 1995ean %38raino heltzen zen soilik. Estaldura-tasa horren bilakaera gero eta txikiagoa izan da azken hamarkadetan, eta bereziki arrantza-azpisektorean kanpo-baliabideen menpekotasuna gero eta nabariagoa da.

Zentzu horretan, Forondako aireportua da arrain-sarlekurik handiena. Urtero, 20.000 tonatik gora arrain iristen dira Gasteizko aireportura. Kopuru osoaren %85 legatzari dagokio. Legatz handia Argentina, Hegoafrika eta Namibiatik dator. Legatz txikiagoa, ostera, Kanadatik dator. Legatzarekin batera, zapoa, otarrainak, abakandoak eta atuna iristen dira Forondako aireportura.

BIBLIOGRAFIA

BBV, Fundación (1999): *Renta Nacional de España y su distribución provincial. Serie homogénea. Años 1955 a 1993 y avances 1994 a 1997.* Tomo III.

EAGAB (1998): *Euskal Autonomia Erkidegoaren egoera sozioekonomikoa. 1997. urteko txostena*, Euskadiko Ekonomia- eta Gizarte-Arazoetarako Batzordea (EAGAB).

Europako Batasuneko Batzordeak (2000): “Informe de la Comisión al Consejo y al Parlamento Europeo sobre la aplicación del régimen comunitario de la pesca y la acuicultura en el período de 1996-98”.

Euskadiko Kutxa (1999): “Economía Vasca. Informe 1998”.

Nafarroako Gobernua (1998): “Nafarroa zenbakitan”, Ekonomia eta Ogasun Saila.

Gracia, J. (2000):"Un breve recorrido por la historia de la pesca en el País Vasco", *Euskonews and Media* **64**, Eusko Ikaskuntza.

Rapún, M. eta Iraizoz, B. (1998): "La agricultura de Navarra durante el período 1980-95 entre el ajuste y la incertidumbre", in Molina, M. *et al., El sector agrario. Análisis desde las Comunidades Autónomas*, Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación, Mundiprensa Argitaletxea.

Udalaitz, D. (2000): "14 produktuk dute kalitatearen eusko labela", *Argia,* 2000ko martxoak 26, 18-20. orr.

Zabalik astekaria (zenbait zenbaki)

8. Industria

*Xabier Barrutia**

8.1. AURREKARIAK

Bizkaia eta Gipuzkoa XIX. mendeko erdialdetik aurrera industrializatu ziren. Bestalde, Nafarroa eta Araba XX. mendeko bigarren erdialdetik aurrera industrializatu dira. Ostera, Ipar Euskal Herriaren industrializazioa eskasa da, eta batez ere kostaldean kokatuta dago, Lapurdin.

Bizkaian enpresa handiak garatu ziren: *Nuestra Señora del Carmen* (1855), *Astilleros del Nervión* (1888), *Basconia* (1892), *Euskalduna* (1900), *Hidroeléctrica Ibérica* (1901, *Iberduero* 1944tik aurrera), *Altos Hornos de Vizcaya* (1902), Sestaoko *La Naval* (1916), *Babcock Wilcox* (1918), *General Eléctrica* (1929), *Firestone* (1932) Basaurin, *Westinghouse* (1953) Erandion, *Eduardo K. Earle* (1960, geroago *Aluminio de Galicia* eta *Inespal*) Zornotzan, *Petronor* (1968) Muskizen, etab.

Gipuzkoan ez ziren hain enpresa handiak sortu, eta industria modu orekatuagoan barreiatu zen herrialdeko haranetan zehar. 1861. urtean Beasainen *Compañía Auxiliar de Ferrocarriles* (CAF) sortu zen, *Unión Cerrajera* 1906. urtean Arrasaten, *Patricio Echeverria* (PESA) 1907. urtean Legazpin, *Marcial Ucin* (1930) Azpeitian, *Aristrain* (1955) Olaberrian, etab.

1950eko hamarkadan Arrasateko kooperatibak sortu ziren, mundu osoan ikertuak izan direnak, industriaren arloan kooperatibak arraroak baitira: *Ulgor*, *Fagor Electrodomésticos* (1956), etab. 1959. urtean *Caja Laboral Popular* sortu zen, talde barruan industria-bankuen lana eginez.

1959. urtean Espainian Egonkortze-Plana onartu zen. Horrek aurreko autarkia gainditu, estatuko mugak ireki zituen, Espainiako garapenerako funtsezkoa izan zena. Hala ere, ondoren etorri ziren Garapen-Planek (1964-75) Estatu espainola sasi-autarkiara itzularazi zuten, Europan 1986. urtean sartu arte. Barruko merkatua ixteaz gain, 1986. urtera arte, Estatu espainoleko industriak esportatzeko erraztasunak edo zerga-arinketak zituen (DFE, *Desgravación Fiscal a la Exportación*).

*. Lan hau EHUren ikerketa-proiektu honi esker burutu da: 9/UPV 00032.321-13856/2001.

Bizkaia eta Gipuzkoa, eskualde garatuak izanda, ez ziren Espainiako garapen--planetan barneratu. Zentzu honetan, INIk ez zuen EAEn parte-hartzerik eduki 1969. urtera arte, eta orduan ere ez zuen fabrika berriren eraketarik ekarri. Aipatutako urtean *Astilleros Españoles* (AESA) sortu zen, hiru enpresaren bategite moduan: *La Naval*, *Euskalduna* eta *Astilleros de Cádiz*. Hasiera hartan INIk AESAren kapitalaren %50 eskuratu zuen. INIk Euskadin sortutako enpresa bakarra *Potasas de Navarra* izan zen.

Bestalde, Nafarroa eta Araba ere garapen-planetatik kanpo geratu ziren. Hala ere, azken bi hauek ekintza propioen bitartez industrializatzea lortu zuten.

Nafarroari dagokionez, 1964. urtean Nafarroako Foru Aldundiak *Programa de Promoción Industrial (PPI)* izenekoa jarri zuen abian. Orduan diputatu nagusia zena, Felix Huarte, industria-gizona zen. Beraren oniritziaz, Espainiako garapen--poloetan eskainitako laguntzen antzekoak erraztu ziren. Beraz, Nafarroa estatu espainoleko zortzigarren polo modura kontsidera zitekeen. PPI delakoaz gain, errepideetan inbertitu zen, eta bultzakada eman zitzaion Formakuntza Profesionalari.

Garai hartan Nafarroan sorturiko enpresa esanguratsu batzuk ondokoak dira: IMENASA (*Industrias Metálicas de Navarra*) (1952), PERFRISA (*Perfil en Frío*) (1953), *Laminaciones de Lesaka* (1958), eta AUTHI (*Automóviles de Turismo Hispano Ingleses*) (1966). Azken hau funtsezkoa izango zen. Hain zuzen, 1969. urtean *British Leyland*-ek *Authi*-ren %50 erosi zuen, gero 1974. urtean SEATen eskuetara pasatu zen, eta 1982. urtean *Volkswagen*-en zati bilakatu zen.

Arabaren kasuan, Nafarroan Diputazioa izan zen moduan, Gasteizko Udala izan zen industrializazioaren motorra. 1950eko hamarkadan industria erakartzeko lurra egokitu zuen, zergak beheratu, etab. Bizkaian eta Gipuzkoan enpresek lur aldetik arazoak zituzten; ondorioz, batzuk Gasteizen kokatu ziren. Arabako industria oso konzentratuta dago Gasteizen eta Arabako Nerbioi-aldean: Amurrion eta Laudion. Azken alde hau Bizkaira begira dago.

Garai horretan Araban sorturiko enpresa garrantzitsu batzuk ondokoak dira: *Forjas Alavesas* (1951), DKW (1952), KAS (1955), *Laminaciones Arregui SL* (1958), *Tubacex* (1963), *Michelin* (1966), *Tubos Reunidos* (1968), *Gamesa* (1976), etab. DKW automobilgilea geroago *Mercedes Benz*-en eskuetara pasatu zen, *Mevosa* izena hartuz. *Gamesa* 1990eko hamarkadan aeronautikan eta energian sartu zen.

Hego Euskal Herrian garapen-planak aplikatu ez zirela esan badugu ere, hori ez da guztiz zehatza. Izan ere, Garapen-Planen barruan zeuden Ekimen Hitzartuek eragin zuzena eduki zuten euskal industrian.

Bi Ekimen Hitzartu egon ziren, lehenengoa 1964tik 73ra bitartean eta bigarrena 1974-82 tartean. Estatuaren helburua sektore batzuetan inbertsioak burutzea zen, eguneratzeko eta produkzio-gaitasuna handitzeko. Bide horri ekiteko prest zeuden enpresak Ekimen Hitzartuan sar zitezkeen, horrela estatuaren mailegu-erraztasunak jasoz.

Euskal enpresa asko Ekimen Hitzartuetan sartu ziren: altzairugintzakoak, ontzigintzakoak eta ekipo-ondasunekoak, besteak beste. Ekimen Hitzartuen eragina askotan kaltegarria gertatu zen, eta atxikitako enpresek zailtasun handiak eduki zituzten. Izan ere, produkzio-gaitasunaren zabaltzeak nazioarteko krisiaren hasierarekin kointziditu zuen.

Finantza-arloan ere Euskadik lidergoa izan du: *Banco de Bilbao* (1857), *Bilboko Burtsa* (1890, Estatu espainoleko lehen balio-merkatua), eta *Banco de Vizcaya* (1901). Estatu espainolean, balio-merkatua barik, bankuak izan dira garrantzitsuenak. Azken hauen eta industriaren arteko lotura estua izan da krisiaren agerpenera arte.

1962. urtean, Espainiako lehen garapen-planaren bezperetan, Mailegu eta Bankaren Antolaketarako Legea onartu zen. Lege hori Estatu espainoleko finantza-sistemaren oinarrizko ardatza izan zen 1970eko hamarkadaren erdialdera arte. Garapenari laguntzeko, *Banco de Bilbao*-k *Banco Industrial de Bilbao* sortu zuen 1963. urtean. Era berean, *Banco de Vizcaya*-k *Induban* banku industriala sortu zuen 1964. urtean.

8.2. EUSKAL INDUSTRIAREN AROAK ETA DATU BATZUK

Industriaren barruan jarduera asko daude. Batzuetan eraikuntza ere industriaren baitan hartzen da, eta beste batzuetan kanpoan. Bestalde, industriaren barruan hiru mota desberdin bereizten dira: ateratze-industria (mineralen ateratzea eta lantzea), energia eta manufakturak.

Horrez gain, manufakturen barruan produkzio-sailak bereizten dira, produktuak duen helburuaren arabera. Horrela, ekipo-ondasunak, erdibideko produktuak eta kontsumo-ondasunak bereizten dira. Bestalde, produkzio-adarrak ere definitzen dira: makineria elektrikoa, makineria ez-elektrikoa (edo mekanikoa), metalezko artikuluak, altzairugintza, elikagaien industria, automobilgintza, etab.

EAEko industria manufaktureroan ekipo-ondasunek eta erdibideko produktuek garrantzi handia dute. Ostera, EAE kontsumo-ondasunetan azpiespezializatuta dago. Bestalde, 8.1. taulak EAEko industriaren banaketa jasotzen du produkzio-adarren arabera:

8.1. taula: EAEko industriaren Balio Erantsi Gordina produkzio-adarren arabera (%)

	BEGmp 1999	Enplegua 1998
Metalurgia eta artikulu metalikoak	27,5	34,1
Makineria	9,9	13,8
Petrolioaren finketa	6,4	0,4
Elikagaiak, edariak eta tabakoa	6,4	6,1
Kautxua eta plastikoa	7,1	7,0
Materialen garraioa	7,8	8,5
Energia elektrikoa, gasa eta ura	7,7	1,8
Industria osoa	100,0	100,0

Iturria: EUSTAT, 2000ko ekonomia-kontuak.

Ageri denez, EAEko industriaren kontzentrazioa handia da adar batzuetan, batez ere metalezko artikuluetan. Dena dela, herrialdeen artean desberdintasunak daude. Bizkaian oinarrizko metalgintza da enplegatzailerik handiena, Gipuzkoan makineria eta Araban kautxua eta plastikoak (Torres, 1995: 188).

Nafarroako industria-egitura, bestalde, desberdina da. Kontsumo-ondasunek garrantzi handia dute. Nafarroako lau produkzio-adarrik garrantzitsuenak makineria eta produktu metalikoak, automobilgintza, elikagaien industria eta papera dira. Automobilgintzan eta elikagaien industrian, adibidez, multinazionalak oso garrantzitsuak dira. Ondorioz, Nafarroako industria-enplegu osoaren herena 100 transnazionalen eskuetan dago, hauetako 22 alemaniarrak izanik (Zabala, 1996: 168).

1970eko hamarkadatik hona, euskal industriaren ibileran aro desberdinak bereiz daitezke (8.2. eta 8.3. taulak). Hiru dira Eusko Jaurlaritzaren arabera: krisia eta berregituraketa, inbertsioa, eta teknologia-berrikuntza eta internazionalizazioa.

8.2. taula: EAEko BPG industrialaren ibilera 1995. urteko pezeta konstantetan (urteroko batez besteko aldaketa-portzentajeak)

	1981-86	1986-89	1989-93	1993-98
Industria	–2,68	+6,1	+0,45	+5,56
1-Ateratze-industria	+6,42	+5,53	+0,8	+19,98
2-Manufakturak	–3,62	+5,63	+0,35	+5,9
3-Energia elektrikoa, gasa eta ura	+15,94	+12,06	+1,62	+2,08
Eraikuntza	+3,98	+7,53	+5,82	+2,22

Iturria: EUSTAT, Ekonomia-kontuak 1998 (88-91. or.). Autoreak landua.

8.3. taula: Industria-enpleguaren ibilera Hego Euskal Herrian

	1976	1985	1999
EAE			
Industria	338.060	227.650	225.580
Eraikuntza	69.190	41.150	72.120
Nafarroa			
Industria	64.070	49.990	62.520
Eraikuntza	15.380	11.540	18.930

Iturria: INE.

1975etik 1985era: 1975etik aurrera industriaren krisia izugarria izan zen Bizkaian eta Gipuzkoan, nazioarteko eta Estatu espainoleko krisiak baino askoz gogorragoa. Ostera, Nafarroak eta Arabak, industria-egitura modernoagoak edukita, askoz hobeto jasan zuten krisia.

Europako *per capita* errentaren %108tik %80ra pasatu zen EAE tarte honetan. Enplegu betetik langabezia masibora pasatu ginen. Horrela EAE Gainbeherako Industria-Eskualdea bilakatu zen. EAEk ez du berreskuratu Europako errentaren batez bestekoa 2000. urtera arte.

Garai horretan EAEko industriak imajina daitezkeen arazo guztiak eduki zituen: ekonomikoak, politikoak eta ingurugirokoak.

Euskal industriak ez zuen ikerketarik egiten. Ikerketa eta Garapenean (I+G) EAEren gastuak BPGren %0,069ra ailegatu ziren 1979. urtean; Espainian %0,3 ziren, eta Europan askoz garaiagoak. Beraz, teknologia propioaren gabezia zegoen eta kanpoarekiko menpekotasuna puntu horretan.

EAEko industriaren espezializazioa handia izan da erdibideko ondasunetan (altzairugintza, metalezko artikuluak, etab.); ondoren kapital-ondasunak datoz; kontsumo-ondasunetan, ostera, azpigaratuta egon da. Hain zuzen, sektore horiek izan dute ibilera txarrena nazioarteko krisian. Era berean, EAEk atzerritarren inbertsioak erakartzeko zailtasun handiak eduki zituen.

Nafarroan alderantziz gertatu zen, kontsumo-ondasunek garrantzi handia baitzuten. Hori zela eta, Nafarroaren espezializazio sektoriala garrantzitsua izan zen krisia hobeto jasateko (Sanz-Magallón, 1999: 232). EAEk ez bezala, Nafarroak kanpo-inbertsio nahiko erakarri zituen.

Horrez gain, Estatu espainoleko ekonomia 1986. urtera arte nahiko itxia izanik, euskal enpresek ez zuten hobetzeko pizgarri nahikorik. Ondorioz, kudeaketaren arloak —giza baliabideen kudeaketak, adibidez— oso deseraginkorrak ziren batez ere enpresa handietan. Lan-merkatuaren arauketak ere giza baliabideen kudeaketa txarrean eragiten zuen. Izan ere, frankismoaren garaitik zurruntasun handiak zeuden kontratu-motetan, kontratuak eten ahal izateko orduan, mugikortasun funtzionalean, eta abarretan.

Bestalde, krisiaren agerpenarekin finantza-sistemak lepoa eman zion industriari. Ordura arte bankaren eta industriaren arteko harremana nahiko estua izan bazen, enpresen zailtasunak hastean bankuek industriatik irteteari ekin zioten, eta ez ziren industriarentzat lagungarri gertatu. Horri gehitu behar diogu inflazioa kontrolatzeko asmoz 1977-1992 tartean Estatu espainolak aplikatutako moneta-politika gogorra, interes-tasak Europakoak baino gorago mantenduz.

Estatua edo sektore publikoa ahula zen krisiari aurre egiteko. Diktaduraren pean Hego Euskal Herriak ez zeukan administrazio propiorik. Bestalde, Estatu espainoleko sektore publikoa bera ere txikia zen, eta azpigaratuta zegoen, Europako estatuekin erkatuta. Gastu publikoek eta sarrera publikoek BPGrekiko adierazten zituzten portzentajeei begira ikus daiteke hori.

Franco diktadorearen heriotzaren ostean, EAEk eta Nafarroak autonomia-estatutuak eskuratu zituzten. Administrazio propioa garatu ahal izan dute, eta beren eskuduntzetan oinarrituta, industria-politika propioak aplikatu dituzte 1980ko hamarkadaren hasieratik. Hori funtsezkoa izan da krisitik irteten joateko.

1986tik aurrera: 1986tik gaur egunera arte, euskal industriaren berrindartzea gertatu da, 1990-93 tarteko krisi larriaren salbuespenarekin. Dena dela, industria-jardueraren sendotzea eta errentagarritasuna bateragarriak izan dira industria-enpleguaren beherakadarekin. Industria-enpleguaren igoera 1994tik aurrera bakarrik gertatzen ari da.

1986. urtean Estatu espainola Europako Elkartean sartu zen, nazioarteko ekonomia hedaldian zegoen unean. Inbertsioak gorantz egin zuen, krisiak errentagarritasun-baldintzak berrezarri ostean. Era berean, Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako gobernuaren industria-politikek inbertsioari bultzakada ematen lagundu zuten.

1990-93 tartean Europan tartekatu zitzaigun krisia larriagoa izan zen Hego Euskal Herrian. EAEk 70.000 lanpostu galdu zituen industrian. Enpresa asko krisiak jota zeuden: AHV, *Sidenor*, AESA, *Tubacex*, *Patricio Echeverria*, *Ulma*, *Irizar*, etab. Euskal Herriko industria-egitura Europakoa baino ahulagoa zen. Aipatutako enpresa batzuek ez zituzten berregituraketa-prozesuak behar bezala burutu 1980ko hamarkadan. Era berean, 1989tik 1992ra egondako pezetaren gainbaliztapenak —ondorengo tartean konpondu zena— min handia egin zion industriari.

Azken krisi horretatik gaur egunera arte euskal industria nahikoa sendotu da. 1994tik aurrera inbertsioak sendo egin du gorantz, hala nola Europako Batasunera zein Estatu espainolera egindako esportazioek. Era berean, oraingoan industria-enpleguak ere gorantz egin du.

Gorago aipatutako enpresa batzuk gaur egunean puntan agertzen zaizkigu: *Irizar*, *Tubacex*, *Sidenor*, etab. Enpresek erabaki estrategikoak hartu dituzte. Adibidez, enpresa batzuek hazkuntzari ekin diote, eta gaur egun bi bider handia-

goak dira. Era berean, enpresa batzuek inbertsio zuzenak egin dituzte atzerrian —MCC, *Sidenor* (Brasilen), *Irizar* (Mexikon), etab.—.

Gainera, enpresa horiek ahalegin handiak egin dituzte giza baliabideen kudeaketa hobetzeko, adibidez, *Irizar-ek, Bellota-k, Maier-ek* eta abarrek. Vázquez-ek eraldaketa hau aztertu du (Vázquez, 1998). Arlo honetan, Eusko Jaurlaritzak 1992. urtean industria-sektorean Kalitatea Sustatzeko Programa eta *Euskalit* (Kalitaterako Euskal Fundazioa) jarri zituen abian. Era berean, 1997. urtean Euskal Heziketa Profesionalaren Plana onartu zen, hezkuntza sendotzeko asmoz. Dena dela, Estatu espainoleko lan-merkatuaren berrarauketak euskal industria kaltetzen du. Izan ere, orain zurruntasunaren kontrako muturrean gaude eta aldibaterakotasunak ez die formakuntza jarraituari eta giza baliabideen kudeaketari laguntzen.

Bestalde, Europako Merkatu Bakarrak eta batasun-prozesuak mesede batzuk egin dizkiote euskal industriari. Batetik, 1992. urtean Maastricht-eko ituna sinatzean, estatuei hurbiltze-baldintza batzuk ezarri zitzaizkien. Ondorioz, Estatu espainoleko interes-tasak asko beheratu ziren, Europako mailekin parekatuz. Bigarrenik, Merkatu Bakarrak eta konkurrentzia-politikak iraganeko monopolioak apurtzean, Euskal Herriari sartzeko aukera berriak eman dizkio telekomunikazioetan edo energiaren alorretan. Horrela *Euskaltel* telekomunikazioko operatzaile integratua sortu da. Era berean, industriak energia elektrikoaren prezio baxuagoa pagatzen du orain. Izan ere, Europako liberalizazio-prozesuaren barruan, Estatu espainolak lehia bizitu zuen 1997ko Energia Elektrikoaren Legearekin.

Halaber, 1990eko hamarkadan teknologia-politika sendotu egin da Hego Euskal Herrian, batez ere EAEn. Honek I+G gastuetan Europako mailetara hurbiltzen joatea ahalbidetu du. Azken aldian gure artean puntako sektoreak garatu dira: aeronautika, telekomunikazioak eta elektronika. Hain zuzen, 1985ean teknologia altuko adarrek EAEren BPG manufaktureroaren %4,9 adierazten bazuten, 1995-erako %8,3 adierazi zuten. Hala ere, euskal industria oraindik ez da nahiko dibertsifikatu sektore aurreratuetan. Dena dela, kontuz ibili behar dugu geure sektoreen izaera epaitzeko orduan. Horrela, adibidez, altzairugintza sarri sektore heldutzat hartzen bada ere, eskari-igoera txikikoa eta teknologia apalekoa, errealitatea ez dator bat aurreiritzi horrekin, eta altzairugintzak teknologia-bizitasun nahikoa du.

Atzerritarrek Euskadin egindako kanpo-inbertsioei dagokienez, inbertsio horiek gorantz egin dute azken aldian. 1980ko hamarkadaren amaieran antzuak gertatu ziren Eusko Jaurlaritzak proiektu handiak erakartzeko egin zituen ahaleginak: *McDonnell Douglas*-en hegalak edo automobilgintzako planta Zornotzarako. Hala ere, 1990eko hamarkadan, kanpoko inbertsioaren ahulezia konpontzen joan da. Horrela, 1990. urtean EAEn atzerritarren inbertsioak 300,51 milioi eurokoak izan baziren, 1998. urtean 697,17 milioi eurokoak izan ziren. Baina benetako jauzia 1999tik aurrera gertatu da. 1999. urtean kopurua ia 3.005 milioi eurotara ailegatu zen (*Estrategia empresarial*, 2001eko uztailekoa).

Azkenik, bankuak industrian parte hartzera itzuli dira. Honetan aldagai desberdinek eragin dute: industriaren onbideratzea eta mozkinen igoera, interes--tasen beherapena 1990eko hamarkadan, eta enpresa publiko ohien pribatizazioa.

8.3. INDUSTRIA-POLITIKA

Franco diktadorea hil eta gero EAEk eta Nafarroak autonomia-estatutuak eskuratu ondoren, 1981. urtean EAEk Kontzertu Ekonomiko berria lortu zuen eta 1982. urtean Nafarroak Komenioa (Foru Hobekuntzaren 45. artikuluan jasoa). Horrek esan nahi du euskaldunok administrazio propioa garatu dugula, eta gu garela zerga gehienak biltzen ditugunak, gastu publikoaren gainean ere kontrol handia edukiz. Eskuduntza horietan oinarrituta, Hego Euskal Herriak bere industria-politika propioa garatu du.

Hala ere, oraindik falta diren eskuduntzak ere ez dira nolanahikoak; gainera, industriarentzat garrantzi zuzena dute: gizarte-segurantza, lan-merkatuko legedia, INEM, enpresa publiko handiak, zientzia-ikerketa eta teknologia-garapena, etab.

Esan dugun legez, sektore publiko propioa garatu dugu: administrazio publikoa eta industria-politika gauzatzeko sozietate publikoak. 1981. urtean Eusko Jaurlaritzak SPRI (*Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial*) eskualde--garapenerako agentzia sortu zuen. 1996. urterako EAEk bi ente publiko zituen: SPRI eta EVE-EEE (*Energiaren Euskal Erakundea*), hala nola zuzenbide pribatuko 75 sozietate publiko (SPRI, 1996: 13). Bestalde, azken aldian pribatizazio--prozesu batzuk ere ikusten ari gara, *Spritel* (1994. urtean) edo EVE-EEE gaur egunean.

Era berean, 1984. urtean Nafarroako gobernuak SODENA (*Sociedad de Desarrollo de Navarra*) sortu zuen, EAEko SPRIren parekoa izango litzatekeena. 1987tik 1995era Nafarroako enpresa publikoak 19tik 29 izatera pasatu ziren (Aurrecoechea *et al.*, 1996: 45).

EAEko industria-politika 1980ko hamarkadan ekimen anitzez osatuta egon zen. 1990eko hamarkadatik aurrera industria-politikako planek urte batzuetako hedapena izan dute. Eusko Jaurlaritza azpiegituren plan plurianualak aurkezten hasi zen Bruselan 1980ko hamarkadaren amaieran, egiturazko fondoetara ailegatzeko asmoz. Jarraian metodologia bera aplikatu zion industria-politika osoari: *Industria Alorreko Politika Iharduketarako Mugarte Orokorra* (IMO: 1991-1995); *Jarduketa Esparru Orokorra* (JEO: 1996-1999); *Ekonomiaren Sustapenerako Erakundearteko Plana* (PIPE: 2000-2003).*

Izatez, horiek ez dira industrian eragiten duten plan bakarrak. Guk zentzu zabalagoan ulertzen dugu industria-politika, eta, beraz, teknologia-politikako planak eta azpiegitura-politikak aztertuko ditugu, besteak beste.

---

*. Aldundiek ere beren aldetik industria-politikako ekimenak dauzkate. Adibidez, Bizkaiaren kasuan BESERO 2002-2003.

2000ko martxoan Legebiltzarrak Lehendakaritzaren *Euskadi 2000 Hiru* ekimena onartu zuen. Honek 2002-2003 tartean bidean dauden erakundearteko planei finantzapen gehigarria eskaintzen die: PIPE, Azpiegiturak, eta Enplegua eta Formakuntza. Era berean, plan berriak jasotzen ditu, adibidez, *Euskadi Informazioaren Gizartean*.

Nafarroari dagokionez, 1982. urtean Foru Legebiltzarrak politika berria onartu zuen: *Medidas coyunturales de política industrial y de fomento de la inversión y el empleo*. Horrek amaitutzat jo zuen aurreko Garapen-Plana (PPI) eta garai berrirako laguntzak bildu zituen: inbertsiorako laguntzak, ikerketa eta garapena, etab.

Nafarroako gobernuak, EAEkoak ez bezala, ez ditu bere industria-politikako ekintzak plan orokorretan biltzen. Aitzitik, aipatutako ekimen bakoitzak (inbertsiorako laguntzak, ikerketa eta garapena, etab.) bere araudi berezia dauka, eta 1982tik aurrera gaurkotuz joan dira, Europako baldintzetara egokituz.

Industria-politikaren barruan berregituraketa-politika eta sustapen-politikak bereiziko ditugu.

8.3.1. Berregituraketa-politika

Berregituraketa-politika krisiak jota zeuden sektoreak onbideratzen saiatu zen. Politika hori, batez ere Madrilek burututako berregituraketa, oso desegokia izan da. Era berean, berregituraketa-politikaren barruan ez zen ekonomia-sektore berrien garapena barneratu.

Administrazio desberdinek sektore desberdinak berregituratu zituzten. EAEn, administrazio zentralak 14 sektore berregituratu zituen, enpresa handiak nagusi ziren sektoreak preseski: ontzigintza, altzairugintza, ekipo-ondasunak, aluminioa, etab. Adar horietan funtsezko euskal enpresak zeuden: *Altos Hornos de Vizcaya*, *Acenor-Sidenor*, *Babcock Wilcox*, AESA, *Inespal*, *Tubos Reunidos*, etab. Hauetako batzuk estatuak formalki nazionalizatu zituen INIren bitartez: *Babcock Wilcox*, AESA... Beste batzuk *Banco de Crédito Industrial* (BCI) delakoaren esku geratu ziren: AHV, *Acenor*...

Printzipioz, Gernikako Autonomia Estatutuaren arabera (10.30 artikulua), Madrilek ezarritako berregituraketa-planen ejekuzioa Euskal Herriaren eskuduntza zen. Hala ere, Madrilek ez zion Eusko Jaurlaritzari inolako parte-hartzerik utzi.

Berregituraketa horietarako laguntzak 1978an hasi ziren. Hala ere, hasierako laguntzak eskasak izan ziren, edo enpresaz enpresa emandakoak izan ziren, ikuspegi sektorialik gabe.

Madrilek burututako berregituraketa garrantzitsuena 1984. urtean hasi zen (Berregituraketaren Dekretua: 1981; Liburu Zuria: 1983; eta 1982, 1984 Legeak eman ondoren). Europako Elkartean sartzean berregituraketak amaitu gabe zeudenez, Estatu espainolarentzat aro iragankor batzuk ezarri ziren. Tarte horietan

sektoreentzako laguntzak onartu ziren. Hala ere, tarte horien amaieran ere, Madrileko administrazioak ez zituen enpresak behar bezala onbideratuta utzi. Ondorioz, berregituraketak 1990eko hamarkadan ere jarraitu zuen.

Eusko Jaurlaritzak, bere IMO 1991-1995 izeneko plana onartu ondoren, 1992. urtean berrindustrializazio-plana proposatu zion Madrilgo administrazioari: *Necesidad y aspectos clave para la reindustrialización en Euskadi. Propuesta de colaboración entre la Administración Vasca y la Administración Central*. Gasteizek eskuduntza eta kontrola eskatu zuen Madril berregituratzen ari zen sektoreetan.

Madrilek ez zuen onartu Eusko Jaurlaritzak 1992. urtean egindako berrindustrializazio-proposamena. Garai horretan Madrilek AHV eta altzairu berezietako Laudio eta Hernaniko lantegiak ixtea erabaki zuen. Autore honen doktorego-tesian esandakoaren arabera, AHVren itxiera erabaki politikoa izan zen, AHV teknikoki errentagarria izan zitekeen eta (Barrutia, 2001).

Era berean, bizirik iraun duten euskal enpresa askok Estatu espainoleko enpresetan edota transnazionaletan enbortuta jarraitzen dute. Euskal Herrian makineria elektrikoa ABBren eskuetan geratu zen 1989. urtetik aurrera. Euskal altzairugintzaren kasuan, ACB eta AHV-ren fabrika bukatzaileak *Arcerlor*-en eskuetan geratu dira. AEBetako *Alcoa*-k 1997. urtean Zornotzako *Inespal* erosi zuen, etab. Beraz, erabakiguneek Euskaditik kanpo jarraitzen dute.

Zentzu honetan, azken urteetan *Babcock Wilcox* eta *La Naval* arrisku larrian egon dira. Azkenean 2001. urtean *Babcock Borsig*-ek erosi du *Babcock Wilcox*. Bestalde, Sestaoko *La Naval*-ek *Repsol*-entzako gasontzi bi produzitzeko enkargua jaso du azkenean, eta momentuz hilzoritik ihes egin duela dirudi. Eta 2000. urtean AESA *Bazan* untziola militarrarekin elkartu da, *Izar* sortuz. Hala ere, Sestaoko ontziolak bere kudeaketa edo autonomia gordeko du.

Administrazio zentralaren berregituraketak euskal industriaren sektore asko barneratu gabe utzi zituen. Horregatik, eskuduntzak izan bezain laster, Eusko Jaurlaritzak zeregin horri ekin zion. Lehenengo tarte batean (1981-84), Eusko Jaurlaritzak 72 milioi euro bideratu zituen arazoak zituzten enpresak laguntzeko.

Ondorengo tartea garrantzitsuagoa izan zen, eta Eusko Jaurlaritzak 14 sektoreren berregituraketa burutu zuen: makina-erreminta, automobilentzako osagaiak, elektratresnak, etab. Sektore horietan Enpresa Txiki eta Ertainak (ETEak) izan dira garrantzitsuenak. Plana 1985. urtean onartu zen, eta hiru urtez luzatu zen: *Plan de Relanzamiento Excepcional de empresas y sectores industriales* (PRE: 1985-87).

Ondoren, 1990. urtetik aurrera, euskal enpresa askok zailtasunak eduki zituzten. Ondorioz, Eusko Jaurlaritzak onbideratze-politika berria jarri zuen abian: *Plan de Actuación Extraordinaria para Empresas Industriales en Dificultades* (628/1991 Dekretua, azaroaren 19an). Berau *3-R Plana* izenaz ezagutu zen, eta

1991-92 tartean aplikatu zen. PRErekin ez bezala, enpresek zuzenean jaso zituzten laguntzak, sektorearen berregituraketarako lehenago adostasunik behar izan barik.

Ondorengo industria-politikako planean —JEO 1996-1999 delakoan— ez zen laguntza espezifikorik jaso zailtasunetan zeuden enpresentzat. Bideragarriak ez ziren enpresak ez ziren sostengatu nahi.

Azkenik, 2001. urtean Eusko Jaurlaritzak krisian dauden ETEak laguntzeko plana jarri du abian. Planak 9,02 milioi euro bideratuko ditu eta SOCADEk kudeatuko du. Europak neurri hauek laguntza horizontaltzat hartzen ditu; izan ere, ez dira sektore zehatzetara zuzentzen (COM, 1999: 10-11).

Nafarroari dagokionez, krisian egondako enpresentzat Onbideraketa-Laguntzen Legea onartu zuen gobernuak 1985. urtean (1/1985 Foru Legea, martxoaren 4koa). Europako Elkartean sartu ondoren ere mantendu zen lege hori. Hala ere, 1994. urtean Europako Batzordeak *Gida* atera zuen laguntza-mota honen gainean. 1997. urtean beste Gida bat atera zuen, aurrekoa aldatzen nekazaritza-sektoreari dagokionez. Ondorioz, Nafarroak bere legedia egokitu behar izan du. 2000. urteko legeak bertan behera utzi du 1985eko legea: *Ley Foral 3/2000 de 22 de junio de ayudas de salvamento y reestructuración de empresas en crisis* (BON 78. zkia, 00-VI-28).

8.3.2. Sustapen-Politikak

Sustapen-politikak industria-sistemaren egitura sendotu nahi du, dauden enpresei lagunduz eta enpresa berrien sorrera erraztuz. Hego Euskal Herriak sustapen-politika zabala aplikatu du, batez ere ETEetan oinarrituta: industria-lurra eskaintzeko politika, inbertsiorako laguntzak, esportatzeko eta internazionalizatzeko laguntzak, enplegatuen formakuntza hobetzeko politika, teknologia-politika, enpresentzako zerbitzuak bultzatzea, finantza-sistemaren eta industriaren arteko lotura sendotzea, etab. Guztiak aztertu ordez, batzuk bakarrik jorratuko ditugu.

Industria-lurra eskaintzeko politika. Hego Euskal Herriak industria-poligonoak, enpresa-haztegiak eta parke teknologikoak sortu ditu industria-lurraren gabeziari aurre egiteko.

Nafarroan zeregin honetan SODENA, NASUINSA (*Navarra de Suelo Industrial S.A.*) eta SEPES erakundeek parte hartu dute. Garrantzitsuenak lehenengo biak dira; hirugarrena Administrazio zentralaren menpeko organismo autonomoa da. Bestalde, 2001. urteko irailean, Nafarroako gobernuak bost urterako plan ausarta aurkeztu du. Horren bitartez 2005era arte 120 milioi euroko inbertsio publikoak izango dira lurra egokitzeko. Izan ere, gobernuaren arabera, Nafarroako zein kanpoko enpresek epe horretan 2.103,5 milioi euro inbertitu nahi dituzte Foru Erkidegoan; horrek industria-enplegua %30ean handituko luke (20.000 enplegu) eta langabezia desagerraraziko luke.

EAEko ekimenik garrantzitsuenak *industrialdeak* dira, hots, SPRIk 1982tik aurrera sortutako industria-poligonoak. 1990. urtean Lurraldearen Antolaketaren gaineko 4/1990 Legea onartu zen EAEn. Urte berean Jarduera Ekonomikoetarako Lurraren Plan Sektorialaren aurrerapena idatzi zen, nahiz eta plan hori 1993. urtera arte publiko egin ez. Plana 1994ko abuztuan onartu zen lehenengoz, kontseilaritzaren ordena baten bitartez. 1995. urtean Eusko Jaurlaritzak SPRILUR sortu zuen, lur industrialaren arloko politika ordenatzeko.

Foru Aldundiek ere lagundu dute politika horretan. Adibidez, Bizkaiko Foru Aldundiak *Elkartegiak* deitutako industria-poligonoak sortu ditu, eta Sondikan BEAZ (*Bizkaiko Enpresa eta Aurrerapen Zentroa*) ireki zuen 1991. urtean, teknologia altuko enpresak bertan kokatzeko.

Eskualde-politika. Eskualde-politikak erantzuna eman nahi die eskualde zehatzen arazoei. Horretarako, politika guztiek —azpiegituren politika, industria-lurra eskaintzeko politika, inbertsiorako laguntzak, etab.— eskualde-ikuspegia barneratzen dute neurri batean.

Gobernuek nahi duten eskualdea hauta dezakete faboratzeko. Nafarroaren kasuan Nafarroa guztia izango litzateke, Iruñea izan ezik. Beste gauza bat da Europako Batasunak eskualde lagungarriak zehazteko erabiltzen dituen irizpideak (1. helburuko eskualdeak, 2. helburukoak, 5b eskualdeak, etab.). Azken hauetan gobernuen laguntzak beste lekuetan baino handiagoak izan daitezke, eta Europaren kofinantzapenak parte hartzen du. Azken eskualde hauek gero eta gutxiago dira EAEn zein Nafarroan. Hala ere, EAEk oraindik Europako fondoetatik 601,01 milioi euro jasoko ditu 2000-2006 tartean.

Europako eskualde-politikaren aro bat 1999ko abenduaren 31n amaitu zen. Europako eskualde-politikako *Gida*-k eskualdeei emandako laguntzak eta eskualdeen zehaztapena berritzea eskatu du 2000-2006 tarterako. Nafarroaren kasuan 361/2000 Foru Dekretuak (azaroaren 20koa) aldaketa ekarri du.

EAEn eskualde-politika aplikatu da, industria-krisiak leku zehatzetan sortutako arazoei aurre egiteko. Nerbioiko ZUR (*Zona de Urgente Reindustrialización*) 1985ean abian jarri zen, eta hiru urtez iraun zuen. Bertan administrazio zentralak zein administrazio euskaldunak parte hartu zuten.

Ondoren, 1988. urtearen amaieran, Nerbioiko ZUR horrek bere izena aldatu zuen ZID (*Zona Industrializada en Declive del País Vasco S.A.*) bilakatuz. Horrela, zabaldu egin zuen bere esparrua, 43 udal barneratuz: Nerbioialdea, Deba Behea eta Donostiako industria-gerrikoa. SPRIk kudeatu zuen ZID hori, baina aurrekontu eskasaren ondorioz ez zuen bere helburua bete, eta 1995. urtean desagertu egin zen (SPRI, 1996: 35).

1997. urtean *Euskadi XXI* izeneko planaren barruan, Ibar Ezkerrari laguntzeko neurriak hartu ziren. Industria-lurreko 1.200.000 metro karratu egokitu ziren, eta arlo horretan SPRILURen ekimen berriak egon dira. Era berean, Ibar Ezkerrean in-

dustria-proiektu berriak kokatu dira, horien artean energiaren arloko proiektu estrategikoak.

1997an Industria Ministerioak, Jaurlaritzako Industria Sailak, Bizkaiko Diputazioak eta eskualdeko udalek, Ibar Ezkerra suspertzeko erakundearteko plana sinatu zuten. Plan horren lehen aroa 1997tik 2000rakoa izan da, tartean 354,6 milioi euro inbertituz eta 2.917 enplegu sortuz (*Zabalik*, 2001eko ekainaren 23tik 24rakoa).

Ibar Ezkerrerako eta Pasaiako Badiarako ekimen asko daude: *Sustapen*, *Izartu*, "*Cedime*" industria-poligonoa AHVren lurretan, Erakustazoka berria Barakaldon, etab.

Azpiegiturak. Eusko Jaurlaritzak azpiegiturak garatzeko plan desberdinak aplikatu ditu denboran zehar: *Euskadi 93* Plana; Euskal Herriko Errepideen Plan Orokorra 1993/2004; *Euskadi XXI* (Azpiegiturak eta Baztertuak Gelditu diren Lurraldeak Suspertzeko Erakundearteko Plana); Azpiegituren Erakundearteko Plana 2000-2003; etab. Plan horiez gain, beste azpiegitura-proiektu garrantzitsu batzuk ere badaude, *Euskal Y* adibidez (ikus liburu honetako bosgarren kapitulua).

Cluster-ak. EAEko IMO 1991-1995 izeneko industria-politikaren funtsezko ekarpen bat *cluster*-en politika da. Hauek Porter-en lanean oinarrituta daude; izan ere, Eusko Jaurlaritzak Michael Porter eta bere ikerketa konpainia (*Monitor Company*) kontratatu zituen euskal industriaren azterketa egiteko.

Porter-en arabera, ekonomia erregional batek sistema bat osatu behar du lehiakortasuna erdiesteko. Elkarlana bultzatu behar da enpresen artean, hauen eta gobernuaren artean, eta unibertsitatea, finantza-erakundeak, etab. ere kontuan hartuz.

Sistema horri *cluster* deritzogu. *Cluster*-ak sektore desberdinetan ezarri dira. Lehentasunezko *cluster*-ak hauexek dira: makina-erreminta, etxetresna elektrikoak, automobilgintzaren lagungarriak, balio erantsi altuko altzairugintza, aeronautika, portuak, ingurugiroa, papera, energia eta telekomunikazioak. *Cluster* bakoitzak ikerketak egiten ditu, bere plan estrategikoa garatzen du, etab.

Adibidez, automobilgintzaren hornikutza 1991tik *cluster* estrategikotzat hartu zen, eta ondorioz, 1993an ACICAE sortu zen. ACICAEk sektorearen gaineko azterketak egin ditu. Euskal hornitzaile gehienak enpresa txikiak dira, eta, beraz, beren arteko aliantza estrategikoak bultzatzea garrantzitsua da, baita kanpoko kapitala erakartzea edo nazioarteko *holding*-etan barneratzea ere. Adibidez, 1999an *Mondragon Automoció*n-ek *Gamesa*-rekin batera *Promauto Desarrollo de Automoción* sortu du MERCOSURen lehiatzeko.

Elektronika eta telekomunikazioen inguruko *cluster*-aren izena GAIA da. Berriki GAIAk bere *Plan Estrategiko Plurianuala 2001-2004* aurkeztu du. Horren ardatzak euskal enpresen arteko elkarlana bultzatzea, elektronikaren lehentasuna berreskuratzea, etab. dira.

Inbertsiorako laguntzak. Hego Euskal Herrian inbertsiorako laguntza ugari eskaini dira. Hauen barruan batzuetan finantzen eta zergen aldeko laguntzak bereizten dira. Azkenen artean sozietateen gaineko zerga beheratzea dago, EAEk Kontzertuan eta Nafarroak Komenioan oinarrituta egin dezaketena. Neurri gatazkatsu horiek auzipean jarri ditu Madrilgo administrazioak.

1982tik aurrera EAEn, SPRIk maileguak eskaini dizkie ETEei, inberti dezaten. Torres-i jarraituz, SPRIren mailegu sustatzaile horiek asko beheratu ziren 1984an, Eusko Jaurlaritzak finantza-entitateekin *Convenio Pymes* izenekoa sinatzean. 1984tik aurrera, SPRIren maileguak enpresa berrietan eta interes teknologiko bereziko enpresetan zentratu dira. 1987an SPRI bi arlo horietan berrantolatu zen (Torres, 1995: 183-4).

1988. urtean, Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundien artean PAI (*Programa de Apoyo a la Inversión*) jarri zuten abian. PAI hori 1988tik 1990era aplikatu zen, eta arreta eskaini zion teknologia aurreratuak sartzeari (Torres, 1995: 183).

1992. urteko azaroan, IMO 91-95 onartu ondoren —baina honen barruan—, *Garapen* egitaraua onartu zen. Horrek inbertsio handiak erakarri nahi zituen, gutxienez 3,01 milioi eurokoak eta 50 langile baino gehiago sortzen zutenak.

Ondoren, JEO 96-99-ren barruan, *Ekimen* egitaraua onartu zen. Era berean, *Garapen* egitarauaren jarraipena gertatu zen. *Ekimen* egitarauak 342,58 milioi euro eskaini zituen enpleguak sortzen zituzten enpresa-ekimen berriak bultzatzeko.

Ekimen egitarauarekin *Garapen* egitarauarekin baino enpresa gehiagok jaso zuten laguntza. Hiru tarte zehaztu ziren sortutako enpleguen eta inbertsioen arabera. Lehenengoan, 30 enplegu eta 2,16 milioi euroko inbertsioa baino handiagoko proiektuak zeuden. Bigarrenean, 50 enplegu eta 4,51 milioi euroko inbertsioa baino handiagokoak; eta hirugarren tartean proiektu estrategikoak zeuden, 300 enplegu edo 60,1 milioi eurokoak baino handiagoak.

ETEei emandako laguntzen gainean Europak prestaturiko azken gida 1996. urtekoa da. Horren arabera, enpresa txikiei inbertsioaren %15 finantzatu ahal zaie, eta enpresa ertainei %7,5 (COM, 1999: 11). Hala ere, Europak EAEn onartutako eskualde lagungarrietan, *Ekimen* egitarauak enpresa txikien inbertsioaren %25era arte finantza zezakeen.

Gaur egun, *Ekonomia-Sustapenerako Erakundearteko Plana 2000-2003* (PIPE) delakoaren barruan, *Gauzatu* eta AFI egitarauek hartu dute erreleboa. *Gauzatu-Industria* egitarauaren bitartez, Eusko Jaurlaritzak 168,71 milioi euro eskainiko ditu izaera teknologiko berritzailea duten proiektuak edota eskualde kaltetuak (Nerbioi Ertza eta Pasaiako Badia adibidez) sustatzen dituzten ekimenak bultzatzeko. Bestalde, *Gauzatu-Kanpoko Ezarpenak* egitarauaren bitartez, ETEak Europako Batasunetik kanpo garatzeko laguntzak eskainiko dira (*Zabalik*, 2001eko otsailaren 10etik 11rakoa: 17).

Nafarroan, 1982. urteko Foru Legebiltzarraren Akordioan, inbertsioentzako finantza eta zerga aldetiko laguntzak jaso ziren 34. artikuluan: dirulaguntzak aktibo finkoetan inbertitzeagatik eta lanpostuak sortzeagatik (Sanz-Magallón, 1999: 226-28).

1/1982 Foru Dekretuak (irailaren 16koa) aipatutako 34. artikulua garatu zuen. Estatu espainola 1986. urtean Europako Elkartean sartzean, dekretu hori Europako Batzordeari jakinarazi zitzaion. Ondoren, Europak ETEei emandako laguntzen Gidarekin egokitzeko, 323/1997 Foru Dekretuak aldaketak ekarri zituen.

Gorago esan dugun legez, Europako Elkartean eskualde-politikako aro bat 1999ko abenduaren 31n amaitzean, inbertsioaren eta enpleguaren gaineko laguntzak aldatu behar izan dira, 361/2000 Foru Dekretuaren bidez (azaroaren 20koa). Horren arabera, adibidez, enpresa txiki berriei inbertsioaren %24 finantzatuko zaie, Iruñeko eskualdetik kanpo bada. Iruñeko udalean izanez gero, %15eko muga dago, Europak behartuta; eta Iruñeko eskualdean bada, %17koa, Nafarroako gobernuak %25era ailegatzea merezi ez duela uste duelako.

Teknologia-politika. Zientzia eta teknologia EAEren eta Nafarroaren eskuduntza esklusibo legez agertzen dira. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak salatu duenez, eskuduntza ez da transferitu, eta gure finantza-ahalmenari heldu behar izan diogu politika hori garatzeko.

EAEren teknologia-politikan, Europakoan bezala, eboluzio bat egon da. Iraganean ahaleginik handiena azpiegituretan egiten bazen, denborarekin *network* edo *cluster*-en sorrerak hobetsi dira, ETEetan berrikuntzak hobeto zabaltzeko. Horrela, tarte bi bereiz ditzakegu, 1981-1990 lehenengoa eta 1991-2000 bigarrena (Eusko Jaurlaritza, 2000) (Gai honen gainean, Begoña Garciaren lana ere badago liburu honetan).

Lehenengo tartean, 1981etik 1990era, oinarrizko azpiegitura eraiki zen zentro teknologikoen bitartez. Horietako gehienak pribatuak izan arren, Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso zuten; horregatik, *babestuak* zeritzen. 1986an zentro horiek koordinatu eta EITE sortu zuten. Gaur egun EITEren barruan dauden zentroak ondokoak dira: CEIT, *Inasmet*, *Labein*, *Gaiker*, *Robotiker*, *Tekniker*, *Leia* eta *Ikerlan*.

Era berean, SPRIk teknologia-parkea dauka herrialde bakoitzean: Bizkaiko Zamudiokoa (1985. urtean sortua), Arabako Miñanokoa (1992an jaio eta 1997an martxan jarritakoa), eta Gipuzkoako Miramongoa (1994an jaio eta 1997an martxan jarritakoa).

Horrez gain, SPRIk laguntza batzuk eman zizkien enpresen I+G sailei, eta teknologia-alorreko ekimenak aplikatu zituen: IMI (*Incorporación de la Microelectrónica a la Industria*, 1983. urtean abian jarritakoa), CN-100, ECTA, SPRITEL (1987. urtean abian jarritakoa eta 1994. urtean pribatizatua) eta UET.

UET (edo TEU, *Teknologia Estrategiaren Unitatea*/SPRI) 1989. urtean sortu zen, I+G politikaren kontrola eta planifikazioa areagotu nahirik. TEUk teknologiaren plan estrategikoa garatzeko eta eguneratzeko lana hartu zuen, eta horrela, 1990ean Teknologia-Estrategiaren Plana egin zen. Plan horretan lankidetzako proiektu estrategikoak jaso ziren, proiektu interesgarri zehatzak: nanoteknologiak, mikroteknologiak, etab. Ordutik aurrera, Jaurlaritzak azken proiektu horiek proiektu orokorrak baino gehiago bultzatu ditu.

Bigarren aldiari (1991-2000) industria-politikaren IMOk (1991-1995) eman zion hasiera. Oraingoan, azpiegitura enpresen eskarietara bideratzen saiatu zen, horretarako enpresa-*cluster*-ek ikerketa gidatzea bilatuz.

Aro honetako planak ondokoak dira: 1993-1996 Industria-Teknologiaren Plana eta 1997-2000 Zientzia eta Teknologia Plana. Era berean, 1997. urtean Teknologiaren Euskal Sarearen dekretua argitaratu zen, horren bidez Unibertsitatea I+G sarean barneratzea bilatuz.

Teknologia-politikari esker, EAEko I+G gastuek gorantz egin dute. 1990. urtean gastu horiek 226 milioi eurokoak izan baziren, 1999rako 500 milioi eurora ailegatu ziren (edo EAEko BPGren %1,37). Gainera, azken kantitate horren bi herenak (%65) enpresek burututako gastuak ziren (385 milioi euro edo BPGren %1,05). Enpresen nagusitasun hori positibotzat hartzen da (Estatu espainolean askoz gutxiago gertatzen da); izan ere, enpresek teknologia-ahaleginean duten parte-hartzea adierazten du.

Finantzapen publikoa (%30,9) eta Europako Batasunaren finantzapena (%4) gainerako osagaiak dira. Egindako teknologia-ahaleginaren ondorioz, EAEk gero eta parte-hartze handiagoa eduki du Europako ikerketa- eta teknologia-politikaren barruan (*Framework Programme* direlakoetan).

Azken teknologia-plana 2001-2004 tarterako da eta honen amaieran I+G gastuek BPGren %1,7 adieraztea bilatzen da. Gastu horietan enpresek nagusitasuna mantentzea espero da.

Horrez gain, Eusko Jaurlaritzak baditu informatika bultzatzeko ekimen batzuk: *Euskadi Informazioaren Gizartean*, *Konekta zaitez*, etab.

Nafarroako Foru Legebiltzarrak 1982. urtean (ekainaren 23an) onartu zituen industria-politikako neurrien artean, ikerketa eta garapenerako laguntzak ere bazeuden (BON, 86. zenbakia, 1982ko uztailaren 19koa). Ondoren, urte horretako irailaren 16an, Nafarroako Gobernuak ikerketa eta garapenerako laguntzen Arautegia atera zuen (2/1982 Foru Dekretua) (Zabala, 1996, 170). Era berean, Foru Aldundiak sozietateen gainean onartutako Akordioan (1978ko abenduaren 28koa), ikertzeagatiko zerga-arinketak jaso ziren.

1990ean, Legebiltzarrak teknologia-plan baten sorrera bultzatu zuen, 1982. urteko Arautegia barneratu zuena. Horrela, Nafarroako lehen teknologia-plana

1991. urtean jaio zen, hasierako aplikazio-tartea 1992-1995 izanik. Tarte honetan, 1993. urtean, elkartu egin ziren Nafarroako gobernuak aurretik industriaren alorrean sortutako ikerketa-zentroak, CETENASA (*Centros Tecnológicos de Navarra S.A.*) sortuz.

Nafarroak berak aplikatutako teknologia-politikaz gain, herrialdeak parte--hartze garrantzitsua dauka estatuaren teknologia-politikan. Madrildik diru nahikoa jaso du CDTIren bitartez. Ostera, Nafarroak parte-hartze txikia eduki du Europako teknologia-politikan (Zabala, 1996, 173).

Nafarroaren azken teknologia-plana 2000-2003 tarterakoa da. Plan hori garatzeko eta aplikatzeko, sozietate publiko berria sortu da: *Agencia Navarra de Innovación y Tecnología S.A*. Planaren bitartez I+Gra bideratutako gastuak bikoiztu egin nahi dira BPGren portzentajea %0,9tik %1,6ra pasatuz. Era berean, 2003. urterako Nafarroak bere teknologi-parkea edukitzea espero da (*Argia*, 2001eko apirilaren 1ean, 15. or.).

Ikerketa eta garapenerako laguntzak eguneratuak izan dira egoera berrira egokitzeko: aipatutako teknologia-plana (2000-2003) eta Europak 1996. urtean ezarritako I+Grako laguntzen marko berria (COM, 1999: 10-11). Horrela, azken neurriak hauexek dira: 360/2000 Foru Dekretua (azaroaren 20koa) ikerketarako laguntzen gainekoa (BON 150. zkia, 00-XII-13), eta 3/2001 Foru Legea (martxoaren 1ekoa), ikerketari jarritako zerga-arinketen gainekoa. Betiko legez, eskualde lagungarrietan handiagoak izan daitezke laguntzak.

Enpresentzako zerbitzuak. Mikel Zurbanok liburu honen 9. kapituluan erakutsi legez, enpresentzako zerbitzuak estrategikoak dira. Gobernuek politika aktiboak aplikatu dituzte arlo honetan: teknologia-politika, finantza-politika, etab. Eusko Jaurlaritzak 1991. urtean liburu bat argitaratu zuen gai honen gainean: *Modelo de política industrial de servicios a empresas en la C.A. del País Vasco*.

Adibidez, SPRIk 1983an *Tekel* enpresa sortu zuen, 1991n pribatizatu zena. Horrek enpresen informatizazioari lagundu zion. 1987an *Spritel* sortu zen enpresei telematika-zerbitzuak eskaintzeko. 1994an pribatizatu egin zen *Spritel*, *Sarenet* izena hartuz. Eusko Jaurlaritzak GAIA telekomunikabideen *cluster*-a sortu zuen, 1993an *Euskalnet,* eta 1997an *Euskaltel*, etab.

8.4. ENERGIA

1970eko hamarkadan energiaren edo petrolioaren krisia agertzean, Hego Euskal Herriak, industria-eskualde legez, energiaren kontsumo handia zeukan. Enpresek gutxi garatuta zeuzkaten energia aurrezteko planak, prezioak garestitzean arazo bilakatu zena. Era berean, energia-iturriak gutxi ziren, nagusiak petrolioa eta energia elektrikoa izanik; beraz, iturrien dibertsifikazioa eskasa zen. Horrek inguru-

men-arazoa larriagotzen zuen. Bestalde, kanpoko energiarekiko menpekotasuna handia zen, Euskal Herria energiaren inportatzaile netoa baitzen.

Egoera horren aurrean EAEk eta Nafarroak aplikatu dituzten energia-politikek helburu desberdinak izan dituzte. Bat enpresen eraginkortasuna hobetzea izan da, horrela energia-kontsumoa beheratzeko. Beste helburu batzuk energia-iturriak dibertsifikatzea izan da, energia-menpekotasuna gutxitzea, ingurumena zaintzea, etab.

Euskal gobernuen funtsezko puntu bat gas naturalaren, energia elektrikoaren eta energia berriztagarrien produkzioa bultzatzea izan da (energia nuklearraren proiektuak laga ondoren, zorionez; Lemoiz, etab.). Nafarroa erreferentzia bilakatu da gaur egun energia berriztagarrien esparruan; EAEk, bere aldetik, gas naturalaren eta energia elektrikoaren aldeko apostu irmoa egin du.

Eusko Legebiltzarrak 1981ean CADEM (*Centro para el Ahorro y Desarrollo Energético*) sortu zuen. Bestalde, *Ente Vasco de la Energía* edo *Energiaren Euskal Erakundea* (EVE-EEE) dekretuz sortu zen 1982. urtean. Data berean *Sociedad de Gas de Euskadi* (SGE) sortu zen eta urte bat beranduago *Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi* (SHE). NATURGAS 1987. urtean sortu zen eta EAEko gas naturalaren merkatua kontrolatzen du.

Eusko Jaurlaritzaren lehenengo energia-plana 1982-1990 tartekoa izan zen. Ondoren, 1992. urtean, industria-politikako IMO (1991-1995) delakoaren barruan, Eusko Legebiltzarrak EVEri euskal energia-politika diseinatzea eskatu zion. Honek 1991-2000 denboraldirako *3E-2000 Energi Estrategia* garatu zuen. 1996. urtean, energia-munduaren ibilerak zirela eta, Legebiltzarrak energia-plan horren berrikuspena eskatu zuen, eta baita bere ikusmira 2005. urtera arte luzatzea ere. EAEn 1996-2005 tartean energiaren arloan 2.656,47 milioi euro inbertitzea espero da (*EVEntos*, 13. zkia, 2001eko urrikoa). Bestalde, 1996. urtean Energiaren *cluster*-a osatu zen.

Nafarroari dagokionez, herrialdeko gobernuaren energia-politika 1985. urtean hasi zen. Geroago, 1996. urtean onartutako *Plan Energético de Navarra / Año 2000* delakoaren helburuek 2000. urtera arte iraun zuten. Hala ere, planak 2010. urterako aurresanak egin zituen sektore ezagunetan, energia eolikoaren sektorean kasu. Lerro hauek idazteko orduan, 2002ko urtarrilean, energia-plan berria onartzear dago 2001-2005 tarterako. Plan horrek errealitate desberdinari aurre egiten dio, iraganarekin erkatuta. Energiaren dibertsifikazioa dagoeneko handia da, gas naturala eta energia eolikoa oso garatuta baitaude. Planaren helburu nagusiak energia berriztagarriak bultzatzea eta energiaren eraginkortasuna edo aurrezkia hobetzea izango dira.

Petrolioaren finketa

Hego Euskal Herrian petrolioaren finketa egiten da, *Petronor*-ek 1968. urtetik aurrera Muskizen daukan fabrikari esker. Petrolioari prozesu bat aplikatuz, petrolioaren finketak produktu desberdinak lortzen ditu aldi berean: gasolina, gasolioa, naftak, etab.

BBVk eta *Repsol*-ek akzioak trukatzearen ondorioz, azken honek 1989. urtean *Petronor*-en gehiengoa lortu zuen (%89 *Repsol*, %11 BBV). Aldi berean, BBV *Repsol*-eko akziodun pribaturik handiena bilakatu zen.

Gas naturala

Hego Euskal Herriak ahalegin handia egin du petrolioa gas naturalarekin ordezkatzeko. Bigarren Mundu Gerraren ostean gas naturala Euskaditik oso hurbil aurkitu zen, Frantziako Lacq-en. Euskal enpresari batzuk gas hori hona ekartzen saiatu arren, frankismoak ez zuen ekimena onartu. Zerbait beranduago, 1969an, Kataluniak aurrea hartu zigun, Bartzelonan birgasifikazio-planta eraikiz. Azken horrek kontratua sinatu zuen Aljeriarekin, gas likidoa hornitzeko (*Deia*, 2001eko azaroaren 4koa).

Garai hartan proiektu pribatu asko zeuden. Hala ere, estatuak sektore hori interes orokorrekotzat hartu zuen, eta 1972. urtean *Empresa Nacional de Gas* (ENAGAS) sortu zuen.

Elhuyar-en *Energiaren Hiztegi Entziklopedikoa*-ri jarraituz, 1964an Arabako Gaztelu herrian gas naturalaren hobi txiki bat aurkitu zen. Hobi horrek Gasteizko bi industria hornitu zituen gasez, 1980ra arte, Bartzelona-Tivisa-Euskal Herria gasbidearen bidez Gasteiza gas natural aljeriarra iritsi arte[1].

Jarraian, 1982ko maiatzean *Sociedad de Gas de Euskadi SA* sortu zen, energia garbi hori bultzatzeko asmoz. Estatu espainolak kontratu garrantzitsua sinatu zuen Aljeriarekin. Horrekin batera, estatuan gasbideak zabaltzeko inbertsioak egin ziren. Eusko Jaurlaritzak ere zeregin honi ekin zion *Gas de Euskadi*-ren bitartez. Era berean, 1986an Bermeoko *Gaviota* hobia ustiatzen hasi zen, gas natural hodiratuaren kontsumoa EAE osora zabalduz[2].

Gas naturala eta energia elektrikoaren kasuak ez dira berdinak. Bigarrenari dagokionez, gobernu sozialistak 1984. urtean nazionalizatu egin zuen garraio--sarea. Ostera, *Enagas* —Argeliarekin hornikuntza kontratuak zituena, eta baita presio handiko gasbideak eta bezero industrialak ere— pribatizatu egin zen. Interesak eta boterea tartean zeuden, eta *Enagas* enpresa *Gas Natural Sdg*-ri esleitu zitzaion. Azken enpresa hau *Catalana de Gas* eta *Gas Madrid* enpresen arteko bategitearen ondorioz sortu zen.

Monopolioa edukirik, *Gas Natural Sdg*-ek *Gas de Euskadi*-ren ekimenak oztopatu zituen. Preseski, Aljeriarekin harreman zuzenak edukitzea eta gasaren garraioagatik kobratzea debekatu zion.

1. Aipatutako bezero industrialak eta sareak kendu zitzaizkion Gasteizi, interes orokorraren izenean, *Enagas*-en eskuetan uzteko.

2. Bermeoko gasa dagoeneko agortuta dago, eta gaur egun kontsumitutako gas naturalaren %100 inportatzen dugu, nahiz eta gasaren bilaketa-lanak jarraitu.

Gaur egun, printzipioz, egoera aldatzen egongo litzateke. Sektorearen liberalizazioa gertatzen ari da gas naturalaren gaineko Europako Direktibarekin eta Estatu espainoleko hidrokarburoen legearekin, 1998koak biak. Azkenak lehenengo aldiz onartu zuen Estatu espainoleko gasbideetan azpisistemen existentzia, eta, ondorioz, hirugarren eragileei estatuko gasbideetara ailegatzea ahalbidetu die, eta baita birgasifikazio-plantetara eta energia elektrikoa produzitzeko zentraletara ere[3].

Gaur egun, beti bezala, Euskadik proiektu garrantzitsuak ditu gasaren arloan. "*Bizkaiko Badia*"k Zierbenan birgasifikaziorako planta eraikiko du 2003. urterako. Bertan Trinidad eta Tobagotik ekarritako gas likidoa berriro gas bihurtuko da. EAEko gas-eskaria hornitzeaz gain, ziklo konbinatuko planta bat ere eraikiko da. Horrela, gas naturala energia elektriko bilakatzeko aukera ere egongo da.

Bestalde, Euskadiko eta Estatu frantziarreko gasbideak bat egiteko proiektua dago. 2010. urtera arte iraungo du eta pauso desberdinetan Zierbenako birgasifikazio-planta Lussagnet-eko lur-azpiko biltegiarekin lotuko da. Lehenengo pausoa, Bidart eta Irun lotzea izango da, 2004. urterako.

EAEn 1995erako gas naturalak euskal energia-eskariaren %16 bete zuen, eta oraingo planaren helburua %28ra ailegatzea da 2005. urterako.

Bestalde, gaur egun EAEko gas naturalaren sektorea pribatizazio-bidean da. Horretarako *Gas de Euskadi*, *BilboGas* eta gainerakoen aktiboak *Naturcorp* sozietatera pasatuko dira.

Nafarroan ere gas naturalak gorantz egin du, 1988an Kalagorri-Iruñea gasbidea martxan jarri zenetik. Ildo beretik, 1993an ENAGASek Estatu espainoleko eta Europako gas-sareen lotura bakarra Nafarroatik egin zuen (Lacq-Kalagorri) (*Zabalik*, 2000.eko ekainaren 17tik 18ra).

Energia elektrikoa

Energia elektrikoa ia beti garestia izan da Estatu espainoleko industriarentzat. Hala ere, sektoreko liberalizazio-prozesuarekin asko hobetu da puntu hori.

1994. urteko energiaren legeak kontsumitzailearen eta konpainia elektrikoaren artean energia elektrikoa libreki kontratatu ahal izatea iragarri zuen. Hala ere, 1997. urteko energia elektrikoaren legera arte ez zen prozesua abian jarri. Urte horretan, Europak direktiba berezia atera zuen energia elektrikoaren gainean. Direktiba horrek 1998ko urtarrilaren 1etik hasita 10 urteko epea eman zion Estatu espainolari erabateko liberalizazioa erdietsi arte. Liberalizazioaren lehenengo pausoa energia elektrikoaren kontsumitzaile handiei aukeratzen uztea izan zen, 10 urteren buruan aukera hori kontsumitzaile guztientzat izan arte. Estatu espainolak

3. Hala ere, oraindik ez dago joko garbirik: *Gas de Euskadi*-ri ez zaio gas-sistemaren kudeaketan parte hartzen utzi; Aljeriarekin dagoen kontratuaren enkantean azpijokoa egon da; etab.

legeen ondoren onartutako errege-dekretu batzuek, 2003. urtera aurreratu dute energia elektrikoaren eta gas naturalaren liberalizazioa.

Beraz, euskal industriak ez du dagoeneko *Iberdrola* euskal konpainia elektrikoarekin derrigorrez kontratatu behar; lehia handitu egin da eta prezioak merketu egin dira. Puntu kezkagarriak ere egon dira; dena den, *Iberdrola* enpresa *Endesa*-rekin bat egiteko proiektua bertan behera geratu da, zorionez. Izan ere, euskal enpresaren desagerpena jokoan zegoen.

Bestalde, Hego Euskal Herriak energia elektrikoa produzitzeko megaproiektuak ditu, bost Bizkaian eta bi Nafarroan. Bizkaian: ziklo konbinatuko zentral elektrikoak Boroan (Zornotza), Santurtzin eta Zierbenan; gasifikazio integratuko ziklo konbinatua (IGCC) *Petronor* enpresan, eta hondakindegiko gasak balorizatzeko zentrala Artikan (Bilbo). Proiektu horiek ekologisten kexuak sorrarazi dituzte (*Elhuyar*, 2001eko maiatza). Nafarroan ziklo konbinatuko planta bi jarri nahi dira Tutera ondoan dagoen Castejon-en.

Ziklo konbinatuko plantak gas naturalaz hornitzen dira, energia elektrikoa produzitzeko. Beraz, zuzenean kontsumitzeko ez ezik, gas naturala baliagarria da energia elektrikoa sortzeko ere.

Horrekin guztiarekin, 1995. urtean EAEk bere energia elektrikoaren kontsumoaren %20 produzitu bazuen, 2005erako portzentaje hori %82ra igotzea espero da.

Energia berriztagarriak

Nafarroak ahalegin handia egin du energia berriztagarrien bitartez energia elektrikoa produzitzeko. Izan ere, potentzialtasun handia dauka energia berriztagarrietan. Minizentral hidroelektrikoak ikertzeko, programa garrantzitsua egon zen 1983-1989 tartean. Ondoren, 1989an *Energía Hidroeléctrica de Navarra S.A.* (EHN) enpresa erdi-publikoa sortu zen SODENAren bitartez.

Era berean, EHN enpresa energia eolikoa garatzeaz arduratu da. 1994. urtean abian jarri zen *Garapen Eolikorako Plana* eta gaur egun 23 parke eoliko daude, 17 EHNrenak eta 6 *Hermanos Oliver*-enak. Gaur egun herrialdeak behar duen energiaren %31 haize-errotek produzitzen dute.

Orain arteko energia-planak 2010. urterako 800-900 megawatt aurresan zituen energia eolikoari dagokionez. 1997an foru-dekretu batek parke eoliko berrien instalakuntza debekatu zuen. Beraz, *2001-2005 Planak* dagoeneko existitzen diren parkeetan eragingo du, bertan onartutako guztia 2005. urterako abian jarriz.

Energia eolikoa oso garatuta dagoenez, *2001-2005 Planak* beste energia berriztagarri batzuetan ere ahalegina egingo du: eguzkitiko energia, bio-erregaiak, biomasa, etab.

EAE atzeratuago dago nabarmenki energia berriztagarrien arloan. Energia eolikoari dagokionez, adibidez, 2000. urtean planta txikia jarri zen Elgean. Hala ere, 2001. urtean Eusko Jaurlaritzak EAEko *Energia Eolikoaren Lurralde-Plan Sektoriala* aurkeztu du. Planak parke eolikoak kokatzeko leku desberdinak aztertzen ditu (*Zabalik*, 2001.eko irailaren 22tik 23ra).

EAEn 2005. urterako energia berriztagarriak energia osoaren %12ra ailegatzea espero da (%8 biomasa, %3 haize-energia, %1 instalazio minihidraulikoak). Zentzu horretan, Europako Batasunak eskatutakoa betetzen ari da; izan ere, 1997. urtean, 2010. urterako %15era ailegatzeko konpromisoa hartu zuen Kyotoko bileran.

8.5. INDUSTRIAREN ETA FINANTZA-SISTEMAREN ARTEKO HARREMANA

Finantza-sistemaren eta industriaren arteko lotura oraindik ere ahula da. Jarraian atal desberdinak gainbegiratuko ditugu: bankuak, aurrezki-kutxak, arrisku-kapitaleko sozietateak, burtsa, etab.

Bost dira Hego Euskal Herrian beren egoitza nagusia duten bankuak: BBVA Bilbon; *Bankoa* eta *Banco Guipuzcoano* Donostian; SCH taldeko *Banco Vitoria* Gasteizen; eta *Banco Popular* taldeko *Banco Vasconia* Iruñean (*Argia*, 2000ko apirilaren 16koa).

Banco de Bilbao-k eta *Banco de Vizcaya*-k 1988. urtean bat egin zuten BBV sortuz. Ondoren, 1999. urtean Argentariarekin elkartzearen ondorioz BBVA sortu zen. Banku horren lehendakaritza esku espainoletara pasatu da, eta horrek kezka sortu du Euskadin. *Bankoa* industria-bankua 1975. urtean sortu zen eta 1997ko urritik *Crédit Agricole* taldearen barruan dago.

Hego Euskal Herriak eskuduntzak dauzka aurrezki-kutxei eta mailegu-kooperatibei dagokienez. Eusko Jaurlaritzaren asmoa euskal banku publikoa sortzea eta aurrezki-kutxak elkartzea izan da, nahiz eta momentuz asmo horiek ezin gauzatu.

Hego Euskal Herrian aurrezki-kutxak publikoak dira eta garrantzia handia dute. Ondokoak dira: Bizkaian BBK (*Bilbao Bizkaia Kutxa*), Gipuzkoan *Kutxa*, Araban *Vital Kutxa* eta Nafarroan CAN (*Caja de Ahorros de Navarra*).

Garrantzitsuenak EAEko aurrezki-kutxak dira (bereziki BBK), eta industria-jardueran nahiko parte hartzen dute (Navarro *et al*., 1994, 61). BBKk igoera ikusgarria eduki zuen 2000. urteko lehen hiru hilabeteetan, bere parte-hartzea enpresetan zazpi aldiz handituz. *Banco Guipuzcoano*-ren %10 erosi du (horrela honen %15 edukiz) eta *Iberdrola*-ren %1 eskuratu du (horrela honen %5era ailegatuz) (*Deia*, 2000ko maiatzaren 30koa).

Mailegu-kooperatibei dagokienez, EAEn *Caja Laboral/Euskadiko Kutxa* dago, Arrasateko MCC taldearen barruan garrantzi berezia dauka. Beste mailegu-kooperatiba batzuk *Caja Rural Vasca* (*Ipar Kutxa*) eta *Caja Rural Navarra* dira.

Azken aldian garrantzia hartu dute merkataritza- eta inbertsio-bankuen jarduera batzuk: arrisku-kapitala, elkarrekiko garantia-elkargoak, *leasing*-a, mailegu parte-hartzaileak, etab. Hauek garrantzitsuak dira ETE direlakoen finantzapenari laguntzeko.

Europan arrisku-kapitalaren garapena AEBetan baino txikiagoa da. Arrisku--kapitaleko sozietateek parte-hartze minoritarioak eta iragankorrak hartzen dituzte enpresen kapitalean. Tarte baten ondoren akzioak saltzen dituzte, eta akzioen prezioak gorantz egin badu, arrisku-kapitaleko sozietateak plusbalioa irabazten du.

EAEko arrisku-kapitalak 1970eko hamarkadan izan zuen hasiera, nahiz eta 1986ra arte izaera legalik eduki ez. EAEn arrisku-kapitaleko elkarterik garrantzitsuenak *Fondo Ezten*, *Sociedad de Capital Riesgo de Euskadi* (SOCADE), *Seed Capital de Bizkaia* (Bizkaiko Aldundiarena), *MCC Desarrollo* eta *Talde* dira. Lehenengo hirurak publikoak dira, eta azken biak pribatuak. *Talde* 1976an sortu zen, eta Estatu espainoleko arrisku-kapitaleko lehenengo elkarte pribatua izan zen. *Ezten*, SPRIren barruan dagoen *Sociedad Gestión de Capital Riesgo* (*Euskal Herriko Arrisku-Domuaren Eraentza*) delakoak kudeatzen du. Azken honek 2000. urtearen amaieran beste fondo bi sortu ditu, *Ezten*-ekin batera lan egiteko: *Sustapen* eta *Elkano XXI*. Beraz, arrisku-kapitala hedapen-aroan dago (*Empresa XXI*, 2001eko ekainaren 15ekoa).

Hego Euskal Herriak arrisku-kapitalaren bitartez industriaren berregituraketan parte hartu du eta inbertsio proiektu berriak bultzatu ditu. Horrela, Eusko Jaurlaritzak SOCADEren bitartez, ACB eta GSB enpresetan parte hartu du, besteak beste.

Nafarroako gobernuak enpresa handien proiektu esanguratsuak bultzatzen ditu NAFINCO (*Navarra de Financiación y Control*) finantza-enpresa publikoaren bitartez. Krisian eta berregituraketa-prozesuan egondako enpresa batzuk NAFINCOren bitartez onbideratu dira, adibidez *Gráficas Estella* (Aurrecoechea *et al.*, 1996: 61). Era berean, SODENA agentziak arrisku-kapital legez jokatzen du; eta jarduera berritzaileentzat gauza bera egiten du Nafarroako gobernuak sortutako *Start Up Capital Navarra S.A*. delakoak.

Elkarrekiko Garantia Elkarteek enpresa txiki eta ertainei abalak edo bermeak ematen dizkiete. EAEn elkarrekiko garantia-elkarterik garrantzitsuena *Elkargi* (1980) da eta Nafarroan 1981. urtean sortutako SONAGAR (*Sociedad Navarra de Garantía Recíproca*). *Elkargi*-k 1996-2000 tartean 802,69 milioi euro eskaini zituen bermetan, 1.202,02 milioi euroko inbertsioa ahalbidetuz. Era berean, 2001-2004 tarterako *Elkargi*-k daukan helburua 901,52 milioi euroko bermeak ematea da, horien bidez 1.502,53 milioi euroko inbertsioa errezteko.

Era berean, *Luzaro*-k mailegu parte-hartzaileak eskaintzen dizkie ETEei. *Luzaro*-k 1992tik hamarkada bat darama lanean eta bere partaideak BBK, *Kutxa*, *Vital Kutxa*, *Caja Laboral*, *Banco Guipuzcoano* eta *Bankoa* dira. 2001. urtean

Eusko Jaurlaritzak *Luzaro*-rekin akordioa sinatu du, ondorengo bost urteetan ETEei 300,51 milioi euroko finantzapena errazteko.

Bestalde, Euskal Herriak Estatu espainoleko bigarren balio-merkatua dauka. Bilboko burtsaren eraikina Eusko Jaurlaritzarena bada ere, sozietatea akziodun pribatuez osatuta dago bakarrik. BBVAk Bilboko burtsaren parte-hartzerik handiena dauka (%24), eta ondorengo hauek %12 daukate bakoitzak: BSCH, *Banesto Bolsa*, *The Chase Manhattan Bank*, *Norbolsa*, *Mercagentes* eta *Fineco*.

Bilboko burtsa, Estatu espainoleko burtsa legez, azpigaratuta egon da. Finantza-bitartekari nagusiak bankuak izan dira. Egile batzuen arabera, interesgarria da ETEentzat balio-merkatua sendotzea eta Bilboko burtsarentzat estrategia propioak garatzea (Gómez-Bezares *et al*., 2000).

Hala ere, 2001eko urtean Bilboko burtsaren autonomia arriskuan jarri da. Izan ere, Burtsako sozietateek Estatu espainoleko burtsen integrazioa —ez bategitea— iragarri dute. Integrazioaren protokoloan merkatu bakoitzeko sozietateak independentzia gordeko duela iragarri bada ere, ez dago etorkizunerako bermerik. Izan ere, burtsen etorkizuna osatzeke dagoen *holding* bakarraren esku egongo da. Honen barruan BBVAren pisua oraindik garrantzitsua izatea gerta daiteke. Kasu horretan, BBVAren jokaeraren menpe egongo ginateke.

Eusko Jaurlaritzak horren guztiaren gaineko kezka azaldu du. Bere iritziz, Euskal Herriari subiranotasun politiko eta ekonomikoa ukatzeko beste ahalegin bat izango litzateke.

8.6. ONDORIOAK

Hego Euskal Herria industria-eskualdea da. Bizkaia eta Gipuzkoa XIX. mendean industrializatu ziren, eta Araba eta Nafarroa XX. mendeko erdialdetik aurrera.

Ondoren, 1970eko hamarkadan Bizkaiko eta Gipuzkoako industriek krisi handia jasan zuten, Araban eta Nafarroan beherakada askoz txikiagoa izan zen bitartean.

Franco-ren diktaduraren ondoren, EAEk eta Nafarroak autonomia-estatutuak eskuratu zituzten, eta baita Kontzertu eta Komenio ekonomikoak ere. Eskuduntza horietan oinarrituta, gobernu autonomoek industria- eta teknologia-politika propioak garatu dituzte. Politika horiek funtsezkoak izan dira krisia gainditzen joateko.

Industria-politikaren barruan berregiturapen- eta sustatze-politikak bereizten dira. Lehenengoari dagokionez, Madrilgo gobernuak enpresa handien berregituraketa egin zuen. Eskuduntza honen gabezia oso kaltegarria gertatu da Euskal Herriarentzat, enpresen itxierak gehituz. Era berean, arriskuak bere horretan jarraitzen du, izan ere, bizirik irauten duten enpresa handi asko Estatu espainoleko enpre-

setan edota transnazionaletan enbortuta baitaude. Beraz, erabakigunea ez dago Euskal Herrian.

Ostera, Eusko Jaurlaritzak hobeto onbideratu zituen berak berregituratutako sektoreak: makina-erreminta, automobilaren hornitzaileak, etxetresna elektrikoak, etab.

Bestalde, bai Eusko Jaurlaritzak bai Nafarroako gobernuak sustapen-politika ugari aplikatu dituzte: inbertsiorako laguntzak, industria-lurraren eskaintza, teknologia-politikak, etab. Teknologia-politikaren bitartez, adibidez, I+G gastuetan Europako mailara hurbiltzen joan gara.

Dena dela, kritikak ere ez dira falta izan. Adibidez, sindikatuek EAEko JEO 1996-1999 politika aho batez arbuiatu zuten, gauza desberdinak argudiatuz: Euskadik eskuduntza batzuen gabezia edukitzea, iniziatiba pribatuaren menpe egotea, enpresa publikoa nahikorik ez erabiltzea, industria-saileko aurrekontua gero eta txikiagoa izatea, eta sindikatuekin industria-politika ez adostea.

Beste egile batzuen arabera, Eusko Jaurlaritzak enpresa publikoa aplikatu izan du —Estatu espainolean ez bezala, horren erabilera ez litzateke beherakorra izango—, arrisku-kapitalaren bitartez enpresetan parte hartu du, etab. Bestalde, energiaren alorrean Euskal Herriaren eskuduntza-gabeziak seinalatu izan badira ere, azken aldian gobernu autonomoaren ekintza asko ikusi ditugu.

Eztabaida horretan sakondu behar litzateke. Hitz batean, orain arteko berregituraketa- eta sustatze-politiken balorazioa egin behar dugu, horrela puntu sendoetan sakontzeko eta puntu ahulak zuzentzeko.

BIBLIOGRAFIA

Aurrecoechea, J.; Goñi, A. eta Pérez, E. (1996): "Las empresas públicas de la Comunidad Foral de Navarra", *Boletín de Economía de Navarra*, 2. aldia, 11. eta 12. zkiak, 43-73. orr.

Barrutia, X. (2001): *Altzairugintzaren ibilera eta berregituraketa: Altos Hornos de Vizcaya*, Doktorego Tesien Saila, UPV/EHU, Bilbo.

COM (1999): *State aid and the Single Market*, European Economy Nº3, Reports and Studies, European Commission.

Etxebarria, G. (1993): *La desestructuración del espacio económico vasco. La crisis actual de la industria vasca y su inserción en el marco europeo*, Doktorego Tesia, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.

Eusko Jaurlaritza (2000): *Ikerketa eta garapena (I+G) Euskadin*, Eusko Jaurlaritza, SPRI.

Franco, H. eta Etxebarria, G. (1995): "Euskal ekonomiaren desegituraketa. Industri politikaren azterketa", in I. Zaldua eta M. Zurbano (arg), *Industrializazio-*

tik desindustrializaziora? Euskal Herria kapitalismoaren garapenaren testuinguruan, UEU, Bilbo.

Gómez-Bezares, F. *et al.* (2000): *Las plazas financieras en una economía global. Una propuesta estratégica para Bilbao*, BBK, Bilbo.

Navarro, M.; Aranguren, M. J. eta Rivera, O. (1994): *La crisis de la industria manufacturera en la CAPV: Aspectos estructurales*, Manu Robles Arangiz Institutua, Bilbo.

Papeles de Economía Española (1988): *Economía de las Comunidades Autónomas, Navarra*, 6. zkia.

Papeles de Economía Española (1990): *Economía de las Comunidades Autónomas, País Vasco*, 9. zkia.

Sanz-Magallón, G. (1999): *Crecimiento económico y modernización industrial en Navarra*, Gobierno de Navarra, Iruñea.

SPRI (1996): *Quince años de industria vasca 1981-1996*, SPRI, Bilbo.

Torres, M. C. (1995): "La industria en el País Vasco: reconversión y nuevas trayectorias", in J. Bosque eta R. Méndez (arg.), *Cambio industrial y desarrollo regional en España*, Oikus-Tau, Bartzelona.

Vázquez, A. (1998): *El modelo vasco de transformación empresarial. Retando al futuro*, SPRI, Bilbo.

Velasco, R. eta Plaza, B. (2001): *Política industrial de las Comunidades Autónomas*, Círculo de empresarios vascos, Bilbo.

Zabala (1996): "La industria navarra frente al reto de la innovación: Las actuaciones relativas a las pymes", *Economía industrial,* 312. zkia, 167-176. orr.

9. Zerbitzuen sektorea

Mikel Zurbano

9.1. ZERBITZUAK JARDUERA EKONOMIKOAN

Jarduera ekonomikoen inguruko ikuspegia oso aldakorra izan da pentsamendu ekonomikoaren historian zehar. Fisiokratek nekazaritza-jarduerak soilik hartzen zituzten jarduera produktibo gisa. Klasikoak harago doaz, industria-jarduerek ere izaera produktiboa dutela aldarrikatuz. Hartara, XX. mendearen bigarren erdira jo behar da bestelako jarduera ekonomiko batzuk ere —zerbitzu-jarduerak, alegia— produktibotzat hartuak izateko.

Jarduera ekonomikoen mugaketa arazo sakona da. Finean, irizpide subjektibo eta aldakorren arabera egin ohi da sailkapen sektoriala, eta ez dirudi orain arte zutik dirauen hiru sektoreena[1] egokiena denik, gaur egungo aldaketa ekonomiko sakonak eta hauen konplexutasuna adierazteko. Gogoan izan behar da, beraz, gaur egungo sistema produktiboaren eraldakuntzek ia ezinezko bihurtzen dutela ekonomia-jarduerak eta horiek sortutako produktuak zehaztasunez mugatzea. Esaterako, aipagarria da *zerbitzua* zer den definitzeko dauden zailtasunak. Zailtasun horren arrazoietako bat hirugarren sektorearen baitan lerratzen diren jardueren heterogeneitatea eta horien izaera *ukigaitza* dira. Bertako jardueren artean sartzen dira garraioak, ostalaritza, enpresentzako zerbitzuak, zerbitzu pertsonalak, hezkuntza, etab. Zailtasunaren beste arrazoietako bat ondasun/zerbitzu bitasunaren nahasketa progresiboa eta gehikorra da. Zerbitzuen eta industria-jardueren arteko erlazioak eta beren ohiko izaera ere eraldatzen ari dira. Heterogeneitateak eta nahasketak etorkizunean gorako joera izango dutela aurreikusten da, informazio- eta telekomunikazio-teknologia berrien garapenak hartara beharturik. Hala ere, informazio-iturriek baldintzaturik, ohiko zerbitzu-jardueren mugaketa erabiliko dugu, kanporaketaren bidea erabiliz, *ondasunak produzitzen ez dituen ekonomia-jarduera* gisa.

Zailtasunak zailtasun, zerbitzu-jarduera gehienetan aurki daitezkeen ezaugarrietariko batzuk aipatu ahal dira. Zerbitzuen izaerari dagokionez, ukigaitzak direla aipatu da dagoeneko. Ezaugarri hori ondasun materiadunen aldean ezaugarri bereizgarria da, eta aurrerapen teknologiko berriek nolabait leundu dituzten mugak aza-

1. Atal honen sarreran aipatu ditugun Clark eta Fisher egileek egindako hiru sektoreko sailkapenaz ari gara.

leratzen ditu. Horren ondorioz, zerbitzuen ahikortasuna ere aipagarria da. Horrela, teknologia berriak hedatu arte, zerbitzuak ezin ziren biltegiratu, kontsumoa gerora atzeratuz; eta, ezinbestez, zerbitzuen produkzioaren eta kontsumoaren artean garaikidetasuna gertatzen zen. Badira beste ezaugarri leunago batzuk: lan-faktorean zerbitzuek duten trinkotasuna eta kapital-faktorearen txikitasuna, merkaturatzen diren zerbitzuak oso zatikatuak izatea, etab.

Berezitasun horiek eta beste batzuek arazoak sortzen dituzte zerbitzu-jardueren dinamiketan, jarduera ekonomikoen taxonomiaren egokitasunik eza agerian utziz. Aipagarria den arazoetariko bat ekonomia-neurgarritasuna da. Izan ere, hezkuntzan, osasungintzan eta beste zerbitzu publiko batzuetan produkzioa neurtzeko, bertan erabilitako *input*en balioa da erreferentzia; eta honekin bat, jarduera horietan produktibitatearen bilakaeraren azterketa egitea ezinezkoa da. Arazo deigarria ere bada jakitea ezen, estatistikoki, beste sektoretako enpresetan eginiko zerbitzuak ez direla hirugarren sektoreko kontuetan neurtzen; aitzitik, beste sektore horiek egindako ekarpen gisa eman ohi dira informazio-iturrietan. Arazo hori plazaratzen da eskatistiketan industriako enpresaren enplegu eta ekoizpen osoa bigarren sektorean kokatzean, enpresa horretan kudeaketa, diseinua eta antzeko zereginak gauzatzean, horietan langileak ere badauden arren. Alabaina desbideraketa estatistiko hori dinamika gorakorrak sahiesten du nolabait. Dinamika honen bidez zerbitzu-jarduerak kanporatu egiten dira industria-enpresaren barne-antolaketatik, eta era autonomoan ezartzen dira, zerbitzu-enpresa gisa alegia. Honela hartzen dira kontuan, zerbitzu-sektoreko produktua eta enplegua.

Bestalde, zerbitzuen definizioaren ahultasunak bere sailkapenaren zehazgabetasuna ekarri du. Zerbitzuak sailkatzeko garaian, ugaritasuna da azpimarratzekoa. Nabarmena da, *merkatuko zerbitzuen* eta *merkaturatzen ez diren zerbitzuen* arteko sailkapena. Hemen bereizketaren funtsa ondokoa da, alegia, lehenen elkartrukea merkataritza-irizpideak kontuan hartuta egiten dela, azkenekoen kasuan ez bezala. Azken horiek sektore publikoak eskaini ohi ditu eskuhartutako preziotan. Sailkatzeko beste irizpide bat, zerbitzuen helburua oinarritzat hartzea izan ohi da. Horrela, *bitarteko zerbitzuak* edo *produkziorako zerbitzuak* beste jardueretako produkzio-prozesuetan barneratzen direnak dira; eta beste muturrean *azken kontsumorako zerbitzuak* daude, kontsumo finalarekin ahitzen direnak, alegia. Sailkapena nahi ahala luza daiteke hainbat irizpideren arabera. Esaterako, teknologia-aurrerabidea ardatz gisa hartuz, *zerbitzu aurreratuak* eta *zerbitzu arruntak* bereiz daitezke. Edo irizpidea garapen ekonomikorako duten ekarpen-maila bada, *zerbitzu motorrak* eta *ohikoak* aurki ditzakegu, etab. Azkenik, egile batzuek *hirugarren sektorea* eta *laugarren sektorea* bereizten dituzte[2]. Horien ustez, laugarren sektorean hazkunde bizkorreko ezagupide-oinarriduneko zerbitzu informazional berriak kokatuko lirateke.

2. Ikus, besteak beste, de Bandt (1999).

9.2. HERRIALDE INDUSTRIALIZATUETAKO ZERBITZU-JARDUEREN HAZKUNDEA

Munduko ekonomian oro har, eta batik bat mendebaldekoan, zerbitzuetako ekonomiaren igoera XX. mendeko egiturazko aldaketaren ereduaren ardatza da. Dinamika horren ondorioz, mendebaldeko ekonomia nagusietako jardueren artean, era nabarmenean gailentzen dira zerbitzuak. Horien artean, zerbitzuen arloaren aparteko pisua Ameriketako Estatu Batuetan nabari da. Bertako ekonomian enplegu osoaren %74 eta produktuaren %73 zerbitzuetako ekarpena zen 1998an. Europako Batasuneko ekonomia ere nabarmen tertziarizatuta dago; izan ere, enpleguaren %66 eta produktuaren %67 zerbitzu-jardueretan gauzatu zen aipatutako urtean. Amaitzeko, Japoniaren ekonomian ere hirugarren sektoreak egundoko garrantzia izan arren, AEBetako eta EBeko pisu erlatibotik urrundu egiten da Asiako herrialde horretan hirugarren sektorea. Bertan, zerbitzuen ehuneko ekarpena, enpleguari dagokionez %63koa eta produktuari dagokionez %62koa izan zen 1998an (Europako Batasuna, 2000).

Zerbitzuen hedapen kuantitatibo horrekin batera, jarduera horien garapenarekin lotutako beste aldaketa estruktural batzuk ere suertatu dira mendebaldeko ekonomietan. Arreta merezi dutenen artean, aipatzekoa da jardueren dinamikotasunaren arteko desberdintasunak: enpleguaren ikuspegitik badira batzuk oso hedakorrak direnak (enpresentzako zerbitzuak, zerbitzu pertsonalak, zerbitzu publiko jakin batzuk) eta, aldiz, beste batzuk geldoak direnak (merkataritza, aseguruak…). Esanguratsua da, halaber, zerbitzuetako lan-eskuaren feminizazioa, zerbitzuetako enpleguaren erditik gora emakumeez osatuta baitago herrialde garatu askotan. Aipatzekoen artean bada gorago aurreratu dugun joera bat, hots: industria-jardueretan zerbitzuek egindako ekarpena garrantzitsua da, eta zerbitzugintzan industriaren sarbidea areagotuz doa, zerbitzuen eta industriaren arteko elkarmenpekotasuna, alegia.

Zerbitzuetako garrantzi gorakorra eta aldaketa estrukturalaren dinamika atzeraezina azaltzeko arrazoi ugari plazaratu dira. Gehienak osagarriak dira eta zerbitzuetako heterogeneitatea ikusirik, teoria bakoitzak jarduera-multzo batzuen adierazle izan nahi du. Aurkezten den kasuistika ez da bere horretan amaitzen, baina arrazoien artean esanguratsuenak bi dira: ekarpenagatik eta oihartzunagatik.

Lehenik eta behin, mendebaldeko dinamika ekonomikoen ikuspegitik, egiturazko aldaketa da kontuan hartzen den elementua, horretarako arrazoi zehatzak emanez. Besteak beste, ekonomiaren tertziarizazioaren ikuspegia dugu. Horretan, aipagarriak dira ekarpen desberdinak. Esate baterako, Rostow[3] egilearen hazkundearen etapen teoria da ezagunena. Horren arabera, garapen ekonomikoak aurrera egin ahala, lehen sektoretik industriarako urratsa nagusitu zen, eta, ondoren, industriaren gainetik hirugarren sektorea. Aldi berean, tertziarizazioaren aldeko egitu-

3. Rostow, W. (1960): *The stages of economic growth*, Cambridge University Press, Cambridge.

razko aldaketa beste ikuspegietatik ere jorratu da. Horrela, zerbitzuaren eta industriaren arteko produktibitatearen diferentziek adieraziko lukete tertziarioaren hedapena, batez ere, zerbitzuetako enpleguarena[4]. Azkenik, mendebaldeko ekonomietako tertziarizazioa ongizate-estatuaren ezarpenak ekarritako enplegu publikoaren hedapenarekin parekatu dute ekonomialari batzuek.

Egiturazko aldaketaren bidea ere urratzen dute zerbitzuetako hazkundea desindustrializazioari leporatzen dioten egileek. 1970eko hamarkadako ekonomia-krisiaren ondorioz abiarazi ziren desindustrializazio-prozesuak direla medio, ikuspegi berria agertu zen hirugarren sektorearen lehentasunaz. Azterketa horren irizpideen artean, hauexek dira nagusiak: krisiak industria-enpleguaren galera dakar, baina baita zerbitzuetako enplegua ere, zeharka zein zuzenean; testuinguru horretan gizarte-zerbitzuen eskaria areagotu egiten da, eta, ondorioz, enplegu publikoa handitu egiten da. Gainera, zerbitzuetako funtzioen kanporatze-prozesua abiarazten da, hots, enpresa industrialaren barneko hainbat zerbitzu bereizi egiten dira, eta zerbitzu-enpresa autonomoen bidez eskaintzen dira.

Egiturazko aldakuntza esplikatzeko, eskariaren aldeko argudioak ere badaude. Analisi horren funtsa *Engels-en legea* da. Errenta-maila goratu ahala zerbitzuen (zerbitzu batzuen) eskaria ere handituko litzateke, zerbitzu horien errenta-elastikotasuna handiagoa dela kontuan hartuta. Dena den, zerbitzu batzuetako elastikotasun handiagoari buruzko aurreiritzi horren oinarrian ideia hau dago: ondasunek kontsumitzaileen oinarrizko premiak asetzen dituzte, eta zerbitzuek, ostera, goi-mailakoak. Gero ikusiko dugunez, hori ez da beti betetzen, eta zerbitzuetako errenta-elastikotasuna ez da, halabeharrez, ondasunena baino garaiagoa. Izan ere, ondasunetan zein zerbitzuetan egindako gastuetako aldaketak ez daude soilik elastikotasunaren menpe, aurrerapen teknikoek eta prezio erlatiboek ere zeregin aktiboa baitute zerbitzuetako gastuaren erabakietan.

Zerbitzuetako hedapena adierazteko bestelako ikuspegirik ere bada, egiturazko aldaketaren adieratik aldentzen dena. Horien artean dago zerbitzu-jardueren hedaldia, produkzio-sistemaren eraldaketa orokorrean oinarritzen dena. Eraldaketa orokorraren jatorria ezezaguna izan arren, zerbitzuen hedapena eta eraldaketa testuinguru horretan kokatuko lirateke. Joera hori bultzatzen duten elementuei erreparatuko diegu segidan. Besteak beste, gogoan hartu beharrekoak dira ekonomiaren globalizazioak eta nazioarteko merkataritzaren liberalizazioak zein erregulazioak ondasunen eta zerbitzuen merkatuetan bultzaturiko eraldaketak[5]. Gainera, ezin da ahaztu ezen, produkzioaren eraginkortasuna handitzeko, lanaren espezializazioa areagotu egin dela, hala enpresaren barnean nola produkzio-sistema osoan

4. Fuchs, V. (1968): *The service economy*, Columbia University Press, New York.

5. Merkataritzaren Mundu-Erakundea hasi berria da GATS hitzarmena garatzen. Horren bidez, zerbitzuetako nazioarteko merkataritzaren liberalizaziorako eta araugintzaren hastapenerako oinarriak ezarri dira.

zerbitzuetako funtzioak mugatuz eta kanporatuz. Bestetik, kontsumoaren arloko eraldaketek ere aisia eta informazioa lehenesten dute, zerbitzu-jardueren eskaria areagotuz eta kalitatea merkatuetako interesgune nagusi bihurtuz.

Amaitzeko, informazio- eta telekomunikazio-teknologia berrien garapena produkzio-sistemaren eraldaketarako funtsezko faktorea bihurtu da. Teknologia berri horiek paradigma teknoekonomiko eraberritua dakarten ala ez, hori ez dugu eztabaidatuko, baina argi dago sistema ekonomikoaren zerbitzuen eta produkzioaren kontrolari, kudeaketari eta diseinuari eragiten diotena. Eskuarki, informazioaren eta telekomunikazioaren teknologia berriek ekonomia-hobari desberdinak ekarri dituzte, hala nola informazioa biltzeko ahalmen handiagoa, produkzioaren antolaketa malguagoa, enpresen eta gizartearen artean sare berriak garatzeko aukera, eta informazioa hedatzeko aukeren hobekuntza. Hobari horiek ekonomia bere osotasunean sakonki eraldatu dute eta, halaber, zerbitzu-jardueren hazkunde nabaria ekarri dute. Etorkizunean, merkatuetako egituretan eta bertako eskarigile eta saltzaileengan eragingo du horrek guztiak, eta instituzio zein erregulaketa berriak bultzaraziko ditu, eta beste batzuk, aldiz, desagerraraziko ditu.

9.3. KRISIALDIKO ZERBITZUEN BILAKAERA HEGO EUSKAL HERRIAN

9.3.1. Zerbitzuen bilakaera orokorra

Atal honen hasieran aztertu dugu dagoeneko hiru sektore nagusien banaketa Hego Euskal Herriko ekonomian. Bertan aurreratzen zen euskal ekonomian zerbitzu-jarduerak gailendu berri direla beste sektoreen aldean, produktuari zein enpleguari egindako ekarpenaren ikuspegitik. Hemen, azpimarratzekoa da produktuaren tertziarizazio-maila apalagoa dela pezeta konstantetan egindako neurkera kontuan hartuz eta pezeta korrontetan egindakoarekin alderatuz. Lehenaren araberako zerbitzuen partizipazioak ozta-ozta gainditzen zuen %50ko maila 1997an Hego Euskal Herrian (ikus 7.3. irudia); aitzitik, pezeta korrontetan neurtutakoak %60ko mailatik gertu goratzen du zerbitzu-jarduerek produktuari eginiko ekarpena (ikus 9.1. irudia). Mendebaldeko ekonomietan zabaldutako tertziarizazio-prozesua antzeko parametrotan gauzatzen ari da euskal ekonomian ere, beranduago eta bere dinamika propioarekin garatzen ari den arren.

Hego Euskal Herriko zerbitzuen berezko dinamika horretan, azpimarratzekoak dira mendebaldeko beste herriekiko aurrez azaldu diren bi bereizgarri: zerbitzu-jardueren pisu erlatiboaren apaltasuna eta beren hedapenaren berritasuna. Datu-iturrien arabera, zenbatekoak eta ehunekoak aldakorrak diren arren, euskal ekonomiaren egitura sektoriala aztertzean, gainerako herrialdeetan baino partizipazio ahulagoa dute zerbitzuek; hots, industria-sarearen pisu erlatiboa inguruneko handienetakoa da. Gainera, zerbitzuen hedapena eta industria-krisia elkarrekiko lotura estu bilakatu dira euskal ekonomian. Nahiz kausalitateaz ezin den baieztapen

sendorik egin, laurogeiko hamarkada erabakiorra izan zen tertziarizazio-prozesuaren aurrerabidean. Horrela erakusten dute 9.1. eta 9.2. irudiek. Irudi horiek Hego Euskal Herriko zerbitzuek prezio korronteetan neurtutako produktuan eta enpleguan duten ehunekoa agertzen dute, hurrenez hurren. Hasierako urtean, 1977an, tertziarizazio-maila apala zela erakusten dute bi irudiek, zeren, beste herri batzuetan erditik gorako ehunekoa erakutsi arren, euskal ekonomian zerbitzuen presentzia erlatiboa %40 ingurura baino ez baitzen iristen. Hasierako igoera mugatuaren ostean, geldiune labur bat gertatu zen laurogeiko hamarkadaren hasieran —Nafarroan hamarkada horren erdialdean gauzatu zen geldiunea—. Zerbitzuen indartzea laurogeiko hamarkadaren erditik laurogeita hamarreko hamarkadaren ia erdira bitartean suertatu zen. Hamarkada horretan zerbitzuen ekarpenak hamar puntu egin zuen gora produktuan eta enpleguan, 1983an bi aldagaien kasuan %50 baino proportzio apalagoa islatzetik hamar urte beranduago ia %60 ordezkatzera igaroz. Areago, zerbitzu-jardueren hedapen erlatiboak bere onenak eman dituela dirudi, momentuz, 90eko hamarkadaren bigarren zatian bere pisu erlatiboa ez baita aldatu.

9.1. irudia: BEG osoarekiko zerbitzuetako BEGaren partizipazioaren bilakaera Nafarroan eta EAEn



Iturria: BBVA.

9.2. irudia: Hego Euskal Herriko populazio okupatuan zerbitzuetako populazio okupatuaren partizipazioaren bilakaera



Iturria: BBVA.

Bilakaera hori azaltzeko, zerbitzuetako berezko dinamika garrantzitsua den arren, beste sektoreetako bilakaerak eta dinamikak ere hura esplikatzen dute neurri handi batean. Hots, euskal ekonomian industriak izandako gorabeherek zerikusi estua dute zerbitzuek euskal ekonomian duten presentziarekin. Zerbitzuek azken hiru hamarkadetan izandako berezko dinamika gertutik ulertzeko, oso egokia da 9.1. taula aztertzea. Bertan, Hego Euskal Herriko zerbitzuetako sasoiz sasoiko enpleguaren aldakuntzak agertzen dira. Taula horrek erakusten duenez, zerbitzuetako enplegu-sorrera garrantzitsuenak bi sasoitan gertatu ziren euskal ekonomian: laurogeiko eta laurogeita hamarreko hamarkadetako bigarren zatietan. Lehenean desindustrializazioaren prozesua bere punturik gorenean zegoen, eta, ondorioz, zerbitzuetako presentzia zabaldu egin zen euskal ekonomian (9.1. eta 9.2. irudietan ikusi dugun bezala). Laurogeita hamarreko hamarkadako bigarren erdian, aldiz, berrindustrializaziorako dinamika nagusitu zen, eta testuinguru horretan, euskal ekonomian zerbitzuek zuten pisua bere horretan mantendu zen, tertziarizazio erlatiboaren aurrerabidea nolabait geldiaraziz.

9.1. taula: Zerbitzuetako enpleguaren aldakuntza absolutuak eta erlatiboak Hego Euskal Herrian

	1976-81		1981-85		1985-90		1990-95		1995-2000		1976-2000	
	absolutua	%	absolutua	%	absolutua	%	absolutua	%	absolutua	%	absolutua	%
Estatua	91.470	2,34	165.010	4,23	1.626.020	41,70	422.020	10,80	1.698.810	43,57	3.898.490	100
Araba	4.700	14,21	–3.150	–9,52	13.410	40,56	8.320	25,20	10.980	28,43	33.060	100
Bizkaia	–2.310	–2,07	11.770	10,58	40.670	36,59	2.250	2,02	58.770	52,87	111.150	100
Gipuzkoa	3.290	5,93	–1.560	–2,66	44.590	68,30	400	0,01	18.560	28,43	65.280	100
Nafarroa	2.730	4,98	3.460	6,32	20.360	37,20	7.600	13,90	20.580	37,60	54.730	100

Iturria: INEren Biztanleria Aktiboaren Inkestatik eraikia.

Hausnarketa horrek beste batera garamatza, tertziarizazioaren dinamikaren arrazoietara, hain zuzen. Sasoi bakoitzeko zerbitzuen dinamika diferentzialak, euskal ekonomiaren tertziarizazio-bide lasaian faktore eragile desberdinak egon direla pentsarazten digu. Arreta berezia eskatzen du, 70eko eta 90eko hamarkadetako bigarren zatietan zerbitzuen dinamika industriaren dinamikarekin bat etorri izanak, nahiz eta bi sasoi horietako dinamikaren zentzuak kontrajarriak diren. Lehenengoan, zerbitzuen hedapen urria industria krisiaren testuinguruan ulertzen da, krisi horren lehen eztandak enpresak hornitzeko hainbat zerbitzuren gainbehera ere ekarri baitzuen. Hori oso ikusgarria izan zen, batez ere Bizkaian, bertan enplegu-galera netoa gertatu baitzen (9.1. taula). Azken urtealdian, 1995-2000 tartean alegia, industria-dinamika gorakorrak zerbitzuetakoa akuilatu du, kapitalismo globalaren aroan kalitatea helburu duen eta ezagutzan oinarritatuta dagoen ekonomia-lehian zerbitzu aurreratuen horniketa funtsezkoa delakoan. Urtealdi horietan erabakiorra izan da zerbitzuen dinamika orokorrean produkziora bideratzen diren bitarteko zerbitzuen zeregina. Hartara, euskal ekonomian industria-jarduerek berebiziko erantzukizuna izan dute, garaian-garaian, zerbitzuen oinarriaren hedapenean zein murritzaldian.

Amaitzeko, 1985-1990 tarteko eraispen industrial gogorreko urtealdian, zerbitzuetako enpleguaren hazkunde bizkorra nagusitu zen euskal ekonomian. Dina-

mika horretarako, erabakiorra izan zen euskal lurraldeetako sare instituzional autonomoen eraketak zabaldutako enplegu publikoaren sorkuntza azkarra. Horrela, sektore publikoak kitatu egin zuen, nolabait, industria-eraispenak eragindako enplegu-galera gordina, horretarako zuzeneko zein zeharkako mekanismoak erabiliz. Garai honetako zerbitzuetako dinamismoaren oinarria, beraz, sare produktiboaren garapenaren logikatik at dago.

9.3. irudia: Zerbitzuetan okupatutako populazioaren lurraldekako partizipazioaren bilakaera (populazio okupatuaren %tan)



Iturria: INE-EPA.

Bilakaera orokorraren azken elementu gisa, Hego Euskal Herriko lurraldeetako dinamika tertziarioen berezitasunei erreparatuko diegu. Horretarako 9.3. irudiak eskaintzen duen informazioa erabiliko dugu. Irudi horretan, hiru urte jakinetan eta herrialde bakoitzean zerbitzuetako enpleguak enplegu osoan izan duen partizipazioaren bilakaera azaltzen da. Lau lurraldeetako egoera alderatuz, Bizkaia da 1999an zerbitzuen enpleguaren ehuneko garaiena erakusten duen lurraldea (%60tik gora). Dena den, oinarri-urtean, 1976an alegia, zerbitzuetako enpleguak Bizkaian zuen pisu erlatiboa ere beste lurraldeetakoa baino garaiagoa zen. Lurralde horretan, zerbitzuetako aurrerapen erlatiborik trinkoena 1976-1985 urtealdian gertatu zen. Dena den, 9.1. taulan erakusten den gisan, urtealdi horretan zerbitzuetako enpleguaren sorkuntza oso murritza izan zen Bizkaian. Beraz, Bizkaian desindustrializazioaren eragina erabakigarria izan zen industria-krisiaren lehen garaian, zerbitzuetako pisua handitzeko lurraldeko sare produktiboan. Ondoren, zerbitzuen hedapenak berezkoagoa den dinamika erakusten du.

Araban eta Gipuzkoan, bertako zerbitzuen barne-egitura eta izaera desberdinak izan arren, zerbitzuetako dinamikak parekidetzat har daitezke. Bietan ere abiapuntua nahiko apala izanik (%32 eta %34,5, hurrenez hurren) hogeita bost urteren buruan zerbitzuetako enpleguak lurraldearen enpleguaren erditik gorako pisua erakusten du (%54 eta %56, hurrenez hurren). Hala ere, Bizkaiaren antzera —intentsitate leunagoz bada ere— Gipuzkoan desindustrializazioa faktore garrantzitsua izan zen zerbitzuetako aurrerapen erlatiboan, han bezala 1975-1985 urtealdian hemen ere. Araban, zerbitzuetako aurrerapauso erabakigarria batez ere 1985tik aitzinera jorratzen hasi zen. Bertan, Gasteiz EAEko hiriburu izateak zerikusi zuzena izan du abiada horrekin. Baina, bultzada hori esplikatzeko, garrantzitsuak dira,

halaber, 90eko hamarkadan Arabako lautadan emandako industriaren hedapena eta horren altzoan hazitako zerbitzu ugariek izandako eragina. Nafarroan, aldiz, zerbitzuetako dinamikaren ahultasuna nabari da. Izan ere, zerbitzuek enpleguari egindako ekarpena %40tik hurbil egonik, 1976an (Bizkaiko ehunekoaren parean kasik) hogeita bost urte eta gero ekarpen horrek doi-doi lortzen baitu enplegu osoaren erdia izatea. Bestalde, zerbitzuen barne-dinamikaren ikuspegitik Nafarroa hurbilago dago Arabako eredutik, eta aldendu egiten da Bizkaiko zein Gipuzkoako eredutik. Hemen ere, zerbitzuetako dinamikotasuna gehiago lotzen zaio sare publikoaren hedapenari eta industriagintza berriari.

Hego Euskal Herriko ekonomiaren tertziarizazioaren arrazoi zehatzak aztertu gabe (mendebaldeko beste ekonomietakoen antzekoak dira), arreta berezia jarri behar da faktore indartsu batean, hots: tertziarizazioaren aurrerapena azaltzeko orduan, euskal ehun produktiboan industria-oinarriak duen presentzia indartsuak, industrietako eta zerbitzuetako jardueren arteko integrazioaren garrantzia iradokitzen du. Dena den, arrazoien artean, gogoan izatekoak dira gunean guneko beste faktore batzuk ere, hala nola zerbitzuetako azken eskaria bultzatzen duten kontsumorako arau berriak, azken hamarkadetako errenta-mailaren eta eroste-ahalmenaren hazkuntza eta autogobernu-sistemak ahalbidetu duen sare instituzionalaren hedapena.

Laburbilduz, euskal ekonomian zerbitzuek izandako garapena berantiarra eta motela izan da, bere kapitalizazio urriaren eta tokiko faktoreen eraginez. Azken horien artean aipatzekoak dira, enpresentzako zerbitzuen susperraldirako ahalmena balaztatu zuen industriaren gainbehera sakona, zerbitzuetan atzerriko kapitalen ezarpen gorakorra, krisialdian zerbitzu-jarduerak industriatik kanporatutako enplegu-babesleku gisa erabiliak izatea, etab.

9.3.2. Zerbitzu-adarren jokaera

Elkarrekiko diferentzia handiak dituzten jarduerez osatuta dago zerbitzuen sektorea. Sektore ekonomikoen klasifikazioa aztertzean azaldu genuen legez, hirugarren sektorean aurrekoetan lekurik ez duten jardueren multzo heterogeneoa dago. Horien dibertsitatea funtzioetan eta helburuetan islatzen da, zeren, enpresentzako zerbitzuetatik hasi eta zerbitzu pertsonaletaraino helduz, bestelako merkataritza-zerbitzuak eta zerbitzu publikoak ere bertan sailkatzen baitira. Gainera, zerbitzuen diferentziak teknologia-edukian eta produkzioaren sofistikazio-mailan ere agertzen dira: garbiketa-zerbitzuek ez dute zerikusi handirik telekomunikazioekin edo ingeniaritza informatikoarekin.

Hego Euskal Herriko zerbitzuetako egiturara hurbilduko gara, ondoren euskal ekonomiaren sektore pisudunenak nolako barne-osaketa duen ikusteko. Hurbilketa hori gauzatzeko, 9.2. taulan oinarrituko gara lehenik. Taula horrek zerbitzuetako produktuaren eta enpleguaren egitura erakusten digu, merkatuko zerbitzuen eta merkaturatzen ez diren zerbitzuen artean bereizten diren adarrak kontuan hartuz.

Hain zuzen, produktuaren indizea kontuan hartuz, Hego Euskal Herriko ekonomian merkatuko zerbitzuek zerbitzu-produktu osoen hiru laurdenak osatzen dituzte; eta merkaturatzen ez direnek, gainerako laurdena. Enpleguari egindako ekarpenari helduz, leizea zerbait leuntzen da, merkatuko zerbitzuek zerbitzuetako enplegu guztiaren %68ko partaidetza baitute; eta merkaturatzen ez direnek, %32koa. Bi aldagaietan dagoen desberdintasuna guztiz arrunta da, zeren, jakina denez, merkaturatzen diren zerbitzuen kapitalizazio-maila eta produktibitatea garaiagoak baitira. Banaketa bikoitz hori errepikatu egiten da hala Nafarroan nola EAEan.

9.2. taula: Zerbitzuetako enplegua eta produktuaren (BEGaren) egitura adarren arabera EAEan eta Nafarroako Foru-Elkartean (%). 1997

	BEG			Enplegua		
	Nafarroa	EAE	**Hego EH**	Nafarroa	EAE	**Hego EH**
Merkatuko zerbitzuak	76,92	76,69	**76,74**	68,36	68,50	**68,47**
Merkataritza eta konponketa	14,27	16,10	**15,73**	21,36	22,47	**22,24**
Ostalaritza	13,63	10,53	**11,16**	9,70	7,75	**8,15**
Garraioak eta komunikazioak	13,16	10,50	**11,04**	10,27	9,35	**9,54**
Finantza-bitartekaritza	8,36	9,40	**9,19**	4,11	3,56	**3,67**
Higiezinak eta enpresentzako zerbitzuak	17,69	19,85	**19,41**	9,53	12,86	**12,18**
Merkatuko hezkuntza	3,26	4,35	**4,13**	5,83	4,81	**5,02**
Merkatuko osasungintza	3,44	2,87	**2,98**	4,03	3,49	**3,60**
Merkatuko beste zerbitzu batzuk	3,11	3,09	**3,09**	3,53	4,20	**4,06**
Merkaturatzen ez diren zerbitzuak	23,08	23,31	**23,26**	31,64	31,50	**31,53**
Administrazio Publikoa	9,39	10,12	**9,97**	9,61	9,88	**9,83**
Merkaturatzen ez den hezkuntza	5,11	5,00	**5,02**	5,59	5,35	**5,40**
Merkaturatzen ez diren osasungintza eta giza zerbitzuak	6,26	5,60	**5,73**	7,64	6,86	**7,02**
Bestelako zerbitzuak	0,93	0,65	**0,71**	2,05	1,19	**1,37**
Etxeko langileak erabiltzen dituzten zerbitzuak	1,40	1,94	**1,83**	6,74	8,22	**7,92**
ZERBITZUAK	100,00	100,00	**100,00**	100,00	100,00	**100,00**

Iturria: INE, Contabilidad Regional.

Merkatuko zerbitzu-adarren artean euskal ekonomian indar produktibo handiena *higiezinak eta enpresentzako zerbitzuak* adarrekoa da, zerbitzuetako BEGaren ia %20 bideratzen duelako. Produktuari egindako ekarpenagatik *merkataritza eta konponketa* adarra gailentzen da ondoren, %16arekin; eta ehuneko hamarretik gorako ekarpena egiten diote *ostalaritza* eta *garraioak eta komunikazioak* adarrek ere.

Enplegua irizpide gisa hartuz, zerbitzuetako barne-egitura aldatu egiten da, adarretako produktibitate-arteko desberdintasunak direla medio. Enpleguaren terminotan, *merkataritza eta konponketa* adarra da dimentsio handienekoa (zerbitzuetako populazio okupatuaren %22k bertan duelako enplegua). Aldiz, *higiezinak eta enpresentzako zerbitzuak* adarrak enpleguaren %12 urria osatzen du. *Ostalaritza* eta *garraioak eta komunikazioak* adarretan ere apaldu egiten da partaidetzaren ehunekoa.

Adarren egituran denboran zehar izandako aldaketa nagusiak behatzeko, 9.3. taularen informazioa hartuko dugu oinarri gisa. Aurreko taularekiko iturria aldatzen denez, taula honetako informazioa ez dator guztiz bat aurrekoarekin alderatuz. Gogoan izan behar da, halaber, taula honetako iturria ez dela bakarra, bikoitza baizik; eta horrek zailago bihurtzen du irakurketa homogeneoa egitea. Hala ere, ikuspegi dinamikoari soilik erreparatuko diogu. Taula honetan, ehuneko partaidetza handiena erakusten duen adarren arteko birrosaketa ematen da hamabost urteren buruan. Hala da, *merkataritza, berreskurapena eta konponketa* eta *higiezinen alokairua* adarrek beren ehunekoa beheratzen duten bitartean, enpresentzako zerbitzuak barnebiltzen dituen *beste zerbitzu batzuk* adarrak bere partaidetza handitua baitu. Aipagarria, halaber, EAEan *garraioak eta gehigarriak* pairatzen duten partizipazioaren murrizketa.

9.3. taula: Zerbitzuetako BEG (mp) osoarekiko zerbitzu-adarretako partizipazioaren bilakaera EAEan eta Nafarroako Foru-Elkartean (%)

	1980		1995	
	EAE	Nafarroa	EAE	Nafarroa
Merkataritza, berreskurapena eta konponketa	27,5	31,4	23,2	20,5
Ostalaritza	6,5	5,8	7,5	8,1
Garraioak eta gehigarriak	11,8	7,1	9,0	7,8
Komunikazioak	3,4	2,9	3,6	4,5
Kredituak eta aseguruak	0,2	–0,5	3,7	0,3
Higiezinen alokairua	20,2	22,3	16,4	19,6
Beste zerbitzu batzuk	11,3	7,7	13,7	14,0
Hezkuntza	4,1	5,2	6,3	7,1
Osasungintza	5,6	7,8	6,9	10,2
Administrazio Publikoa	9,4	10,2	9,5	7,8
Zerbitzuak guztira	*100*	*100*	*100*	*100*

Iturria: Nafarroako eta EAEko *Input-Output* taulak.

*Administrazio publiko*an bilakaera kontrajarria ageri da, EAEan *administrazio publikoa* adarrak hirugarren sektoreko BEGari eginiko ekarpena bere horretan mantentzen delako, baina Nafarroan nabarmen egin duelako behera; 1980ko %9,5etik 1995eko %7,8raino. Ostera, *hezkuntza* eta *osasungintza* adarrek handitu egin dute beren partizipazioa hamabost urte horietan lurralde guztietan.

Hedapenean dauden jardueren artean honakoak daude: *ostalaritza,* euskal ekonomian murriztua zegoen turismoak berriki ezagututako garapenari esker; eta *komunikazioak*, bertan ematen ari den desregulaketa eta teknologia berrien garapena direla medio.

Laburtuz, Hego Euskal Herriko ekonomian eta mendebaldekoan zerbitzuek duten jokabidea arras antzekoak dira: balio erantsi handiagoa sortzen duten eta kapital intentsiboagoa duten zerbitzuetako hedapena bidean da *(enpresentzako zerbitzuak, hezkuntza, komunikazioak…*); horiekin bat, tokiko ekonomia-garapenaren

aspektu berriekin lotutako *zerbitzu publikoak* eta *ostalaritza* dira dinamikoen agertzen direnak.

9.3.3. Zerbitzuetako ezaugarriak

Aurreratu dugunez, Hego Euskal Herrian zerbitzu-jarduerek ezagutu duten jokabidea gutxi-asko mendebaldeko ekonomiekin pareka daiteke. Oro har, tertziarizazio-prozesuak bere bidea egin du, eta bilakaera hori enpleguan zein termino nominaletan (prezio korrontetan) neurtutako produktuan gertatu den hedapenean islatzen da. Neurri-oinarria prezio konstanteak badira, hedapena laburragoa da. Horrela, tertziarizazio errealak murriztu egiten du egiturazko aldaketaren zenbatekoa. Nahiz eta joera horien arrazoiak 9.2. atalean aurreratuak izan diren, euskal ekonomian arrazoi horiek duten funtsa azaltzen saiatuko gara jarraian.

9.2. atalean aipatu dugunez, zerbitzuen hedapenaren kausak aztertzerakoan, egile batzuek haien errenta-elastikotasuna ondasunena baino garaiagoa izatea ipintzen zuten arrazoi nagusitzat. Ebidentziak hipotesi hori lurperatzen duenez, hedapen tertziariorako zerbitzuetako gastua ulertzeko, aurrerapen teknikoa eta prezio erlatiboak hartu behar dira kontuan, ezinbestez.

Orain arte, berrikuntza-uhina intentsitate handiagoz barreiatu da ondasunetan zerbitzuetan baino, baita euskal ekonomian ere. Horrela islatzen du 9.4. taulak. Bertan, urtealdi desberdinetarako merkatuko zerbitzuen eta ekonomia orokorraren lanaren itxurazko produktibitatearen urteko hazkunde-tasak alderatzen dira. Nafarroarako eta EAErako; eta horiek aurrerapen teknikoaren ondorio dira, besteak beste. Garai osoa kontuan hartuz, 1977-1993 tartea alegia, EAEko ekonomiak ezagutu duen produktibitatearen hazkunde-tasak bikoiztu egiten du zerbitzuena; eta Nafarroan lubakia are handiagoa izan da, 10etik 35erakoa gutxi gorabehera. Bestalde, azken bi urteetarako (1991-1993) behatzen den joera-aldaketa behin-behinekoa da, eta 90eko hamarkadaren bigarren zatiko industriaren ziklo-aldaketarekin bere onera itzuliko zela aurreikus liteke. Gainerako urteetako produktibitatearen hazkundeek aise egiten dute ondasunen alde. Zerbitzuetako produktibitate-hazkunde txikiago hori aurrerapen teknikoa jarduera hauetara heltzeko zailtasun handiagoaren ondorioz gertatu zen. Beraz, hemen ere ondasunen eta zerbitzuen produkzioaren igoera parekotsuak izan arren, enplegua gehiago hedatu da zerbitzuetan. Horrela, lan-kostuen igoerak jarduera guztietan antzekoak izatekotan eta beste produkzio-faktoreen kostuak parekoak badira, zerbitzuetako prezioen igoerek ondasunenak baino handiagoak izan beharko dute proportzioz. Horrela uler daiteke zerbitzuen produktuak gero eta garrantzi handiagoa izatea produktu osoan, prezio korrontetan neurtzekotan.

9.4. taula: Zerbitzuetako lanaren itxurazko produktibitatearen urteko hazkunde-tasa erreala.

	Euskal Autonomia Erkidegoa				Nafarroako Foru Erkidegoa			
	1977-85	1985-1991	1991-1993	1977-1993	1977-85	1985-1991	1991-1993	1977-1993
Merkatuko zerbitzuak	1,48	0,02	2,29	1,07	2,56	–0,59	3,44	1,51
Ekonomia osoa	3,39	1,62	1,93	2,8	5,63	3,53	2,64	5,32

Iturria: BBVA.

Joera horiek ez dira zerbitzu-jarduera guztietan berdin gertatzen. Hala agertzen da produktibitatearen hazkunde-tasa kontuan hartzean, indize horrek jardueraz jarduera diferentzia garrantzitsuak baititu. Errealitate hori, neurri handi batean, lanaren eta kapitalaren erabileraren intentsitatearekin dago lotuta. Hots, kapital--faktorearen erabilpen-maila handiagoa duten jardueretan produktibitatearen hazkunde-tasak ere garaiagoak izan ohi dira. Ostera, lanaren erabilera-maila trinkoagoa denean, produktibitatearen hazkundeak motelagoak dira.

Laburbilduz, euskal ekonomian ere errenta-mailaren igoera ahalbidetzen duen hazkunde eutsia dagoen neurrian, zerbitzuak garestitu egiten dira beste jarduera ekonomikoekiko. Hala baieztatzen du sektore desberdinetako prezioek euskal ekonomian duten bilakaerak (Guenaga eta Zurbano, 1999). Egile horiek EAEko prezio sektorialen bilakaera aztertu dute[6], eta azken bi hamarkadetan prezio guztien hazkundearen murrizketa suertatu bada ere, zerbitzuen prezioen kasuan murrizketa ondasunen prezioetan baino leunagoa izan dela frogatu dute, batez ere 1986 urtetik aurrera. Eskuarki, indarrean dauden ekonomia-politika liberalen helburu antiiflazionistek esplikatzen dute prezio orokorren jaitsiera; baina ez prezio--diferentzia. Prezio sektorialen arteko diferentzia iraunkorra azaltzeko, bi arrazoi nagusi azaldu ohi dira: zerbitzuetako merkatuen egitura berezia eta produktibitatearen hazkunde motela[7]. Zerbitzuetako merkatuak oso arautuak, zatituak eta esku--hartze publiko gehiagokoak dira ondasunen merkatuak baino. Zerbitzuetako merkatuetan ere liberalizazio-oldea indarrean dagoen arren, merkatu-egitura zurrunagoak eta erregulaketa handiagokoak izaten jarraitzen dute zerbitzu-jarduera gehienek, eta egoera horrek zaildu egiten du prezioen bidezko lehia.

6. Nafarroaz ere berrets liteke hemen egiten den analisia.

7. Egileen arabera, bata edo besteari erreparatzen zaio gehiago; ikus, besteak beste, de Bandt (1999) eta González Moreno (1997).

9.5. taula: Zerbitzuetako kapital pribatuaren *stock*aren urteko hazkunde-tasa erreala (%).

EAE	1964-1975	1975-1985	1985-1992	1975-1992	1964-1992
EAE guztira	5,47	0,80	1,43	1,06	2,77
Merkaturako zerbitzuak	6,82	2,87	6,57	4,38	5,33
Ostalaritza	2,17	–1,33	3,22	0,52	1,16
Garraioak	6,54	–0,98	4,38	1,19	3,26
Komunikazioak	14,47	1,17	3,84	2,26	6,89
Finantza-erakund.	11,37	3,87	0,52	2,48	5,89
Bestelako zerbit.	4,50	5,25	9,95	7,16	6,11

Nafarroa	1964-1975	1975-1985	1985-1991	1991-1993	1993-1994	1964-1985	1985-1994	1964-1994
Nafarroa guztira	1,46	1,38	1,35	1,40	1,43	1,42	1,37	1,40
Merkaturako zerbitzuak	6,13	3,79	5,96	4,90	2,51	5,01	5,34	5,11
Ostalaritza	0,97	3,08	1,84	1,62	2,51	1,97	1,86	1,94
Garraioak	8,69	0,42	3,02	1,21	–3,27	4,67	1,90	3,83
Komunikazioak	16,20	4,23	6,88	–2,19	–2,14	10,34	3,77	8,33
Finantza-erakund.	11,87	4,08	1,15	6,21	–1,97	8,09	1,90	6,19
Bestelako zerbit.	2,19	5,13	9,31	7,90	6,56	3,58	8,69	5,09

Iturria: BBVA.

Bestalde, aurrerapen teknikoa zerbitzuetan motelagoa izatearen arrazoietako bat jarduera horiek duten kapital-edukiaren urritasuna dela esan ohi da. Baina errealitateak hipotesi hori zalantzan ipintzen du: azken data-urtean (1992) EAEn merkaturako zerbitzuek bertako kapital pribatu produktiboaren *stock*aren %20 osatzen zuten, eta 1994an Nafarroaren kasurako erlazioa %40koa zen[8]. Nafarroan ez bezala, EAEko kasuan partaidetza urria da, kontuan hartu beharreko zerbitzu horiek ekonomian duten pisua ikusteko, enpleguan zein produktuan neurtuta. Bi eremuetan partizipazioa handituz joan da denboraren poderioz, eta ehunekoaren igoera garrantzitsuagoa izan da azken hamarkadan, 9.5. taulan egiazta daitekeen moduan. Bertan ikusten denez, EAEn urtealdi guztietarako, merkaturako zerbitzuetako kapital pribatuaren *stock*aren hazkundea urteko %5,3koa izan da eta, bestalde, ekonomia osorako hazkundea %2,8koa izan da. Nafarroan distantzia handiagoa da; izan ere, hazkunde-tasak %5,1ekoa eta %1,4koa dira, hurrenez hurren. Beraz, merkaturako zerbitzuak bizkorrago gauzatzen ari dira kapital pribatuaren metaketa baino, azkenaldian Hego Euskal Herriko ekonomiak izan duen batez bes-

8. BBV (1998): *Capitalización y crecimiento de la economía navarra*, Fundación BBV, Madril; eta BBV(1997): *Capitalización y crecimiento de la economía vasca*, Fundación BBV, Madril.

tekoarekin alderatuz. Kapital pribatuaren *stock*aren hazkundea egundokoa izan da, batez ere bi adarretan, *komunikazioak* eta *bestelako zerbitzuak* adarretan (besteak beste, enpresentzako zerbitzuak barnebiltzen dira adar horretan). Gainera, zerbitzuetako kapital pribatuaren *stock* guztiaren ia erdia *bestelako zerbitzuak* adarrean dago, eta *finantza-erakundeak* zein *komunikazioak* adarrak jarraitzen zaizkio garrantzi-mailan (BBV, 1997 eta 1998).

9.4. ZERBITZUEN ETA INDUSTRIAREN ARTEKO LOTURA: ENPRESENTZAKO ZERBITZUAK

Industria-jardueren hedapenak eta zerbitzuenak lotura sendoa erakusten dute elkarrekiko erlazioa tinkotzen den heinean, industria-zerbitzuen harremana produkzio-paradigmaren eraldaketaren ikur bihurtuz. Industrian gero eta zerbitzu gehiago sartzen dira produkzio-prozesuaren fase guztietan, diseinutik hasiz eta publizitateraino helduz, eta bertan balio erantsia indartzeko ezinbesteko baliabidea izatera iritsi da zerbitzu-arloa. Ostera, zerbitzugintzan denboraren denboraz handiagoak dira industriako prozesuekiko dauden antzekotasunak: lanaren zatiketa indartu egin da zerbitzuetan ere, kapitalizazioa gero eta garrantzitsuagoa da, euskarri materiala ere gero eta gehiago erabiltzen dute zerbitzuek, etab. Hartara, zerbitzuen eta industria-jardueren arteko integrazio gehikorra produkziorako zerbitzuen hedakuntzaren erantzule nagusia da.

Hego Euskal Herriko zerbitzuetako dinamikaren azterketa honetan hainbat faktoreren garrantzia azpimarratu dugun arren, paradigma produktibo berriak eta industriaren eta zerbitzuen arteko integrazioak egiturazko aldaketan duten erantzukizuna kontuan izatekoak dira. Euskal ekonomiaren egitura sektorialak bereizgarririk baduela ere aipatua izan da, industria-sarearen pisu erlatiboa —Europako Batasuneko ekonomien artean handienetakoa dena— eta ehun produktiboaren barnean dituen izaera estrategikoa, erakarpen-eragina eta aitzindaritza direla kausa. Egoera horrek badu ondoriorik zerbitzuek euskal ekonomian duten hedapen-prozesuan, bai zenbatekoaren ikuspegitik, bai nolakoaren ikuspegitik. Izan ere, arestian azaldu denez, euskal ekonomiako zerbitzuetako hedapenak lotura estua erakutsi du industriaren bilakaerarekiko. Zehazki, 1985-1995 urtealdian, zerbitzuetako enpleguaren eta produktuaren hedapena industria eta zerbitzuen arteko erlazioari esker gertatu zen. Euskal industriaren tertziarizazio progresiboa suertatu zen sasoi horretan (Guenaga eta Zurbano, 1999). Ondorioz, esan liteke zerbitzuetako lehia-arauekin lotutako mekanismoak euskal ehun produktiboari fordismo osteko lehia-ardatzetan kokaera hobea ahalbidetzeko gauza izan direla, nahiz eta beren ahalmenaren gorenera iritsi ez diren.

9.6. taula: Bitarteko *output*aren helburu sektoriala eta bitarteko *input*en jatorri sektoriala. 1995
(Baliabidea/erabilpen guztiak, %tan)

NAFARROA

	Nekazaritza--industria	Zerbitzuak	Bitarteko *output*a	Eskari finala	Erabilpen guztiak
Nekazaritza-industria	25,0	3,1	28,1	43,8	71,9
Zerbitzuak	4,8	6,5	11,3	16,8	28,1
Bitarteko *input*ak	29,8	9,6	39,4	60,6	100,0
Baliabide guztiak	71,9	28,1	100,0	#	#

EAE

	Nekazaritza--industria	Zerbitzuak	Bitarteko *output*a	Eskari finala	Erabilpen guztiak
Nekazaritza-industria	21,2	4,9	26,1	37,2	63,3
Zerbitzuak	5,9	7,3	13,2	23,5	36,7
Bitarteko *input*ak	27,1	12,2	39,3	60,7	100,0
Baliabide guztiak	63,3	36,7	100,0	#	#

Iturria: EAE eta Nafarroako *input-output* taulak.

Nolanahi ere, Hego Euskal Herrian zerbitzuek produkzio-ehunean lortutako integrazio-maila ez dago erlazionaturik sektore horrek bertako ekonomian duen pisuaren garrantziarekin, 9.6. taulak erakusten duen legez. Taula horrek, *input--output* taulen eskema xehea erabiliz, honako informazioa eskaintzen du: horizontalean irakurriz, Nafarroako eta EAEko ekonomiak dituzten baliabideen norakoaren ehuneko egituraketa azaltzen da, bitarteko *output*era zein eskari finalera bideratzen diren ehunekoak bereiziz; bertikalki, ekonomia horien erabilpenak zehazten dira, sektore bakoitzak eta eskari finalak egiten dituzten erabilpenen ehunekoa azalduz.

Zerbitzuen eta industriaren arteko lotura ez da oso estua Hego Euskal Herrian. Alde batetik, zerbitzuetako produktuaren zatirik garrantzitsuena (bi heren baino gehiago EAEan) eskari finalera zuzentzen zen 1995ean, eta, beraz, zati urri bat baino ez zen bideratu produkziogintzara. Zerbitzuetako erakarpen-ahalmenaren erantzule nagusia azken kontsumitzailea izaten jarraitzen duela esan gura du horrek. Horrela, ezin da esan zerbitzuek industriara zuzentzen dutela beren emaitzaren zatirik inportanteena. Beraz, zerbitzuek industriarekiko duten aurrerako erlazioa nahikoa leuna da. Bestalde, nekazaritzak eta industriak erabiltzen dituzten bitarteko baliabideetatik bosten bat soilik dira zerbitzuak (Nafarroan erlazio hori are txikiagoa da). Horrela, industriaren tertziarizazio-mailaren apaltasuna bistan geratzen da. Gainera, zerbitzu-jarduerek erabiltzen zituzten bitarteko *input*en artean gehienak zerbitzuak ziren eta industria-*input*en erabilera oso urria zen (%32koa

Nafarroan eta %40koa EAEan). Azken elementu horrek erakusten du zerbitzu-sektorean industria-jarduerek duten sarbidea arras eskasa dela.

Alabaina, euskal ekonomiako zerbitzuen eta industriaren artekotasuna gehitu egin da eta horrek zerbitzuen hedapenerako bidean lagundu du. Baina industria-oinarria zabala izanik eta euskal ekonomiaren eraldaketa-prozesuan sektorearteko integrazioaren bidea luzea izan ez dela kontuan hartuta, industriarekiko erlazioaren itzalean sortu eta hedatzen diren produkziorako zerbitzuek potentzialtasun handia erakusten dute etorkizunera begira. Arestian aipatutako industria eta zerbitzuen arteko integrazioaren gaur egungo ahuleziak etorkizun hurbilean garatzeko aukerak indartu egin daitezkeela islatzen du; are gehiago, oinarri industrialaren eraldakuntza amaitzeke dagoen prozesua dela gogoan izanik.

Enpresentzako zerbitzuak

Produkziora bideratutako zerbitzuen artean, enpresentzako zerbitzuak dira garrantzi handienekoak, arrazoi kuantitatiboengatik ez ezik, beren izaera estrategikoagatik ere. Jarduera-multzo honetan denetarik sartzen da, baina batez ere elementu komuna dute: enpresei zerbitzuak eskaintzea. Honakoak dira adar hau osatzen duten jarduerak, besteak beste: enpresa-aholkularitza, informatika-jarduerak, ikerketa eta garapena, ingeniaritza, arkitektura, lege-jarduerak, publizitatea, garbiketa, segurtasun-zerbitzuak, etab. Jarduera horiek mendebaldean ematen ari den egiturazko aldaketaren gunea dira eta produkzio-prozesu zaharberrituetan modu erabakigarrian eragiten dute, beren malgutasuna eta espezializazioaren alde, batez ere.

Enpresentzako zerbitzuek gero eta garrantzi handiagoa lortzen ari dira ekonomia osoan, eta azken hamarkadan izandako egundoko hazkundea horren ispilu da. Garrantzi hori, zenbatekoari dagokionez, aurreratua izan da euskal ekonomiaren eremuan 9.2.2. azpiatalean. Euskal ekonomian enpresentzako zerbitzuen hazkunde-tasak azkeneko hamabost urteetan ekonomia osoarenak baino handiagoak izan dira. Bi faktorek dute hazkunde horretan erantzukizun nagusia. Hasteko, industria-enpresen zerbitzu-eskariaren gehikuntza, lehiakortasuna helburu izanik. Hori guztia, zerbitzuen kanporaketa-estrategia (*outsourcing)* zabal baten testuinguruan garatu da, zeinaren bitartez industria-enpresek zerbitzuak kanpoan erostea hobesten duten. Estrategia kanporatzaile hori erabiliz, zerbitzu zehatz batzuetako enpresa autonomoak sortu dira; hala nola, *marketing* eta publizitatean, lege-zerbitzuetan, finantza-aholkularitzan, giza baliabideen kudeaketan (aldi baterako laneko enpresak barne), segurtasun-arloan, etab. Gainera, aurreratu dugunez, enpresentzako zerbitzuen adarra aitzindaria da produkziogintzaren berrikuntza-dinamikan, bertan kokatzen baitira produkzio-paradigma berrian berrikuntza puntakoenak dakartzaten ingeniaritza- edo komunikazioa-jarduerak, besteak beste.

Dena den, hazkunde-tasa garaiak ezagutu dituzten arren, enpresentzako zerbitzuek euskal ekonomiaren BPGan duten zatia Europako Batasuneko herrialde gehienetakoaren azpitik dago[9]. Ondorioz, esan daiteke euskal ekonomian dagoen zerbitzuen bitarteko eskariak oso garapen-maila apala erakusten duela, kontuan hartzen bada bertako industria-sarearen indarra eta inguruko herrietako enpresentzako zerbitzuen garapen erlatiboa. Hala ere, enpresentzako zerbitzuen beharra zela eta, euskal ekonomia zerbitzuen inportatzaile izatetik esportatzaile izatera igaro zen 1990eko hamarkadan, bost urteren buruan. Jokabide-aldaketa horretan lotura estua du Bizkaian jarduera horiek izan duten hedapenak.

Enpresentzako zerbitzu-jarduerek ekonomiako beste jarduerekiko bereizgarri nabarmenak dituzte. Adibidez, jardueren atomizazioa apartekoa da. Zerbitzu-enpresa bakoitzeko batez besteko enplegua hiru landunekoa zen, gutxi gorabehera, 1997an[10]. Urtebete lehenago, enpresen %97k hamar langiletik behera enplegatzen zituzten eta horietatik %71k bi landunetik behera. Alegia, jarduera hauetan nagusi dira enpresa txikiak, eta batzuetan industriatik kanporatutako enpleguaren babesleku izateak badu zerikusirik horrekin; baina, aldi berean, badira tamaina handia duten enpresa gutxi batzuk ere; eta batzuetan kanpoan jatorria duten enpresa-talde handiagoekin lotuta daude. Tamainarekin lotuta dago enpresentzako zerbitzu-jardueren dinamismoa. Izan ere, bertako enpresen hiru laurdenetik gora 1990tik aurrera sortu dira. Beraz, atomizazioa eta egonkortasun ahula dira jarduera horien ezaugarriak, eta horrek ezinbesteko ondorioak ditu enpresa horien estrategia ahuletan zein inguruneko zerbitzu-sare indartsuaren eta berritzailearen zabalkuntzan.

Bestalde, jakina da enpresentzako zerbitzuek hiriguneetan kontzentratzeko duten portaera, arrazoi ugari tarteko; hala nola, aglomerazio-ekonomia, bezeriarekiko hurbiltasuna, hiri-azpiegituren hobariak, finantza- eta ekonomia-arloko guneetatik gertu egotea, etab. Horrela, euskal herrialdeen artean enpresentzako zerbitzuen pisu erlatiborik handiena hiri-aglomerazio zabalena duen herrialdean dago, Bizkaian, bertan jarduerak BPGari ia hamarretik bat ekarriz. Gainerako hiriburuetako zerbitzu-jarduera horien salmenta-eremu nagusia eskualdea eta herrialdea diren arren, Bilboko metropoliko enpresentzako zerbitzuak bere herrialdez haragoko merkatuetara ere iristen dira, batik bat ikerketa eta garapena (I + G) edo ingeniaritza-zerbitzu sofistikatuagoen kasuan, besteak beste.

Ildo horretan, esan behar da ezen bi aldagaik eragiten dutela jardueren salmenta- eta jarduera-eremuan: zerbitzu-enpresaren tamainak eta jarduera-motak. Lehenari dagokionez, tamaina txikikoen artean (5 langiletik beherako enpresak) %92k eskualdean bertan edo inguruan saltzen zuten 1997an; handienen artean (5 langiletik gorakoak) %84ra jaisten zen protzentajea. Espainiaz besteko atzerrian saltzen duten enpresen kopurua %5era jaisten zen txikienetan eta handienetan

9. Atal honetako informazioa Eustat-en eta Nafarroako Gobernuaren iturrietatik atera da.

10. Datu hauek soilik Eustat-ek eskaintzen ditu; beraz, EAEkoak dira.

%14ra igotzen zen (I + G jardueren artean %58ra iristen zen). Nolanahi ere, salmenten balioa kontuan hartuz, eskualdearen garrantzia askoz txikiagoa da; hala ere, EAE bera da sektoreko merkaturik inportanteena, enpresa handien salmenten hiru laurdenak eta txikien %90 bertan gauzatzen baitziren. Aldiz, atzerrian eginiko salmentak %8 ingurura iristen ziren handiei zegokienean, eta %1,5era txikiei zegokienean.

Bigarren aldagaia ere —jarduera-mota— funtsezkoa da merkatuko eragin--eremua finkatzeko. Aurreratu den gisan, ingeniaritzak irispen-eremu zabalagoa du, arlo horretako enpresek salmenta-balioaren ia laurdena atzerrian gauzatzen baitzuten, eta ia %70 EAEtik kanpo. I + G jardueretan nabarmen jaisten da ehuneko hori, salmenten %8 baino ez baitzuten atzerrira bideratzen.

Laburbilduz, enpresentzako zerbitzuen jarduerek hedakuntza bizkorra izan dute azken hamarkadan euskal ekonomian. Dinamismo hori lotuta dago berrikuntza eta produkzio-paradigmaren eraldakuntzekin, baina baita jarduera-mota horrek krisi-garaian enpleguaren babesleku izateko duen funtzioarekin ere, bere enpresa--atomizazioak erakusten duenez. Bestalde, zerbitzu-jarduera horiek hierarkia espazial zorrotz bati jarraitzen diote, eta hiri-inguruneak hartzen dituzte kokaleku nagusitzat: Bilboko hirialdea zerbitzu-jarduera aurreratuenen bilgunea da, eta bertako merkatuaren irispena Euskal Herritik kanpo ere aise heltzen da.

BIBLIOGRAFIA

Bonamy, J. eta May, N. (1994): *Services et mutations urbaines. Questionnements et perspectives,* Economica, Paris.

Daniels, P. W. eta Moulaert, F. (ed.) (1991): *The Geography of Advanced Producer Services*, Belhaven Press, New York.

De Bandt, J. (1999): "The Concept of Labour and Competence Requirements in a Service Economy", *The Service Industries Journal*, **19** (1).

Europako Batzordea (2000): *Quality-Based Competitiveness (Services)*, EB, Brusela.

González Moreno, M. (1997): *Los servicios de la economía española: viejos problemas, nuevos retos,* Instituto de Estudios Económicos, Madril.

Guenaga, G. eta Zurbano, M. (1999): "Empleo, regulación y norma competitiva en los servicios de la CAPV", *Ekonomiaz*, **44**, 116-144.

Zurbano, M. (1996): *Los servicios a las empresas en la reestructuración productiva y espacial de las economías de antigua industrialización: la CAV*, UPV/EHU, Bilbo.

10. Ekonomia soziala

Anton Borja

10.1. SARRERA

Ekonomia sozialaren baitan kooperatibak, mutualitateak eta lege-izaera ezberdineko elkarte eta erakundeak sartzen dira. Horien guztien azken helburuak ondokoak dira: partaideen zein ingurunearen aldeko jarduerak egitea, kudeaketaren autonomia bermatzea, erabaki demokratikorako prozesuak bultzatzea, eta errentak banatzerakoan, kapitala lehenetsi ordez pertsonak eta lana lehenestea.

Kooperatibek ekonomia sozialaren ikurra eta erreferentzia nagusia izaten jarraitzen dute Hego Euskal Herrian; izan ere, erabiltzaileen menpeko funtzionamendu eta kudeaketa demokratikoan oinarrituz, kooperatiba da kapitala helburu sozialaren esanetara ipintzen duten produkzio-unitateak egokien ordezkatzen dituena, enpresa publiko eta kapitalistez bestelakoa.

Ekonomia soziala honela defini genezake: *merkatuan ondasun eta zerbitzuak produzitzen eta finantzatzen edo aseguratzen diharduten enpresa pribatuen multzoa, erabakien hartzea eta mozkinen banatzea ez dagoelarik zuzenki lotuta bazkide bakoitzak egindako kapital-ekarpenarekin. Erabakiak hartzeko garaian bazkide guztiek ahalmen berbera dute, eta ahalmen hori ez da bakoitzak egindako kapital-ekarpenaren araberakoa. Ekonomia sozialaren baitan kokatzen ditugu, era berean, etxe-ekonomia batzuentzako eta saltzeko ez diren zenbait zerbitzu produzitzen dituzten agente ekonomikoak, beren finantziazioa etxe-ekonomiek egindako borondatezko ekarpenen bidez gauzatzen delarik*. Eremu honetan sailka genitzake enpresa kooperatiboak (kontsumo-arlokoak, lan elkartukoak, kreditu-kooperatibak…), lan-sozietateak (anonimoak, mugatuak…) eta dirua irabazteko asmorik gabeko erakunde pribatuak (elkarteak, fundazioak…).

Jarraian, ekonomia sozialari dagozkion bi erakunde aztertuko ditugu batez ere: lan elkartuko kooperatibak eta lan-sozietateak.

10.2. LAN ELKARTUKO KOOPERATIBAK

10.2.1. Ezaugarri orokorrak

Kooperatibaren lege-izaera duten erakunde sozial oso ezberdinak daude, honako hauek besteak beste:

- Lana elkarrekin ipintzen duten pertsonak biltzen dituzten kooperatibak; hauek lan elkartuko kooperatibak izaten dira nagusiki.
- Ondasunak edo zerbitzuak elkarrekin merkaturatzeko asmoz, pertsonak, enpresari autonomoak eta enpresa txikiak biltzen dituzten kooperatibak. Horren lekuko dira landa-kooperatibak, garraiolarien kooperatibak eta abar.
- Ondasunak edo zerbitzuak kontsumitzeko asmoz, pertsonak, enpresari autonomoak eta enpresa txikiak biltzen dituzten kooperatibak. Esperientzia horiek kontsumo-kooperatibetan, hezkuntza-kooperatibetan, erosketa--guneen kooperatibetan eta abarretan hezurmamitzen dira.

Kooperatiben ugaritasun horren atzean hainbat arrazoi daude, ondoko hau esaterako: kooperatibek historikoki ulertu izan dute mozkinak produkzio-prozesuan zein merkatuan sortzen direla. Hori dela eta garatu dira, batetik, giza talde ezberdinek erabiltzen dituzten produktuak merkatzeko asmoa duten kontsumo--kooperatibak; eta, bestetik, beren produktuekin lor daitekeen prezioaren zatirik handiena eskuratzeko, egiturak sortzea helburu duten banaketa-kooperatibak. Nolanahi ere, gure ingurune ekonomikoaren bereizgarri, aipatu beharra dago lan elkartuko kooperatibek izandako garapen indartsua. Lan elkartuko kooperatibetan helburu ezberdinak dituzten langileak biltzen dira: beren enpresa autokudeatu nahi dutenak, lanpostua mantentzea xede dutenak, eta produkzio-prozesuan eta merkatuan sortzen diren plusbalioen jabe izatea helburutzat dutenak.

EAEko kooperatiben 4/1993 legeak eta Nafarroako kooperatiben 12/1996 foru-legeak beren partaideen jarduera ekonomiko eta sozialak sustatzea jotzen dute kooperatiben helburu nagusitzat, betiere kooperatiben printzipioak errespetatuz eta inguruko giza taldearen zerbitzurako jardunez. Kooperatiben printzipioen artean aipatzekoak dira honako hauek:

1. Atxikidura borondatezkoa eta irekia: bazkideak beren borondatez sartzen dira enpresa kooperatiboan; presiopean edo lege-betebeharra dela eta gauzatzen diren derrigorrezko sarrerak onartezinak dira.
2. Bazkideek egindako kudeaketa demokratikoa: bazkideen iritziak eta aholkuak kontuan hartzea esan nahi du horrek. Beraz, heziketaren balioa modu iraunkorrean garatu behar da, horrela enpresakideen arteko komunikazioaren hobekuntza ahalbidetzeko, berauen ezagupideak handituz, eta erabaki kolektiboak hartzerakoan zorroztasun handiagoa bideratuz.

3. Autonomia eta independentzia: erakunde gisa, kooperatibak askeak dira bazkideen esanetara garatu eta bilakatzeko; halaber, askeak dira nahi duten eran eta nahi duten erakundeekin harremanak gauzatzeko, betiere beren helburuak lortzeko eta bazkideen kontrol demokratikorako eskubidea bermatuz.

4. Kooperatiben arteko kooperazioa edo lankidetza: «kooperatibak beren bazkideen zerbitzura daude ahalik eta modurik eraginkorrenean, eta mugimendu kooperatiboa indartzen dute elkarrekin lan eginez, toki, eskualde, nazio eta nazioarteko egiturak direla medio». Printzipio hau elkartasun kontzeptuarekin lotzen da; horrela, pertsona juridikoen arteko batasunaren oinarrizko ideiak interkooperazioa ahalbidetzen du. Interkooperazioaren bidez, enpresek beren burua indartuko duten jarduerak egingo dituzte, banaka inoiz lortuko ez lituzketen helburuak erdietsiz, eta gainerako printzipio kooperatiboen garapenetik ondorioztatzen diren eta bertako giza komunitatea garatuko duten ekintzak abiaraziz.

5. Komunitatearekiko interesa: honek esan nahi du, bazkideek argiro erabaki behar dutela enpresak inguruko giza komunitateari nolako ekarpenak egingo dizkion eta nolako trinkotasunez. Hortaz, argi eta garbi ulertu behar da printzipioak erabat daudela elkarrekin lotuta, eta elkar osatzen duten orobatasun bat eratzen dutela, ulertezina izanik printzipio horietako bat soilik betetzea, beste batzuk bete gabe utziz.

Lan elkartuko kooperatibak gainerako enpresei ezartzen zaizkien arau berak bete behar ditu. Kooperatibaren biziraupena merkatuan erabakitzen da: bertara bere ondasun/zerbitzuekin heltzen da, eta enpresaren iraupena bermatuko duen mozkina lortzea ahalbidetuko duen salmenta-bolumena egiten saiatzen da. Logikoa denez, jardunbide horrek nabarmenki baldintzatzen du enpresa kooperatiboaren berezko balioen garapena, izan ere horrek eragina baitu kostuetan, kostuak zuzenean handitzen direlako kooperatibaren balioen garapenarekin.

Munduan nagusitzen ari den interdependentzia ekonomikoa areagotzeak eragin anitz du enpresetan. Kooperatibek ere, jakina, enpresak diren heinean, mundu osoan gertatzen den bilakaera horren eragina jasotzen dute. Gaur egun, globalizazioaren esparrua aipatzen denean, merkatuaren ikuspegi soila eman ohi da enpresaren eragina aztertzean, bestelako arloak kontuan hartzeke.

Kooperatiben barne-funtzionamenduaren ikuspegitik honako ezaugarriak dira aipatzekoak:

- Bazkide langile bakoitzak boto bat du, kapital sozialari egindako ekarpena dena delakoa izanik ere.
- Beharrezko fondoetan gutxienez %30 ipini ondoren, emaitzen banaketa bazkideak egindako lanaren araberakoa da.

- Bazkide langileek beren lan-egoeraren oinarrizko esparrua finkatzen dute, lanaren antolakuntza, jardunaldiak, asteko aisialdia eta gizarte-segurantzaren izaera aukeratzeko ahalmena ere enpresaren beharren arabera arautuz.
- Kooperatibetan bazkide langilea izateko aukerarik ez duten soldatapeko gizabanakoek, maila berekoa edo antzekoa den bazkideak itzulera gisa jasotzen duen kopuruaren %25 eskuratzeko eskubidea dute.
- Kooperatiba bateko bazkideak bere bazkidetza uztekotan, dagozkion fondoak berak egindako ekarpenen arabera kalkulatzen dira, horri egokitu zaizkion mozkinak gehituz eta izan dituen galerak kenduz.

Kooperatibetan lehenago aipatutako beharrezko fondoak bi dira: Derrigorrezko Erreserba Fondoa (DEF) eta Heziketa eta Sustapen Kooperatiborako Fondoa (HSKF). Lehena, DEF alegia, kooperatibarena da, eta bere funtzioa aktiboak finantzatzea da, eta, horrela suertatzen denean, sortutako galeren portzentaje bat estaltzea. Bigarrena (HSKF) ere kooperatibarena da, baina jarduera jakin batzuetarako soilik erabil daiteke. Jarduera horiek bazkideen Batzar Orokorrak onartu behar ditu, eta fondoko diru-kopuru guztia gastatuko ez balu, gastatu gabeko zatia zor publikoan inbertitu beharko luke kooperatibak, harik eta legeak onartutako helburuen barneko jarduera zehatzetarako erabiltzea erabakitzen duen arte. Legeak hiru jarduera-mota aurreikusten ditu: kooperatibismoaren eta interkooperazioaren garapena; teknika eta printzipio kooperatiboetarako heziketa eta prestakuntza; eta izaera kultural profesionala duten jarduerak edota, oro har, komunitatearen mesederako direnak, hots, helburu sozialekoak.

90eko hamarkadan Hego Euskal Herriko kooperatiben eta bazkideen kopurua igotzen joan da, baita haien pisu ekonomikoa ere. Gaur egun, BPGren %5-6, esportazioen %5-6 eta enpleguaren %6-7 kooperatibei dagokie. Ekonomia sozialeko langileen %70ek baino gehiagok kooperatibetan dihardute, eta kooperatiba bakoitzean batez beste 26 bazkide langilek egiten dute lan (nahiz eta kooperatiben %75ek ez duten 50 bazkide baino gehiago).

Kooperatiben presentzia lurraldeka aztertzen badugu, honako banaketa hau ikus dezakegu:

10.1. taula. Kooperatiba-motaren araberako kooperatiben eta bazkideen kopurua

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		Nafarroa	
	Koop.	**Bazkideak**	**Koop.**	**Bazkideak**	**Koop.**	**Bazkideak**	**Koop.**	**Bazkideak**
Guztira	199	7.286	476	196.881	444	62.147	1.032	Dg
Nekazaritza	36	2.594	25	6.335	27	4.389	577	Dg
Kontsumoa	2	254	13	165.833	13	17.077	59	Dg
Finantzak	0	0	1	2.356	2	12.796	0	Dg
Zerbitzuak	7	221	24	1.735	20	1.436	17	Dg
Lan elk.	126	1.432	344	4.369	298	12.835	164	Dg
Irakaskuntza	9	2.006	40	15.348	32	11.151	22	Dg
Etxebizitza	19	779	26	891	48	2.442	157	Dg
Besteak	0	0	3	14	4	21	6	Dg

Lan elk.= Lan elkartuko kooperatibak
Dg= daturik gabe
Iturriak: Kooperatiben erregistroa, Justizia, Lana eta Gizarte Segurantza Saila, Eusko Jaurlaritza (1999); Industria Saila, Nafarroako Gobernua (2000).

10.1. taulan ageri denez, Nafarroa nabarmentzen da, bai erregistraturiko kooperatiben kopuru osoari begira, bai nekazaritza-kooperatiben kopuruari dagokionez ere (%50 baino gehiago). Zenbait erakunderen iritziz, "erregistraturiko" kooperatibak eta "funtzionamenduan" dauden kooperatibak bereizi behar dira, erregistraturiko kooperatiba guztien artean %30-50ek ez baitute funtzionatzen.

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako kasuetan, kooperatiba guztien %63-71 lan elkartuko kooperatibak dira. Bestalde, mota horretako kooperatiba gehienek industria-sektorean dihardute (mekanika, eraikuntza, inbertsio-ondasunak, elektrika/elektronika arloa, makina-erreminta...). Nafarroari gagozkiola, kooperatiba industrialak 43 dira, gehienak beste sektoreetakoak izanik: baratze-fruituzaintza (53), upeltegiak (33), zituak (54), abeltzaintza (9), olibak xehatzeko eiherak (6), kontserbak (4), etab.

Enpleguari dagokionez, 90eko hamarkadan kooperatibek bilakaera baikorra izan zuten. 1995ean 33.013 bazkide langile zenbatzen baziren (31.884 langile EAEn eta 1.129 Nafarroan), 1999an 40.000 baino gehiago izan ziren (35.595 langile EAEn). Enplegu guztiaren %75 industria-sektorean kokatzen bada ere, kooperatiba berriak zerbitzu-sektorean eratzen ari dira, enplegua areagotuz.

Kooperatiben sektorean eta bereziki lan elkartuko kooperatiben azpisektorean, *Mondragón Corporación Cooperativa* sarearen barruan dauden kooperatibek berebiziko garrantzia dute (hurrengo atalean deskribatuko ditugu), bai kopuruagatik eta bai pisu ekonomiko nabarmena dutelako ere; hain zuzen, gainerako lan elkartuko kooperatibek ez dute gainditzen fakturazio osoaren %30eko maila.

Euskal Herriko lan elkartuko kooperatiba independente gehienen tamaina txikia izanik, beste enpresa txiki eta ertainen ohiko arazo arruntak nozitzen dituzte.

Zailtasun horiek era honetan laburbil daitezke: teknologia eta berrikuntzarako ahalmen-eskasia, merkaturatze-gabeziak (hala nola marken falta eta zenbait merkatutan, bereziki kanpokoetan, barneratzeko ezintasunak), finantziazioa lortzeko zailtasunak, prestakuntza- eta kudeaketa-arazoak eta enpresa-isolamendu handia.

Horrez gain, kooperatibei larriagotu egiten zaizkie beste zenbait arazo, kooperatiba diren aldetik. Enpresa txiki eta ertain (ETE) batentzat finantzabideak baldintza egokietan lortzea zaila izanik, kooperatiben kasuan arazoa areagotu egiten da, kooperatiba-izaerak lanari eta kapitalari trataera berezia ematen dielako, kapitalaren kalterako. Lanak kapitala kontratatzen du, azken honi ekoizpenerako izaera instrumentala emanez; jabetzak, beraz, ez du zuzendaritzaren eta etekinen gaineko eskubiderik ematen. Finantza-baliabideak lortzerakoan, kooperatiben ezaugarri berezi horrek biziagotu egiten ditu kanpo-kapitala erakartzeko zailtasunak. Bestalde, kooperatibako bazkideen ondarearen ahuleziak eta aurrezteko zailtasunak mugatu egiten dituzte beren ekarpenak, eta ezin da arazoa gainditu kapital propioaren eta autofinantzaketaren bidez.

Beste alde korapilatsu bat, kooperatiben antolatze-egitura berezia da. Enpresa kapitalistetan kapitalaren eta lanaren artean dauden tentsioak, kooperatiben kasuan zuzendaritzaren eta langileen arteko dikotomia bihurtu dira, batzuetan enpresen bilakaeran eragina duten barne-gatazkak sorraraziz. Gainera, enpresa alternatibo hauek dituzten barne-behar demokratiko eta parte-hartzaileak asetzeko kanpo-lehiarekiko premiei aurre egiteko kudeaketa-eredu demokratikoak ez dira nahikoa landu eta garatu oraindik.

10.2.2. Mondragón Corporación Cooperativa (MCC)

Ezbairik gabe, gaur egun Euskal Herriko ekonomia sozialeko erakusle nagusia *Mondragón Corporación Cooperativa* dugu. Euskal Herrian ez ezik, estatuan ere hori da ekonomia sozialeko erakunde nagusi eta ukaezina. Horrez gain, Hego Euskal Herriko industria-talde garrantzitsuena da MCC.

10.2.2.1. Talde kooperatiboaren bilakaera

Taldearen jatorria 1956an dago, orduan sortu baitzen *Ulgor* enpresa, gaur egun *Fagor Elektrodomestikoak* deritzona. Hori izan zen Arrasateko lehenengo langile-kooperatiba, bertako Eskola Profesionalean ikasketak burutu zituzten bost gazteren eta Arizmendiarrieta apaizaren eskuek sortua.

Hurrengo urteetan beste langile-kooperatiba batzuk sortu ziren *Ulgor*ren arrakastaren eraginez, eta Arizmendiarrietak gizartean eta hezkuntza-arloan emandako bultzadari esker.

1961ean lehendabiziko industria-taldea sortu zen, *Ularco* izenekoa (geroago, 1985ean, *Fagor* izena hartuko zuena), bere baitan *Ulgor*, *Arrasate* eta *Copreci*

bilduz. Taldea osatu ondoren, *Fagelectro* eta *Ederlan* gehitu zitzaizkien, biak ere garai hartan Deba Garaian sorturiko industria-kooperatibak. Aurreneko talde kooperatibo horren sorrera aurrekari garrantzitsua izan zen bailaran. Horrela, urte batzuk igarota, lehendik zeuden kooperatiba gehienek antzeko taldeak sortu zituzten.

*Ulgor*ren lehenengo urteetako hazkunde azkarrak ekar zitzakeen arazoak kontuan hartuz, Arizmendiarrietak finantza-erakunde baten premia sumatu zuen, proiektuari finantziaziorako bide sendoa ziurtatuko ziona; eta horrela, 1959an, *Lan Kide Aurrezkia* kreditu-kooperatiba eratu zuten, gaur egun *Euskadiko Kutxa* deritzona (Agirre *et al*., 2000: 33).

Kooperatibetako bazkideak, beren kabuz jarduten zuten langileak zirenez, Gizarte-Segurantzaren Erregimen Orokorretik at zeuden. Hori zela medio, lehenengo urteetan, *Lan Kide Aurrezki Kutxa*ren zeregin garrantzitsuena bazkideei babes soziala bermatzea izan zen. Horrela, *Lan Kide Aurrezki Kutxa*k, bere estatutuen arabera, finantza-zerbitzuarekin batera, zerbitzu teknikoa (adar enpresariala) zein zerbitzu soziala (gizarte-aurreikuspenerako zerbitzua) eskaini behar zizkien kooperatibei.

Gizarte Aurreikuspenerako Zerbitzua, gerora *Lagun-Aro* izena hartuko zuena, kooperatiba independente bilakatu zen 1967an; eta 1985az geroztik bazkideek jasotzen dituzten prestazio nagusiak sistema pribatu horretan oinarritzen dira, estatuak Gizarte-Segurantzaren eta osasun-sistemaren bidez edo INEMek langabezia--sarien bidez eskaintzen dietena bigarren mailan geratuz.

Hirurogeiko hamarkadan, Arrasate inguruan sorturiko industria-kooperatibak testuinguru oso babestu eta onuragarrian garatu ziren. 1973tik aurrera, estatuko ekonomia nozitzen ari zen krisi sakonaren ondorioak sentitzen hasi baziren ere, hazkuntza jarraitua mantendu zuten, *Euskadiko Aurrezki Kutxa*, *Lagun-Aro* eta *Ikerlan* ikerketa-zentroaren babesari esker, besteak beste.

Mondragón Taldea (MT) gorabeherak jasaten hasi zen, Espainiako ekonomia —euskal ekonomia barne— beheranzko joera bizian murgildu zenean; ondorioz, *Mondragón Taldea* bera ere krisi horren eragina nozitzen hasi zen. Sektore nagusiak berregituratu egin ziren; industria-kooperatiba garrantzitsuenak ere —*Fagor*rek alegia— aurre egin behar izan zien berregituraketa sakonei. Garai hartan enpresa askok porrot egin zuten, eta beste batzuek itxi egin behar izan zuten.

Egoera horren aurrean, *Mondragón Taldea*ren erantzuna egokia izan zen, eta ekonomia-krisiari aurre egiteko bere burua berrantolatzeko gaitasuna erakutsi zuen. Horretarako, taldea bi azpitaldetan banatu zuten: industria-taldea eta eskualde--taldeak.

MTren kooperatiba liderraren —hots, *Fagor*ren— inguruko kooperatibak elkartuz sortu zen industria-taldea; eta industria-talde hori, halaber, zenbait azpisektore-

tan banaturik zegoen. Azpimarratzekoa da *Fagor* taldearen zuzendaritzan Batzar Orokorra eta Kontseilu Errektorea zeudela; talde honetan txertaturik zegoen edozein kooperatibak, zorrak edukiz gero, laguntza eta babesa jasotzen zituen industria-taldeak lorturiko etekinen bidez; gauza bera gertatzen zen kooperatiba batean lan-soberakinak agertzen zirenean (hau da, langile batzuk soberan zeudenean), taldeko beste kooperatiba batzuek enplegua ematen baitzieten bazkide langile horiei. Hortaz, elkartasun-sareak eratu ziren industria-taldean parte hartzen zuten kooperatiben artean.

Eskualde-taldeak industria-taldea baino aniztasun handiagokoak ziren (ez hain homogeneoak). Oro har, inguruko bailaretan kokaturiko kooperatibek osatzen zituzten, eta federazio moduan antolatzen ziren.

Eskualde-talde hauek zenbait zerbitzu komun zituzten; elkartasun-fondo bat zuten, kooperatiba ahulenak babesteko asmoz eratua; eta langile-soberakinak ere xurgatzen zituzten, baldintza egokiak izanez gero.

Laburbilduz, horrela antolatu ziren *Mondragón Talde*ko enpresa kooperatiboak, eta modu horretan aurre egin zieten 80ko hamarkadan etorri zitzaizkien erronkei, besteak beste gure ekonomia Europako Ekonomia Erkidegoan (EEE) barneratzeari.

EEEn sartu ondoren, industria-kooperatiba gehienek emaitza onak erdietsi zituzten, eta 1987-90 epealdiko datuek horrela adierazten dute. Bizi-bizi jardun zuten, harik eta 90eko hamarkadaren hasierako ekonomia-krisiaren ondorioak nabaritzen hasi ziren arte, beren hazkunde-tasa jaitsaraziz.

Atzeraldi horretan, hala ere, banaketa-kooperatibak denetan dinamikoenak izan ziren, 1987-92 urtealdian banaketa-taldeak 1.800 lanpostu sortu baitzituen. Talde hau, *Eroski* lider zuela, Euskal Herriko lurraldetik kanpo ere hedatu zen, aliantza estrategikoen bitartez Espainiako estatuan barneratuz. Finantza-taldeak ere, *Lan Kide Aurrezki Kutxa*ren eta *Lagun-Aro*ren lidergopean, arrakastaz garatu zituen bere finantza-jarduerak, hainbat lanpostu berri sortuz, nahiz eta ekonomia bere osotasunean arazotan izan.

Oro har, *Mondragón Taldea*rentzat egonkortasuna izan zen nagusi 1990-92 epealdian, nahiz eta lanpostu berririk ezin sortu izan industria-taldean, eta kooperatiba batzuetan langileria murriztu. Kooperatiben lege-araudi desegokiak areagotu egiten zuen *Mondragón Taldea*ren hazkundearen geldiune hori. Egoera horretan, 1991n *Mondragón Taldea*ren 3. Biltzar Nagusian, *Mondragón Corporación Cooperatiba* (MCC) sortzea erabaki zuten, ondoko irizpideetan oinarrituz:

a. MCCren egiturazko politika batzeko beharra.

b. Industria-egitasmo berriak indarrean jartzeko beharra.

d. MCCn dauden fondo ezberdinak koordinatzeko beharra.

1993an Eusko Legebiltzarrak Euskadiko Kooperatiben Lege berria (4/1993ko legea) onetsi zuen. Lege hori MT edo MCCren beharrei erantzuteko egokia izan da, eta, horrez gain, kooperatibentzako finantzabide berriak ahalbidetzen ditu, hala nola partaidetza edo partizipazio bereziak, obligazioak eta beste finantzabide-mota batzuk jaulkitzeko aukera. Horrela, MCCk finantzabide berriak izan ditu eskura bere hedapen-egitasmoak abian jartzeko.

Haatik, MCCren bilakaera ez da guztiz leuna izan; bere helburuak lortzeko ezarritako arau zurrunek eta buruan dauden enpresen arteko loturagune sektorial berriek (integrazio bertikala) arazoak sortu dituzte, banakako kooperatiben autonomia makalduz. Kooperatibismoaren funtsezko ataletako bat enpresen subiranotasuna da, hain zuzen ere, eta horren ukapenak egoera korapilatsuak sortu ditu; horren ondorioz, 1993an enpresa batzuek taldea utzi zuten, *Ulma* enpresak esaterako, oso esanguratsua berau.

Alderdi kulturala ere gainditu beharreko koska bat izan da. Gizabanako kooperatibistak bere burua hurbil dagoenarekin bat egiten (identifikatzen) du lehendabizi, hots, lan egiten duen lantegiarekin; ondoren eskualdea barneratzen du, eta oso urrun dakusa muga geografikorik gabeko megataldea. Jauzi mental horrek aldaketak dakarzkio eskema psikologikoari, bai botereguneekiko, bai ohiturekiko eta bai elkarbizitzeko pentsamoldeak aldatzeko premia bistaratuz. Aurrerantzean, beraz, korporazio berria bere osotasunean eta marken politika ere barneratu beharko ditu gizabanako kooperatibistak.

Horretarako, boterearen zentralizazioak eta kontzentrazioak zenbait tresna eskatzen zituen, eta, ondorioz, 3. Biltzar Orokorrak kooperatiba guztientzako fondo berriak eratzea onartu zuen: Kooperatiben arteko Fondo Zentrala (KFZ edo FCI), Kooperatiben arteko Elkartasun Fondoa (KEF edo FISO), eta Promozio eta Hezkuntzarako Fondoa (PHF edo FIPE).

10.2.2.2. Organo Erabakitzaileak eta parte-hartzea

Arestian aipatu dugunez, MCC sortzeak organo erabakitzaileen zentralizazioa ekarri zuen. Biltzarrak, Kontseilu Orokorrak eta Kontseilu Iraunkorrak osatzen dute, nagusiki, taldean dauden kooperatiben zuzendaritza.

- Biltzarrak oinarrizko arauak eta MCCren politika orokorra diseinatzen ditu, baita talde osoko industria-, teknologia-, finantza- eta giza politikak ere.
- MCCren Kontseilu Orokorrak egunez egun jartzen ditu indarrean Biltzarrak diseinaturiko politikak.
- Kontseilu Iraunkorrak (Biltzarrak hautatua) politika horien ikuskaritza eta kontrola egiten ditu.

Hiru organo nagusi horien azpian Dibisio ezberdinetako Organoak daude, eta horietako zuzendari orokorrak Kontseilu Orokorreko kide dira. Dibisioak, era berean, talde sektorialetan banatzen dira, eta talde horietako bakoitzak bigarren mailako kooperatiba bat osatzen du, Batzar Orokorra buru duena. Batzar horretako kideak zeharka aukeratzen dira, talde sektorialaren barruan dauden kooperatibetako bazkideen kopuruaren arabera, hain zuzen.

Hierarkizazio honen eraginez, 1993ko legeak dakarren Batzar Orokorraren eskuduntzen mugaketarekin batera, eta talde sektorialetan zenbait kooperatibek (adibidez, *Eroski*, *Fagor*, *Ikerlan*, *Danobat*...) duten pisua dela medio, boterea kooperatiben oinarrietatik urrun gelditzen da, eta erabakiak Organo zentralek baldintzatzen dituzte.

Gune erabakitzaileetan parte-hartze errealaren hutsuneak gainditzeko asmoz, kooperatiba guztien helburuak eta hauen zenbatekoak jasotzen dituzten urteko kudeaketa-plangintzak egiten dira, horrela argibideen eta informazioaren gardentasuna bultzatuz.

10.2.2.3. Mondragón Corporación Cooperativa*ren gaurko egitura*

1992an MCC hiru talde edo adar nagusitan antolatu zen: Finantza-, Banaketa- eta Industria-taldeak, alegia. Finantza-taldeak banka-negozioak, gizarte-aurreikuspena, aseguruak eta *leasing* delakoa ditu bere baitan. Industria-taldea zazpi ataletan banaturik dago, denak ere industria-ekoizpenetara zuzenduak. Banaketa-taldea merkataritza-banaketaz eta elikagaien jarduerez arduratzen da. Oro har, hurrengo banaketa erakusten dute MCCko talde edo adarrek:

MCCko adarrak

Finantza-taldea	Industria-taldea	Banaketa-taldea
– Banka: – *Euskadiko Kutxa* – *Aroleasing* – Aseguruak: – *Lagun-Aro* – *Lagun-Aro Bizitza* – Gizarte-Aurreikuspena: – *Lagun-Aro*	– Industria-ekipamendua – Ingeniaritza eta ekipo-ondasunak – Makina-erreminta – Osagaiak – Eraikuntza – Automobilgintza – Etxeko tresnak	– Banaketa: – *Eroski* – *Erosmer* – *Erein Comercial* – *Consum* - Elikagaiak: *Miba* *Unekel* *Auzo-lagun* *Behi-Alde* *Barrenetxea*
Prestakuntza-zentroak		**Ikerkuntza-zentroak**

Arizmendiarrietaren ustez, gazteen hezkuntza-aukerak zabaltzea gizartearen garapenerako giltzarria zen, eta helburu horrekin 1943an Arrasateko Eskola Profesionala jarri zuen abian. Arrakasta izan zuenez, 1968an Ingeniaritza Tekniko Industrialeko eskola izendatu zen. Horrez gain, Irakasle Eskola (Irakasleentzako Unibertsitate-Eskola) eta ETEO (Enpresa-ikasketak) sortu zituzten. 1997an Mondragon Unibertsitatea sortu zen.

Ikerkuntza-zentroak ere garrantzitsuak dira kooperatiben garapenean, eta adierazgarrienak hurrengoak dira: *Ikerlan* (mekatronikan espezializaturiko teknologia-zentroa), *Ideko* (makina-erreminta sektorean espezializaturikoa) eta *Maier Technology Centre* (termoplastikoen ikerketa eta garapenean espezializaturikoa).

Finantza-taldea

Finantza-taldea *Lan Kide Aurrezkia* kreditu-kooperatibak (gaur egun *Euskadiko Kutxa* dena) eta *Lagun-Aro* deritzan gizarte-aurreikuspenerako entitateak osatzen dute.

*Euskadiko Kutxa*k finantza-zerbitzuak eskaintzen dizkie korporazioko kooperatibei zein bestelako bezeroei. *Lagun-Aro*k, berriz, korporazioaren gizarte-aurreikuspenerako sistema propioa kudeatzen du, eta bere finantza-jardueraren helburu nagusia bere ondare-fondoaren errentagarritasuna optimizatzean datza. Halaber —azpimarratzekoa da hori—, taldearen zeregina aseguru, *leasing* eta beste finantza-produktu batzuen arloetara ere zabaltzen da. 1999an *Lagun-Aro*ren ondare-fondoa 2.003 milioi eurokoa zen, eta *Euskadiko Kutxa*ren baliabideak (bitartekoak) 6.364,22 milioi eurokoak; bestalde, emaitzak 122,48 milioi eurokoak izan ziren.

Industria-taldea

Industria-taldea 92 enpresa ekoizlek osatzen dute, zazpi sail edo dibisio sektorialetan banaturik. Dibisioak produktu-merkatuaren homogeneotasunaren arabera osatzen dira, antzinako eskualde-taldeak kontuan hartu gabe. Dibisio hauen menpean kooperatiben elkarteak daude. 1999ko datuen arabera, industria-taldearen salmentak 2.693,33 milioi eurokoak izan ziren, eta horietako erdiak nazioarteko merkatuetan gauzatu ziren. 1998an industria-taldeak 17 lantegi zituen atzerrian kokatuta.

Dibisiorik garrantzitsuena etxetresna elektrikoak ekoizten dituena da, industria-talde osoaren salmenten %32,7 berari dagozkiolarik. Dibisio honetan "*Fagor* etxetresna elektrikoak" izenekoa da nazioarteko merkatuetan gehien zabaldu dena, bai atzerrian ekoizleak erosiz (*Wrozamet* Polonian, kasu) bai beste enpresa batzuetan parte hartuz (*Mc Lear* Argentinan edo *Extra Electromenager* Marokon, esaterako). Espainiako estatuan *Fagor* da etxetresna elektrikoen ekoizle garrantzitsuena: urtean 800.000 hozkailu ekoizteko ahalmena du.

Banaketa-taldea

Banaketa taldean *Eroski* kooperatiba eta *Consum* daude; biek batera estatu espainolean elikagai-banaketako enpresa nagusia osatzen dute. Talde honen salmentak 3.580,6 milioi eurokoak izan ziren 1999an. *Eroski*ren eta *Consum*en merkataritza-sarearen barnean *Eros* eta *Maxi* ikur komertziala duten saltoki handiak, *Consum* supermerkatuak eta *Charter* autozerbitzuak daude. Beste enpresa batzuk ere aipagarri dira, *Eroski* bidaia-agentzia eta erregaien zerbitzuguneak, adibidez. Banaketa-taldearen baitan *Erkop* nekazaritza-elikagaietarako elkartea ere bada, zeinaren jardueren artean abeltzaintzaren zerbitzuak, barazkienak eta elikagaienak nabarmentzen diren.

10.2.2.4. Gaurko egoera ekonomikoa eta etorkizunerako estrategiak

MCCren emaitza ekonomikoek goranzko bilakaera izan dute: 1997an 314,43 milioi eurokoak izan ziren eta, 1999an 459,65 milioi eurora iritsi ziren. Salmentak eta inbertsioak 6.268,56 milioi eurokoak eta 521,91 milioi eurokoak izan ziren, hurrenez hurren, 1999an. Enpleguak ere antzeko joera izan du, 1997-99 urtealdian 34.397 langile izatetik 46.861 langile izatera heldu baita MCC. Deigarria da, bai salmenten kopuruari nahiz inbertsioari zein enpleguari dagokienez, Banaketa-taldeak Industria-taldeak baino emaitza hobeak lortu izana 1999an; hori ez baitzen horrela 90eko hamarkadaren hasieran.

MCCren 4. Biltzarrean onarturiko 1994-96 epealdirako enpresa-politikak nazioarteratzea ezarri zuen korporazioaren oinarrizko helburuen artean, eta horretarako Nazioarteratzeko Plan Estrategiko Korporatiboa (NPEK edo PECI) indarrean jartzea erabaki zuen. Plan horrek, ikuspegi global batetik abiatuta, kooperatiben kanporako hedatze-prozesua areagotzea, talde sektorialen ekimenak koordinatzea eta, planak arrakasta izateko aukera gehiago izan zitzan, laguntza zein babes korporatiboaren aldeko plataformaren diseinua zituen helburu.

Hiru merkatu-mota bereiz zitezkeen plan horretan:

– Oinarrizkoak: Alemania, Erresuma Batua, Italia.

– Lehentasunezkoak: AEB, Japonia, Korea, Txina.

– Potentzialak: Errusia, Txekia, Saudi Arabia.

Bigarren plan estrategikoan, 1997-2000 urtealdirakoan, nazioarteratzeak korporazioaren bost funtsezko helburuetatik bat izaten segitu du. Industria-taldearen oinarrizko estrategiak hurrengoak izan dira: oinarrizko kanpo-merkatuetan presentzia sendotzea eta tresna korporatiboen bidez lehentasunezko merkatuetan barneratzea.

1999aren bukaeran, MCCk 23 enpresa zituen atzerrian kokaturik (horien ekoizpen-balioa 120,20 milioi eurokoa izan zen). Herrialde horien artean, Txina, Thailandia, Brasil, Mexiko, Argentina, Polonia, Txekia, Maroko eta Erresuma Batua daude. 1994an nazioarteko salmentek salmenta guztien %34,6 osatu zuten; 1999an, aldiz, %47,5 izatera heldu ziren.

10.3. LAN-SOZIETATEAK

10.3.1. Ezaugarri orokorrak

Lehendabizi, lan-sozietateen barne-funtzionamenduaren zenbait ezaugarri deskribatuko ditugu. Lan-sozietateetan, bai anonimoetan bai mugatuetan, bazkideak dituen akzioen zenbatekoak akzio guztiekiko duen proportzioaren arabera ezartzen da bozkatzeko boterea.

Lan-sozietateetan, legezko erreserbak eta erreserba bereziak osatu ondoren, bazkide bakoitzak dituen akzioen arabera banatzen dira etekinak ere, proportzionalki.

Bestalde, lan-sozietateetan lan-harremanak hitzarmen kolektiboen bidez arauturik daude, eta bazkide langileak Gizarte-Segurantzaren erregimen orokorrean sartuta daude (goi-mailako lanpostuetan dihardutenak izan ezik, azken hauek autonomoen erregimen berezian sartuta baitaude).

Lan-sozietateak ekonomia sozialean dauden enpresa guztien %25 baino gutxiago dira. Azken bi urteotan sorturiko enplegu berriak aldi baterakoak dira hein handi batean (%80 baino gehiago). Oro har, ekonomia sozialean dauden lanpostu guztien %24 inguru aldi baterakoak dira. EAEn, 1998an, lan-sozietateek 1.072 soldatapeko finko zituzten, eta aldi baterako soldatapekoak 3.083 ziren.

10.2. taula: Lan-sozietateei buruzko zenbait datu adierazgarri 1999an

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa
Lan-sozietateen kopurua	176	840	620	700
Bazkide langileak	1.156	7.446	5.563	-
Bazkide kapitalistak	154	664	519	-
Kapital soziala (milioi euro)	11,32	40,15	45,53	-
Jarduera ekonomikoak				
Nekazaritza	2	7	3	7
Industria	56	271	273	190
Eraikuntza	39	147	67	120
Zerbitzuak	79	415	277	383

Iturriak: Justizia Saila, Eusko Jaurlaritza (1999); Industria Saila, Nafarroako Gobernua (2000).

Aurreko 10.2. taulak erakusten duenez, 2.336 lan-sozietatek dihardute Hego Euskal Herrian. Azken urteotan, haien kopurua nabarmen hazi da, eta bereziki azpimarratzekoa da lan-sozietate mugatuen hazkuntza; horretan, 1997an onartutako araudi berria izan dute lagun, 3.005,06 eurotik gorako kapital sozialarekin forma juridiko hau osatzeko baimena eman duelako.

10.3.2. Lan-Sozietate Anonimoak (LSA edo SAL)

Lan-Sozietate Anonimoak 1979az geroztik sortu dira; sektore eta enpresen berrantolaketaren ondorio zuzenak izan dira, baita langileek krisialdi-espediente ugariei eman dieten erantzunaren fruitu ere.

LSAk edo SALek ez zuten marko juridiko propiorik izan 1986. urtera arte. Ordura arte, Elkarte Anonimo modura eratzen ziren, eta, ondorioz, arau berberak bete behar zituzten, jabetzari eta beronen aldaketari buruz estatutuetan muga batzuk zeuzkatelarik.

1986an, LSAren kapital sozialaren %51k gutxienez langileen esku egon behar zuela ezarri zuten legez. LSA batek bi motako bazkideak izan ditzake: bazkide langileak eta bazkide kapitalistak. Kapital soziala bazkide-mota bakoitzeko akzio nominatibo espezifikoetan banatzen da; eta ezein bazkide ezin da kapitalaren %25 baino gehiagoren jabe izan.

Enpresa hauek funtzionatzeko dituzten baldintza bereziak direla eta, beren arteko elkarlana behar-beharrezkoa da, bizirauteko premiazko zaien laguntza pertsonal, finantzario eta teknikoa jasotzeko. EAEn, Euskadiko Lan-Sozietate Anonimoen Elkartea (ASLE) 1982an sortu zen, eta 1995ean 222 enpresa eta 7.300 langile biltzen zituen.

ASLE barruan dauden enpresak sektoreka banatzen baditugu, argiro islatzen da gehienek industria-izaera dutela, sektore horretan 164 enpresa eta lanpostu guztien %82 baitaude. Zerbitzuen sektorean, ostera, 55 enpresak dihardute, enpleguaren %15ekin; eta eraikuntzan 3 enpresa baino ez dira ari. Beraz, begi-bistakoa da elkarte horretan dauden enpresa gehienak industrialak direla, eta azpisektore esanguratsuenen artean honako hauek azpimarra ditzakegu: arte grafikoak, galdaragintza, estanpazioa, altzarigintza, makina-erreminta, ebaketa-tresnak, industria kimikoa, etab.

Enpresen tamainari gagozkiola, 500 langile baino gehiago dituen enpresa bakarra dago, 100 eta 500 arteko langileria duten enpresak 10 dira, eta gainerakoak enpresa txikiak dira, eta, eskuarki, 25 langile baino gutxiago dituzte.

Halaber, ASLEn dauden enpresen salmenta-kopurua, 1994an, 360,61 milioi eurokoa izan zen, eta hortik %25 esportazioek osatu zuten.

Bestalde, Nafarroan Lan Enpresen Elkarte Nafarra (ANEL) sortu zen ASLE sortu zen urte berean, hots, 1982an. 1986an ekonomia sozialeko 48 enpresak parte hartzen zuten elkarte horretan (lan elkartuko kooperatibak zein lan-sozietateak bere baitan hartuta); guztira 2.396 langilek ziharduten bertan eta salmentak 93,76 milioi eurokoak izan ziren, hor nonbait. 2000ko urtean, ordea, 157 ziren enpresak eta 3.413 langileak.

Industria-sektorean 67 enpresa (eta 2.020 langile) ari dira; zerbitzu-sektorean, berriz, 82 enpresa (eta 1.254 langile). ANELen baitan, enpresen %60 baino gehiagok 10 langile baino gutxiago dituzte, eta enpresa txiki eta ertainak zerbitzu-sektorean kontzentratzen dira nagusiki (informatika, enpresentzako zerbitzuak, garraioa eta laguntza teknikoa).

80ko hamarkadako bilakaera finantzario-ekonomikoari dagokionez, lan-sozietateek finantza-egitura eskasa zuten (gutxieneko kaudimena, zorpetze-maila altua), merkataritza-egitura gelditua (merkatu helduak eta teknologia tradizionalak), industria-egitura makala, ekoitziriko unitateko balio erantsi apalarekin eta ekoizkortasun edo produktibitate baxuarekin. 1987tik aurrera —bereziki 1990eko hamarkadan—, enpresa hauen kudeatzaileek zein ASLE eta ANEL enpresa-erakundeek ahalegin handia egin dute enpresen errentagarritasuna berreskuratzeko. Horretarako, laguntza publikoak, inbertsio berrien politika egokiak, kudeaketan aldaketak eta plangintzan zein antolakuntzan berrikuntzak egin dituzte. Esan liteke, oro har, lan-sozietateen ehun ekonomikoaren modernizazioa eta sendotasuna lortu direla horrela.

10.4. ETORKIZUNEKO ERRONKAK

Jarraian eta labur-labur, enpresa hauei gerora begira aurreikusten zaizkien erronka nagusiak aipatuko ditugu:

- ***Finantziazioa***: aldagai hau funtsezkoa da ekonomia sozialean diharduen enpresa ororentzat. Nolanahi ere, argi bereizi behar dira MCC batetik eta lan-sozietateak bestetik, egoera ezberdina bizi baitute.

  MCCk, bere finantziaziorako, banku kooperatibo eraginkor batez (*Euskadiko Kutxa*), kartera-elkarte batez eta fondo berezien multzo batez baliatzen jakin du, bestelako finantzabide berezi batzuen artean ("partaidetza bereziak" etab.). Gaur egun MCCk dituen finantza-arazoak honako hauek dira bereziki: estatu espainolean besteen baliabideek duten kostua, arriskua duten zenbait eragiketa burutzeko kapital propioaren eskasia eta, batik bat, bere nazioarteratze-proiektua.

  Lan-sozietateen erronka, berriz, beren egiturazko finantza-arazoei aurre egiteko behar dituzten tresnen jabe egitean datza.

Ekonomia sozialeko bi osagai hauen egoera hain ezberdina izateak agerian uzten du, Euskal Herrian, ekonomia sozialak bere osotasunean finantza--zailtasunei aurre egiteko politika ekonomiko-sozial baten premia duela, eta, ildo horretan, hutsune bat dagoela.

- ***Nazioarteratzea***: lan-sozietateen kasuan, premiazkoa da merkataritza-sarea eta egiturak sustatzea, horren bidez esportazioak areagotzeko, betiere kontuan izanik nazioarteko merkatuak direla metaketa berriaren oinarriak ezartzen dituztenak.

  MCCri dagokionez, nazioarteratze-prozesuak erronka ekonomiko, finantzario eta sozial handia dakar berekin. Ildo horretan, berebiziko garrantzia hartzen dute esportazioak ugaltzeak, enpresen arteko aliantza estrategikoak eratzeak, atzerrian hornigaiak ekoizteak eta merkatuetara hurbiltzeak.

  Horrek guztiak finantza-baliabide asko eskatzen ditu eta, erdigune kooperatiboaren menpean, periferia kapitalista baten diseinua eta eraketa dakartza (kapital-inbertsio zuzenek eta "*joint venture*" esperientziek osatutako periferia kapitalista, alegia). Horrek zalantzak pizten ditu ekonomia sozialaren esparruan, zeinaren bereizgarrietako bat lurralde jakin batek, bere kabuz eta bere sustraietan oinarrituz, garatzeko duen gaitasun propioa baita.

- ***Enpresen elkarteak***: garrantzizkoak dira eskala-ekonomiak garatzeko eta arlo teknologikoan, esparru komertzialean, ikerketan eta garapenean (I+G) eta kudeaketan sinergiak koordinatzeko. Ildo horretan, lan-sozietateen-tzako erreferentzia esanguratsuak dira enpresen arteko lankidetza estrategi-koan burututako esperientziak, konkretuki lehenengo talde sektorialen eraketa: adibidez, galdaragintza- eta konponketa-jardueretan diharduten enpresen elkarteak (interes ekonomikoa duten talde gisa egituratuak).

  Auzi hau bestelakoa da MCCrentzat; azken batean, MCCren garapen logistikoaren oinarria enpresen elkarketan eta enpresen arteko lankidetzan datza. *Holding* berriak talde sektorialetan (produktu-merkatu identifikazioaren arabera osatuak) hartzen du oinarri, eskualde-taldeen kaltetan (hauen eraketan lurralde- eta gizarte-irizpideak hartzen ziren nagusiki aintzat).

  Honek guztiak ia esklusiboki merkatura zuzendutako estrategien arazoa jartzen du mahai gainean. Estrategia horiek, jakina denez, enpresa-irizpideak lehenesten dituzte, proiektuari identitatea ematen dioten elementu sozialak bigarren mailara baztertuz.

- ***Legeen moldatze eta egokitzea***: enpresen errealitate berezietara egokitutako legeria eta Lan Harremanen Marko Autonomoan txertatzeko legeria beharrezkoak dira. Izan ere, autonomia-erkidegoek kooperatiben gaineko eskuduntza funtzionala dute, eta estatu espainolak lan-sozietate anonimoen gaineko eskuduntza esklusiboa du. Estatu espainolak eskuduntza hori EAEri eta Nafarroari utziko balie, geure-geurea den ekonomia sozialaren

eremu boteretsua arautzea, bateratzea eta legez garatzea ahalbidetuko liguke.

- ***Malgutasuna***: teknologia berriek eta nazioarteko merkatuen fenomenoak malgutasunaren beharra azpimarratu dute, malgutasuna lehiakortasunaren giltzarri bihurtuz. Horrek biziki eragiten die osagaien ekoizpenean eta azpikontratuetan diharduten ekonomia sozialeko enpresei; lan-sozietate anonimoei eta elkarteratu gabeko kooperatibei ere modu berezian eragiten die, enpresa hauek produktu helduen ekoizpenean espezializaturik baitaude nagusiki, eta horrelako produktuen batez besteko bizitza nabarmenki laburtu baita.

  Hala ere, malgutasunaren erronkari ez zaio aurre egin behar lanaren eta langileen arloan soilik. Bestela esanda, ekonomia sozialeko enpresen funtzionamendua "enpresa global" modernoen funtzionamendura hurbilarazi behar da. "Enpresa global" modernoa diogunean, honako hau eman nahi dugu aditzera: arkitektura global bat, produktu egokia momentu aproposean ekoizten duena, enpresa-jarduera ezberdinak eta hornitzaileekiko eta bezeroekiko harremanak komunikazio-sistema berean bateratuz, den-dena noranzko anitzeko fluxuen multzo bateratu batean.

- ***Heziketa***: azken hamarkadetan gauzatu den iraultza mikroelektronikoak teknologia berriak sortu ditu, eta horiek jarduera ekonomikoetan baliatzeko, ezinbestekoa da enpresako hainbat alde birregokitzea, "kapital ukiezina" birbaliotu eta areagotzeko: lanaren antolaketa, motibazioa, komunikazioa, langileen kualifikazio edo gaitasuna eta, oro har, langileen ekimenarekin, sormenarekin eta berrikuntzak egiteko ahalmenarekin loturiko aldagai "ukiezinak". Bistan denez, heziketa autokudeatu sozialak funtsezkoa eta erabakigarria izan behar du heziketa teknikoa osatzeko eta sendotzeko.

  Horrela, autokudeaketaren kontzientzia eta gaitasun-maila goratzeak kapital ukiezin propioaren garapena dakar; eta hori da, etorkizunari begira, enpresentzako bermerik onena. Ildo horretan, aipagarriak dira gaur egun heziketa-moduluak, etengabeko heziketa eta parte-hartze tekniko-produktiboa bezalako ekimenak.

- ***Autokudeaketa***: enpresa modernoetako egitura parte-hartzaileek elikatu eta aberastu egiten dute enpresaren baitako heziketa eta kapital ukiezina. Era berean, ekonomia sozialeko enpresetan, egoera berriak sinergia eta potentzialtasun nabarmenak askatzen ditu parte-hartzea areagotzeko. Diseinu edo egitura parte-hartzaile horrek hainbat eremutan eragiten du.

  Lehenik, lanaren antolakuntzari eragiten dio, enpresen barruan etengabeko hobekuntzarako sistemak, lan-taldeak eta kalitate-ereduak abiarazten saiatzeko. Enpresa hauetan —non legearen aldetik langileak produkzio-bitartekoen jabe diren—, teknologia berrien eta kapital ukiezinaren areagotzeak

garrantzi eta esanahi berezia izan dezake. Hortaz, "aukera teknologikoa" eta "produkzio-eraginkortasuna" lanaren antolakuntza zientifikoaren ezarpenarekin bat ez badatoz, laneko demokraziarentzako eta autekudeaketarentzako bide berri eta zabalak irekitzen dira.

Bigarrenik, parte-hartze tekniko-produktibo honek informazio-komunikazioaren politika sakon baten ezarpena eskatzen du, langileen eta zuzendaritza-taldearen artean enpresako alde eta jarduera guztiei buruzko informazioa sakabana dadin. Auzi honek zuzen-zuzenean eragiten die MCCren kontzentrazio- eta nazioarteratze-prozesuei.

1993ko EAEko Kooperatiben Lege berria kontzentrazio- eta nazioarteratze-prozesu horientzako lege-marko egokia sortzen ahalegindu da, Batzar Orokorraren eskuduntzak murriztuz eta erabakiak goragoko mailetan kontzentratzea ahalbidetuz; horrela, organo zentralek erabaki gehien-gehienak baldintzatzen dituzte. Egoera horren aurrean, gure iritziz, beharrezkoak dira zenbait neurri sozial zuzentzaile, sistema osoaren hierarkizazio hazkor hori orekatzeko.

Hirugarrenik, autekudeaketaren proiektuan sakontzeak premia larri bat bistaratzen du berriz ere: hots, beharrezkoa da ekonomia sozialeko enpresetako langileen eta gizarteko gainerako langileen arteko lotura, harremana. Halatan, aintzat hartzekoa da sindikatuek lan-sozietateen barnean arazorik gabe funtzionatzeko aukera. Gure iritziz, gizarte kooperatiboetan auzi sozialei (gizartearen beharrei) lehentasuna ematen dien politikak nahitaez baimendu eta bideratu behar du aukera sindikal ezberdinen ezarpena.

BIBLIOGRAFIA

Agirre, N. *et al*. (2000): *Lankidetza. Arizmendiarrietaren eraldaketa proiektua*, LANKI Ikertegia, Mondragon Unibertsitatea.

ANEL (1987): *Entorno Socio-Económico de la Empresa Laboral,* Iruñea.

ANEL (1989): *Estudio de investigación sobre las empresas Laborales en Navarra. 1975-88,* Iruñea.

ANEL (2001): estatistikak. <www.asoc-anel.es>

ASLE (1993): *Programa, Normas y Estrategia,* Bilbo.

ASLE (1995): *La sociedad anónima laboral: Un modelo de empresa diferenciada,* Bilbo.

Bakaikoa, B. *et al*.(1995): *El cooperativismo vasco y el año 2000,* Marcial Pons, Madril.

Bakaikoa, B.; Errasti, A. eta Mendizabal, A. (1995): *Aproximación a la economía social en Euskal Herria. Presente y retos de futuro,* Ekonomiaz 33, Eusko Jaurlaritza.

CES (1999): Memoria, 1990.

Industria eta Teknologia Saila (Nafarroako Gobernua): *Estadísticas laborales (2001)*. <www.cfnavarra.es>

Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioa. *Memoria 1991,1992,1993 y 1994*, Gasteiz.

Iruretagoyena, J.; Grafulla, C.; Iruretagoyena, C. eta Bilbao, L. (1994): *Nuestras empresas de trabajo asociado, ante el futuro*, Gobierno Vasco, Gasteiz.

Mendizabal, J. A. (1990): *Las sociedades anónimas laborales en el contexto de la economía social,* Doktorego Tesien Saila, UPV/EHU, Bilbo.

Polanco, J. (1998): *La empresa cooperativa vasca,* Manu Robles Arangiz Institutua, Bilbo.

Thomas, H. eta Longan, Ch. (1991): *Mondragón, un análisis económico,* Ministerio de Trabajo y Seguridad Social, Madril.

Urdangarin, C. (1999): *Internacionalización de Mondragón Corporación Cooperativa (MCC),* Ekonomiaz 44, Gobierno Vasco.

11. Lan-merkatua eta gizarte-babesa

Garikoitz Otazua

11.1. LANA ETA ENPLEGUA

Lana zer den galdetzean, gizakien eta gizarteen iraupena bermatzera zuzendutako jarduera dela esan genezake. Jarduera hori bi aldagai nagusiren menpe dago: beharrizanen asetasun-mailaren menpe eta teknologia-garapenaren menpe. Era berean, bi aldagai horiek gizartearen bilakaera historikoarekin eta gizarte-harremanekin loturik daude.

Edozein gizartek, bere iraupena bermatzeko, beharrezkoa du gizabanakoen arteko lankidegoa, eta gizarteak lana banatzeko duen erarekin loturik dago lankidego hori. Hau da, gizabanako bakoitzak behar dituen ondasunen zati bat besterik ezin du sortu, eta, beraz, harremanetan jarri behar du beste jarduera batzuetan ari direnekin.

Lanaren banaketa ez da gauza tekniko hutsa eta ezin da aldagai politikoetatik banandu. Zer eta nola ekoitzi, gizartearen antolaketan parte hartzen duten gizarte-erakundeek erabakiko dute, gizarte-erakunde bakoitzak eragina egiteko duen ahalmenaren arabera. Era berean, gizarte-erakundeek finkatzen dituzte bai produktu soziala banatzeko era, bai lanaren banaketa-mota eta baita jarduera produktiboa kontrolatzeko eta koordinatzeko era ere.

Gaur egungo ekonomia kapitalistetan soldatapeko lana da nagusi, baina hori ez da berezko gauza, azken bi mendeetakoa baizik. Soldatapeko lana nagusi den ekonomia hori baliabide produktiboen banaketa konkretu baten eta gizarte-instituzio konkretuen menpekoa da.

Sarritan, gizarte kapitalista berdintasuna nagusi den egitura dela aipatzen da, gizaki guztiak aktibo (faktore) produktiboren baten jabe baitira. Gehienak lan-indarraren jabe dira, eta gutxi batzuk ekoizpen-baliabideen jabe. Lanarekin soilik edo ekoizpen-baliabideekin soilik ekoitzi ezin denez, elkarren beharrizana dute. Beharrizan horrek lana eta kapitala alokatzen diren merkatua eratzea dakar. Bi faktore horien konbinaketaren emaitzak sortu duen banaketa ere, merkatu honek zehazten du.

Beste batzuen kontura lan egin dezaten, gizabanakoak alokatzeko merkatua fase historiko bateko instituzio konkretu bat izateaz gain, nabarmen azaltzen da merkatu horretako bi aldeen arteko desoreka. Batetik, milioika gizaki bizibidea lortzeko lanpostu bila aritu behar dira, eta bestetik, ekoizpen-baliabideen jabeek, beren aberastasuna areagotzeko aukeren arabera erabakitzen dute enplegua eskaini ala ez eskaintzea.

Gizarte kapitalistetan, jarduera produktiboaren irizpide nagusia ez da gizartearen beharrizan orokorrak asetzea, kapitalista pribatuen errentagarritasun-helburuak asetzea baizik. Mozkina eta aberastasun-lorpena dira ekonomiaren motorra, gizarte-bizitza baldintzatuz, bereziki lan-bizitza.

Bestalde, lan-merkatuaren asimetriek —botere- eta informazio-asimetriek— desberdintasun eta ziurgabetasun izugarriak sortzen dituzte behartsuenengan. Gainera, alde bakoitzak (enpresariak eta langileek) bete beharreko arauak ere aldakorrak dira, eta eztabaidara edo interes kontrajarrietara irekita daude. Hori dela eta, lan-merkatuaren partaideak etengabe saiatzen dira jokalegeak aldatzen, bai lan-eremuko instituzio berezien bidez (langileen sindikatu eta erakunde patronalen bidez), bai botere publikoen laguntzaz.

Beraz, lan-merkatuaren jardunbidean hainbat instituziok du eragina. Batetik, botere publikoak aipatu ditugu, beharrezkoak baitira oinarrizko lan-baldintzak bermatzeko legedia eratu eta betearazteko. Bestetik, aurkezpen honek ezin du ahaztu ezen merkatu-sistemak ezin izan dituela ekoitzi birprodukzioa bermatzeko behar diren jarduera guztiak, oraingoz behintzat, eta merkatutik kanpo gelditzen diren jardueren euskarri nagusia familia izanik, merkatutik kanpoko lan horiek oraindik ere emakumeek jasan behar dituztela gehienbat.

11.2. LAN-ESKAINTZAREN ERAKETA

Lan-eskaintza osatzen duten gizabanakoak, lan egiteko prest egonik beren lan-indarra saltzeko prest daudenak dira. Lan-eskaintzaren kopuru eta ezaugarriak —maila handi batean— lan-merkatutik kanpo dauden gertakizunen menpe daude; esaterako, aldagai demografikoen menpe (jaiotzak, heriotza-tasa, bizi-itxaropena edo migrazioak).

Populazio-hazkundea populazio aktiboaren hazkundearekin identifikatzen den arren, lotura hori ez da automatikoa. Populazio aktiboaren eraketan beste aldagai askok du eragina: merkataritza-lanaren eta birprodukzio-lanaren arteko banaketak, heziketa- eta erretiro-sistemek, lanegunek, langabezia-politikek, eta abarrek.

Lan-eskaintzaren azterketari hasiera emateko, Hego Euskal Herriko joera demografikoak aipatuko ditugu. Ondoren lan-merkatuaren eta birprodukzio-lanaren arteko harremanak aztertuko ditugu, bereziki emakumeengan duten eragina azpimarratuz, eta bukatzeko, migrazioei buruzko zenbait aipamen egingo ditugu.

11.2.1. Faktore demografikoak

Atal honetan agertzen diren datuetarako iturriak, Euskal Estatistika erakundeak (EUSTATek) argitaratutako Euskal Autonomia Erkidegoko ikuspegi sozialari buruzko txostena eta Nafarroako estatistika-institutuaren estatistika demografikoak izan dira.

Hasteko, aipatzekoa da, Euskal Herriaren demografia-eredua Bizkaiak eta Gipuzkoak izandako joerek zehazten dutela. Horrela, aipaturiko bi lurralde horietan bezala, Hego Euskal Herriko biztanleria XX. mendearen hasieratik hona 3,5 aldiz biderkatu da eta garapenik indartsuena 50eko eta 60ko hamarkadetan gertatu zen. Araba eta Nafarroaren kasuetan hazkundea hamarkada bat gehiago luzatu zen, nahiz eta aurreko urteetan izandako hazkunde bizia ez agertu.

Azken urteetako bilakaerari buruz, hazkunde-joera 80ko hamarkadan apurtu izana da aipagarriena. Hego Euskal Herriak, oro har, 30 mila biztanle galdu ditu 80ko hamarkadaren hasieratik hona. Biztanleriaren maximoa 1983an izan zen. Araban eta Nafarroan biztanleriak gora egiten dirau (gero eta motelago) eta biztanleriaren hazkunde horrek 90eko hamarkadaren erdialdean jo zuen maximoa.

Mende bukaeran beherapen-erritmoa motelduz joan da eta XXI. mendeari ia zeroko hazkundearekin eman zaio hasiera.

Populazioaren egiturari dagokionez, esanguratsuena da, azken 20 urteetan 65 urtetik gorakoen hasierako kopurua ia bikoiztu izana, 19tik beherakoena ia erdira murriztu den bitartean. Bilakaera honen ondorioz, gaur egun, nagusienek zein gazteenek biztanlerian duten pisua parekoa da (%17). Baina horrek ez du esan nahi Hego Euskal Herriko biztanleria bereziki zaharkitua denik, Europako Batasuneko biztanlerian ere 65 urtetik gorakoek pisu bera baitute.

Europako Batasunarekin konparaketa egitean, alderik nabarmenena gazteetan eta helduetan datza. Europako Batasunean 19 urtetik beherakoek biztanlerian duten pisua Hego Euskal Herrikoek dutena baino handiagoa da (%20, batez beste) eta ondorioz, 20tik 64 urte dituztenena txikiagoa da.

Beraz, Hego Euskal Herriko biztanleria, zaharkitua baino gehiago, heldua dela esan genezake.

Ildo horretatik jarraituz, lan-merkatuan sartzen doazen gizabanakoen (aktiboen) eta irtetea (erretiroa hartzea) dagokienen arteko harremanek, lan-merkatuaren gaineko presioa arindu egingo dela adierazten dute. Gaur egun, gutxi gorabehera, sarrera bakoitzari irteera bat dagokio eta gerora, irtetea tokatzen zaienen kopurua sartzea tokatzen zaienena baino handiagoa izango dela aurrikus daiteke.

Bukatzeko, ugalkortasunari eta bizi-itxaropenari buruz zenbait aipamen egingo ditugu. Bizi-itxaropenari dagokionez, gaur egun gizonezkoek 74,2 urteko

bizi-itxaropena dute eta Europako Batasuneko herrialdeen sailkapenean erdigoialdean kokatzen dira. Aldiz, 82,4 urterekin, emakumezkoak lehen tokian daude.

Bestalde, herrialde garatu gehienen aldean, Hego Euskal Herriak ere ugalkortasun altua izatetik ugalkortasun baxua izatera doan urratsa bete du. Urrats hori beranduxeago eman du, baina aldaketa sakona izan da. Hain zuzen, 1985etik aurrera Hego Euskal Herria ugalkortasun apalena duten herrialdeen buruan kokatu da, nahiz eta azken urteetan ugalkortasunaren jaitsiera gelditu egin den. Gerora begira, ugalkortasunaren hazkundea espero da Europako Batasuneko herrialde guztietarako, eta Hego Euskal Herriaren kasuan, 2010. urterako 1985eko tasa berreskuratzea espero da (1,25 seme-alaba emakumeko). Hala eta guztiz ere, Europako herrialde gehienetan espero den tasa baino apalagoa da hori.

Gauzak horrela, bilakaera demografikoak langabeziaren arazoa leuntzea ekar dezakeela badirudi ere, inola ezin daiteke pentsa lan-merkatuaren kantitate- eta kalitate-arazoak bilakaera demografikoaren eskutik etor daitezkeenik.

11.2.2. Jarduera eta generoa

Lan-eskaintzari dagokionez, kontuan hartu behar da emakumeek lan-merkatuan duten partaidetzak izandako eraldaketa. Hego Euskal Herrian, Europako Batasuneko herrialde guztietan bezala, oraindik ere gizonezkoen partaidetza emakumeena baino handiagoa da lan-merkatuan, nahiz eta, emakumeen eta gizonezkoen partaidetzaren berdintze-joera somatzen den. Dena den, denbora partzialeko enplegu gehienak emakumeek dauzkatenez, berdintasun-joera hori puztua ager daiteke eta ezberdintasunez betea.

Espainiako Estatistika-Institutu Nazionalak (INEk) argitaratzen duen Populazio-Aktiboaren Inkestaren (PAI edo EPA) barnean, 16 urte eta gehiagoko biztanleriaren aktibotasun-tasa sexuaren eta adinaren arabera aztertzean, gizonezkoen eta emakumeen partaidetzak alde nabarmenak dituztela ikus daiteke. Oro har, bai gizonezkoen zein emakumeen kasuan, gazteenen eta nagusienen partaidetza, denboran zehar, jaisten joan da. Gazteen kasuan, heziketa-sisteman izandako aldaketengatik eta enplegua aurkitzeko zailtasunek ikasketak egiten luzatzera bultzatzeagatik. Nagusienen kasuan, aurre-erretiroen gorakadan enpresen berregituraketek izan duten eragina da aipatzekoa, eta baita nagusiak ez kontratatzeko ohitura ere.

Lan-merkatura sartzea arian-arian haziz doa 25 urtera arte. Ondoren, gizonezkoen partaidetza maila altuan mantentzen da, 50 urte ingurura arte, eta hortik aurrera jaisten doa apurka-apurka. Emakumeen artean, ohikoa izan da lan-merkatuan sartzean gizonezkoek baino partaidetza txikiagoa izatea 25 urtera arte, eta, bereziki, gizonezkoek baino lehenago lan-merkatua uzten joatea (30 urtetik gora). Azken urteotako joerak adin ezberdinetako gizonezkoen eta emakumeen jokabidea parekatzen doala adierazten du, gazteen jokabidea oso antzekoa izanik, eta adineko emakumeak lan-merkatuan luzaroago mantenduz. Dena den, gizonez-

koen eta emakumeen arteko aldeak oraindik ere nabarmenak dira; aukera pertsonalen bidez azaldu ezin diren aldeak dira, gainera.

Gaur egun, argi dago etxeko lan gehienak emakumeek egiten dituztela. Banaketa hori emakumeak gizonarekiko izan duen menpekotasunarekin loturik dago, eta, ondorioz, generoen arteko lan-banaketa horrek eremu askotan du bere eragina. Batetik, emakumeen lanegun osoa (ordaindutako lana eta ordaindu gabekoa) gizonezkoena baino luzeagoa izatea dakar, sarri oporrik gabekoa. Bestetik, lan-merkatuan parte hartzean, nabarmena da bereizkeria, emakumeek sarritan soldata apalagoak dituztelako, eta emakumeen enpleguek onarpen sozial baxuagoa dutelako.

Generoen arteko banaketa ez da berezko gauza, historian zehar gizonezkoek emakumeen gain luzaroan gauzatutako botere eta menderaketaren ondorio baizik; beraz, eraldaketekin lotuta dago. Gainera, eginkizunen banaketa hierarkikoa instituzio askoren bidez eratzen joan da (familia bera, estatua, erlijio-instituzioak, komunikabideak...). Eta azkenik, lan-merkatuak gizonezkoen eta emakumeen jokabideak moldatzen dituzten gainerako instituzioekiko duen elkarreragina kontuan izanik, lan-merkatuak desberdintasunak indartu ditu, bai kontrolaren bidez eta bai soldata-bereizkeriaren bidez ere.

Beraz, gizonezkoak eta emakumeak gizarteratze-prozesu ezberdinen bidez heltzen dira lan-merkatura, eta, ondorioz, lan birproduktiboarekiko harreman ezberdinak dituzte, bai kantitateari dagokionez, eta baita larrialdiei erantzuterakoan ere. Normalean, merkatu-lana lan birproduktiboarekin gurutzatzen denean (esaterako, senitartekoren baten gaixotasunagatik), emakumea da lan birproduktiboari aurre egin behar diona.

Gauzak horrela, gizonezkoen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko osagarri diren soldatapeko lanaren eremua eta etxeko lanaren (edo lan birproduktiboaren) eremua, biak batera hartu behar dira kontuan.

Emakumeek lan-merkatuan duten partaidetzaren ezaugarriak azaltzeko, teoria ezberdinak daude. Hemen hiru ikusmolde orokor aipatuko ditugu: erreserba-soldatarena, segmentazioarena eta ordezkapenarena. Kasu guztietan emakumeek gizartean duten gutxiagotasuna eta menpekotasuna da abiapuntua.

Erreserba-soldataren teoriaren arabera, emakumeek soldatapeko enpleguarekiko behin-behineko harremana dute, egonkortasunik gabekoa eta une ekonomikoari lotua. Egoera ekonomikoak enplegu gehiago eskatzen duenean, emakumeak lan-merkatuan sartuko lirateke, eta gainbehera-uneetan irten. Egoera marjinal horrek, enpresariek emakumeez erraz baliatzea lekarke, eta bereziki gainbehera-uneetan, emakumeak, jarkiera handirik gabe, lanetik egoztea lekarke.

Segmentazioaren teoriak, aldiz, emakumeek lan-merkatuarekin lotura egonkorra dutela onartzen du, ez une ekonomikoari lotua. Usadio eta ohiturak lirateke emakumeen eta gizonezkoen arteko enplegu-banaketaren eragile, emakumeak zer-

bitzu-sektoreko enpleguak betetzera bultzatuz gehienbat (administraritza, heziketa, zerbitzu pertsonalak...) edo industriako zenbait enplegu (oihalgintza...). Gainera, lanpostuen eskalan emakumeek maila apaleko enpleguak izango lituzkete, bai kualifikaziorik gabeko enpleguetan, bai enplegu kualifikatuetan ere. Enpresa zein administrazio publikoan dauden emakumezko zuzendarien eta exekutiboen kopuru apalak argi adierazten du hierarkia altuetara heltzeko eta bertan mantentzeko dauden zailtasunak (kristalezko sabaia).

Bestalde, ordezkatze-teoriaren arabera, menpekotasun-egoerak emakumeek gizonezkoek baino soldata apalagoa onartzea dakar, eta, horren ondorioz, enpleguak hornitzeko orduan gizonezkoen ordez emakumeak erabiltzen dira. Gainera, hasiera batean gizonezkoek betetzen zituzten enpleguetan emakumeek tokia hartzean, sarri askotan, lan-baldintzek txarrera egiten dute.

Azkenik, batetik emakumeen lanegun bikoitzak (lanpostuan eta etxean) eta bestetik gizartearen jokabide sexistek emakumeen gain dituzten eraginei, denbora partzialeko enpleguen ugalketak sortutako eraginak gehitu behar zaizkie.

Denbora partzialeko enplegu gehienak (%80 inguru) emakumeek betetzen dituzte, eta, normalean, denbora partzialeko enplegua izatea enpresen interesei loturik dago eta ez langilearen beharrizan edo borondateari. Ondorioz, denbora partzialetik denbora osoko enplegura pasatzeko aukerak oso mugatuak dira. Gainera, gehienetan, denbora partzialekoak soldata apaleko enpleguak izaten dira, eta ordutegi txarrekoak. Beraz, zertzelada horiek guztiek lanean gora egitea eta gizarte-sustapena mugatzen dituzte, generoen arteko banaketa errotuz eta sakonduz.

11.2.3. Migrazioak

Migrazioek gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari dira lan-eskaintzaren eraketan. Langileen mugikortasuna edo etorkinek jasan beharreko eragozpenak gaurkotasuna duten gaiak dira.

Hemen aztertuko ditugun migrazioak zergati ekonomikoengatik sortzen direnak dira, hondamendien edo arazo politikoen ondorioz sortutakoak alde batera utziz. Horretarako, batetik, Nafarroako Estatistika-Institutuaren zein EUSTATen migrazio-mugimenduen estatistikak erabili ditugu, eta bestetik, EUSTATek kanpo-migrazioei buruz argitaratutako txostena.

Historikoki, migraziorik garrantzitsuenak “herritik hirira” eredua bete dutenak izan dira, industrializatze-bilakaerari loturik Hego Euskal Herrian 60ko hamarkadan (eta hirurogeita hamargarreneko urteen erdialdera arte) garrantzi handia izan zutenak.

Bestalde, badira baita hirien arteko migrazioak ere. Migrazio hauen helburua lanpostu hobea edo enplegua bera lortzeko asmoa da. Hego Euskal Herriari dagokionez, oraingoz, “hiritik hirira” ereduko migrazioek eragin txikia dute. Horrek

hirien arteko migrazioek kostu handiak dituztela adierazten du. Garraioak eta etxe--aldaketak dakartzaten ohiko kostuez gain, senitarteko gorabeherei eta gizarte--harremanei loturik dauden kostuak ere garrantzitsuak dira.

Hirien arteko migraziorik gehienak enpresa handien baitan gertatzen diren lekualdaketekin daude loturik, hain zuzen ere, azken hamarkadetan sare produktiboaren berregituraketaren ondorioz ugaritu diren lekualdaketekin.

Aipatu bezala, 1975. urtetik aurrera Hego Euskal Herriko migrazio-fluxuak errotik aldatu ziren eta herrialde hartzaile izatetik —gehienbat, estatu espainiarreko gainerako probintzietatik zetorren emigrazioaren helburu izatetik— lurralde emigratzailea bihurtu da, oro har. Lehen unean, laurogeiko lehen urteak arte, Gipuzkoa izan zen lurralde kaltetuena, eta gero Bizkaiak hartu du bere tokia. Nafarroak, aldiz, joera positiboena izan du, gehienbat laurogeita hamarreko urteetan. Arabak, azkenik, saldo positiboak zein negatiboak izan ditu, betiere zero baliotik hurbileko balioetan.

Azken urteetan, bai Hego Euskal Herriko barruko lurraldeen arteko mugikortasunaren erritmoa, bai Hego Euskal Herritik kanpokoaren erritmoa, biak nahiko egonkorrak dira eta migrazio-saldoa zero baliotik hurbil dago.

Migrazioen barnean —eta gaiaren gaurkotasuna dela medio—, herrialde txiroetatik aberatsetara gertatzen den nazioarteko migrazioa bereiziko dugu. Migrazio-mota hori eta "herritik hirira" eredukoa oso antzekoak dira. Kasu guztietan bezala, migrazio horrek kostu eta alde onak ditu, bai hartzaileentzat, bai emaile diren herrialdeentzat. Baina, nahiz eta emaile diren herrialdeentzat dibisa-sarrera ekarri, abantailarik handiena hartzaile diren herrialdeek ateratzen dute, bertakoek nahi ez dituzten lanak egiteko prest dagoen laneskua lortzen baitute.

Nahiz eta datu zehatzik ez egon, inguruko herrialdeekin konparatuz, Hego Euskal Herrian migrazio horren kopurua apalagoa izateak prozesuaren lehen faseetan gaudela adierazten du. Zentzu honetan, kontuan hartzekoa da migrazio honek eredu oso finkoa zaintzen duela, eta herrialdeen artean zein aktibitate konkretuen artean gertatzen den migrazioa dela (esaterako, emakume filipinarrak neskame lanetarako edo Marokoko gizonezkoak eraikuntza-lanetarako...). Hortaz, 2000. urtetik aurrera Espainiako erresumak zenbait herrialderekin sinatu dituen laneskuari buruzko hitzarmenei jarraipena egin beharko zaie, lanesku-fluxuen araupeketak gizarte-eskubideak eta lan-eskubideak errespetaraztea dakarren edo etorrera oztopatzea besterik ez dakarren egiaztatzeko.

Bestalde, etorkin heldu berriek aldi baterako etorkinen jarrera izaten dute, eta laster beren herrialdera itzultzeko jarrera. Ondorioz, lehenbailehen dirua lortzeko asmoz, lan gogorrak eta bizi-baldintza txarrak onartzen dituzte. Jokamolde horrek etorkinaren etorkizuna baldintza dezake, iguripen edo amets horiek arin batean itzaltzen baitira, eta behin betiko bertakotzea ez baita bide samurra. Gainera, etor-

kinei buruzko arautegiak ere etorkinen jardueretako lan-baldintzak eta soldata--maila baldintzatzen ditu, eta hedapenez, gizartearen lan-baldintzen lerma ekar lezake. Hortaz, migrazio-arautegien helburu nagusiak etorkinen gizarte-eskubideen berme eta benetako lagunkidetasuna izan behar du. Hego Euskal Herriak eremu horretan duen eskumen-gabezia kontuan izanik, gizarte-zerbitzuen eremuan dauden eskumenak erabili behar dira integrazioa eta benetako berdintasuna hedatzeko, eta, ahal den neurrian, laguntza-zerbitzuen banakotasuna gainditu ekintzak unibertsal bihurtzeko (herritartasun-eskubideekin lotuz).

11.3. LAN-MERKATUKO ZENBAIT DATU: ENPLEGUA ETA LANGABEZIA

Bi dira lan-eremuko analisietan erabilienak diren iturri estatistikoak. Batetik, inkesten bidez lortutako datuetan oinarrituz, Estatistika Institutu espezializatuek aurkezten dituztenak, eta bestetik, enplegu-bulegoetan (INEMen) izena eman dutenak kontuan hartzen dituzten datuak (langabezia erregistratua). Datu-iturri horien mugak eta metodologia-berrikusketak alde batera utziz, lehen iturria erabiltzeak abantaila gehiago ditu, gehienbat Europako Batasuneko herrialdeekin konparaketak egiterako. Beraz, lehenengo iturriari jarraituz, testu honetan agertzen diren datu-iturriak hiru hauek dira: Europako Batasuneko Estatistika institutuak (EUROSTATek) eratzen duen *Labour Force Survey* (LFS); Espainiako Estatistika-Institutu Nazionalak (INEk) argitaratzen duen *Populazio-Aktiboaren Inkesta* (EPA) eta EUSTATen *Biztanleria Jardueraren Arabera* sailkatzeko inkesta (BJA). Populazioak jarduera ekonomikoarekiko duen harremana kontuan hartuz, datu-iturri hauek zenbait kategoriatan sailkatzen dute biztanleria (populazio aktiboa, ez-aktiboa, okupatuak, langabetuak...). Sailkapen hau 259. orrialdeko koadroan laburbildu da.

Lan-merkatuaren bilakaera aldaketa demografiko, sozial eta ekonomikoen menpe dago, eta gizarte industrial aurreratu guztiek aldaketa sakonak izan dituzte aipatutako eremuetan, nahiz erritmo eta une ezberdinetan jasan dituzten.

Hego Euskal Herriko kasuan, eraldaketa hirurogeita hamarreko urteetako krisiaren eskutik etorri zen. Eraldaketa horrek eragin traumatikoa izan du lan-merkatuan, eta horrek gaur egungo arazorik larriena langabezia masiboa izatea ekarri du.

Enpleguaren sorrerari buruzko aurrikuspen baikorrenek ere ez dute adierazten ekonomiaren hazkundea gauza izan daitekeenik Hego Euskal Herriko langabezia--arazoak konpontzeko. Beraz, langabeziari aurre egiteko ekintzek eta kalitatezko enplegua sortzeko ekintzek lehentasuna izango dute hurrengo urteetan.

Langabeziaren arazoa egiturazko arazoa dela azpimarratu arren, lan-merkatuaren gorabeherak ekonomiak orokorki izan dituen faseei loturik egon dira. Honela, 1975etik 1985era bitartean enplegu-galera izugarria izan zen. 1985etik 1990era, hazkunde ekonomikoaren eskutik, enplegu-sorrera berreskuratu zen, baina hala eta guztiz ere, langabeziak tasa altuetan iraun duela azpimarratu behar da, Europako Batasuneko tasak bikoiztuz hain zuzen.

Laurogeita hamarreko lehen urteetako gainbehera labur baina sakonak areagotu egin zituen arazoak, eta 1995etik aurrera, berriz ere hazkunde ekonomikoarekin loturik, enplegu-sorrera berreskuratu da, baina 2000. urtearen erdi aldetik aurrera, hazkunde ekonomikoa moteltzearekin batera, enplegu-sorreraren dinamikotasuna moteldu egin da.

Populazioak aktibitatearekiko harremana



Enplegu-sorrerari dagokionez, 1985etik hona, oro har, sortu diren enpleguak galdu direnak baino gehiago izan dira. Beraz, langabezia-kopuru handien iraupenak zerikusi handia du populazio aktiboaren bilakaerarekin, hau da, aurretik populazio ez-aktiboak ziren taldeak lan-merkatura hurbiltzearekin.

11.1. irudia: Aktibotasun-tasak Europako Batasunean eta Hego Euskal Herrian



Iturriak: Eurostat: Lan-indarren inkesta 2000; INE: Populazio Aktiboaren Inkesta; Eustat: Biztanleria Jardueraren Arabera Sailkatzeko Inkesta.

Zentzu horretan (ikus 11.1. irudia), 2000. urtean, Hego Euskal Herriko aktibitate-tasa %53 inguruan dabil eta Europako Batasuneko batez bestekoa baino txikiagoa da (%56). Gizonezkoen aktibitate-tasa Europako Batasunaren parekoa da (%66), baina emakumeena txikiagoa (%46,5 Europako Batasunean eta %40 Hego Euskal Herrian). Beraz, ondoko urteetan Hego Euskal Herriko populazio aktiboaren hazkundea espero daiteke, eta, bereziki, emakumeen populazio aktiboaren gorakada. Azpimarratzekoa da, halaber, emakumeen langabezia-tasak (%20) bikoiztu egiten duela oraindik ere gizonezkoena.

Gauzak horrela, enplegua sortu arren, enplegu nahikorik ez sortzean datza gakoa; eta bilakaera demografikoa aldagai garrantzitsua izan arren, inola ere ezin daiteke pentsa lan-merkatuaren kantitate- eta kalitate-arazoak bilakaera demografikoen eskutik konpon daitezkeenik.

Aktibitate-, okupatu- eta langabezia-tasek lurraldeka ere badituzte berezitasunak. Hala, 1994tik honako hazkunde ekonomikoaren garaian, aktibitate-tasak gora egin du herrialde guztietan, Bizkaian izan ezik (%51,2 inguruan egonkor egon da). Hazkunderik handiena Nafarroan (%48tik %51ra) eta Araban (%56,6tik %58,7ra) izan da, eta apalagoa Gipuzkoan (%53tik %54ra).

Okupazioak 2000. urtean jo zuen maximoa —jarduera ekonomiko orokorrak bezala—, 1.041.000 okupatura helduz. Horietatik %40 Bizkaian daude, %27 Gipuzkoan, %21 Nafarroan eta %12 Araban. 1994tik hona lurralde guztietan okupazioa hazi den arren, Nafarroan (%2,5 batez beste) eta Araban (%2,3) hazi da gehien.

Okupazioaren hazkundearekin batera, 1994tik 2000ra langabetuen kopurua ere jaitsi da, nahiz eta, aipatu bezala, jaitsieraren abiadura gero eta motelagoa izan den. Langabezia-tasa Gipuzkoan jaitsi da gehien (%23,8tik %9,5era), baina herrialde guztietan nabaritu da hobekuntza (Nafarroan %14,7tik %6ra, Araban %10,4tik %11,6ra eta Bizkaian %26,5etik %17ra). Gainera, 1994tik hona Bizkaia eta gainerako lurraldeen arteko aldea gero eta handiagoa dela ere aipatu behar da.

Langabeek enplegurik gabe zenbat denbora egiten duten aztertzean, aipatzekoa da, batetik, 90eko hamarkadan lehenengo enplegua bilatu dutenek izan duten jaitsiera, langabeen guztikoaren %25 izatetik %19ra jaitsi baitira (hala eta guztiz ere, oraindik gazteen langabezia-tasa %30ekoa da). Beste alde batetik, langabe gehienak epe luzekoak (urte bi edo gehiago langabezian daramatenak) direla jakinik, aipatzekoa da epe luzeko langabeen garrantzia ez dela aldatu (langabeen guztikoaren %37 izaten irauten dute).

Europako Batasunarekin konparatuz (ikus 11.2. irudia), alderik nabarmenenak emakumeen eta gazteen langabezia-tasetan ikus daitezke. Emakumeen kasuan, Hego Euskal Herriko langabezia-tasa (%20) Europako Batasuneko batez bestekoaren ia bikoitza da (%11). Gazteen langabezia-tasan ere aldea nabarmena dago, Hego Euskal Herriko gazteen langabezia-tasa %30koa baita eta Europako Batasunakoa %18koa.

11.2. irudia. Langabezia-tasak Europako Batasunean eta Hego Euskal Herrian.



Iturriak: Eurostat: Lan-indarren inkesta 2000; INE: Populazio Aktiboaren Inkesta; Eustat: Biztanleria Jardueraren Arabera Sailkatzeko Inkesta.

Enpleguaren eremuan zer gertatzen ari den ulertzeko, ez da nahikoa enpleguen sorreraren kantitateak kontuan hartzea. Ezin dira enpleguen kalitatearen aldaketak alde batera utzi.

80ko eta 90eko hamarkadetako lan-merkatuaren bilakaera lan-merkatuaren malgutasuna helburu duten erreforma sakonekin dago loturik, eta erreforma horien eskutik, langabeziaz gain enpleguen behin-behinekotasuna ere gizarte-arazo larria bihurtu da.

Arazorik larrienetarikoa 80ko hamarkadatik hona izan den epe mugatuko kontratuen gehiegizko hedapena da; ondorioz, mugarik gabeko kontratua edukitzeak ematen duen egonkortasuna gero eta gizabanako gutxiagok du.

Hego Euskal Herrian, 1993an mugarik gabeko kontratua zutenak, alokatuen guztizkoaren aldean, %70etik gora ziren bitartean, 2000. urtean %66 ziren. Gainera, gaur egun Hego Euskal Herrian mugarik gabeko kontratua dutenen proportzioa Europako Batasunekoa baino askoz txikiagoa da (%86,8), Europako Batasuneko estatu guztiek %80tik gorako ehunekoa dutelarik, Espainiak izan ezik (%67,3).

Kontratu-moten banaketa ere ez da berdina alokatu-talde guztietan. Kontratu finkoen ehunekorik altuena 45 urte edo gehiagokoen artean gertatzen da (alokatuen guztizkoaren aldean ia %90). Beste muturrean alokatu gazteen taldea dago, mugagabeko kontratua alokatu gazteen %25ek soil-soilik dutelarik. Bestalde, gizonezkoen eta emakumeen arteko aldeak ere nabarmenak dira. Mugagabeko kontratua duten gizonezkoak %70etik gora diren bitartean, emakumezkoen proportzioa ez da %60ra heltzen.

Beraz, ongizate-falta izateko arriskuan gero eta gizabanako gehiago daudela ikusteaz gain, arriskurik handiena gazteek eta emakumeek dutela azpimarratu behar da.

11.4. LAN-ESKARIA

Lan-eskaria enpresek egiten dute, eta eskariaren aldetik ere, lan-merkatua merkatu berezia da. Ondasun eta zerbitzuak gizakien beharrizanak asetzeko eskatzen diren bitartean, enpresek ez dute kontratatzen gizartearen beharrizanak asetzeko, mozkinak ateratzeko baizik. Enpresek bilakaera produktiboa aurrera eraman ahal izateko kontratatzen dute lan-indarra, beharrezkoa delako.

Eroslearen (enpresen) ikuspuntutik lan-indarra kostu bat besterik ez da, mozkinak lortzeko ordaindu behar den kostua, hain zuzen. Lan-kostuen barneko osagairik nagusiena soldata gordinak diren arren, enpresek Gizarte-Segurantzari egin behar dizkioten ordainketak eta gero eta garrantzitsuagoak diren soldataz aparteko ordainketak ere (espezie-ordainketak edo erretiro-osagarrietarako ekarpenak) hartzen dira kontuan.

Zentzu horretan, aipatzekoa da Hego Euskal Herriko lan-kostuak apalagoak direla Europako Batasunekoekin konparatuz. Konkretuki, Hego Euskal Herrian lan-kostuak Europako Batasuneko batez bestekoa baino %15 baxuagoak dira.

Baina, aipatu bezala, lan-indarra oinarrizko elementua da enpresek behar duten produkzioa aurrera eramateko orduan. Lanaren ekarpena zenbat eta handiagoa izan, enpresek (produkzioa areagotzearen bidez) mozkinak lortzeko aukera handiagoa dute. Horregatik, lan-indarrak mozkinen gain duen eragina aztertzeko orduan, ordainketez (kostuez) gain lan-indarraren ekarpena ere hartu behar da kontuan.

Ikuspegi hori Unitateko Lan-Kostuek (ULK) ematen digute. ULK direlakoek, lan-kostuek (LK) ondasunen eta zerbitzuen produkzioan (ekonomia osorako, BPGean) duten pisua adierazten dute, hau da, (ULK = LK/BPG). Eta era berean, ULKek buru bakoitzeko lan-kostuen (LKb) eta ekoizkortasunaren (BPG/Okupatuak) arteko harremanak adierazten dituzte:

ULK = LK/BPG = LKb · Okupatuak/BPG = LKb/ekoizkortasuna.

ULKak zenbat eta apalagoak izan —hau da, lan-kostuek produkzioan zenbat eta garrantzi txikiagoa izan—, mozkinak areagotu egingo dira (gainerako kostuak finko mantenduz).

Zentzu honetan eta Estatistika-Institutu Nazionalak (INEk) 2001ean argitaratutako Espainiako Lurralde-Kontabilitatean oinarrituz, Hego Euskal Herrian, azken hazkunde garaian, langile gehiago kontratatzeak mozkinak murrizterik ez duela ekarri ikus daiteke, eta ULKek apur bat behera ere egin dutela, zeren, 1996an ULKak %63,2 ziren bitartean, 1999an %63 baitira. Joera hori bat dator azken urteetan izandako lan-kostuen moderazioarekin eta ekoizkortasunaren etengabeko hazkundearekin.

ULKak baliagarriak dira lehen mailako errenta-banaketa aztertzeko ere. Soldatadunen ordainketen gorabeherek eragin handia dute gizabanakoen errenta era-

bilgarria finkatzeko orduan (eta kontsumo- eta aurrezki-erabakiak hartzeko orduan), eta soldatadunen ordainketen bilakaera horrek aurrera eraman den politika ekonomikoarekin loturik dago, konpetitibitate-hazkundea gehienbat lan-kostuen moderazioaren bidez bilatzearekin loturik, alegia.

Soldata-ordainketek (SO) ekonomiaren aberastasun-sorreran (BPGean) duten garrantzia (SO/BPG) lotuta dago Unitateko Lan-Kostuekin eta soldatadunen tasarekin, hau da, soldatadunek okupatu guztien aldean duten pisuarekin (ST = SK/OK):

SK = soldatadun kopurua izanik; OK = okupatu kopurua izanik eta soldatadunen burubakoitzeko lan-kostua (LKb) langileen lan-kostuen adierazgarri izanik, honako hau idatz dezakegu:

$$SO/BPG = LKb \cdot SK / BPG = (LKb \cdot OK/BPG) \cdot (SK/OK) = ULK \cdot ST$$

Hego Euskal Herriko kasuan, 1995etik honako hazkunde-garaian, soldata-ordainketek ekonomiak sortutako aberastasunetik (BPGetik) gero eta zati handiagoa hartu dute (1996an %52,41 eta 1999an %53,23); baina ULKek behera egin dutenez, aipatutako hazkundeak kantitatezko aldagaiekin du zerikusia. Azken urteotan soldata ordainketek BPGean duten pisuaren zergatia, jakina, sortu den enplegua gehienbat soldatapeko enplegua izan delako da, hau da, soldatadunen tasa hazi egin delako (%82,9 tik %84,49ra) (ikus 11. taula).

11.1. taula. Aberastasunen sarreraren (BPGfk) eta soldatadunen ordainketen arteko harremana (ehunekotan)

	1996	1997	1998	1999
Soldata ordainketak/BPGfk	52,41	52,57	52,97	53,23
Unitateko Lan-Kostuak	63,18	62,65	62,77	63,00
Soldatadunen Tasa	82,96	83,91	84,39	84,49

Iturria: INE, Espainako Lurralde-Kontabilitatea 2001, eta norberak eratuta.

Bestalde, soldatadunen tasaren bilakaerak badu zerikusia enpresek beren aktibitateak kanporatzearekin edo azpikontratatzearekin. Krisi-garaian, enpresek beren langileak enpresatik kanpo birkokatzeari ekin zioten. Langileak lehenago enpresa barruan egiten zuen jarduera bera egiten jarraitu zuen, baina enpresaren eta langilearen arteko harremana aldatuz, autonomo bihurtuz (eta horrela soldata-kostuak eta trebakuntza-kostuak murriztuz). Badirudi, hazkunde-garaian joera hori irauli egin dela, eta "autonomo" bihurtu ziren zenbait langile soldatapeko egoerara itzuli direla.

Beraz, enpresentzat, lan-indarraren kontratazioa elementu aldakor bihurtzen ari da, eta kontratu-mota ezberdinen erabilpena —ingurune ekonomikoaren eraldaketei aurre egiteko orduan— enpresa bakoitzak aukeratzen duen lehiakortasun-estrategiei loturik dago. Enpresek, epe ertain eta epe luzeko estrategietan, lan-indarra aktibo modura hartzen badute —murriztu beharreko kostutzat hartu beha-

rrean—, eta lanaren sustapena zein langileen trebakuntza bermatzea edo langileak enpresen egitasmoetara ekartzea elementu garrantzitsu bihurtzen dira. Hortaz, lana inbertsioa eskatzen duen aktibotzat hartzeak langileen eta enpresaren arteko harremanak iraunkorrak izatea eskatzen du.

11.5. LAN-HARREMANEN SISTEMA

"Lan-harremanak" delako terminoa zuzenbide-terminoa da, eta ekonomia-arloan erabili dugun "lan-merkatua" terminoaren parekoa da. Bi termino horiek ikuspegi ezberdine-tatik azaltzen saiatzen dira lan-eremuko errealitate konplexu bera. Lan--harremanen konplexutasunaren muina langileak alokatzen duena aurretiaz zehaztua ez egotean datza. Bere lan-indarra alokatzean, langileak badaki zenbat irabaziko duen, baina errenta hori irabazteko zer egin beharko duen ez (zehazki behintzat). Enpresariak, bestalde, gizalegez lor daitekeen guztia erdietsi nahi izango du; baina gizalegez eska daitekeena definitzea eta arautzea ez da erraza.

Interes ezberdinak bateratzeko orduan, batzuentzat botere publikoek eta legediak funtsezko rola betetzen dute, baina beste batzuek, aldiz, garrantzi handiagoa ematen diete merkatu-irizpideei. Dena den, argi dago lan-merkatuaren eraketan instituzioek eta arautegiek eragin handia dutela.

Atal honen helburua langileen eta enpresarien arteko harremanak moldatzen dituzten arau eta ohituren ikuspegi orokorra ematea da.

11.5.1. Sindikatuak eta erakunde patronalak

Ekonomiaren ikuspegitik, argi dago sindikatuei buruzko iritzia abiapuntu teorikoarekin loturik dagoela. Neoklasikoen ereduaren oinarria konkurrentzia perfektua da (eta ondorioz, milioika gizabanakok osatutako merkatuan, gizabanako bakoitzak eragin-ahalmen oso txikia izatea). Eredu horretan, merkatuan eragina izatea helburu duten taldeak (monopolioak) ez dira ontzat jotzen, interes kolektiboen gainetik beren talde-interesak jartzen saiatzen baitira. Jokabide horren ondorioz, sindikatuek soldata-maila finkatuko lukete, eta enpresariek zenbat enplegu sortzen diren erabakiko lukete. Hortaz, sindikatuak enplegu egonkorra duten langileak soilik hartuko lituzkete kontuan.

Bestalde, instituzionalisten ereduan, sindikatuak helburutzat merkatu-jokoaren emaitzak zuzentzea duten gizarte-indarrak dira. Ekonomia errealean, milioika enpresa txiki izan beharrean, merkatua kontrolpean duten enpresa handiak ditugu, eta informazioa ez da perfektua. Baliabideen banaketa eta produktu sozialaren banaketa ez dira naturalak, bilakaera historiko konkretuen ondorio baizik; horregatik, normala dirudi sistematikoki galtzaileak direnek merkatu-jokoaren emaitzen gain zuzenketak egiten saiatzea. Hortaz, sindikatu-ereduak eta ekintza-motak aldakorrak dira, bai denboran zehar, baita herrialdez herrialde ere.

Hego Euskal Herriko sindikatuen ikuspegi orokorra emateko orduan, hauteskunde sindikaletako emaitzak hartuko ditugu kontuan, legediaren arabera, sindikatuen ordezkaritza-maila emaitza horien bidez neurtzen baita.

Hego Euskal Herriko ikuspegi sindikalaren ezaugarrienetariko bat aniztasun sindikala da (hauteskunde sindikaletara hamabost sindikatu baino gehiago aurkezten baitira); baina azpimarratzekoa da, halaber, lau sindikatu direla nagusi —*Eusko Langileen Alkartasuna* (ELA), *Unión General de Trabajadores* (UGT), *Comisiones Obreras* (CCOO) eta *Langile Abertzaleen Batasuna* (LAB)—, beren artean ordezkarien ia %90 lortzen baitute.

Bestalde, Espainiako estatuaren lurralde-banaketak sindikatuen ekintza- eta ordezkaritza-gaitasunaren gain eragin handia duela aipatu behar da. Zentzu horretan, autonomia-erkidegoan ordezkaritza handieneko sindikatua izateko, ordezkarien %15 lortu behar da, betiere, 1.500 ordezkaritik gora izanik. Hau dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkaritza handieneko sindikatuak aipatutako laurak dira, baina Nafarroan muga itzela da ordezkaritza handieneko sindikatua izateko 1.500 ordezkari gutxienez izan beharra.

11.2. taula. Enpresa eta Administrazio Publikoko Langileen ordezkarien hauteskundeen emaitzak (2000)

	ELA		UGT		CCOO		LAB	
	%	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%	Guztira
EAE	39,4	6217	16,2	2556	17	2657	15,2	2401
Nafarroa	20	1055	33	1757	22,3	1200	13	688

Iturriak: Eustat: Euskal Estatistika Urtekariak.
Nafarroako Gobernuaren Industria eta Teknologi Saila: Lan-Harremanak

11.3. irudia. Langileen ordezkaritza Hego Euskal Herrian (2000) (ehunekotan)



Iturriak: Eustat: Euskal Estatistika Urtekariak, Nafarroako Gobernuaren Industria eta Teknologi Saila: Lan harremanak..

Hego Euskal Herrian emaitza sindikalak nahiko egonkorrak izaten direla kontuan izanik eta 2000ko sindikatu-hauteskundeen emaitzak kontuan hartuz (ikus

11.2. taula eta 11.3. irudia), Euskal Autonomia Erkidegoan, ELA da nagusi (ordezkarien %39,4 eta 6.217 ordezkari), CCOOek ordezkarien %17 inguru ditu (2.657 ordezkari), UGTk %16,2 (2.556) eta LABek %15.2 (2.401). Nafarroan UGT da ordezkaritza handiena duena (ordezkarien %33 eta 1.757 ordezkari); gero CCOO (%22,3 eta 1.200), ondoren ELA (%20 eta 1.055) eta atzerago LAB (%13 eta 688).

Sindikatuen ideologiari dagokionez, sindikatu bakoitzaren jatorria ondokoa litzateke:

Jatorriz kristau-sindikalismoan koka daitekeen arren, ELAk 80ko hamarkadan benetako eraldaketa izan zuela aipatu behar da, lan-eremuko aldarrikapenez gain arazo sozial eta politikoen aurrean konpromisoa sakonduz. Horrela, ELAren egitasmo sindikalaren estrategiaren muina ekintza sindikala da (negoziaketa kolektiboa, antolaketa, kidetza, mobilizazioa...) eta behar balitz, partaidetza instituzionalaren kalterako. Bestalde, gainerako sindikatuak bezala, bere ekintzak langile-klasearen talde guztietara zabaldu ditu (emakumeak, gazteak...). Euskal Herriaren subiranotasunaren ildotik, ELAk justizian eta lagunkidetasunean oinarritutako gizartea du helburu, lan-harremanen eremu propioa abiapuntu izanik.

CCOOren ikusmoldea komunista da jatorriz. Klase-sindikatu modura, gizabanako guztiek aukera berdinak izatea, eta gizarte-estatuaren defentsa dira aldarrikapen nagusiak, betiere, ingurugiroari buruzko kezka, langabetuen arazoak, emakumeenak edo gazteenak ahaztu gabe. Bestalde, CCOOren Euskadiko konfederazio sindikala estatu federalaren aldekoa da.

Sorreran bezala gaur egun ere, UGT sozialdemokraziari loturik dago. Estatu sozial eta demokratikoaren defentsan, justizia eta berdintasunaren alde egiten dute. UGTk ere bere ekintzak talde kaltetuen alde zabaldu ditu (emakumeak, gazteak...). Bestalde, nazioarteko egitasmo sindikalaren eraikuntzari lehentasuna ematen dio, eta sindikalismoa "nazionalizatzearen" kontrako agertzen da.

LAB sindikatua klase-sindikatu, abertzale eta iraultzaile modura definitzen da. Hasiera beretik euskararen bultzatzaile eta Europako Batasunaren eraikuntza-ereduaren kontrako agertu da. 90eko hamarkadan, desegituraketa sozialari aurre egiteko okupatuen defentsa soila egitea ez dela nahikoa azpimarratu du, eta langabetuen, emakumeen eta gazteen alorrak sortu ditu.

Euskal sindikatuen idealen defentsan 90eko hamarkadan zehar ELAren eta LABen artean egindako ekintza-batasuna aipatu behar da. Ekintza-batasun hori argiro soziopolitikoa da eta bi oinarri ditu. Batetik, Lan Harremanen Eremu Propioaren aldarrikapena. Hau da, Hego Euskal Herrian, gizarte- eta lan-politika propioak garatzeko ahalmena lortzea. Hemen hiru dira helburu nagusiak: lanari eta gizarte-segurantzari buruzko gaietan legegintza-eskumenak lortzea; lan-heziketan eta enplegu-politikan eskumen osoak lortzea; eta negoziazio kolektiboa Euskal Herrian eratzea. Bestetik, bigarren oinarria euskal esparru sozioekonomikoaren

garapena da, alegia, lan-harremanetarako eremu propioa lortu ondoren, langile-klasearen aldeko diren neurri ekonomiko eta sozialak garatzea.

Sindikatuen afiliatzeari buruz, datu zehatzak lortzea zaila den arren, gutxi gorabehera, soldatadunen %10 inguru ELAko kideak dira. Bai CCOOko kideak zein UGTkoak soldatadunen %5 inguru dira eta LABekoak %2,5. Zer esanik ez dago, kide-egitearen maila apal honek sindikatuen dinamikan ondorioak izan ditzakeela. Sindikatua ekonomikoki zenbat eta independenteagoa izan, orduan eta aukera handiagoa izango du sistema ekonomiko-instituzionalaren aldaketa bilatzen duten ekintzak aurrera eramateko.

Bestalde, enpresarien antolaketari dagokionez, 70eko hamarkadaren bigarren erdialdean, euskal enpresari batzuek frankismoak sortutako sindikatu bertikaletik kanpo bildu beharra ikusi zuten, klandestinitatetik irten berriak ziren sindikatuekin harreman eraginkorrak garatzeko. Hau nabarmenagoa izan zen 1976ko martxoaren 3ko Gazteizko hilketen ondoren. Garai hartan, Hego Euskal Herri osoko patronalaren batasuna eratzeko saiaketaren bat izan zen arren, erakunde patronalek lurralde-banaketa autonomikoa errepikatu zuten. Horrela, Nafarroako patronala (estatuko erakunde patronaleko (CEOE) kide dena) dugu batetik, eta bestetik Euskal Autonomia Erkidegoko enpresarien konfederakuntza (CONFEBASK) —Arabako (SEA), Gipuzkoako (ADEGI) eta Bizkaiko (CIMV) erakunde patronalak osatua—.

Aipatutako enpresarien sindikatuez aparte, badaude jarduera konkretuetara mugatzen diren eta patronalaren funtzioa betetzen duten bestelako erakundeak ere (garraioaren alorrean, ostalaritzan...).

Azkenik nekazaritza-sektoreko erakundeak aipatuko ditugu. Sindikatu nagusia Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna (EHNE) da eta lau probintzietako sindikatuen federakuntza da. Bestalde, EHNE sindikatutik banatu zen ENBA sindikatua —Gipuzkoan eta Bizkaian kideak dituena— eta Nafarroan kokatzen den UAGAN sindikatua ditugu.

11.5.2. Hitzarmen kolektiboen egitura

Sindikatuen eskakizun-eremua zabala da (enplegua, soldatak, pentsioak, lan-baldintzak...) eta helburuak lortzeko era askotako bideak dituzte, erlatiboki mugatuak diren bideak.

Azken urteetako lan-erreformak justifikatzeko, sindikatuek botere handiegia dutela aipatu izan da, eta botere horrek lan-merkatua zurrunegia izatea ekarri duela. Jarraian, sindikatuek presioa egiteko dituzten bide nagusiak aipatuko ditugu.

Biderik leunena iritzi publikoaren gain presioa egitea da eta sindikatuen eskakizunen gizarte-legitimazioa lortzea. Lan-baldintza batzuk oinarrizko eskubideak dira (lan berdinarentzat soldata berdina, lan-osasunerako eskubideak, 35 orduko

lan-astea...), eta ahaleginak egin behar dira gizarte osoak hori horrela dela onar dezan. Bide honek, normalean, epe luzeko emaitzak izaten ditu.

Sindikatuen presio-biderik nagusienetariko bat negoziazioa kolektiboa da, hau da, langileen ordezkarien eta enpresen ordezkarien arteko negoziazioak gauzatzea. Negoziazio guztiak bezala, negoziazio kolektiboak ere bi aldeek amore eman beharra dakar, eta lorpenak alde bakoitzaren indarrek zehazten dituzte. Baina, enpresek sindikatuen eskakizunei jaramonik egiten ez dietenean, langileek presio zuzenaren (grebaren) mehatxua erabil dezakete enpresak negoziatzera bultzatzeko.

Greba, bada, lan-indarra denboraldi batez ez alokatzea da, eta horrela enpresaren produkzioa etetea lortu nahi da. Beraz, izaera pasiboa duen ekintza da eta eragin mugatuak dituena. Grebak bere mugak ditu. Batetik, normalean greba langileentzat enpresentzat baino jasangaitzagoa delako; langileek ez dute soldatarik eskuratzen greba-garaian, eta enpresek, aldiz, berentzat greba jasanezina izateko, produzitu-behar larria izan behar dute. Bestetik, grebak partaidetza aktiboa eskatzen du; baina sindikatuek ezin dituzte langileak grebara derrigortu. Gainera, produkzioa gelditzeak enpresen diru-sarreretan eragina izateaz gain, produkzio hori erosten dutenen gain ere eragina du, eta litekeena da hirugarren pertsona horiek grebaren kontra azaltzea. Epe luzera, sindikatuek kontuan hartu beharreko beste muga batzuk ere badituzte, esaterako, enpresek inbertsioen gainean duten kontrola (lekuz aldatzeko, enplegua murrizteko...).

Oro har, ekintza sindikalak hainbat muga ditu, eta ahultasun horiek botere politikoen parte-hartzearen beharrizana dakarte. Enpresen botereari mugak jartzeko eta oinarrizko lan-baldintzak bermatzeko, lan-baldintzei buruzko lege ugari daude, eta, gainera, beharrezkoak dira. Honekin batera, batetik sindikalismoak gaur egun bizi duen gainbehera eta, bestetik, botere publikoak jarduera ekonomikoa kontrolatzeko ahalmena galduz joan izana, elkarrekin loturik daude.

Negoziazio kolektiboen egiturari helduz, kontuan hartu behar da sindikatuek negoziazio-maila ezberdinak dituztela: enpresa-mailakoa eta, sektore-mailakoa edo negoziazio zentralizatua.

Herrialde gehienetan, maila guztietan negoziatzen da, nahiz eta maila batzuk besteak baino garrantzi handiagoa izan. Europako Batasuneko herrialde gehienetan sektore-mailako negoziazioa da nagusi. Negoziazio zentralizatua (estatu mailakoa) Europako iparraldean da nagusi (Finlandian eta Noruegan bereziki) eta enpresa mailakoa herri anglosaxoniarretan (Ameriketako Estatu Batuetan, Bretainia Handian, Kanadan eta Australian). Gaur egun, Hego Euskal Herrian probintzia mailako sektorekako negoziazioa da nagusi.

Gaur egungo aldaketa ekonomikoetara moldatzeko orduan, ez dago argi negoziazio-ereduren bat besteak baino egokiagoa den ala ez den. Neoklasikoak enpresaren mailako negoziazioaren aldekoak dira, soldatak enpresa bakoitzaren

estrategia eta egoera konkretura moldatzearen aldekoak baitira. Horrela, enpresa eraginkorrenek soldata hobeak eskainiko lituzkete, eta zailtasunak dituzten enpresek, aldiz, soldata apalagoak.

Negoziazio zentralizatuen aldekoek, aldiz, soldatek egoera ekonomiko orokorrera moldatu behar dutela azpimarratzen dute, eta horrela, krisia eta langabezia orokorrak direnean, ekonomia suspertzeko, soldata-hazkundea galgatu egin behar dela eta hazkunde-garaietan soldata-hazkundea berreskura daitekeela.

Euskal Herriko sistemak —aipatutako bien tartean gelditzen den heinean— ez du enpresen aniztasuna erabat kontuan hartzen, ez eta egoera makroekonomikoa ere soilik. Baina, tarteko ereduak, akordio zentralizatuen kontra, beharrizan konkretuak errazago izango ditu kontuan eta, era berean, enpresa-akordioetan baino errazagoa da arazo orokorrak barneratzea.

Dena den, ekonomikoki indartsuenak diren herrialdeek (Ameriketako Estatu Batuek, Japoniak eta Alemaniak) negoziazio-eredu guztiz ezberdinak izateak, argi adierazten du ezen soldaten malgutasuna sistema ezberdinetan ager daitekeela.

Hego Euskal Herriaren negoziazio kolektiboaren eredua ulertzeko, bilakaera historikoari buruzko zenbait aipamen egin behar ditugu. Frankismo-garaian eta 70eko hamarkadako krisira heldu arte, lan-harremanen antolaketaren zenbait ezaugarri azpimarra daitezke: estatuaren eskuhartzea, askatasun sindikalik eza, enplegu egonkorra bermatzea edo soldaten egituran osagai aldakorrek zuten pisu handia, besteak beste. Sindikatuek frankismoari gogor aurre egin ondoren, 1977an, sindikatuak legeztatzearekin batera, bi aldeen askatasuna aintzakotzat hartzen duen negoziazio kolektiboa finkatu zen. 1977tik 1986ra arte, estatu osorako hitzarmenen fasea ireki zen (Moncloako Itunak, AMI, ANE, AI eta AES). Hitzarmen hauek alde nabarmenak izan zituzten arren (bai engaiamenduei zein sinatzailei zegokienez), horien muina soldata-hazkunde apala bermatzea zen, eta horren truke, soldatez kanpoko zenbait engaiamendu sartu ziren. Baina orokortasunez aplikatu ziren konpromiso bakarrak, lanorduen murrizketa eta sindikatuen partaidetza instituzionala hedatzea izan ziren.

Kontuan harturik hitzarmenak partzialki soilik bete zirela eta, sindikatuen ustez, krisiari aurre egiteko orduan, langileak zirela gehien amore ematen ari zirenak, 1986tik 1997ra ez zen estatu osorako hitzarmenik sinatu. Garai horretan lan-merkatuaren erreforma sakona egin zela aipatu behar da, 1994an hain zuzen. Erreforma horren elementu berri eta nagusia hitzarmen kolektiboei eman zitzaien garrantzia da. Estatuak lan-harremanen araupeketan atzera egin zuen, eta aurretik legediaren menpe zeuden hainbat eduki hitzarmen kolektiboen esku utzi ziren. Ondorioz, lege-bermeak gero eta txikiagoak dira batetik, eta, bestetik, gero eta gehiago utzi da negoziazio kolektiboen esku lan-harremanen edukia sektore ekonomikoen eta enpresen beharrizanetara moldatzea. Malgutasun hori adierazteko,

soldata-desesekitzearen klausula edo soldaten egituran egin ziren aldaketak (legeak oinarrizko soldata egonkorrik ez bermatzea, adibidez) aipa daitezke.

1997an, Espainiako estatuko gobernua aldatu eta urtebetera, estatu osorako hitzarmenak berreskuratu ziren, eta negoziaziorako maila ezberdinen antolaketan sakondu zen. Negoziazio kolektiboen ardatz nagusiak eratzeko orduan, negoziazio kolektiboen zentralizazioa indartu da eta estatu osorako akordioak potentziatu dira.

Gaur egun, Hego Euskal Herriko langileen %85 baino gehiago Euskal Herriaren zabalerako hitzarmen kolektibopean daude, baina 1997tik aurrera hitzarmen kolektibo estatalen aplikazioak pixka bat gora egin du. Gehienbat, jarduera berriei buruzko araupeketa kolektibo estatala dela medio (*telemarketing*, *merchandising*, zaharretxe...) eta baita zenbait azpisektoretan (burdingintzan, mezularitzan, janari-prestaketan...) estatu osorako hitzarmenek Euskal Herrian hitzarmen zabalagoen gain banaketak ekarri dituztelako ere (metala, garraioak, ostalaritza...).

Lerro hauek idazteko orduan, estatuan hitzarmen kolektiboei buruzko akordioa negoziatzen ari da, eta negoziazioen elementu nagusiak bi dira. Batetik, zentralizazio-prozesua nola gauzatzen den zehaztea; bestetik, hitzarmen kolektiboek beren epemuga betetzean eta akordio berririk lortzen ez denean, auzia da hitzarmen kolektiboa bera automatikoki luzatuko den zehaztea (orain arte bezala) ala epe labur baterako baino ezin luzatu izango den jakitea. Hitzarmen kolektiboen epemuga amaitzean luzatzerik ez balego, enpresariek legedian agertzen diren gutxieneko baldintzak soilik bete beharko lituzkete.

Beraz, azken urteetan ateak ireki zaizkio enpresen eta langileen arteko erabateko buruaraupeketari, eta ez dira urruti hitzarmen kolektiboen eraginkortasun pertsonal orokorrari buruzko eztabaidak edo greben legediari buruzkoak.

11.6. ENPLEGU-POLITIKEN ARDATZ NAGUSIAK

Lan-merkatuaren arazoei aurre egiteko politiken gaiari heltzean, azken hamarkadetan (ELGEren analisiekin bat etorriz), ohiko bihurtu da ekimen politikoak neurri aktibo eta pasiboen artean banatzea.

Neurri pasiboek kontuan hartzen dutena, langabezian gelditzeak dakarren nekezia-garaian bizimodua erraztea da Hori dela eta, ekimen pasiboen xedea langabeei denboraldi batean errenta ziurtatzea da.

Politika aktiboen xedea, langabeziaren arazoari konponbidea aurkitzea da. Neurri aktiboak, batetik, langabeziari aurrea hartzeko neurriak dira, langileak langabezian gera ez daitezen; eta, bestetik, lanik gabe gelditu ondoren, berriro lana aurkitu ahal izateko dituzten arazoei aurre egiten dieten neurriak dira.

Enplegu-politikak politika pasiboen eta aktiboen artean banatzean, badirudi langabeziaren arazoari benetako erantzuna politika aktiboen eskutik datorkiola, eta, aldiz, politika pasiboen helburua langabeziaren ondorioak hain latzak ez izatea besterik ez dela, eta, beraz, politika pasiboek ez diotela langabeziari aurre egiten.

Baina langabeei emandako dirulaguntzek badituzte politika aktiboen zenbait elementu: langabearen ezaugarriei hobeto moldatzen zaien enplegua lortzen laguntzen du, eta ondorioz, lan berria lortutakoan, enplegu egonkorragoa eta ekoizkorragoa izatea espero daiteke. Gainera, dirulaguntzen zati bat enpresen ordainketa-etendurak finantzatzeko edo lanorduen murrizketa finantzatzeko erabil daiteke, eta horrela, zenbait enplegu-galtze eragotzi.

Bestalde, sarritan, politika aktiboak eraginkorrak diren ala ez neurtzea ez da erraza. Esate baterako, enplegu-zerbitzuetara bideratutako gastuek gastu aktiboak izateko, langabeak birkokatzeko helburua eraginkortasunez bete behar dute; edo trebakuntzara bideratutako gastuek enplegu-sorreran eragina izateko, ikasketa egokiak eskaini behar dira eta ikasle egokiei zuzendu.

Gainera, politika aktiboek neurtzen zailak diren kostuak dituzte. Alde batetik, neurri aktiboek ezin berreskuratu diren eraginkortasun-galerak dituzte, ez baita erraza jakitea, neurri aktiboen erabilpena dela medio lana aurkitzen dutenetatik zenbatek lortuko duen lana, nola edo hala. Gainera, politika aktiboek ordezte--efektua ere sor dezakete; kasu hau, langabe batek politika aktiboen bidez enplegua aurkitzeak beste langile batek lanpostu bera galtzea dakarrenean gertatzen da. Azkenik, politika aktiboen desbideraketa-efektua ere aipa genezake, langabeak sektore edo lanpostu batzuetatik beste batzuetara aldarazten diren heinean.

Salbuespen horiek egin ondoren, enplegu-politiken bilakaera laburbilduko dugu.

11.6.1. Politika aktibo eta pasiboak.

Enplegu-politiketara bideratutako gastu orokorrekin alderatuta, politika aktiboek garrantzi txikia izan dute, nahiz azken urteetan politika aktiboek gero eta pisu handiagoa duten. Garrantzia irabazi izana ulertzeko, politika aktiboei baliabide gehiago zuzendu zaiela kontuan hartzeaz gain, laurogeita hamarreko hasierako urteetatik (1992 eta 1994an bereziki) langabezia-aseguruek jasandako murrizketak ere hartu behar dira kontuan.

Politika pasiboak, Espainiako estatuan, Enplegu-Institutu Nazionalak (INEMek) bideratzen dituela aipatu behar da. INEM delakoa erakunde autonomoa da eta Lan eta Gizarte-arloko Ministerioaren menpekoa da. Langabezia-laguntzak INEMek kudeatzen dituen fondoen %80 direla ere aipatu behar da.

Espainiako estatuak kudeatzen duen langabezia-laguntzen sistema herrialde garatu gehienetako sistemak bezalakoa da. Langabezia-laguntzen sistemak bi maila ditu: lehenengoa kontributiboa edo langabezia-asegurua da, eta bigarrena, laguntzazkoa edo langabezia-sorosbidea.

Langabezia-asegurua, gutxieneko epealdi batean kotizatu duten langileei zuzenduta dago, eta langileek, kotizatu izanaren truke, laguntza eskuratzeko eskubidea dute. Laguntzaren iraupena kotizatutako epeari loturik dago eta langabezia--aseguruaren zenbatekoa ere aurretik lortutako soldata-mailari loturik dago.

Langabezia-sorosbidea, langabezia-aseguruarekiko independentea den arren, normalean, horren osagarri bihurtzen da langabezia-asegurua agortzen denean.

Hirurogeita hamarreko urteetatik hona, politika pasiboen gastuek joan--itzuliko bidea egin dute. Langabezia-babeserako sistema hedatuz joan zen 1992 arte, eta ordutik aurrera, kontrako joera hartu du. Babes-eskubidea edukitzeko baldintzak gogortu egin dira, hartukizun-eskubidea dutenen kopurua murriztuz; eta laguntzen epemuga murriztearekin batera, laguntzen zenbatekoa ere murriztu da.

Politika aktiboak sailkatzerakoan, hiru jarduera-lerrotan laburbil daitezke: enplegua sustatzeko kontratu-motak, gizabanakoen heziketa eta trebakuntza hobetzeko ekimenak (langabe izan zein lanpostudun izan), eta bitartekotze-zerbitzuak.

Enplegua sustatzeko kontratu-motak aztertzean, lehenik aipatu behar da, lan-legeriaren eskumena estatuari soilik dagokiola, eta autonomia-erkidegoek ezin dutela eraginik izan kontratu-araubidean. Aipamen hori egin ondoren, Espainiako estatuan, lan-merkatuari loturik dauden politiken artean, kontratazioa suspertzeko aldi baterako zenbait kontratu-mota sortzea izan da estrategia nagusiena.

Lan-sustapenerako aldi baterako kontratua 1984an sartu zen indarrean, eta 1997 arte egon da indarrean. Kontratu-mota horrek —eta hauxe da honen ezaugarri nagusia— iraizpen-kostuak murriztea ekarri zuen. Aldi baterako langileak nahi adina denboran manten zitezkeen ohiko diren lanak egiten, eta horrela, enpresek mugagabeko kontratuek dakartzaten iraizpen-gastuetatik itzurtzeko aukera izan zuten. 1994ko erreformak kontratu-mota horren erabilerari mugak jarri arren, horixe izan da gehien erabili den kontratu-mota.

Aldi baterako kontratuen sustapen-politika horrek, enpresetan "aldikotasun--kultura" sartzea eta errotu izana ekarri du. Ondorioz, 1994tik hona egin diren lan--erreformek, aipatutako aldi baterako lan-sustapenerako kontratuaren ordez, aldi baterako diren beste kontratu batzuk egitea besterik ez dute lortu (gehien erabili direnak, produkzio-inguruabarrengatiko noizbehinkako kontratuak, obra- eta zerbitzu-kontratuak, kontratu partzialak eta bitartekotasun-kontratuak izan dira).

1997an, enplegu-sustapenerako aldi baterako kontratuak kendu eta enplegu--sustapenerako mugagabeko kontratua sortu zen. Kontratu berri honen xedea,

itxura denez, aldikotasuna murriztea eta mugagabeko kontratazioa sustatzea da, eta hori lortzeko aukeratu zen bidea iraizpen-kostuak murriztea izan zen (ohiko mugagabeko kontratuak baino iraizpen-kostu baxuagoak jarriz). Dena den, lehenago ikusi dugunez, "aldikotasun-kultura" oso erroturik dago eta mugagabeko kontratua duten langileak (soldatadunen guztizkoarekin alderatuta) gero eta gutxiago dira.

2001. urtean lan-erreformarako lege berriaren eskutik, iraizpen-kostuak jaistearen bidean sakondu da. Bidegabeko iraizpenen kalte-ordaina murriztu da eta lan egin den urte bakoitzeko 33 egunera jaitsi da. Gainera, "mugagabeko kontratazioa sustatzeko kontratua" lan-kategoria gehienetara hedatu da. Bestalde, kontratu partziala erabat desarautu da, eta denbora osoko kontratuarekiko alde bakarrak, ordainsari apalagoa izatea eta lan-eskubideak mugatu izana dira. Lanordua, ordutegia eta orduen zenbaketa enpresariaren borondatearen esku utzi dira. Horrekin, emakumezkoen eta gazteen kontratazioa sustatu nahi da, lanbidean eta lanbidetik at dituzten betebeharren arteko baterakidetasuna erraztuko delakoan. Baina erreforma horren ondorio bakarra behin-behinekotasuna areagotzea izan daiteke.

Enplegu-sustapeneko kontratuekin bukatzeko, gazteei zuzendutako prestakuntza-kontratuak aipatu behar dira. Prestakuntza-kontratuen arauketak (eta deiturak berak) hainbat aldaketa izan ditu. Zentzu honetan, aipatzekoa da 1997an desagertarazi zen prestakuntza-kontratua ("zabor kontratua") 2001eko lan-erreformak berpiztu izana. Berreskuratu den kontratu horren ezaugarriak hauxek dira: ordainsari apala (soldata minimoa), hala holako gizarte-babesa (ez du langabezia-laguntzetarako eskubiderik ematen) eta gizarte-segurantzari enpresariek ordaindu beharreko kotizazio baxuak (hileko 30 inguru).

Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoan sortu den txanda-kontratua aipatu behar da. Txanda-kontratua agente ekonomikoen arteko (sindikatuen, patronalaren eta gobernuaren arteko) akordioaren bidez sortu zen, eta bere xedea aurre-erretiro partzialarekin batera gazteen enplegua sustatzea da. Euskal Herriak arlo honetan dituen eskumen-mugak direla eta, kontratu-mota hau sustatzeko jarri diren kotizazio-beherapenak Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen bidez finantzatu behar dira.

Gaineratiko politika aktiboekin jarraituz, langileen **prestakuntza eta birziklapen-politikak** aztertuko ditugu. Azken hamarkadetan, prestakuntza-politikek gero eta garrantzi handiagoa hartu dute. Prestakuntza-politikek lan-eskariaren eta lan-eskaintzaren arteko desoreka konpontzen saiatzeaz gain, produkzio-sistema osoaren gaitasuna eta lehiakortasuna sustatzen dituzte.

Prestakuntza-ekintzak hiru multzotan banaturik daude. Batetik, oraindik ikasten ari direnen prestakuntza (prestakuntza arautua), bestetik, langabeei zuzendutako prestakuntza (zereginetako prestakuntza) eta, azkenik, lanbidea dutenei zuzendutakoa (prestakuntza jarraitua). Azkeneko biek prestakuntza ez-arautua osatzen dute. Ba-liabide gehien ikasten ari direnen prestakuntzara zuzentzen den arren,

prestakuntza ez-arautura bideratutako baliabideek nabarmenki gora egin dute laurogeita hamarreko urteetan, eta prestakuntza ez-arautuaren barne-prestakuntza jarraituak hartu du bultzadarik handiena.

Prestakuntza ez-arautuak bi finantza-iturri nagusi ditu: lan-heziketarako kuota (soldata-masaren %0,7) eta Europako Gizarte-Fondoa. Instituzioei dagokienez, INEM da gastu gehien kudeatzen duen erakundea. Zereginetako prestakuntzan partaidetza mugatua du eta prestakuntza bera itunpeko zentro pribatuetan ematen da.

Estatuan, lanbidea dutenei zuzendutako prestakuntza Trebakuntza Jarraiturako Fundazioak (FORCEMek) kudeatzen du. Fundazio honen partaideak langileen sindikatuak eta erakunde patronalak dira, eta finantzapena estatuak jartzen du.

Euskal Autonomia Erkidegoan FORCEMek gero eta aktibitate gutxiago du eta joera horren kontra, Euskal Autonomia Erkidegoko Prestakuntza Jarraiturako Euskal Fundazioaren (HOBETUZen) aktibitatea etengabe hedatuz joan da, 1996an sortu zenetik hona. HOBETUZ fundazioa Euskal Autonomia Erkidegoko patronalek eta sindikatuek kudeatzen dute.

Bestalde, Hego Euskal Herriko gobernuek diruz laguntzen dituzte lanbideratzeko zailtasunak dituzten pertsonei zuzendutako prestakuntza-ekimenak, eta Lan Heziketako ikasleek lan-esperientzia lortzeko ekimenetan ere parte hartzen dute.

Politika aktiboen barnean, azkenik, **bitartekotze-zerbitzuak** ditugu. 1995etik aurrera, lan-eskariak eta lan-eskaintzak lotzeko, mozkina helburu ez duten bitartekotze-agentziak eratu dira. Erakunde horiek INEMen erakunde laguntzaileak dira. Zentzu honetan, aipamen berezia merezi du Euskal Autonomia Erkidegoko Enplegu eta Prestakuntza Suspertzeko Erakunde Publikoak (EGAILAN izenekoa). EGAILAN hau Eusko Jaurlaritzaren menpeko erakundea da, eta 1996tik aurrera lanbide-zerbitzua (LANGAI) kudeatzeaz gain, informazio-, biderapen- eta sustapen-zerbitzuak eskaintzen ditu.

Begi-bistakoa da politika aktiboen eremuan, boterearen eta errealitatearen arteko hurbiltasunak garrantzi berezia hartzen duela, berezitasun lokalak kontuan hartu behar baitira. Horrekin lotuta, euskal gobernuei eskumenak transferitzeari buruzko eztabaida ekar dezakegu hona. Konkretuki, prestakuntza ez-arautua transferitu beharra eta ekimen propioak aurrera eramateko finantzapena lortzeko orduan izan diren eragozpenak gogoratzea (esaterako, lan-heziketaren kuotari dagokion soldaten %0,7 eskuratzeko orduan izan diren eragozpenak).

Bestalde, kontuan hartu behar da ezen, gaur egungo egoera aldatuz, enplegu-politiken eraginkortasun handiagoa lor daitekeela, ekimenak bikoiztu egiten direlako (INEM/EGAILAN; INEM/LANGAI; FORCEM/HOBETUZ) eta, sarritan, erakundeen arteko koordinaziorik ez dagoelako.

11.6.2. Enplegu-banaketa

Enplegu-banaketa lan-eskaintza erregulatzeko politiken barnean dago. Lan-eskaintza erabaki (edo lehentasun) indibidualen arabera eratzen dela uste dutenen kontra, lan-eskaintzaren eraketan instituzioek duten garrantzia lehenago ere aztertu dugu, lan-eskaintzaren eta gizartearen antolaketaren arteko harremana aztertzean.

Hirurogeita hamarreko urteetako krisiaren ondorioz errotu den langabezia masiboari aurre egiteko orduan, beharrezkoa izan daiteke lan-merkatutik irteten (aldi baterako edo aldi iraunkorrerako) direnen gizarte-rola erregulatzea. Gobernu lokalak dira lanbide berriak —oraindik produkzio-eremuan ez dauden lanak— definitzeko egokienak, harreman kolektiboak hobeto ezagutzen dituzten heinean (merkatu-lanetan eta familia-eremuan). Langabea gizarteratuta egotea da helburua, langabea berea egin duen egitamuaren partaide izanik eta, baita, beronek gizarteak aintzat hartzen duen lana eginik ere. Horrek, aldaketa kultural sakona eskatzen du eta aldaketaren koska lan birproduktiboaren balorazioan datza. Gainera, okupazio berri horiek garatzeak eta enplegu-banaketa garatzeak langabeziaren arazoa arazo indibiduala gabe arazo kolektiboa dela barneratzea eskatzen du.

Bestalde, langabezia masiboarekin eta enpleguen behin-behinekotasunarekin batera, azken hamarkadetan galgatu egin da lanegunen murrizketa orokorraren bilakaera historikoa. Lanegunen murrizketa orokorrari eutsi zaion arren, produkzio bera lortzeko, beharrezko diren lanorduak murriztu egin dira, eta murrizketa hori, langabeziaren hazkundeari esker eta kontratatu partzialei esker gertatu da.

Kontratu partziala da (sarritan, aparteko orduen erabilpenarekin elkartuz) lan-denbora malgutasunez kudeatzeko gehien erabili den elementua. Aipatu dugu kontratu partzialek emakumeen gain duten eragina, lanaren banaketa sexistarekin duten lotura eta behin-behinekotasunaren gain duten eragina (promozio-zailtasunak, gizarte-babes apalagoa...). Hori dela eta, lanegunen murrizketa orokorra lanaren behin-behinekotasuna murriztu eta enplegua sortzeko elementu bat izan daiteke.

Lanegunen murrizketen motari eta abiadurei buruz, aipatzekoa da ezen, lanegunen murrizketak enplegua sor dezan, murrizketa hori nahiko handia izateaz gain, enpresa gehienetan era batera eman beharreko murrizketa dela. Murrizketa txikiek lan-erritmoa estutzea besterik ez dakarte, eta, ondorioz, ekoizkortasunaren hazkundeek enpleguaren sorrera neutralizatzen dute. Hori dela eta, murrizketa hori jarduera ekonomiko osora hedatuko dela bermatzeko, lege-bitartekoak eratzea komeni da. Gainera, enplegua sortzea helburu duen lanegunen murrizketak aparteko orduen erabilpena zigortzeko lege-bitartekoak behar ditu. Azkenik, hitzarmen kolektiboen esku legoke, lanegun hori enpresen beharrizanetara moldatzea.

Lege-baliabide horiek eratzeko orduan —eta ondorioz, murrizketaren erritmoa eta finantzapen-bideak eratzeko orduan—, Hego Euskal Herriak ez du eskumenik, eta lanegunen murrizketa herri-administrazioan soilik jarri izan da indarrean. Baina hori ez da nahikoa lanegunen murrizketa ekoizpen-sistema osora hedatzeko.

Lanegunen murrizketaren finantza-bideei buruz, lanegunen murrizketa horrek ha-siera batean enpresari dakarkion lanordu bakoitzeko kostu-gehikuntza konpentsa-tzeko bideak aipatuko ditugu.

Batetik, zuzenean, soldata-murriztea aipa dezakegu. Kasu horretan, murrizketa hori soldata-maila guztietara hedatu behar den edo soldata-maila altuenak soilik murriztu behar diren erabaki beharko litzateke.

Bestetik, murrizketa horren eskutik sortutako ekoizkortasun-hazkundeek finantza dezakete lanegunen murrizketaren kostu-gehikuntza, batez ere, berrantolaketaren eskutik lor daitekeen kapitalaren erabileraren gehikuntza kontuan harturik. Gainera, lanegunen murrizketa aberastasunaren banaketarekin lotu nahi bada, azken urteotan izan den ekoizkortasun-hazkundea langileen eskuetara joan ez izana ere hartu behar da kontuan.

Azkenik, enplegua sortuz laneguna murrizten duten enpresei zuzendutako zerga-beherapenak eta Gizarte-Segurantzako kuoten beherapenak sor ditzakete herri-erakundeek. Kasu horretan, kontuan hartu behar dira beste finantza-iturri batzuk ere, esaterako, enplegu-sorrerari loturik dauden langabezia-laguntzen aurrezkia, edo enplegu berriei loturik dauden kotizazioen eta zerga-ordainketen hazkundea.

11.7. GIZARTE-BABESA

Gizarte-estratifikazioaren eskutik sortzen diren desberdintasunak arintzeko eta errenta birbanatzeko bideak osatzen dute gizarte-babesa.

Gizarte-babesaren eraketari gagozkiola, oro har, hiru modelotan bereiz genezake, nahiz eta gero praktikan bata bestearekin nahasten diren:

a. Ameriketako Estatu Batuetan, Kanadan edota Australian ezartzen den modeloa. Lurralde horietan, babes-sistema pribatua da funtsean, bai beraren finantzaketaren ikuspuntutik eta baita enpresa-ekarpenekin eta langileen ekarpenekin batera enpresen bidez egiten diren prestazioen ikuspuntutik ere.

b. Bigarren eredua Europako iparraldeko lurraldeetan nagusitzen dena da. Metodo honek unibertsaltasun-kutsuko tradizioari jarraitzen dio. Hau da, laguntzaren baten beharrizana duen edonori babesa ematen ahalegintzen da. Finantzaketa errentaren gaineko zergen bidez egiten da, eta prestazioak herritartasun-izateari berari atxikita hartzen dira, gizabanakoen zereginak eta errenta-maila kontuan hartu gabe.

c. Hirugarren modeloa Erdialdeko Europan eta Hegoaldeko Europan (eta, beraz, Euskal Herrian) ezarria da. Modelo hau izaera pribatuzko seguru sozialaren abiaburuak zuzentzen du, eta, hortaz, gizarte-kontribuzioez (enpresen eta langileen kontribuzioez) finantzatzen da funtsean. Era berean,

egiten diren ekarpenek baldintzatzen dituzte geroko prestazioak. Hortaz, babeskera hau batez ere soldatapeko biztanlerian oinarritzen da, eta bai honen finantzaketak eta bai hornikuntzak ere lurralde bakoitzaren lan-egitura eta gizarte-egitura berragertarazten dituzte. Beharrizanak jota dagoela frogatzeak baldintzatzen ditu langabezian dagoen biztanleriarentzako transferentziak eta zerbitzuak. Beharrizan horiek neurtzeko irizpideak administrazio bakoitzaren esku daude.

Gizarte-babesaren arloan, Europako Batasunaren araupeketari dagokionez, hurrengo hau eduki behar da kontuan: autonomia-eremuko gizarte-politikaren garapena ez da lehentasun modura aurrikusten. Merkatu bakarraren jardunbideak baldintzatzen du Europako Batasunaren jarduketa, eta kapitalaren, ondasunen eta zerbitzuen zirkulazio askeari langak ezabatzea lortu nahi duenez, gizarte-eremuan langileen mugikortasun eta zirkulazio askeari oztopoak kentzean jartzen du arreta. Hortaz, gizarte-politikari dagokionez, orain arte, lortu nahi den gauza bakarra europar merkatu bakarraren sortzeak dakartzan ondorio desegonkortzaileak arintzea da, neurri batean behintzat; eta, hortaz, legeria komunitarioak emigranteei babesa eman eta sexu-diskriminazioa ezabatu baino ez du egin.

Europako Batasuna osatzen duten estatuen gizarte-babeserako sistemei dagokienez, ondokoa azpimarra genezake: nahiz eta estatuen arteko organizazioan eta finantzaketa-metodoetan desberdintasun nabarmenak agertu, guztiek helburu berbera dute, hau da, laguntza behar dutenei babesa ematea, bai aldi baterako (esaterako, lana galtzean edo familia izatean) edota bai aldi iraunkorrerako (esaterako, erretiratzean); gainera, hori guztia ordaintzeko gaitasuna kontuan hartu gabe.

Espainiaren kasuan, gizarte-babesa Gizarte-Segurantzaren sistema publikoak zuzentzen du. Gizarte-Segurantza era askotako babes-mailatan antolatzen da. Garrantzi ekonomiko handienekoa kontribuziozko maila da. Maila honetako gizarte-babesak lanbide-jardueratik (norbere konturako edo inoren agindurako jardueratik) ondorioztatzen diren sarrerak ordezten dituzten errentak hornitzen ditu, betiere langileak Gizarte-Segurantzaren sisteman aurretiaz kotizatu badu. Kontribuziozko prestazioen funtsezko elementua pentsioek osatzen dute (erretiroa, alarguntasuna, elbarritasuna, eta zurztasuna), eta gero datoz langabezia-prestazioak eta aldi baterako ezintasun-prestazioak.

Bigarren maila “ez-kontributiboa” da. Honen helburua beharrizanean aurkitzen diren pertsonen errenten gabezia konpentsatzea da, eta, hain zuzen ere, laguntza hori talde profesional jakin bati lotuta ez dagoenez, ez da eskatzen Gizarte-Segurantzari aurretiaz ordaindu beharrik izatea. Hortaz, prestazio ez-kontributiboak aurrerapauso bat dira gizarte-prestazioen arloan unibertsaltasuna lortzeko. Dena dela, maila hau oso mugatua da espainiar estatuan, eta, gainera oso berandu sortutakoa, 1990ean hain zuzen. Maila honek ezinduak eta kontribuziozko mailan sartzen ez diren baliabide gabeko 65 urtetik gorakoak baino ez ditu bere gain

hartzen (azken hauek, gehienetan, prestazioetako eskubidea izateko behar diren urteak ez kotizatzeagatik).

Beharrizan-egoeran dagoen biztanleria osoari laguntza zabaltzeari dagokionez, —hau da, beharrizana duten guztiei eta bakoitzari babesa ematea—, Autonomia Erkidegoei garatzea dagokien Gizarte-Laguntza ere aipatu behar da. Gizarte--laguntza hau, gizarte-babeserako bide bat da, Gizarte-Segurantzaren gizarte--babesaren osagarria dena zenbait zentzutan:

a. Zentzu subjektiboan, Gizarte-Segurantzaren babesetik at gelditzen diren pertsonak babestean, Gizarte-Segurantzaren aplikazio-eremuan sartzen ez direlako edota —gero eta gehiago gertatzen dena— eskatzen diren kotizazio-epeak bete gabe dituztelako. Kontuan hartzekoa da, azkeneko hamarkadetan prestazioak eskuratu ahal izateko baldintzak gogortu egin direla. Horrek, lan-merkatuaren eskasiari lotuta, zergazko Gizarte-Segurantzatik "kanporatzea" eragiten du, eta ez maila ez-kontributibokorantz soilik, baizik eta baita Gizarte-Laguntzarantz ere.

b. Zentzu objektiboan, Gizarte-Segurantzan sartzen ez diren prestazioak emanez (batez ere, langabezia masibotik eta iraupen luzeko langabeziatik ondorioztatzen diren prestazioak). Langabezia-prestazioen oraingo arauketak, aldez aurretiko kotizazioak eskatzean eta prestazioak aldi mugatu batean soilik ematean, babesik gabe uzten du talde handi bat. Hutsune hori betetzeko, Europako hainbat lurraldetan —baita Euskal Herrian ere—, birgizarteratzeko gutxieneko errentak edo gizarte-soldatak sortu dira.

c. Hirugarren zentzuan, baliteke Gizarte-Segurantzaren prestazioak nahiko ez izatea; horrelakoetan, Gizarte-Laguntzaren bidez hobetzen dira: edo prestazioak denbora joanean agortu egiten direlako, edo horien zenbatekoak egoera guztiz larriak jasotzen ez dituelako, edo zenbait beharrizan egoera espezifikoetara heltzen ez direlako.

Gizarte-babeseko azken maila, izaera pribatuzko babesa da. Honetaz edozein herritar balia daiteke, bere borondatez eta babes publikoaren osagarri modura. Gizarte-babesaren osagarrizko maila hau instituzioen multzo heterogeno batean oinarritzen da, esaterako: pentsioen plan eta fondoak, hitzarmen kolektiboetan sartzen diren borondatezko hobekuntzak, mutualitateen bidez bideratutako mekanismoak, etab. Baina izaera pribatuzkoa izan arren, gizarte-babes pribatuaren araupeketa publikoa oso estua eta zorrotza denez, ez da hain erraza aurreikuspen publikotik mugatzea. Batez ere, modalitate kolektibokoetan, esaterako "Borondatezko Gizarte-Aurreikuspeneko Erakundeak" deritzenen kasuan; izan ere, horiexek dira garatuenak Hego Euskal Herrian, eta horien arloan Hego Euskal Herriak eskumen esklusiboa dauka.

11.7.1. Gizarte-babesaren markoa

Espainiar Konstituzioak debekatu egiten du Gizarte-Segurantzako Euskal Markoa, eta Estatuaren eskumen esklusibotzat jotzen du Gizarte-Segurantzaren oinarrizko legeria eta ekonomia-araubidea. Hego Euskal Herriari egoki dakiokeena Gizarte-Segurantzaren ekonomia-araubidearen kudeaketa da, baina EAEko autonomia-estatutua eta Nafarroako foru-hobekuntzaren legea aldarrikatu zenetik hona, maila kontributiboko gizarte-segurantza guztia estatuko erakundeek kudeatu dute.

Horren ondoan, gizarte-zerbitzuei dagozkien gizarte-segurantzaren prestazioen eskumenak transferituak izan dira, (elbarrien berreziketa eta birgaikuntza, eta zahartzaro-laguntza) eta baita erretiroko eta elbarritasuneko prestazio ez-kontributiboen kudeaketa ere. Prestazio horien kudeaketa ekonomikoa transferitzeko jarrera eta, ostera, prestazio kontributiboena ez transferitzeko espainiar gobernuen jarrera desberdin horren zioa honako hau da, alegia, azken hauen garrantzia paregabeki handiagoa dela eta, horri loturik, legebidezkotasun sozial handiagoa ematen dutela.

Lehenago esan dugunez, gizarte-laguntza Hego Euskal Herria osatzen duten autonomia-erkidegoen eskumen esklusiboa da. Oinarri horretan garatu dira birgizarterazeko errentei buruzko arauak. Gai horretan, egokia da azpimarratzea ezen, espainiar estatuan, birgizarteratzeko gutxieneko errentei buruzko arauen garapenean, Hego Euskal Herria izan dela aintzindaria, 1988tik aurrera erabilia den Birgizarteratzeko Gutxieneko Diru Sarrera (BGDS) delakoa bitarteko. Gaur egun, espainiar estatuan, Hego Euskal Herria da txirotasun-indize txikienak dituena; eta bestalde, prestazioak hartzen dituzten etxe pobreen portzentajea ere handiagoa da Hego Euskal Herrian (%74). Prestazio horiek, gehienbat, kolokako egoeran dauden langileei dagozkie, lan-merkatura lanpostu ziur eta finko gabe sartzen direnei hain zuzen.

Arlo horretan egokia da kontuan hartzea, azkenez, 1998an Hego Euskal Herrian aurkeztu zen Legegintza-Ekimen Herrikoia (LEH), eta gogoratu, baita, EAEko parlamentu-tramiteen ondoren bere babes-ahalmena hainbat murriztu dela. LEHan, Birgizarteratzeko Gutxieneko Errenta (Oinarrizko Errenta deitua) Lanbide arteko Gutxieneko Soldatararen (LGS) adinekoa izatea eskatzen zen, eta parlamentutik pasa ondoren, LGSren %75ean gelditu da (LGSarekiko alde hori, ahal den neurrian, foru-aldundiek beteko dute). Babestu beharreko gizasemeen adinari dagokionez ere, bada alderik; izan ere, adin nagusiko pertsona guztientzat izatea eskatzen zen (18 urtetik gorako guztientzat), baina indarreko legeriak 23 urte eskatzen ditu, ordea.

Azkenean, izaera pribatuzko gizarte-babesari dagokionez, prestazioetako maila osagarri horretan sartzen diren erakundeen multzotik, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeak dira Hego Euskal Herrian erakunderik garrantzitsuenak (eta hauek, ikusi dugunez, Hego Euskal Herriko Gobernuen eskumen esklusibokoak dira). Horren adierazgarri, Estatuko gizarte-aurreikuspenerako lehenengo mutualitatea "*Lagun Aro*" izan da, 1.502,53 milioi euro baino gehiagoko

baliabideekin; gainera, baliabideen kopuruari dagokionez, Estatuko lehen hamar erakundeen artean, bost Euskal Herrikoak dira.

Ondorio gisa esan daiteke ezen, gizarte-babesaren eremuan, autonomia-eskumenak gizarte-babesaren bi muturretara mugatzen direla. Bi muturrak hauexek dira: alde batetik gizarte-zerbitzuak eta birgizarteratzeko errentak, eta bestetik Borondatezko Gizarte-Aurreikuspeneko Erakundeek kudeatzen duten babes sozial pribatua.

11.7.2. Gizarte-gastua eta finantzaketa.

Gizarte-babeserako gastua oso era handian gehitu da Hego Euskal Herrian azkeneko hamarkadetan. Hain zuzen, gizarte-babesaren ziozko gastua oso era handian gehitzearen funtsezko faktore argigarriak hauexek dira:

a. Gizarte-Segurantzaren prestazio ekonomikoak izugarri gehitzea, azken 25 urteotan izandako soldaten igoeraren ondorioz, prestazioak eta soldaten igoera elkarrekin lotuta baitaude kotizazio-oinarrien bitartez (nahiz eta, lehenago adierazi denez, soldatek, bai garbiek eta baita gordinek, nazio--errentan lehen baino parte-hartze txikiagoa izan, enpresen soberakinen mesedetan).

b. Langabeziaren ziozko gastuak gehitzea, langabezia-tasa hain altua delako.

c. Aldaketa demografikoak, batez besteko bizi-itxaropenaren ondorioz; aldaketa hauek luzaroagoan hartuko diren erretiro-pentsioak ez ezik, osasun--laguntzak eta gizarte-zerbitzuak ere ukitzen ditu.

Gizarte-babesaren gastuak gehitzea ez da soil-soilik ongizate sozialaren hobekuntzaren ondorio. Gizarte-Segurantzak industria-birmoldaketa erraztu du, guztiz gogorra izan zena Euskal Herrian laurogeiko hamarkadan batez ere. Milaka eta milaka soldatapeko, era "traumatiko" bigun samarrean, lan-merkatutik kanpo utzi ahal izatea langabeziaren eta jubilazio aurreratuen erabilpen konbinatuari esker izan da.

Gizarte-gastu eta finantzaketak azken urteotan izan duen bilakaerari buruz eta Estatuko zein Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen 2000. urteko memorietan jasotakoaren arabera, 1994tik hona, bai Espainiar Estatuan bai Hego Euskal Herrian, gizarte-gastua izoztu egin da; gehiago oraindik, eboluzioaren zeinua aldatu da. Europako Batasuneko batez bestekora urreratze-prozesua gelditu egin da, bost puntuko aldean iraunez. BPGren gaineko gizarte-gastuan dagoen aldeaz aparte, aipagarria da gastuaren egiturazko aldea. Hego Euskal Herriak EBko batez bestekoa baino gehiago gastatzen du Zahartasunean (nahiz eta horri dagokion atala europar batez bestekoa baino BPGren portzentaje txikiagoa izan), eta baita Langabezian eta Gizarte Baztertzean; baina gastua txikiagoa da beste funtzioetan, batez ere Familia, Aurrera-bizitzan eta Etxebizitzan.

Euskal Herriko Gizarte-Babesaren Finantzaketari dagokionez, sarreren egitura Europako Batasuneko hegoalde eta erdialdeko lurraldeetako finantziazioaren antz-antzekoa da. Baliabideak, hirutik bi baino gehiagotan, Gizarte-Segurantzarako kotizazioetatik datoz, eta ia oso-osorik osterantzeko ekarpen publikoetatik.

Behin eta berriro esan behar da ezen oraingo konstituzio-estatutuen markoan ezin direla aldatu ez sarreren egitura eta arauketa, ez eta gastuena ere. Arlo fiskalean badaude arautegi propioa izateko ahalbide erlatiboak, baina gai horretan ez dago inolako aukerarik, eta horregatik, lehen emandako arautegia betetzean, transferentziak halako gestio hoberen bat erabiltzea baino ez du uzten.

11.7.3. Txirotasuna eta gizarte-bazterketa

Munduan dauden gose eta beharrizan larriak ikusiz, herrialde garatuetako txirotasunaren arazoa bigarren mailako arazoa dela dirudi. Baina munduan dagoen txirotasun-arazoari aurre egiteari lehentasuna emateak ez du esan nahi herrialde garatuetako txirotasunak garrantzirik ez duenik. Are gehiago, kontuan izanik ezen 70eko hamarkadako krisitik hona izan den txirotasunaren hazkundearen oinarrian lan-harremanen aldaketak, gizarte-babeserako sistemen berrikusketak eta krisia gainditzeko eratutako politikak daudela. Azken hamarkadetan aberastasun materialaren hazkundea nabaria izan den arren, txirotasuna ere handitu egin da, eta baita txiro izateko arriskua ere. Aldaketa horiekin batera, txirotasun berria eta gizarte-bazterketa terminoak erabiltzen dira.

Gizarte-bazterketa terminoa 80ko hamarkadaren bukaeran sortu zen. Hasiera batean, txirotasuna errenta-gabeziarekin loturik dagoen era berean, gizarte-bazterketa gizarte-harremanen hausturekin dago loturik. Konkretuki, ondoko sistemen hausturak izan behar dira kontuan: integrazio hirikorra sustatzen duen sistema demokratikoaren haustura; baterabiltze ekonomikoa sustatzen duen lan-merkatuaren haustura; gizarte-integrazioaren eragilea den ongizate-estatuaren haustura; eta pertsonen arteko integrazioa bultzatzen duen senitarteko sistemaren eta herritartasun-sistemaren haustura.

Gizarte-bazterketak, txirotasun ekonomikoaz gain, gizarte-bizitzatik kanpo gelditzea dakarren harremanen haustura du kontuan; eta gizarte-bazterketak metatzen doazen arlo ezberdinetako mugak ditu kontuan. Beraz, gizarte-bazterketari aurre egiteak, laguntza ekonomikoez gain, beste hainbat eremu hartu behar ditu kontuan (heziketa, gizarte-partaidetza, lan-giroa, osasuna…).

Azken hamarkadetan, aldaketa sakonak izan dira, bai txirotasunaren osaketari dagokionez, bai gizakiak txirotasunera daramatzaten faktoreei dagokienez. Krisi sozioekonomikoaren ondorioz, langabezia txirotasun-faktore garrantzitsu bihurtu da. Gainera, txirotasuna enplegua dutenen eremuan ere sartu da —bai soldata baxuko hainbat lanpostu, baita ezkutuko ekonomiako beste hainbat ere, pobrezia mugen azpitik daude—.

Langabezia berriaren barnean egoera oso ezberdinetako gizakiak daude, larrialdi ekonomiko iragankorren baten aurrean daudenetatik hasi eta gizarte-bazterketako egoera larrienetan daudenetaraino. Kasurik larrienetan, gabezia ekonomikoa ez ezik, senitarteko loturen haustura, kultur loturen haustura eta gizarte-loturen etendura ere gertatzen dira.

Txirotasun berriaren eta gizarte-bazterketaren hedakuntzari dagokionez, elkarrekin loturik dauden hiru faktore hartu behar dira kontuan: batetik, lan-merkatuko aldaketak (langabeziaren hazkundea, enpleguen behin-behinekotasuna…), bestetik eraldaketa sozioekonomikoak (biztanleriaren zaharkitzea, guraso bakarreko sendien hazkundea, senitarteko egituren haustura…) eta azkenik, ongizate-estatuaren eraldaketa (ongizate-egitasmoen berrikusketa, herri-zerbitzuak pribatizatzea…). Gauzak horrela izanik, gainerako faktoreen jokabidea egokia balitz, hiru faktore horietako baten hausturak ez luke, nahitaez, txirotasuna ekarri behar.

Hego Euskal Herriko txirotasunari buruz hitz egitean, kontuan hartu behar da pertsona bakoitzeko errenta Europako Batasunaren batez bestekoaren parekoa dela. Gainera, kontuan hartzekoa da, halaber, krisi ekonomikoaren eragina inoiz baino larriagoa izan zen urteetan (80ko hamarkadaren hasieran), txirotasunari aurre egiteko politikak eratzeko orduan, Hego Euskal Herria aitzindaria izan zela.

Gauzak honela eta Eusko Jaurlaritzaren 2000. urteko txirotasunari eta gizarte-desberdintasunei buruzko inkestan oinarrituz batetik, eta bestetik, Nafarroako Gobernuaren gizarte-bazterketari aurre egiteko 1999ko egitamuko datuak kontuan hartuz, aipatzekoak dira ondoko datuak:

Hego Euskal Herrian, oro har, txirotasunaren mugaren azpitik dauden familien ehunekoa Europako Batasuneko batez bestekoa baino apalagoa da. Konkretuki, Gipuzkoan (familien guztizkoarekin alderatuz) familia txiroak %14,1 dira; Bizkaian %11,9; Nafarroan %10,3 eta Araban %6,8.

Txirotasun ekonomikoaren eta gizarte-bazterketaren arteko banaketa Nafarroan soilik egin da, eta ikerketa horren arabera, gizarte-bazterketak familia guztien %3,4ren gain du eragina, eta familia horietatik %66 Iruñe aldean eta Tafallan bizi dira.

Euskal Autonomia Erkidegoan egin diren azterketek txirotasun ekonomikoa soilik dute kontuan. Txirotasun ekonomiko hori egiturazko txirotasuna (metaketa-txirotasuna) edo koiunturala (mantentze-txirotasuna) izan daiteke. Egiturazko txirotasunak kontsumo-ondasun iraunkorrak erosteko ezintasuna adierazten du, eta txirotasun koiunturalak hileroko diru-sarrerekin beharrizan minimoei aurre egiteko ezintasuna.

Txirotasun ekonomikoaren bilakaerari dagokionez, azken urteetan, egiturazko txirotasunak gora egin du (batez ere 65 urtetik beherakoen artean) eta txirotasun

koiunturalak ia aldaketarik ez du izan kopuruz. Datu larria da hori, azpimarratzea merezi duena. Gainera, txirotasun koiunturalak gero eta eragin handiagoa du emakume ez-aktiboengan eta 45 urtetik beherako lanpostudunengan.

Egiturazko txirotasuna zeukaten familiak (familien guztizkoarekin alderatuz) %1,6 ziren 1996an, eta %2,1 2000. urtean. Txirotasun koiunturalaren barnean, egoera larrian (elikagai, jantzi eta antzekoen gastuei aurre egin ezinik) familien %4,6 zeuden 1996an, eta %5,5 2000. urtean. Bestalde, txirotasun koiunturalaren barnean ongizate-gabeziadunak (oinarrizko gastuei aurre egiteko eran egonik gizartearen batez besteko ongizate-mailara iritsi ezin direnak) %31,6 ziren 1996an, eta %28,8 2000. urtean.

Txirotasun koiunturala duten familiak oparotasunean bizitakoak dira, baina krisiaren eraginez mantentze-txirotasunean daudenak.

Metaketa-txirotasuna eta mantentze-txirotasuna —biak batera— dituztenak ondoko zazpi taldeak dira: bakarrik bizi direnak edo guraso bakarrekoak; emakumeak; zaharrak; kualifikazio apalekoak; ez-aktiboak; lan ez-egonkorra dutenak; eta familia ugaria dutenak.

BIBLIOGRAFIA

Bayona, C., Goñi, S., Gravalos, P. eta Madorran C. (1999): "El empleo a través de la inserción sociolaboral de colectivos excluidos: un análisis comparado de las políticas de distintas administraciones", in Nafarroako Gobernua, *Nafarroako ekonomiaren hirugarren kongresua*, Nafarroako Gobernua, Iruñea. 289-404.

Bradsshaw, J. eta Sainsbury, R. (Ed.) (2000): *Reseaching poverty*, Ashgate, England.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Saila (2000): *Situación socioeconómica de la CAPV: Memoria anual*, CES, Bilbo.

Eusko Jaurlaritza (2000): *Encuesta de pobreza y desigualdades sociales*, Justizia Ekonomia eta Gizarte-arloa Saila, Gazteiz

EUSTAT (1996): *Kanpo-migrazioak*, EUSTAT, Gazteiz. <http//www.eustat.es>

EUSTAT (2000): *Euskal urtekari estatistikoa*, EUSTAT, Gazteiz. <http//www.eustat.es>

EUSTAT (2001): *Euskal urtekari estatistikoa*, EUSTAT, Gazteiz. <http//www.eustat.es>

EUROSTAT (zenbait urte): *Biztanleria eta gizarte-baldintzak*, Eurostat, Brusela. <http//europa.eu.int>

Ferreol, G. eta Deubel, G. (1990): *Economie du travail*, Armand Colin, Paris.

García, G. (1999): "Mercado de trabajo. El problema del paro", in García Delgado, J. L. (zuz.), *España, Economía. Ante el siglo XXI*, Espasa Calpe, Madril, 327-354.

García, J. I. (1995), "*El mercado de trabajo regional", Boletín de Economía de Navarra*, 10. zkia, Nafarroako Gobernua, Iruñea.

Gazier, B. (1992): *Economie du travail et de l'emploi*, Dalloz, Paris.

Gomez Uranga, M. (1999): "Un nuevo discurso económico para la soberanía", in Gomez Uranga, M., Lasagabaster, I., Letamendia, F., Zallo, R. (koor.), *Propuestas para un nuevo escenario: democracia cultura y cohesión social*, Manu Robles-Arangiz Institutua, Bilbo.

Goñi, J. L. eta Landa J. P. (1999): *Derecho social vasco*, IVAP, Bilbo.

Industriaren Sustapen eta Eraldaketarako Baltzua, I. G. (1999): *El futuro del trabajo*, SPRI, Bilbo. <http//www.spri.es>

Instituto Nacional de Estadística (2001): *Contabilidad regional española*, INE, Madril. <http//www.ine.es>

Izagirre, A eta Pascual, X. (1995): "Una aproximación al mercado de trabajo de la CAPV a través de distintas fuentes estadísticas", *Ekonomiaz* **31-32**, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.

Larrañaga, M. (2001): *El trabajo de las mujeres. El caso de la CAPV en el contexto europeo*, UPV/EHU, serie tesis doctorales, Bilbo.

Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales (zenbait urte): *Anuario de estadísticas laborales y asuntos sociales*, Madril, <www.mtas/Estadisticas/Anuario>

Nafarroako Gobernua (1999): *Plan de lucha contra la exclusión social en Navarra, 1998-2005*, Gizarte-ongizate, Kirola eta Gaztediaren Saila, Iruñea. <http// www. cfnavarra.es>

Palacio J. I. eta Viaña, E. (1999): "Las relaciones laborales", in García Delgado, J. L. (zuz.), *España, Economía. Ante el siglo XXI*, Espasa Calpe. Madril, 379-409.

Recio, A. (1997): *Trabajo, personas, mercados: manual de economía laboral*, ICARIA-FUHEM, Madril.

Rodriguez, Mª. J. *et al*. (1999), *"Sistema de la Seguridad Social"*, Tecnos, Madril.

Sarries, L. (1999): "Características del mercado de trabajo en Navarra", in Nafarroako Gobernua, *Nafarroako ekonomiaren hirugarren kongresua*, Nafarroako Gobernua, Iruñea. 99-127.

Toharia, L. (1998): *El mercado de trabajo en España*, McGraw-Hill, Madril.

Zubero, I. (1999): *El trabajo en la sociedad: Manual de una sociología del trabajo*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.

12. Sektore publikoa

Yolanda Jubeto

Gaur egungo Hego Euskal Herriko Sektore Publikoaren egituraketa hirurogeita hamarreko hamarkadan izandako trantsizio politikoaren ondorioa da, garai horretan Espainiako Estatua autonomia-estatu moduan eratu baitzen, eta azken bi hamarkadetan sistema hori indarrean egon baita. 1978ko Espainiako Konstituzioa indarrean sartu ondoren, autonomia-estatutuak sinatzen hasi ziren, eta horien bidez deszentralizazio administratiboa gauzatu zen. Euskal Herriko kasuan bi autonomia-erkidego eratu ziren: alde batetik, mendebaldeko herrialdeek, hau da, Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak Euskal Autonomia Erkidegoa osatu zuten (aurrerantzean EAE), eta bestetik, Nafarroa Garaiak Nafarroako Foru Erkidegoa (aurrerantzean, NFE), hots, herrialde bakarreko erkidego bihurtu zen. Beraz, bakoitzak autonomia-estatutu bana dauka, EAEko kasuan 1979an onartua izan zena, eta NFEkoan 1982an. Nafarroan Lege honi Nafarroako Foru Eraentza Birrezarpena edo Hobekuntzari buruzko lege organikoa deritzote. Banaketa horrek gobernu bi sorrarazi zituen, Eusko Jaurlaritza EAEn eta Nafarroako Gobernua NFEn, hain zuzen; eta halaber, bi administrazio desberdin, antzekotasun ugari dituztenak eta baita desberdintasun batzuk ere.

Antzekotasunak Hego Euskal Herriko historian oinarritzen dira, lau herrialdeak XIX. mendeko erdialdera arte burujabetza-maila altua mantendu baitzuten, foru-sistema deiturikoa. Sistema horrek berezko araudiak egiteko gaitasuna ematen zuen zenbait eremutan, eta, horrela, Espainiarekiko berezitasun batzuk zituzten. Adibidez, Espainiako zerga-sistema ez zen aplikagarria Hego Euskal Herrian, Espainiako mugak Ebro ibaian amaitzen ziren eta gazteek ez zuten derrigorrez soldaduzka egin behar, eta abar. Gerra karlistak amaitutakoan, ostera, lurralde euskaldunak guztiz atxikiak izan ziren Espainiako Erresuman, lehendabizi Nafarroa Garaia 1841ean eta gainerako lurraldeak 1876an. Gerra galtzearekin batera, foru-sistema galdu zuten: berezko legeak egiteko gaitasuna erabat murriztu zieten, mugak Pirinioetan eta Bizkaiko Golkoan kokatu zituzten, Batzar Nagusiak desagerrarazi zituzten eta Espainiako zerga-sistema inposatu zuten, besteak beste.

Egoera berrira egokitu arte, ekonomia-hitzarmenen sistema sortu zen aldi baterako, finantza- eta zerga-harremanak arautzeko asmoz. Nafarroako kasuan, zenbait zergarekin batera, Estatu zentralari ekarpen finko bat eman beharra ezarri

zen 1841eko legean. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundien kasuan, 1876ko legearen arabera estatuko aurrekontua finantzatzeko zergak ordaintzera beharturik bazeuden ere, kontra agertu ziren, eta legearen atal hori ez zuten bete. Hori zela kausa, urtebete pasa ondoren, dekretu baten bitartez, Kupo bat ordaintzera behartu zituzten. Berriro ere, foru-aldundiek ez zuten horrelako inposiziorik onartu, eta horren ondorioz, deseginda geratu ziren. Foru-aldundien ordezkari berriak izendatu ondoren, horiek lehenengo Kontzertu Ekonomikoa sinatu zuten estatuarekin. Hasieran, estatuaren eta lurralde historiko bakoitzaren artean egiten zen ituna.

Gatazka horien ondorioz, Kontzertu Ekonomikoak sortu ziren Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, alde batetik, eta Nafarroa Garaian Hitzarmen Ekonomikoa, bestetik. Gaur egun arte, eztabaidagai izan da ea honelako Hitzarmenak Foruen ondorengoak izan diren edo Foruen ukapenaren ondorioa. Dena den, gaur arte euskal lurraldeak izan dira erkidego bakarrak estatuarekiko finantza-harremanak arautzeko Hitzarmen edo Itun ekonomikoa erabili dutenak.

Nahiz eta sistema horren sorreran behin-behineko tresna izateko helburuarekin jaio (Espainiako estatuko zerga-sistema euskal lurraldeetan guztiz ezarri arte), sistema horrek Espainiako 1936ko Gerra Zibila hasi arte iraun zuen indarrean. Garai horretan, Bizkaia eta Gipuzkoa "probintzia traidoreak" izendatuak izan zirenez, frankismoaren garaian indargabetu egin zituzten herrialde horiekiko Kontzertu ekonomikoak. Araban eta Nafarroan, aldiz, Franko hil ondorengo trantsizio politikoa gertatu arte iraun zuten bizirik. Guztira, zazpi kontzertu ekonomiko sinatu dira 1970eko hamarkadaren trantsizio politikoa izan arte (1878, 1887, 1894, 1906 eta 1925. urteetan). Nafarroako kasuan lau aldiz berriztatu zuten 1841an sinatutakoa (1876, 1927, 1941 eta 1969. urteetan).

1978ko Espainiako konstituzioan figura horiek onartuak izan ziren, eta bere lehenengo xedapen gehigarrian lurralde foralen eskubide historikoak onartutzat agertzen dira. Xedapen hori nahiko anbiguoa bada ere, horretan oinarritu ziren legegileak Araban eta Nafarroan indarrean zeuden Kontzertua eta Hitzarmen ekonomikoa mantentzeko, eta Bizkaiaren eta Gipuzkoaren kasuan berriro martxan jartzeko, Autonomia-Estatutuan jasoz eta lege berriak sortuz.

Kontzertua eta Hitzarmen ekonomikoa —Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean, alde batetik, eta Estatuaren eta Nafarroako Foru Erkidegoaren artean, bestetik— finantza-harremanak arautzen dituen sistemaren tresnak dira. Sistema honek dakartzan gaitasun fiskalak eta finantzazkoak gaur egungo euskal lurraldeen autonomia-sistemaren ezaugarri nagusietarikoak dira. Halaber, beren garapenean bi administrazioen artean sorturiko gatazkak etengabeak izan dira eta oraindik hor jarraitzen dute. Beraz, horien edukiaren atal nagusiak aurrerago aztertuko ditugu.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegorako erakundeen eta lurralde historikoen Foru-Aldundien arteko eskumenen banaketa 1983ko Lurralde Historikoei buruzko legean jaso zen. Lege hori aldatua izan zen 1993an, eta gaur egun indarrean dirau. Artikulu honetan, hala ere, ez ditugu banaketa horren zehaztasunak jasoko.

12.1. ESKUDUNTZEN BANAKETA ADMINISTRAZIOEN ARTEAN

Administrazio zentralaren eta autonomikoen arteko eskuduntzen banaketa Espainiako konstituzioan zein autonomia-estatutuetan jaso zen, autonomia-maila desberdinetako erkidegoak sortuz. Transferentziak urteetan zehar gauzatzen joan dira, zenbait arlotako araugintza eta kudeaketarako gaitasuna eskuz aldatuz: hezkuntza, osasuna, kultura, nekazaritza eta arrantza, gizarte-babesa, industria, barne-merkataritza eta herri-lanak, besteak beste. Dena den, arlo guztietan Eusko Jaurlaritzaren eta Nafar Gobernuaren eskumenen zabalera eta sakontasuna ez dira berdinak izan, eta kasu guztietan zenbait muga onartu behar izan zituzten administrazio autonomikoek.

Nafarroako kasuan eskuduntzen transferentziak 1985ean hasi ziren eta 1990ean Hezkuntza eta Osasun arloetako eskuduntzak eta Gizarte-Zerbitzuen Institutu Nazionala deritzon INSERSOren eskumenak jaso zituen, besteak beste.

EAEko kasuan, lehendabizi Hezkuntza aldatu zuten eskuz, 80ko hamarkadaren hasieran, eta 85ean Unibertsitate-irakaskuntza (honek eragin txikia izan zuen aurrekontuetan). Osasungintza jaso arte, Irakaskuntza Sailak gastu guztien %40 hartu zuen 1981-86ko tartean, eta, ondoren, 88an, gastu osoaren %26ra pasatu zen. Urte berean Justizia-administraziori buruzko zerbitzu batzuk jaso ziren arren, horiek ez zuten izan oihartzun handirik aurrekontuetan. Ertzaintzaren sorrerak eta garapenak ere eragina izan dute aurrekontuetan, eta 1990eko arlo horrek gastu osoaren %5,9 ordezkatu zuen. 1990etik aurrera egonkortasuna izan da aurrekontuetan, izandako transferentziek pisu ekonomiko txikiagoa izan dutelako.

Halaber, zenbait gaitako transferentziek atzerapenak eta trabak jasan dituzte, eta gaur egun ere ez dira gainduak izan (zientzia eta teknologia, gizarte-segurantza, etab.). Horrek euskal sektore publikoaren bilakaeraren azterketa zailtzen du. Horrez gain, 1986ko Espainiako Erresumaren Europako Elkartean (EE) sartzeak eskuduntzen banaketa korapilatu zuen. Horrela, zenbait eskuduntza garrantzitsuren transferentzia indarge geratu zen praktikan, Estatuko administrazio zentralak dekretu baten bidez hala erabaki baitzuen, nahiz eta autonomia-estatutuen arabera eskumen horiek autonomia-erkidegoei zegozkien (arrantza, nekazaritza, estatuen laguntzak, industria, fiskalitatea...). Ordutik aurrera Estatuaren ordezkariak solaskide bakarrak izan dira EEan izandako gai horiei buruzko eztabaidetan.

Horrela, arazoak sortu dira zenbait gaitan administrazio biek jarrera desberdinak erakutsi dituztenean. Batzuetan, euskal administrazio autonomikoek eginiko eskarien kasuan, administrazio zentralari Europako Batasunean aldezteko eskatzean, administrazio zentralak, sentsibilitate-falta izugarria erakutsiz, ez ditu aurkeztu edo kontrakoa defenditu egin du. Horien adibide dira, erregio-, nekazaritza-edo arrantza-politika zein politika fiskala, besteak beste. Gai honetan, hala ere, ez ditugu ekonomia- eta sektore-politika zehatzak aztertuko, zeregin hori beste kapituluetan landu delako; horren ordez, oro har, administrazioaren lehentasunaz jardungo dugu. Dena den, gero ikusiko dugunez, nahiz eta autonomia-erkidego foralak alor fiskalean zenbait zerga arautzeko eskuduntza nahiko zabalak izan, estatuak behin eta berriro helegiteak aurkeztu ditu epaitegietan, autonomia horren ahalmenak murriztu nahian.

Administrazio baten lehentasunak eta gaitasunak adierazten dituen tresna nagusia aurrekontu publikoa denez, horren azterketaren bidez, euskal administrazioen gastu nagusiak (horren atzean eskuduntza nagusiak islatzen dira) eta horien bilakaera laburbilduko ditugu kapituluaren azken atalean. Halaber, gastu eta inbertsio publikoak aurrera eramateko, administrazioak sarrerak edo finantza-baliabideak behar ditu. Sarrera nagusiak zergen bidez lortzen ditu, eta dakigunez, zergen bilketa ez da inoiz neutroa izaten, zerga desberdinak ditugulako, eta gizarteko kolektiboetan mota bakoitzak eragin desberdina duelako. Horrela, zergen konposizioa ezagutzea garrantzitsua da administrazioak daraman politika fiskalaren ardatzak aztertzeko. Horrez gain, administrazioak sarritan ez du lortzen sarreren bidez bere gastu edo inbertsio guztiak finantzatzea, eta, ondorioz, zorpetu egiten da. Zor horren joera ere aipatzekoa da, Europako Batasunak zor publikoari mugak ezarri dizkiolako, bereziki 1992an Maastricht-eko ituna onartu eta indarrean sartu ondoren.

Hori dela eta, bi zatitan banatuko ditugu hurrengo orrialdeak: lehendabizi sarrerak aztertuko ditugu, eta ondoren, gastu publikoak. Baina, sarrerak aztertzeko, euskal sistema fiskalaren funtsezko ezaugarrien deskribapena egin behar dugu, arestian aipaturiko Kontzertu eta Hitzarmen ekonomikoen esanahia azalduz. Espainiako estatu barruan lurralde bakarrak gara zerga gehienen bilketa berton egiten, eta horrek gastuak egiteko ahalmen zuzena ematen du, nahiz eta foru-ogasunek jasotako diru-kopuruetatik estatuari zati bat eman behar dioten, estatuak Hego Euskal Herrian dituen eskuduntzak finantzatzeko, ondoren inbertsio horiek egin ala ez. Lau herrialdeetan zergak biltzen dituzten administrazioak Foru-Ogasunak dira, eta horrela horien eskuduntzen artean, zergetarako araudiak egitea eta betearaztea daude.

12.2. OGASUN PUBLIKOAK. KONTZERTUA ETA HITZARMEN EKONOMIKOA

EAEko autonomia fiskala Kontzertu Ekonomikoaren Lege Organikoaren bidez araututa dago. Lege hori Eusko Jaurlaritzak eta Administrazio zentralak sinatu zuten 1981ean: urte horretan bertan sartu zen indarrean, eta bere iraupena hogei

urtekoa izatea erabaki zuten. Beraz, aurten, 2001. urtea amaitu baino lehen, berriz negoziatu behar da[1].

Kontzertu ekonomikoa Administrazio Zentralaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean adostua eta sinatuta bazen ere, zergak biltzen dituztenak Foru-Ogasunak dira, eta, bere lurraldean araudia eta diru-bilketaren arduradunak izanik, kudeaketarako araudi eta prozedura desberdinak ezar ditzake bakoitzak. Hala ere, praktikan Lurralde Historikoen arteko desberdintasun fiskalak oso urriak dira, eta ez dira gai garrantzitsuenetan azaltzen.

Kontzertu Ekonomikoaren edo Ekonomia-Itunaren edukia bi zatitan egitura daiteke: lehendabizikoan, zerga-harremanei buruzko zatia dago, eta bigarrenean, kupoari dagokion zatia dago. Lehenengoan, zergen araugintza harmonizatzeko bideak eta zerga bakoitzaren lotuneak zehazten dira. Horretarako, Estatuko Ogasunaren eskumenak eta Foru-Ogasunenak bereizten dira, zerga bakoitzaren kasuan araugintza eta kudeaketa nori dagokion ezarriz.

Kontzertu Ekonomikoaren bigarren zatia kupoari buruzkoa da. Estatuko administrazioak zenbait eskumen esklusibo dituenez, kupoaren bidez zehazten da EAEk nola hartzen duen parte Estatuaren zama orokorrei aurre egitean, Estatuaren esku dauden eskumenei dagokienez. Kupoa administrazio bien artean ezartzen den finantza-fluxuaren adierazle nagusia da, urtero ordaindu behar den zenbatekoaren kalkulua kupoaren bidez egiten baita.

Dena den, kupoa ez da urtero bere osotasunean kalkulatzen. Bere sorreratik Kontzertuan jasotzen denez, bost urterik behin negoziatu behar da Euskal Administrazioak Estatuari ordaindu behar dion Kupoa ezartzeko metodologia. Bost urte horietako lehenengo kupoa oinarri gisa erabiltzen da hurrengo urteetakoa kalkulatzeko. Aldi berean, negoziazio horretan zergei dagozkien balizko aldaketak sartzen dira, Estatuak ezin baitu, bere kabuz, EAEren lurraldean zergarik ezarri. Adibidez, zerga berriak agertzen badira eta euskal administrazioak kontuan hartu behar baditu, Ekonomia-Itunean arautu behar dira. Horrela 1986an Balio Erantsiaren gaineko Zergarekin hala gertatu zen; hain zuzen ere, Europako Ekonomia-Elkarteak horrela aginduta beste estatu kideekin harmonizatzeko ezarri behar izan zuten zerga hori, bai Estatuan eta baita Hego Euskal Herrian ere. Halaber, negoziazio horien bidez administrazio zentralak biltzen dituen zenbait zerga (itunduta ez dauden zergak, hain zuzen) euskal administrazioaren esku gera daitezke, hemengo ogasunek bil ditzaten; eta ordutik aurrera itundutako zergen barruan egongo dira. 1997ko negoziazioan horrelakoa gertatu zen zerga bereziekin, eta ordutik aurrera euskal administrazioek biltzen dituzte zerga horiek.

1. Liburua amaitu eta inprentarako bidean zegoenean, kontzertua berritu egin zen, bi administrazioen arteko negoziazio luze eta gatazkatsu baten ondoren. 2002. urtea hitzarmenik gabe hasi bazen ere, otsailaren 20an hitzartu eta martxoaren 7an mugagabea izango den akordioa sinatu zuten. Apirilaren bukaerarako indarrean egotea espero dute. Badirudi Eusko Jaurlaritzak Europako Batasunean ordezkaritzaren gaia alde batera utzi izanak bidea erraztu duela.

1981eko Kontzertu Ekonomikoaren lehenengo zatia, beraz, zergak arautzeko atala da. Bertan, bi zerga-mota bereiz daitezke: zerga itunduak eta zerga ez-itunduak. Zerga itunduak Foru Aldundien tributu-sistemaren barruan daude; horrela, lurralde bakoitzeko erakunde eskudunek ezarri, zaindu eta arautu egin dezakete zerga hori, eta ondoren batzar nagusiek onetsi behar dute. Gaur egun, zerga gehienak itunduak dira. Hala ere, badago itundu gabeko zenbait zerga, Estatuak zerga batzuk arautzeko eskumen esklusiboa duelako. Ekonomia-Ituna sinatu zenean, Estatuak bere gain hartu zituen zergak honako hauek izan ziren: inportazioen gaineko mugasarien arauak eta kudeaketa, monopolio fiskalak (zerga bereziak izenarekin ere ezagunak direnak, hala nola tabako, hidrokarburoak, etab), alkoholaren gaineko zergak, Banka ofizialaren zergak, monopolioak eta Espainian ez-egoiliarrak diren pertsonen gaineko zergak. Hurrengo negoziazioetan, aldiz, zenbait zerga itundu zituzten, eta, 1997ko negoziazioaren ondorioz, batik bat zerga bereziak, alkoholaren gaineko zergak eta pertsona eta enpresa ez-egoiliarren gaineko zergak itunduak izan ziren[2]. Dena den, hurrengoak ere Estatuaren esku daude: balio erantsiaren gaineko zergaren zein zerga berezien kasuan inportazioei ezartzen zaizkien zamak, eta monopolio fiskalen bidez biltzen direnak. Gainerako zergak itunduak dira; beraz, horien araudia estatuaren sistema fiskalaren harmonizazio-printzipio batzuen menpean egon arren, kudeaketa, ikuskaritza eta bilketa foru-aldundien eskumena dira lege horren bidez.

Zerga itunduak bi multzo handitan sailka ditzakegu, lurralde historikoen araugintza-ahalmenaren arabera. Batzuk araugintza-ahalmen autonomoa duten tributuak dira; hau da, foru-aldundiek askatasuna dute zerga hori arautzeko. Beste batzuen kasuan, aldiz, nahiz eta itunduak izan, lurralde historikoen erakunde eskudunek ez dute ahalmenik tributu horiek arautzeko, eta horrela, Estatuak ezartzen duen arauketa bera ezarri behar dute, nahitaez.

Ekonomia-Itunaren azken aldaketatik aurrera (1997), araugintza-ahalmen autonomoa duten zergen artean honako hauek daude, zenbait arlotan muga batzuk badituzte ere: *Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga*, *Ondarearen gaineko Zerga*, *Sozietateen gaineko Zerga* (EAEn soilik zergapeturik dauden enpresentzat), *Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga*, *Ondare-eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga* (zenbait alorretan estatuaren arauak onartuz) eta tokian tokiko tributuak. Araugintza-ahalmen autonomoa baina mugatuta duen tributua *Jokoaren gaineko Tasa* fiskala da.

Beste alde batetik, araugintza-ahalmenik gabeko tributu nagusien kasuan, foru-aldundiek biltzen dituzte zergak, baina estatuak ezartzen dituen arauak foru-aldundiek onartu eta aplikatu behar dituzte, eta honakoak dira: *Balio Erantsiren gaineko Zerga*, *Fabrikazioaren gaineko Zerga Bereziak*, *Garraio Bide jakinen*

2. 1997ko Erreforma honen ondoren, Administrazio Zentralaren eta Lurralde Historikoen arteko zerga-harmonizazioko irizpideak sinpletu egin dira.

gaineko Zerga berezia, *Ez-egoiliarrek ordaindutako Zergak* eta *Aseguru Primen gaineko zerga*.

Oro har, esan dezakegu Euskal Autonomia Erkidegoak itunduak dituela sarrera fiskal guztien %62. Sarrera ez-itundu nagusiak Gizarte-Segurantzari egindako ekarpenak dira (guztien %90) (Zubiri, 2000: 43).

Eskumen fiskalak administrazio desberdinen artean banaturik egotean, bi alderdi nagusi konpondu behar dira. Alde batetik, zehaztu egin behar da lurralde bakoitzean zein zergadunek eta zein proportziotan ordaindu behar dien foru-aldundiei eta zeinek estatuko administrazioari, lurralde bietan eragiketak egiten dituenean. Banaketa horri "*lotuneak zehaztea"* izena ematen zaio. Oro har, esan dezakegu lurralde historikoa eskudun dela subjektu pasiboa Euskal Autonomia Erkidegoko egoiliarra denean.

Bestalde, lurralde bakoitzak araugintzan duen autonomia zehaztu behar da. Hau da, noraino izan daitezkeen desberdinak EAEn ezartzen diren zergak eta Estatuak gainerako lurraldeetan ezartzen dituenak ("lurralde komuna" deritzona).

Horrela, nahiz eta tributu itundu batzuen kasuan foru-aldundiak araugintzan ahalmen autonomo izan, Ekonomia-Itunaren 4. artikuluak jasotzen duenez, lurralde historikoek zergak ezarri eta arautzeko dituzten eskumenak mugatuta daude, eta muga horiek "harmonizazio fiskalari buruzko arauak" dira. Hasieran hamabi arau jasotzen ziren Itun Ekonomikoaren testuan, baina 1997ko erreformaren ondorioz, lau besterik ez dira geratu, nahiz eta oraindik ere nahiko anbiguoak izan eta interpretazioaren arabera esanahi desberdinak izan ditzaketen:

a. Sistematika, terminologia eta kontzeptuei dagokionez, Arau foralak Zergei buruzko Lege Orokorrari eta hori garatzen duten arauei egokitu behar zaizkie derrigorrez. Aurretik, egokitu ordez, *"aplikatu"* egin behar zituzten.

b. EAEn eta Estatuan dauden benetako presio fiskalak parekoak izan behar dira. Jatorrizko bertsioan, presio fiskalak «*ezin zuen apalago izan*» hitzak idatzi zituzten.

c. Pertsona, kapital, ondasun eta zerbitzuen zirkulazio-askatasuna bermatu behar da.

d. Industria- eta merkataritza-jarduerei begira, lurralde komunean erabilitako sailkapen bera erabili behar da.

Horrez gain, Ekonomia-Itunak printzipio orokorrak jasotzen ditu, lurralde historiko bakoitzak ezar ditzakeen zergei muga gehiago ezarriz: Konstituzioa eta Autonomia-Estatutuak jasotako elkartasun-printzipioari begirunea erakustea; Estatuko zergen antolaketa orokorra kontuan hartzea; harmonizazio fiskalari buruz emandako arauak errespetatzea; eta Espainiako estatuak sinatu dituen nazioarteko itun edo hitzarmenak betetzea.

Nafarroako Foru Erkidegoko autonomia fiskala eta EAEkoa oso antzekoak dira. Oinarriak eta eduki gehienak berdinak dira; beraz, orain arte esandako gehiena baliagarria da baita NFEko kasuan ere. Historian, aldiz, zenbait berezitasun izan ditu Nafarroaren eta Administrazio Zentralaren artean hitzartutako itun edo hitzarmen ekonomikoak. 1936ko gerraren ondoren Nafarroak —Arabak bezala— indarrean mantendu zuen hitzarmen ekonomikoa, eta 1969an administrazio biek berretsi zuten. Beraz, 1978ko Konstituzioa sinatu zenean, bi administrazioen arteko finantza- eta zerga-harremanak arautzen zuen legedia indarrean zegoenez, 1982an Nafarroako Autonomia-Estatutua sinatu zutenean, bertan ituna aipatu zuten, eta horrez gain, XIX. mendeko legeak ere aipatu zituzten, bereziki 1839ko Legea. Horrela, 1969ko Hitzarmen Ekonomikoaren edukia 1990ra arte luzatu zuten, eta data horretan gaur egungo Hitzarmen Ekonomikoa sinatu zuten. Hitzarmen horrek iraupen mugagabea dauka eta Nafarroak Estatuari urtero ordaindu behar dion diru-kopuruak "ekarpen" izena dauka, nahiz eta kupoaren esanahi bera duen. Aldi berean, zergarekiko erreformak ia berdinak izan dira kasu bietan; beraz, ezaugarri nagusiak batera deskribatuko ditugu.

12.3. ADMINISTRAZIOEN ARTEKO FINANTZA-FLUXUAK

Eskuduntzen banaketaren ondorioz, Estatuak zenbait eskumen esklusibo gordetzen ditu bai EAEn bai NFEn: nazioarteko harremanak, kanpo-merkataritza, Defentsa eta Indar Armatuak, Justizia Administrazioa, lan- eta enpresa-legegintza, interes orokorreko herri-lanak eta Errege-Etxea, besteak beste. Hori dela eta, euskal administrazioek gastu edo zama horiek finantzatzen laguntzen dute, eta ekarpen hori Kupo edo Ekarpenaren bidez egiten dute. Bestalde, EAE edo NFEari dagozkion zenbait zerga Administrazio Zentralak biltzen dituenez, horiengatiko konpentsazioa eman behar die.

Hori dela kausa, EAEn eta NFEn ezarritako diseinu instituzionalak administrazio autonomikoen eta administrazio zentralaren arteko zenbait finantza-fluxu sorrarazten ditu:

a. Lehendabizikoa —garrantzitsuena— Kupoa edo Ekarpena da, alegia, euskal erkidegoek administrazio zentralari urtero ordaintzen dioten diru-kopurua, azken horrek lurralde horietan dituen eskuduntzengatik. Kopuru hori zehazteko, Estatuko aurrekontuak hartzen dira oinarri. Bertan euskal lurraldeetara transferiturik ez dauden eskumenengatik Estatuak lurralde osoan gastatzen duena zenbatzen da. Gaur egun, gastu horiek Estatuko aurrekontuaren %50 baino handiagoak dira. Hortik suposatzen da, euskal eremuetan ere zati bat gastatzea dagokiola. Gero berdin da benetan Estatuak han inbertitzen duen kantitatea hori den ala ez; baina horrela egiten da kalkulua. Beraz, legea egin zenean kupoari begira hartu beharreko lehenengo erabaki garrantzitsua, euskal lurraldeei zegozkien Estatuko gastu guztien zamaren

ehunekoa zehaztea izan zen. Eta aukera desberdinen artean, Estatuak bere lurralde osoan egiten dituen gastuak oinarritzat hartzea erabaki zuten.

Estatuko zama horiek ordaintzeko euskal lurraldeei zegokien ehunekoa kalkulatzeko, 1970eko hamarkadako adierazle batzuk hartu zituzten kontuan: biztanleria eta errenta, hain zuzen. Orduan, eztabaida luzeak izan ondoren, Hego Euskal Herriko pisua Estatuko ekonomian EAErako %6,24koa eta NFErako %1,6koa zela estimatu zuten. Urteak behar izan zituzten kopuru horiek zehazteko, eta guztiek onar zitzaten. Beraz, portzentaje horiek erabiltzen dira oinarri modura Estatuari ordaindu beharreko zenbatekoa zehazterakoan, suposatzen baita hori izango dela transferitu gabeko eskuduntzen kontzeptuengatik Estatuak lurralde hauetan batez beste gastatzen duena.

Kupoa zehazteko, bitariko batzordea izendatzen da, hamabi ordezkarirekin: lurralde historikoetatik hiru, Eusko Jaurlaritzatik hiru eta Estatutik sei. Kupoa kalkulatzeko legea bost urterik behin onetsi behar da batzordean. Bost urte horietako lehenengo kupoa hurrengo lau urteetakoa kalkulatzeko oinarri gisa erabiltzen da. Horrela, ondorengo urteetan kupoa diru-bilketa edo transferentzien aldaketei moldatzen zaie, baten bat izan bada, beti oinarri gisa kalkulaturiko lehenengo urtekoa erreferentzia izanez. Modu horretan, kupoa zehazteko azken legea abuztuaren 37/1997 Legea izan da, eta horren bitartez kupoa kalkulatzeko metodologia 1997-2001 epealdirako ezarri da. Lehenengo urtean, hau da, 1997an, doikuntzak egin ondoren, EAEk Estatuari ordaindu behar izan zion kupo likidoa 684,59 milioi eurokoa izan zen, eta 2000. urtean 865,27 milioi eurokoa.

Dena den, kupo likidoa baino lehenago, kupo gordina kalkulatzen da. Arestian esan dugunez, lehendabizi, Estatuko aurrekontuak oinarri hartuz, Estatuak bere gain harturiko eskuduntzen gastuak batzen dira, eta hortik %6,24 eta %1,6 da ordaindu behar dena. 1997an kalkulu hori egin ondoren, EAEko kasuan, 4.690,39 milioi euro ordaindu behar ziren. Baina ondoren, doikuntzak eta konpentsazioak egin behar dira, Estatuak euskal lurraldeetan jasotzen dituen zergen kontura, eta, kenketa bat egiten da; hau da, aurretik Estatuak kobraturiko partea kentzen da. Horrela, beste doikuntza batzuk egin ostean, kupo likidoa kalkulatzen da, hots, Estatuko Ogasunean sartu beharreko diru-kopurua. Eta bi kupoen artean nahiko desberdintasun handia dago, Estatuak hemen batzen duena nahiko kantitate handia delako.

Nafarroako kasuan, 1997an Hitzarmen ekonomikoan aldaketak sartu zituzten, nafarrek eskumen berriak bereganatu baitzituzten (Nekazaritza-Ganbarak, Lanbide-Heziketa okupazionala, etab.) eta tributu itundu berri batzuk onartu ziren; beraz, finantza-fluxu berriak sortu ziren. Hori dela eta, 1998an Nafarroak 317,36 milioi euro ordaindu behar izan zizkion Administrazio Zentralari ekarpen likido modura.

Kasu bietan, hitzartutako aldaketek eragina izan zuten hitzarmen eta itun ekonomikoetan Estatuari ordaindu behar zioten zenbatekoan. Dena den, legeetan ezartzen diren zenbatekoak behin-behinekoak dira, eta Estatuko Ogasunean sartu arren, urtea bukatu ondoren, behin betiko zerga-bilketaren emaitza ezagutu eta gero, azken doikuntzak egiten dira.

b) Horrez gain, badaude beste doikuntza batzuk, garrantzitsuenetarikoa Gizarte-Segurantzaren Kotizazioak izanik. 1988tik aurrera, EAEk *Insalud* (geroztik *Osakidetza*) eta *Inserso*ren eskumenak jaso zituen; eta Nafarroaren kasuan, 1991etik aurrera. Hori dela kausa, Estatuak Gizarte-Segurantzaren kutxa bakarrean bildutako giza kotizazio guztietatik portzentaje bat transferitzen die gastu horiek finantzatzeko.

c) Bestalde, BEZaren doikuntzengatik diru-kopuruen transferentzia batzuk egiten ditu Estatuak bi erkidegoetan. Aduanetako BEZaren kasuan adibidez, Estatuak biltzen ditu zergak, baina horien parte bat EAEri eta NFEari dagokienez, doikuntzak egin behar izaten dituzte.

d) Lurraldearteko Konpentsaziorako Fondoa (LKF) Espainiako estatuak ezarritako lehentasunei jarraituz, Estatuko eskualde txiroekiko elkartasuna adierazteko sorturiko fondo horretan kupoaren bitartez parte hartzen dute EAEk eta NFEk. Horrela, Estatuak Fondo horretan ezartzen duen diru-kopurutik bi euskal erkidegoek %6,24 eta %1,6 jarri behar dute, hurrenez hurren. Hala ere, Hego Euskal Herriak fondo horretatik ezer jasotzen ez duenez, behin-behineko konpentsazioa ezarri zen, kupoan egindako deskontu baten bitartez.

e) Tokian tokiko Ogasunak zerga ez itunduetan eta beste transferentzia batzuetan parte hartzen du, eta Estatuak dagokiena ordaintzen die.

Laburbilduz, Euskal Administrazioek Estatuari egiten dioten ekarpen nagusia kupo edo ekarpenaren bidez egiten dute; batetik, Estatuak bertan eskumen esklusibo batzuk mantentzen dituelako, eta, bestetik, autonomia-erkidego hauei dagozkien zerga batzuk biltzen jarraitzen duelako. Estatuak egiten dituen gastu horiei "Zama ez-itunduak" deritze. Beraz, kupoa da EAEk eta NFEk Estatuari egindako ordainketa, azken honek zama ez-itunduengatik izandako gastuak finantzatzeko eta beste lurralde batzuei elkartasuna adierazteko.

12.4. BI ADMINISTRAZIOEN ARTEKO GATAZKAK EKONOMIA-ITUNA ETA HITZARMENA DIRELA ETA[3]

Administrazio Zentralaren eta EAEko administrazioaren arteko lehenengo desadostasun nabaria, erabilitako egozpen-indizeagatik izan zen. Horrela, 1981ean Ekono-

3. Atal honen zatirik handiena Zubiri (2000): *El sistema del Concierto Económico en el contexto de la Unión Europea* liburuan oinarrituta dago.

mia-Ituna indarrean sartu zenean, Estatuko gastu guztien %6,24 onartu zen ordaintzea, baina behin-behinekotasunean murgilduta. Gai horren inguruko eztabaidak 1986ra arte iraun zuen, eta hortik aurrera indizea mantentzea erabaki zuten; eta gaur arte horrela iraun du. Orain ikusi behar dugu Itunaren 2001eko berrikusketaren ondorioz zer gertatzen den.

Zergen araugintzari dagokionez, 80ko hamarkadaren bukaera arte euskal arau fiskalak eta Estatuarenak oso antzekoak izan ziren. Desberdintasun nabari bakarrak Sozietateen gaineko zergan Arabak eta Gipuzkoak sarturiko zenbait pizgarri fiskal izan ziren. 90eko hamarkadan zehar desberdintasunak zabaldu eta orokortu egin dira hiru lurralde historikoetan. Oro har, neurri desberdinak aplikatu dira Sozietateen gaineko zergan eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zergan, eta Espainiako gainerako lurraldeekin konparatuz, zergen murriztapena sorrarazi dute.

Sozietateen gaineko zergaren kasuan, Lurralde komunean baino pizgarri eta hobari fiskal handiagoak ezarri dira, inbertsioak eta lanpostuak sortzen dituzten enpresen mesedetan. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko zergaren kasuan, senide zuzenen arteko oinordetzak eta dohaintzak zergetatik aske utzi dituzte, eta gainerako kasuetan jaitsi egin dira tipoak. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kasuan, 1997ko erreformara arte lurralde historikoen araugintza-ahalmena nahikoa txikia zenez, aukera gutxi zeuzkaten foru-aldundiek arauak ezartzeko. Dena den, errenta profesionalen eta enpresarialen kasuetan zenbait hobari fiskal ezarri ziren, eta kuotaren gaineko kenketa pertsonalak sartu ziren.

Horrela bi garai bereiz ditzakegu: 1988ra arte eskumen fiskalak nahiko gutxi garatu ziren, eta, beraz, ia gatazkarik gabe ezarri ziren neurriak. Hala ere, urte horretatik aurrera, administrazioen arteko gatazkak areagotu egin ziren, eta hamarkada batean Estatuko administrazioak lurralde historiko bakoitzeko 30na arau fiskal baino gehiagoren kontrako errekurtsoak aurkeztu ditu. Helegite gehienak Sozietateen gaineko Zergari buruzkoak badira ere, beste zerga batzuei ere eragiten diete. Helegite horiek erantzunak sortzen dituzte, eta horrela denboran asko luzatzen dira konponbideak. Normalean EAEko Epaitegi Gorenean hasten da prozedura, eta bere erabakia Auzitegi Gorenean aurkezten du galtzaileak, zeinek erabakia ere apelatzen duen eta horrela amaitu ohi da prozedura. Prozesu honen luzapena oso handia da eta 1999ko bukaera arte Auzitegi Gorenak bakarrik bi epai eman ditu 1988ko foru-arauen kontrako helegiteen erantzun gisa. Beraz, 11 urte behar izan dituzte auzi bi horiek konpontzeko, eta oraindik 100 baino gehiago falta dira.

Epaitegien arteko desadostasunak nabariak dira. Adibidez, 1998an Auzitegi Gorenak baliogabetu egin zituen Bizkaian 1988an ezarritako pizgarri fiskalak, nahiz eta aurretik EAEko Epaitegi Gorenak zuzenbidezkoak arautu. Tartean, 1993an Europako Batzordeak pizgarri horiek Estatuko laguntzatzat kontsideratu zituen Espainiako estatuan zeuden enpresa ez-egoiliarrak baina Europako Batasuneko egoiliarrak zirenak, ezin izan zituztelako laguntza hauek jaso nahiz eta EAEn

edo NFEn kokaturik egon. Garai horretan enpresa atzerritarren zergak Estatuak soilik arautu zitzakeen, eta, beraz, arau foralak ezin zitzaizkien horiei hedatu. Horren ondoren, Espainiako Estatuko Auzitegi Gorenak epai hori erabili du zenbait ebazpen kontraesankor eta eztabaidagarri emateko.

Hemen ezin gara luzatu gatazka horien azterketan, oso luzea izango litzatekeelako; baina esan behar dugu, administrazioen arteko gatazken oinarria Ekonomia-Itun eta Hitzarmenaren kontraesankortasunean eta zehaztasun-faltan datzala. Alde batetik, Lurralde historikoei autonomia osoa eskaintzen die zenbait zerga arautzeko, baina bestetik, baliabideen esleipena ez distortsionatzera behartzen ditu, edo kapital- eta lan-indarraren mugimendu askea —hots, lehiakortasuna— ez eragoztera. Batzuen iritziz, edozein desberdintasunek distortsionatu edo oztopatu egiten du lehiakortasuna edo faktoreen mugimendu askea. Horrela, Estatuak helegitea aurkeztea erabaki ohi du, arauen batasunaren kontra doan edozein neurriren aurrean.

Areago, batzuetan auzi horiek Europako Elkarteko Auzitegietara eraman dituzte, eta, beraz, denboran gehiago luzatu dira. Horrela, 1993an Europako Batzordeak txosten bat atera zuen 1988an Lurralde Historikoek onartutako pizgarri fiskalen auziari buruz. Ondoren, EAEko Epaitegi Gorenak hala eskatuta, Luxenburgoko Auzitegiak 1993ko Inbertsioetarako premiazko laguntzari buruzko txostena ere atera berri du, eta Europako Batzordeak arau-hausteko espediente bat ireki du 1996 eta 97an emandako zenbait pizgarri fiskalen kontra. Beraz, euskal arau fiskalak bost instituzioetan epaiturik daude: hiru auzitegitan eta bi batzordetan, eta horrek zalantza asko sortzen ditu horien egonkortasunaren inguruan, ziurtasun juridikoaren gabezia izugarria adieraziz, eta Estatu eta EAEren arteko tentsioa areagotuz. Bestalde, Europako Batasunaren baitan ez da batere aurrerapenik lortu Estatuen arteko harmonizazio fiskala lortzeko; harmonizazio nahiko orokorra lortu duten zeharkako zergak dira salbuespena. Beraz, ez da guztiz zuzena Hego Euskal Herriaren arauen kontra jotzea, Estatu batek neurri bera indarrean jartzean bere kontra ezer egiten ez dutenean. Izan ere, kontraesan horiek gainditzeko kontsentsu politikoa behar da, eta hori ez da lortu oraindik.

12.5. SARREREN BARNE-BANAKETA

Aipatu dugunez, Foru-Ogasunek zerga gehienak biltzen dituzte, baina bildutako diru-kopuru hori ez da erabiltzen lurralde historikoen gastuak finantzatzeko soilik. Lehendabizi, Estatuari kupoa ordaindu behar diote, eta ondoren, Eusko Jaurlaritzari eman behar dioten zatia zehaztu behar dute; izan ere Jaurlaritzak Erkidegoan foru-erakundeek egiten dituzten gastu guztien %60 baino gehiago bere esku ditu (Zubiri, 2000: 68).

Banaketa hori adosteko, Euskal Finantzen Kontseilua osatu dute, bitariko batzordea dena (Eusko Jaurlaritzak hiru kide ditu bertan eta lurralde historiko bakoi-

tzak bana; beraz, hiruren artean beste hiru, hain zuzen). Bertan baliabideen banaketa-mota bi egiten dira: alde batetik, banaketa bertikala, hau da, Eusko Jaurlaritzari dagokion zatia zehazten dute; bestetik, banaketa horizontala, eta bertan Jaurlaritzari eman beharreko diru-kopurua finantzatzeko foru-aldundi bakoitzaren ekarpena zein izan behar den finkatzen da.

Banaketa bertikala: Foru-Ogasunek bildutako diru guztia kontuan hartuz, kupoari dagokiona kendu ostean, Eusko Jaurlaritzari dagokion zatia zehaztu behar dute. Horretarako Ekarpen-Legea onesten da bost urterik behin; momentuz, azken legea 1996koa izan da. Jaurlaritzari ordaindu beharreko kopurua bi multzotan banatzen da: ekarpen orokorra eta ekarpen berezia. Ekarpen orokorra bildutako diruaren %67koa da. Hau da, kupoa kendu ondoren, bildutako diru guztiaren bi herenak Jaurlaritzak kudeatzen ditu.

Horrez gain, ekarpen bereziak eman behar dizkiete erakunde komunei. Zenbateko horiek finkoak dira, hots, ez dira ehunekotan zehazten, eta horien bitartez, Ertzaintza, Osakidetza eta zenbait politika (ekonomia-plangintza, sustapen- eta garapen-politikak...) finantzatzen dira.

Banaketa horizontala: Behin Eusko Jaurlaritzari egin behar dioten ekarpena zehaztu ondoren, banaketa bertikalaren bidez, kontseilukoek lurralde historiko bakoitzak jarri behar duen zatia erabaki behar dute. 1999an indarrean izandako ekarpenak hauexek izan dira: Arabak %15,64, Bizkaiak %51,76 eta Gipuzkoak %32,6.

Banaketa horizontalaren ondorioz, zenbait desoreka sor daitezke, lurraldeen errenta edo ahalegin fiskala kalkulatzean errealitateko datuak erabiltzen ez direlako; beraz, desoreka horiek sorturiko desadostasunak konpontzeko, Elkartasun-Fondoa sortu dute lau administrazioen artean.

Lurralde historikoen barne-banaketa: Azkenik, kupoa eta Eusko Jaurlaritzari eman beharreko zatia zehaztu ondoren, gainerakoa lurralde bakoitzeko Foru-Aldundiaren eta udalen artean banatu behar da. Gaur egun, gelditzen den zenbateko horren %53, gutxienez, udalentzat da, eta %47, gehienez, aldundientzat. Oro har, 1999an bildutako %80,9 banatu zen hiru administrazio-maila horien artean. Gainerakoa, hau da, %19,1, Foru-Aldundiak berak kudeatzeko geratu zen.

Udalen finantziazioari dagokienez, erdia beren zerga eta prezio publikoetatik lortzen dute; beste erdia, aldiz, tributu itunduen banaketaren bidez, hau da, foru-ogasunetatik. Banatu beharreko diru hori irizpide batzuen arabera egiten da, eta irizpideak ezberdinak dira lurralde historiko batetik bestera. Zenbait kasutan ekarpenaren zati bat egitasmo zehatzekin loturik dagoen bitartean, bestetan kopuruak ez dauka zereginekin loturarik, eta udalek autonomia handiagoa dute nahi dutena egiteko.

Nafarroako kasuan, foru-aldundi bakarra denez, lehendabizi kupoa edo Estatuari emandako ekarpena kentzen dio, eta, ondoren, udaletxeei emango dien partea; azkenik, bere kudeaketarako da gelditzen dena.

12.6. AURREKONTU PUBLIKOEN EZAUGARRI OROKORRAK

Sektore publikoaren aurrekontua, epealdi jakin baterako, ogasun publikoaren plangintza ekonomikoaren kontabilitateko adierazlea da, aurreikusitako gastuak eta gastu horiek ordaintzeko estimaturiko sarrerak bilduz. Aurrekontuak gobernuaren lehentasunak adierazten ditu —hots, boterean dagoen talde politikoaren interes nagusiak islatzen ditu—, eta baita herri-administrazioak dituen baliabideen mugak ere.

Euskal administrazio publikoen sarrerek eta gastuen bilakaerak lotura zuzenak izan dituzte: sarreren ikuspegitik, kontzertu eta hitzarmen ekonomikoekin, eta gastuen aldetik, eskuduntzen transferentziekin. Horrela, eskumen garrantzitsuenak jaso ziren urteetan —hezkuntza- eta osasun-arlokoak, bereziki—, aurrekontuen gastuak eskumenen garrantziaren maila berean igo ziren. Gainerako urteetan, aurrekontuen bilakaera nahiko *kontinuista* izan da: gastu arruntak nagusiak izan dira (administrazio eta arlo desberdinetako pertsonalerako eta funtzionamendurako gastuak), eta kapital-gastuetan aldaketa gehiago izan dira, lehentasun eta abagune ekonomikoaren arabera. Aldaketa horien artean honako gastuetan emandakoak daude: inbertsio zuzenak —bereziki azpiegituretan— eta beste eragileek egindako inbertsioak finantzatzeko egindako transferentziak, besteak beste.

Adibide moduan, 1998an lau herrialde historikoen sektore publikoaren aurrekontu *kontsolidatua* edo *finkatua* 9.184,33 milioi eurokoa izan zen, euskal BPGaren %22,6 eta Nafarroako aurrekontua guztiaren %20,8 izanik. Jarduera publikoaren pisua handiagoa izan ohi da Nafarroan EAEen baino: Nafarroan BPGaren %24koa da, eta EAEn %22,4koa.

12.6.1. Sarrera publikoen osagaiak eta bilakaera[4]

Sarrera publikoen bilakaera abagune ekonomikoen arabera aldatzen da, eta administrazioek indarrean jartzen dituzten politika fiskalek ere eragina dute joera horretan. Zentzu honetan, euskal administrazioen[5] —hau da, Eusko Jaurlaritzaren eta lau foru-aldundien— sarrera publiko gehienak foru-aldundiek bildutako zerga itunduei dagozkie. 1998an, adibidez, lau foru-aldundiek aurrikusitako sarrera guztien %86 osatu zuten zerga itunduek, hau da, lau herrialdeen BPGaren %19,3. Kontuan hartu behar dugu, dena den, presio fiskal hori zenbatzean ez dugula sartu ez administrazio zentralak Hego Euskal Herrian batzen dituen zergak, ezta tokian tokiko administrazioenak ere. Beraz, benetako presio fiskala handiagoa da.

4. Atal hau Manu Robles-Arangiz Institutuak argitaratatuko "Kontzertu eta Hitzarmen ekonomikoen ezkutuko aurpegia. 2000. urte fiskala" (2001) txostenean oinarritu dugu.

5. Toki-erakundeak ez ditugu sartuko, data nahikorik ez dugulako.

Zergetatik aparte, gainerako sarrerak askoz txikiagoak dira, hala kapital eragiketen bidez (inbertsio errealak edo ondasunen salerosketak, etab.) nola beste iturri batzuen bidez (zor publikoaren igoeraren bidez, adibidez) lortutakoak.

Zerga-egitura oso antzekoa da lau herrialdeetan, eta desberdintasun nagusia zeharkako zergaren pisuari zegokion 1998ra arte. Nafarroan, hain zuzen, zeharkako zergen garrantzia handiagoa izan da EAEn baino (%49,9koa eta %44,6koa, hurrenez hurren), lehenengo postuan Balio Erantsiaren gaineko Zerga egonik. Aldiz, zerga zuzenen garrantzia handiagoa izan da EAEn, bereziki Pertsona Fisikoen errentaren gaineko zergarena, eta finantza-eragiketek ere oso pisu nabarmena izan dute, batez ere zorraren ondorioz lorturiko sarrerak; azken horiek 1998ko sarrera guztien %6,1 izan ziren EAEn, eta Nafarroan %1,6 besterik ez.

Hala ere, 1999an desberdintasunak moteltzen joan dira, eta 2000. urtean BEZ izan da zerga nagusia lau lurralde historikoetan. EAEn 2000. urtean 8.041,54 milioi euro jaso dituzte eta NFEn 2.091,13 milioi euro; kasu bietan, BEZ delakoa bildutakoaren %34,7 eta %33,08 izan da, hurrenez hurren; hau da, diru-bilketaren herena pasatxo.

Bigarren lekuan Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zerga daukagu, bilketa osoaren %31,6 eta %30,3 izan dena, EAEn eta NFEn, hurrenez hurren.

Hirugarren lekuan, aurreko zergetatik nahiko urrun, zerga bereziak ditugu: zerga-bilketaren %13,3 izan dira EAEn. NFEko kasuan ez dugu daturik. Zerga berezien artean alkohola, hidrokarburoak, tabakoa, garagardoa, elektrizitatea eta aseguru-primak ditugu. Hidrokarburoak dira zerga berezi horien artean nagusi, %77,15 izan baitira 2000. urtean.

Azkenik, Sozietateen gaineko zerga daukagu, zerga-bilketa guztiaren %11,2 izan dena EAEn eta %14,3 NFEn.

Beraz, azken joerek zerga zuzenen murrizketa eta zeharkako zergen igoera islatzen dituzte. Beraz, pertsona guztiok ehuneko berdinean ordaindu behar ditugun zergak (kontsumorako produktuen gainean kobratzen baitizkigute) gero eta garrantzi handiagoa dute, nahiz eta errentaren disparekotasunak herritarren artean nabariak izan. Aldiz, zerga zuzenek bakoitzaren errenta-maila kontuan hartzen dute; baina, aurrerakoiagoak izan arren, gero eta pisu erlatibo txikiagoa dute.

12.6.2. Gastu publikoaren bilakaera

Gastu publikoaren bilakaeran zenbait ezaugarri aurkitzen ditugu: lehendabizi, nabaria da ezen azken bi hamarkadetan sektore publikoak euskal ekonomian duen garrantzi erlatiboa gorakorra izan dela; bereziki, politika sozialak (hezkuntza eta osasuna, batez ere) eta garraio-azpiegiturak izan dira gastu publikoaren lehentasun nagusiak.

Horrela, baliabide gehienak "Gizarterako ondasun publikoen ekoizpena" dei genezakeen arlora bideratzen dira; hau da, nagusi dira bizi-kalitatea hobetzera zuzentzen diren gastuak, hezkuntza- eta osasun-arloetakoak garrantzitsuenak izanik. Gastu-mota horrek EAEko Jaurlaritzaren aurrekontuaren %64,7 bildu zuen 1998an, eta NFEko kasuan gastu guztiaren %50,2. Horixe izan da bi aurrekontuen ezaugarri nagusia bi eskumen horiek eskuz aldatu zirenetik.

EAEren kasuan, lehenengo postuan Osasun Saila dago, gastu guztien %31,7ko portzentajearekin; ondoren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza Saila dago, aurrekontuaren %27,5rekin. Nafarroako kasuan, 1999an, Osasungintzak aurrekontuaren %21 erabili zuen eta Irakaskuntzak eta Kulturak %18 (ikus 12.1. irudia).

Dena den, ezin da ahaztu, bi administrazio autonomiko hauek eskumen mugatuak dituztela eta badaudela eskumen garrantzitsuak Administrazio Zentralaren esku daudenak; horiek kupoaren bidez finantzatzen dira. Hori izan da arrazoi nagusia aurrekontu hauen funtsezko izaera soziala eta birbanatzailea dela esateko.

12.1. irudia: Gastu publikoen egiturak NFEn eta EAEn

1999ko Gastu Publikoaren egitura NFEn



Iturria: Aurrekontuak.

2000ko Gastu Publikoaren egitura EAEn



Iturria: Aurrekontuak.

EAEn, hirugarren mailan Barne Saila dago; arlo horri gastu guztiaren %8,5 dagokio. Hurrengoa Industria, Nekazaritza eta Arrantza Saila da, %6,1rekin. Sailkapen hau bai 1998an izandako banaketa eta bai azken urteotako banaketa izan da.

Nafarroako kasuan, hirugarren lekuan Ekonomia eta Ogasun Saila dago %20 banatzen duena, eta jarraian Lurralde Antolaketa, Ingurugiroa eta Herri-lanak daude %10rekin, 12.1 irudian ikus daitekeenez.

Alde ekonomikotik begiratuta, hau da, baliabide publikoak zertan gastatzen diren aztertuz, urtez urte nabaria da "gastu arruntek" duten garrantzia, bai EAEn bai NFEn. 1998an, gastu guztien %78,8 izan ziren. Gastu horien artean, lehen postuan transferentzia arruntak daude, gastu guztien %40 baino gehiago horretara bideratzen baita. Ondoren, pertsonalari dagozkion gastuak daude, %18,8rekin. Atal honetan, bi administrazioen artean desberdintasun nabaria dago, Nafarroako administrazioaren kasuan pertsonalaren gastuak gastu guztien %28,1 izan ziren 1998an, eta EAEko administrazio nagusian, aldiz, %16,4.

Horrez gain, kapital-eragiketen ikuspuntutik —hau da, inbertsioak gehi inbertsioak egiteko dirulaguntzak—, desberdintasunak daude bi erkidegoen artean. Nafarroako kasuan baliabide gehiago bideratzen dira kapital-eragiketak egitera: gastu guztien %20,4, hain zuzen, eta EAEn %14,6. Finantza-eragiketen kasuan, aldiz, EAEn baliabide gehiago erabiltzen dira helburu horrekin (gastu guztien %6,6) Nafarroan baino (gastuen %1), izan ere EAEko administrazioen zorpetze-maila askoz altuagoa delako.

EAEko administrazioak NFEkoak baino joera handiagoa erakutsi du zor publikoa metatzen. Dena den, 1993tik aurrera, Maastricht-eko Ituna indarrean jarri zenetik, herstura eta aurrekontu orekatua lortzeko ahaleginak handitu dira administrazio bietan, bereziki EAEko kasuan; hain zuzen, defizit publikoaren murrizketa gehi zirkulazioan zegoen zor publikoaren amortizazioa gero eta arinago egiten ari dira erkidego horretan.

Aurrera begira, aurrekontuen oreka lortzeko dagoen joera hori (gutxieneko defizita, zerorantz hurbilduz) zabaltzen ari den neurrian, Europako Ekonomia- eta Moneta-Batasunaren prozesuan murgilduta dauden EBko estatu kide gehienak, autonomia-erkidegoak barne, gastu eta defizit publikoen aurreikuspenak gero eta gehiago murrizten ari dira, eta joera hori Hego Euskal Herrian ere islatzen da.

BIBLIOGRAFIA

Atxabal, A. (2000): *Ekonomi Ituna edo kontzertua*. 28. zb. IVAP.

Bakaikoa, B (1992): *Autonomi Ogasunak eta Europako Komunitateko Aurrekontuak,* Udako Euskal Unibertsitatea, Iruñea.

Beldarrain, M. (1998): *El Concierto Económico y su disposición adicional 2*, IVAP.

Comisión Mixta del Cupo (1997): *Acta n° 1/1997,* Vitoria-Gasteiz, 1997-05-27an.

Euskadiko Kutxa (zenbait urte): *Economía Vasca*, Urtekaria.

Manu Robles Arangiz (2001): "Kontzertu eta Hitzarmen ekonomikoen izkutuko aurpegia. 2000. urte fiskala", ELAko Azterketa Bulegoak egina.

Nafarroako Gobernua (zenbait urte): *Aurrekontu orokorren memoriak*.

Loperena, D. (1984): *Aproximación al régimen foral de Navarra.* Eskuliburu bilduma 1, IVAP.

Zubiri, I. eta Vallejo, M. (1995): *Un análisis metodológico y empírico del sistema del Cupo*, Fundación BBV.

Zubiri, I. (1997): "La concertación de impuestos tras la revisión del Concierto Económico entre el Estado y la Comunidad Autónoma del País Vasco", *Ekonomiaz,* **38**.

Zubiri, I. (2000): *El sistema de Concierto Económico en el contexto de la Unión Europea*, Círculo de Empresarios Vascos.

13. Kanpo-sektorea

Mikel Zurbano

13.1. NAZIOARTEKO TESTUINGURU EKONOMIKOA

Munduan gaur egun gauzatzen ari diren eraldaketa ekonomiko sakonek aurpegi ugari dituzte. Herrialdearteko ekonomiaren behatokitik globalizazio ekonomikoak laburbiltzen du azkenaldian ekonomien nazioarteratzeak lortutako mailaren sakontasuna. Hainbat egilek globalizazio ekonomikoaren terminoa desegokitzat jo duten arren[1], ekonomiaren nazioarteratzearen prozesu historikoaren jarraipena izaki, laurogeiko eta laurogeita hamarreko hamarkadetan nazioarteko esparruan hezur--mamitzen joan diren osagai desberdinen adierazpentzat har daiteke globalizazioa.

Jakina da herrien arteko erlazio ekonomikoa aspaldiko gertakizuna dena eta ekonomiaren arlo desberdinetan gauzatzen dena, garaian garaiko indar desberdinez gauzatu ere. Horietako arlo bat merkataritza da. Hain zuzen, nazioarteko merkataritza-harremana ekonomia-eremu diferenteen arteko lotura ekonomiko bistakoena eta antzinakoena da. Azken mendean, gerrarteko sasoiaren salbuespenarekin, nazioarteko merkataritzak nabarmen egin du gora. Merkataritzaren liberalizazioak izan ohi duen predikamendua dela medio eta II. Mundu-Gerraren ostean GATT hitzarmena lagun, nazioarteko merkatuak gero eta indar handiagoa irabaziz joan dira. Ez da harritzekoa, bada, enpresek ekoizten dutenetik gero eta handiagoa izatea nazioarteko merkatuetan salerosten den zatia; edo, atzekoz aurrera ipiniz, txikiagoa izatea nazio- edo barne-merkatuetan elkartrukatzen dena[2]. Merkataritza-harremanen sakontzea are gehiago indartzen dute integrazio ekonomikorako eremuen sorrerek eta hedapenek, izan ere Europako Batasunean zein NAFTA (Ipar Amerikako Merkataritza Libreko Hitzarmena) eremuan merkataritzaren barne--oztopoak ezabatuz, bizkortu egin dira herrialde partaideen arteko merkataritza--elkartrukeak. Joera horrek zuzeneko zein zeharkako eraginak ditu naziozgaindiko gainerako hartuemanetan, hala nola enpresarteko nazioarteko lehian, nazioarteko finantza-higikortasunean edota teknologia-transferentziaren bizkortasunean. Baina, ukaezina da ondasun zein zerbitzuen elkartrukeetarako nazio-merkatuek oraindik duten garrantzia, batez ere elkartruke horien zenbatekoari erreparatuz gero.

1. Ikus, besteak beste, Hirst eta Thompson (1996) edo Boyer eta Drache (1997)
2. Munduko Bankuaren urteroko txostenetan egiazta daiteke informazio hau.

Nolanahi ere, gaur egungo munduko ekonomian globalizazioaren ideia errotzeko eragin erabakiorra duen joera bat, kapitalen erabateko liberalizazioa da, nazioarteko merkatuetako higikortasun librearen gorengo ikurra izateraino helduz. Horrelaxe da, zeren laurogeiko hamarkadatik aurrera Estatuek kapitalen naziozgaindiko joan-etorrien gainean historikoki izandako kontrola galdu baitute. Bestalde, nazioarteko finantza-sistema nolabait ikuskatzeko funtzioa duen erakundea, Munduko Bankua, kapitalen mugimendu librearen aldeko eragile sutsuenetarikoa da, eta, ondorioz, herrialdeen arteko ibilerei ipinitako trabak ezabatze aldera jo ohi du erakunde horrek. Geroztik, finantza-merkatuak ia guztiz liberalizatuak daude, eta, beraz, kapitalek herrialdearteko mugikortasuna libreki gauzatzeko ahalmena dute. Kapital-merkatuen integraziorako urratsak bideratzeko, komunikazio-oinarriak egundoko garapenaren testuinguruan gertatzen ari dira. Dinamika horren azken erakuslea balioen nazioarteko merkatu desberdinen bategitea izan da.

Nazioarteko merkataritzaren susperraldiarekin gertatzen zen moduan, finantza-globalizazioak ere bistako eraginak ditu: esate baterako, produkzioaren nazioarteratzearen biziagotzea. Nazioartean diharduten enpresa produktiboek, eragozpenik gabe egin ditzakete onura gehien eskainiko dieten lurraldeetarako lekualdaketak, betiere beren errentagarritasuna gehitzeko asmoz. Halaber, herri desberdinetan lortutako mozkinak aberriratzeko arau trabatzailerik gabe daude gaur egun enpresa transnazionalak; aitzitik, atzerriko kapitalaren ezarpenari araurik ipintzekotan, inbertsiorako erraztasunak bideratzeko edo laguntzak eskaintzeko izaten da. Ondorioz, enpresa handien produkzio-estrategia ekonomia-eremu desberdinetan kokatzean datza, herri bakoitzak eskaintzen dituen tokian tokiko hobari zehatzez jabetzeko. Estrategia horiek hedatu eta orokortu egin direnez, munduko-mailako jarduera produktiboaren integrazio gehikorra ekarri dute eta, horrekin batera, herrialdeetako espezializazio produktiboaren areagotzea.

Ekonomiaren globalizazioak nazioarteko harremanen liberalizazioa dakar, eta, oro har, herriarteko fluxu ekonomikoen sakontzea. Hala ere, dinamika liberalizatzaile horrek badu salbuespenik: aipagarria da, batez ere, lan-eskuaren arlokoa. Lan-faktorearen gaineko nazioarteko politika oso urrun dago kapital-faktoreari atxikitzen zaion politika liberaletik. Izan ere, kualifikazio handiko profesionalak ez ezik gainerako langileek muga-traba eta orotariko oztopoak jasan behar izaten dituzte herrialdez aldatzeko, batik bat hegoaldetik mendebalderako ibilbidea egitekotan. Etorkinen gaineko politika murriztaileak oso hedatuta dauden arren, lanaren arloan ere herrialdearteko joan-etorrien areagotzea oso nabarmena izan da azken hamarkadetan.

Laburbilduz, nazioarteko ekonomian globalizazio liberala gailendu da. Hartara, kapitalaren metaketarako krisi fordistaren ostean garapen-eredu zaharberriturako oinarriak ezartzen ari diren honetan, globalizazioa da nazioartean gertatzen ari den dinamika ulertzeko giltzarria.

Dena den, ezin da ahaztu globalizazioak dakarren ziurgabetasuna eta arriskuaren aurrean erantzun desberdinak ematen ari direla dagoeneko, esaterako, integrazio kontinentalen dinamikak indarrean jarriz eta hedatuz. Nahiz hurrengo kapituluan aztertuko den, aurrera dezagun ezen euskal ekonomiaren kanporako estrategia oro Europako Batasunarekiko atxikipenak baldintzatzen duela ezinbestez. Ipar Euskal Herriak Europako Batasuna (EB) bere sorkuntzatik atxiki bazuen, Hego Euskal Herriak 1986ra arte itxaron behar izan zuen horretarako, Estatu Espainiarra eta Portugal bertaratu ziren arte, hain zuzen. Horrela, Europako Batasuna da gaur egun euskal ekonomiarentzat integrazio ekonomikorako naziozgaindiko esparrua, eta baita araugintza ekonomikorako gorengo eremua ere. Hots, EB da ekonomiaren globalizazio-prozesuaren eskualdeko adierazpena eta euskal ekonomiaren kanpo-sarbiderako esparrua.

Europako Batasunak ekonomia- eta moneta-konbergentzia gauzatu du, horretarako neurri liberalak eta monetaristak indarrean ipiniz eta bestelako neurri sozialak alboratuz. Merkatu bakarra eta moneta bakarra medio, ondasunak eta zerbitzuak zein produkzio-faktoreak libreki mugi daitezke Europako Batasuneko merkatu-eremuan, eta salerosketak zein finantza-eragiketak txanpon bakarrean egiten dira. Erregulazioaren aldetik ere, Bruselak ditu hainbat politikatarako eskumenak, hala nola merkataritza-arlokoak, kanpo- eta segurtasun-politikak, industria- eta lehia-politikak, nekazaritza-politika bateratua, ingurumenarena eta azpiegiturena, etab. Esan daiteke, gaur egungo ekonomia-politikaren ardatz nagusiak Bruselatik hartzen direla, politika fiskala eta soziolaboralaren salbuespenekin. Testuinguru horrek izugarrizko eragina du euskal ekonomiaren bilakaeran, gutxienez bi alorretan: bertako eragile ekonomikoak eszenatoki berria berenganatu dute eta lankidetza- zein lehia-harremanak gero eta gehiago gauzatzen dituzte kontinentera begira; gainera, dagoeneko ikusgarria da euskal ekonomiaren kanpo-fluxuek Europako Batasunerako duten berrorientazio indartsua.

13.2. MERKATARITZAREN LIBERALIZAZIOA

Nazio-esparruko merkatua gainditzen duena izaki, berezko esparru honetan egiten diren salerosketek ez bezala, muga-oztopo andana pairatu behar izaten du kanpo-merkataritzak. Oztopo edo hesi horiek zorrotzagoak edo malguagoak suerta daitezke, garaian garaiko ekonomia-politikek eta barneko ekonomia-interesek marrazten duten lerroaren arabera. Alta, merkataritza-politikak babesa handitzearen ala liberalizazioa bultzatzearen aldeko hautua egin beharrean egoten dira. Beraz, herri bateko aginteak nazio-merkatuan atzerriko salkariak sartzeko oztopoak murriztea erabakitzen duenean, merkataritzaren liberalizazioa gertatzen da. Horrela, liberalizazioaren xedea nazio-merkatuko prezio-erlazioa nazioarteko merkatuetako prezio-erlaziora hurbiltzea da, horretarako merkataritza-politika erabiliz.

Hego Euskal Herria 1993ra arte Espainiako barne-merkatuan eta ondoren Europako Batasuneko merkatuan integratuta egonik, bertako kanpo-merkataritzaren irizpideak bi esparru zabalago horietan hartutako merkataritza-politiken araberakoak izan dira. Espainiako merkataritza-politikari dagokionez, 1950eko hamarkadako bukaera arte babesgintza zen merkataritza-irizpide nagusia. Gaur egun, Europako Batasuneko merkataritza-politikak liberalizazioa du oinarri eta irizpide, eta horretara makurtu behar dira Euskal Herriko merkatuko merkataritza-arauak. Horretarako, azken lau hamarkadetan merkataritzaren liberalizazioa eta irekitze--prozesu bizkorra suertatu da euskal ekonomian ere, nazioarteko liberalizazioarekiko homologazioa eskuratuz.

1950eko hamarkadan indarrean zeuden merkataritza-hesi gogorrak leuntzen hasi ziren 1959ko Egonkortze-Planarekin. Plan horretan, babesa murrizteko bideak eta irizpideak xehetu ziren eta, aldi berean, esportazioak sustatzeko sistema konplexua gauzatu zen. Alabaina, neurri liberalizatzaile haiek gorabehera handiak izan zituzten interes-talde desberdinen presioak tarteko, eta, finean, Europako Elkarteetan integratu aurreko hiru bulkada liberalizatzaile indartsu eta definitiboenak nazioarteko erakundeen itzalpean hartu ziren. Horietako lehena, arestian aipatutako 1959ko hitzarmena izan zen, zeinak Nazioarteko Moneta-Fondoa eta OECD izan zituen babesle. Ondoren, 1970ean Europako Elkartearekin Espainiak sinatutako Lehentasunezko Akordioa etorri zen, eta, azkenik, 1979an, EFTArekin eginiko hitzarmena eta GATTek Tokioko Itzulian hartutako ebazpenen onarpena.

Horren guztiaren emaitza da, Europako Ekonomia Elkartean integratzeko Madrilgo gobernuaren erabakiak ezarritako betekizunak ekarri zuen prozesu liberalizatzailearen aldeko erabateko atxikipena. Atxikipenaren urtean bertan, 1986an alegia, EEEko gainerako herriekiko merkataritza-hesiak eraisteko trantsizio-epea hasi zen, eta 1993rako barne-mugasariak eta oztopoak bertan behera geratu ziren. Halaber, EEEaz kanpoko hirugarren herriekiko mugasari eta merkataritza-politika bateratua ezarri behar izan zuen Espainiako gobernuak, betiere apalagoa zen EEEko mugasari-maila bera onartuz. Hein berean, Espainiako merkatuak bere ateak ireki behar izan zizkien EEEak sinatutako lehentasunezko akordioa zuten eremu guztietatik zetozen produktuei, hala nola EFTAtik, Lomeko Konbetzioa sinatu zuten herrietatik, Lehentasun Orokortuen Sistemaren eremutik eta Mediterraneoko herrietatik. Liberalizazio orokor honen ondoren, inportazioen hiru laurdenak ezelako mugasaririk gabekoak izatera igaro ziren, barne-merkatuan bertako produktu gehienek prezio-lehian izandako babesaren abantaila historikoa ezerezean geratuz.

Bestalde, merkataritzarako oztopoak leuntzeak esportazioei emandako laguntzen nolakoa aldatzea ere ekarri zuen. Horretarako zegoen instituzio-eredua eraldatu egin zen, Europako Batasuneko eredura hurbiltzeko. Horrela, esportazioak sustatzeko banatzen ziren dirulaguntzen nagusitasuna ahuldu egin zen, eta, horren ordez, zeharkako laguntzak bideratu ziren, batik bat, esportazioentzako zerbitzu

osagarrien garapenarekin zerikusia zutenak. Horien artean azpimarratzekoak dira esportatzaileei eskainitako aholkularitza eta informazioa, eta batez ere prestakuntza-saioak. Era horretan, esportazioak sustatzeko mekanismoen aurpegi babestailea ezkutuago mantentzea lortzen da.

13.3. KANPO-MERKATARITZAREN BILAKAERA OROKORRA HEGO EUSKAL HERRIAN

Euskal ekonomiak nazioartean duen kokaera eta sarbidea ulertzeko, bertako eragile ekonomikoek kanpokoekin dituzten harremanen eremu zabala aztertu behar da. Laburbilduz, kanpoarekiko ekonomia-harremanak arlo jakin hauetan gauzatzen dira: ondasun eta zerbitzuen salerosketen arloan, kapitalen fluxuen arloan, lan-eskuaren joan-etorrien arloan eta ekonomia-produkzioaren eta erregulazioaren eremuan. Arlo horiek guztiak definitzen dute herri bateko ekonomiak munduan duen tokia, eta, halaber, toki edo kokaera horren ispilu dira arlo horietako bakoitzean herri batek dituen emaitzak. Dena den, harreman-multzo horien artean merkataritza-harremanak dira herri baten kanpo-sarbidearen egitura eta maila erakusteko aldagairik egokienak.

Euskal ekonomiaren kanpo-kokaera aztertzean, estaturik gabeko herria den neurrian, nabarmenak diren mugen aurrean gaude. Lehena, datu ekonomikoen urritasuna eta heterogeneitatea. Dauden datuak urriak eta epe mugatukoak dira, kanpo-sektorearen estatistika-ustiaketa estatudun herriei atxiki ohi zaiolako. Hego Euskal Herriaren kasuan, kanpo-ekonomiaren arloko datu-iturri nagusia Madril da, eta dauden datuak herrialdeka edota erkidegoka emanda daude, eta horien arteko konparaketa oztopoz beteta dago batzuetan. Bestetik, euskal ekonomia *nazio-ekonomia* ez den aldetik, *kanpo* kontzeptuaren esangura ez da horren argia. Hego Euskal Herriko merkatua Estatu Espainiarra izan da azken mendean eta kanpo-merkatutzat Estatu horretatik at daudenak hartzen dira, eta ez Hego Euskal Herriko ekonomiatik kanpo geratzen direnak, zuzenago dirudien bezala. Hemengo azterketaren irizpidea ohiko bideari eustea da, arrazoi metodologikoak medio, betiere, euskal ekonomiak gaur egun duen berezko merkatu-esparrua Estatu Espainiarrekoa izan ordez Europako Batasuneko merkatu bateratua dela ahazteke.

Horiek horrela, euskal ekonomiak nazioarteko esparruan duen tokia aztertzeko aldagai nagusia salkarien joan-etorriak dira, zeren, ezinbestez, aipatutako mugak direla tarteko, euskal ekonomiaren kanpo-arloko datu sistematizatuak ia erabat horietara mugatzen baitira, eta, gainera, han-hemenkako kanpo-loturen adierazpenerako lehen mailako informazioa eskaintzen baitute. Hego Euskal Herriko esportazioen zein inportazioen bilakaeraren berri 13.1. irudiak eskaintzen du. Bertan, pezeta arruntetan, 1985. urtearen ondoren Euskal Herritik Espainiaz besteko atzerrirako ondasunen esportazioak eta atzerritik eskuratutako ondasunen inportazioak islatzen dira. Aipatzekoa da bi indize horien bilakaera gorakorra; izan

ere, hamabost urteren buruan esportazioen zenbatekoa bost bider handitu da eta inportazioena lau bider handiago egin da. Pezeta arruntetan neurtuta egon arren eta, beraz, prezio-igoeren eragina ere barneratzen duten arren, ondorioa ukaezina da: azken hamarkadetan euskal enpresek eta eragile ekonomikoek aparteko joera erakutsi dute nazioarteko beste eragile ekonomikoekiko harreman ekonomikoak sendotu eta areagotzeko. Joera hori ikusgarria da, batez ere 1993. urtetik aurrera; izan ere, 1992. urterainoko lehen epean barne-merkatu espainiarrak indar handia zuen, gastu publikoaren hazkundeari zein inbertsioaren igoera trinkoari esker. Horrela, Hego Euskal Herriko enpresentzat kanpo-merkatuaren erakarpena gutxitu egin zen sasoi horretan; are gehiago, pezetaren garaiko indarra kontuan hartuta. Dena den, arrazoi desberdinak daude 1993. urtearen ondorengo jauzia ulertzeko.

13.1. irudia. Hego Euskal Herriko esportazio eta inportazioen bilakaera (mila milioi pezeta)



Iturria: Dirección General de Aduanas.

Hasteko, arrazoi estrukturalak aipatu behar dira[3]. Hego Euskal Herriko ekonomiak Europako integrazio-eremua atxikitzean —batik bat, merkatu bateratua osatu zenetik—, eragile europarrekiko harremanak trinkotu egin dira, merkatu bakarrak sortutako lehia-eremu zabalagoak hartara bultzatuz. Kontuan hartu behar da, merkatu bateratua 1993an sortu zela; horren eragina ondoren gertatu ziren merkataritzaren izugarrizko igoeretan islatzen da. Izan ere, Europako Batasuneko partaideen arteko ondasun eta kapitalen mugimenduak libreak dira geroztik, eta moneta-batasunak herrialdearteko prezioetako asaldurak gutxitu ditu, moneten arteko gorabeherak saihestuz. Horrekin batera, ekonomiaren globalizazioaren aroan nazioarteko elkartrukeak biziki indartu dira, munduko merkatuen liberalizazioak nazioarteko lehia areagotzen baitu eta enpresen estrategietan nazioarteratzea puntako elementu bihurtu baita. GATT hitzarmenaren Uruguayko Itzuliaren amaierarekin batera, merkataritzarako hainbat oztopo murriztu ziren, munduko merkataritzaren hazkundea erraztuz. Hartara, 1990eko hamarkadan biderkatu egin ziren nazioarteko harremanak, mundu osoko eragile ekonomikoen eta instituzionalen nazioarteko merkatuetarako eta ekonomia globalaren aldeko jarrerak biziagotuz. Arrazoi koiunturalen artean, 1992-1993an Europako Moneta-Sisteman suer-

3. Honetaz gehiago sakontzeko, ikus Sandretto (1996).

tatu ziren asalduren ondorioz, pezetak bi debaluazio izan zituen, eta, ondorioz, nazioarteko merkatuetako prezio-lehian eragindako hobaria medio, Hego Euskal Herriko esportazioek egundoko igoera izan zuten.

13.1. taula. Esportazio eta inportazioen hazkuntza-tasak Hego Euskal Herrian, Europako Batasunean eta Munduan

	Esportazioen urteko hazkunde-tasa (%)			Inportazioen urteko hazkunde-tasa (%)		
	Hego EH	EB	Mundua	Hego EH	EB	Mundua
2000	20,8			38,7		
1999	2,6	3,5	4,5	5,4	4,0	4,5
1998	6,7	6,0	4,5	11,5	8,5	4,5
1997	25,1	9,5	10,5	15,8	8,5	10,5
1996	12,2	4,0	5,0	-0,5	3,5	5,0
1995	19,3	7,5	8,5	22,5	6,5	9,0
1994	23,8	4,5	10,0	13,5	3,6	10,0
1993	6,5	1,5	4,0	-9,5	-3,5	3,0
1992	5,8	3,0	4,5	12,8	3,5	5,0
1991	11,9	2,5	3,5	6,7	5,0	3,5

Iturria: Dirección General de Aduanas eta MME (WTO).

Beraz, hamabost urteko bilakera horretan, aipagarria da 1993tik aurrera ekonomia-susperraldiarekin batera kanpo-sektoreak izan duen joera hazkorra. Ordura arte, kanporako bidearen hautua barne-atzeraldietan egin ohi zen, bertako merkatuaren ahulezia nolabait kitatzeko estrategia gisa. Esaterako, hazkunde bizkorreko 1994-1998 urtealdian Hego Euskal Herriko esportazioen hazkunde-tasak inoizko garaienak izan ziren, Europako Batasuneko eta munduko tasak aise gainditu (ikus 13.1. taula). Taulak erakusten duenez, Hego Euskal Herriko esportazioek Europako Batasunekoak eta mundu osoko merkataritza baino nabarmen gorago egin zuten 1990eko hamarkadan, 1999ko salbuespenarekin. Europako Batasuneko zein munduko joeraren noranzkoa jarraitu arren, euskal esportazioen dinamika gailendu egin zen horiekiko hamarkada horretan, nabarmen gailendu ere. Ondorioz, euskal enpresek munduko merkatuetan duten salmenta-ordezkaritza handitu egin zen hamarkada horren buruan, 13.2. taulak azaltzen duen legez. Hots, bertako enpresek mundu-mailako merkatu-kuota irabazi dute hamarkada horretan, hamarkadaren hasieran merkatu globalean eginiko elkartrukeetatik %0,21 Hego Euskal Herriko esportazioek osatzen baitzuten eta hamar urte beranduago ehuneko hori %0,266ra igo baitzen. Gogoan izan behar da ezen hamarkadaren erdian, 1996an alegia, merkatu-kuota 1985ean baino apalagoa zela, eta, beraz, kuotaren aurrerakada batik bat 1990eko bigarren erdian suertatu zela. Horrek erakusten du garai horretan euskal ekonomiak mundukoaren batez bestekoa baino arinago egin zuela aitzina nazioarteratze-prozesuan.

Halaber, euskal esportazioen bizkortasunak Hego Euskal Herriko ekonomiaren esportazio-joera areagotzea ekarri du. 13.2. taulan ikus daiteke joera horren az-

ken hamarkadetako bilakaera. 1980ko bigarren erdian esportazio-joeraren beheraldia jazo zen, BPGaren ia %20 esportatu baitzen 1985an eta %18,4 1990ean. Alabaina, 1993ko bihurgunearen ostean, esportazio-joerak egundoko susperraldia eduki zuen, 1996an euskal esportazioak produktuaren %28,1 ordezkatzeraino iritsiz eta hiru urte beranduago %32,2ra helduz. Beraz, azken hamardaren buruan euskal ekonomian produzitzen denetik gero eta esanguratsuagoa da kanpoko merkatuetan saltzen dena: zehazki, 1980ko bukaerako zatiaren erdia baino gehiago da 1990eko amaierako joerak handitu duena.

Inportazioei dagokienez, horien joera gorakorrak esportazioenaren arrastoa jarraitzen du gutxi-asko. Azken bi hamarkadetan Hego Euskal Herriko inportazioen hazkundea oso inportantea izan da, eta munduko zein Europako Batasuneko igoerak gainditu ditu, urte batzuetan salbu. Igoera hori ulertzeko ere, esportazioen hazkundea esplikatzen zuten egiturazko arrazoiak berretsi behar ditugu: hots, Europako Batasuneko merkatu bateratuaren sorrera, nazioarteko merkataritzaren liberalizazio azkarra eta, oro har, ekonomiaren globalizazioa dira hazkunde hori esplikatzen duten gakoak. Faktore koiunturalen artean, 1990eko hasierako pezetaren bi debaluazioen eragina sumatu zen nolabait, hazkunde-erritmoaren jaitsieran eta 1993ko hazkunde negatiboan. Koiunturarekin jarraituz, aparteko hazkundea izan dute euskal inportazioek 1997tik aurrera, esportazioen hazkundearen gainetik kokatuz, eta, ondorioz, estaldura-tasa modu ikusgarrian jaitsaraziz (13.2. taula).

13.2. taula. Hego Euskal Herriko kanpo-merkataritzaren adierazle orokorrak

	1985	1990	1996	1999
Estaldura-tasa (%X/M)	103,5	98,2	136,1	119,2*
Esportazioak/BPG (%)	19,9	18,4	28,1	32,2
Inportazioak/BPG (%)	19,3	18,7	20,6	23,5
Irekitasun-maila (% X+M/BPG)	39,2	37,1	48,7	55,7
Merkatu-kuota(+)	0,222	0,21	0,213	0,266

(+)Euskal esportazioak munduko inportazio guztiekiko (%)
* 2000. urteko datua
Iturria: Dirección General de Aduanas, INE eta MME (WTO)

Inportazioen ibilbidearen emaitza gisa, sarbide-tasa —hots, inportazioen eta BPGaren arteko ehunekoa— handitu egin da azken hamarkadetan, nahiz esportazio-joeraren igoerarik izan ez duen. Hain zuzen, sarbide-tasari dagokionez, 1980ko hamarkadako bigarren erdiko jaitsiera gainditu zen 1990ekoaren lehen zatian (%18,7tik %20,6rako hazkundearekin) eta, batik bat, bigarrenean, amaieran inportazioek produktuarekiko duten ehunekoa %23,5era heldu baitzen. Horrela, bada, ekonomian kanpoko produktuek gero eta presentzia handiagoa dute Hego Euskal Herrian, bertako sare produktiboa gero eta gehiago hornituz eta kontsumo finalean duten partaidetza areagotuz.

Bi aldagaien —esportazioen zein inportazioen— bilakaerak elkartuz, bi indize eraiki daitezke euskal ekonomiaren kanpoarekiko lotura adierazteko. Lehena, kanporako irekitasun-maila da, zeinak esportazio eta inportazioen baturak BPGarekiko duen ehunekoa azaltzen duen. 13.2. taulak erakusten duenez, indize horrek aparteko igoera izan du azken hamarkadetan; izan ere, 1985 urtean %39koa izan zen eta hamabost urte beranduago %56 izatera heldu baitzen. Indize honen bilakaeran ere, jakina denez, esportazio eta inportazioen bilakaera-erritmoak errepikatzen dira, eta, ondorioz, 1990eko hamarkadan emandako dinamismoak igoarazi du indizea. Beraz, euskal produktuaren erdia baino gehiago da Espainiaz besteko atzerriko eragileekin elkartrukatzen dena.

Konparazio baterako, 13.2. irudiko informazioa erabiliko dugu. Hemen Hego Euskal Herriko zein bere lurraldeetako eta Europako Batasuneko Estatuetako esportazio- eta sarbide-joerak aurkezten dira 1999. urterako. Ikusi ahal denez, Hego Euskal Herriko irekitasuna oso hurbil dago Europako Batasuneko herrialde arruntetatik. Esportazio-joerari erreparatuz, egiaztatzen da ezen Alemania, Frantzia, Italia edo Erresuma Batua bezalako Estatu handienen indizea erraz gainditzen duela euskal indizeak. Nolanahi ere, Estatu eskandinaviarren eta txikienen mailatik zerbait urruntzen da euskal esportaziorako joera. Jakina da, merkatu mugatuko herrietako produkzio-enpresek nazioarteko merkatuetara jotzeko ahaleginak biderkatzen dituztena, produkzio-eskalak handitzeko eta eskala-ekonomiak zein dimentsio handiagoaren hobariak erdiesteko. Europako txikienei hurbiltze aldera —nahiz orain arte *berezkoa* izan den merkatu espainiarra dimentsio ertainekoa den—, Euskal Herriko ekonomiaren txikitasunak eskatuko lukeen ahalegin kanporatzailea egiteke dagoela adieraziko luke aurrekoak, lehen behaketa batez.

13.2. irudia. Esportazio- eta sarbide-joerak EBko estatuetan eta Hego Euskal Herriko herrialdeetan (1999)



Iturria: Dirección General de Aduanas, Eustat eta Eurostat.

Hala ere, kanporako joeraren espresioak desberdinak dira Hego Euskal Herriko lurralde historikoak kontuan hartu ezkero. Mutur batean, Araba eta Nafarroa daude, lehenak %60tik gorako esportazio-joera erakutsiz eta Nafarroak %50tik gorakoa, Europako Batasuneko indizerik garaienak lirateke estrapolazio soila eginik. Bietan ere esportazio-joerak erraz gainditzen zuen inportazioarena. Beste

muturrean, Bizkaia dago, bertan bi indizeen ehunekoa %20ra ere ez baita iristen. Gipuzkoako indizeak erdibidean daude, %30 inguruan, Hego Euskal Herriko batez bestekoarekiko hurbilduz.

Nazioarteko loturaren lurralde-diferentzia horiek zerikusi estua dute industrializazio-eredu desberdinen garapenarekin. Bosgarren kapituluan aztertu den legez, Gipuzkoak eta, batik bat, Bizkaiak industrializazio goiztiarra ezagutu zuten; hain zuzen, antzinako industria-adarrak garatu ziren eta joan den mendeko bigarren erdiko autarkia-garaian Espainiako barne-merkatua zuten helburu ia bakarra salmentarako. Ondoren, 70eko krisiaren testuinguruan Madrilek indarrean ipinitako *birmoldaketa-politikek* industria-eraispena ekarri zuten, Bizkaiko enpresa tradizional handiak itxiz, inolako industria-ordezkapena gauzatu gabe. Industria-eredu horretan barne-merkatuak erreferentzia nagusia izaten jarraitu du, eta ahalegin kanporatzailea egon bada ere, oso mugatua izan da. Araban eta Nafarroan, ostera, industrializazioa berantiarragoa izan da, eta ugariagoak dira maila garaiko edo ertain-garaiko teknologia eta adarrak jorratzen dituzten enpresak; eta, oro bat, atzerriko kapitalen presentzia erabakiorra izan da bertako industria-garapenerako, Nafarroan batik bat. Industriaren bilakaera horrek, berez, kanpo-harreman estuagoak eskatzen ditu hala hornidura-baldintzetan nola bezeria espezializatuagoa bilatzeko unean. Horrela, bada, barnealdeko bi lurraldeetako garapen eta hedakuntza industriala kanpora begira bideratu da neurri handi batean.

Esportazioak eta inportazioak elkartzean eskuratzen den bigarren indizea estaldura-tasa da. Estaldura-tasak herri bateko merkataritza-saldoa neurtzen du. Azken hamarkadetako Hego Euskal Herriko ekonomiaren estaldura-tasaren bilakaera 13.2. taulak eta 13.1. irudiak adierazten dute. Aipatutako taulak Hego Euskal Herriko estaldura-tasaren gorako joera argia erakusten du. Izan ere, 1985ean euskal esportazioek doi-doi gainditzen zituzten inportazioak, tasa %103koa zelarik, eta hamabost urte beranduago tasa ia %120koa zen, merkataritza-saldoak superabit esanguratsua agertuz. Nolanahi ere, tarteko bilakaera ez zen egonkorra izan aldi horretan, gorabeheratsua baizik. Adibidez, saldoa defizitarioa izan zen 1990ean, urte hartan estaldura-tasa %98,2koa izan baitzen; eta arras superabitduna 1996an, estaldura-tasak %136ko maila gaindituz. Bilakaeraren segida ikus daiteke 13.1. irudian. Bertan bi aldi bereiz daitezke: lehena 1992. urtera artekoa, zeinean saldoa nahikoa orekatua izan zen, superabit eta defizit apaleko urteak elkarrekin izanik; bigarrena 1993tik aurrerakoa da, eta ikus daitekeenez, 90eko aldi horretan superabita egonkortu egin zen, nahiz azken hiru urteetan superabitaren joera beherakorra izan zen. Beraz, euskal ekonomiaren kanpo-saldoaren joera gorakorra izan da, are gehiago 1985. urtearen aurreko saldoak defizitarioak izan ohi zirela kontuan hartuz. Behin eta berriro, Europako Batasuneko merkatu bateratuaren sorrera-data erabakiorra begitantzen zaigu, gertakizun hori euskal ekonomiaren kanpo-bilakaera berri eta azkarraren giltzarritzat har baitaiteke.

13.4. KANPO-MERKATARITZAREN INDUSTRIA-EGITURA

Aurreko atalean, 90eko hamarkadako euskal ekonomiaren kanpo-dinamikotasuna eta irekitasun gorakorra egiaztatu dugu batez ere. Orain kanpo-susperraldian industria-enpresek izandako erantzukizun desberdinak aztertuko ditugu. Industria--enpresak dira kontuan hartzen direnak, eta zerbitzuetako kanpo-merkataritza alboan utzi dugu berariaz. Izan ere, batetik, zerbitzuetako nazioarteko merkataritzaren bolumenak adierazgarritasun txikia izan du nazioartean zein euskal ekonomian; eta bestetik, euskal ekonomiari buruzko datu-iturrietan ez da erraza zerbitzuen esportazio zein inportazioei buruzko berriak eskuratzea. Dena den, zerbitzu--jardueretako joera berriekin, teknologia berriek urrutiko zerbitzu-elkartrukeak ahalbidetzen dituzten heinean[4], zerbitzuen nazioarteko merkataritzaren garrantzia kuantitatiboa eta kualitatiboa handiagotuz doaz. Hala erakusten du, bederen, Merkataritzaren Mundu-Erakundeak bidea irekitzeak bere baitan zerbitzu-jardueren nazioarteko merkataritzaren liberalizazioa helburu duen GATS hitzarmenari.

Industria-enpresaren tamainak euskal ekonomiaren kanpo-merkataritzaren dinamikotasunean duen zerikusia aipatuko dugu, hasteko[5]. Datuak EAEko esparrura mugatuta egon arren, Hego Euskal Herriko ekonomia guztira zabal daitezke bere esangura gordinean.

Laburbilduz, enpresaren tamainarekin handitu egiten da esportaziorako joera; izan ere, gutxieneko dimentsioa ezinbestekoa zaio enpresari esportazioa bideratzeko baldintza gisa. Hala ere, euskal ehun produktiboan nagusi diren enpresa txiki-ertainek duten zeregina oso inportantea dela aurreratu behar da. Honela, EAEan 50 langile baino gutxiago enplegatzen dituzten enpresak bostetik lau izan arren, hauetako %40 bakarrik dira esportatzen dutenak. Ostera, 50 langile baino gehiago dituzten enpresak ehuneko hogeira heltzen ez diren arren, horietako %80 baino gehiago dira esportatzaileak. Gainera, esportazioen eta salmenten arteko erlazioa irizpidetzat hartuz, 50-100 langile bitarteko enpresen erdiak gutxienez salmenten herena saltzen dute kanpoan, eta 100 langile baino gehiagokoen kasuan portzentajea %70raino heltzen da. Alabaina, 50 langiletik behera enplegatzen duten enpresa txiki edo ertainek ere ahalegin esportatzaile nabaria egiten dute, hiru enpresatik bat baitira gutxienez salmenten herena esportatzen dutenak.

4. Ikus 6. kapituluan informazio- eta telekomunikazio-teknologia berriek zerbitzu-jardueretan eginiko ekarpenez aurkezten den hausnarketa.

5. Hemen aipatzen diren datuak Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak eginiko azterketatik atera ditugu (Eusko Jaurlaritza, 1999).

13.3. taula. Esportazioen eta inportazioen egitura sektoriala (%)

ESPORTAZIOAK	Nafarroa		EAE	
	1988	**2000**	**1988**	**2000**
Energia			12,57	5,99
Nekazaritza	8,83	5,96	4,60	3,53
Produktu kimikoak	7,60	4,72	14,26	9,78
Papera	10,66	5,03	2,87	3,04
Produktu metalikoak	10,11	4,81	30,09	23,73
Ekipo-ondasunak	13,16	15,83	29,07	47,95
Garraio-materiala	44,15	58,72	6,21	6,13
Beste batzuk	5,44	4,87	0,29	0,08
GUZTIRA	100,00	100,00	100,00	100,00

INPORTAZIOAK	Nafarroa		EAE	
	1988	**2000**	**1988**	**2000**
Energia	1,23	0,42	24,09	23,61
Nekazaritza	9,34	9,65	9,35	6,81
Produktu kimikoak	11,87	7,91	12,59	8,60
Papera	5,93	2,92	3,55	2,79
Produktu metalikoak	13,60	10,45	23,71	21,26
Ekipo-ondasunak	25,79	25,17	18,79	29,25
Garraio-materiala	25,59	38,45	*	*
Beste batzuk	7,74	3,79	7,89	7,42
GUZTIRA	100,00	100,00	100,00	100,00

Iturriak: Eustat eta Nafarroako Gobernua * Beste batzuk sailean dago barneratuta

Halaber, jarduera-motak ere esportazio-joera determinatzen du gutxi-asko. Oso esanguratsua da, EAEko enpresa esportatzaileen ia erdia industria metalmekanikoan edo ekipo-ondasunetan jardutea, nahiz eta proportzio hori bi adarren esportazioen balioari dagokiona baino apalagoa den. 13.3. taulak erakusten duenez, esportazioen arloan 2000. urtean ekipo-ondasuneko industria-enpresek EAEko esportazioen ia erdia gauzatu zuten. Produktu metalikoen esportazio-zatia ere oso garrantzitsua da, EAEko esportazio guztien ia hiru laurdena salkari horien kanpo-salmentek osatzen baitute. EAEko esportazioen artean aipagarriak dira beren nolabaiteko garrantzia kuantitatiboarengatik produktu kimikoak (esportazioen %9,7), garraio-materiala (%6,1) eta energia (%6).

Nafarroan ere egiaztatzen da kontzentrazio sektorialerako joera, industria-ondasun esportatuenak EAEko berberak ez diren arren. Nafarroako esportazio guztien ia %60 garraio-materialeko ondasunek osatzen dute; eta horiei ekipo-ondasunen kanpo-salmentak gehituz, esportazioen hiru laurdenak bi adar horietako ondasunen esportazioak dira. Lurralde honetan, esportaziogintzan garrantzia erlatibo handia duten adarrak honako hauek dira: nekazaritza (%6), papera (%5), produktu metalikoak (%4,8) eta produktu kimikoak (%4,7).

13.3. irudia. Produktu ez-energetikoen esportazioaren sektorekako egitura, herrialdeka. 2000. urtea.



Iturriak: Eustat eta Nafarroako Gobernua

Beste hiru lurraldeetako esportazio sektorialaren soslai orokorra ezagutzeko, 13.3. irudira jo daiteke. Bertan, batez ere ekipo-ondasunen esportazioek lurraldeetan ordezkatzen duten zatia adierazi dugu. Ekipo-ondasunen esportazioen garrantzia Bizkaian esportazio guztien %40ra heltzen da (EAEari dagokionaren azpitik), Gipuzkoako esportazioen erdia ekipo-ondasunez osatuta dago eta Arabak goia jotzen du %65arekin. Beraz, esportazioen kontzentrazio sektorialerako joera oso indartsua da Hego Euskal Herriko ekonomian, lurraldearen arabera joera hori aldakorra den arren.

Esportazioen kontzentrazio sektorialerako joera hori indartu egin da azken garaian. 13.3. taulak erakusten duenez, 1988ko esportazioen egitura sektorialak kontzentrazio-maila apalagoa erakusten zuen EAEan zein Nafarroan. Nafarroan bi sektore esportatzaileenetako ondasunek esportazio guztien %57 ordezkatzen zuten orduan, gaur egungo %75tik urrunduz. EAEan ekipo-ondasunen eta produktu metalikoen arteko kanpo-salmentek %60ko ekarpena egiten zieten esportazioei. Ondorioz, esan ahal da ezen euskal ekonomiaren kanpo-irekitasun eta dinamismoaren indartzea industria-sektore jakin batzuen jokabideari esker gertatu dela batik bat, eta adar hauetako enpresen erantzukizuna oso handia dela susperraldi horretan.

Esportazioen egitura sektorialaren bilakaeran badira beste ezaugarri aipagarri batzuk ere. Nafarroan oso deigarria da produktu kimikoen eta paperaren esportazioetako pisu erlatiboaren galera, kasu bietan ondasun horiek esportazioei egin dieten ekarpena erdira murrizten baita hamabi urtetan: produktu metalikoetan %10,1ekoa zen partaidetza 1988an, eta hamabi urte beranduago %4,8ra jaitsi zen; paperaren partaidetzan %10,6tik %5erako jaitsiera gertatu da. EAEan, 80ko hamarkadan esportazioetako sektore-burua ekipo-ondasunek eta produktu metalikoek osatzen zuten (esportazioen %29 eta %30, hurrenez hurren). Bilakaera horretan produktu metalikoen posizioaren atzerakada deigarria izan da: industria-krisiak zuzenean eragindako sektorea izanik ulertzen da 2000an esportazioen %23,7 ordezkatzea. Aldiz, ekipo-ondasunen jokabide apartak EAEko mende amaierako esportazioen erdiaren erantzule izatera eraman du sektore hori. Ildo beretik, garrantzitsua izan da produktu kimikoen esportazioen pisu erlatiboaren galera EAEan, %14,2tik %9,7rainokoa hain zuzen. Nabarmenagoa da energia-sektoreak jasan duen gainbehera, esportazioen %12,5 ordezkatzen baitzuen 1988an eta berriki %6ra jaitsi baita.

Esportazio nagusiak izendatzeko erreferentzia gisa, industria-adarren ordez aduana-atalak hartzen baditugu, emaitza 13.4. taulan azaldutakoa da, EAErako eta Nafarroarako.

13.4. taula. Esportazio-atal nagusien sailkapena. 2000. urtea

	Miloi pezeta
EAE	
1. Ibilgailuak, automobilen parteak eta osagaiak	128.933
2. Pertsonen garraiorako turismo-autoak eta gainerako ibilgailuak	128.896
3. Salgaien garraiorako ibilgailuak	120.800
4. Petrolio edo mineral bituminosoen olioak, olio gordinak salbu	91.114
5. Kautxuzko pneumatiko berriak	81.580
6. Aire- edo espazio-nabigazioko aparatuen parteak	46.170
7. Burdinazko edo altzairuzko profilak, aleatu gabeak	39.697
8. Transatlantikoak, txangoetarako ontziak, zamaontziak, transbordadoreak…	37.786
9. Hodi eta profil hutsak, soldadura gabeak, burdinazkoak edo altzairuzkoak	35.027
10. Txorrota-gaiak eta hodietako antzeko osagaiak	31.754
Nafarroa	
1. Ibilgailuak, automobilak, traktoreak, bizikletak eta bestelako ibilgailuak	498.074
2. Erreaktore nuklearrak, makinak, tresneria	93.143
3. Makinak, tresneria eta material elektrikoa eta horien osagaiak	41.198
4. Papera eta kartoia; zelulosaren manufaktura	35.480
5. Plastikozko gaiak eta horien eratorrien manufaktura	26.829
6. Fundizio-manufakturak, burdinazkoak edo altzairuzkoak	20.106
7. Beira eta beirazko manufakturak	13.079
8. Lekaki edo barazkien prestaketak, frutuenak…	10.808
9. Aluminioa eta aluminiozko manufakturak	10.461
10. Altzariak, higigai mediko-kirurgikoak, ohe-gaiak…	9.943

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua.

EAErako kontzentrazioaren maila ikustezina den arren —hamar atal garrantzitsuenak soilik erakusten direlako—, Nafarroaren kasuan ez da hala suertatzen, eta erraza da erreparatzen *ibilgailuen* atalak besteei ateratako zenbatekoaren leizea.

Laburbilduz, esportazioen kontzentraziorako joera nabarmentzen da, industria--adar gutxik eta enpresa handi batzuk direlako esportazio gehienen erantzule Hego Euskal Herrian.

Inportazioen egitura sektoriala aintzat hartuz, kontzentrazio sektorialerako joera dagoen arren, esportazioen mailarekiko urrun mantentzen da hemen. EAEan ekipo-ondasunak inportazio guztien %30era heltzen dira eta produktu metalikoak %21,2ko portzentajea ordezkatzen dute; bien artean, bada, inportazioen erdia baino gehiagoren erantzule dira. Baina inportazioen arloan, energiaren pisu erlatiboaren

garrantzia da ñabardurarik aipagarriena, energiaren inportazioak EAEko inportazio--fakturaren ia laurdena osatzen baitu. Inportazioaren egitura sektorialaren bilakaerari dagokionez, ekipo-ondasunen inportazioen indarrenagotze erlatiboak eta produktu metalikoen gainbehera erlatiboak industriaren barneko merkataritzaren garrantzia adierazten dute, esportazioetan eta inportazioetan joera paraleloak eman diren heinean, bederen. Ildo beretik, produktu kimikoen inportazioek pisu erlatiboa galdu dute, inportazioen %12,6tik %8,6rako jaitsiera gauzatuz. Nafarroan garraio--materialeko ondasunen inportazioak dira nabarmen gora egin dutenak erlatiboki, hamabi urteren buruan %25,5etik %38,4ra gora egin baitu arlo horrek inportazioei eginiko ekarpenak. Ekipo-ondasunen garrantzia mantendu bada ere, ez da hala gertatu produktu kimikoen, paperaren eta produktu metalikoen inportazioekin, horiek guztiek beherakada erlatibo esanguratsua pairatu baitute azken garaian.

EAEan zein Nafarroan industria-adar bateko esportazioen zein inportazioen joera gorakorrak elkarrekin eman izanak iradokitzen duenez, nazioarteko merkataritzan bezala, Euskal Herriko kanpo-merkataritzan ere gero eta indar handiagoa du industriarteko merkataritzak. Beraz, Euskal Herriko kanpo-merkataritzaren hazkundea ez da nagusiki espezializazio sektorialaren eta horrek eragingo lukeen sektorearteko naziozgaindiko salerosketen ondorio[6], baizik eta ondasun berdintsuen artean eginiko naziozgaindiko elkartrukearena, batez ere.

Azkenik, euskal ekonomiako eragileek kanpo-merkatuetan duten jokabidea aztertzeko, merkataritza-balantzaren eduki teknologikoari hurbilketa egitea komeni da. Azterketa xume honetan, EAErako informazioa dugu soilik, eta, hurbilketa den neurrian, baliagarria zaigu Hego Euskal Herriko ekonomiaren jokabide orokorraren arrastoa ulertzeko. Horrela, ondasunen teknologia-edukia lau mailatan banatuz, EAErako industria-produktuen esportazioen eta inportazioen bilakaera azken hamarkadan zein izan den erakusten du 13.4. irudiak. Esportazioen arloan, 2000. urtean bideratu ziren esportazioen erdia baino gehiago (%51) teknologia-eduki handikoak edo ertain-handikoak izan ziren. Azpimarratzekoa da teknologia-eduki handiko ondasunen esportazioak hartu duen nolabaiteko pisua. Egoera honetara iristeko, erabakiorra izan da 90eko hamarkadan euskal enpresek eginiko ahalegina, hamalau puntu aurrera egin baitu teknologia-eduki handiko eta ertain-handiko ondasunen esportazioak, teknologia-maila apaleko eta, batik bat, ertain-txikiko ondasunen esportazioen kaltetan.

6. Espezializazioak eta lanaren zatiketak eragindako industriarteko merkataritzak ekarriko lituzkeen onuraz, Ricardo-k eta Heckscher eta Ohlin egileek teorizatu zuten, herrien arteko hobari konparatiboen teoria garatuz. Teoria hori da, hain zuzen, herriarteko industriaren barneko merkataritzaren hazkundearen ebidentziak lurperatzen duena; izan ere, Heckscher eta Ohlin-en ereduak aurreikusten zuen ezen sektore esportatzaileek eta inportazioen ordezko sektoreek oso desberdinak izan behar dutela elkarren artean.

Beren produktuetako teknologia-eduki garaiagoan islatzen den euskal industria-jardueraren berrikuntza eta modernizazioa erakusten ditu bilakaera horrek. Egoera horretan, euskal enpresek munduko merkatuetan lehiatzeko duten kokapenak gora egin du, produktuen kalitatea eta teknologia-edukia hobetu den neurrian.

13.4. irudia. Industria-produktuen esportazio eta inportazioen bilakaera, teknologia-edukiaren arabera EAEn, 1990 eta 2000. urteetan.



Iturria: Eustat.

Antzeko joera da inportazioen bilakaeran somatzen dena. Hain zuzen, 90eko hamarkadan inportatutako produktuen teknologia-edukia aztertuz gero, teknologia-eduki handiko eta ertain-handiko produktuen pisua handitu egin dela ikusi ahal da hemen ere, betiere teknologia-eduki apaleko produktuena jaitsiz. Dena den, inportazioen kasuan bilakaera hori leunagoa izan da. Hala adierazten du 90eko hamarkadan teknologia-eduki txikiko edo ertain-txikiko produktuen inportazioen pisua %59,2tik %53,3ra igaro izanak, inportazioen egituran lehentasuneko kokapena mantenduz. Halaber, teknologia-eduki ertain-handiko eta handikoaren aurrerapausoa inportazioen %40,8tik %46,7ra mugatzen da. Horrek agerian uzten du, arestian agertutako euskal ehun produktiboaren modernizazio saioa mugatua dela. Izan ere, puntako teknologiaren defizita azalerazten du aipatutako bilakaerak: inportazioetako teknologia-edukia ez da nahikoa izan euskal sare produktiboa zaharberrikuntza-erritmo egokian bideratzeko, nahiz euskal enpresek ekipo-ondasunetan eginiko inbertsio indartsuak puntako teknologiadun ondasun ugariren inportazioa ekarri duen.

Bestalde, EAEko kanpo-merkataritzaren teknologia-edukiak ez du Europako maila eskuratu, baina esportazioetako teknologia-edukiaren urrats gorakorra medio, Estatukoaren batez besteko edukitik gora dago gaur egun[7]. Nolanahi ere, hasierako maila nahiko apala zela kontuan hartuta, bilakaeraren zenbatekoa errazago ulertzen da, eta horrek teknologia-eduki handiko produktuen merkataritza-arloan euskal ekonomiak egiteko duen ahaleginaren nolakoa eta zenbatekoa bistaratzen du.

7. Ikus Confebask (1999).

13.5. KANPO-MERKATARITZAREN NONDIK-NORAKOA

Atal honetan euskal kanpo-merkataritzaren lotura espazialaren dimentsioa jorratuko dugu. Euskal ondasunen nazioarteko joan-etorrietako dimentsio espaziala aztertzean azpimarratu behar den ezaugarri nagusia, merkataritzaren kontzentrazioa da. Horrela agertzen zaigu, euskal esportazioen helburuko herriek zein inportazioen jatorriko herriek egiten duten ekarpenaren maila behatuz. Esaterako, esportazioak arakatuz, 13.5. irudiak Hego Euskal Herriko kanpo-salmenten helburuko hamar herrialde nagusiak azaltzen ditu, erosketen balioa kontuan hartuz.

13.5. irudia. Euskal esportazioen helburuko hamar herrialde nagusiak. 2000. urtea
(mila milioi pezeta)



Iturriak: Eustat eta NEE.

Irudi horrek bi argibide ematen dizkigu esportazioen norabidearen arloan. Lehena: euskal esportazioak gehien hartzen dituzten hamar herrietatik zortzi Europako Batasunekoak dira, eta beste biak Estatu Batuak eta Brasil; alegia, Europako Batasuneko merkatua giltzarri bihurtu da euskal enpresentzat. Bigarrena: esportazioen kontzentrazio espazialaren lehen lagina eskaintzen digu 13.5. irudiak; hots, 2000. urteko euskal esportazio guztien hiru laurdenak hamar herrialde horietara bideratu dira, gainerako laurdena herrien multzo zabal batera bideratuz. Gainera, 1990eko hamarkada hasierarekin alderatuz, kontzentrazio-maila aldatu ez dela baieztatu ahal da, orduan ere indize horrek antzeko zifra erakusten baitzuen[8].

13.6. irudia. Euskal inportazioen jatorriko hamar herrialde nagusiak. 2000. urtea
(mila milioi pezeta)



Iturriak: Eustat eta NEE.

8. Eustat eta Nafarroako Estatistika Erakundea.

Bestalde, 13.6. irudiak euskal inportazioen jatorriko hamar herrialde nagusiak erakusten dizkigu, eta, halaber, hauetatik hartutako inportazio-ondasunen zenbatekoa. Hemen ere esportazioen kontzentrazio geografikoaz esandakoa berretsi behar da: 2000. urteko euskal inportazioen jatorriko hamar herrialde nagusien inportazio--balioak guztiaren %73 adierazten du. Beraz, euskal inportazioen kontzentrazio espaziala begi-bistan ageri da. Hala ere, inportazioen jatorriko hamar herrialde nagusi horien arteko sei Europako Batasunekoak dira, eta lau bestelakoak: Iran, Errusia, Ameriketako Estatu Batuak eta Txina. Hau da esportazioen multzo nagusian baino gutxiago dira hemen agertzen diren EBko herrialdeak, eta horren arrazoiak zalantzarako aukerarik ez du ematen: energiaren inportazioaren fakturak Iran eta Errusia sarrarazi ditu azaldutako zerrendan.

Harago eginez, Hego Euskal Herriko kanpo-merkataritzaren ibilbide geografiko zabala arakatzera jotzeko, bi taula izango ditugu oinarri gisa. 13.5. taulan Nafarroako kanpo-merkataritzaren bilakaera agertzen da, jatorriko eta helburuko herrialdeen arabera. Nafarroari dagokionez, esportazioen eta inportazioen kontzentrazio geografikoa muturrekoa da, Hego Euskal Herriko gainerako lurraldeena gaindituz. Nafarroako esportazioen %88 Europako Batasuneko merkatura zuzentzen ziren 2000. urtean, eta inportazioen %87 Europako Batasuneko herrialdeetatik erosiak izan ziren urte horretan. Nafarroako kanpo-merkataritzaren kontzentrazioaren ispilua da, halaber, bertako inportazioen erdia baino gehiago Alemaniatik egin izana. Esportazioetan ere kontzentrazio-maila oso indartsua dela egiaztatzen du, Nafarroako kanpo-salmenta guztiaren erdia baino gehiago hiru herrialderen artean (Frantzia, Alemania eta Erresuma Batua) erakartzeak. Europako Batasunetik kanpo, AEBak dira Nafarroako kanpo-elkartrukeetan nolabaiteko lotura esanguratsua erakusten dutenak.

13.5. taula. Nafarroako kanpo-merkataritzaren bilakaera, jatorriko eta helburuko herrialdeen arabera (%)

	1990		2000	
	Esportazioak	*Inportazioak*	*Esportazioak*	*Inportazioak*
Europa	91,1	89,1	90,3	89,3
Europako Batasuna	87,7	84,9	88,1	86,9
Frantzia	17,9	21,3	21,7	10,9
Alemania	29,5	41,0	18,1	52,7
Erresuma Batua	10,1	4,7	13,3	3,9
Italia	14,9	6,2	7,8	5,1
Europako gainerakoa	3,4	4,2	9,2	2,4
Amerika			5,0	4,9
AEB	3,1	3,3	2,2	1,4
Asia			2,8	4,6
Afrika			1,8	1,2
Ozeania			0,1	0,0
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Nafarroako Estatistika Erakundea (NEE)

Nafarroako kanpo-merkataritzaren norabide geografikoaren azken hamarkadako bilakaerak ez du ekarpen berririk eskaintzen. 2000. urterako eginiko antzeko argazkia erakusten du 1990. urteak. Aldaketa aipagarrienak herrialde batzuen loturen eraldaketak dira. Frantziarekiko merkataritza-lotura indartu egin zen 1990eko hamarkadan esportazioen arloan, baina inportazioetan Frantziako inportazioen pisu erlatiboa erdira jaitsi zen (Nafarroako inportazio guztien %21etik %11ra). Alemaniarekiko loturan alderantzizko jokabidea agertzen da, Nafarroako esportazioen %30 jasotzetik %18ra beheratu baitzen eta 1990eko inportazioen %41 ordez, herrialde horretatik %53 bideratzen baitira gaur egun. Beraz, Nafarroako ekonomiak Europako Batasuneko merkatuarekiko duen lotura oso indartsu mantendu da azken hamarkadan.

13.6. taula. EAEko kanpo-merkataritzaren bilakaera, jatorriko eta helburuko herrialdeen arabera (%)

	1990		2000	
	Esportazioak	*Inportazioak*	*Esportazioak*	*Inportazioak*
ELGE/OECD	82,4	76,7	83,9	76,2
EB	67,1	62,0	67,1	65,6
Frantzia	20,5	18,3	18,9	16,2
Belgika	2,8	2,6	3,1	3,2
Herbehereak	5,9	3,7	3,8	2,7
Alemania	13,9	14,8	16,4	12,8
Italia	6,5	7,7	8,1	9,1
Erresuma Batua	7,5	8,0	6,7	11,8
Portugal	5,2	1,7	6,6	1,9
Suedia	1,4	1,9	1,6	1,5
ELGEko gainerakoa	15,3	14,6	16,8	10,6
AEB	8,6	5,3	7,1	3,5
Japonia	0,7	1,6	1,1	2,0
Mexiko	1,7	4,4	2,0	0,8
Munduko gainerakoa	17,6	23,3	16,1	23,8
EIK	2,2	7,8	0,3	3,8
Ekialdeko Europa	0,6	0,7	0,5	1,2
Latinoamerika	4,2	2,7	7,6	2,9
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Eustat.

EAEko kanpo-merkataritzaren jokabide espazialak ere kontzentraziorako joera erakusten du, Nafarroakoarena baino ahulagoa den arren. EAErentzat ere Europako Batasuna da merkataritza-eremu nagusia, 2000. urtean bertaratzen ziren esportazioek totalaren %67 ordezkatzen baitzuten, eta bertatik sartutako inportazioek, %65,6. Ondoren ELGEko gainerakoa agertzen da, EAEko esportazioen %17 eta inportazioen %10,6 osatuz, eta Latinoamerika %7,6 eta %3rekin, hurrenez hurren. Inportazioen jatorriari dagokionez, ELGEaren ehunekoa %76ra jaisten da esportazioen %84arekin erkatuz; hala da, batez ere, inportazio energetikoaren zenbatekoak munduko gainerako herrialde petroliodunen jatorria indartzen duelako. Beste muturrean Japonia edo Ekialdeko Europa daude: hauekiko elkartrukeen adierazkortasuna oso murritza dela erakusten du goiko taulak. Beraz, kanpo-merkataritzaren dibertsifikazio handiagoa ematen da EAEn Nafarroako eta Estatuko kanpo-merkataritzarekin alderatuz.

Alabaina, ezin da esan azken hamarkadan EAEko ekonomiaren kanpo-dibertsifikazioa suertatu dela. Nafarroan bezala, Hego Euskal Herriko beste hiru lurraldeetan ere EBrekiko lotura ez da murriztu 90eko hamarkadan zehar, eta ezta ELGEarekikoa ere. Merkatu berrietarako bidea kanpo-merkataritzaren hazkunde garrantzitsuaren testuinguruan txertatzen da, baina hazkunde horren oinarrian ohiko mendebaldeko merkatuen —batik bat, europarren— dinamismoa dago. EAEko kanpo-merkataritzaren bilakaera geografikoan, bada, aldaketa txikiak gertatu dira. Mendebaldeko herrialdeekiko merkataritza-harremanen esparruan, Frantziarako esportazioen zein handikako inportazioen pisu erlatiboaren jaitsiera aipatu behar da (%20,5etik %19ra eta %18,3tik %16,2ra, hurrenez hurren). Herbeheretarako lotura ere murriztu egin da; izan ere, esportazioen eta inportazioen ehunekoek bi puntu eta puntu bateko beherapen esanguratsuak izan dituzte. Europatik kanpo Ameriketako Estatu Batuen merkatuak ere pisu erlatiboa galdu du EAEko produktuentzat, harako esportazioen ehunekoa puntu eta erdian murriztu baita 90eko hamarkadan. Halaber, EAEko merkatuetan AEBko produktuek duten presentzia apaldu egin da (%5,3tik %3,5ra). Ostera, EAEko hiru lurraldeetako ekonomien lotura sendotu egin da Europako Batasunaren barnean Belgika, Portugal eta Italiarekin. Alemaniako merkatua garrantzitsuago bihurtu da bertako produktuentzat, esportazioen %14tik %16,4rako urratsa eman baita. Europako Batasunetik kanpo, loturak sendotu egin dira zerbait Japonia, Mexiko eta Ekialdeko Europarekin, eta batez ere, Latinoamerikarekin, zeren 1990ean azken merkatu honek EAEko esportazioen %4,2 hartzen bazuen, eta hamar urte beranduago %7,6 eskuratzen baitu.

Azterketa honetan kanpo-merkataritza gisa hartu ez badugu ere, aipamen xume bat egitea merezi du Espainiako merkatuak euskal ekonomiarentzat duen garrantziaz. Esan dugunez, merkatu hori izan da euskal ekonomiaren berezko merkatu babestua, 1993an Europako merkatu bakarra indarrean ipini arte. Horrela ulertzen da ezen 1985ean, hots, Europako Elkarterako atxikimenduaren aurretik, Estatuko merkatuetan eginiko euskal produktuen salmenta BPGaren %60 izatea.

Baina, hamar urte beranduago, Estatuko merkatuak euskal produktuen BPGaren %36 erakartzen zuen. Bitartean, Europako Batasuneko merkaturako joera alderantzizkoa izan da. Hain zuzen, euskal produktuen EBrako sarbidea bikoiztu egin zen termino erlatiboetan: 1985ean euskal ekonomiaren BPGaren %10 bertaratzen bazen, hamar urte beranduago bikoiztu egin zen indize hori.

Ondorioz, euskal ekonomiaren kanpo-merkataritza oso kontzentratuta dago geografikoki; gainera, Nafarroaren kasua muturrekoa dela esan daiteke. Europako Batasuna da euskal ekonomiaren loturagune nagusia, distantzia handiz; eta azken urteetako joera ikusirik, egoerak ez du aldaketarako zantzurik erakusten. Areago, euskal ekonomiak Europarekin duen harreman hazkor hori indartu egingo dela iragar daiteke, kontuan hartuta moneta bakarrarekin merkatu bateratuak koherentzia eta integrazioa irabaziko dituela. Euskal enpresen atzerriko merkataritza-ezarpenak Europako Batasuneko herrialdeetan aurkitzea ez da, hain zuzen, euskal kanpo-merka-taritzaren dibertsifikazio espazialerako bidea urratuko delako aurreikuspena.

13.6. EUSKAL EKONOMIAREN KANPO-LOTURAZ

Hego Euskal Herriko ekonomiak nazioartean duen harreman-sarea eta, oro har, sarbidea aztertzeko, merkataritza-arloan eginiko bidea hartu dugu aintzakotzat. Nolanahi ere, aurreratu dugu, aldagai hori garrantzitsua izan arren, ez dela bakarra herri baten kanpo-loturen analisia jorratzerakoan. Badira bestelako kanpo-fluxuak ere, ikusgaitzagoak direnak, baina eragin eta esangura handikoak, finantza--harremanak preseski. Finantza-arloko joan-etorriak mota desberdinetakoak dira: inbertsio produktibotik hasi eta espekulazio hutsa den eragiketaraino doaz, finantza--titulu ugariren erosketak ahazteke. Beraz, kapital-mugimenduek logika desberdinei erantzuten diete, irabaziak handitzearen helburua komuna den arren. Ez da harritzekoa, hortaz, kapital-fluxuei buruzko informazioa laburra eta zatikatua izatea; batetik aipatu dugun arrazoia bitarteko, baina bestetik, baita horiek sortzen duten interes ezkutuen sekretupeko giltza gizartera zabal ez dadin ere.

Euskal ekonomiaren kanpo-loturen azterketa osatzeko, interes handiko aldagaia da atzerriko inbertsioarena. Inbertsio horiek merkataritza-fluxuak osatu eta akuilatzen dituzte, batetik; eta, gainera, finkatu egiten dute merkataritzak marrazten duen ekonomia baten posizioa lanaren nazioarteko zatiketan.

Eskuartean ditugun datu eskasekin honako hau azpimarra daiteke: azken urteotan atzerriko kapitalek Hego Euskal Herrian eginiko inbertsioek gora egin dute oso era indartsuan. Fluxuak diren neurrian, aldagai horren urtez urteko emaitzak oso aldakorrak dira; baina, adibide gisa, atzerriko inbertsioa %250 handitu zen Hego Euskal Herrian 1999. urtean, aurreko urteko kopuruarekin konparatuz[9].

9. 1998an atzerriko inbertsio gordina 133.835 miloi pezetakoa izan zen eta 1999an 494.222 milioi pezetakoa, *Registro de Inversiones Extranjeras en España* iturriaren arabera. Iturri honetakoak dira atal honetan azaldutako datuak.

Honela, azken urteotan Hego Euskal Herrira heldutako atzerriko inbertsioak igo egin dira Estatuko inbertsioekiko: 1997. urtean erlazio hori %9,41koa zen eta bi urte beranduago %11,1koa; 1998. urtean, aldiz, jaitsiera handia pairatu zuen, %5,6koa baino ez baitzen izan. Aipatu dugun bezala, emaitza horiek gorabehera handiak dituzte; esaterako, Nafarroan, 1997koarekin konparatuz, 1998ko atzerriko inbertsioa %14,5koa izan zen. Egoera hau Nafarroako ekonomiak atzerriarekiko duen menpekotasunaren isla ere bada; izan ere, euskal ekonomian atzerriko kapitalen etorrerak historikoki oso apalak izanik, inbertsio zehatzen zantzuak oso nabarmenak izaten dira urte horretako emaitzetan. Laburbilduz, 1990eko hamarkadan zehar euskal ekonomiak atzerriko kapitalen sarrera garrantzitsuak izan dituela baiezta daiteke, horrela merkataritza-arloko irekitasun hazkorrak adierazten zuen kanpo-loturen trinkotzea egiaztatuz.

Bestalde, aipagarria da, halaber, atzerritik datorren kapital produktiboaren inbertsioaren helburu sektoriala. Horretan arreta jarriz gero, deigarria da nekazaritza-sektoreak oso zati txikia jasotzen duela ikustea, eta, ostera, atzerriko kapitalek zerbitzu-sektorean eginiko inbertsioa guztiaren erdia edo hortik hurbileko kopurua ordezkatu duela azken urteetan; preseski, 1997an erdia baino gehiago, eta 1998an %44,1. Honek erakusten du, besteak beste, zerbitzuetako merkataritzaren ahulezia kitatuz atzerriko inbertsioen bidez bertan eginiko ezarpenek tokiko merkatura errazago heltzeko nahia, atzerriko zerbitzu-enpresen aldetik. Lehenago 9. kapituluan aurreratu genuen legez, enpresentzako zerbitzuen erabilera maila apalekoa zen euskal sare produktiboan; eta bertako eskaintzaren defizita estaltzeko, kanpoko enpresek eginiko ahalegina aurreikusten genuen. Orain egiazta daiteke, beraz, ahalmen hori hezurmamitu egin dela, azken urteetan bederen, eta bertako zerbitzu-eskaria estaltzeko, zerbitzuen leku-garapenerako hutsunea dagoela.

Atzerritik Euskal Herrirako kapitalen etorrera gero eta garrantzitsuagoa den arren, euskal kapitalen kanporaketa ere garrantzi gorakorra hartzen ari da. Euskal enpresa askoren estrategietan kanpoko merkatuetara hurbiltzea ez ezik, herrialde desberdinek eskaintzen dituzten hobari zehatzez[10] profitatzeko lerroak ere indartzen ari dira. Beraz, enpresen nazioarteratze-estrategien artean esportaziogintza-lerro bat dago, baina ez bakarra. Enpresaren jarduera bera osotara aldatzea edo zatikako lekualdaketa egitea, gero eta ekinbide arruntagoa da. Horretarako enpresak atzerrian dagoen enpresa erosi ahal du, osoa edo zati bat, enpresa berri bat eraiki ahal du edota lehendik zegoena heda dezake. Horrela, 1991. urtean EAEko enpresek BPGarekiko kanpoan eginiko inbertsioa %0,17ko ehuneko urria adierazten bazuen, 1998an portzentaje hori ia %2koa da[11]. 1990eko hamarkadan euskal enpresek atzerrian eginiko inbertsioaren zenbatekoak Estatuko enpresek eginikoarekiko aurrerapauso handiak eman zituen, izan ere hamarkadaren hasieran erlazio

10. Merkatuetara hurbiltzeak, edo kostuen murrizketak edota azpiegituren onurak dakartzatenak, besteak beste.

11. Iturria: *Registro de Inversiones Españolas en el Exterior.*

hori %0,9koa izatetik amaieran %3,97koa izatera pasatzeko emandako urratsak dinamismo handia erakusten du. Alabaina, nahiko urrun geratzen da Estatukoaren batez bestekoarekin alderatuz (%3,4). Beraz, aldagai honen azken urteetako bilakaerak hauxe erakusten du, alegia, euskal enpresen lekualdaketa-dinamika gertakizun berria baina irmoa dela. Helburu diren herrialdeen artean aipagarriak dira, batik bat, Europako Batasuna, Latinoamerika eta ELGEko gainerakoa. Beraz, hemen ere kanpo-merkataritzaren norabide bera da jorratzen dena, behin eta berriro egiaztatuz ezen merkataritza- eta kapital-fluxuen arteko jokabideen logikak elkarren osagarriak direla.

Laburbilduz, Hego Euskal Herriko ekonomiak nazioartean duen sarbidea merkataritza-harremanek determinatzen dute batez ere. Kapital-fluxuek gero eta garrantzi handiagoa duten arren, euskal ekonomiaren kanpo-posizioa definitzerakoan, oso modu xumean eragiten dute oraindik aipatutako fluxuek. Nolanahi ere, ekonomiaren globalizazioaren testuinguruan lekualdaketa ekinbide estrategiko bihurtu da enpresentzat, eta euskal ekonomiaren hasierako posizio murritza ikusirik, euskal kapitalek atzerriko bidea gero eta irmoago jorratuko dutela aurreikus daiteke.

Horiek horrela, merkataritza-harremanek marrazten dituzten euskal ekonomiaren kanpo-loturak sendotzen ari direla esan daiteke, batik bat azken urteetan ekonomiaren globalizazioarekin eta horren adierazpen kontinentala den Europako integrazio ekonomikoaren testuinguruan. Hego Euskal Herriko ekonomiaren kanporaketa indartsuagoaren prozesuan, Espainiako ekonomiarekin izandako ohiko loturak lausotzen ari dira, eta Europako gainerako lurraldeekin sorturikoak tinkotzen. Euskal ekonomiaren nazioartearekiko elkartruke gorakorren dinamika —batez ere 90eko hamarkadakoa— Europako Batasunarekiko duen erabateko loturan islatzen da. Euskal merkataritza-fluxuen kontzentrazio geografikorako joerak erakusten du prozesu hori. Alta bada, ekonomiaren ingurune globalean euskal ekonomiak duen posizioa Europako produkzio-sistemaren baitako lanaren nazioarteko zatiketarekiko lotura hazkorrean islatzen da. Kanpo-ekonomiako elkartrukeen emaitza ere baden euskal produkzio-sarea, beraz, gero eta lotuago agertzen da Europako Batasuneko produkzio-koherentziarekiko.

Gainera, lotura gorakor hori merkataritza-arloan kontzentrazio sektorial garrantzitsu baten bitartez hezurmamitzen da. Izan ere, merkataritza-espezializazio oso trinkoa dago Hego Euskal Herriko ekonomian: ekipo-ondasunek, garraio--materialek eta ondasun metalikoek laburbiltzen dute ehuneko handi batez euskal merkataritzaren edukia. Horretan aldaketarik egon ez den arren, merkataritzaren teknologia-edukian gorako joera sumatzen da. Ondorioz, Europako sare produktiboan euskal ekonomiaren espezializazioa ongi finkatuta agertzen da, kapital eta teknologia-eduki ertaineko produkziogintza izanik horren gakoa, etorkizunerako elkartruke-bidean hobekuntzen izpiak sumatuz. Hurrengo kapituluan agertzen denez, horretarako erabakiorra da Hego Euskal Herriko ekonomiaren gaineko hainbat politikaren eskumena euskal eragile eta erakundeen eskuetan egotea, eta, batik bat,

ekonomia-politiken diseinua taxutzen den gunean bertan —hots, Bruselan— euskal erakundeek zuzeneko parte-hartzea bermatua izatea.

BIBLIOGRAFIA

Boyer, R. eta Drache, D. (1997): *States Againts Markets. The limits of globalization,* Routledge, Londres.

Confebask (1999): *La empresa vasca en los mercados exteriores*.

Ekonomia- eta Gizarte-Kontseilua (1999): *EAEko egoera sozioekonomikoa*, EGK, Bilbo.

Eusko Jaurlaritza (1999): *Caracterización de empresas vascas exportadoras y no exportadoras,* Industria, Merkataritza eta Turismo Saila, Gasteiz.

Eustat (urte desberdinak): *Kanpo-Merkataritzaren Estatistikak,* Gasteiz.

Gómez Uranga *et al*. (1988): *Soberanía económica y globalización en Euskal Herria,* Robles-Arangiz, Bilbo.

Hirst, P. eta Thompson, G. (1996): *Globalization in Question,* Blackwell, Londres.

Boletín económico de Información Comercial Española (ale desberdinak).

Sodena (urte desberdinak): *Coyuntura Económica de Navarra*, Iruñea.

Sandretto, R. (1996): *Le commerce international*, Armand Colin, Paris.

AMAIERA.

Euskal Herria Europako Batasunean eta munduan. Erronka nagusiak

Goio Etxebarria
Mikel Gómez Uranga

1. SARRERA

Gaur egun euskal ekonomiaren etorkizunari buruz hausnartzean, beharrezkoa da Europako Batasunak hainbat eremutan jarrai ditzakeen joerak ezagutzea. Estatuak bere eskumenen harribitxia nola ebaki eta leuntzen dioten behatzen du. Horregatik, Estatuak gogor eusten die EBrekin auzitan ez dauden eskumenei. Bitartean, erregioak eta estatu gabeko nazioak beren egoerari atxikitzen saiatzen dira, estatuen eskumenak murrizten diren heinean.

Erregioek badute autonomia zenbait esparrutan. Beraz, eraginkorrak izan daitezke partaide eta eragileen jokaeren eta harremanen arabera; alegia, industria--arloko, enpresa-sareetako, hezkuntza- eta formazio-sistemako partaideei eta harremanei buruz ari gara, baita arlo horietako politikei buruz ere.

Beste eremu batzuetan eskumenak Estatuarenak dira. Euskal Herriko erkidegoek eskumen horiek lortzean, ongizatearen estatuaren oinarrizko baliabideak (gizarte-aseguruak, besteak beste) finkatuko lirateke.

Bestalde, zerga-esparruko kontzertu eta konbenioan —baita zenbait azpiegituratan ere— harreman nagusiak Estatuaren eta EAEren zein Nafarroaren artekoak dira. Hala ere, etorkizunari begira, aipatzekoa da EBren nahia eta ahalmena, zerga--sistema bateratu eta harmonizatu bat ezartzeko.

Harrigarria bada ere, sektore historiko batzuen biziraupena Europako Batasunaren (EB) erabakien menpean dago; hauxe da, adibidez, nekazaritzaren (kostaldekoa zein Araba eta Nafarroakoa) eta arrantzaren kasua. Halaber, Estatuak eta Europako Batasunak batera adostu eta diseinatzen dituzte komunikazio-azpiegituren plangintza eta finantziazioa. Beraz, erakunde horiek finkatzen dituzten ildoen menpe daude erregioak.

Etorkizun hurbilean, hautsi egin daiteke gobernu zentralarekiko zein EBrekiko euskal erkidegoek duten menpetasun hierarkiko hori. Izan ere, eskumen asko beren esku duten erregio eta estatu gabeko nazioek *lobby* baten modura jokatu eta presio handia eragin dezakete. Hori dela eta, Europako erregioak elkartuz gero, EBko erabakietan parte-hartze handiagoa lortzeko eragina izan dezakete.

Euskal Herriko lurraldeak oso desberdinak dira, elkarrekin konparatuz. Instituzionalizazio- eta autogobernu-mailak zeharo desberdinak dira; norbere ekonomia eta gizartea batera garatzeko ahalmenak oso bestelakoak dira. Gaur egun, administrazioari, ekonomiari eta politikari dagokienez, Ipar Euskal Herria zeharo deuseztatuta dago esparru frantziarraren barruan, inolako izaera ekonomiko propiorik gabe. Beste aldetik, EAEren ezaugarri batzuk izan arren (zerga-sistema, adibidez), Nafarroak ez du nahi bere autogobernua handitu eta sakontzea, EAEk eskatzen duen legez. Gainera, Nafarroak ez du tamaina minimorik, ekonomia-eskala handiagoa eskatzen duten zenbait gastu eta eskumen berak bakarrik kudeatzeko.

2. ZERGA-SISTEMA ETA AURREKONTU-POLITIKEI BURUZKO HAUSNARKETAK

Ogasun- eta zerga-politikak izugarrizko eragina du ekonomiaren funtzionamenduan. Alde batetik, horri esker mota askotako azpiegiturak gara daitezke, hala nola komunikabideak, osasun-arloak eta sozialak. Beste aldetik, sektore publikoak hornitu edo ematen dituen azpiegiturei, subentzioei eta zerga-salbuespenei esker enpresek ere etekina ateratzen dute.

Euskal autogobernuari dagokionez, kontzertu- eta konbenio-erregimena autonomiaren bizkarrezurra eta mamia da. Erregimen horren eskumenen aldaketak euskal herritarrek beren ekonomia kudeatzeko duten ahalmenean eragin dezake. Akordio fiskalak gobernu espainiarraren eta Iruñeko zein Gasteizko gobernuen artean izaten badira ere, etorkizuna guztiz lotuta dago EBko harmonizazio fiskalaren bilakaerarekin.

Euskal erkidegoek duten eskumen-esparrua ezin da erraz mantendu edo garatu moneta-batasuneko prozesuan. Izan ere, Europako Batasunean kapitalen mugimendurako askatasunarekin bat datorren homogeneizatze fiskalak ondorioak izango ditu Euskal Herriko zerga-eskumenetan; zerga nagusietan eragina izango baitu, besteak beste, errenta, elkarteen mozkinak eta ondarea zamatzen dituzten zergetan.

EBko egonkortasun-planaren lehentasuna prezioen gorakadaren kontrola da. Azken garaietan, hauteskunde-arrazoiak direla eta, gero eta zailagoa da baliabide fiskal handiagoak lortzea; bitartean, presio fiskala murrizteko politika zenbait sektoretara hedatzen ari da. Egiturazko erreformak gastu sozialetako programa handietan egiten dira, hots, gizarte-asegururako sistemetan, pentsio-sistemetan eta lan-merkatuaren egiturazko politiketan. Gaur egungo egoeran, epe luzeko interes-

-tasaren kontrola galdu eta gero, Estatuek soldaten kontrako neurriak zorrozten dituzte eta lan-merkatua liberalizatzen dute.

2.1. Europako Batasuna oraindik zalantzan eta anbiguotasunean murgilduta dago

Azken urteetan Europako Batasunean eztabaidagai izan da erregioen eginkizuna; alegia, Bruselan hartzen diren erabakietan parte har dezaketen, hots: EBra zuzen joan ote daitezkeen beren interesak defenditzera, Estatua alde batera utziz; zer nolako harreman-mota izango diren etorkizunean EBaren, estatuen eta erregioen artean; zein izango diren instituzio desberdinen eskumenak. Horri "gobernantza" deitzen diote, hau da, nola gobernatuko den etorkizuneko EB hurrengo hamarkadetan. Eztabaida hori hasi berria da, eta oso lotuta dago EBren zabaltzearekin. Nizako gobernuburuen gailurrean, 2000ko udazkenean, iritzi kontrajarriak agertu ziren nabarmen, eta irtenbide tinkorik ez zen lortu. Beraz, eztabaida mahai gainean dago eta zenbait politikari eta gobernukide hasi dira jadanik beren iritziak plazaratzen. Hemen, hiru proposamen nagusiak aipatuko ditugu: alemaniarra (Schröder-ek aurkeztua), frantziarra (Jospin-ek egina) eta britainiarra (Blair-en bidez azaldutakoa).

Arlo fiskalean, proposamen alemaniarrak politika fiskaleko harmonizazio handiagoa defenditzen du. Moneta bakarreko merkatu batek sistema fiskal homogeneoagoa eskatzen du. Eraginkortasun ekonomiko handiagoa lortzeko, irtenbide bat eman beharko zaio gaur egun fiskalitatearen eta moneta bakarraren artean dagoen desorekari. Proposamen alemaniarrak homogeneotasun handiagoa lortu nahi du zenbait zergatan, batez ere, honako hauetan: enpresen mozkinen gainekoan, kapitalen gainekoan, produkzioari loturiko energia-kontsumoaren gainekoan eta balio erantsiaren gainekoan.

Jarrera frantziarra —hain argia ez bada ere— enpresa-munduarekin loturiko zergen harmonizazioaren aldekoa da. Inbertsioak erakartzeko izan daitekeen zerga-*dumping*en aurkakoa da zeharo.

Proposamen britainiarra liberalena da, alegia, EBko merkatuetan esku-sartzearen kontrakoa. Halaber, ez dago prest Estatuaren zerga-subiranotasuna zalantzan jartzeko. Kapitalen mugimenduen gaineko zein enpresen mozkinen gaineko zergak ekidin nahi ditu. Beste estatuekin batera (adibidez, espainiarrekin batera) energiaren gaineko zergaren aurka agertzen da. Energia-arloko neurri liberalizatzaileak proposatzen ditu; harmonizazioak petrolioaren eta bere deribatuen prezioen gorakada ekar bailezake, eta, ondorioz, zorraren eta defiziten hazkundeak ager litezke, inflazio-presioarekin batera. Jakina denez, azken hamarkadetako ortodoxia ekonomikoaren ardatza prezioen egonkortasuna da.

Energiaren liberalizazioari dagokionez, estatu espainiarrak Frantziatiko hornidura eta lotura behar ditu. Gobernu espainiarrari interesatzen zaion liberalizazioa partziala da; energiaren banakuntzarako monopolioari eusteko presioak jasotzen

ditu enpresa espainiarren aldetik; baina, hala ere, hornidura energetikoa errazagoa eta merkeagoa behar du Frantziaren aldetik.

Beraz, interes komunak agertzen dira espainiarren eta britainiarren artean. Alde batetik, Europan zehar nagusi diren merkatu eta enpresa-talde energetikoen liberalizazioaren aldekoak dira. Baina, beste aldetik, estatu-barruko erregulazioa, legeak, eskumenak eta politikak mantendu nahi dituzte irmoki.

EBko zenbait zergaren harmonizazioa aurrera joango balitz, argiagoa izango litzateke bidea euskal ogasunentzat, EBko arau eta praktika orokorretara egokituko bailirateke. Hala ere, nazio-estatuen jarrerak nagusi irtengo balira, kontzertu eta konbenioaren edukiak Estatuaren barruko indar-erlazioaren arabera ezarriko lirateke. Hori kezkagarria izango litzateke gaur egungo egoeran, arlo fiskalean arau--eskumenak murriztuz baitoaz, inolako berme judizial eta legalik gabe.

Arlo fiskalean galtzen ari den autonomiari buruz dagoen adibide argia aipa dezakegu hemen: Espainiako gobernu zentralak legez murritzaraz ditzake erkidego autonomoen aurrekontu-defiziten hazkundeak. Horretarako, 1980ko hamarkadaren azken urteetan AEBetako gobernuek, aurrekontu-defizitak murrizteko xedearekin garaturiko *"Gramm-Rudman-Hollings Deficit Reduction Act"* delakoa erabili zuten. Horren arabera, aurreikusitako defizita gainditzen denean, aurrekontu-gastuen hazkundea blokeatzen da. Mekanismo hori automatikoa denez gero, ez du behar parlamentuaren onarpenik. Aurrekontu-defizita eta gastua murrizteko filosofia horrek zenbait ondorio dauzka: a) eremu erregional edo autonomikoaren gastu publikoaren garapena eteteko ahalmena gobernu zentralaren esku geratzen da; b) beste aldetik, aurrekontu-defizitak murrizteko ez dira zergak igo behar nahitaez; aitzitik, munduko gobernu liberal populistak (AEBetakoa barne) klase ertainen zein enpresen zergak murrizten dituzten bitartean saiatzen dira defizita gutxitzen (Mitchell, 1989).

Euskal ogasunak nazio-estatu espainiarraren interesen pean baino hobeto egongo lirateke *superestatu europar* baten barruan. Hori horrela izateko, ogasun- eta zerga-arloan euskal erakundeak Estatuak bezalaxe tratatuak izan beharko lirateke. Hala ere, Euskal Herriarekin harremana duten nazio-estatuek (beste estatuek bezala) ez dute onartzen proposamen alemaniarra, Europako superestatua sortzeko tresna dela uste baitute.

Beste aldetik, proposamen alemaniarrak nolabaiteko *renationalisation* bat defenditzen du, zenbait gastu garrantzitsu EBtik estatuetara bideratuz. Frantzia guztiz aurka dago, proposamen hori azkenean aurrera joango balitz gaur egun EBtik jasotzen dituen nekazaritza-subentzioen zati bat berak finantzatu beharko lukeelako. Espainiak, bere aldetik, egiturazko edota kohesio-fondoen zati handiak galduko lituzke, aurreikusitako epea baino lehenago, hots, 2006. urtea baino lehenago. Hori dela eta, EAE oso ukituta geratuko litzateke, Europako Batzordeak finantzatutako programa eta proiektu asko desagertuko liratekeelako.

2.2. Autogobernu fiskala eta banakuntza

Justizia sozialaren eta banakuntzaren ikuspegitik ezin dira bereizi edo banandu kudeaketa sozial eta politikoa eta autogobernu fiskala; alegia, ezin da kontzertuaren irudia modu abstraktu batean hartu.

Euskal erkidegoetan kudeaketa fiskala ez da beti egokia izan. PFEZ delakoak (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga) birdoikuntza batzuk izan ditu azken urtean, eta horien ondorioz murriztu egin da zergak biltzeko ahalmena. Hori kezkatzekoa da, Hego Euskal Herriko presio fiskala (BPGrekiko) Europako kideena baino baxuagoa baita. Bilketaren defizit horrek sistema fiskalaren ahalmenaren hobetzea baldintzatzen du; agian, euroak ekarriko dituen birdoikuntzek alda dezakete egoera.

Edonola dela, beste zio batzuk ere aipatu behar dira zergak biltzeko ahalmen urria ulertzeko: alde batetik, sektore aberats batzuek ez dute inolako *kultura kolektiborik*; eta beste aldetik, burokrazia politikoak ez du zorroztu zenbait enpresari eta profesional liberalen gaineko kontrol fiskala. Hori guztia dela medio, zuzeneko eta zeharkako zergen arteko erlazioa gero eta mesedegarriagoa da azken sektore horientzat.

3. EUROPAKO BATASUNAREN BARRUAN AUTONOMIA ERREGIONAL HANDIAGOA LORTZEKO BIDEAN

Proposamen alemaniarrak —EBren gobernantzari dagokionez— komenigarritzat hartzen du bigarren Parlamentu-Ganbera bat. Horrela, erregioen parte-hartzea handiagoa izan liteke; aldiz, Ministroen Kontseiluaren aldaketa formalak ez luke erregioen presentzia bermatuko, bertan ez bailirateke egongo nazio-estatuetako gobernuen ordezkariak baizik.

Nazio-estatuak beldur izan daitezke, beren izaeraren eta subirotasunaren zati bat gal baitezakete. Estatuek beren nazio-izaera galduz gero, beste estatu batzuen barruan kokatuta dauden estatu gabeko nazioen izaera hobetu liteke.

Erregioentzat eskumenen banakuntza hobea izan liteke Konstituzio europar berri batean, gaur egungo *Konstituzio nazionaletan* baino. Azken hauek beren indar sinbolikoa gal lezakete, Konstituzio europar horrek Estatuen Konstituzioak baino maila altuagoa bailuke.

Europako Moneta-Batasunak aurrekontu-politikak saneatzea eskatzen du; horrek gastu publikoaren murrizketa dakar, kontsumo publikoari eta inbertsioari lotutako gastuena bereziki, eta baita enpresa publikoentzako transferentziena ere. Erregioetako gobernuek ahalmen handia izan behar dute gastu publikoaren arloan politika propioak eta autonomoak egiteko. Gainera, epe luzeko inbertsio-proiektuak garatzeko aukera lortu behar dute, azpiegitura arloan, besteak beste. Aipatutako bi

kasuetan, politika liberal hutsek ez lukete onartuko gastua handitzea; beraz, erregioaren aurrekontuaren igoera oztopatuz gero, autogobernuaren prozesua etengo litzateke eta hein berean hustuko ere.

EB barruan sektore publikoak ekonomia erregulatzeko ahalmena galtzen du. Aitzitik, erregioen autogobernu handia lortzeko, beharrezkoa da hazkundea eta merkatu berrien sorrera antolatzeko ahalmena izatea. Autogobernu handiagoa eskuratzeko, erregioek eta estatu gabeko nazioek berek aurre egin beharko diete etorkizunean sor daitezkeen eskariei eta jarduera ekonomikoa dibertsifikatzeko aukerei.

Gaur egungo industria-politikaren gakoa *Lehiaketa-Politika* da. Politika horrek konkurrentziaren aurkako mugimenduak eta operazioak zailtzen ditu kasu askotan; eta eragozten ditu beste askotan. Halaber, sektore publikoaren edozein laguntza edo esku-sartze galarazten du, bertako historia, gorabeherak eta beharrak kontuan izan gabe. Finantzabideak lortzeko eta finantza-instituzioak kontrolatzeko, erregioen ahalmena oztopatuta dago, EBko Itunetan (Amsterdam-eko Itunean, batez ere) agertzen diren ildoen ondorioz.

Industria-herrialde nagusiek (Alemania eta Frantzia) subentzio gehiago ematen dizkiote beren ekonomiari. Aitzitik, aberats ez diren herrialdeek (Portugal, Grezia, Irlanda eta Espainia) kohesio-fondoa (eta egiturazko fondo ugari ere) jasotzen duten heinean, EBk gardentasun handiagoa eta kontrol handiagoa eskatzen diete. Potentzia handiak, aldiz, *estatistika nazionalaren* iluntasunean ezkutatzen dira, kontrol europarretik kanpo beren enpresei subentzioak emateko; lau herrialde handiek EBko industriarentzako laguntza publikoen %80 baino gehiago jasotzen dute. Gainera, Alemaniak laguntza ugari lortu ditu, Ekialdeko *länder* izeneko eskualdeak birmoldatzeko beharragatik.

Azken garaian Lehiaketa-Politikak izan duen deszentralizazioa herrialde nagusien onerako izan da; adibidez, estatu espainiarrak ez ditu erreformara egokitzeko tresnak, ezta esperientzia ere.

Beraz, herrialde indartsuen nagusitasunak ez du eskaintzen euskal erregimen fiskalerako etorkizun itxaropentsurik.

Herrialde garatu gehienetan nagusi den pribatizaziorako joerak ondorio kaltegarriak izango ditu estatuaren azpiko zenbait lurraldetan, baldin azken hauek beren sare produktiboa sortu nahi badute, beren sare produktiboaren egituraketa kontrolatu nahi badute eta, azken finean, beren garapena gidatu nahi badute.

Gaur egun Europako Batasunean, estatuen eta erregioen arteko harremanak eta eskumenen gatazkak bi aldeen artean eztabaidatzen eta konpontzen dira. Hots, negoziazio, konpromiso, akordio eta gatazken esparrua estatuaren mugen barruan kokatzen da. EB ez da sartzen eskumenen gatazka horretan; edozein kasutan

Europako Batzordearen solaskide bakarra estatua da. Dena den, zenbait estatu federaletan —Belgikan, Alemanian eta Austrian, besteak beste— erregioak zuzenean ordezkatuta daude Elkartean. Beraz, boterearen mekanismoa geodinamika espazial baten bitartez eratzen da; bertan aurrez aurre dauden indarrak Brusela eta Estatuen gobernuak dira. Ontzi komunikatuen analogia egiten badugu, eskumenak (likidoa) EBren eta Estatuen artean ibiliko lirateke ontzi horietan zehar. Eszenatoki horretan *subsidiaritatearen* ondorioz, likidoa (eskumenak) batzuetan EBtik estatuetara higituko litzateke, eta beste batzuetan alderantziz, Estatuetatik EBra. Alegia, eskumenak aurkako norabidetik ibil litezke, baina ez lirateke inoiz aterako ontzi komunikatuetatik, baldin eta ontzi berrien sorta txertatuko ez balitz.

Gaur arte, subsidiaritatea ez da aintzat hartzen estatuaren azpiko lurraldeentzat; hala ere, negoziazio-txanda berri batean erregioen eta estaturik gabeko nazioen alde ere onar liteke. Konfiantzaren eta tolerantziaren izenean, subsidiaritatearen printzipioa erregioetara iritsi beharko litzateke; herritarrek barneratuta dituzten gizarte-balioak erregioetan islatzen eta azalarazten dira hobeto, nazio-estatuetan baino.

Euskal erkidegoek, estaturik gabeko beste nazio europarrekin batera, lehen-lehenik berei eragiten dieten EBko erabakietan parte-hartzea eskatu behar dute. Era berean, Estatuak erregioekin eta estaturik gabeko nazioekin subiranotasuna partekatu beharraz kontura daitezen, erregioek *lobby*-lanaren bidez presionatu behar dute. Eskakizun-maila handiena duten erregioak edota nazioak hauexek dira, besteak beste: Katalunia, Flandria, Walonia, Eskozia, Gales, Salzburgo, Bavaria eta Ipar Renania-Westfalia.

4. MAILA ASKOTAKO GOBERNANTZA (MAG): ESKUMEN-KONPLEXUTASUNA

"Maila askotako gobernantza" (MAG) kontzeptuak gobernu-maila desberdinek garaturiko eskumenen konplexutasuna eta gainjartzea adierazten du. Eragile politiko berrien jokaera berriztatzailea azaleratzen da; agente horiek zeharkako sareen bitartez jarduten dute eremu desberdinetan (nazioez gaindi, estatu eta erregioetan). Alegia, eragile politikoen arteko harremanak ez dira soilik estatu barrukoak, ezta estatuaren menpe gertatzen ere. Beraz, kontrol politikoa ez da monolitikoa eta homogeneoa, aldakorra baizik, interes politikoen arabera eta gai jakinetan zenbait eragile engaiatzeko ahalmenaren heinekoa.

Politika erregionala mota horretako (MAG) ikuskeraren adibide garrantzitsua da. Zenbaitetan beste arloetako politikekin gainjartzen da, berrikuntzari eta ingurumenari buruzko politikekin, besteak beste. Azken bi hauek EBko zein estatuetako politiken gai garrantzitsuenak dira. EBko politika erregionalak hartzen duen aurrekontuaren zatia handiagotu egin da azken urteetan (gaur egun %30 baino gehiago da). Politika horien baliabideak gehiago diren heinean, bertan parte-

-hartzen duten erakundeak areagotzen dira, eta horien eragin politikoa handitzen da. Hori dela eta, MAGaren adituek aldarrikatzen dute ezen Politika Erregionalaren kasuan —eta etorkizunean Berrikuntza Politikan ere— gai horiei buruzko eskumen guztiak dituen erakunderik ez dagoela (Cooke, 1998).

Aipatutako gaiekin loturiko maila askotako politika-sareetan inplika daiteke politika erregionala. Inplikatzeko ahalmena, estatu azpiko erakundeak Konstituzioan dituen legitimitate, botere eta autoritate-mailaren araberakoa da. Europako Batasuna administrazio erregionalen bilakaeraren aldekoa izan arren, ez dago erregio-eskumenen eredurik Elkartean. Izan ere, estatuen erregionalizazio-prozesuaren eskutan geratzen da; estatuek beren deszentralizazio-programen arabera ezartzen dituzte erregio administratiboak. Beste batzuetan, beren interesen arabera eta beren lurraldeak kudeatu eta kontrolatzeko autonomia handiagoa eskatzen duten erregioen *erregionalismoari* aurre egiteko finkatzen dute estatuek eskumenen eredua (Cooke *et al.*, 1997). Hots, EBren barruan erregioek eskumen desberdinak dituzte. Batzuek —Walonia eta Frandria adibidez— eskubide konstituzional ugari dituzte, EBko Ministroen Kontseiluaren bileretan ordezkaria izanik. Beste batzuk, *länder* alemaniarrak edo austriarrak kasu, *federalismo kooperatiboan* aritzen dira. Azkenik, beste batzuek era deszentralizatuan kudea dezakete aurrekontua.

Berrikuntza erregionalaren politika dimentsio askotako gobernantza-ikuskeraz ezartzen da EBn; bertan *lobby* ugarik jokatzen dute, industria, zientzia eta administrazio erregionalen arloetan.

Nazio-estatuen izaera nahikoa aldatzen da Europako Moneta-Batasunean sartzean. Moneta- eta truke-politiken eskumenak galtzean, estatuak politika makroekonomikoen kudeatzaile huts bilakatzen dira; beste eskumen batzuk partekatuta daude. Estatuaren benetako subiranotasuna berak legitimitate handiagoa duen arloetara mugatzen da (gizartea, lana, barne-ordena edo kultura kudeatzen duten arloetara, kasu).

5. IZAERA SISTEMIKOA TOKIAN TOKITIK (ERA ENDOGENOAN) INDARTUZ: BERRIKUNTZA-SISTEMA

Erregioek, batez ere *estatu-erregio* dinamikoenek, interes kolektiboak ordezkatzen dituzte; gainera, jarduera ekonomikoen fluxu garrantzitsuenak finkatzen dituzte. Eragile ekonomiko desberdinen arteko harremanen eta sinergiaren bidez hobetu egiten dira jarduera ekonomiko horiek. Abantaila konparatiboak hobetzea eta bultzatzea dute erregioek xede nagusitzat; horretarako, eragile ekonomikoen arteko kooperazioa sustatzen dute. Hortaz, erregioa benetako identitate handiko entitate gisa agertzen da.

Ikuskera sistemiko batetik, gizartearen eragileen arteko harremanek zenbait ezaugarri dituzte: kooperazioa, kidetasuna, koordinazioa, ikaskuntza, berrikuntza-

ren balorazio soziala, eta abar. Ezaugarri eta balio horien bizitasunak harreman sistemiko horien indarra eta ahalmena islatzen ditu. Alegia, intentsitate handiko balio horiek dituen erregio bat berrikuntza-prozesu eraginkorra garatzeko gai izango da (Gomez Uranga, 1998 eta 1999).

Balio-sorta jakin batek (sistema instituzionalak) informazioaren eraketa eta hedapen hobea ahalbidetzen ditu. Horrela, harreman ekonomiko eta sozialekin batera agertzen den ziurgabetasuna murrizten da. Halaber, gatazken erregulazioa hobetzen da eta kooperaziorako oinarriak finkatzen dira. Hortaz, marko instituzionalaren administrazio eta kudeaketa egokiak emaitza eta etekin ekonomiko hobeak ekar ditzake.

Erregio garatuenek ikaskuntza dinamizatzeko ahalmena dute bereizgarri (Cooke eta Morgan, 1998). Ezaguera-gizartearen logikari aurre egiteko, langileek duten trebakuntza profesionalak ikaskuntza-prozesua laguntzen du. Gaur egun, merkatu-lehiaren logika balio nagusia denez gero, enpresek koopera dezaten, beharrezkoa da gizartetik hurbil dagoen instituzionalizazio politikoa. Instituzionalizazio horrek konfiantza eta balio kooperatiboak indartu beharko lituzke, proiektu komunetan oinarritutako lidergoa, besteak beste. Zenbait azterketa enpirikok (Cooke, 1998) erakusten dutenez, enpresen arteko kooperazioa ez da berez sortzen; aitzitik, hasieran ez da kooperazioa existitzen normalean. Beraz, gehienetan sustarazi egin behar da kooperatzeko beharra, ikaskuntza-prozesuak bultzatzen dituzten ekimen politikoen bidez. Gure iritziz, bakarrik botere politikoa da gai enpresen arteko kooperazioa bultzatzeko, xede kolektibo eta nazionalak lortzeko asmoz. Sektore publikoak erakuts diezaieke enpresei beharrezkoak direla epe laburretik harantzago begiratzea eta maila indibiduala gainditzea.

Emaitza berritzaileak dituen erregio baten izaera sistemikoa bultzatzeko ahalmena honako faktore hauekin dago lotuta:

- Erakunde laguntzaileen funtzionamendu egokiarekin (Garapenerako Agentziak, Gobernu erregionalaren Politikak eta Departamentuak, eta abar).
- Berezko helburuak lortzeko instituzio-sistemaren (hezkuntza, formazioa, finantza-sistema) erabilpenarekin.
- Enpresen arteko kooperazio-sareak indartzearekin (baita enpresa eta beste eragileen artekoak eta beste lurraldeekikoak ere).
- Barneko harreman onak eta elkarrekiko konfiantza lortzeko beharrezko diren balioak sustatzearekin.
- Gehiengoa ordezkatzen duten eta erregioaren (edota estatu gabeko nazioaren) instituzionalizazio propioa aurrera eramateko prest dauden erakunde politikoen arteko adostasunarekin.

Funtzionamendu sistemiko egokia lortzeko, balioak aldatu behar dira. Halaber, erregioen edo estatu gabeko nazioen garapenaren aldeko instituzio propioek egonkorrak izan behar dute. Tokian tokiko gizartean bat etorri behar dute sistema ekonomikoaren funtzionamendua bermatzen duten xedeei buruz: hezkuntza-sistemaren hobekuntza, kualifikazio-egituraren hobekuntza, administrazio publikoaren kudeaketaren hobekuntza, azpiegituren modernizazioa gizarte eta ingurumenaren interesen arabera, ingurune berriztatzailearen hobekuntza, zerga-bilketaren hobekuntza, enpresen konpromisoa ingurumenarekiko eta langileekiko, eta enpresek balio kolektiboagoak izatea. Euskal proiektu ekonomikoaren berriztapenerako bidean, sistema ekonomikoaren modernizazioa eta aberastasunaren banakuntza zuzena ezin bananduzko helburuak dira.

6. AZPIEGITURAK: GARAPENA ETA ADOSTASUNA ERREGIOETAN[1]

Gaur egun, azpiegitura-proiektuak burutzeko hiru maila bereiztezin izan behar ditugu kontuan: garapena eta aberastasuna sorrarazteko ahalmena (eragin-kortasuna); garapen jasangarria lortzeko gaitasuna (banakuntza soziala eta ingurumenaren kalitatea); eta azkenik, lurraldearen kohesioa erdiesteko ahalmena.

Lurraldearen kohesioa garrantzi handiko gaia da, baita eztabaidagarria ere. Azpiegitura-proiektuen garapenerako sektore desberdinen arteko akordioak lor daitezke, Euskal Herrian lurralde- eta gizarte-kohesioa eratzeko asmoz. Berebat, ingurumenaren gaineko kalteak murriztu egin beharko lirateke. Hori guztia, etorkizuneko garapena murritz dezaketen mugak gainditu behar direla ahaztu gabe; alegia, trenbide-sarean, aireportuetan, errepideetan, telekomunikabideetan, energia-sarean eta abarretan dauden defizitak gutxitzeko asmoz.

Behar beharrezkoak dira emaitza sozioekonomiko hobeak dakartzaten azpiegiturak xedatzeko akordioak. Komenigarria da gizartearen sektore sozioekonomikoek dituzten helburu desberdinei buruzko adostasuna lortzea. Azpiegitura-planen eragina nozituko duten agenteak zehaztu eta identifikatu behar dira. Horrela, azpiegitura-proiektuen garapenean parte hartzen duten edota eragina jasango duten agenteen deskribapen laburra egin daiteke: a) lehenik, inbertsore edo finantza-taldeekin negoziatu behar da (bermeak, finantza-baldintzak, merkatu-azterketak, eskariaren bermea); b) izan daitezkeen erabiltzaileek prezio eta kalitateari buruzko xehetasunak ezagutu nahi dituzte; c) administrazio publikoak aurrekontu eta defizit publikoa du kezka nagusia; d) zergadunek azpiegiturak finantzatzeko izango duten zama fiskala ezagutu nahi dute; eta, azkenik, e) enplegu, ingurumen edota kokapenari loturiko arrazoiak direla medio, azpiegitura-proiektuen ondorioak jasan ditzaketen kolektibo eta herriak daude.

1. Atal hau garatzeko, zenbait autoreren lan kolektiboa hartu dugu erreferentziatzat: Gómez Uranga, Lasagabaster, Letamendia eta Zallo (1999: 343-349).

Demokrazia parte-hartzailea ezartzeko, talde desberdinek hartu behar dute parte, azpiegituren diseinu-fasetik kudeaketa- eta ustiapen-faseraino. Gaur egungo demokrazian oso eskasa da parte-hartzea. Izan ere, gero eta eskakizun gehiago entzuten dira arazo horri aurre egiteko: deszentralizazioa (subsidiaritate-printzipioa, demokrazia parte-hartzailea), esku-hartze publikoa, gizarte zibila indartzea, erabaki publikoen kontrol handiagoa eta gardentasun garbiagoa (Allende, 1998: 165).

Gaur egungo marko europarrak azpiegituren koordinazioa eskatzen du, kapitalaren internazionalizazioak nazio-estatuen sareak gainditzen baititu. Beraz, energiaren garraioa, autopista-sareak, trenbideak eta datuen igorpena nazioartean ezartzen dira. Hori dela eta, autogobernu eta subiranotasunaren eskakizunak kontuan hartu beharko lituzke koordinazioak dakartzan mugak. Batzuetan, ezinezkoa izango da azpiegitura-proiektu propioak aurrera ateratzea, proiektu horiek joera nagusien aurka baldin badoaz.

7. ENPRESA-ERAKUNDEEN ALDAKETAK: BALIO-ALDAKETA

Ohiko ezaugarrien arabera, enpresek zuzendari edo jabeen elite baten kontrolpean dagoen egitura hierarkikoa dute; erabaki nagusiak elite horrek hartzen ditu. Mota horretako erakundeek esplotazioa eta klaseen arteko gatazka nagusi diren inguru batean kokatzen dira; enpresen xedea errentagarritasuna hobetzea da, kostuen murriztapenaren bidez, normalean. Zuzendaritzak ez dio informazio nagusia inori ematen; ez langileen ordezkariei, ez akziodunei, ezta bezeroei ere. Beraz, erakunde horiek ez dute konpromiso eta betebehar handirik hartzen beren inguru eta gizartearekin. Gainera, batzuetan ez dituzte behar fiskalak egoki betetzen, ezta beren ingurumena eta hiri-oreka taxuz errespetatzen ere.

Lehiakortasunaren gakoa *kultura korporatiboa* da. Ohi denez, enpresen eraginkortasuna eta emaitzak jardueraren arlo desberdinetako kostuen aurrezkiarekin daude lotuta; enpresen kostu-egituraren atal nagusietariko bat barneko zein kanpoko koordinazioari dagokio. Antolakuntza-kostu horiek neurri handi batean txikiago egin daitezke, baldin eta koordinazio hobea ahalbidetzen duten balio egokiak (konfiantza, leialtasuna, ikaskuntza-gaitasuna) garatzen badira.

Enpresa-erakunde moderno, malgu eta ireki batentzat, aldaketak ez dira teknologian, langileen kualifikazioan eta motibazioan soilik gertatzen; aldaketa nagusiak, batez ere, kultura eta balioen arloetan izan behar dira.

Gaur egun, sistema ekonomikoan gertatzen ari diren aldaketetara egokitu behar da enpresa. Enpresaren lehiakortasunaren kontzeptua hein handi batean aldatzen ari da; izan ere, produktibitatearen edo lehia-egoeraren hobekuntzak ez daude soilik enpresaren eskuetan, baizik eta berarekin batera elkarreragiten duten sistemaren beste agenteenetan ere. Alegia, sistemaren koordinazio hobeak sarearen osagai guztien hobekuntza dakar, konfiantza sorraraztea oinarrizkoa izanik.

Hurrengo urteetan euskal enpresak balio berri horien bidetik joan beharko lirateke; hala ere, gaur egun erresistentzia nabaria dago bide horretatik abiatzeko. Kasu gehienetan, enpresa txikien interesak eta enpresa transnazional handien interesak ez doaz batera; hori dela eta, beren jarduera ekonomikoa garatzen duten gizartean dituzten inbrikazio-mailak oso desberdinak dira. Gaur egun, EAEn bi enpresa-mota bereiz daitezke: alde batetik, oso lehiakorrak eta sektore publikoak lagunduak diren enpresen multzo txiki bat, eta beste aldetik, gainerako enpresa guztiak, beren arazoekin.

Tamalez, oraindik euskal ekonomiaren jarduerak ez dira berriztatzen lanpostu berriak sortzeko asmoz. Beste aldetik, enpresa lehiakorretan eskasa da parte-hartzea, eta ez da demokrazia parte-hartzailea lortu. Gardentasuna eta erabaki estrategikoetan langileen parte-hartzea ez dira ezta urrundik ere nabarmentzen; konfiantzaren ordez sumisioa da nagusi, eta, beraz, esplotazioa handitzen da. Kooperatiben sektorean parte-hartzea estatutuetan agertzen den arren, teknokraziak daramatza kontrola eta nagusitasuna. Parte-hartze demokratikorik eza ez da soilik enpresetan gertatzen; izan ere, bizitza publikoan eta erabaki instituzional estrategikoetan ez da inolaz ere parte-hartzea agertzen. Iluntasuna eta instituzioen eta enpresarioen arteko lagunkeria ohikoak dira; epe luzeko inbertsio publikoen planak ez dira iritzi publikora iristen, eta ez zaizkie kolektibo sozialei ezagutarazten.

8. EUSKAL FORMAZIO-SISTEMA ETA EHUN PRODUKTIBOA[2]

Ekonomia industrial solidario batek produktibitatearen etekinak hurrengo xedeetara bideratu beharko lituzke: soldata egonkorrak lortzera, lanaldia murriztu eta berrantolatzera, soldata soziala erdiestera, enplegu-ekimen lokalak bultzatzera, mugikortasun eta malgutasunaren kudeaketa instituzionalizatzera eta iraultza teknologikoaren abantailak bilatzera. Helburu horiek lortzeko, beharrezkoa da aginte publikoaren ekimen birbanatzailea. Horrelako gizarte batean, konpromisoetan oinarritutako interes kolektiboak eta aldaketa produktibo negoziatuak ahalbidetuko lirateke.

Demokrazia kooperatiboaren eredu produktiboaren ikuspegitik, formazio-azpisistema oso lotuta egon behar da beste azpisistemekin (azpisistema ekonomiko-industriala, teknologia-berrikuntzaren azpisistema, zientzia-azpisistema, giza baliabideen azpisistema, finantza-azpisistema). Hori dela eta, ikuspegi estrategiko batek gidatu behar du formazio-prozesua. Era berean, formazioaren ikuspegi estrategiko hori estuki lotuta dago enpresa-estrategiarekin; alegia, enpresaren kudeatzaileek eta inguru instituzionalak eragiten duten erabaki-multzoarekin.

2. Atal honetan agertzen diren ideiak Anton Borjarenak (1998: 335-357) dira.

9. GIZARTE-SEGURANTZARI BURUZ

Estatuaren izaeran aldaketa sakonagoak gertatzen ez diren bitartean, nazio-estatuak gizartearen ongizatea bermatu behar du, subirotasunaren ezaugarri eta oinarri diren baliabide egonkorrak, propioak eta besterenezinak erabiliz. Hala ere, ongizate--estatuari lotutako eskumenen transferentziak EAEko aberastasunen eta errentaren banakuntza bidezkoagoa eta etekin sozial hobeak ekar litzake. Dena den, lehiakorrago izatea eta etekin hobeak lortzea helburu bakartzat duten sektoreek eta taldeek oztopa lezakete eskumenen transferentzia hori. Beraz, talde eta sektore horiek ez lukete izan behar ongizate-estatuari lotutako gaien autogobernua (aseguru sozialak, lan-legeak eta politikak, eta beste politika sozialak) erdiesteko lehentasuna eta premia; besteak beste, arlo sozialetan gerta litezkeen aurrerapenak eta eraginkortasunaren helburua batera ez doazelako.

Agian, Estatuaren eta EAEren arteko gatazkaren zurrunbiloan kokaturik dagoen eskumen nagusia Gizarte-Segurantza da. Gaur egun, biztanleriari eta *per capita* errentari dagokienez, EAEk ezin diezaioke ekarpen garrantzitsurik egin estatu espainiarrari, ezta bere birbanakuntza-funtzioan gehiegi lagundu ere. Beraz, kutxa bakarraren haustura aipatu arren, ez da inolaz ere ulertzen Gizarte-Segurantza EAEra ez transferitzea, elkartasunik ezaren aitzakiaz.

Gizarte-Segurantza transferitzeak Estatuaren barruko solidaritateari kalte egingo liokeela argudiatzea ez da zentzuzkoa ezta zuzena ere, gastu soziala sistema kontzertatura egokitu bailiteke. Gaur egun, Gizarte-Segurantzaren sistema barruan badira sistema berak abonatu beharko ez lituzkeen laguntzak; besteak beste, langileen kotizazioen bidez ordaintzen diren *osagarri minimoak* (600 mila milioi pezeta urtero). Osagarri horiek prestazio unibertsala direnez gero, adituek uste dute Estatuaren aurrekontu orokorretan sartuko direla; beraz, Hego Euskal Herriko erkidegoetan kontzertu-erregimenean integratuko dira.

10. IPAR EUSKAL HERRIA[3]

Europako Batasunak erregionalismoa edo estatuen lurralde-antolaketa funtzionalagoa bultzatzen du, lurraldeentzako fondoak hobeto kudeatzeko asmoz, besteak beste. Bestalde, Kontseilu Erregionala sortu zen; bertan ordezkatuta daude erregioak eta estaturik gabeko nazioak, zenbait faktoreren arabera: historia, kultura, eskakizun nazionalak, ideologia eta abar. Dena den, erakunde politiko-administratiborik gabe ez dago ekonomia propiorik, ezta identitate ekonomikorik ere.

Estatu frantziarrean, aspalditik, erregioek eta lurraldeek bazuten nolabaiteko produkzioen edo zerbitzuen espezializazioa, baina Parisko administrazio zentrala-

3. Ipar Euskal Herriari buruzko gaia aztertzeko Yolanda Jubeto eta Anton Borjaren lana (1998: 361-385) erabili dugu.

ren menpe antolatzen zen espezializazio hori. Erregioek eta metropoliek ez zuten bere autosufizientzia urrundik ere lortzen; Paristik pasatzeko transakzio-kostuak nahiko handiak ziren. Azken hamabost urteotan izan diren aldaketa deszentralizatzaileek estatu zentralistaren administrazioari zenbait kostu murrizten dizkiote eta ordezkatze lokala handitzen dute. Hala ere, Frantzia ez da iristen EBko beste herrialdeetan garatu den erregionalizaziora, EB beraren presioa jaso arren.

Ipar Euskal Herria izaera oso ezberdinetako makro-erregio batean kokatuta dago; oso eskumen gutxi dauzka eta zeharo lausotuta geratzen da. Gainera, ez du departamentu propiorik ere.

Ipar Euskal Herriko ekonomiak ez du izaera propiorik eta menpekotasuna jasaten du; beraz, ezin du beste biderik aukeratu. Inbertsio handiak egiteko orduan, Departamenduak, administrazio zentralaren ordezkari gisa, Frantziara begiratzen du eta ez Euskal Herrira. Adibidez, ez du kontuan hartzen ahalmen handiko tren-azpiegitura Hendaiatik balizko *euskal Y* delakoarekin lotzea; aukera horrek ez luke interesik sortuko Pauen, Departamenduko hiriburuan. Gainera, azpiegitura-arloko inbertsioak metropolietan kontzentratzeko joera da nagusi; beraz, logika ekonomikoari jarraiki, Pirinio Atlantikoetako Departamenduan azpiegitura-inbertsio garrantzitsuak Paue ingurura bideratuko lirateke.

Ez da onargarria gizarte baten ezaugarri bereziak (hizkuntza, ohiturak eta historia kolektiboa) antolaketa politiko-administratibo propioan ez islatzea. Hori dela eta, bertako biztanle guztiek (ez bakarrik euskal nazionalistek) baliabide ukigarri eta ukiezinak galtzen dituzte. Izan ere, erakunde politiko-administratibo propioak ez izateak arazo ugari sortzen ditu: gizartea eta ekonomia desitxuratu, koherentzia sistemikoa ahuldu, helburuak erabakitzeko menpekotasuna handitu eta ekonomia antolatzeko ahalmena murrizten du, besteak beste. Gure ustez, Departamendua ez da antolaketa-era egokiena aipatutako egoera okerrari irtenbidea emateko; baina gaur egungo Ipar Euskal Herriko gizartearen nahiari, ideologiari eta hauteskundeen emaitzei begiratzen badiegu, aurrerapauso errealistatzat hartu behar da.

11. EUSKAL NEKAZARITZA EUROPAKO BATASUNARI ETA GLOBALIZAZIOARI AURRE EGITEN[4]

Gaur egun Euskal Herriaren elikagai-subiranotasuna erreibindikatzeke dago. Elikagai-subiranotasuna horrela ulertu behar da: gizabanakoek, gizarteek eta nazioek elikagaien produkzio, hornidura, komertzializazio- eta kontsumo-estrategiak erabakitzeko askatasuna eta ahalmena. Euskal Herriak, produkzio eta kultura-dibertsitatea errespetatuz, behar dituen oinarrizko elikagaiak ekoizteko ahalmenari eusteko eskubidea dauka.

4. Gai honetan Maite Aristegiri (1998: 199-230) jarraitu diogu.

Elikagai-subiranotasuna lortzeko baldintzak zeharo berriztatu beharko lirateke: besteak beste, gaur egungo inguru sozioekonomikoa, nazioarteko merkataritza-akordioak eta nazioarteko, estatuetako eta sektoreetako politika makroekonomikoak.

Maila makroekonomikoan egin beharreko proposamenak hauexek izango lirateke:

– Merkataritza Askeko Ituna berriro negoziatzea: oinarrizko sektoreak Itun honetatik kanpora geratuko lirateke, barneko produkzioa eta hornidura susta daitezen.

– Populazioaren elikagai-segurtasunak lehentasun osoa izango luke, merkataritza askearen aurretik.

– Nekazaritza, abeltzaintza eta elikagaietarako inbertsioei buruzko jokaera-kodea bultzatu beharko litzateke.

– Baserritarraren eskubideen definizioa egin beharko litzateke, baserritarren erakundeekin kontsultatuz eta adostuz. Gai genetikoen inguruan baserritarraren eskubideak zehaztu eta finkatu arte, eten egin beharko litzateke gai horien merkataritza. Baliabide genetikoak milurteko askoren eboluzioaren emaitza dira eta gizon-emakume guztionak dira.

– Nekazaritza-erreforma egokia ezarri beharko litzateke, ekoizpenaren eta kontsumoaren arteko oreka lortzeko eta elikagai-segurtasuna bermatzeko asmoz; halaber, erreforma horrek ikuspegi sozialagoa izan beharko luke, Europako Nekazaritzaren Orientazio eta Bermerako Fondoak era aurrerakoian bideratzeko eta banatzeko, lurraldeen arteko desorekak murrizteko eta baserritarren errentak babesteko.

– Epe luzean jasangarria izateko, kimikarekiko menpekotasuna desagertu eta produkzio-eredu intentsibo eta industrializatuetatik urrundu beharko litzateke nekazaritza.

Amaitzeko, Euskal Herriari dagokionez, bi proposamen:

– Baserrian lan egiten eta lanbide bakarra duten nekazari txiki eta ertainen aldeko nekazaritza-politika, zeinean horien eskubideak aintzat hartu eta gainerako herritarrenekin parekatuko liratekeen; gainera, politika horrek eredu produktibo (ez-produktibista) eraginkor eta sozialaren aldeko apostua egin beharko luke.

– Berrikuntza bioteknologikoen patenteei uko egitea eta genetikoki aldatutako gaiei buruzko prebentzio- eta ardura-printzipioak betetzea.

BIBLIOGRAFIA

Allende, J. (1998): "Revalorización de lo local frente a la globalización" in Arizkun, A., Galarza, E. eta Gómez Uranga, M. (koord.), *Soberanía económica y globalización en Euskal Herria*, Manu Robles Arangiz Institutua, Bilbo.

Amin, A. (1999): "An institutionalist perspective on regional economic development", *International Journal of Urban and Regional Research,* Vol. 23, Nº 2.

Aristegi, M. (1998): "La agricultura vasca en el marco de la Unión Europea y la globalización", in Arizkun, A., Galarza, E. eta Gómez Uranga, M. (koord.), *Soberanía económica y globalización en Euskal Herria*, Manu Robles Arangiz Institutua, Bilbo.

Borja, A. (1998): "Sistema formativo y tejido productivo vasco. Retos ante el siglo XXI", in Arizkun, A., Galarza, E. eta Gómez Uranga, M. (koord.), *Soberanía económica y globalización en Euskal Herria*, Manu Robles Arangiz Institutua, Bilbo.

Braczyk, H., Cooke, P. eta Heidenreich, M. (arg.) (1997): *Regional Innovation Systems*, UCL Press, Londres.

Cooke, P. (koord.) (1998): *Regional Innovation Systems: Designing for the Future-REGIS*, 1996-98, European Commission.

Cooke, P. eta Morgan, K. (1998): *The Associational Economy: Firms, Regions and Innovation*, Oxford University Press, Oxford.

Dugger, W. M. eta Waller, W. T. Jr. (arg.) (1992): *The stratified State*, M. E. Sharpe.

Gómez Uranga, M. (1998): "Algunas reflexiones sobre la soberanía económica desde las perspectivas de las competencias y de la cultura", in Arizkun, A., Galarza, E. eta Gómez Uranga, M. (koord.), *Soberanía económica y globalización en Euskal Herria*, Manu Robles Arangiz Institutua, Bilbo.

Gomez Uranga, M. (1999): "Un nuevo discurso económico para la soberanía", in Gómez Uranga, M. *et al*. (koord.), *Propuestas para un nuevo escenario. Democracia, cultura y cohesión social en Euskal Herria*, Manu Robles Arangiz Institutua, Bilbo.

Gomez Uranga, M. eta Etxebarria, G. (2000): "Panorama of the Basque Country and its Competence for Self-Government", *European Planning Studies*, Vol. 8, No. 4.

Gomez Uranga, M., Franco, H. eta Etxebarria, G. (1998): "Las redes de infraestructura y el desarrollo regional", in Arizkun, A., Galarza, E. eta Gómez Uranga, M. (koord.), *Soberanía económica y globalización en Euskal Herria*, Manu Robles Arangiz Institutua, Bilbo.

Gómez Uranga, M., Lasagabaster, I., Letamendia, F. eta Zallo, R. (koord.) (1999): *Propuestas para un nuevo escenario. Democracia, cultura y cohesión social en Euskal Herria*, Manu Robles Arangiz Institutua, Bilbo.

Jubeto, Y. eta Borja, A. (1998): "Iparralde ante la encrucijada del futuro", in Arizkun, A., Galarza, E. eta Gómez Uranga, M. (koord.), *Soberanía económica y globalización en Euskal Herria*, Manu Robles Arangiz Institutua, Bilbo.

Keating, M. (1996): *Naciones contra el Estado. El nacionalismo de Cataluña, Quebec y Escocia*, Ariel Ciencia Política, Bartzelona.

Klein Philip, A. (1987): "Power and economic performance: the institutionalist view", *Journal of Economics Issues,* vol XXI, 3.

Martinez, M. J. eta De la Cal, M. L. (1998): "La protección social y el empleo en un entorno de globalización económica: Situación y perspectivas", in Arizkun, A., Galarza, E. eta Gómez Uranga, M. (koord.), *Soberanía económica y globalización en Euskal Herria*, Manu Robles Arangiz Institutua, Bilbo.

Mitchell, D. J. (1989): "Sequestration: Gramm-Rudman's Potent Weapon for Spending Restraint", *Policy Analysis* **119**, April 1989.

Parés, M. eta Tremblay, G. (eds.) (1990*): Catalunya, Quebec, Autonomía i mundialització*, Generalitat de Catalunya, Bartzelona.

Putnam, R. (1993): *Making democracy work, Civic traditions in modern Italy*, Pricenton University Press.

ERANSKINA: mapak


Euskal Herria eskualdeka banatuta
Euskal Herriko eskualdeak
1. Bilbo Metropolitarra
2. Enkartazioak
3. Alaraho eskualdea
4. Arratia
5. Durangaldea
6. Mungiako eskualdea
7. Busturialdea-Artibai
8. Deba Beherea
9. Deba Garaia
10. Goierri
11. Urola Kostaldea
12. Tolosaldea
13. Donostia-Beterri
14. Arabar Erdialdea
15. Arabar Errioxa
16. Lizarraldea
17. Erribera Garaia-Aragoa
18. Erribera Beherea
19. Nafarroa Erdiko Ekialdea
20. Irunerria
21. Pirineoak
22. Nafarroa Hegoa
23. Atlantatze-Sorholüze
24. Maule-Lextarre
25. Donibane-Garaz
26. Baigorri
27. Iholdi
28. Donapaleu
29. Hazparne
30. Ezpeleta
31. Uztaritze
32. Bidaxune
33. Bastida
34. Hiriburu
35. Baiona-Angelu-Biarritz
36. Donibane-Lohizune
37. Hendaia


Dentsitate demografikoa Euskal Herriko eskualdeetan
(Eskualde bakoitzaren barruan agertzen den zenbakiak honako hau adierazten du: eskualde jakin horretako biztanleria zenbatekoa den, ehunekotan, Euskal Herri osoko biztanleriarekiko)
%0,2
%0,5
%3,7
%0,8
%0,9
%0,2
%0,3
%0,7
%0,3
%0,4
%0,4
%0,1
%0,1
%0,2
%0,2
%0,5
%13,4
%1,9
%9,1
%1,0
%2,5
%1,5
%2,3
%2,2
%1,2
%1,9
%1,9
%2,5
%3,2
%2,2
%0,7
%8,4
%0,3
%1,5
%1,2
%1,0
Dentsitate demografikoa (biztanleak /km²)
> 2000
1500 - 2000
1000 - 1500
200 - 500
100 - 200
50 - 100
25 - 50
< 25


Nekazaritza-sektoreko langileria Euskal Herriko eskualdeetan (%)
Nekazaritzan lanean diharduten ehunekotan
(langile guztiekiko %)
> 25
15 - 25
10 - 15
5 - 10
2 - 5
< 2


Industria-sektoreko langileria Euskal Herriko eskualdeetan (%)
Industrian lanean dihardutenak ehunekotan
(langile guztiekiko %)
> 50
40 - 50
30 - 40
20 - 30
10 - 20
< 10


Zerbitzu-sektoreko langileria Euskal Herriko eskualdeetan (%)
Zerbitzu-sektorean lanean dihardutenak ehunekotan
(langile guztielikiko %)
> 70
60 - 70
50 - 60
45 - 50
40 - 45
< 40

Ekonomia Sailean argitaratu diren beste liburu batzuk

Autonomi ogasunak eta Europako Komunitateko aurrekontuak
Baleren Bakaikoa
1992an argitaratua
ISBN: 84-86967-41-4

Mikroekonomia I
Mikel Zurbano
1993an argitaratua
ISBN: 84-86967-54-6

Industrializaziotik desindustrializaziora. Euskal Herria kapitalismoaren garapenaren testuinguruan
Iban Zaldua eta Mikel Zurbano
1995ean argitaratua
ISBN: 84-86967-67-8

Munduko Ekonomia. Botereak, disparekotasunak eta egonkortasun eza kapitalismo globalean
Mikel Zurbano
1998an argitaratua
ISBN: 84-86967-95-3

Moneta-teoria berrirantz
Joseba Tobar-Arbulu
1999an argitaratua
ISBN: 84-8438-001-7

Kanpo-zorraren patologia
Joseba Tobar-Arbulu
2001ean argitaratua
ISBN: 84-8438-015-7

Ekonomia Sailean Uztaro aldizkarian argitaratu diren artikuluak

Lan-taldeak enpresa txiki eta ertainetan (ETEetan)
Albizu, E.; Barrutia, J.; Basterretxea, I.; Jauregi, J. F.; Landeta, J. eta Mitxeo, J., *Uztaro* **18**, 3-15.

Euskal enpresa eta lankidetza-akordioak
Albizu, E.; Barrutia, J.; Basterretxea, I.; Jauregi, J. F.; Landeta, J. eta Mitxeo, J., *Uztaro* **21**, 35-43.

Balantzeen eguneratzea eta bere eragina urteko kontuetan
Aldazabal, M. E.; Saitua, A., *Uztaro* **25**, 3-12.

Bilboko Burtsa 1992. urtean
Alonso, I., *Uztaro* **7**, 3-16.

Telelana: lan-eredu baten testuingurua
Alonso, I., *Uztaro* **13**, 23-34.

Bioaniztasunaren galera eta jabego eskubideak
Ansuategi, A., *Uztaro* **15**, 3-15.

Industria kulturalaren garapena
Azpillaga, P., *Uztaro* **0**, 7-19.

Betiko bankaren presentzia interneten: bezeroentzako laguntzaren aspektu ezberdinen azterketa konparatiboa
Barrenetxea, M.; Celestino, A.; Etxegarai, O. eta Flores, P., *Uztaro* **39**, 11-25.

Zientzia eta herria. Euskal ekonomilari baten ikuspuntua
Barrutia, X., *Uztaro* **6**, 3-12.

Altos Hornos de Vizcaya-ren berregituraketa
Barrutia, X., *Uztaro* **32**, 3-16.

Transnazionalak eta garapena
Barrutia, X., *Uztaro* **39**, 27-38.

Globalizazioaren inguruko zenbait gogoeta
Bidaurrazaga, E., *Uztaro* **28**, 3-35.

Finantza-aukeren analisia
Bilbao, A., *Uztaro* **22**, 13-39.

Toledoko Hitzarmenaren ondoren, ongizate-maila esku pribatuetan
De la Peña, I., *Uztaro* **40**, 19-36.

Euroa oso gertu daukagu
Erauskin Iurrita, I., *Uztaro* **38**, 3-18.

Ekonomia erregionalari buruzko zenbait ohar: Euskal Herriko kasua
Etxeberria, G., *Uztaro* **2**, 3-18.

Langileen ezagueren erabilera eta berrikuntzara zuzendutako industri politikaren gaurkotasuna Euskal Herriko Komunitate Autonomoaren kasuan
Etxebarria, G. eta Gómez, M., *Uztaro* **1**, 15-33.

Jokabide kodeak, label sozialak eta enpresaren gizarte erantzukizuna nazioartean
Heras, I. eta Errasti, A. M., *Uztaro* **37**, 19-46.

Emakumeok, zientzia eta teknologia
Jubeto, Y., *Uztaro* **33**, 3-19.

Lurretiko elikatura-sektorea, egoera eta perspektibak
Lan Kide Aurrezkia, *Uztaro* **2**, 47-61.

Emakumearen arazo ekonomikoen analisi teoriko orokorra
Larrañaga, M., *Uztaro* **17**, 73-84.

Emakumeen aldeko ekintza positiboen analisia
Larrañaga, M., *Uztaro* **34**, 3-13.

Teknologiaren ekaitzak
Mendizabal, A., *Uztaro* **5**, 3-7.

Europako elkartean sartzeak Euskal Autonomi Elkartean izandako eragin ekonomikoa
Navarro, M., *Uztaro* **2,** 19-35.

Euskal siderurgia: birmoldaketa eta etorkizuna
Navarro, M., *Uztaro* **2**, 37-45.

Iraupeneko nekazaritza-ekonomia eta lurzoruaren narriadura
Pascual, U., *Uztaro* **35**, 19-31.

Inflazioaren teoria integral baterantz
Renteria, X., *Uztaro* **20**, 37-59.

Sistema ekonomikoaren bikoiztasuna eta prezio-kontrolerako teoria bat
Tobar-Arbulu, J., *Uztaro* **1**, 35-51

Plangintza eta merkatua: Kalecki eta Kornai-ren ikuspegia
Tobar-Arbulu, J., *Uztaro* **5**, 9-16.

Zaborkeriak ari bira, dugun egina
Tobar-Arbulu, J., *Uztaro* **7**, 17-29.

Alokairutik langile-subjetibotasunera
Tobar-Arbulu, J., *Uztaro* **8,** 3-17.

Enpresa-berrikuntza eta transferentzia teknologikoa Euskal Autonomi Elkartean
Tobar-Arbulu, J., *Uztaro* **10**, 3-15.

Ecuaren jaulkitzea: analisi ekonomikoaren aplikazio berezia
Tobar-Arbulu, J., *Uztaro* **12**, 3-11.

Nazioaren subirotasun monetarioa
Tobar-Arbulu, J., *Uztaro* **16**, 13-20.

Produkzioaren teoria monetario berrirantz
Tobar-Arbulu, J., *Uztaro* **21**, 21-33.

Kapital finkoa eta inflazioa
Tobar-Arbulu, J., *Uztaro* **30**, 13-41.

Ekonomia *versus* ekologia: historialaritzarentzako zenbait irakaspen
Zaldua Gonzalez, I., *Uztaro* **25**, 13-45.

Hizkuntza-faktorea analisi ekonomikoan
Zendoia Sainz, J. M., *Uztaro* **36**, 3-24.

Administrazio publikoaren kontabilitate-eredu berria
Zubiaur, G. eta Amiano, I., *Uztaro* **29**, 3-24.

Zerbitzuen sektorea: Euskal Ekonomi krisiaren irtenbide?
Zurbano, M., *Uztaro* **2**, 63-82.